

Javier Díaz Noci (coord.)

Rosa Aneiros, Asier Barandiaran, María Dolores Calvo,
Xosé López García, Bernat López, Francesc Martínez,
Próspero Morán, Marita Otero, Fernando Sabés Turmo

Kazetaritza hizkuntza minorizatuetan: Espainiako kasua

Oxornalismo nas linguas minorizadas: o caso de España
El periodismu en llingües minorizadas: el casu d'España
O periodismo en luengas minorizadas: o caso d'España
El periodisme en llingües minorizades: el casu d'Espanya



eman ta zabal gazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Kazetaritza
hizkuntza minorizatueta:
Espainiako kasua

Javier Díaz Noci (coord.)
Rosa Aneiros, Asier Barandiaran, María Dolores Calvo,
Xosé López García, Bernat López, Francesc Martínez,
Próspero Morán, Marita Otero, Fernando Sabés Turmo

Kazetaritza hizkuntza minorizatuetan: Espainiako kasua

O xornalismo nas linguas minorizadas: o caso de España

El periodismo en llingües minorizadas: el casu d'España

O periodismo en luengas minorizadas: o caso d'España

El periodisme en llingües minoritzades: el cas d'Espanya

El periodismo en lenguas minorizadas: el caso de España

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren laguntzaz
argitaratu da.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ilustración de cubierta/Azaleko irudia: *Nor-Nai* (1927), Ignacia Zabalo Ballarín

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-194-7

Depósito legal/Lege gordailua: BI-221-09

Aurkibidea

| | |
|--|-----|
| Sarrera | 9 |
| I. PARTEA. EUSKAL KAZETARITZA | 13 |
| 1. Euskara, lehen eta orain | 15 |
| 2. Euskal kazetaritzaren aurrekinak | 31 |
| 3. Lehen urratsak XIX. mendean | 41 |
| 4. Ameriketako euskal prentsa XIX. mendean | 53 |
| 5. Ipar Euskal Herriko lehen astekari iraunkorrak | 63 |
| 6. Kultur aldizkariak | 75 |
| 7. Prentsa erlijiosoa eta nekazaritzari buruzkoa (1877-1918) | 85 |
| 8. Azkue, kazetaria | 93 |
| 9. Prentsa politikoa eta euskara XX. mendearen hasieran: aldizkari jeltzaleak (1896-1919) | 103 |
| 10. Euskara jeltzale ez ziren beste aldizkarietan (1910-1918) | 131 |
| 11. Euskararen erakundetzea eta euskal prentsaren aro berria (1919-1936) | 137 |
| 12. Gerra aurreko euskal informazio-prentsaren gailurra: <i>Argia</i> (1921-1936) | 147 |
| 13. Aldizkari erlijiosoak (1919-1936) | 173 |
| 14. Prentsa abertzalea (1919-1936) | 185 |
| 15. Ipar Euskal Herriko prentsa gerren artean | 205 |
| 16. Euskarazko komikigintza | 213 |
| 17. Euskara irratian | 229 |
| 18. Euskal prentsa Gerra Zibilean | 235 |
| 19. Gerra Zibilaren ondorengo lehen uneetako prentsa | 259 |
| 20. Euskal kazetaritza lehen frankismoaren garaian | 269 |
| 21. 1950-1959 bitarteko komunikabideak | 287 |

| | |
|--|-----|
| 22. 1960-1974 bitarteko komunikabideak | 313 |
| 23. Gaur egungo euskal kazetaritza | 325 |
| Aurkibide kronologikoa | 373 |
| Bibliografia | 389 |
| | |
| II. PARTEA: ESPAINIAKO HIZKUNTZA MINORIZATUEN KAZETARITZA | 405 |
| 24. O galego na comunicación: Xornalismo en galego | 407 |
| 25. O periodismu en llingua asturiana | 431 |
| 26. El periodismo navarro en lengua vasca | 487 |
| 27. Els mitjans de comunicació en aragonès i en català a la Comunitat Autònoma Aragonesa. Pendants de la futura Llei de Llengües | 521 |
| 28. El cas del català al Principat | 545 |
| 29. El periodisme valencià en llengua catalana | 555 |
| 30. El periodismo en lengua vasca | 585 |

Sarrera

Hizkuntzen, kazetaritzaren eta komunikazioaren historia idazteko modu asko daude. Objektu eta gai asko, helburu oso ezberdin, behar zehatz batzuk asetzeko egiten dira historia ezberdinak une ezberdinetan. Gure liburu hau ikusten genituen behar batzuk asetzera, hutsune bat betetzera, ikuspuntu zehatz bat ematera, eta gai bat aztertzeraz dator.

Europar hainbat hizkuntza daude, estatus juridiko, garapen gramatikal eta erabilera-maila asko dituztenak. Iberiar Penintsula oso aberatsa da ikuspuntu linguistiko batetik. Penintsula horren zati (handi) bat den Espainia ere bai. Estatu espainiarrak, modu batean zein bestean, hizkuntza batzuei ofizialtasunaren estatusa ematen die; beste batzuei, ordea, oraindik ez. Guztiei buruz hitz egin nahi genuke. Horregatik, Espainiar estatuaren hizkuntzei buruz aritu beharrean nahiago izan dugu Espainiako hizkuntzei buruz hitz egitea. Salbuespena gaztelania da, hau da, estatu osoan ofiziala den hizkuntza bakarra; dezente aritu baita horretaz. Gainontzekoei buruz, eta haietan egin izan den eta egiten ari den komunikazioari buruz mintzatu nahi dugu oraingoan. Lehen aldiz, guk dakigunez, konparazio-ikuspuntu batetik.

Euskal Herrian sorturiko obra denez gero, euskarazko kazetaritzak leku handiagoa betetzen du liburu honetan. Bestelako hizkuntzetan egindako kazetaritzei ere atal bana eman diegu. Batzuetan, hizkuntza bat komunitate bat baino gehiagotan mintzatzen da. Horregatik, nahiago izan dugu kapitulu ezberdinetan azaltzea.

Horrela, euskarari buruzko parte bat ez ezik, katalanari, aragoierari, gailegoari eta asturierari buruzko atal batzuk eskaintzen ditugu. Galiziako, Asturiasko, Aragoiko, Kataluniako eta Valentziako egoera linguistikoa eta komunitate bakoitzeko hizkuntzetan egindako kazetaritzak aztertu ditugu. Euskarazko kazetaritza Nafarroan nola garatu den ere bereziki aztertu dugu.

Historiografiaren bide emankor bat azken hamarkadotan historia soziala izan da, eta haren barruan, kulturaren historia dago. Azken korrante historiografiko honen aitzindarietako bat, dudarik gabe, Peter Burke irakasle britainiarra dugu. Burkeren tresna metodologikoak kazetaritzaren historian aplikagarriak direlakoan, gero eta gehiago gara historia sozio-kulturalaren kontzeptuak erabiltzen saiatzen garenok. *Languages and communities in Early Modern Europe* izeneko liburua bereziki interesgarria da gure ikerketa-lanetan kazetaritzaren historia eta hizkuntza lotzen ditugunontzat.

Peter Burke historialariak hizkuntzei buruz idazteko arrazoi sendo bat ematen du: “Zer egiten du kulturaren historialari batek hizkuntzei buruz idazten?”, galdetzen dio bere buruari. “Arrazoi bakar batengatik: hizkuntza kultur aldaketaren adierazle fidel bat delako, eta ez kultur aldaketaren isla hutsa”.

Hizkuntz komunitatearen kontzeptuaren gainean eraikitzen du bere diskurtsoa; oinarritzkoa da Peter Burkeren ikuspuntuan. Kontzeptua (*Sprachgemeinschaft*) historiografia alemaniarretik dator, 1920eko hamarkadan erabiltzen hasi zen eta honela definitu daiteke: “Talde bat [...] non hizkuntza bat edo hizkuntzaren barietate bat erabiltzen eta ulertzen den”, batzuetan “interpretazio-komunitatea” deitzen duguna (Burke, 2006: 11).

Kontzeptu irristakorra, Burkek berak dioenez; kultura eta nortasuna ere halakoxeak dira askotan. Badu abantaila bat: “Benetako komunitateak kaotikoak badira ere, komunitate idealek (‘komunitate asmatuak’, Benedict Anderson-en hitzetan), aldiz, oso muga zehatzak erakusten dituzte”. “Homogeneotasuna, mugapena eta adostasuna ez dira hain erraz aurkitzen ikerketa bat burutzen denean”, eta hori oztopo bat da (Burke, 2006: 12). Horixe gertatzen da muga lausotuko hizkuntzak dituzten komunitateetan. Kasu honetan, adibidez, zailtasun nagusia hiru arrazoitatik letorke:

1) Hiztun, idazle edo kazetari batzuk aurkituko ditugu, jaio edota lan egiten dutenak oso estatu-antolamendu ezberdinetan: euskaldunen kasuan, espainiar eta frantziar estatuetan, edo Estatu Batuetan, adibidez. Horren ondorioz, oso kazetaritza-tradizio ezberdinak aztertu behar ditugu. 1890eko hamarkadan, adibidez, Kaliforniako, Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko kazetagitza erabat ezberdina zen, hizkuntz eredu ere bai.

2) Garai historiko ezberdinetan, oso euskalki ezberdinen erabiltzaileak ditugu. Are gehiago: garai historikoen arabera, hizkuntz barietate horien arteko alde zein parekotasunak azpimarratu izan dira; kazetetan, lehenik eta behin. Gogora dezagun, esaterako, euskarazko aldizkarietan ortografia (hori baino ez) bateratzeko lehen ahaleginek porrot egin zutela, 1901eko Hendaia bilera famatu hartan. Gutxienez, Iparreko kazetariak akordio batera iritsi ziren. Ez zen horrela gertatu, ordea, Hegoan, non Sabino Aranaren ideia linguistikoek (politikarekiko menpetasunagatik) zailago egiten zuten batasun ortografikoa. Euskara batua askoz beranduago taxutzen hasi zen, 1968an. Gaur egun, batuaren onarpen-maila oso altua bada ere, badago euskal kazetaritza bestelako forma dialektal edo tokian tokikoen erabilera, neurri eta forma ezberdinetan.

3) Badago beste faktore bat, kontuan hartzekoa euskal kazetarien kasuan adibidez; ez dira gutxi hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dutenak. Horregatik, Peter Burkek dioenez, “nortasun-ekintza batzuk egiten dituzte, egoeren arabera” (Burke, 2006: 13). Horren ondorioz

diglosia-egoera batzuk gertatzen dira, neurri batean zein bestean. Horren froga garbia: historikoki, kazetari euskaldunek izengoiti batzuk erabili izan dituzte erdaraz zein euskaraz idazteko, komunikabide batean edo bestean agertzeko.

Konzeptu hauetan oinarrituta, eta efektu akademikoetarako, Euskal Herria bere esanahi literalenean hartuko genuke, hau da, “euskararen herria”, “euskaraz hitz egiten duten lagunen multzoa” izango litzateke. Halaxe egin genuen gure doktorego-tesian (*Euskarazko prentsa XX. mendean, 1919-1937*, Leioa, 1992), euskaraz egindako kazetaritza modu orokorragoan aztertu ahal izateko, Hego eta Ipar Euskal Herriko aldizkarietan egindakoa eta baita Parisen, Berlinen, Kalifornian edo Mexikon argitaratutakoetan ere.

Burkek hizkuntzen historia kultural bat proposatzen duen modu berean, harantzago joan gintezke eta hizkuntza batez egindako kazetaritzaren historia sozio-kulturala egin zitekeela defendatzen dugu. Ez ditugu alde batera utzi behar beste diziplina batzuetatik datozen kontzeptuak, esate baterako Harold Innis-enak (Burke, 2006: 109). Autore honek 1951n *The bias of communication* bere liburuan komunikabideek aldaketetarako joera erakutsi ohi dutela esaten zuen, iraultzez (adibidez, inprentarenaz) mintzatzen direnen determinismoa moderatuz. Zeregin hau zailago izan daiteke estatudun hizkuntzen kasuan –zilegi liteke, hala ere, kasu hauetan ere planteatzea–, are gehiago estatu batean baino gehiagotan mintzatzen diren hizkuntzen kasuan (gaztelania, esaterako). Errazago dirudi estaturik gabeko hizkuntzen kasuan edo, estatu izanda, egoera minorizatuan dauden hizkuntzen kasuan. Espainiar estatuko hizkuntzek badute estatu bat, espainiarra, eta nola edo hala erakunde autonomikoek estatu horren izenean eta delegazioz hainbat eskuduntza dituzte, legeari dagokionez. Kasu batzuk aztertuko ditugu. Ikerketa konparatuak emango digu, gure iritziz, zenbait giltzarri hizkuntz komunitate ezberdinetan komunikazio-sistemak nola garatzen diren eta hizkuntza eta kultur politika ezberdin nola bizi diren adierazi ahal izateko.

Gure ustez, ikuspuntu honetan oinarrituta, etorkizunean Penintsulako hizkuntzen (portugesak eta gaztelania barne) kazetaritzaren historia konparatua egin daiteke. Has gintezke egoera minorizatu batean bizi direnekin: galegoa, asturiera, euskara, katalana, aragoiera eta aranesa (okzitanieraren kasua, bide batez esanda, ezin interesgarriagoa da). Lege-egoera, ofizialtasun-maila, gramatikalizazioa, kazetaritzaren eta literaturaren garapena, hiztunen kopurua aztertzeak oso koadro konparatibo aberatsa emango liguketelakoan gaude.

Begi-bistan dauden datu batzuk baino ez aipatzearren: hizkuntza latindarren eta euskararen arteko aldeak. Historikoki, hizkuntza latindarrek (latinarene ondorengoak diren heinean) presentzia eduki dute administrazioan eta kulturaren, gaztelania nagusi bihurtu arte. Hor atzean oso arrazoi

konplexuak daude, bere dimentsio osoan aztertu beharko genituzkeenak – adibidez, hiztunen jarrera. Hizkuntza minorizatu hauek guztiek berreskuratze-prozesu bat bizi izan dute, eta bizi dute. Hizkuntz komunitate baten parte sentitzeko urguilua berreskuratu da, garai ezberdinetan eta ezaugarri ezberdinekin: Renaixença katalana, Euskal Pizkundia edo letra gailegoen Rexurdimento delakoa, esate baterako. Asturiera eta aragoiera, bestalde, beranduago iritsi dira prozesu horietara; bere autonomi erkidegoetan ez dira erabat ofizialak, eta orain ere Penintsulako beste hizkuntza batzuek gainditutako zailtasunak jasaten dituzte.

Badaude ikertu beharreko beste gai batzuk. Esate baterako, zein da kazetaritzaren zeregina nortasunak, gizarteak, irudi kolektiboak eraikitzeke orduan? Zein hizkuntzaren barietate estandar bat (edo batzuk) gramatikalizatzeko orduan, dialekto edo soziolektoak erabiltzeko orduan, akademiak sortu edo prestigioa emateko orduan? Zeintzuk dira kazetaritzak hizkuntza arautzeko orduan erakunde politiko-administratiboekin dituen harremanak? Zeintzuk bestelako erakundeekiko erlazioak: erlijioarekin, adibidez? Merezki du, gure ustez, konplexurik gabe egitea: ez litzateke izango, beraz, “hizkuntza nazionalen hazkunde organikoaren historiak” egitea, “garbitasun linguistikoaren kezka forma” hartzen badute ere (Burke, 2006: 194), komunitate eta identitateen ikuspuntutik historia sozial bat egitea baino.

Onuragarria, eta justua azken batean, iruditu zaigu autoreek beren hizkuntzan (edo, hobeto esan, nahi zuten hizkuntzan) atala idaztea. Askatasuna erabatekoa izan da, alde horretatik. Horregatik, gailegoek gailegoz, katalanez hitz egiten duten autore katalan, valentziar edo aragoarrek katalanez (Aragoiko kasuan, sarrera bat aragoieraz), eta asturiarrak asturieraz idatzi dituzten haien kapituluak. Hizkuntza latindarrak izanik, uste dugu arazo handirik gabe irakurriko duela Penintsulako edozein hizkuntza latindarrez hitz egin edo irakurtzen duenak; euskara latindarra ez izanik, aldiz, gainontzekoentzat ulertezina denez, erabaki dugu lehen partearen laburpen luze bat (beste atal bat bailitzan) gaztelaniaz eskaintzea; baita Nafarroako euskal kazetaritzazkoa ere. Azken batean, hizkuntzak errespetatzea eta bultzatzea bilatzen dugu, eta, aldi berean, ahalik eta irakurle gehienek ulertu ahal izatea.

Javier Díaz Noci
Leioa, 2008ko maiatza

I. partea
Euskal kazetaritza

1

Euskara, lehen eta orain

1.1. Euskara

Euskara¹, baita *euskera*, *eskuara* edota *uskara* deitua euskalki ezberdinetan, latinetik ez datorren Iberiar Penintsulako hizkuntza bakarra da. Ildo ezezaguneko hizkuntza dugu euskara, baina ez isolatua; inguruko hizkuntzetatik eraginik jaso eta jasotzen du, eta hizkuntza haietan ere, neurri batean zein bestean, eraginik izan du euskarak. Penintsulan hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzak ez bezala, euskarak ez du “latinen” arteko borrokan parte hartu. Erromak Hispania deitzen duen lurraldeko probintzietan, latina inposatu zen administrazioaren eta kulturaren hizkuntza gisa; Inperioaren latinetik hizkuntza neolatindarrak datoz. Hauek sortu ahala, eta latina bera desagertu eta hizkuntza hil bihurtu ahala, erabilera haietan beren lekua hartu zuten. Era honetan, euskararen herrian (hau da, Euskal Herrian) erakundeak, garai modernoak arte, erromantze nafarraz, gaskoieraz, gaztelaniaz edo frantsesez mintzatu dira; Nafarroako Forua, Nafarroa Beherako *fors e costums*, Bizkaiko eta Arabako foruak, idatziz iritsi zaizkigun testu juridiko-administratibo guztiak, hizkuntz barietate latindar batez idatziak jaso ditugu, salbuespenak salbuespen (Treviño, 2001).

Kultur hizkuntza gisa, kultura idatziari dagokionez behintzat, euskara inprimaturik manifestazioetan gainontzeko hizkuntzak baino beranduago agertu da. Euskaraz inprimaturiko lehen liburua 1545koa da. Aldizkarietan ere berdin: gero ikusiko dugun bezala, aldizkari batean euskarazko lehen testuak 1834koak dira; euskara hutsezko aldizkari bat argitaratzeko lehen

¹ Erdaraz ere hainbat izen jaso ditu: horietako bat *vascuence* izan da. Koldo Mitxelena (Mitxelena, 1984) zioen gaztelaniazko termino unibokoena, *euskara* eta *euskaldun* hitzen truke, *vascuence* eta *vascongado* direla. Hala ere, jarraitzen zuen Mitxelena, “desde hace algún tiempo, al menos desde el siglo pasado a juzgar por los escritos de Arana Goiri, hay miembros de nuestra comunidad a los que parece sonarles mal, casi a injuria, tanto *vascuence* como *vascongado* [...]. Esa pérdida ha tratado de ser compensada por medios artificiales”.

saiakera 1848koa da; eta euskara hutsezko lehen egunkaria 1937an agertu zen. Lehen euskara hutsezko egunkari egonkorra 1990ean hasi zen agertzen.

1.1.1. Historia

Euskara oso hizkuntza zaharra dela dagoeneko topiko bat da. Erromatarrak gaur egun Euskal Herria deitzen dugun lurraldeetara etorri zirenean mintzatzen zen eta, toponimiari jaramonik egingo badiogu, euskara edo familia bereko hizkuntzak gaur egungo Akitania eta Piriniotako lurraldeetan ere mintzatzen ziren; “Aran” hitzak, esate baterako, gaur egun euskaraz duen esanahia bazuen; *Vall d’Aran*, beraz, errepikapen hutsa da.

Euskara gaur egun ezagutzen ditugun hizkuntzekiko senidetasuna argitu gabe dago, eta bere ingurukoekin konparatuta erabat ezberdina da. Ez da, edozein kasutan ere, hizkuntza indoeuropar bat. Bere egitura, hizkuntza latindarra ez bezala, ez da SAO (subjektua-aditza-objektu zuzena), baizik eta SOA (subjektua-objektu zuzena-aditza). Penintsulako hizkuntzekiko ezberdintasun batzuk honako hauek dira:

- Euskarak aditz-egitura iragankorra eta ez iragankorrak ditu; lehen kasuan, ergatiboa (-k, -ek) eta aditz laguntzaile ezberdinak erabiltzen dira (*gizona etorri da* eta *gizonek egin dute*).

- Aditz-laguntzaileen artean objektu zuzeneko markak eta, iragankorren kasuan, numeroko markak agertzen dira (*gizonak liburu bat ekarri du*, *gizonak liburu batzuk ekarri ditu*).

- Aditzaren barruan igortzailearen markak agertzen dira: (*amak semeari liburu bat eman zion*, *amak semeari liburu batzuk eman zizkion*).

- Atzizkien erabilera (-eral/-etara/-tara, -arekin/-ekin, -eko/-etako/-tako, kasu guztietan singularrean, pluralean eta mugagabeen) halako deklinabide gisa.

- Artikulu zehaztuaren posposizioa (*gizon*, *gizona*, *gizonak*).

- Hitanoa, hau da, konfiantzako tratamendu etiko edo alokutiboa (aditz-laguntzailearen barruan solaskidearen genero-marka agertzen da): modu neutroan *ni etorri naiz*, *nik ekarri dut*, emakume batekin hitz egiten dugunean *ni etorri naun*, *nik ekarri dinat*, gizon batekin hitz egiten dugunean *ni etorri nauk* eta *nik ekarri diat*.

Hiztegiari dagokionez, kalkulatu izan da latinaren eta hizkuntza neolatindarren eragina %40koa izan daitekeela. Kasu batzuetan, maileguak oso goiz agertu ziren, hizkuntza neolatindarrak sortu aurretik: *eliza* (latinezko *ecclesiatik*), *bide* (latinezko *víatik*), *baratza* eta *ortu* (latinezko *paradisum* eta *hortum* hitzetatik), *bakea* (latinezko *pacemetik*), eta abar.

Euskara, hala ere, idatziz oso berandu arte gutxi dokumentatutako hizkuntza da; beste modu batez esanda, suposatzen da hizkuntza oso zaharra

dela, baina lekukotasun idatziak, aldiz, gazte samarrak. Gaur egun, erabat baieztatu diren lehenengoak Kode Emilianensean agerturikoak dira, X. mendearen erdialdekoak, gero erromantze gaztelania izango zenaren lehenengo esaldiekin batera. Euskarazko bi esaldiak (“Izioqui dugu” eta “Guec ajutu ez dugu”), eta erromantzekoak Donemiliaga Kukuilako monasterioko eskolar batek omen idatziak dira, esku berekoak dira alegia. Horrek ziurtatuko liguke zonaldeko toponimiak ere baieztatzen duena, gaur egungo Errioxa altuan euskaraz hitz egiten zela, eta orduko elebitasun ohikoaren froga dira.

Edozein kasutan ere, denbora luzean testigantza idatzirik gabeko historia denez gero, euskararen garapena ezezagun samarra da Erdi Aroa arte, ordukoak baitira ezagutzen ditugun lehengo kantu, eresi eta baladak. Ahozko tradizioetik jasoak dira eta, berez, geroagoko aldaketak izan ditzakete. Kazetaritzaren historiaren ikuspuntutik, euskaraz aipa daiteke bereziki, izenburua gaztelaniaz badago ere, *Ystoria de la quema de Salvatierra*, Arabako Larreako dorreko jauna zen Juan Pérez de Lazarragak sutea bera gertatu zen urtean, 1564an idatzia. Eskuizkribu bat da, zabalkunde ezezagunekoa, 1564-1567. urteen artean omen idatzia, arabar noble haren gazte-denborako artzain-eleberri baten zirriborroa eta hainbat poesia laiko eta amodiozko biltzen dituen koaderno batean dagoena. 2004an aurkitu eta ezagutzera eman zen. Aguraingo suteari buruzko poemak, nolabait, albisteaz informatzen du. Aurreko bi mendeetako kantu epikoen antzera idatzia da. Gaur ezagutzen ditugun narrazio-balada zaharrenak XIV-XV. mendeetakoak dira, gehienak mendebaldeko euskalkiaz idatziak: Beotibarreko (1321), Akondiako (1390), Urrexolako (1388-1401) eta Mungiako gatazkei buruzkoak dira; Arrasateko erretzeari buruzko erromantzea, Gipuzkoako hiri hau ganboatarrek nola erre zuten eta oinaztarrek nola mendekua hartu zuten kontatzen duena 1448koa da². Bereterretxeren kantorea, zubereraz idatzia 1450ean, ahozko euskal literaturaren lorpen harrigarrietako bat, askotan “albiste-erromantze” bat dela esan dute adituek (Lakarra *et al.*, 1983).

Euskarak geografian atzera egin du gutxienez azken 500 urteotan (Arejita, Manterola, Oar-Arteta, 2007, *passim*). Badugu, adibidez, Niccolo Landucciren lekukotasuna. Gasteizetik pasatu zen 1562an, eta euskarazko hitz eta esaldi batzuen glosa-bilduma edo hiztegitxo bat egin zedin agindu

² Horiek guztiak irakur daitezke MICHELENA, Luis. *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro, 1964, eta SARASOLA, Ibon. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*. San Sebastián: ASJU, 1983 liburuetan. Bi monografia hauek gero liburu berean bildu ziren *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, XI.

zuen. Argi uzten du gasteiztar gizatalde altuek, Gaztelarekin tratuak egiten zituztenak, nahiago zutela publikoki euskaraz ez hitz egitea. Araban hitz egiten zen euskalkitik, beraz, hitz eta esaldi berezi batzuk, Landucciren hiztegitxotik atereak, baino ez dugu ezagutzen. Bilbon ere berdin gertatu zen. Euskal Herriko jendeak berak bere herrikide euskaldunak mesprezitzen dituzte; Bizkaiko Batzar Orokorretako aktetan ez dira arraroak gaztelaniaz hitz egiteko gai ez zirenak hautagai izan ezin zirela zioten akordioak. Prozesu honen ondorioz, faktore askorengatik gertatu dena (exogeno zein endogenoak), euskarak prestigio txikiko hizkuntza izan da historian zehar. Euskaldunon hizkuntza erabiltzeko orduan gertatu izan diren duda-muden adibidea da Euskal Herriko ilustratuen jarrera. XVIII. mendean, Xabier María de Munibe Peñafloredako kondea eta Real Sociedad Bascongada de Amigos del País delakoaren sortzaileak bere ama-hizkuntzan opera bat idatzi nahi izan zuen (*El borracho burlado*, 1764). Gipuzkoako euskalkien artean bi barietateetan ez hautatzeko, nahiago izan zuen dena erdaraz hutsez egitea, entzuleek bestela ulertuko ez zutelakoan. Zati mintzatuak (gehienak) gaztelaniaz eta zati kantatuak euskaraz idatzi zituen azkenean. Jarrera diglosiko hori euskararen historia oso arrunta da.

Euskalki, azpi-euskalki eta tokian tokiko barietateak, batzuetan oso ezberdinak, euskararen beste ezaugarri bat dela esan ohi da. Zatiketa dialektal hori nahita bultzatu da askotan: XIX. mendean oso normala zen bizkaierazko idazleen obrak gipuzkerara itzultzea, eta, neurri txikiago batean, alderantziz ere bai. Euskalkiak (ordurako batzuk, Arabakoa esate baterako, desagertuak ziren) Louis Lucien Bonaparte printzeak identifikatu zituen XIX. mendearen bukaeran. Gure egunetan beste mapa bate egin du Koldo Zuazo irakasleak. Euskalki batzuk nagusitu dira prestigiozko barietate gisa..

Euskaraz inprimatutako lehen liburua *Linguae Vasconum Primitiae* da; esanguratsua da nola Euskal Herritik kanpo argitaratu zen, Bordelen, 1545ean. Liburua Beñat Etxepare (Bernard Dechepare, orduko idazkera erabiliz) apaizak idatzitako poema laiko eta erlijioso batzuek osatzen zuten. Etxeparek bere euskalkia erabili zuen, Nafarroa Behereko barietate bat. Laster, ordea, euskal idazleak konturatu ziren hizkuntz aniztasuna gainditu eta dialektoez gairik barietateak sortu behar zituztela, edo bestela tokian tokiko barietate bat literatur hizkuntza gisa aukeratu. Lehen konponbidea da Joanes Leizarraga apaiz kalbinistak proposatu zuena. Nafarroako erregina zen Joana d'Albretetik agindu zion XVI. mendean Testamentu Berria euskaraz itzultzea, 1571. urtean. Leizarragak erabaki zuen euskaraz izena ez zituzten kontzeptuak izendatzeko kultismoak eta latinismoak erabiltzea, eta halako *koiné* bat sortzea.

Beste apaiz batek, aldiz, katolikoa kasu honetan, erabaki zuen, beste idazle euskaldunekiko bilera batean, garaiko euskaldunentzako liburu bat

idaztea. Pedro Agerre *Axular* zen. Lapurdiko herri bateko erretorea zen, Sarakoa, eta bertako barietatean erabaki zuen bere liburua idaztea. Horrela argitaratu zen euskal literaturaren lan nagusizat hartzen dena, *Gero* (1644), eta berarekin batera hasi zen Sarako eskola. Horrela hasi zen kostaldeko lapurteraren nagusitasuna.

Hala ere, hegemonia ekonomikoa Ipar Euskal Herriatik Hego Euskal Herriara pasatu ahala, beste hizkuntza barietate batzuk nagusitu ziren euskalki literario gisa. 1729an euskararen lehen gramatika argitaratu zen: Manuel de Larramendi jesuitaren *El imposible vencido*. Larramendik hitz egiten zuen euskalkiaren gainean eгина da, Beterriko gipuzkeraz alegia. Laster, literatur prestigiozko barietate nagusi bihurtuko da.

Hiru urtetan, XIX. mendearen erdialdea arte behintzat, euskal idazleak elizgizonak izan ziren, nagusiki. Oso gutxi dira idazle laikoak edo gai laikoei buruzko liburuak egin zituzten idazleak. Horietako bat Arnaud d'Oihenart (1592-1667) abokatu zuberotarra dugu, amodiozko poema kultistak idatzi zituen XVII. mendean. Horretaz aparte, antzerki-lanak oso gutxi dira XIX. mendea arte. Lehenago, Arrasateko eskribaua zen Pedro Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* izeneko antzezlan aipatu behar da, XVIII. mendekoa. Eleberri antzeko zerbait ere ez dago. Ordura arte, euskal literaturaren historiek dotrina kristau eta katiximak kontuan hartzen dituzte; ospetsuena, Astete apaizaren katiximaren itzulpena, euskararen euskalki ezberdinetara eгина dugu.

XIX. mendean, euskal literaturan erromantizismoaren eragina mugatua da. Apaiz katolikoaren eskuetan zegoen, neurri handi batean, euskarazko literaturak ezaugarri erreazionario samarrak erakusten ditu, Iraultza frantsesaren aurkako erreakzioa egiten baitute. Mende hartako euskal liburuak ezagunenetakoa bat Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* da. Peru Abarka *euskaldun-fededunaren* pertsonaia paradigmaticoa da; jakina, nekazaria da, ez hiritar bat. “Basarteko unibertsitetean” hazi da, han non, Mogelen ustez, euskara onena mintzatzen den, ez hirian. Peru halako “salbai ona” da. Beste Mogeldar batzuk ere euskal idazleak izan ziren, hala nola Juan Antonioren ilobak ziren Bixenta (euskaraz idatzi duten lehen emakumeetako bat, Lafontaineren antzerako alegi moralak idatzi zituen) eta Juan José, *Baserritar nequezaleentzaco escolia, edo icasbidia guraso justu ta jaquitun familija ondo azi ebeeneen exemplu ta eracutsijetan* (1816) liburuaren egilea. Haiek ere “alderantziko erromantizismoa”ren erakusgarriak dira: aipatu dugun azken liburuaren protagonista nekazari bat da. Emaztea eta senideak hil zaizkio; erromantizismoan hain tipikoa zen desolamenduan erori beharrean, gaitzak egonarri kristauaz eramaten bazekien.

Mogeldarrek, eta garai hartako beste idazle batzuek ere, Pablo Pedro de Astarloa apaizak batik bat, bizkaiera (edo, hobeto esanda, mendebaldeko euskara) literatur hizkuntza gisa aurkezteko pausak eman zituzten. Astarloa euskararen sorrerari buruzko teoria xeble batzuen autorea da; Paradisuko hizkuntzetako izan zela esan zuen. Bere obra nagusia 1801eko *Apología de la lengua vascongada* da. Orduan agertu ziren mendebaleko euskalkiari buruzko, eta oro har euskararen erabilerari buruzko bi jarrera oso ezberdin: Astarloa, Mogel eta beren epigonoak saiatu ziren beren eredia gipuzkeratik ahal eta gehien aldentzen; Añibarro apaizak, aldiz, eredu integratzaile bat proposatu zuen. Sabino Arana Goiri eta bere jarraitzaileak lehen ereduaren aldekoak izan ziren. Resurrección María de Azkuek, Miguel de Unamunoren eta Sabino Aranaren aurka lehen euskara katedra lortu zuena, Añibarro izango du eredu.

XIX. mendearen hasieran, Wilhelm von Humboldt jakintsu alemaniarrek pare bat aldiz etorri zen Euskal Herrira. Euskararen ezaugarriek eta exotismoak miretsita zegoen. Louis Lucien Bonaparte printzearekin batera, komunitate zientifiko nazioartekoaren euskararenganako interesa piztuko du. Euskarari buruzko lehen argitalpen zientifikoa, lehen aldizkari akademikoa, Berlingo *Euskara* izeneko izango da, 1896an.

1876ko uztailaren 21eko legeak, Antonio Cánovas del Castilloren gobernuarena, Euskal Herriko foruen galera ekarriko du, kontzertu ekonomikoaren sistema eratu bazen ere. Orduan ere hasi zen euskal errenazimendu kulturala. Urtebete geroago, 1877an, Nafarroako Euskara Elkargoa sortu zen; sortzaileen artean, Arturo Campión idazle historizista (gaztelaniaz idazten zuen), euskararen galeragatik oso kezkatua. Elkargoaren pentsamoldearen oinarrian, hizkuntzaren defentsa, nortasun kolektibo eta kontzientzia historiko propioaren ezaugarri gisa. Une hartan, Antonio Elorzak zioenez, “se integran definitivamente con el fuerismo dos corrientes ideológicas acuñadas en los años centrales del siglo, y aparentemente sin contenido político. Una, el ruralismo que desde fuentes diversas como Antonio de Trueba o Fermín Caballero acaba por fijar un estereotipo sumamente útil al servicio de una conciencia nacional surgida como rechazo del proceso de industrialización. Otra, la literatura historicista y legendaria de sesgo postromántico que cubre para Euskal Herria un papel similar, aunque algo más tardío en el tiempo, que en otras culturas nacionales europeas” (Elorza, 1978: 17). 1878 eta 1883. urteen artean, Euskara Elkargoak *Revista Euskara* argitaratu zuen. Batez ere, literaturari buruzkoa. Bertan agertu ziren testuen laurdena euskaraz zegoen, batez ere ipuinak eta olerkiak. Euskara Elkargoa politika egiten saiatu zen, arrakasta gutxiz.

Euskarak, eta bere euskalkiek, estandarizazio handi bat lortu zuten Campiónen *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*

(1884) liburuarekin. Campiónek bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera aintzat hartu zituen.

Literatur pizkundeak, Penintsulako eta Europako beste hainbat lekutan bezala, lore-jokoetan adierazpide bat aurkitu zuen. Ipar Euskal Herrian, Antoine d'Abbadiek antolatuek oihartzun handia izan zuten; Hegoan, José Manterolak antolatuak dira ospetsuenak. *Revista Euskararen* ondoren beste aldizkari literario eta kulturalak agertu ziren. Ezagunena XIX. mendearen bukaerako *Euskalerrriaren Alde* da. Bere orrialdeetan agertu zen euskarari buruz bere zuzendaria zen José Manterolak idatzi zuen olerki bat, zeinaren izenburua ezin esanguratsua den: *Post tenebras spero lucem*.

Bitartean, Ipar Euskal Herriko literaturak bere bidea jarraitzen du. Ezau-garri nagusia, euskarazko kazetaritzan erreproduzituko dena, polarizazioa da. Iparrean errepublikazaleen eta Errepublikaren aurkako kontserbadoreen artekoa izango da (xuriak eta gorriak). Askotan, literatura erlijiosoa Errepublikaren aurkako izango da oso; laizismoa, orduan, agertzen hasiko da euskal letretan. Erlijiosoen artean, hedapen handia izan zuten Michel Elissamburu apaizaren *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan* eta *Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*; laikoen artean, *Piarres Adame* pikaroaren ibilaldiak kontatzen dituen eleberritxoak da famatuena. Bere autorea Michelen lehengusua zen Jean-Baptiste Elissamburu. XIX. mendearen bukaeran agertu ziren biak.

XIX. eta XX. mendeen arteko uztartzean, izen handi bat agertu zen: Resurrección María de Azkue. Lekeition jaioa, Bilbon apaiz, musikografoa, filologoa, kazetaria, Bizkaiko Foru Aldundiaren euskal katedra bereganatu zuen, esan bezala, Miguel de Unamunorekin eta Sabino Aranarekin lehiatuz. Lehenengo ikastolak sortu zituen, gramatikak eta hiztegiak argitaratu, eta 1919an Euskaltzaindiaren lehen zuzendaria izan zen.

1901ean Ipar Euskal Herriko idazle eta kazetariak Hendaian bilera bat egitea proposatu zuen, euskarazko aldizkarietako idazkera batzeko. Sabino Aranaren ideia linguistiko berezien aldeko lagun askoren presentziak beldurtuta, Hegoko idazle-kazetariekin ez dute adostasunik lortzen. Iparrean halako batasun bat lortuta, hegotarrak hasi ziren hizkuntzaren batasuna egiteko oinarriak jartzen. *Euskal Esnalea* elkarte eta izen berdineko aldizkaria sortu ziren, biak Gregorio Mujikaren eskutik. Julio de Urquijok *Revista Internacional de los Estudios Vascos* sortu zuen, 1918an Eusko Ikaskuntza eratu zenean bere organoa bihurtuko zena. Eusko Ikaskuntza Institut d'Estudis Catalans delakoan inspiratu zen. Urtebete geroago, bere eskutik, Euskaltzaindia ere hasi zen lanean.

Lehenengo garaian, Gerra Zibila arte, Euskaltzaindiak ortografia bateratu bat proposatzea lortu zuen, gehienek nahiko ondo onartu zutena. Hala ere, euskara batu edo literario bati buruzko akordiorik ez zuen lortu. Inkesta bat

egin zuen akademiak horri buruz zerbait esan zezaketen idazle eta jakintsuen artean, eta oso iritzi ezberdinak jaso zituen. Batzuek, Urquijok adibidez, eredu klasiko bat proposatu zuten (Leizarragarena); beste batzuek bariedade berri bat sortzea nahiago zuten, euskalki ezberdinak batuz; beste batzuek, azkenik, euskalki bat oinarri hartuta gainontzekoen ekarpenekin literatur hizkuntza bat egitea nahiago zuten. Azkuek proposatu zuen irtenbidea horixe zen; bizkaieraduna izan arren, *gipuzkera osotu* baten aldekoa zen, Donostiako *Argia* aldizkarian (1921-1936) erabiltzen zen ereduari inspiratuta. Astekariaren sortzaile nagusietako bat izan zen Bittor Garitaonandiaren iritzia ere berdina zen, bizkaitarra eta bizkaieraduna bazen ere.

Bitartean, Iparrean dialektoez gaindiko beste bariedade edo *koiné* bat egin zuten, eta 1945ean kodetuta gelditu zen. Batik bat *Eskualduna* astekarian (1883-1944) sendotu zen eta gero, behin agintari frantsesek itxita II. Mundu Gerran nazien alde agertzeagatik, *Herria* astekarian. Azken aldizkari honen zuzendaria eta sortzailea izan zen Piarres Lafittek argitara eman zuen nafarrera-lapurtera literario izeneko bariedade idatzia.

1.1.2. Gaur egungo erabilera-maila

Gerra Zibilak eta frankismoak ez zuten Euskaltzaindia bertan behera utzi, baina bai oso egoera ahulean. Eusko Ikaskuntza, aldiz, debekatu zen, eta intelektual euskaldun asko gerran hil edo erbestera joan ziren. Gerra ondorengo euskal literaturaren figura handienetako bat Nikolas Ormaetxea *Orixe* izan zen. Beste batzuk ere sortuko dira; esaterako, Andima Ibinagabeitia edota Jokin Zaitegi. Euskarazko literatura, batik bat, atzerrian argitaratuko da urte ilun haietan. 1960eko hamarkada arte ez dira ozenki entzungo Hego Euskal Herrian euskararen aldeko ahots batzuk. Joxemiel Barandiaran, batik bat, aipatu behar da. Nafarroako Unibertsitateko euskal katedra eskaini zioten. Francoren erregimenarekin kritikoa izan zen Antonio Tovar falangista ohiak ere Koldo Mitxeleneri Salamankako Unibertsitatean filologia irakastea eskaini zion.

Mitxelena euskal filologiaren figura handia izango zen, eta euskara batua-
ren bultzatzaile nagusietako bat. Erabilera jasoetarako hizkuntza bateratua izango zen frankismoaren azken urteetako behar bat, Gabriel Aresti bilbotarra bezalako idazleen belaunaldiek hala eskatuta. Euskaltzaindiak 1968an Arantzazuko Kongresua antolatuko du, eta bertan hasiko da euskara batuaren ibilbidea. Ez ziren, ordea, kritikak eta mesfidantza falta: aurreko belaunaldietako idazle zahar batzuek ez zuten eredu berria onartu eta beste akademia alternatibo bat, Euskerazaintza, sortu zuten. Erreforma batzuek eztabaida bortitzak eragin zituzten; *h* hizkiaren presentzia, esaterako, Bidasoaz harantzagoko euskaldunek hitz batzuen hasieran (*hau, hori*) edo kontsonante

batzuekin batera (*epherra, ekharri, ethorri*) erabiltzen zutena, eta euskalki batzuetan soinu hasperendun bat errepresentatzen zuena, Hegoan ez zen erabiltzen. Euskaltzaindiak hala moduzko konponbide bat proposatu zuen, belaunaldi zaharrek idazle batzuek *komunistatzat* hartu zutena.

Erabat ondu gabe dagoen prozesu bat bada ere –adibidez, 1994ko Leioako Kongresua arte ez zen hitanoa estandarizatu– barietate berriaren onespena oso altua da. Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko estatutuek diote hizkuntza kontuetan Euskaltzaindia dela organo gorena; bietako toponimia ofiziala, esaterako, Akademiak erabaki du. Euskara batua oso hedatua dago hezkuntzan eta komunikabideetan, batik bat Euskal Irrati Telebistan eta *Berria* egunkarian. Hegoan behintzat, ofizialtasunak aurreko garai historikoetan bultzada ezezaguna jaso du euskarak.

Aldi berean, euskalkiek (eta tokian tokiko barietate batzuek ere) bizirik dira, eta nola edo hala hezkuntzan eta komunikabide batzuetan erabiltzen dira. Bizkaieraren forma estandarizatuak badaude. Tokian tokiko komunikabide batzuek bertako barietateak erabiltzen dituzte, batuarekin batera, ikuspuntu linguistikotik konponbide diskutigarriak badira ere. Hala nola, fonetismoak edota laburdurak erabiltzen dira, erregulartasunaren kaltez: *ein dittut* edo *afarixe* bezalako formak, *egin ditut* edo *afaria* erabili beharrean, esaterako. Ipar Euskal Herrian, bestalde, batuaren erabilera murriztagoa da.

1.1.3. *Gaur egungo egoera juridikoa eta demografikoa*

Euskararen egoera juridikoa oso ezberdina da mintzatzen den lurraldeetan, segun zein den bakoitzaren antolaketa politiko-administratiboa. Babespen juridikoa handiagoa da Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan Ipar Euskal Herrian baino, azken hau frantziar estatuko Pirinio Atlantikoen departamentuan sartua baita. Azken urteotan, aldiz, baita bertan ere arau-garapena handixeagoa izan da; esaterako, Euskaltzaindia errekonozitu du Frantziako gobernuak.

Espainiar estatuko erkidegoetan, aldiz, egoera juridikoa oso ezberdina da, bi eredu erabat ezberdin aukeratu baitira. Bietan, euskara eta gaztelania ofizialkideak dira. Gogora dezagun, bestalde, 1978ko espainiar Konstituzioak bere 3. artikuluan dioela derrigorrezkoa dela gaztelania ezagutzea, autonomi erkidegoetako hizkuntza ezberdinak ezagutzea aldiz, eskubide bat dela. Horrek, zer esanik ez, babespen juridiko oso ezberdina ematen die gaztelaniari eta bestelako hizkuntzei.

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoaren 1979ko estatutuak euskara bere lurralde osoan ofizialkideak dela dio. Hizkuntz Arandia garatzen duen

1983ko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Legeak, beste gauza batzuen artean, EHAeko biztanle guztiek administrazioaren aurrean euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko eskubidea dutela dio, eta administraziotik erantzuna edozein hizkuntzetan jasotzeko eskubidea ere bai.

Nafarroako Foru Erkidegoak, aldiz, eredu ezberdin bat eratu du. 1986ko Euskarari buruzko Legeak 1982ko Foruaren Hobekuntzan jaso zen koofizialtasuna garatu zuen. Nafarroa hirutan banatu zuen: zonalde euskalduna (Iparrean, non biztanleria nafarraren %11 bizi zen), mistoa (erdialdekoa) eta ez euskalduna (Hegoalde osoa). Hiritar euskaldunek administrazioaren aurrean duten eskubideen osotasuna lehen zonaldea bakarrik errekonozitzen da.

Euskara mintzatzen den frantziar estatuko lurraldeetan (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan) 1992an egin zen Konstituzioaren erreformatik euskara Errepublikaren hizkuntzetariko bat dela onartzen da, lege-babespena frantsesak bakarrik jasotzen badu ere; gainontzekoak toleratzen dira, horregatik haien garapena hizlarien eskuetan dago batik bat.

Euskararen ezagupena eta erabilerari dagokionez, argi dago handiagoa dela lehena bigarrena baino. Belaunaldi berriek hizkuntza ikasi (eta hizkuntzaz ikasi ere) egiten dute hezkuntza-sare publikoan, eta, beraz, ezaguera oso hedatua dago. Eguneroko erabilera harreman sozial, familiar eta adiskideen artekoan, aldiz, ezagupen hutsaren mailatik oso urrun dago. Estatistika ofizialetatik hartutako datu batzuek euskararen ezagupen eta erabileraren arteko alde handiaren zergatia eta azken urteetako garapena ulertzen lagunduko digute.

Euskaraz mintzatzen diren hizlarien kopurua zehaztea zaila bada ere, hizkuntzaren presentzia mantentzen den lurralde guztiak hartuta 800.000, beharbada milioi batekoa izango litzateke. Estatistikek erlatiboki laguntzen dute, askotan lagunei galdetzen baitzaie ea hizkuntza ezagutzen duten, eta haien erantzuna izan daiteke baietz, esaldi bakan batzuk ahoskatzeko gai badira ere; noizbehinkako hizlaritzat izan dezakete haien burua. Horregatik, hurrengo datuetan nahiago izango dugu benetako erabilerari erreparatzea, ez-garrantzitsua bada ere, zer esanik ez- hizkuntzaren ezaguera pasibo hutsari, oinarritzakoak zein goragokoak izan baitaitezke.

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan, non euskararen ezagupena maila altuagoan dagoen (Nafarroan %10 da, gutxi gorabehera), Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren eta EUSTATen datuen arabera, euskara egunero edo erabiltzen dugula 415.623 lagun. Biztanleria osoa bi milioiokoa da, gutxi gorabehera. Oro har, EHAeko biztanleriaren laurdena euskaldun aktiboa da, orduan.

1. grafikoa: EHAeko biztanleria eta hizkuntzen ezagupena, lurraldeka (hizkuntza ofizial bakoitzeko hizlarien kopuru osoa)

| | Euskara | Gaztelania | Biak | Guztira |
|-------------|---------|------------|--------|-----------|
| Araba | 10.295 | 263.902 | 6.661 | 286.387 |
| Bizkaia | 150.416 | 912.830 | 39.586 | 1.122.637 |
| Gipuzkoa | 254.912 | 366.527 | 40.765 | 673.563 |
| EHAE | 415.623 | 1.543.259 | 87.012 | 2.082.587 |

Iturria: Eusko Jaurlearitzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren eta EUSTAT. Autorearen elaborazioa

Lurralde historikoetan hizlarien banaketa ezberdina da. Euskaldun kopuru txikiena Araban dago, han non lehenik galdu zen euskara bere hiriburuan, Gasteizen, eta gaztelaniaren herrietatik (Gaztelatik eta Errioxatik) gertuen dagoena: 10.000 bat biztanle baino ez. Gehienak, gainera, ez daude Gasteizen, Iparreko herrietan baino (Aramaioko haranean, adibidez), non erabilera soziala mantendu den. Euskalki arabarra aspaldi galdu zen, apenas aztarnarik utzi gabe. Arabako Iparrean mintzatzen dena bizkaiera da. Beste alde batetik, esanguratsua da euskaldun gehien duen lurraldea ez dela populutsuena (Bizkaia), Gipuzkoa baizik: euskaldun erdia baino gehiago gipuzkoarrak dira (250.000 bat lagun). Gauza batzuk zehaztu behar dira, baino: guztiak ez dira gipuzkeradunak (Beterriko zein Goiherriko barietateen hizlariak, izan ere); badaude nafarreradunak eta bizkaieradunak. Beste datu bat ezin esanguratsua da: Bilbo, EHAeko hiriburuetatik populatuena, ez da euskalduna; Gasteizen bezala, euskara bertako hizkuntza gisa duela mende batzuk galdu zen, edo galdu zuten.

Bestela esanda, euskaldunen artean portzentajerik handiena Gipuzkoan dago, egunero erabiltzen dugunaren %62 alegia, biztanleen arabera bigarren lurraldea bada ere; Bizkaian, EHAeko biztanle gehien duenak, euskaldunen %36 baino ez du.

Lurraldeetan euskararen erabilera ezberdina ere ondo ikusten da bakoitzeko biztanleen artean euskara eguneroko hizkuntza gisa zenbatek aukeratzten duten kontuan hartzen badugu: Araban, euskaldunak %4 baino ez dira. Bizkaian, %14; Gipuzkoan, %38 (%42, euskara zein gaztelania erabiltzen dutenak kontatzen baditugu). Gipuzkoan bertan ere euskaldunak gutxiengo bat dira, argi dago: gainontzeko %56ak gaztelania nahiago du. Guztira, EHAeko biztanleen %20ak euskara erabiltzea nahiago du, %4ak euskaraz zein gaztelaniaz mintzatzen dela aitortzen du, eta %76ak gaztelania nahiago du.

2. grafikoa: EHAeko biztanleria eta hizkuntzen ezagupena lurraldeka (portzentajea)

| | Euskara | Gaztelania | Biak |
|-------------|---------|------------|------|
| Araba | 4 | 94 | 2 |
| Bizkaia | 14 | 82 | 4 |
| Gipuzkoa | 38 | 56 | 6 |
| EHAe | 20 | 76 | 4 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa

Zer esanik ez, biztanleria gehiena hiriburuetan dago. 100.000 biztanle baino gehiago duten udalak ere badaude, esate baterako Bizkaiko Getxo eta Barakaldo. Bilboko eta Gasteizko euskaldunen portzentajea berdina da: %13. Donostian bikoitza da: %26. Bestela esanda: donostiarraren laurdena euskaldunak dira.


Beraz, argi dago, zenbakien arabera behintzat Gipuzkoa dela euskaldunen erresuma, kopuru aldetik zein portzentajearen aldetik horixe baita EHAEn euskaldun gehien duen lurraldea. Hiriburuen artean, Donostia da euskaldunena.

3. grafikoa: EHAeko biztanleria eta hizkuntzen ezagupena hiriburuetan

| | Euskaldunak | Guztira | % |
|----------|-------------|---------|----|
| Gasteiz | 31.482 | 211.515 | 13 |
| Bilbo | 53.051 | 342.382 | 13 |
| Donostia | 60.415 | 174.037 | 26 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa


Beste datu batzuek azken urteetan euskararen inguruan gertatutakoaren interpretazio dinamikoagoa ematen digute. Har dezagun, esaterako, hizlarien tipologia. Edozein hizkuntzatan logikoa denez, euskara ama-hizkuntza duten hizlariak nagusi dira; %57 (366.000 lagun). Hala ere, euskara ikasi dutenen kopurua ez dago hain urrun: 215.000 lagun, %34. Elebidunak, datu ofizialen arabera, %9 baino ez dira (58.000 lagun baino gehixeago), gutxiengo argi bat.

4. grafikoa: Euskaldunak, hizkuntz tipologiaren arabera

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa

Nabaria da, bestalde, EHAEn euskaldunen gorakada azken urteetan. EUSTATen arabera, gehikuntza ez da harrigarria, baina etengabea, eta lurralde guztietan gertatu da. 1996-2001. urteetan euskara ezagutzen dutenen kopurua 850.000 lagunetatik milioi batera pasatu da, ia biztanleriaren erdia. Datu hau eta aurrekoa, euskaldunak eta elebidunak 502.635 lagun direla dioena, ez dira bateraezinak, azken hau egunero mintzatzen direnei buruz ari baita, eta aurrekoa, ezagupen aktibo zein pasiboko hizlariak hartzen dituen da. Bien arteko aldea ere nabaria bada: 2001ean euskaraz hitz egiteko gauza zirela aitortzen zuten lagunei (1.000.302, zehazki) egunero hitz egiten dutenak kentzen badizkiegu (502.635), euskaldun pasiboak 497.667 ziren. Beste modu batez esateko, erdia euskaldun aktiboak dira eta beste erdia, pasiboak.

5. grafikoa: EHAeko euskaldunen garapena (1991-2001)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa


Zergatik gertatu da euskaldun aktibo eta pasiboen gehikuntza? Adierazle estatistikoek diotenez, 1991. eta 2001. urteen artean euskara ama-hizkuntza zutenen kopurua gutxitu zen; Araban bakarrik igo zen, euskaldun gutxien duen lurraldea; Bizkaian eta Gipuzkoan, baino, jaitsi egin zen.

Bestalde, beste ama-hizkuntza bat duten euskaldunen kopurua igo da, umetan eskolan ikasi dutenak edo heldutan euskaltegietan ikasi duten euskaldun berriak. Taula honek garapenaren ideia grafikoago bat ematen digu: Bizkaiak euskaldun berri gehien ematen du (%42), Gipuzkoak %39 eta Arabak %19. Azken lurralde honetan bakarrik igotzen dira bi adierazleak, euskaldun zaharren eta berriena.

Euskaldun zaharren artean jatorriz elebidunak direnak gehitzen dira. Guztira ez dira horrenbeste gehitu (43.000 izatetik 58.000 izatera pasatu dira EHAEn, 15.000 lagun hamar urtetan), portzentajeari dagokionez, baino, nabaria da haien pisua. Kasu honetan ere Gipuzkoa da elebidun gehien duen lurraldea: EHAeko erdia. Bizkaikoak %43 dira eta arabarrak %7.

6. grafikoa: Euskara ikasi duten euskaldunen garapena EHAEn (1991-2001)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa

7. grafikoa: Jatorriz elebidunak diren euskaldunen garapena EHAEn (1991-2001)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta EUSTAT.
Autorearen elaborazioa

Azkenik, interesgarria iruditu zaigu euskaraz alfabetatu diren helduak aipatzea. Kopurua jaisten ari da, argi dago; hezkuntza-sistemak bermatzen du (bermatu behako luke, behintzat) belaunaldi berri guztien alfabetizazioa eskolan, hezkuntza-sistemaren helburua bi hizkuntza ofizialak menperatzea baita.

Beste euskal lurraldeetan panorama ez da hain esperantzagarria. Nafarroako Foru Erkidegoan euskaldunen kopurua %10koa da, gutxi gorabehera, %6,6k euskara badaki baina ez du normalean erabiltzen, eta 581 erdalduna da. Ipar Euskal Herrian, aldiz, portzentajea EHAEn baino handiagoa da (%24,7 euskaldun aktiboak dira, eta %11,9, euskaldun pasiboak), baina, biztanleria urria denez gero, guztira askoz gutxiago dira.

Konklusio gisa: euskaldun kopuru eta portzentaje handiena Gipuzkoan dago, eta bere hiriburua, Donostia, 100.000 biztanle baino gehiagoko hirietan euskaldun gehien duena ere bada. Hala ere, EHAEn eta bere lurralde historiko guztietan euskara ez da gehien mintzatzen den hizkuntza, populazioaren erdiak euskara badaki ere. Izan ere, euskaldun erdia aktiboa da eta beste erdia, pasiboa. Eskolaratzea ezin garrantzitsuagoa da euskaldunak alfabetatzeko orduan, helduen alfabetizazioak gero eta garrantzi gutxiago duen bitartean, beharrezkoa ez delako. Eguneroko euskaldunen gehikuntza nabaria da, baina ez da harrigarria; batik bat, ama-hizkuntza gaztelania dutenen artean gertatzen da, eta ez euskaldun zaharren artean. Beharbada, euskararen etorkizunaren zati handi bat euskaldun berrien eskuetan egon zitekeen, baina, aldi berean, sektore honetan omen daude euskaldun pasibo gehienak. Erronka, beraz, zera da: euskara ezagutzetik euskara erabiltzera pasatzea.

2

Euskal kazetaritzaren aurrekinak

1. XVII. ETA XVIII. MENDEKO AURREKINAK

Euskal Herriko kazetaritza, ingurukoekin konparatuta, berandu samar sortu zen. Egia da gure arteko lehen aldizkariak XVII. mendean hasi zirela, baina ahalegin haiek, garrantzitsuak izan arren, ez zuten jarraipenik izan. Euskal Herriko kazetaritza ez da XIX. mendearen erdialdera arte hasiko.


Euskarazko kazetaritza berantiar samarra izateak ez du esan nahi Europako beste hizkuntza gehienetan bezala prentsaren aitzindaririk ez ego-
tea; urriak izan arren, baditugu adibide batzuk: esate baterako, kronikazko balada eta olerkiak, paskinak edo errelazioak.

1.1. Kronikazko olerkiak

Bazegoen euskaraz, Europako beste hizkuntzetan bezala, informazioko olerkien tradizioa, hau da, benetako gertakizunetan oinarritzen ziren baladak. Horietatik bat *Bereterretchen khantoria* dugu. Bestalde, 2005. urtean XVI. mendeko eskuizkribu bat aurkitu zen, euskarazko literatur testu askorekin. Autorea Juan Pérez de Lazarraga da, arabar noble bat. Euskarazko testuen artean (erdarazko izenburua bazeraman ere) erreketaren baten kronika: *Ystoria de la quema de Saluatierra* (1567). Lehen ere, Ertaroan, Arrasateko erreketaren kronika ezaguna da, ahozko balada bat. Lazarragaren kronikaren aldea zera da, kontatzen duen gertaera gertua dela (Urkizu, 2004).

1.2. Paskinak eta bertso iraingarriak

Egia da gure arteko lehen aldizkariak XVII. mendean hasi zirela, Pedro de Huarte Gipuzkoako inprimatzaile ofizialak 1687tik 1727ra kaleraturiko *Noticias extraordinarias del Norte, Noticias ordinarias y verdaderas* eta *Extracto de noticias universales*, baina ahalegin haiek, garrantzitsuak izan arren, ez zuten jarraipenik izan. Euskal Herriko kazetaritza ez da XIX. mendearen erdialdera arte hasiko.



Ystoria de la quema de Saluatierra, 1567

Euskarazko kazetaritza berant samarra izateak ez du esan nahi Europako beste hizkuntza gehienetan bezala prentsaren aitzindaririk ez egotea; urriak izan arren, baditugu adibide batzuk: esate baterako, XVII. mendean Tolosan agertu ziren paskinak. Antzeko gauza bat aipatzen digu José M^a Satrustegik Iker aldizkarian, “Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)” artikuluan.

Bertsopaper haietan pertsona baten kontrako zirrikada eta irainak botatzen zituen egile ezezagunak. Dirudienez, bertsopaper haiek bertsolaritza, gaur egun ezagutzen dugun moduan behintzat, baino zaharragoak dira.

1.3. 1766ko errelazioa

Kazeta ez izan arren, kazetaritzatik gertuen dagoen aurrekina *errelazio* bat da. Errelazioak ez dira aldizkariak, baizik eta noizbehinka gertakizun zehatz eta garrantzitsu baten berri emateko argitaratzen diren orriska batzuk. Benetako aldizkariak sortu aurretik, XVI. mendean, agertu ohi ziren. Kazetaritzaren garaian ere, XVII. mendean gero, argitaratzen jarraitzen dira, herri xehearentzat batez ere. Beraz, ez da hain arraroa euskaraz ere errelaziorik agertzea.

Guk ezagutzen dugun bakarra 1766koa da. Frantsesezko errelazio galdu baten itzulpena omen da: *Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea, haren Coffesorac arguitarat emana* du izena, eta Fauvet-Duhart inprimatzaileek argitaratu zuten Baionako Pont Majour-ko bere etxean. Gaia errege Louis XVI.aren aitaren heriotza da, 1765eko abenduaren 25ean gertatua. Bederatzi orrialde dira, *laurdenean* eginak, lapurteraz idatziak. Errelazio honek zera kontatzen du: Delfinaren azken egun eta orduak, elementu dramatiko eta ia hagiografiko askorekin: “Ene desseinua ez da, agueri den beçala, Jaun Dauphinaren historia iscribatcea [...]. Contentatuco naiz explicatceaz, manera simple eta lano batean, haren azquen circunstancia bereciac [...]”, dio aitortzaileak kontaeraren hasieran. Gertakizunen kontaezan bai Delfinaren, bai bere ondoan azken orduak eman zituzten zaldun eta elizgizonen aipu zuzenak tartekatzen dira. Baliabide hau gaur egun ere erabiltzen da kazetaritzan.

Argi dago irakurle-multzo bat bazegoela zonalde hartan, eta ez da batere harritzekoa, kontuan hartzen badugu lapurtera klasikozko literatura (Axular eta bere taldearekin mende bat lehenago hasi zena) nahiko garatua zegoela. Irakurleriak bertako komunikabideak behar zituen. Euskaraz ere bai, eta horren froga da euskal kazetaritza, pausu zuhurrak badira ere, ia Euskal Herriko erdarazko prentsarekin batera hasi zela.

Garai modernoa hasi zenerako, euskaldunak informazioaren beharra sentitzen hasiak ziren, eta, aldi berean, euskaraz idazten zekitenek ere –Fishman-en terminologia erabiliz *custodios linguae* zirenak– euskaraz informatzeko komenigarritasuna ikusten zuten.

2. FRANTZIAKO IRAULTZA ETA EUSKAL KAZETARITZA

2.1. Euskarazko agiri publikoak

Publizismoari dagokionez, Aro Garaikidean behin sartuta adibide gehiago eta sendoagoak, asko ez badira ere, aurkitzen ditugu.

1789ko Iraultzaren lehen momentuetan iraultzaileek lege-testuak *patois* eta Frantziako hizkuntza guztietara itzultzea erabaki zuten. 1790eko urtarrilaren 14ean Nazio Batzarrak Frantziako leku guztietako hizkuntza eta *patois*etara itzultzea agindu zuen. Dugas-ek, Barère-ren *Point du Jour* al-dizkariko idazle batek, bere gain hartu zuen Nazio Batzarraren erabaki guztiak itzultzea. Horretarako, Parisen bulego bat antolatu zuen, 1791n eta 1792an izugarritzko lana eta ehunka itzulpen egin zuena. 1795ean ere dokumentu elebidunik aurkitzen dugu.

Saiakera hark ez zuen asko iraun. Arazo linguistikoak agertu ziren: *patois*ek, frantsesa ez ziren Frantziako beste dialekto eta hizkuntzek alegia, ez zuten ez ortografiarik ez idazkerarik, edo behintzat, beren garapena ez zen oso handia, euskara kasu. *Patois* eta hizkuntza haiek, bestalde, oso banatuak ziren, eta, nahiz eta borondate oneko saiakerak egin *-patois* batentzako hizkuntza *moyenne* edo estandar bat ere asmatu zuen Bernaduk Giza Eskubideen deklarapena gaskoira itzultzeko, “gascon mitoyen entre tous les jargons” (Certeau *et al.*, 1975: 48)–, egoera linguistikoak nahasiegia ematen zuen.

2.2. Grégoireren eta Barèreren txostenak

Arazo linguistikoak eta politikoak sortu ziren: Iraultzaren lehen urteetan Barère-ren eta Grégoire abadearen informeak aurkeztu ziren, *Comité de Salut Public sur les Idiomes* batzarrean lehena eta Instrukzio Publikoaren Konbentzio Nazionalen bigarrena (Certeau *et al.*, 1975: 291-317).

JAUN DAUPHIN
 CENAREN
 ERITASSUNECO
 CIRCONSTANCIA
 BERECIEN
 ERRELACIONEA,
Haren Cofessorac arguitarat emana.

BAYONAN,

SAUVET-DUHART, Imprimatçaillea baithan, Pont - Ma-
 joux & co Garricn. 1766.

Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea
 (Baiona, 1766)

Barèrek uste zuen Iraultzaren ideiak zabaltzeko lanen kontra zihoazela frantsesa ez ziren beste hizkuntzak:

Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton; l'émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur.

Grégoire-ren pentsaera berdintsua zen. Are gehiago, euskararekiko kezka berezia ere agertzen zuen:

Ceux qui se trouvaient aux Pyrénées-Orientales en octobre 1792 vous écrivent que, chez les Basques, peuple doux et brave, un grand nombre était accessible au fanatisme, parce que l'idiome est un obstacle à la propagation des lumières (Certeau *et al.*, 1975: 295).

Nazio Konbentzioak, Grégoire-ren informea entzun ondoren, inkesta bat burutzea erabaki zuen, gero frantses hizkuntzaren gramatika bat egiteko. Inkesta hori *l'Enquête Grégoire* izan zen. Bere helburua gauzatzeko, apaizak Frantziako herri askotan urgazle edo korrespontsalak bilatu zituen. Ondorioa ez zen beti Grégoire-k nahi zuena, urgazle horietako asko beren hizkuntzen edo *patoisen* balioaz jabetu ziren, eta testu, liburu eta nolanhiko testigantzak bilatzen ari zirela, zaletu egin ziren. Euskal Herrian, adibidez, Pierre Dithurbide abokatu lapurtarrak erantzun zion Grégoireri (Oyharçabal, 1994).

Barère eta Grégoire, frantsesa hedatzeko helburua aldarrikatzen zutenean, batez ere bi baliabideri begira zeuden: hezkuntzari eta prentsari. Gogoratzen zuen Grégoirek *Magasin des enfants et des adolescents* izeneko aldizkarien arrakasta. Baina lan honen alde gehien egin zuen aldizkaria, dudarik gabe, *La Feuille Villageoise* izenekoa izan zen, 1790ean sortua. Herrietako *notable* edo –Larramendik esango zukeenez– jauntxoan eragina aprobetxatuz, nekazariengana heldu nahi zuen. Arrakasta ez zen txantxetako gauzarik izan, 16.500 harpidedun izatera heldu baitzen. Hala ere, ez zuen *patoisen* mundura ailegatzea lortu, eta Euskal Herrian ere irakurle gutxi zeukan (Certeau *et al.*, 1975: 283).

Ikusten dugunez, Iraultza Frantsesetik bai iraultzaileak eta bai atzerakoiak *herria* edo, lehenengo euskal kazetetan agertuko den bezala, *populua* bereganatzen saiatu ziren, herrietako jende hura, nekazari edo laborariak, *patois* batez mintzatzen ziren haiek. *Ancien Régimetik* modernotasunerantz hasitako bide horretan sortuko da, hain zuzen ere, euskarazko prentsa Ipar Euskal Herrian, Grégoirek berak aipatzen zuen era batez: almanakak.

3. IRAUPENIK GABEKO ALMANAKAK

3.1. Leizarragaren *Kalendrer*a

Gure ustez almanakak dira euskarazko kazetaritzaren hastapenak. Arazo metodologikoak planteatzen badituzte ere, euskal almanakak ez dira, kasu gehienetan, egutegi hutsak, informazioa baita haien helbururik nagusietako bat. Horrek ez du esan nahi egutegi hutsik ez zegoenik. Eta lehenengo bi adibideak badira horrelakoak.

Egia esan, ezin dugu euskaraz idatzi eta argitaraturiko lehenengo almanaka edo, egilearen beraren terminologia erabiliz, *Kalendrer*a sartu ikertzen ditugun aldizkari eta almanaken artean. Arrazoi nagusi batengatik: egutegi unibertsal hark ez baitzuen aldizka agertzeko gogorik. Joanes Leizarragak 1571n idatzitako *Kalendrer*az ari gara. Ez zen *Testamentu berria* lehen aldiz euskarara itzuli zuenaren obrarik inportanteena. Egutegi unibertsal hura argitaratu zen Leizarragaren beste obra txiki batzuekin batera eta, esan bezala, egutegi hutsa baino ez zen. Dena den, eta kazetaritzatik kanpo badago ere, gogoratu nahi genuke ez zaigula kasualitatezko gauza iruditzen euskaraz argitaratutako lehenengo liburuetariko bat egutegi bat izatea. Askotan errepikatu da inprentak guztientzako idazkiak ekarri zituela, eta Europako hizkuntza gehienetan bi liburu mota, batez ere, kaleratzen zirela: Bibliak eta egutegiak. Dirudienez, aldizka agerturiko lehen inprimakiak almanakak izan ziren, 1448. urteaz geroztik Maguntzian argitaratzen ziren egutegietatik zetozenak. Batzuen ustez, Frantziako lehen almanaka 1448koa dugu (Albert, 1990: 16); gehienen ustez, ordea, lehenengo almanaka, *Le Kalendrier des Bergers*, 1491n sortu zen (Weill, 1979: 12); 1550ean, esate baterako, *L'Almanach de Nostradamus* ospetsua agertu zen. Europako lehenengo aldizkariak urterokoak izan ziren, hala nola *Messrelationen*, Machel von Aitzing-ek 1588an Frankfurten argitaratu zituenak (Albert, 1990: 16).

Gogora ekarri nahi genuke letra inprimatuaren hedatzaile eta bultzatzailearik sutuenak protestanteak izan zirela. Beraz, Leizarragaren kasua bere garaiko Europako egoeran kokatu behar dugu: argi dago apaiz kalbinista hark literatura –uler dezagun *literatura* hitza zentzu zabalean– herrikoia nahi zuela, herriarentzako literatura hain zuzen ere. Badakigu nola ildo hura moztu zen, eta nola euskara apaiz katolikoek menpe geratu zen mende luzeetan zehar. Aipatu genero hauek guztiak, kazetaritzaren aitzindarietan kokatzen direnak, *litterature de colportage*tzat har daitezke. Hona hemen Pierre Albert-ek dioena:

El nacimiento de los periódicos impresos no hizo desaparecer los escritos no periódicos [...]. Constituyeron, por

lo menos hasta 1789, redes de información que completaban de manera útil los de la prensa impresa. Su importancia política no debería ser menospreciada (Albert, 1990: 17).

Euskal kazetaritzaren kasuan, Albert-en hitzak ezin egokiagoak iruditzen zaizkigu. Luzaro iraun zuten almanakek. Euskal Herrian, XX. mendeko hamarkadetan ere agertzen ziren Iparrean.

3.2. Ulibarriren egutegia

Euskal Herrian genero horren bigarrena Jose Paulo Ulibarri arabarraren egutegia izan zen. 1815ean Bilbon bizi zen albaitari euskaltzale sutsu hark, apustu bat zela medio, *Eusquerasco egunaria erderazcotit itzuliya Vizcaya, Guipuzcoa eta Arabaco probintziarentzat 1815garren urterako* kaleratu zuen (Akesolo, 1990). Egutegi hark ez zuen jarraipenik izan arazo ekonomikoengatik.

Hurrengo atal batean aldizkako almanakak aztertzeo parada izango dugu, oraingoz iker ditzagun euskal kazetaritzaren beste aurrekin batzuk.

4. XIX. MENDEAREN HASIERA

4.1. Frantziako Iraultzatik Gerra napoleonikora

Gure ustez bertsolaritzak badu zerikusirik informazioarekin edo, behintzat, informazio mota batekin. Antonio Zavalak, bertsolaritzan adituena, esaten digu bertsolaritza, gaur egun ezagutzen dugun moduan, XVIII. mendeko azken urteetan eta XIX. lehenengoetan hasi zela, hau da, Iraultza Frantsesa suertatu baino urte batzuk geroago eta Gerra Napoleonikoetan.

Bertso haietan, Bidasoaz harantzako soldadu euskaldunek Iraultzak Euskal Herrira ekarritako kalteen berri eman ziguten. Badaude beste bi gai garrantzitsu: Konbentzioaren Gerra (1793-1795), Harisperen soldaduek kontatua, eta Espainiako Independentzia Gerraren berriak, 1808an (Zavala, 1987: 87-104). Independentzia Gerran, hain zuzen, sortu ziren Hego Euskal Herrian, frantsesen eraginez, lehenengo aldizkariak: *La Gazeta de la Corte* (1808ko abuztuaren 23an hasia), gero *La Gazeta de Vitoria* bilakatu zena (1808ko azaroaren 11 arte, 24 zenbaki guztira), *Gazeta de Oficio del Gobierno de Vizcaya* (1810eko apirilaren 2an hasia) eta *Gazette de la*

Navarre, laister *Gazeta Oficial de la Navarra* bihurtu zena (Sánchez Aranda, 1986).

Kazeta haiek elebidunak ziren, frantsesez eta gaztelaniaz idatziak. Euskararen arrastorik ez dago, Katalunian argitaratuetan ez bezala; han elebitasuna katalana-frantsesa zen. Agian, Fernández Sebastián irakasleak dioenez, “la alfabetización en castellano de la población preferentemente urbana adicta a la lectura de periódicos explica suficientemente esta ausencia” (Fernández Sebastián, 1989: 696). Peñafloidako kondearen eta Azkoitiko zalduntxoek euskara bultzatzeko saiakerak Frantziatik etorritako gertakizunen oihartzunek isilaraziak, apaizak ziren, batez ere, euskara idatzi eta landuaren giltza eskuartean zeukatenak. Euskara idatziaren kasuan, garapen eskasa, eta ordura arte hizkuntza ofizial gisa inoiz erabili ez izana, gainontzeko arrazoiak ditugu.

4.2. Informazio-bertsoak

Beraz, euskal kazetak agertu ezinean, XIX. mendearen hasieran, Gipuzkoa eta Bizkaian beste komunikazio mota batzuk agertu ziren Karlistadekin batera.

Antonio M^a Labaienek bertso haiek aztertu ditu. Hemen adibide bakan batzuk baino ez ditugu aipatuko: Iturriagaren bertsoak eta Muñagorriren kantak irakurtzeak zehazkizun asko emango dizkigu. Bertso haiek leku eta bazter guztietan kantatu eta ezagutzen ziren, eta beraz, propaganda egiteko bide egokia ziren. Are gehiago, bertso propagandistak egiteaz gain, informaziokoak ere agertu ziren, esate baterako R. M. Azkuek *Cancionero Popular Vascon* jasotzen zuena, 761.-762. orrialdeetan.

Karlistadako koplei dagokienez, Labaienek berak *coplas de propaganda* deitu zituen (Labaien, 1974: 385). Azpimarragarria da nola ahozko bertsoetatik bertso idatzi eta inprimatuetara pasatzen den. Bertso paperak merkatu, feria eta herri guztietan saltzen ziren. Badago, orduan, faktore oso garrantzitsu bat: irakurleria baten agerpena –euskararen egoerak uzten zuen neurrian–, publiko bat gero eta alfabetatuagoa, eskakizun edo exijentzia berriak zituen irakurleria bat, audientzia moderno bat alegia. Euskarazko prentsa agertzeko ordua zen.

3

Euskal kazetaritzaren lehen urratsak XIX. mendean

1. EUSKARAREN AGERPENA PRENTSAN

1.1. Donostiako liberalen kazetaritza elebiduna

1.1.1. Lehen euskara hutsezko aldizkariaren egitasmoa

Liberalek gauzatu zuten euskaraz idatzitako prentsaren lehen asmoa. Horren berri ematen digu Xabier Fernández Sebastiánek (1990: 697-699). 1834ko otsailean (I. Karlistadan, beraz), Gerra Ministerioak Fomento ministroari gutun bat bidali zion, Donostian argitaratuko zen aldizkari bat lehenbailehen kaleratzea eskatuz, “cuyo principal objeto sea el desvanecer las falsas noticias que propalen los rebeldes, inspirar la justa confianza que se merece el maternal Gobierno de S.M. y la seguridad de las ventajas que todos los españoles deben prometerse con el Reynado de su augusta Hija”. Erantzuna baiezkorra izan zen. Karlisten propagandaren arrakasta ikusita, Fomento Ministerioko idazkaria zen Antonio Ramón Zarco del Valle komunikatu zuen urte hartako otsailaren 10eko gutun batean “que la publicación del indicado Periódico se verifique lo más pronto posible”. Astebete geroago Gerra Ministerioak beste gutun bat bidali zien Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunei proiektu gauzatu zedin. Ez dago aldizkari haren arrastorik.

1.1.2. Euskara hutsezko lehen kazetaritza-testuak. El Correo del Norte

Hala ere, egitasmoa ez zen guztiz ahaztu, 1834an bertan aldizkari batean lehenengo euskarazko testuak aurkitzen baititugu, *El Correo del Norte* agertuak hain zuzen ere. Gure hipotesia indartzera dator, lehendabizi, aldizkari hori euskarazko aldizkariaren egitasmoaz hitz egin zen momentutik kaleratu arte oso aste gutxi pasatu zirelako. *El Correo del Norte. Periódico*

político, literario y comercialen bigarren aroko lehen zenbakia 1834ko martxoaren 7koa da. Donostiar liberalen aldizkari hau Ignacio Ramón Barojaren inprimategitik astelehenero eta ostiralero irteten zen. Atzerriko berriak eta gerrari buruzkoak ere ekartzen zituen.

Guri gehien interesatzen zaizkigun testuak 18. eta 25. zenbakietan agertu ziren, 1834ko maiatzaren 5ean eta 30ean, alegia. Lehenengo alokuzio bat da:

Erritar maiteac, Zuben biziyaac eta zubeac dezuten guzia galdutzeraz uazte, ez sinistu esan disquitzuten gaucic [...]. Gure guizon maitia D. Gaspar Jauregui (Artzaya) ezagutzen dezute nic bañon obeto; badaquizute zembat estimatcen gaituben escaldunac, au degu orain gure Erreguiñac eguin digun aguintari principala provincia eta ejercitua aguintceco; atozte veriala onengana edo bere beste oficiliengana, zuben escopeta edo fusillac uztera, zuben echietara juateco [...]. Orra non dezuten zuben Guibelalde, igues eguiteco dabil aspaldian; Francian jarriac ditu oguei eta amar milla ezcutu [...]. ¡Viva gure Erreguiña aur maitia eta inocentia! Viva gure Gobernua, eta viva apaiz onac!

Agi denez, liberalak saiatzen ziren Gipuzkoako nekazariak beren ideietara hurbiltzen. Testuan apaizak aipatzen dira. Baliteke karlistak euskarazko prentsez ez arduratzea, kontuan izanik karlistetan euskaldun asko eta asko bazeudela: Erro famatua, esaterako, Don Carlosen ministro izatera iritsi zena. Herrietako apaiz asko ere asaldatuen alde zeuden. Haien propaganda bide nagusia pulpituia zen, hartatik nekazariei karlisten aldeko proklamak bidaltzen baitzizkieten. Bestalde, kontuan hartu behar dugu apaiz eta eskribaei interesatzen zitzaizkien testuak nekazariei jakinarazi zizkietela, herrietan bahe moduan jokatuz.

“Piénsese que esa masa era analfabeta en su inmensa mayoría”, dio Fernández Sebastianek bere doktorego-tesian, “por lo que difícilmente podrían acceder al conocimiento directo de cualesquiera documentos escritos, fueran en castellano o en vascuence. Por otra parte, es sabido que los clérigos ejercían en el mundo rural las funciones de medio de información y comunicación, antes de la generalización de los medios civiles de difusión; era el cura del lugar el que leía habitualmente desde el púlpito aquellas disposiciones que a las administraciones públicas les interesaba llegar al conocimiento de la población”.

Dena den, María Cruz Seoanek dioenez, “la prensa carlista durante esta primera guerra es prácticamente inexistente, lo que no es extraño si tenemos en cuenta la dispersión del territorio ocupado por el carlismo en tres núcleos de difícil comunicación, la pobreza ideológica del movimiento en esta primera etapa, así como el desprecio por la prensa que esa misma ideología comportaba y sus bases primordialmente campesinas y por ende analfabetas” (Seoane, 1984: 139).

Ziur aski, euskarazko saiakera haiek ez zuten eragin handirik izan Gipuzkoako nekazariengan. Aldizkariaren beraren argitalpena ere eten behar izan zuten ekainean, banatzeko arazoak zirela-eta. *El Correo del Norte* ezin izan zuen bere helburu nagusienetarikoa behar bezala bete.

Hego Euskal Herriko lehenengo urratsek zera erakusten digute: euskarazko prentsa momentu historiko zehatz batean sortzen dela, lurraldeetako modernizazioa, gizarte berria hasten den momentuan. Ideien polarizazioak eramaten ditu euskaldunei publizitate, propaganda eta informazio baliabide guztiak erabiltzera, bai Ipar Euskal Herrian, bai Hego Euskal Herrian, nahiz eta bi aldeetako egoera desberdina izan. Apaiz katolikoak –politikoki xuriak, *reactionnaires*, Vinson-en hitzetan-, ordura arte hizkuntzaren zaindariak, liberalismoaren aurka agertzen dira. Eta liberalak -*beltzak* karlistentzat, *gorriak* Frantziakoentzat- bere lekua betetzeko ahaleginak egingo zituzten.

Dudarik gabe, azken hauen presentzia murriztua izan da. Baina Euskal Herriaren historian zehar -eta konkretuki, euskal kazetaritzaren historian, lan honen xedea dena alegia- zentzu zabaleko liberalak une zehatz batzuetan euskararen erabilpena berreskuratzen saiatu ziren.

1.2. Chahoren *Uscal Herrico Gaset*a

1.2.1. Chaho, kazetaria

*El Correo del Norte*n agertzen badira prentsan idatzitako lehen euskarazko testuak, lehenengo euskara hutsezko aldizkaria Joseph-Augustin Chahoren *Uscal Herrico Gaset*a da. 1848an agertua, *L'Arielen* antzekoa zen. Chahok bultzatu eta idatzi zuen aldizkari hark izen batzuk izan zituen: *L'Ariel* eta *Le Républicain de Vasconie*, besteak beste.

Arrazoi batzuegatik -frontispizioa, egoitza eta inprimategi berdinak, mamia ere antzekoa- *L'Arielekin* batera aldizkari bakartzat har dezakegu. Baina, beste aldetik, *L'Arielen* bilduma ikusita, konturatu gara *Uscal-Herrico Gaset*a agertu zen egunetan *L'Ariel* ere kaleratu zela; beraz, euskarazkoa ez da frantsesezkoaren eranskin edo gehigarririk, ez eta itzulpen edo moldaketarik ere. *Uscal-Herrico Gaset*a, gainera, aparte saltzen zen. Argi eta garbi erakusten du bere bultzatzaileak nor den kazetaren arduraduna, frontispizioan bertan “Redactore, Augustin Chaho” dela esaten baitigu. Bertan azpimarratzen zaigu noiz kaleratu nahi zuen “*Uscal-Herrico Gaset*a aguertzen da astian-behin” esaten duenean. Aldizkaria birritan bakarrik agertu zen, hilabeteetan. Informaziokoa ere bazen, Frantziako zein Espainiako

berriak baitzekartzan, baina iritzia (garai hartako aldizkari gehientsuenetan bezala) nagusia zen.

Hala ere, eta aurrera jarraitu baino lehen, esan dezagun beste gauza bat: *L'Arielen* azken zenbakia (artean *Le Républicain de Vasconie* izena zuelarik), 1852ko otsailaren 19koa alegia, euskara hutsez agertu zen, tankera berdinarekin. Alde batzuk, ordea, aurki ditzakegu: *Uscal-Herrico Gaset*a txikiagoa zen, bi zutabetan banatua, eta lau orrialdez osatua, *Le Républicain de Vasconien* azken zenbaki hura handiagoa (*L'Arielen* neurrikoa, hain zuzen ere), lau zutabetan banatua eta bi orrialdez osatua. Biak agertzen ziren Chaho hauteskundeetara aurkeztu zenean. Chahoren gogo -Ipar Euskal Herriko garai hartako ezaugarria da- nekazarienganako eragina bilatzea zen, nekazarien iritzia apaizen -xurien- menpe baitzegoen.

1.2.1. Chahoren pentsamoldea

Chahoren ideiak, gaur egunetik ikusita, bitxi samarrak irudituko zaizkigu. Alde batetik, bere antiklerikalismoa nabaria da. “Aphez-bati arrapostu” izeneko testuan, esate baterako, Baionako apaiz baten kontrako hitz bortitzak bota zituen:

Nourc caüsatu-du goure ulhunpe eta miseria, lece barna hountara erortia? Erreguetiarréc, Aphecéc [...]. Eta Gincouac detsala Erreguetiar traïdore hoïec profëita eztitian, beréc erakharri-diën ez tatu miserable hounez, berriz populiaren inganatceco.

Inspirazio mistikoa ere ez zen falta:

Jerusalemeco profetac oiïhu eghiten-cian beçala, oiïhu eguiten-du Arielec: Counberti-bite lurreco tyranouac, abaricious-urguillutsiac, ezti-bite bihotz-gogorrac; edo berriz jeïtchi behar-duque lurriala Gincouaren ainguru guerlariac, berriz içanenda gaïchtouen artian guiçon-ephaïle eta odol-ichourte icigarribat. Gincou Jaona! ukhaçu pietate çoure populu triste hunez, eta eman-içaguçu, çoure eta goure, barneco eta canpotico etsai-ororen bentitceco indarra!.

Dudarik gabe, *Paroles d'un voyant* eta *Azti beguia* liburuen egileari ondo dagozkion hitzak ditugu. Bestalde, aztertzen ari garen aldizkari honetan Chahok ematen dizkigun Espainiako berriak tonu ezin bortitzagoz eginak dira:

Isabel segonda, Espainaco erreguina, bere hemeçortci ourthetan, lohiqueriaric handienian içulicatcen-da. Içorra-bada ere eztaqui noreganic, baïnan, segourda ez tala Don Francisco erregue senhar gachoa ganic, coïnec berre erreguetarçunian emaziarequin eçatceco permissioneric ezpeïtou.

Urrunago doa, gainera, eta Euskaldunen Errepublika aipatzen du, eta baita “independentzia” hitza ere:

[...] bertce guisaco çuten Cantabre çaharrec bere bandera çaharrena, Laüburua deïtçen-çutena, eta arte-demboraco bandera berria, Irurac-bata, bere irour escuequin, Escualdunen Errepublica famatua errerepresentatçen-çüena. Norc-oïhu eguinen-du, azquenian, erregue-erreguiñac eta heïen partidario tontoac edo ambiciosac açaçatu ondoan: Biba Independencia! Biba Errepublica! Biba Escual-Herria?

1.2.2. Le Républicain de Vasconie

1848ko Iraultzatik zetorren oihartzunaren babespean agertutako *Gasetak* ez zuen berriro argia ikusi, eta bere egileak ez zuen diputatu hautatua izatea lortu. Esanguratsua da nola Chahok, berriro hauteskundeetara aurkeztu zenean, 1852an, euskarazko kazetatxo bat atera zuen, *Le Républicain de Vasconie* aipatutako azken zenbaki hura. Hautatua izan zen, eta botoa eman ziotenei eskerrak eman nahi zien:

[...] herritar ecinago-maitiac, seculaco adio-bat beçala, hil lilibat beçala, jin-ceitan ohera, hogueï milacaz cien sufragén noumbre ouhouragarria. Esque-rrac-deïtçiet cien amistatiaz eta fideltaçunaz! Uduri-caït egun Gincouac deit-cen-naïïala Pariserat. Eta Biarnoco bidetan erori eta hil-abantçu-nintçan beçala, behar dudala aldi-hountan hiletaric phiztu eta jeïki, Uscal-herriac eni bere esku azkarra emanez eta hogueï-eta-bederatçu-guerreneco eleccioniaren berthutez!

Chahoren *Gaseta* izango da beste aldizkari batzuen aintzindaria, bai xurien aldekoak, bai gorrien aldekoak. Harez geroztik, almanakak izango dira iritzi publikoa joera baterako zein besterako eskuratzeko ahaleginak egingo dituztenak.

1848. — 1^o GURTHIA.N^o 1

ARRAMAIATZAREN 30-

REDACTORE,
AUGUSTIN CHAHO.

USCAL-HERRICCO

Gascia

AGURTZEN DA

ASTIAN-BEHIN.

BAYONAN,

FORNATOGOO GARRAIA, 7^o ANIZ.



P. LESPESEN,
IMPRIMERIAN

PREZIOA:

Etebera affranchituz;

GURTHICO,

GAZPI LIBERA

NUMEROBAT,

INDIC. 100.

USCAL-HERRICO GASETA.

HERRITAR MAITIAK,

Gaseta honen hastinazki, eta lehipti leian gozue embrasat, eta couin herri edo probintziako Uscazar, Escaraz, Euzperaz edo Haeusaraz halta eguin behar-guzian izquiribateko. Hasteco, cer icen emanen dugu eguin guitecen-den hilabetari: *Arremisista, Elkatia, Erretera?* Hobe ligate guisa-batez goretaco, hobequi coumprenituric icateco; Uscazar-bat-baitic expaiz; eta herren-gagnen, erran ahal dioquegu, gozue aberastar-cunian praube guira. Cer eguin? Ahal becala impre-mata, batian Ciberoutara, bestian Boche-Nabartarra, Laphourterra edo Guipuzcoarra, imcozurelaxe Uscazar subertiac oro balaguitza becala. Estaquitziac ikhas-bitza. Eta, behin bethicoz erranio, aski den.

CER DEN ARIEL.

Nour da odo zer da Ariel? Singuru-bat. Cer da tinguria, eta noun-ogo hartu-du Uscazar singuru icen herri? Bañ dugula litz elor horren centcia; Indietaco ordaraz, aspi, amourio-bat edo indar-bat; grequez eta litz angustoz, angeluz, meculer-bat.

Ainguriaz dirade, holatan, Gincouaren mecu-eguiliaz; eta, hobequi errotera, Gincouaren bethustic, Gincouze uerian eta celian erabilten-dutan photeriac, couin bet-ira arguzico singuriaz.

Eta ifernuco gai-singuriaz dirade aldiz, mundutic ta guipometic jalkhitico diren indar-gaitchouac eta aicouac, aphez-guira mint-akoua, *Debrinc* (erdaraz, *Isobela, diaboloz, diada, dioble*).

Hitz erroz, endaran aman-boietarin, estegn Uscazar abarrian khaussiticoz liti-bat.

Asqui-da jaquiza singuricoz lodutiela ordaraz bere

icen curiousac, bere destinouaren eta calitate honi edo gaitchouen marcateco: *Mikael*, Gincouaren guerlaric; *Gabriel*, Gincouaren bethustic; *Ariel*, Gincouaren indarra.

Arren-beraz, entzun-diaac coumpreni-beca; coumpreniticoz diaac ikhouz-beça Uscazar-herrico gasetaren singuria, *Ariel*.

Nendietaric horni-calico hegaltz, bere icen ederra celian izquiribaturic lala becala. Burutic aguertec-calo su-gar-bat, cougneco marcateen heitu expirituaren gogo-arguia. Escugueco esquia bihotzaren gagnen, ichquerraco leasoun khatia-batuz phuseabat; ifer-niaren esclabe igna-dela, oraitacelacoz Gincouze libratu diela egugutera emiteco.

ERREPOUBLICA CER DEN.

Cer erran nahi-da Errepublikac?

Errepublikac (Latinex *Res publica*) erran nahi-da ororen honen den gazon.

Ah! litz eder, litz charmagarria!

Oraino, malerosqui, Populua. Errepublikaren icena becie extoc, abantularic eta honuic hater'ez.

Populou, phonsalia, hira etsaie ordou-douc ega-gont-ditacem.

Hire etsaie nor dira? Guizon sidor abaricicno eta corguicn moyencz aietaricunian liti nahi direnac.

Hada moyenic hire etsaie benciteco? Moyencz hira esquiin douc.

Houmignen douc, corgulant guocic heoune hotcez icenditeen hotce.

Houa iczen douc, guizon abaricicno placen dihou-ria, Gubernamendiac hire lekaz-orduc emalten helitaco-douc, elhourendaco hirou libero intres pogatoc.

Uscazar-Herrico Gasetac, 1848



LE REPUBLICAIN DE VASCONIE,

POLITIQUE, SCIENTIFIQUE, ARTISTIQUE, LITTÉRAIRE, AGRICOLE, COMMERCIAL ET D'ANNONCES

INDICÉ DES ÉCRITS DE L'ANNÉE. | ÉCRITS DE L'ANNÉE DE 1881. | PUBLICATIONS DANS LA RÉGION.

NAVAYNE, 18 FÉVRIER.

Quelques nouvelles...

Habités hommes loges-ou-lobadats, Bayona eta Madride bi arandamendak, burropel-bat mila Elezarre lehar-datu isatza deputatu lehar-ko. Constituzioa berria ez da. Napoleoneko egoia dugu logoberrak: erabilerak, erabilerak. Frantziako Papuak, erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Questione hauei atzerik atzerik; lehar-ko erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Berria erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Soluzioak erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

arandamendak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Aldi hauei atzerik atzerik, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Berria erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

mandat-are lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Bayona eta Madride bi arandamendak, burropel-bat mila Elezarre lehar-datu isatza deputatu lehar-ko.

Frantziako eta Parisiarre. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak. Erabilerak eta lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak, lehar-ko erabilerak.

Le Republicain de Vasconie, azken zenbakia euskaraz.

2. ALDIZKAKO ALMANAKAK

2.1. Ipar Euskal Herriko almanakak

2.1.1. Etcheberry abatearen almanaka

Uscal-Herrico Gaseta agertu zen urte berean, 1848an alegia, argitaratzen da lehenengo aldiz Jean-Baptiste Etcheberry apaizaren *Escualdun laborarien adiskidea* almanaka. Lehen urtean -gogora dezagun 1848. urterako almanaka urtebete lehenago inprimatu zela- aldizkaria egutegi hutsa da, eta ez luke arreta handirik mereziko hurrengo urteetan oso mami politikoa hartu ez balu. Agian Chahoren *Gasetaren* eraginez, Etcheberryk handitzen du bigarren urteko bere almanakan honen orrialde kopurua, eta informazio eta iritziak ematen hasten da. Xedeak argiki azaldu zituen 1851. urteko alean:

Egunari edo almanak hunen eguileac ez du berce chederic baicen ongui eguitea escualdun populu ainhitz maite duenari, guciei ahalaz conseilu onen emaita. Dembora nahasi eta ilhumpez bethe hautan, nahi lituzke jakitate guti dutenac arguitu; onac curaiestatu, gaizki dabilzanac eztiki bide onerat deithu, penan biciderenac consolatu, bere aisean direnei adiaraci nola behar duten izan bertcentzat bihotz bera eta urricalmendutsu. Chede horietan publicatu izan du juan diren hiru urthetan escuarazco egunaria [...]. Batbederac beguiratcen balitu urthegucietaco egunariac, baluke demboraren buruan escuetan gauza onezco bilduma bat, bethi iracurtceco on litakena.

Hurrengo adibideetan ikusi ahal izango dugu nolako gorrotoa eta urruntasuna zeuden xuri eta gorrien artean. Hona hemen nola definitzen zituen bi ideologiak 1886an beste almanaka xuri batek, *Escualdun Almanaka* bonapartistak: “Cer da churia? Girichtino bat girichtino gira Yincoaren elizaren eta haren minichtruen alde boza eman duena. Cer da gorri? Erlijionearen contraco gizonen alde dena [...]. Churriac - Yincotiar. Gorriac - Debrutiar”.


2.1.2. Xuri eta gorrien arteko lehiak eta almanakak

XIX. mendean almanaka mordo ikaragarri bat sortu zen. 1852an, Pauen, *Egunari berria edo conseillu oneco almanaca*, errepublikazalea, Frantziako hiri hartan euskal errepublikazale nukleo bat baitzegoen. Beste bat aterako zuten errepublikazaleek 1879an, Baionan inprimatzen zen *Almanaca berria edo egunaria*. Ziur aski haren jarraitzaileak *Almanaka berria, 1885eco urthecoa*, *Almanaca berria edo escualdun egunaria* eta *Almanach* [edo *Almanak*, beste urte batzuetan] *berria* izenekoak.

Errepublikazaleek, hitz batean esanda, estatu laiko bat proposatzen zuten. Hauexek dira xuri eta gorrien arteko lehiak ulertzeko giltzarriak: lehenik eta bat, estatuaren eredia, edo, are gehiago, gizartearena: *Ancien Régime*koa, erregetiarra, erlijioak ordura arte bete zuen lekua eta garrantziarekin jarraituz, herritarra, ez hiritarra, eta abar. Hor barruan beste gatazka batzuk agertzen dira: hizkuntzari dagokiona, adibidez. Beste bi punturik aipagarrienak erlijioa eta hezkuntza dira.

Xurientzat, “societatea eri da, arras eri da”, eta Euskal Herria fedegabeengandik eta beren doktrinengandik urrun mantendu nahi zuten. Xurien ideologia beraiek argitaratutako almanaken orrialdeetan eten gabe isurtzen da. 1888an sortutako *Armanak Uskaran* (hau ere xuria, baina Zuberoan agertua), 1789ko Iraultzaren bertsio partikularra ematen zaigu. Luzaroen ez aritzearen, laburbilduz Michel Elissamburu bere *Frantziako bigarren eta hirugarren errepublikaren ixtoria bitxia* (1891) liburuan ematen diguna da. *Armanak Uskaran*, xurien beste almanaketan bezalaxe, Errepublikaren agintariak egiten zituzten legeen kontra doaz. Behin eta berriro diputatu gai xurientzako botoa eskatuko dute, batez ere Etcheverry familiakoentzat. Aukera politikoak zabalak izan arren, Euskal Herrian behintzat oso polarizatuta zeuden, bonapartistak (*napoleontiarrak*) xurien alde jartzen baitziren. Haietako ere beren almanaka atera zuten: *Eskualdun almanaca edo egunari berria*, 1885ean eta 1886an, Baionan. Dirudenez, Jean Duvoisin bera (beste Bonaparte baten laguntzailea, Louis Lucien printzearena) almanaka napoleoniko honen zuzendaria genuen. Jakin badakigu Duvoisin eta Chaho ez zirela elkarrekin oso ondo moldatzen, eta 1848an (euskarazko lehenengo aldizkari hura agertu zen urte berean, alegia), Chaho herriz herri kanpaina politikoa egiten ari zenean, Heletako plazan (herri hartan bizi omen zen orduan tenientea zen Duvoisin) eztabaida sutsu bat mantendu omen zuten.

Nahiz eta errerepublikazaleek ahalegin guztiak egin irizpide haiek guztiak ezeztatzeke, polarizazio politikoa handiagotu egin zen. XX. mendean ere almanaka xuriak aurkitzen ditugu, edo antzekoak. *Eskualduna* astekarrienak (*Eskualdun Gazetaren Almanaca*, *Eskualdun Onaren Almanaka*, *Eskualdunaren Almanaka* eta *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria*) boteretsuenak ditugu. XX. mendeko 30.eko hamarkadan ere holakoak agertu ziren, hala nola *Gauden gu eskualdun*. *Gure Herriaren Almanakaren* kasua desberdina da, bere kutsua ez baitzen politikoa, kulturala baino. Polarizazio horren ildotik *Le Réveil Basque* errerepublikazalea eta *Eskualduna* xuria, biak astekarriak, sortuko dira XIX. mendeko 80ko hamarkadako azken urteetan.



Eskuarazko egunari edo almanaka berria, Baiona, 1909

2.2. Hego euskal herriko almanakak

2.2.1. Nekazariantzako pronostiko eta almanakak

Bizkaian argitaratu zituen Josef Gorosabelek, 1858an eta 1859an, bi almanaka edo, bere hitzak erabiliz, *pronosticuac*. Bat bakarrik (bigarrena) ailegatu zaigu eskuetara, *Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da Medicua Arlabanco erditic. Aurtengo urteraco dauca epactida zazpi*. Hain titulu luze duen pronostikoa ez da, pentsa litekeen moduan, astrologiarekin zerikusia duen almanaka horietako bat. “Ferija principalac celebretan dirianac iru Provencijac onetan dira onechec”, hona hemen pronostiko honen gairik inportanteena, egutegia aparte utzita.

Horrelakoa ere badugu *Euscaldun necazarien adisquidea eta guiaria*, 1865. eta 1866. urteetan Tolosan argitaratua. “Demboraldi sonatuac”, “Festa mudacorrac”, “Temporac”, “Arguigueac edo eclipsea”, “Eguteguia eta campo-lanac”, “Feriac eta mercatuac”, “Euscal-Errietan urte barrumbean izaten diren Feriac eta Mercatuac”, “Necazaritza (Lur-ongarria eguiteco modua)” eta “Trenac” ziren bere atalak, hau da, “gatzelaniazco pronosticoac ecarri oi dituzten becelaco berri edo noticiac”. Seriotasun pixka bat ere bazegoen bere helburuan: “Pronostico onetan ez dezu icusico, ez urteco iritzi edo juicioa, ceñean pronostico-guilleac esaten duten ez urte barruan guertatuco dana, ez pada beren iritcia eta burura datorquien gucia”. Xede garrantzitsuena nekazariak euskaraz irakurtzen ohitzea zen.

(46)

GURASOEN ICASIDERACO

IPUYA.

Anr batzuec here Aitari
cioten esaten :
¿cezagatic ondussumac
ez diguztu ematen ?
Oparo izango duza
jiten ta edaten ,
zuretzat egongo da
prest , dezma escatzen .
Aitac , heratzeaco
oen austardia ,
aurrean jartzen dio
ejemplo egotzia .
Chorrien acilituac
gemen aurtean ,
hercala ezrizen ditin
cayola hotean .
Chorien aita ta amac
herea moceata ,
humeai daramate
jana men menetan .
Humeac acitacoen
ala bazetanz ,
ait-amac isten ditin
humeac libratuz

¿Nore ez du aste izango
ait-amai ordañez .
jana ez eramatea
humeac ongai naxez ?
Humeac ordex pozte
itzulu joan ciran ,
; ait-amac aecagatic
goese illeo ciran !
Orduan aurrai aitec
dieza modu onetan :
escala ona arizen det
chiori chiqui oetan .
Nie deolan arteraho
heude humeac lassa
cer jan izango dute
ta cecreguin pasa .
Ez naziz ordex esongo
humeon mendean ,
neran sayatuco naziz
dezaguen artean .
Ait-amen carhina
guzten guezentan ,
ez dalaaco arqutzen
humeon biotzetan .

(47)

BI BERRI CHAR.

Lembicicoa.

Culpa duanari mereci duan castigna emateco .
ez da asco beti arrazoi izatea . onetaraco bearditu
neuritu nor herac here indarrac . ala gorpuz-
tzeoac nola animacoac . Diodana eguia dala adit-
tzera ematen du guertaera onec .
Guizon hitec zuen oitura gaiztoa arratselan
plaza ondotic beranduegui echera biltzeaco . Emaz-
teac beñ lecio hat eman nai izan cion . Ichiltzen
ditu ateac barrendie . eta badijoa oera . Senarrae .
noizbait bear eta jotzen du aitea , ari zan jotzen
jotzen ; ez ordea emaztea jaiquitzen . Alaco ba-
tean ateralzen da buruaz leyoa eta esaten dio
guizonari : alperric dezu jotzea , eterea sartuco .
hor frescalu bear cera . Eta osiera oeratu zan . Ba-
na senarrae esaten dio : idiquizu . idiquizu . bes-
tela , echealzeaco osiera botaco det nete birua .
Orregatic ere ez dio idiquitzen . ; Cer eguiten du
orduan guizon biurriac ? Arzen du zur pusca bat .
eta botatzen du osiera . Zurac golpean ura jo-
tzean atera znen arrabolsac emaztea izurite . lar-
rapaztaca , edjantzian ateralzen da . eta badi-
joa osin-aldera . Senarra atzetean . isquincho e-
guinic echean sartzen da . ichitzen du barrendie
atea . ta jartzen da leyoan . car car car farra go-

2.2.2. Hiriko literatur almanakak

Hego Euskal Herriko almanakei buruzko pasarte hau amaitzeko, Pío Baroja idazlearen aita zen Serafín Barojarenak ekarriko ditugu gogora. Honek are bitxiagoak dira: *Santo Tomasco Feriya* (1877) eta *Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz) para el año de 1879*. Bietan bere literatur lanak agertzen dira. Azkenekoan erromatarren garaian kokatutako euskarazko opera bat, Almadeneko mehatzetan garatzen zena, *Pudente. Iru actoco opera* izeneko. Horretaz aparte, egutegi hutsa baino ez dugu aurkitzen. Barojak, familia liberal batekoa eta bera ere liberal sutsua izan arren, ez zuen bere pentsamoldean almanaka honetan islatu. Benetako almanaka elebidunak, esan dezagun bide batez: egutegian erdaraz zeuden egunen izenak eta santu-izendegia, jaiak izan ezik (hauek euskaraz ematen ziren). Euskaraz ilargiaren faseak ere bazekartzan.



Serafín Baroja

Hego Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko egoerak arras ezberdinak ziren, begi bistan dago. Bitartean, Ameriketarako emigrazio eskergak ere bere eragina izan zuen prentsan.

4

Ameriketako prentsa XIX. mendean

1. EUSKALDUNEN EMIGRAZIOA AMERIKETARA

1.1. Ameriketarako emigrazioa

XIX. mendean euskaldun askok eta askok, Iparraldekoek zein Hegoaldekoek, Ameriketara joan behar izan zuten. 1825. urtetik, euskaldunak Río de la Plata aldera, Montevideora batez ere, joan ziren. XIX. mendearen bigarren erdialdean, frantses gobernuak euskaldunen emigrazioa bultzatu zuen: 1848tik 1855era Ameriketara joan ziren euskaldunen kopurua bikoiztu egin zen. 80ko hamarkadako urteetan, Ameriketarako emigrazioa gailurrera iritsi zen. Euskal prentsa sortu zenerako, bazeuden Montevideon, Argentinan, Kuban eta Estatu Batuetako zenbait tokitan euskaldun bilgune oso garrantzitsu batzuk. Lurralde haietako prentsa eta komunikazioaren egoera hain desberdina izanik, laster hasi ziren euskaldunak beren aldizkariak argitaratzen.

1.2. Ameriketako lehen euskal aldizkariak

Ameriketako euskaldunek kaleratu zuten lehenengo aldizkaria Buenos Aires-eko *Laurac Bat* elkarteak izen berdinez 1878an argitaratutako aldizkaria dugu. Montevideoko *Laurak Batek* ere beste bat atera zuen 1881ean, eta 1912an bazegoen Uruguaiako hiriburuan *Euskal Erria* izeneko beste bat. Osorik erdaraz zegoen, edo behintzat euskararen presentzia oso murrizta zen. 1893an Buenos Aires-en *La Basconia* sortu zen, errebista bat, José R. de Uriartek bultzatu eta zuzendua. Beste batzuk aurkitzen ditugu: *Euskal Herria* (1898), *Vasconia* (1898), *Haritza* (1898), *Irrintzi* (1904), eta abar.

Emigrazioaren arazoen lekuko Hego Euskal Herriko aldizkari eta egunkarietan euskaraz idatzitako testuak aurkitzen ditugu, euskaldun emigranteentzako eginak, hala nola, 1883an Donostiako *El Eco de San Sebastián* egunkariak kaleratu zuen gehigarria, *¡Erne euskaldúnak! Eco de San Sebastián deritzon, Donostiako paper egunari, Guipuzcoako interes guztien eskudatzalleari eraikisun edo osagarria* izeneko orria, 18. alearekin batera banatu zena. Bertan Chilera joandako euskaldunentzako abisuak ematen dira, Isidoro Paisal eta Avilak Montevideotik bidalitako gutunaren bidez:

Asmoa da Araukania deritzaion bazter bat betetzea euskaldun prantzez-españolakin, suizo ta alemaniakin [...]. Ez bizirik eta ez ondasunik egon daitezke seguru paraje aetan ñorentzat [...]. Basamortu aundietan dijoaztenak perill aundiak daude indio basati oek ebazteko, iltzeko eta arrapatzen duten guztia eramateko [...].

Montevideoko euskaldunek ere gorriak ikusi zituzten:

300 gizagaisó baña geiago joan dira engañatuak asko modutara oraindik denbora asko ez dala, vapore batean sartuaz Burdeosén [...]. Jainkoari nai dakiola ezagutu dezazutela, gizon eskolatuak ezagutzen duten bezela, zer etorki-zen ikaragarria datorkion ara joaten diradenai [...].


2. ESTATU BATUETAKO EUSKAL PRENTSA

2.1. *Escualdun Gazeta*

Euskara hutsez idatzitako prentsa Estatu Batuetan sortu zen, Ipar Euskal Herriko euskaldunen eskutik, *Escualdun Gazeta* (1885-1886) eta *California-ko Eskual Herria* (1893-1897) astekariekin. 1885eko Gabonetan agertu zen lehen aldiz oso bizitza laburra izan zuen *Escualdun Gazeta* hura. Lehenengo alea abenduaren 24an kaleratu zen. Bere egilea Martin V. Biscailuz abokatua izan zen. Haren ustez, “munduko lehemisiko escualdun gaseta” idazten ari zen, eta, harroa iruditzen bazaigu ere, 1848an Chahok beste bat argitaratu zuela baitakigu, ziur aski egiatan zioen.

Informaziokoa dugu Los Angeles-eko astekari hura. Aldi berean, publizitateak aldizkariaren laurdena, gutxi gorabehera, betetzen zuen. Iragarkietan abokatua, sendagile eta negoziogile frantses, euskaldun eta amerikarrak agertzen ziren. Dirudienez, euskaldunek oso harreman komertzial onak mantentzen zituzten beren auzokoekin, *Escualdun Gazeta* iragarkiz josirik baitzegoen. Euskaldunak, amerikar gizartean nahiko ongi finkaturik, politikan ere sartuak ziren. Herriko hauteskundeen berri ematen zaigu lehenengo zenbakian. Biscailuz, dirudienez, demokrata zen. *Escualdun*

Gazetak garai hartan Los Angeles-en eta Ameriketara bizi ziren talde askoren berri ematen digu, hala nola txinatar eta indiarrena, gaur egun irakurtzean ezin bitxiago iruditzen zaizkigun istorioak.



Martin Biscailuz, 1883an

Los Angeles-eko gizartean bazegoen beste talde bat, oso garrantzitsua. Haiek ere aipatzen zituen Biscailuzek. 1885ean Ameriketara *Anti-Chinese Union* izeneko elkarte bat osatu zen, “Chinuen Amerikatik camporat igorseko”. Biscailuz, interes ekonomikoak zirela medio, “Chino carrica” bat irekitzearen alde agertzen zaigu, zeren eta “badira sombeit Escualdun carrica hortan lurak diustenak eta esperantça da estutela contrarik eguinen”.

Baina, noski, kazetaren protagonistak euskaldunak ditugu. Bertan kontaktzen zaizkigu beren lanbideak, beren etorrerak, hildakoak, gaixorik zeudenen berri zehatza dugu. M. V. Biscailuz lurralde hartako eta bere garaiko semea dugu: gizon praktikoa, kulturaduna, negozioetan interesatua. Bazuen artean bere jatorrizko herriarekiko maitasun izpirik, agian bere bezero gehienak euskaldunak zirelako. Hori ez da batere eragozpenik euskaldunei amerikar nazionalitatea eska zezatela esateko.

Bere astekariak ez zuen iraupen handirik lortu, baina benetakoz informazio-kazeta bat osatu zuen. Bere inguruko berriak emateaz gain, Estatu Batuetako beste leku askotako albisteak ere eskaintzen zituen bere astekarian: Portland, Cleveland, Oregon, Filadelfia hirietakoak. Baita, agindu bezala, Europakoak ere: Parisekoak aurkitzen ditugu, Baionakoak, Biarritzekoak, Bordelekoak, Erromakoak, Madrilekoak, Londresekoak, Edinburgokoak. Eklipteen, ferien, burdinbidearen berri eman zuen. Eta bidea prestatu zuen arrakasta handiagoa izango zuen Ameriketako beste euskarazko astekarirako: *California-ko Eskual Herria*.

Urte batzuen buruan, J.-P. Goytinok, beste abokatu euskaldun batek, testigua hartu eta Ameriketako bigarren astekari euskarazkoa kaleratu zuen. Bitartean, Europan ere beste saiakera bat prestatzen ari zen.

2.2. Ameriketarako euskal aldizkari europarra: *Gure Izarra*

Gure Izarra. Euscalerrico berriac astein izeneko astekariak ari gara, 1888an Parisen agertua. Bi zuzendari zituen astekari hark, bat Europarako (Jean-P. Lengoust) eta beste bat Ameriketarako (François Buquet).

Ezer gutxi dakigu egitasmo horretaz. Zero zenbakiak lau orrialde zituen; 1. aleak, berriz, zortzi. Bi ataletan banatuta zegoen, Espainiako eta Frantziako berrien artean. Euskal Herriko lurralde bakoitzeko herrietan bazituzten berriemaileak. Zoritxarrez, sinadurarik gabe, edo inizialekin bakarrik, izenpetuta daude astekarian agertzen diren artikulak. Berriemaile horietatik bat bakarrik ezagutzen dugu: Marcelino Soroa donostiarra, euskal letretan -antzerkian, itzulpenean zein kazetaritzan- aritua.



Marcelino Soroa

Denetarik berriak zekartzan frontispizioan Iparragirrerren poesia bat zeukan *Gure Izarra* hark: herri txikietako eguneroko gertakizunak, merkatuak, ganadu-feriak, ipuinak eta poemak, euskal festak, udaleko gauzak... Hitz bitan esanda, geroagoko euskarazko kazetaritzan konstante bihurtuko den informazioa, hau da, tokian tokikoa, herri bakoitzeko biztanleei interesatzen zaiena. Gainera, bi foiletoiri hasiera ematen zitzaien: Juan Vicente Araquistainen *Etumeta-co baso-jauna*, Gregorio Arruek euskaratua, eta J.-B. Dasconaguerreren *Atheka-gaitzeko oihartzunak*. Ezin dugu esan zer pentsamolde politiko zeukan astekari hark; ziur aski, bere bultzatzaileek ez zuten politikan sartzeko asmorik, irakurleria zabalago bat lortzeko esperantzarekin edo. Beraz, denbora laburreko argitalpena badugu ere, esan dezakegu benetan informaziokoa izan zela. Arazo ekonomikoak zirela medio -Parisetik Euskal Herri osora, eta Ameriketara banatzeko gastuak oso handiak bide ziren- edo bestelako arazoak -berriemaileen berriak garaiz ailegatzea, Hego eta Ipar Euskal Herriko berriak euskaldun guztiei interesatzea, astekariari behar bezalako batasuna ematea, irakurlearen prestaketa eta trebezia eskasa- laster desagertu zen askogura handiko egitasmo hura.

2.3. *California-ko Eskual Herria*

Los Angeles-eko *California-ko Eskual Herria* astekaria arrakastatsua izan zen. Bere egilea J.-P. Goytino izan zen, esan bezala beste abokatu bat, Biscailuz baino errealistagoa, baina hau ez bezala errepublikazalea, ez demokrata. Kazetaria ere bazen, berak esaten digun bezala, lehenago *Le Progres* izeneko frantses aldizkari bat argitaratu baitzuen. Lehenengo zenbakia 1893ko uztailaren 15ean agertu zen, eta handik aurrera, larunbatero kaleratuko zen 1897ko abenduaren 18 arte (behintzat, hori da ezagutzen dugun azken alea).



Jean-Pierre Goytino

Informazioa zen bere helbururik garrantzitsuena. Goytinori momentu egokia iruditzen omen zitzaion, “Ameriketan gazeta eskualdunak sortzen ari dire” baitio, eta gainera, “baguira Californian berean bertz mila Eskualdun bederen”. Gizon landua, Goytino konturatu zen Europan euskara jakitunen begirunea jasotzen hasia zela, “Allemania-ko hiri nausian, Berlin-en, Eskualdun paper bat *Euskara* deitzen dena aguertzen da hilabete guzietz. Europako

sabant famatuenek iskribatzen dute paper hortan eta hekien artikulua leituak dire, plazerekin, erresuma guzietan”. Kazetaren banaketa hobeto egiteko, inguruko hirietan banatzaileak bilatu zituen: San Franciscon, Tehachipin, San Diegon eta Los Angelesen bertan. Lehen zenbaitik Goytinok Estatu Batuetako informazioaz gain, Europako (Espainiakoak eta Frantziakoak, baina logikoki, Ipar Euskal Herrikoa izanik, hango informazioak Espainiakoak baino leku gehiago betetzen zuten) eta Ameriketako beste lurralde batzuetako berriak ere eman zituen. Adibidez, Carnot Frantziako presidentea hil zutenean zenbaki berezi bat egin zuten, marrazkiak eta guzti. Berdin egingo zuen Cánovas del Castillo hil zutenean. Publizitatea ere bazeukan, *Eskualdun Gazetan* beste leku betez.

Bere albisteak laburrak izaten ziren, euskara garbiz idatziak, iritzi gutxiarekin, lehen orrialdean ez bada. Literaturarentzako lekurik ere bazuen Goytinok, bera ere olerkari izanik. Zer esanik ez, banatzaileak zeuden herrietako berriei inportantzia handia ematen zaie (agian banatzaileek berek idatzi eta bidaltzen zituelako albiste haiek). Hala ere, Douglass-ek eta Bilbaok dioskutenez, azpimarratzekoa da nola Río de la Platan eta Mexikon ere irakurtzen omen zen (Douglass & Bilbao, 1986: 419), baina Nevadako eta Idahoko berririk ez zekarren, han euskaldun asko egin arren, beharbada haiek Hegokoak zirelako gehienbat, eta Kaliforniakoak berriz, Iparrekoak. *California-ko Eskual Herriaren* informazioan baporeen berriak ere agertzen ziren.

Esan dugu Goytino errepublikazalea zela, eta ez bakarrik Ameriketako errepublikazaleen aldekoa, baita Frantziako aldekoa ere, hango hauteskondeen berri zehatzak ematen baitzituen astero. Kontuan hartu behar dugu Henri Berdoly *Le Réveil Basque* astekariaren bultzatzailearen eta Louis Etcheverry *Eskualdunaren* bultzatzailearen arteko lehien garaia zela. Berdolyren astekariarekin harreman ezin hobeak zituen *California-ko Eskual Herriak*, eta bere testuak sarritan transkribatzen zituen. *Eskualdunarekiko* harremanak, aldiz, ez ziren hain onak izaten.

Astekaria bi bidetatik abiatu zen: Ipar Euskal Herriko berriak emanez, alde batetik, eta Kalifornia inguruko berriak beste alde batetik, hau da, tokian tokiko informazioa -Ameriketara zegoen Frantziako euskaldun batek egin zezakeena, alegia- garrantzitsuena izanik. Berriemaileak ere erakarri zituen, bi dira aipagarrienak: “Fermin” (“*eskualdun missionest bat*”) eta “Manech”. Haiek, gutun erara, artzain euskaldunen bizitzaren gorabeherak kontatzen zituzten. Literatura ere bazekarren, eta 1894tik aurrera foiletioiak argitaratzen hasi zen, *Atheko-Gaitzeko oihartzunak*, *Erroma eta Jerusalem*, *J.B. Ducq*, *Hazparneko aphez misionestaz moldatua*, *San Franxes Xavier*, *Indietaco Apostulua*, besteak beste. Goytinok bere olerkiak argitaratzen

jarraitu zuen, bai bere kazetan, bai beste aldizkari batzuetan ere. Eta bertsolariak ere agertzen ziren.

2.4. Amerikar euskal kazeten garrantzia

J.-P. Goytinoren astekariak zeregin garrantzitsu bat bete zuen, eta ongi egin ere. Hurrengo belaunaldiek ez zuten euskaraz idatzitako aldizkariaren beharrik, amerikar gizartearen gero eta sartuago baitzeuden -gogora dezagun nola Biscailuzek, eta gero Goytinok ere, gomendatzen zieten amerikar nazionalitatea lortzea. Euskarazko aipatu bi astekariak agertu ziren han non kazetaritzak izugarritzko bultzada jaso zuen.



Berriketari Eskualduna aguertzen dena Larumbate guziez.

LIB. — N. O. LOS ANGELES, CALIF., AROZTUAREN 12a 1893a. PREZIOA: 5 BUB.

| | | | |
|---|--|--|--|
| <p>Eskual Herria.</p> <p>The only Basque Newspaper in North America, published in Los Angeles, California, every Saturday.</p> <p>J. P. GOYTIN, Editor, 330 New High Street.</p> <p>Eskual Herria.</p> <p>Le seul journal basque publié dans l'Amérique Septentrionale, paraissant à Los Angeles, Californie, le samedi de chaque semaine.</p> <p>J. P. GOYTIN, Rédacteur, 330 New High Street.</p> <p>Eskual Herria.</p> <p>El único periódico basco publicado en la América del Norte. Pasa en Los Angeles, California, el sábado de cada semana.</p> <p>J. P. GOYTIN, Director, 330 Calle New High.</p> <p>Editorial Herria.</p> <p>Die einzig baschische Zeitung in Nordamerika, erscheint in Los Angeles, Calif., jeden Samstag.</p> <p>J. P. GOYTIN, Redakteur, 330 New High St.</p> <p>ESKUAL-HERRIA.</p> <p>Californiarako eta Euzkoaren aldetarainoko Berriketari Asteakaria.</p> <p>J. P. GOYTIN Editor, 330 New High Street, Los Angeles, Calif.</p> <p>PAPER HUNEN PREZIOA</p> <p>Ameriketarako \$2.00 Hiri: Habetabehakoa \$1.00 Hiri: Habetabehakoa</p> <p>Printzerian</p> <p>18 Linea urteko. Hurreneko pagatuak da.</p> <p>Paup Haren Berriketariak:</p> <p>San Francisco: Mr. J. P. Youngblood, 2122 Powell Street, California.</p> <p>San Diego: Mr. P. E. Sawyer, 202 Spruce Street, Los Angeles eta: Mr. M. Johnson, 308 Aliso Street, Mr. S. Brown, 309 Aliso Street.</p> | <p>Gen. Antonio Esteta</p> <p>General Antonio Esteta, San Salvador-eko Errepublikaren Vice-Prezidentea eta Presidentaren deitutako ordezkaritza de factoaren burua, Amerikar Estatuak eta Estatu Batuen arteko harrekin. Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> <p>Gen. Antonio Esteta</p> <p>General Antonio Esteta, San Salvador-eko Errepublikaren Vice-Prezidentea eta Presidentaren deitutako ordezkaritza de factoaren burua, Amerikar Estatuak eta Estatu Batuen arteko harrekin. Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> <p>Gen. Antonio Esteta</p> <p>General Antonio Esteta, San Salvador-eko Errepublikaren Vice-Prezidentea eta Presidentaren deitutako ordezkaritza de factoaren burua, Amerikar Estatuak eta Estatu Batuen arteko harrekin. Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> <p>Gen. Antonio Esteta</p> <p>General Antonio Esteta, San Salvador-eko Errepublikaren Vice-Prezidentea eta Presidentaren deitutako ordezkaritza de factoaren burua, Amerikar Estatuak eta Estatu Batuen arteko harrekin. Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> | <p>Bourke Cochran</p> <p>Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> <p>J. J. Singh</p> <p>Yusefale orain gero da 37 urteko eta alabak guri gauditza hiru-haurrakin. Diste arren ote...</p> | <p>Orantziapena.</p> <p>Berriketari San Francisco-ko Printzeriari San Francisco-ko Printzeriari San Francisco-ko Printzeriari...</p> <p>Kolera.</p> <p>San Luis (Montpel) eta Printzeriaren artean kolera...</p> |
|---|--|--|--|

Eskual Herria, Los Angeles

Ikerlarien ustez, 1880ko hamarkadan kalitate-jauzi bat ikus daiteke Ameriketako prentsa, Pulitzer-en egunkariaren agerpenarekin, "un salto a la fase superior del capitalismo informativo" (Timoteo Alvarez, 1987: 27). Estatuek informazioa arautu zuten, agentzia handiak (Havas, Reuter, Wolff) sortu ziren. Pulitzer bere karrera egiten hasi zen 1883an, *Escualdun Gazeta* sortu baino hiru urte bakarrik lehenago. 1892an bere *The World* egunkariak 375.000 ale kaleratzen zituen egunero.

Are gehiago, eredu bat osatu zuen (Timoteo Alvarez, 1987: 53-55). Haren ezaugarriak *Escualdun Gazetan* eta, batez ere, *California-ko Eskual Herrian* ikus daitezke: salneurri merkea (Goytinoren kazetak bost zentimo kostatzen zituen, *The World* dek aldiz bi); hizkera xehea (Biscailuzek eta Goytinok euskara erraza, guztiek konprenitzeko modukoa eta modernoa erabili zuten, frantsesetik, gaztelaniatik eta ingelesetik hartutako maileguak konplexurik gabe erabiliz, oso luzeak ez ziren albisteetan); irakurleen eta argitaratzaileen interesak lotuta zeuden; pentsamolde argi eta garbi bat; eta sentsazionalismoa. Biscailuzek eta Goytinok (biak legegizonak) hilketak, epiak, lehiak, tirabirak ekartzen zituzten beren astekarien orrialdeetan. Aldi berean, informazioa kontu handiz erabiltzen zuen Goytinok, agentzietatik edota Europa eta Ameriketako beste aldizkari eta egunkari batzuetatik lortua, nazioarteko informazioaren kasuan, edo bere berriemaileengandik, ingurukoaren kasuan. *Escualdun Gazetak* eta *California-ko Eskual Herriak* batik bat hasiera eman zieten euskaraz idatzitako informazio-generoei, Europako euskal aldizkariak -Kontinente Zaharreko beste hizkuntzez egindako aldizkariak bezala- ideologikoagoak izaten baitziren.

5

Ipar Euskal Herriko lehen astekari iraunkorrak

1. ALDIZKARI ERREPUBLIKAZALEAK

1. 1. Errepublikazaleen euskal aldizkaria: *Le Réveil Basque*

Frantziako Errepublika 1875eko urtarrilean 30ean finkatu zen, eta harez geroztik hiritarrak bitan banatu ziren: aldekoak eta aurkakoak.

Nahiz eta lehenengo euskara hutsezko aldizkaria astekari bat izan (Chahoren *Uscal Herrico Gaseta*), haren iraunkortasun ezagatik beldurrik gabe esan dezakegu Ipar Euskal Herriko prentsa, eta baita Euskal Herri oso-koa ere, almanakekin hasi zela. Haiiek dira Frantziako eta Euskal Herriko jarrera politiko polarizatuen ispilu, batzuk xuri edo erreakzionarioenak, eta besteak gorri edo errepublikazaleenak.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, errepublikazale edo gorriak saiatu ziren urteroko prentsatik beste aldizkatasun batera pasatzen. Zehazki, ahalegin hori Pauen zegoen bilgune errepublikazaleari zegokion, zeinak 1886an *Le Réveil Basque* astekari elebiduna argitaratzeari ekin zion. Ipar Euskal Herriko kazetagintzari buruzko testuetan (Lafitte, 1971) behin eta berriro esaten zaigu *Le Réveil Basqueren* garrantzia *Eskualdunaren* sorrerarako akuilu izatean bakarrik datzala. Ez dugu hemen *Eskualdunaren* garrantzia gutxietsi behar, ezta gutxiago ere, bai baitakigu, beste gauza askoren artean, orain arte euskaraz idatzitako aldizkaririk iraunkorrena dugula, mende erdi luzez agertu baitzen alegia, baina errepublikazaleen ahaleginak, askotan ahaztu samarrak, gogoratu nahi genituzke. Azken batean, *Le Réveil Basque* frantsesez eta euskaraz idatzitako lehen astekari iraunkorra dugu, *Uscal Herrico Gaseta* eta *Escualdun Gasetaren* ahaleginak hutsalak izan baitziren.

Le Réveil Basqueren argitaratzaile eta sortzailea politiko bat izan zen, Martial Henri Berdoly. Lehen zenbakia 1886ko uztailaren 11koa dugu. Igandero agertzen zen Pauen, Biarnon kokatu baina Mauleko *arrondisamenduan* sartutako hirian, ez baitugu ahaztu behar zona hura Behe-Pirinioetako departamentuan zegoela. Astekaria Nafarroa Behereari eta Zuberoari begira zegoen. Pauen, gainera, bazegoen bilgune errepublikazale bat, *L'Independent* egunkaria argitaratzen zuena. Egunkari haren inprimategian egiten zen *Le Réveil Basque*. Hortik ere almanaka *gorri* batzuk agertu ziren. *Le Réveil Basqueren* lehenengo zenbakietan argi eta garbi agertzen da astekariaren zeregina: urte hartako abuztuaren 1eko hauteskundeak zirela-eta, Berdoly-ren alde eta Diriar hautagai erreakzionarioaren aurkako lana egitea zen helburua. Bata gorria eta bestea xuria, argi dago. Zehatzago, Diriar bonapartista zen -Etcheverry bezala- eta Berdoly errepublikazale oso moderatu bat.

Kontuan har dezagun astekariaren azpitituluak: *Jainkoa, Familia, Hontasuna*. Are gehiago, *gorri* hitza ez litzateke batere egokia zenbait errepublikazale izendatzeko, Berdoly ere barne, garai hartan oso banaketa estua egiten bazen ere xuri eta gorrien artekoa. Berdolyk behin eta berriro azpimarratzen du bera ez dela gorria, horrek erlijioaren eta jabetza pribatuaren aurkakoa esan nahi badu. Baina, hori bai, Errepublikaren guztiz aldekoa da. Izan ere, banaketa manikeo hori mantentzen zutenak besteak ziren, hau da, xuriak. Haietan ere, eta *Eskualdunaren* historia aztertzean argi eta garbi ikusiko dugu, bazegoen ezberdintasunik.

Xuriei, noski, errepublikazale guztiak erlijioaren kontrako zirela esatea komeni zitzairen, eta baita haien hautagaiak ez zirela benetako euskaldunak aldarrikatzea ere. Guztiek laborari edo nekazari euskaldunen botoak eskuratu nahi zituzten, jakina. 1886ko abuztuaren 1ean *Conseil Général* delakorako hauteskundeetan Berdoly izendatu zuten. Errepublikazaleak nagusitu ziren Euskal Herriko ia kantoi guztietan: Pauen, Baionan, Oloronen. *Le Réveil Basqueren* lehenengo asmoak beteta zeuden.

Baina aldizkariak jarraitu zuen: “*Le Réveil Basque* n’est pas destiné à disparaître après les élections. Il est appelé, au contraire, à devenir, comme son titre l’indique, l’organe des intérêts de l’arrondissement de Mauléon”, zioten, eta jarraitu zuen 1894 arte.

Badakigu zenbatek irakurtzen zuten, eta aldizkarian bertan eskaintzen zaizkigun datuen arabera, bazegoen irakurleria finko bat: “Gure Réveil Basque gasetak egiten ditu urthe berriaren okasionean egiten diren konplimenduak, bere sei ehun errezibizaler eta bertzalde irakurtzen duten guzietz [...]”.

Dirudienez, lehen urte hartan jarraitzeko behar zuten adinako arrakasta lortu zuten. Iragarkiak bazituzten. Hamar bat izaten zuten astero. Astekaria frantsesez eta euskaraz idatzia zen, erdibana gutxi gorabehera. Berri laburrak ere bazeuden, gehienak frantsesez eta kutsu politikokoak. Baten bat, ordea, euskaraz idatzita zegoen.

1. 2. Xuri-gorrien arteko lehiak

1887an beste hauteskunde batzuk izan ziren. Bertara Berdoly ez zen aurkeztu, Louis Vignancour Ortezekoa baino. Berdolyren kazetak haren aldeko botoa eskatu zuen. Izendatua izan zen. “Frantzian ez Eskual herrian ez dute gehiago nahi churirik”, dio 1887ko martxoaren 13ko titularrak. Urte hartan sortzen da Baionan *Eskualduna* astekaria, nolabait *Réveil Basqueri* aurre egiteko asmoz. Harez geroztik, bien arteko lehia oso bortitza izango da. Baionakoak Berdolyz gaizki mintzo baziren, Pauekoak ere berdin Louis Etcheverryz.



Louis Etcheverry

Errepublikazale ospetsuak batu ziren *Le Réveil Basqueren* proiektuaren gerizpean. Jean-Baptiste Elissamburu, esate baterako. Bere *Piarres Adame* (euskal literaturan lehen eleberririk laburra edo) argitaratu zen Paueko astekarian 1887ko ekainaren 26tik, foiletoi gisa. Urte berean, haren lehengusua zen Michel Elissambururen *Hiru Errepublikaren ixtorioa laburzki* liburuan agertzen zen Iraultza Frantsesa eta Errepublikaren bertsio txarra gaitzesteko edo, *Le Réveil Basquen* 1887ko uztailaz geroztik Errepublikaren historiari buruzko artikulu sorta bat argitaratzeri ekin zioten, errepublikazaleen bertsioa eskainiz. Are gehiago, xurien bultzadari aurre egiteko, almanaka bat argitaratu zuten 1888an eta 1889an: *Almanach Berria edo Ziberouko eta Basa-Nabarreco egunaria*, astekaria bezala Paueko Écoles plazan egiten zena. *L'Indépendant* egunkariarekin batera, *Le Réveil Basquek* aurre egin behar die bere bi etsaiei: *Le Républicain Bayonnais* eta *Eskualduna* astekariei.

1889an, Martial Henri Berdoly Frantziako Ganbara edo Parlamenturako irailaren 22ko hauteskundera diputatu irten da Mauleko arrondisamenduan. Baina Louis Etcheverry ere hautatua izan zen Maulen. Xurien gorakada hasia zen.

Hurrengo urteak ez ziren errepublikazaleentzat hain onak izango. Hala ere, *Le Réveil Basque* ondo mantendu zen.

1891n hala zioten: “Le tirage du *Réveil Basque* dépasse. En moyenne, 1.000 numéros et il pénètre dans toutes les communes, sans exception, du deux arrondissements de Mauléon et de Bayonne”.

Mendearen 90eko hamarkadan, *Le Réveil Basque* eta *Eskualdunaren* arteko tirabirak gero eta latzagoak izan ziren. 1894an uztailaren 25ean Carnot presidentea hil zuten. Urte haren amaieran, agian *Eskualdunak* nekazariengan lortutako arrakastaren aurka joan ezinik, desagertu zen.

1. 3. Beste aldizkari errepublikazale batzuk

XX. mendean agertu zen Ipar Euskal Herrian beste aldizkari errepublikazale bat: *Argitzalea. Organe Républicain Hebdomadaire du Pays Basque-Français*. Astekaria Baionan argitaratu zen (Charritton, 1985). Lehen zenbakia 1910eko uztailaren 16an agertu zen. 1914an desagertu zen, bere aldekoa zen Baionako *Le Pays Basque-Eskual Herria* aldizkariarekin bat egin ondoren. Zuzendaria J.-B. Mora zen, eta gehiena euskaraz zegoen, gauzatxoren bat frantsesez izan ezik.

Argitzaleak ere ezin izan zuen xurien eta *Eskualdunaren* bultzada jasan. *Eskual Herria* aldizkari errepublikazalearekin bat eginda, Ipar Euskal Herriko gorriek euskarazko aldizkariak argitaratzeari utzi zioten. Handik aurrera, bere komunikabide guztietan frantsesa nagusi izan zen. Xurien aldizkari eta almanakek, aldiz, bizitza iraunkor eta oparoa izan zuten, batez ere *Eskualdunak*.

2. XURIEN ASTEKARIA: *ESKUALDUNA*

2.1. *Eskualduna*, Ipar Euskal Herriko aldizkaririk iraunkorrena

Le Réveil Basqueren ondoren, Baionako xuriek, eta zehazki haien hautagaia zen Louis Etcheverryk, beren kazeta kaleratzea erabaki zuten, errepublikazaleei aurre egiteko. Bera bonapartista zen. Kalitate-jauzi bat dugu hemen, almanaketatik astekarira, errepublikazaleek egin zuten bezalaxe. Baina, azkenean, xurien proiektuak beren etsaienak baino askoz ere gehiago iraun zuten.

Eskualduna dugu orain arte euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena, 1887tik 1944. urtea arte argitaratu baitzen: 57 urte guztira. Dударik gabe, *Eskualdunaren* presentzia eta eragina Ipar Euskal Herriko biztanleengan, batez ere laborariengan, oso handia izan zen, pentsamolde oso bat osatu eta finkatu baitzuen.

Euskaldunen hauteskundeetako parte hartzea biarnotarrena baino handiagoa omen zen (Micheu-Poyou, 1965: 325). Arrazoia, edo arrazoiatariko bat behintzat, elizgizonen jarreran datza, haiek nekazariak boto ematera bultzatzen baitzituzten.

Pentsamoldea, kontserbadorea: Jean Haritschelhar-ek gogoratu duenez, “euskal gizartea agertzen zaigu itxura klasikoan: ‘oro artzain eta laborari ziren’ [...]. Bertze mito bat daukagu hemen agertzen dena: *le bon sauvage* edo salbai ona, XVIII. Mendetik datorrena, ugarte berezi batean sanoki bizi den salbai ona, bertze jendeatarik aparte, zibilizazioak eta gizarteak kutsatu ez duena [...]. Dena ederki doa: ez dago eztabaidarik euskaldunen artean, sentimendu onez beteta baitira, beti zuzenki jokatuz *usantchac eta legeak* errespetatuz” (Haritschelhar, 1997: 137).

Beraz, hemen dugu Ipar Euskal Herriko politikaren zenbait osagarri: polarizazioa (xuri-gorrien arteko lehia), pertsonalis-

moa (aukerak pertsona bakar batengan, denbora luzez gainera, zeuden, horra hor Berdoly, Etcheverry edo Jean Ybarnegaray-ren adibideak) eta elizgizonen eragina.

Erljioaren garrantzia nabariagoa omen zen kostaldean barneko aldean (hau da, Mauleko arrondisamenduan) baino. Beraz ez da harritzekoa 1887ko martxoaren 15ean Baionan xurien aldeko astekari bat sortzea, *Eskualduna*.

Hasieran frantsesez eta euskaraz idatzia zen, *Le Réveil Basque* bezala. Lehenengo hamahiru aleak hamabostean behin agertu ziren *Journal Basque-Français* azpтитuluarekin. 1887ko abuztuaren 20tik, taxuera, aldizkatasuna eta azpтитulua (*Journal Basque-Français Hebdomadaire*, handik aurrera mantenduko zuena) aldatuta agertzen dira. Bere bigarren zuzendaria izango zen Jean Hiriart-Urruty kalonjeak bere gailurrera eraman zuen, 10.000 bat irakurle lortuz.

2.2. *Eskualdunaren lehen aroa (1887- 1904)*

Lehenengo zuzendaria Arnaud Pochelou izan zen. Donibane Lohitzunen bizi eta “xuri amorratua zen” (Lafitte, 1971: 17). Bere karguan 1905. urtea arte egon zen, “Etcheverry bere nausiari letraz aipatzen ziozkan *Eskualdunaren gora-beherak*”. Idazle ugari bazuen, hala nola Curutchet, Irigoyen, Daranatz, Juvenal-Martyr fraidea, Michel Elissamburu (frère Innocentius goitizenaz sinatu ohi zuena), apaiz sorta bat (Jaret, Bidart, Ithurri, Berho, Larre, Giron, Dolhagaray, Oyhenart), Berdeco, Fourcade, Minjonnet, eta bonapartista sutsu bat: Duvoisin kapitaina, euskal dialektologian berak egin zuen euskararen lehen hizkuntz mapa eta, oro har, euskararekin zerikusirik zuten gauza guztietan hain garrantzitsua izan zen Louis Lucien Bonaparte printzearen laguntzaile nagusia. Hilean behin, gehigarri bat (orri batekoa) argitaratzen zen, non Duvoisinen testuak (*Revue des Basses Pyrénées et des Landes* aldizkaritik hartutako alegiak normalean) irakur zitezkeen.

Eskualdunak, *Le Réveil Basquek* ez bezala, hasiera-hasieratik herrietako informazioari oso leku garrantzitsua utzi zion. Atal hau, lehenengo urte haietan “Nouvelles du Pays” izena zuena, denboraren poderioz astekariaren oinarri-rik inportanteenetariko bat bihurtuko zen. 1887an Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herri gehienetako informazioa biltzen zuen. Atal hau, eta “Laborarier” izenekoa (hau ere aldizkariaren bizitza osoan mantenduko zena), astero agertzen ziren. Euskal Herriko berriak ez ezik,

bestelakoak ere jasotzen zituen astekariak, gehienak bere ideologiaren antzekoa zen *Le Courier de Bayonne* egunkaririk hartutakoak.

EUSKALDUNA
JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

| | | |
|---|---|--|
| <p>PREX D'ABONNEMENT</p> <p>Baye Basque... 4 fr. par an France... 6 — Angleterre... 10 —</p> | <p>S'adresser pour tout ce qui concerne le journal à M. POCHÉLOU, gérant, 3, rue Jacques Laffitte, à BAYONNE, ou à 1, rue Gambetta, SAINT-JEAN-DE-LUZ</p> | <p>INDICATIONS</p> <p>Années... 20 c. la ligne Numéros... 60 — Prix à forfait par le courrier à l'année</p> |
|---|---|--|

« Action Libérale »

Astak eta libelarik dituz « Action Libérale » eta beste Euzkoabako astakak ezin dira lehen hiruak, eta geroan beste astekariak, eta ere besteak; baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Erantzunak libelarik dituz astakak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Bere hitzak astakak dituz, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

ASTEKO BERRIAK

NAIASEKHEIAR FRANTZIAN

Asteko berririk ez dago, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

Libelarik dituz, eta besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak, baina oso onerako besteak.

LA SEMAINE POLITIQUE

Le roi d'Italie vient de recevoir à Paris un accueil chaleureux.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

On a fait parler de la démission de M. de Casimiro.

Eskualduna, 1903

“Baziren erregetiarrek, bonapartixtak, bai eta errepublikano girixtinoak. Erregetiarrek ez zuten erregai bera sustengatzen, ez eta bonapartixtek inperadore-gai bera. Errepublikano girixtinoek kontra zituzten gorriak, haiek erlisionerik ez baitzuten nahi; bai eta bertze xuriak, haiek ez baitzuten uste izan zitakela errepublika onik. Kazetak nahi ala ez nahi, lanak zituen korrare berean hoinbertze ardi mota bakan atxiki beharrez” (Lafitte, 1971: 17).

Fedea eta nekazaritza, horiek ziren beren bi ardatzak. Gizarte tradizional bat mantendu nahi zuten. Eta horretarako, autoritatea behar zen. Beraz, osagai komuna Errepublikaren aurka egotea zen. Antzinako Erregimenera itzultzea proposatzen zuten xuriek, errege edo enperadorea, baina buruzagi bat behar zen. Bi hautagai zeuden garai hartan: Napoleon Bonaparteren ondorengoa zen Victor Napoleon eta erregetiarren partetik Louis-Philippe Pariseko kontea. “Horietaric bat beharco dugu hautatu Frantzian, orena yindenian”, zioten *Eskualdunakoek*. Errepublika eta erlijioa etsai ezin handiagoak omen ziren. Amelia Hernández Matak dioenez (Hernández, 2007: 53), masoiak eta juduak ere etsai zituen Louis Etcheverryren *Eskualdunak*. Eliza katolikoa baino eskuindarragoa zen aldizkaria.

Lehenengo urte haietan, *Eskualdunak* gero eta irakurle gehiago lortu zuen. Estatu Batuetan ere bazeuden irakurleak. Lehenengo urtea betetzera-koan mila ale saltzen zituztela zioten, eta bi mila saltzeko esperantzarekin abiatzen ziren bigarren urtera. Laffittek ematen dituen zenbakien arabera, 1889an 950 erosle zituen, 1890ean 1.200, eta 1891an 1.300. Louis Etcheverryk aldizkaria utzi zuenean, 1904an, 1.700 erosle zituen. Hiriart-Urrutyk hartu eta *Eskualdun ona* izenburua eman ondoren, 1905ean 5.000 zituen. Hiru urteren buruan bere gailurrera, 7.000 erosle izatera ailegatu zen (Lafitte, 1971).

Badago beste kezka eta beldur bat: atzerritarrenganakoa. Jean Hiriart-Urrutyk halaxe dio artikulu batean: “Datxakigun hemen, gure sor-herrian, gure lurrian, gure etxeetan gure nausitasuna. Ez utz gure eremuetan arrotza, bereziki arrotz etsaia nausitzerat. Dagola bakotxa bere zedarrietan. Gure buruen jabe nahi badugu egon beti, jakin dezagun beldurrik gabe, behar arau mintzatzen eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe, jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean nahi leraukigukenean. Eta ez badu sinetsi nahi gu girela, gu Eskualdunak herriko nagusi, jo muturrean”.

2.3. Jean Hiriart-Urrutyren aroa

Jean Hiriart-Urruty, *Eskualdunari* bultzadarik handiena eman ziona, astekarian sartu zen 1891n, Louis Etcheverryk deitua. Ordura arte Hiriart-Urrutyk *La Semaine de Bayonne* astekarian idazten zuen, frantsesez. *Eskualdunari* sartu zenean, bakarrik hiru aldiz irakurria zituen, eta 24 urte besterik ez zuen (Lafitte, 1971: 18; Charitton, 1985: 63). XIX. eta XX. gizaldien uztarteko urte haietan, *Eskualdunari* apaiz asko sartu ziren, azken batean astekariari norabide ideologikoa emango ziotenak: Arnaud Abbadie eta Jean-Blaise Adéma, besteak beste. Urte gatazkatsuak euskaldun apaiz eta xurientzat, Leon XIII. Aita Santuak Frantziako katolikoei Errepublika onarrezatzen eskatu baitzien, “errepublikano gisa errexkiago ihardokiko ziotela lege gaixtoeri”. Larresoroko apaizek Aita Santuaren aholkua onartu zuten (“Jar gaiten oro Errepublikari, nahi badugu Frantzia erlijionearen etsaien eskuetatik atera, eta gizon auhurragoen eskuetan ezarri”), baina zenbait erregetiarrek eta bonapartistak ezin zuten hori irentsi.

Horieta bat Louis Etcheverry zen. 1901ean Etcheverryk zuzendaritza eman zion Renaud d’Elissagaray, pare bat urtez. Urte hartarako, bide batez esanda (Hernández, 2007: 57-58) Pierre Broussainek 1897tik zeukan proiektua alde batera utzi zuen; berak elkarte abertzale bat sortu nahi zuen, eta bozeramaile gisa, *Eskualduna* erabili

Larresorokoek orduan, Hiriart-Urruty buru zelarik, 1904an astekariarekin jarraitzea, eta eraberritzea, erabaki zuten. Baina izenburuaren jabe Etcheverry zenez, ezin zuten *Eskualduna* erabili, eta astekariari *Eskualdun Ona* izena eman zioten. Hiriart-Urrutyk mamia ere haize berri bat eman zion, euskarari nagusitasuna emanez.

Erljioa egiten du Hiriart-Urrutyk astekariaren pentsamoldearen habe nagusia, nekazaritzarekin batera, alderdietatik urrun politika bat eramanez, Frantzia alderdi politikoak antolatu eta sendotzen diren momentuan. Louis

Etcheverryk aldizkaria sortu bazuen, Hiriart-Urruty benetako bultzatzailetzat har dezakegu, lehen hauteskundeetarako eta momentu historiko zehatz baterako jaiotako astekaria benetako Euskal Herrirako komunikabide bihurtu baitzuen.

Aldatze hori argi eta garbi ikus dezakegu Jean Hiriart-Urruty berak idatzitako dokumentu batean, hamar puntutan banatua. Bertan, lehenengo aldiz, agertzen dira Ipar Euskal Herriko komunikabide sendo baterako oinarriak: irakurleentzako errespetua, “beti gizonki mintzatuz eta ez sekulan goien-barren behatzen baginio bezala”; eguneroko bizitzari buruzko gaiak, eta batez ere nekazaritzakoak, ukitu; komunikabide kristau bat egin (apaizek egina eta, azken batean, Baionako apezpikutzaren gero eta menpekoagoa zen), baina klerikalegia izan ez zedin; Etcheverryren tonu bortitza leundu (“etsaieri buruz, ez gaiten ahalaz gure onetik atera”); hizkuntzaren aldetik, erraza, ahalik eta gehienek ulertzeko modukoa (“eskuara garbiz izkiria dezagun”); eta, aldizkaria egiteko kezkarekin batera, hedapena ere zaindu, “bila beraz hedatzaileak, ahalaz apezek kanpo”. *Eskualdunak* beti, 1944an Frantziako agintari berriek *vichysoise* erregimena desagerrarazi zuten arte, erlijioa, laborantza eta familia defendatuko zituen.



Jean Hiriart-Urruty

Errepublikako agintariek zenbait ordenu erlijiosoren aurkako politikak sortutako giroa aproposa zen *Eskualdun Onak* bere mezua igor zezan: 1903an Euskal Herriko leku batzuetan *betharramitei*, Lamennais-en anaiei, domingotarrei, beneditarrei, kaputxinoei eta frantziskotarrei beren etxeak eta

ikastetxeak jartzea debekatu zitzairen. Elizgizon askok eta askok erbestera joan behar izan zuten. Beneditarrek orduan Lazkaoko komentua eratu zuten. Beste alde batetik, 1889tik 1911ra Frantzia gerran egon zen. Politikan Berdoly etsaia zen artean.

Gero eta irakurleria gehiago lortu nahian, zuberotarrak ere ekarri nahi izan zituen, eta horretarako astekarian lekua ere utzi zien.

1907an Louis Etcheverry hil zen, eta bere alargunak antzinako izenburua berreskuratu eta erabiltzeko baimena eman zuen. Astekaria ez zen horrez geroztik izenburuz aldatuko.

SEPTIEMBRE 1914 LE NUMERO : 5 CENTIMES

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS: Paris 10 fr. 60, France 12 fr., Etrang. 15 fr.

REDACTION ET ADMINISTRATION: 68, rue Bourgoing, BAYONNE. S'adresser à M. Clément MONGE, administrateur.

PUBLICITE: 10 fr. la ligne, 20 fr. le mois, 30 fr. le trimestre, 100 fr. l'année.

Gerla Haste - Biba Frantzia!

HERRIALDE AUZOAK GURE ALDE

Irakurtzeri

Gerla hau delako eta horrek di...
 Gerla hau delako eta horrek di...
 Gerla hau delako eta horrek di...

ANGLERRA

Han ere auzari gogoko izan...
 Han ere auzari gogoko izan...
 Han ere auzari gogoko izan...

BERGAIKAN

Herralde berriak eta gure...
 Herralde berriak eta gure...
 Herralde berriak eta gure...

BURDINDIAK

Oru milioak betetako...
 Oru milioak betetako...
 Oru milioak betetako...

Eskualduna, 1914

Jean Hiriart-Urrutyk, esan bezala, astekariaren pentsamoldea finkatu zuen. 1915. urte arte. Urte hartan hil zen. *Eskualdunaren* zuzendaria aurkitu ezinik edo, 1915etik 1918. arte, Munduko I. Gerran (gogora dezagun Frantzia gatazka hartan sartuta zegoela) askoren artean zuzendu zuten; batik bat, Jules Moulier *Oxobi* izan zen arduraduna. Sasoi latzak: Gerrak ekarri zuen egoera ekonomikoak bultzatuta, aldizkariaren neurriak txikitu behar izan zituzten, eta gero orri bat bakarrik kaleratu ahal izan zuten. Gerra bukatutakoan, garai hartan Baionako apezpikua zen Mgr. Gieurek 1918an Jean-Blaise Adéma, *Zaldubiyren* iloba, zuzendari izendatu zuen. Baina 1919tik 1944. urte arteko historiaz beste leku batean hitz egingo dugu.

6

Kultur aldizkariak

1. HEGO EUSKAL HERRIKO LEHEN KULTUR ALDIZKARIAK

1.1. Kultur aldizkarien sorrera

Hego eta Ipar Euskal Herriko beste ildo bat hasi zen XIX. mendearen azken partean kultur aldizkariekin. Askotan kulturaren ez ezik politikan ere sartu ziren. Nolabait, Hegoan batez ere, aldizkari horiek hasiera eman zioten mugimendu bati, foruzaletasunarekin eta *vasquismo*arekin lotua. Foruzaleen aldizkariekin eta baita Azkuerenekin ere zerikusia izango zuen. XX. mendearen hasierako Hego Euskal Herriko zenbait mugimendu politikoren sustraiak (foruzaletasuna, *euskalherriakoena* eta Aranaren abertzaletasuna) talde eta aldizkari kultural hauetan aurki ditzakegu. Honekin batera, XIX. mendearen 80ko hamarkadan hasi zen Berlineko *Euskara* aldizkariarekin euskara eta euskal kulturarekiko benetako interes zientifikoa, kazetagintzan ere bere isla izango duena.

Horra hor, adibiderik aipagarrien moduan, Julio Urquijoren *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, hemendik aurrera, ohi den bezala, *RIEV* deituko duguna, 1907an sortua, esan bezala Euskal Herrikan kanpoko aldizkari bat (Berlingo *Euskara*) aitzindaria izan zuena. Julio Urquijoren aldizkaria, gero Eusko Ikaskuntzarena izango zena, euskal kultur aldizkari zientifikoen gailurra dugu.

1.2. Nafarroako *Revista Euskara*

Kronologikoki, aitzindari moduan (zenbait mugimendu abertzalaren eta aldizkari kultural andana batena), aipatu behar dugun lehenengo aldizkaria Iruñean sortu zen: *Asociación Euskara de Navarra* edo *Nafarroako*

Euscarazko Elcargoen Revista Euskara. Arturo Campión izango dugu haien sortzaile eta bultzatzaile nagusia.

Dudarik gabe, 1876ko uztailaren 21eko legeak berpiztu zuen Euskal Herrian bere nortasun propioarekiko maitasuna.

Chaho dugu azken korronte honen aitzindaria. Lehenago ere Louis Lucien Bonaparte printzearen ikerketak eta Antonie d'Abbadieren euskal festak (1852. urteaz geroztik Ipar Euskal Herrian antolatuak) kontuan hartu behar ditugu euskararenganako maitasun giro hori ulertzeko. Baita 70eko hamarkadan gauzatu ez zen egitasmo bat ere, “una asociación conservadora del vascuence” besteak beste Nicasio Landak, Obanos apaizak, Juan de Iturralde eta Pablo Iarreguik sortu nahi izan zutena (Elorza, 1978: 31). Giro honetan kokatu behar dugu Iruñeko *Euscarazko Elcargoen* ekintza.

Lehen momentuan, Elorzak dioen bezala, lege horren ondoren “se integran definitivamente con el fuerismo dos corrientes ideológicas acuñadas en los años centrales del siglo, y aparentemente sin contenido político. Una, el ruralismo que desde fuentes diversas como Antonio de Trueba o Fermín Caballero acaba por fijar un estereotipo sumamente útil al servicio de una conciencia nacional surgida como rechazo del proceso de industrialización. Otra, la literatura historicista y legendaria de sesgo postromántico que cubre para Euskal Herria un papel similar, aunque algo más tardío en el tiempo, que en otras culturas nacionales europeas” (Elorza, 1978: 17).

Euskararenganako kezka urte haietan agertu zen. Campiónek ezezik, beste batzuek ere horretaz ziharduten: José Manterolak (*Euskal Erria* aldizkaria sortuko zuena), Ricardo Becerro de Bengoak, S. Mantelik, Fermín Herránek... Urte haietan aldizkari batzuek euskarazko olerki edo testu literarioren bat argitaratu zuten, hala nola *Revista de las Provincias Bascongadas, Beti bat* (*Peru Abarca* foiletoi moduan lehen aldiz argitaratu zutenak), eta Frantzian, besteak beste, *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*. Euskara izango zen, momentu haietan, euskal izaeraren isla eta sinbolorik nagusia, baina oraindik ez nazio baten muin gisakoa. Gizarte bati (antzinako gizarte bati, galtzen ari zen edo galduta zegoen gizarte tradizional bati) zegokion, ez horrenbeste nazio bati. Gauzak horrela, 1877ko maiatzaren lehen Juan de Iturralde y Suit-ek gutun bat bidali zion Campióni eta proposatu zion elkarte bat eratzea.

Elkartearekin batera, 1878an aldizkari bat, hilabetekari bat, argitara eman zuten: *Revista Euskara*. Aldizkarian gehiena gaztelaniaz idatzia zen, %25 gutxigorabehera euskaraz (literatur testuak batez ere: *Altabizkarko kantua*, *Orreaga*, poemak, ipuinak, kondairak eta errefrauek). Elkargoa eta aldizkaria plano kulturean mantendu baziren ere, bere bazkideek politikan ere parte hartu zuten. *Euskaroe*k, baina, porrot egin zuten politikan.

Euskara zen pentsamolde horren zutabe kultural nagusia; gero Aranak berebiziko garrantzia emango zion -nahiz eta arrazaren menpeko eta osagarria izan. *Euskaroe*k ez dute Euskal Herria nazio bat bezala formulatzen, baina erroak hor daude. Euskal kazetagintzari dagokionez, *Revista Euskara* dugu aldizkari kultural multzo baten lehena: hurrengoak, kulturalak baziren ere, askotan kutsu politiko bat izango dute, eta pentsamolde zabal bat, abertzalea zentzu orokorrean, eratzeko ezinbestekoak izango dira.

1883an aldizkaria desagertu zen. Nafarroan oso aldizkari gutxik argitaratuko dituzte euskarazko testuak. *Lau-Buru* aldizkarian (1882-1886) hain euskal artikulua agertu ziren (Urmeneta, 1996: 116). Iruñean ere, *El Eco de Navarra* egunkariak testuren bat argitaratu zuen euskaraz; 1912ko azaroan “Eguneroko berriak” izeneko atal bat argitaratuko zuela iragarri zuen; lau aldiz baino ez zen agertu, sinadurarik gabeko testuekin.

1.3. Manterolaren *Euskal Erria*

Euskal Erria dugu bigarrena. 1880an José Manterolak sortua, Villasantek laburbiltzen digu haren garrantzia:

“Se inicia en la literatura vasca una nueva época [...]. Don José Manterola fue el hombre que vino a dar forma, a aunar y a encarnar este movimiento y estas inquietudes. Sobre todo, con la fundación de la revista Euskal Erria consiguió coordinar los esfuerzos de los cultivadores de las letras vascas. Hasta esa fecha [1880] estos esfuerzos han sido más o menos aislados; apenas se nota ningún esbozo de coordinación y equipo entre los escritores vascos. La revista Euskal Erria, al agrupar en torno a sí a los vascófilos, dará un gran paso en este sentido” (Villasante, 1979: 281).

Aldizkaria, beraz, literarioa dugu. Lehengo urteetan lore-jokoak antolatzen hasiak ziren, eta euskarazko liburuen argitalpenak ere gero eta gehiago ziren, batez ere Isaac López Mendizabalen aita zen Eusebio López inprimatzaile tolosarraren eraginez. Manterolak berak 1877tik 1880 bitartera oso garrantzi handiko obra argitaratu zuen: *Cancionero vasco*, folklore ez ezik, garaiko autoreen kantak ere zekartzana (*Bilintxenak*, *Elissambururenak*, *Iparragirrerrenak*, eta abar). Aldizkaria, hilabetekaria, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia zen. Noizbehinka ere frantsesezko testuren bat agertu zen.

Felipe Arrese Beitia foruzaleaz aparte, beste idazle askok eta askok ere beren lanak argitaratu zituzten *Euskal Erriaren* orrialdeetan: Julien Vinson,

Eusebio M^a Azkue, Serafín Baroja, Carmelo Echegaray, Antoine d'Abbadie, Jean Duvoisin, José Guisasola, Antonio de Trueba, Marcelino Soroa... Manterolak berak ere euskarazko obra bat argitara eman zuen bere aldizkarian: *Post tenebras spero lucem*.

Bertan “canta su esperanza de que al país vasco, sumido en la desgracia con la abolición de los Fueros, le aguarda, no obstante, un risueño porvenir si sus hijos saben ser fieles al país, a su lengua y a sus esencias eternas” (Villasante, 1979: 283). Honek erakusten digu nolako pentsamoldearen bozeramale zen Manterolaren Euskal Erria.

José Manterola oso gazte zela, 34 urterekin, hil zen. Honen ondoren, eta 1918. urtea arte, Antonio Arzac eta López Alén bihurtu ziren aldizkariaren zuzendariak. Aldizkaria, ia 40 urte euskal literatura eta kulturaren alde lan eskerga egin ondoren, 1918an desagertu zen.

2.1.1. *Serafin Barojaren Bai*, jauna, bai

Serafin Baroja donostiarrak aldizkari literario elebiduna argitaratu zuen, *Bai, jauna, bai* izeneko. Bi garai izan zituen, 1883an eta 1904an. Lehen aroan *Semanario bilingüe (Castellano y Vascuence)*. *Egui-Argui-Berri-Onac*. *Verdades-Conocimientos-Novedades-Intereses* azpтитulu luzea zeukan. Iruñean argitaratu zituen Barojak sei zenbaki. Ez zuen nahi beste harpidedun lortu eta kaleratzeari utzi zion.

1904an, Madrilén, berriro agertu zen. Beste sei ale argitaratu zituen Barojak, martxotik abuztura, eta zazpigarren bat abenduan, *Luchi* bere operaren lehen aktoarekin (Urmeneta, 1996: 142).

Año I.

Pamplona 1.º de Enero de 1883

1.

BAI, JAUNA, BAI.

SEMANARIO BILINGÜE. (CASTELLANO Y VASCUENCE)

EGUI—ARGUI—BERRI—ONAC.

VERDADES.—CONOCIMIENTOS.—NOVEDADES.—INTERESES.

Directora, Redaccion y Administracion—Calle Nueva, 30. 2.º izquierda.—Baraja 4.ª

| PRECIOS DE SUSCRICION. | PUNTOS DE SUSCRICION. |
|--|--|
| En España, un año..... 8 pesetas. | Imprentas del Sr. Goyeneche y del Sr. Izquierdo.—Admon. de «El Auxiliar,» Zapatería, 18 y Redaccion de «El Navarro.» |
| » 6 meses..... 4 » | |
| Ultramar y Extranjero un año 11 » | |
| Número suelto. UN real. | Número atrasado. DOS id. |
| SE PUBLICA LOS DIAS 1, 8, 16 y 24 DE CADA MES. | |

HITZ BI.

¿Certara dator paper berri au aimbeste ope, aste eta eguneroko publicacionen ar- lera? Norc daqui.

¿Ur tantoac badaqui burni bideco loco- mobilla buleatuco ote duen? ¿Badaqui hasamortuan jayotaco belar chiquiac osasungai bat izango dala? ¿Badaquite aieac daramazquien izpiac cer ondorengo can prochu, cer egocarri izango duten?

Gucien oneraco eguiñac dirala da- quigu.

Artan guerade gu ere. Gure irudideac ontzat daucazquigu.

Gañean jarritaco lau hitzetan, EGUI- ARGUI-BERRI-ONETAN oimendatuaz, icusten degu beti aurrera joateco bidea.

Maquiñabat bide dirade

¿Asmatuco degu zucen danarequin?

Gure borondate ona ezagutzen degu, eta ain segurac gaude gure irudide, gure sentier eta naigoetan ece ber berac dituztenai esango diotegu:—Aurrera beti.

Gurequin ez diranai, gorrotoric gabe aspás:—Geldi bitez onlo.

ERRICO ALABARI.

Soneto.

¿Que es bella! ¿Lo dudaste? ¿Quién lo ignora?

¿A qué probar verdad tan evidente?

No es su belleza, nó... Hsy cierto ambiente

De distincion, de mágia seductora

Que te circunda, niña encantadora!

Que yo no sé lo que es, algo latente,

Vago, fascinador, que el alma siente

Muda y suspensa, y que en silencio adora,

Algo téauy y sutil cual, tú, hechicero,

Con el que impregnas la mirada esclava,

Algo celeste, sí, tirano empero

Que sólo admiro en tí, que en tí se acaba,

¡Niña ideal!, a quien llamarte quiero,

Por esta vez no más: ERRICO ALABA.

S. B. Z. 21 Diciembre 1882.

EL PRIMER PASO.

A fin de darlo bueno y digno del inmere- cido favor que nos ha dispensado el público, acogiendo con deferente simpatía la publica- cion de este modesto Semanario damos, comienzo á nuestras tareas con una sentidí- sima y magnífica poesía de D. Ramon Cam- poamor, de quien obtuvimos permiso para que su inimitable trabajo se publicara al lado de nuestra humilde traducion vascongada, lisonjeándonos que nuestros lectores, los han de ver con gusto en la página inmediata.

3. EUSKARARI BURUZKO ZIENTZI ALDIZKARIAK

3.1. Berlingo *Euskara* aldizkaria

Euskarari buruzko ikerketei benetako asmo zientifikoa eman ziena Julio Urquijo izan zen, *RIEV* bere aldizkariaren bidez. Aitzindari bat izan zuen Alemanian, *Euskara* izeneko aldizkaria. Alemanian zientzia filologikoa oso aurreratuta zegoen. XIX. mendeko lehen urteetan Wilhelm von Humboldt jakitun prusiarra Euskal Herrira etorri eta euskarari buruz idatzi zuen. Ez da beraz harrizkeoa Alemanian zegoen euskararekiko interesa, euskara baitzen Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa bat, eta filologoen ikerketen xedea. 1886ko apirilaren lehen sortu zen *Baskische Gesellschaft*. Karl Hannemann-en eta Thomas Linschmann-en bultzadaz, araudiak otsailean osatu ziren, alemanez eta frantsesez. Linschmann-ek, Hugo Schuchardt-ekin batera, 1900en Leizarragaren obren argitalpen bat argitaratu zuten. Alemanian, hain zuzen ere, hasi ziren euskarazko testu zaharren faksimilak argitaratzen, geroago Euskal Herrian Urquijok egingo zuen bezalaxe. Elkarre haren bozeramalea *Euskara* aldizkaria izan zen. Beren lema, *Chipitasunan anditasuna lo eguiten du*. Testuak batez ere frantsesez eta alemanez idatziak ziren (gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz ere baten bat dago), garai hartako Europako filologorik hoberenek sinatuak: Van Eys, Vinson, Dodgson... Aldizkariaren garrantzia asmo zientifikoa datza. Esan bezala, euskarazko antzinako testuak eta euskarari buruzkoak ere berreskuratu eta argitaratu zituzten: Leizarragaren pasarteak, Vulcaniusek 1597ko hiztegitxo bat, Scaligeroren latinezko testu bat, euskaldunei buruzkoa, XV. mendeko Arnold von Harffen kontara, non euskarazko hitz eta esaldi batzuk agertzen ziren, eta abar.

Aldizkaria 1896an desagertu zen. Karl Hannemann hilda, Linschmannek erabaki zuen uztailearen leko alea azkena izango zela. Azkeneko zenbaki hartan, Euskal Herriak bere hizkuntzarekiko maitasun gutxi erakustez damu zen.

3.2. Ortografia batzeko ahaleginak. Eskualzaleen Biltzarra

Hego eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaleak gutxieneko batasunaren premiaz oharturik, 1901ean Hendaian bilera bat egitea erabaki zuten. Lehenago Iparrekoak nolabait bilduta zeuden, Abbadiak, Guilbeauk eta Vinsonek 1869an sortu zuten *Association Basque des Jeux Floraux* delakoan. Politika ere hor sartu zen, eta Vinsonek eta Guilbeau errepublikazaleek beren jai propioak antolatzeari ekin zioten. Beraz, lehenengo saiakera hark porrot egin zuen.

1900en Jules Vinson *Exposition Universalle* zela-eta antolatu zen *Congrès International des Etudes Basques* delakoaren lehendakaria izan zen. Hortik sortuko ziren Hendaiako euskal festak, uztailaren 15etik 18ra antolatu zirenak. M. Guilbeau presiditzen zuen *Association Basque* beren Hegoko auzokoei gonbidapena egin zien, eta irailaren 16an bilera egin zen. Behin-behineko komitean parte hartu zuten Iparreko errepublikazale eta kontserbadoreek, baita Hegokoek ere: Gratien Adéma *Zalduby* lehendakaria zen, Arturo Campión eta Sabin Arana Goiri lehendakariordeak, M. Guilbeau idazkaria eta L. Hiriart diruzaina. Hurrengo bilerak Hondarribian egin ziren, 1901eko urrian eta azaroan. Jean Hiriart-Urrutyk *Euskaltzaleen Biltzarra* izena proposatu eta bilerak onartu egin zuen. Baina azkeneko bileran, azaroan 11n, Guilbeau (Azkuek eta Campiónek lagunduta) eta Arana Goirik eztabaida gartsu bat izan zuten. Azken batean, bi eskola oso diferente elkarren aurka zeuden:

Pour M. Guilbeau, l'unification du basque doit être réalisée par des spécialistes (linguistes, grammairiens, érudits, etc.) [...]. Pour Arana Goiri, l'association est avant tout 'une ligue patriotique' (Goyhenetche, 1979: 83).

Ondorioz, Aranak hirurehun bat partaide ekarri zituela eta Adéma presidentea konponbide emateko nahiko epel zegoela ikusita, 1902ko apirilean saiakera deuseztatu zen. Proposamenen artean, guri asko interesatzen zaigun bat: Euskal Herriko aldizkari guztiek ortografia komun bat erabil zezatela.

Iparreko euskaldunek, hala ere, urte hartako irailaren 11n beste bilera bat egin zuten Hondarribian. Bertan, eztabaida baten ondoren, Eskualzaleen Biltzarra sortu zen. Bere asmoa, “favoriser par tous les moyens en son pouvoir la conservation de la langue basque et sa diffusion” (Goyhenetche, 1979: 81). Goyhenetcheren ustez, *Eskualzaleen Biltzarrak* asmo nostalgiko samarra bazeukan, *basquisant*.

Eskualzaleen Biltzarrak bere aldizkaria argitaratu zuen 1911tik. Urtekari bat zen, eta behintzat 1936 arte agertu zen. Zuzendaria Martin Landerretche, Biltzarreko idazkaria, zen. Urtekarian agertzen ziren Biltzarraren erabakiak, bazkideen gorabeherak, eta baita beren pentsamoldeari buruzko testuak ere. Bazkideen artean bazeuden Hegoko batzuk, jeltzaleak ez zirenak, noski, hala nola Campión, Estanislao Aranzadi, José Eizagirre, Isaac López Mendizabal edo Julio Urquijo. 1935ean, guztira 270 bazkide ziren.

3.3. Gregorio Mujikaren *Euskal Esnalea*

Iparrekoek Eskualzaleen Biltzarra antolatu zuten bitartean, Hego Euskal Herrian ere antzeko elkarte bat sortu zen, urte batzuk geroago. 1907an Gregorio Mujikak, euskarazko kazetaritza behar bezala ulertzeko ezinbesteko figura, Euskal Esnalea elkartearen sortarazi zuen. 1882an jaioa, Gipuzkoako kronista izan zen Serapio Mujikaren semea, Gregorio Mujika ormaiztegiarrak, nahiz eta lanbidez ingeniaria izan, gazte zelarik euskararen munduan buru belarri sartu zen. Urquijoren *RIE* Ven 1907ko lehen zenbakian, hain zuzen ere, artikulu luze eta gartsu bat idatzi zuen, euskaldun gaztedia euskara lantzera animatuz. Euskaldun gazteak iratzartzeko sortu zen urte hartan Euskal Esnalea. Mujika behin betiko idazkaria izan zen, lehen presidentea Arturo Campión izanik. 1908an elkarteak aldizkari bat kaleratu zuen, izen berdinekoa.



Gregorio Mujika. Sigfrido Koch-en argazkia

Hala ere, Euskal Esnaleak oso erakunde irekia izan nahi zuen, denetarikoa euskaltzale eta iritziak biltzeko gauza, oreka bilatu nahian. Akademia bat sortzeko beharra garbi ikusten zuten. Honela, euskara mundu berrian, modernitatean, sartu nahi zuten. Elkarte honen zeregina praktikoa zen, hau da, euskara landu eta lanaraztea, Hego Euskal Herriko euskaltzale guztiak bilduz. Lehenengo urteetan, Euskal Esnalearen lana etengabea izan zen, euskara kultur hizkuntza bihur zedin neurri ofizialak ere eskatuz.

Hasieran Tolosan, gero Irunen eta Donostian argitaratua, *Euskal Esnalea* 1911n beste aldizkari baten euskarazko gehigarri bihurtu zen: *Euskalerriaren alde*. Honen zuzendaria Gregorio Mujika zen. 1931. urte arte kaleratu zen, berrogei liburuki osatuz: hogeitun liburuki erdaraz (“que no contiene un solo artículo que no se relacione en algún modo con nuestro país”), eta beste hogeitun euskaraz (*Euskal Esnaleari* dagozkionak). Aldizkari horiek argitaratzeaz gain, Mujikak eta bere adiskideek euskal jaiak, artikulatu lehiaketak antolatzeari eta liburu argitalpenari ekin zioten hogeitun urtetan. Mujikak, gainera, kazetari lan egin zuen beste aldizkari batzuetan: *Euzkadi* egunkarian, *RIE*ven eta *Argian*. 1931ko uztailaren 22an hil zenean, euskal kulturaren euskarri eta laguntza eskerga desagertu zen. *Euskalerriaren alde* eta *Euskal Esnalea* bere euskarazko gehigarria ere desagertu ziren.



Euskalerriaren Alde

2.4. Julio Urquijoren *Revista Internacional de los Estudios Vascos*

Bada garaia Urquijoz pixka bat hitz egiteko. Deustuan jaio zen 1871n, familia karlista baten semea (bera ere karlista zen) Bere anaietako bat *La Gaceta del Norteren* zuzendaria izango zen José M^a Urquijo zen. Deustuko Unibertsitatean Julio Cejador irakasle eduki eta bere zientifismorik eza

leporatu ondoren, gazte-gazte zela euskara landu eta ikertzen aritu zen. Gizon aberatsa, Manterolaren liburutegia erosi eta hortik aurrera gaur egun ere euskal gaietan liburutegirik hobenetariko bat osatu zuen.

Zientifismorik ezaz oharturik, Urquijok erabaki zuen 1907an, agian Berlineko *Euskara* aldizkariaren adibidea jarraitzeko asmoz, aldizkari serio bat argitaratzea: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. Lehenengo urteetan, Urquijo zuzendari eta jabea zelarik, Georges Lacombe laguntza itzela egin zion idazkari moduan. Edozeinek argitara zitzakeen bere testuak, gutxieneko seriotasuna erakutsi ondoren, berdin zen teoria baten edo besteen aldekoa izan. Euskarazko, frantsesezko, gaztelaniazko testuak argitaratu zituen; baita beste hizkuntza batzuetan ere: alemanez, ingelesez, portugesez eta arabieraz testuren bat ere aurki dezakegu. Euskararen portzentaia jaisten joan zen %15etik (1907-1912) %5era (1912-1936).

Urquijok maila zientifikoa eman zien euskarari eta euskal kulturari buruzko ikerketei, jeltzale batzuen kritika zorrotzak jasan zituen, eta Eusko Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiko bidea prestatu zuen. 1922an *RIEV* Eusko Ikaskuntzaren organo bihurtu zen, beti ere Julio Urquijoren zuzendaritzapean. Zientzi artikulua argitaratzeaz gain (batez ere giza zientziei buruz), euskarazko antzinako liburuak berreskuratu eta faksimilean edo jatorrizko idazkeran argitaratu zituen, hala nola Axularren *Gero*, Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiae*, Peñafloidako kondearen *El Borracho Burlado* opera elebiduna edota Arantzazun aurkitu zituen Joanes Etcheverry Sarako medikuaren lanak. Horretaz aparte, ikerketa sakonak ere idatzi zituen, hala nola paremiologiaz (Garibayren errefracuez), historiaz (Azkoitiko zaldunei buruz), literaturaz eta bibliografiaz.

Ikusi dugunez, XIX. mendeko azken urteetan eta XX. mendeko lehenengoetan euskal kulturak modernitatean sartu behar zuela aldarrikatzen zuten ahotsak gero eta gehiago ziren, eta euskara eta euskal kultura maila zientifiko batera, euskaldunek berek lortua gainera, iritsi ziren, besteak beste Arturo Campi3n, Gregorio Mujika eta Julio Urquijoren eskutik. Eusko Ikaskuntza eta Akademiarako bidea ere prestatzen hasia zen.

7

Prentsa erlijiosoa eta nekazaritzari buruzkoa (1877-1918)

1. XIX. MENDEKO PRENTSA ERLIJIOSOA

1.1. *Fedearen Propagacioneco Urtecaria* (1877)

Aldizkari informatibo edo politikoekin batera, sortu ziren Euskal Herrian ordenu erlijiosoen aldizkariak. Ikusi dugu nola lehenengo almanaken sorreran apaizek izan zuten indarra. Aldizkari erlijiosoen, batez ere Hego Euskal Herrian, oso garrantzitsuak izan ziren XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan, batez ere azkenean, Espainiako II. Errepublikaren aurkako iritziak aldarrikatzen hasi zirenean. Mami erlijioso zehatza gaindituz interes politiko eta sozialeko beste gai batzuek aritu ziren.

Lehen euskal aldizkari erlijiosoa Ipar Euskal Herrian sortu zen: *Fedearen Propagacioneco Urtecaria*, edo *Fedearen Propagacioneco Berriac urteca ematen dituena* Baionan argitaratzen hasi zen 1877an. XX. mendearen 30eko hamarkada arte iraun zuen. Bihilabeteak zen, urtebeteko aldizkari guztiek liburuki bat, zenbakitze jarraituarekin, osatzen zutelarik. Itzulpen edo, hobe esanda, bertsio bat dugu, frantsesez argitaratzen zenarena alegia. Euskarazkoaren zuzendaria Baionako kalonjea zen Maisonnave dugu. Aldizkari hartan, tarteka kalitate oneko marrazki edo grabatuak ikus daitezkeelarik, Asiako eta Afrikako misioetako berri luzeak ematen zaizkigu. Kolonizazio handien garaian, aldizkariak bidaia eta ibilaldi eskergen bertsio erlijiosoa dakarkigu. Argitaratzailea *Fedearen Propagacioneco Obra* dugu.

1.2. Ordenu erlijiosoen barruko aldizkariak

Ordenu erlijiosoen beren aldizkariak argitaratzen hasi ziren XX. mendearen hasieran. Frantziakoak ditugu lehenengo biak: *San Frances Terziaren hilabeteak* (1911) eta *San Francesen Deia* (1912). Hego Euskal Herriko

frantziskotarrek ere beren aldizkariak kaleratu zituzten: *Irugarrenko Prantzisko'tarra* dugu lehena, 1913an hasi zena. Iruñeko kaputxinoen inprimategian egiten zen, gipuzkeraz. Bere azpтитulua *Abe'ko Ama Birjiña'tar kapuchino'en Lekaiderkiko illeroko idazkia* zen. Bertan, Jaitzubialdek, Kalparregik, Arbelaitezek, Osinburuk eta Larregik, besteak beste, berri erlijiosoak bakarrik ematen dizkigute.

Aipatu bigarren aldizkari erlijioso *Irugarrengoen Irakaslea* dugu. Aurrekoa bezalakoa, hilabetekaria, Gipuzkoako frantziskotarrek Zarautzen argitaratua. Bi aro izan zituen, bigarrena 1935.-1936. urteetan kaleratzen zelarik.


Beste aldizkari erlijioso batzuetan, noizean behin, euskal testurik agertu zen, hala nola *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona* 1903tik 1905era (Urmeneta, 1996: 116).

2. HEGO EUSKAL HERRIKO ALDIZKARI ERLIJIOSOAK (XX. MENDEA)

2.1. *Jaungoiko-Zale* (1912)

Hemen gehien inporta zaizkigunak *Jaungoiko-Zale* eta *Jesus'en Biotza'ren Deya* ditugu. 1912an *Jaungoiko-Zale* agertu zen (lehen zenbakia *Jaungoico-Zale* izenarekin kaleratu zen), izen berdineko Zornotzako apaiz elkarteak sortua, *Euskaldunei euskera* azpтитuluarekin. Beren hiru zutabeetan erlijioa, euskara eta hezkuntza ziren gai nagusiak. Liburu erlijiosoak ere argitaratzen zituzten. Euskara, nazionalistentzat bezala, arrazaren ezaugarri bat zen.

Zirilo Arzubiaga izan zen elkarteari hasiera eman ziona, 1912an. Berarekin batera, Juan Bautista Eguzkitza, Juan Cruz Ibargutxi eta José Antonio Oar-Arteta izan ziren gizonik garrantzitsuenak. Pentsamoldea, neurri handian, Josep Torras i Bagés Vic-eko gotzainaren *La tradició catalana* liburutik aterea zen (1905).



XI. Urtia. — 189.º gn. zenbakia.

Zornotza'n. — 1922.º ko. Epala'ren—1.

BEROGEIKAROKO, VII IGANDIA

Matai-Deunaren, Goizparkiko XVII atzalburutik, esakun ereskada batzuk.

Aldi atan: 1.—Eta sei egun igaziña, Josu'k, Kepa ta Jagoba ta Jon, beraren anayea artun ebazan, eta, aldera, mendi garaira eruazan.

2.—Eta euroen aurfian, irabiyau zan, eta beraren arpegija euzkija legez argitu zan: eta bere janzkijak, eduña legez, zurifu ziran.

3.—Eta ara, Mois ta Eli agertu yakoezan, Berakin itz-egitien.

4.—Eta Kepa'k itz-dagi ta Josu'ri, diñotso: Jauna, ondo da, geu, berton, egotia: gura ba'dozu, emen, iru txabola dagiguzala, zeuri bat, Mois'ari bestia ta Eli'ri, bestia.

5.—Bera, ondiño, itz-egiten eguan, eta ara, argidun edoyak, esaltzen dabaz. Eta ara edoi-aboskeak, diñola: Auxe da nire seme maña, nogan, ni, asko, poztu ixan naz: berari, entzun.

6.—Eta ikaslarajak entzun ixan ebenian, bere betaufian jausi ziran, eta biñuf aundija ixan eben.

7.—Eta Josu eldu yaken, era eurai ukututa, diñotso: Jagi zadiz, ta ez bildufik ixan.

8.—Eta euroen begijak jasota, iñor ezeben ikusi, Josu bakañik, baño.

9.—Eta jazten zirala, mendiik, Josu'k aginðu eutsen, esanik: Ikuskixun au, iñori, ez-esan, Gixa-Semia, ilaen-arieñik, berbiztu, aite. Eta abañ.

* * *

Tabor ta Golgotha mendijak erukija ta zuzenkija darakuskube. Bide bijelatik, ibili biar gara. Eruki-bidia, bakañik, ba'genbiltz, ariskua dogu, bidekatuteko. Eta zuzendasun-bidia bakañik genbilkez, itxaropidia galduko geban. Bide bijaen erdiik, ba, ibili-biar gara, Tabor-mendira, eltzeko.

“Euzkeldunok geure ixakera ta ekandubakaz poztu, asetu ta baita zertxubait arrotu gaitzantzat gomutauko dautzobet euzkeldunak enda, erritegi ta lurralde guztijetan dirala ospetsubak eta maitiak auxe beraugaitik: euren ixakera zintzo ta ekandu garbijakaitik” (*Jaungoiko-Zale*, 1913ko maiatzak 4, 9. zenbakia, 3. orrialdea).

1913tik “Eskola-umien alde” izeneko artikulu sorta bat argitaratzen hasi zen Zornotzako aldizkarian, Zirilo Arzubiaga abadeak egina, irakaskuntza laikoaren aurkako ahaleginak erakutsiz. Gauzak horrela, Zornotzako elkarteak otoitz egiteaz gain, gurasoen elkarte bat osatzea proposatu zuen. Beraiek tramitatzen zuten elkarte hartan sarrera. 1918an (geroago bezalaxe) horri buruz hitz egiten eta Bizkaiko Foru Aldundiko euskal ikastolak laguntzen jarraituko zuten. 1916an Mikel Muñoak Donostian eratu zuen euskal ikastolaren alde ageri ziren. Dena lotuta zegoen: euskara, erlijioa eta hezkuntza.



Gabriel Manterola

Euskararen aurkako erabakien kontra agertuko zaizkigu *Jaungoiko-Zale* elkartekoak, esate baterako Bizkaiko gobernadoreak Mundakako alkateari pregoiak euskaraz aldarrikatzea debekatu zionean, 1916an. Era berean, euskararen aldeko batzar guztiei laguntza emateko prest ageri ziren. Baita

Euzkeldun-Bazkunak (Euzko Alderdi Jeltzalearen Euzko Gaztedijarekin zerikusia zuen euskalduntzeko erakundea) proposatzen zuenarekin bat zetozen. Seigarren Batzar nagusian, 1917an, Gabriel Manterola hautatu zuten artezkari eta 1933an berriz ere, 1937 arte zuzendaria izan zelarik. Gabriel Manterola, *Jaungoiko-Zaleren* jarraitzailea *Ekin* astekariaren arduraduna eta Gerra Zibilaren ondoren euskararen alde Frantzia eta Ingalaterrako komunikabide batzuetan lan egin zuen apaiza, hasi zen “Euzkeldunei Euzkeraz” izeneko artikulua sorta bat idazten. Gai horiek guztiak garapen handiagoa izango zuten 1919tik aurrera, batez ere Errepublikaren garaian, 30eko hamarkadan, *Jaungoiko-Zale* hilabetekaria *Ekin* astekaria bihurtuta.

2.2. Jesuiten prentsa: *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917)

Bitartean, 1915ean *Busturi'ko Kistar Ikastia* umeentzako aldizkaritxo argitaratzen hasia zen Bermeon. Bertan, Busturiako neska-mutilek idazten zuten.

Beste aldizkari erlijioso batek argia ikusi zuen 1917an: *Jesus'en Biotzaren Deya, Otoitz-apostolauen zabaltzalle*. Bi edizio zituen, bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa. Lehenago ere *El Mensajero del Corazón de Jesús* erdarazko hilabetekaria ateratzen zuten Bilboko jesuitek edo Josulagunek 1883tik. Ramón Laskibarrek zuzendua, bertan hasi ziren idazten P. Lardizabal, Joakin Azpiazu eta, batez ere, Nikolas Ormaetxea, artean jesuita eta geroago, *Orixe* ezizenarekin.

Aldizkari erlijiosoak euskal kazetaritzan oso garrantzitsuak izan ziren, euskararen aldeko lanagatik. Ideologikoki ere ezin inportanteagoak izan ziren, eta euskaldunen pentsamoldea finkatzeko ahalegin guztiak egin zituzten. Haien garrantzia batez ere XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan nabaritutako da.

3. NEKAZARITZARI BURUZKO ALDIZKARIAK (1903-1919)

3.1. Nekazariak erakartzeko garrantzia

Mendearekin batera, beste mota bateko aldizkariak sortu ziren: nekazaritza-gaiei buruzkoak. Almanakak eta egutegiak beren aitzindaritzat har ditzakegu. Hala ere, haiek ez bezala, Hego Euskal Herrian sortzen diren nekazaritza-aldizkariak ez dira, alde batetik, urtekariak, beste aldizkatasun batekoak baizik, eta ez dira inolaz ere egutegiak. Nekazaritza gaiak sakonkiago aztertzen dira aldizkarietan almanaketan baino, eta, az-

tertu ditugun egutegietan ez bezala, ez dugu Bidasoaz harantzako nekazaritza-aldizkarietan politikarekin zerikusirik duen gairik. Mende hasierako nekazaritza-aldizkariak oso argitarapen espezializatuak ditugu, alegia.

Esan daiteke nekazaritza-aldizkariak euskaldun irakurleria bati zuzenduak zirela, ez irakurleria hori sortzeko, beren eskariak asetzeko baino. Ipar Euskal Herriko euskaldun irakurleria bestelako gaiak irakurtzeko haina bazen, hau da, Hego Euskal Herrian baino politizatuago bazegoen, hemengo euskaldunak, euskaldun arruntak, nekazariak azken batean, bere lanbideko gauzak bakarrik irakurtzeko prest omen zeuden. Ipar Euskal Herrian bazeuden nekazari edo laborari ugari, Hegoan baino gehiago ziur aski, baina hemen bazegoen honelako aldizkariak sortzeko faktore oso garrantzitsu bat: Foru Aldundiak.

Egia esan, atal honetan aztertuko ditugun nekazaritza-aldizkari guztiak, Gipuzkoa edo Bizkaiko Foru Aldundiak sortuak ez baziren, momentu batean beren babespean egon ziren. Aztertuko ditugun bi aldizkariarekin horixe gertatu zen: lehenengoa Gipuzkoako Foru Aldundiak sortua zen, *Gipuzkoako Nekazaritza*.

3.2. Gipuzkoako nekazaritza-aldizkariak (1903-1911)

3.2.1. *Gipuzkoako Nekazaritza* (1903-1907)

Gipuzkoako Nekazaritza argitaratzen hasi zen 1903an. Izen osoak argi eta garbi ezagutarazten digunez, *Gipuzkoako Nekazaritza - Agricultura Guipuzcoana* elebiduna zen, erdibana erdaraz eta euskaraz idatzia. Aldizkariak bi zutabe zituen, bata erdarazko bertsiarako eta bestea euskarazko bertsiarako. Ignacio C. Núñez Arizmendiren zuzendaritzapean, lau urtez agertu zen hamabostean behin Gipuzkoako Foru Aldundiaren inprimategitik. Gauza teknikoez bakarrik aritzen zen, aldizkariaren atal batzuen izenek erakusten digutenez: *Baserri eche inguruetako garbitasunaren gañean*, *Belardiak*, *Fruta-arbolentzako simaurrak*, *Baserri ukulluak*, eta abar.

3.2.2. *Baserritarra* (1904-1911)

Aldi berean, Núñez Arizmendik beste aldizkari bat zuzentzen zuen: 1904an sortutako *Baserritarra*. Zer esanik ez, honek ez du Arana Goirik sortu zuen izen berdineko aldizkariarekin zerikusirik. Nekazari Elkarte

Anaitasunaren babesa hasieran zuela, aldizkari hura euskara hutsez idatzia zen. Victoriano Iraolaren inprimategian, hasieran, eta gero *El Pueblo Vascorenean* argitaratzen zen. Iraolak berak, inprimatzailea izateaz gain, idatzi ere sarritan egiten zuen. 1907ko abenduaren 7an, 83. zenbakian, eta 1908ko urtarrilaren 4an, 85. zenbakian, bi komiki argitaratu zituen.

Gipuzkoako Nekazaritzak ez bezala, *Baserritarrak* nekazaritzarekin zeri-kusi handirik ez zuten gaiak ere onartzen zituen: poemak, ipuinak eta istorioak. Ez da beraz harritzekoa *Baserritarraren* orrialdeetan Pepe Artola, Xenpelar, Juan Ignacio Uranga edota Emeterio Arrueren sinadurak ikustea. Gero *Argia* eta beste euskal komunikabideen sorreran garrantzi ezin handiagoa izango zuen Ramon Intzagaraik ere poema bat argitaratu zuen 103. zenbakian, 1908ko abuztuaren 12an. *Baserritarran* nekazaritza gaiak arinagoak izaten ziren, albisteak kasu askotan. *Gipuzkoako Nekazaritza* askoz ere teknikoagoa zen *Baserritarra* baino eta, azken batean, biek lan osagarria egiten zuten.

Baserritarrak nekazarien sindikatuen aldeko lana ere egiten zuen. Ez edonolako sindikatuak noski, katolikoak baino. 1908an nekazarien sindikatu bat eratzeko ideia proposatu zuten. Apirilean hasi ziren, eta maiatzean Caja Rural Donostiarra sortu zen, Donostiako Sindikatuak emandako 10.000 pezetekin. Aretxabaletan, Gatzagan eta Eskoriatzan sindikatu bana sortu zen urte hartako lehenengo hilabeteetan, maiatzean beste sindikatu bat Oñatin, ekainean Elgetan eta Antzuolan, Urnietan, uztailan Eibarren. Abuztuan dena prest zegoen. Urrian beste sindikatu batzuk sortu ziren Usurbilen eta Lazkaon, eta abenduan Oiartzunen. Lehenago ere, 1907an, Bergaran beste bat sortu zen. Guztiek *Anaitasuna* izena zuten. Sindikatu horiek Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso zuten, eta apaizen propaganda.

Lan honen atal batzuetan euskal sindikalismoaren sorreran apaizek izan zuten garrantzia ikusteko aukera izango dugu, eta baita nolako loturak sortu ziren ere nekazaritza-sindikatu-ekin -zerbitzu-sindikatu gisa aurkezten zirenak. Eliza katolikoaren gizarteari buruzko pentsamoldea ere landu zuten. Lotura horiek urrunago zihoazen, sindikalismo politikoarekin eta, guri hemen gehiago interesatzen zaiguna, euskarazko kazetaritzarekin egin baitziren. Honen guztiaren adibide nabariak *Argia* eta Eusko Nekazarien Bazkuna ditugu, biak Gipuzkoan sortuak.

1910eko abuztuan *Baserritarraren* zuzendaria, Ignacio Núñez Arizmendi, hil zen 29 urte zituela. *Baserritarrarena* izateaz gain, *Gipuzkoako Nekazaritzaren* zuzendaria ere bazen, eta gainera, *Aitor* ezizenez aldizkari horien atal asko eta asko sinatu zituen, hala nola “Berrichukeriak” edo “Auzoko itzak”. Nekazaritza munduarekin ederki lotua, Fraisoro eskolako

irakasle izan zen. Hain ekintza ugari egin zuen zuzendaria desagertuta, ez da batere harritzekoa aldizkaria ere handik gutxira desagertu behar izatea. Nahiz eta agindu betirako izango ez zela, *Baserritarra* ez zen berriro agertu. *Baserritarrak* 167 ale kaleratu zituen, azkena 1911ko otsailaren 25ean.

2.3. Bizkaiko nekazaritza-aldizkariak

2.3.1. Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija

Bizkaian ere euskarazko nekazaritza-aldizkari bat argitaratu zen, Foru Aldundiak sortua. Oso teknikoa, Gipuzkoako Nekazaritzaren antzekoa: *Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija*. *Boletín Agro-pecuario-forestal de la Excma. Diputación de Bizcaya* zuen izena. Lehenengo zenbakia, izen horrekin, 1919ko martxokoa du. Lehenago bazegoen beste aldizkari bat, *Boletín Pecuario de la Excma. Diputación de Vizcaya*, 1909an hasi zena eta noizbehinka euskarazko testuren bat zeukana. Ikusitako ale bakarrean, 1911ko uztailakoa (4. zenbakia), bazegoen testu bat, aldizkariak zituen 16 orrialdeetatik bi betetzen zituena, sinatu gabeko testu bat, alboan erdarazko itzulpena zekarrena. Aldizkari honek, paper onean inprimatua, argazkiak ere bazituen. Hilabetekaria zen eta dohainik banatzen zen Bizkaiko luginen artean. Euskarazko testuan ikusitako ortografia ez da Arana Goirirena, eufoniak agertzen badira ere (“aldijak”, esate baterako) “rr” eta “ll” bezalako grafiak ere aurki baititzakegu.

Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija ere hilabetekaria zen, baina ezberdintasun batzuk agertzen ziren: ez zen dohainik banatzen (50 zentimo kostatzen zituen), eta euskararen portzentaia %50koa zen: ezkerreko zutabea euskarazko testua agertzen zen, eta eskuinekoan, erdarazko bertsioa. Ez zuen argazkirik, bai marrazki batzuk, eta bere aitzindariak baino orrialde gehiago zituen: 38. Bere asmoa, nekazaritzaren aurrerapen teknikoak zabaltzea.

Esan bezala, oso aldizkari teknikoa zen. Hona hemen atal batzuen izenak, aldi berean nekazaritza gaietan beharrezko neologismo batzuk sortzeko ahaleginak ere erakusten dituztenak: “Abeluin-Baso-Bazkintza (Junta Agro-Pecuaria-Forestal)”, “Bedarlantzea (Herboricultura)”, “Mastilantza (Viticultura)”, “Abelertija eta Abelosatzea (Zootecnia y Veterinaria)”. Idazleen artean, Abeluin-Baso-Bazkintzaren zuzendaria, José Elorrieta, eta tekniko batzuk: Juan de Egilleor, Andrés Arzadun, Agustín de Castro, Miguel Angel Esteve eta izen ezagun bat, Azkueren kazetaritza-enpresetan zeregin ezin handiagoa izan zuena: Tomás de Epalza.

8

Azkue, kazetaria

1. AZKUEREN LEHEN EGITASMOA: *EUSKALZALE*

1.1. Azkueren lehen urratsak kazetaritzan

Ez dugu hemen euskararen ikerketetan eta euskal kulturaren berpiztean Resurrección M^a Azkuek izan zuen garrantzia azaldu behar. Hizkuntzalaria, kanta, ohitura eta ipuin zaharren biltzailea, musikaria, Euskaltzaindiko lehenengo lehendakaria, Bizkaiko Foru Aldundiak eraturako Euskal Katedraren lehenengo irakaslea, Euskal Herriko kulturaren interesik duen edonork badaki bere lan eskergak zenbaterainoko garrantzia duen euskararen garaipenerako. Ez gara gure aldetik asko luzatuko haietan. Gehixeago arituko gara, ordea, askoz ere gutxiago ezagutzen den Azkueren bere alderdi batez, guri bereziki interesatzen zaiguna eta inork (sakonki behintzat) aztertu ez duena: kazetaritza lanaz ari gara, noski.

Azkueren lana eta bizitza ezagutzen dituenak badaki Euskaltzaindiko lehen presidentek euskara hutsezko bi aldizkariaren sorreran parte hartu zuela: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903), Hego Euskal Herriko euskal kazetaritza behar bezala ezagutzeko ezinbestekoak direnak.

Resurrección M^a de Azkue, 1864ko abuztuaren 5ean Lekeition jaioa, Eusebio M^a de Azkue olerkariaren semea, Miguel Unamuno eta Sabino Arana Goiriren garaikidea -hainbestetan azpimarratu den bezala- Teologian doktorea, musikan aritua -Koloniako kontserbatorioan goi mailako ikasketak burutu zituen-, euskal idazlea, aipaturako bere garaikide haiek ere lortu nahi zuten Euskal Katedra eskuratu zuen. 1891n *Euskal Izkindea* euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako euskal gramatika. *Bein da Betico* eleberria 1893an agertu zen, eta *Vizcayatik Bizkaira* opera ere idatzi eta estreinatzeko astia ere bazuen, 1895ean, *Euskalzale* astekaria kaleratu baino lehenago. Bitartean, *Método práctico para aprender el vascuence guipuzcoano y vizcaíno* eta *Jesus Biotzaren Illa* liburuak, zartzuela batzuk eta bere hiztegi eskerga ere prestatzen hasia zen. Kazetaritzan ere aritua zen, 1888ko *El Vasco*

egunkariaren *Apis* literatur gehigarrian eta 1889ko *La Abeja. Revista mensual científico literaria* aldizkarian.

Azkuek lanerako izugarrizko kemena zuen, horren adibide Tomás José de Epalzak 1896. eta 1902. urteen artean bidali zizkion gutunak. Tomás José de Epalza y Palacio, Banco de Bilbao sortu zuen familiakoa, bilbotarra, 1854an jaioa, bera ere Bankuko kontseilaria izan zen 1895etik 1913ra arte. Azkueren egitasmoak bideratzeko dirua eman zutenetarikoa bat, Lekeitioko abadearen ikaslea izan zen, bere obra bat halaxe sinatu baitzuen (1896an argitaraturiko *El euskara o el baskuenze en 120 lecciones*), beti diru laguntza eman zion Azkueri, lehenengo aldiz, guk dakigunez, 1895ean, bere *Método práctico para aprender vascuence guipuzcoano y vizcaíno* argitaratu nahi zuenean.



Resurrección María de Azkue, 1905

1.2. *Euskalzaleren sorrera*

Dirudienez, Azkuek bazuen 1896an astekari bat kaleratzeko asmoa, ordurako inprimatzeko makina bat erosteko ahaleginak egiten baitzituen. Horretarako, Epalzaren laguntza behar omen zuen, eta bilbotarrak aholku hau eman zion:

“[...] No haga V. el desatino de comprometerse con la máquina de imprimir [...]. Dentro de un año ó año y medio, por la mitad de dinero de lo que cuesta una máquina Escudet, podrá V. comprar una pequeña maquina eléctrica cuyo gasto de sostenimiento no será la mitad. Ya comprenderá V. que todas las actuales imprentas están llamadas a desaparecer ó transformarse” (1896ko irailaren 25eko gutuna).

Azkueren izaera gogorak ezin zuen jasan bere obrak euskaraz ez zekite-
nek inprimatzeagatik akatsez josita agertzea, beraz inprimatzeko makina
edukitzea erabaki omen zuen. Bertan egingo zen *Euskalzale*. Astekaria
(*Astean asteango albistaria* jartzen zuen izenaren azpian) 1897ko urtarrila-
ren 3an agertu zen lehen aldiz, Bilboko Jardines kaleko egoitzatik. Bertan
moldagintzea eta *liburutegia* zeuden, urtebete lehenago Azkueren beste
eginkizun bat, euskal eskola, ireki zuen leku berean, eta han non antzoki
txiki bat zegoen (Arrien, 1983: 46). Azkuek berak zuzentzen zituen eskola
eta aldizkaria. *Euskalzale* kaleratu baino lehenago, Azkuek -euskal prentsan
maiz gertatuko zen bezala- propagandazko orri bat eman zuen argitara,
Epalzak ordaindu zuena. Orritxo hartan agertzen ziren Azkuek bere al-
dizkarirako nahi zituen zutabeak:

“[...] Elizgizonak izango dira paper onetan onetan iratsi edo eskribiduko da-
ben geienak, R.M. Azkuetar artezkari dala [...]. Erderazko gauzarik ezta ezer
agertuko, guztia izango da euskeraz egina. Onetarako alik garbien da errazen
agertuko dira euskerazko berbaak. Bentanea, sillea, pareta, confesinoia, prime-
rako billetea, ferrocarrileko estazinoia, habitazinoiak, fondak, jardinak eta euron
antzeko berba guztiak oraindixek pilotuten axiko dira; ta iru urte barru, lenago
ezpada, euron ordezko berba garbi ederrak zabaldu daizanean, su emongo iako
erderakada-pilo orreri” (*Euskalzale*, 1897ko urtarrilak 3, 1. zenbakia, 1. orrial-
dea).

1.3. *Euskarari buruzko jarrera*

Azkuek, euskara kontuetan jakintsutzat hartzen hasia, bere teoriak azal-
tzeko baliabide bat behar zuen, eta huraxe *Euskalzale* izan zen. Hasiera-
hasieratik agertu zuen Azkuek lexikoari buruzko bere jarrera. Horrelako
gauzez aritu zen Azkue *Euskalzalen Vascofillok Euskalzaleri* izena zuen atal

batean. Mende bat lehenago Juan Antonio Mogelek bere *Peru Abarcan* zer azioen: “Los bascongados franceses llenan de esta letra h todas sus obras [...]. Se valen también mucho de la letra k, y es mucho embarazo para los demás bascongados que no la usamos en voz alguna”. *Euskalzale* agertzen zen garaian, euskaraz irakurtzen zekitenek oso gutxi ziren. Azkuek zeraman Katedra sortu arte nork bere modura irakurtzen ikasten zuen. Ortografien sakabanaketak ez zuen askorik laguntzen euskara hedatzeko orduan. Azkuek eta Arana Goirik, nork bere liburu eta aldizkarietan, ortografia bana -baina antzekoa- proposatu zuten.

Euskaldunen analfabetismo handia -euskaraz, noski, ez erdaraz- kontuan harturik, nora jo zuen Azkuek? Batez ere apaizengana, haiek baitziren hizkuntza idatzia aspaldidanik hobeto zaintzen zutenak. Azkueren ustez “elizgizonak dira gaur-egunean erri geien geienetan dagozan irakasle bakar-rak”. Esan bezala, *Euskalzale*, beste gauza batzuen artean, Azkueren hizkuntzari eta batez ere neologismoei buruzko ideien igorle bihurtu zen. Zer esanik ez, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara katedraren lehen irakasleak erdaratik hartutako hitz guztiak euskararen altxorrekoen truke aldatzea proposatzen zuen, nahiz eta azken hauek oso leku gutxitan erabiliak izan. Honekin batera Azkuek bere konfiantza guztia irakaskuntzan jarri zuen. Aldi berean, Azkue kezkatu agertzen zen erdal eskoletan euskarak nozitzen zuen atzerapenarengatik.

1.4. *Euskalzale* indartu da

Epalza eta beste lagun batzuei esker, *Euskalzale* bigarren urtera ailegatu zen. Azkuek kementsu jarraitzen zuen lanean. 1898ko lehenengo hilabeteetan, Azkuek, *Euskalzale* kaleratzeaz gain, eta Euskal Katedraz arduratu ez ezik, beste gauza batzuetan sartuta zegoen, aldizkarian gauza berriak martxan jarri nahi omen zituen. Saldu ala ez saldu, *Euskalzale* hiru urtetan kaleratu zen, eta argitaratzeari utzi ziotenean ere, Bizkaiko Gobernadore zibilarren aginteak euskaraz eta erdaraz idaztera behartzen zuelako zen: Azkuek ezin izan zuen jasan.

Hiru urte haietan, Azkuek Hego Euskal Herriko euskaraz egindako lehenengo aldizkari modernoa ateratzea lortu zuen: aurrekoak kulturalak ziren, batik bat, baina Azkuerena bestelakoa zen. Kulturala ere bai, ehunka testu zahar, olerki, ipuin, partitura, kanta argitaratu baitzituen. Baina informazio-koa ere bazen. Iritziak -linguistikoak, batez ere-, irudi eta argazkiak ere *Euskalzalaren* nonahi aurki daitezke, garai hartako eta geroagoko euskarazko aldizkari askotan ez bezala. Komikiak ere -edo behintzat komikien aitzindarien antzerako istoriotxoren bat- azaldu ziren *Euskalzalaren* orrialdeetan, hala nola 1898ko irailaren 22ko alearen azken orrialdean, testua B. Mokoroak eta marrazkiak Xandaro delako batek egindako istorioa.

Azkueren jegin unibertsalak hala lortu zuen, idazle askoren laguntzarekin, noski: hor ditugu Karmelo eta Bonifacio Etxegaraireren testuak, Urruzuno, Unamunzaga, Campión, Zamarripa, Iturrioz, J. Artola, Azkunaga, Madinabeitia, Dodgson, B. Mokoroa eta beste abar luze batenak, garaikideen artean. Ezin falta Emeterio eta Felipe Arreseren olerkiak, Eusebio Maria Azkuerenak, eta Domingo Agirreren euskal eleberriaren sortzailearen nobelak. Idazle zahar eta urte haietako askorentzako ezezagunen artean hor ditugu Iztuetaren, Kardaberazen, Larramendiren, Iturriagaren, Mendibururen, J. B. Elissambururen testuak, besteak beste, eta ezin ahaztu Azkueren aldizkarian agertu zela lehen aldiz Pedro Ignacio Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*, euskaraz ezagutzen dugun lehenengo antzerti-testua, Azkuek 1897ko Gabonetan argitaratzerakoan *Gabon gaberako ikuskizuna* deitu zuena, *erderakadak* zuzendu gabe -nahiz eta bere iritzia normalean guztiz bestelakoa izan. Honetan, beste gauza askotan bezala, Resurrección M^a de Azkue aitzindaria izan zen.

1.5. *Euskalzalaren galera*

1899ko irailaren 27tik (aurreko 37 zenbakiak euskara hutsezkoak ziren), Bizkaiko Gobernadoreak agindu bide zuen *Euskalzale* euskaraz eta gaztelaniaz ager zedila. Hala egin zuen Azkuek: aldizkaria bi zutabetan banaturik zegoelarik, ezkerrekoan euskarazko testua eta eskuinekoan erdarazkoa jarri zituen. Urriaren Gobernadore Zibilak ehun pezetako diru-zigorra ezarri zion aldizkariari, *Euskalzaleen* lagunek ordaindu zutena. 1900en ez zen Azkueren aldizkaria agertu, baina horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiko lehen presidentea izango zenaren kazetari-ekintzak hor bukatu zirenik. Diru-zigorra ordaindu zutenetariko baten laguntzaz beste aldizkari bat kaleratu zuen 1902an eta 1903an: *Ibaizabal*. Gizon hura -*Euskalzal*en ere zenbait testu argitaratu zuena- Ebaristo Bustintza zen.

2. *IBAIZABAL*

2.1. *Azkue eta Bustintza*

Azkueren eta Bustintzaren arteko harremanak 1896an hasi ziren. Urte hartan Bustintza Almansan zegoen maisu. Euskaldun zaharra bazen ere, euskara kontuetan ez omen zuen bere buruarengan konfiantza handirik. Bere euskara hobetzeko, Bustintzak, hamabi urte zituenetik Euskal Herritik kanpo bizi zenak, Azkueren “izkindea” erabili zuen. Horrek piztu zion euskararenganako maitasuna.

José Antonio Arana Martijaren hitzetan, “hainbat arazotan sartuta zegoen Azkue eta hiztegia ere burutzen ari zen. Laguntzaile bat behar zuen bai katedrarako eta bere lanetan ardura pixka bat beste baten eskuetan uzteko”. Azkue berehala interesatu zen. Etxean guztiek euskaraz hitz egin zuten, eta Bizkaira itzuli nahi omen zuen: Ebaristo Bustintzak 33 urte zituen, frantses eta ingeles pixka bat bazekien, eta berdin zitzaion “la índole del trabajo con tal que yo pueda realizarlo”. Ziur aski, gero *Kirikiño* izango zenak ez zuen ezta pentsatu ere lanbide hori kazetariarena izango zenik.

Azkuek bai. Artean bazuen beste aldizkari bat argitaratzeko asmoa, eta halaxe esan zion Bustintzari 1900eko apirilaren 6ko gutun batean. Azkuek gauza batzuk galdetu zizkion: nolako euskara erabili beharko zuten, aldizkariaren izena, eta, garrantzitsuena, ea zuzendaria izan nahi zuen: “Pero no puedo aceptar por la sencilla razón de que no he sido nunca periodista, ni de cerca ni de lejos, ni sé con qué se guisa eso”. Resurrección M^a de Azkue ez zen aise errenditzen direnetarikoa, eta jarraitu egin zuen, Bustintzaren ezetzak errepikatu baziren ere. Aldizkariarena ez ezik, beste gauza batzuk ere proposatu zizkion: Sotaren semeen irakaslea izatea, esate baterako, Bustintzak onartu ez zuena zeren eta “umezaiña zan irakaslea baiño geiago”, edota Azkuek prestatzen zuen hiztegi eskergarako laguntzaile izatea. Hasieran ezetz esan bazion ere (“usted cree que yo domino el idioma y no hay tales carneros”, dio artean Sigüenzan bizi zenak), gero hiztegian (eta aldizkarian) parte hartzea onartu zuen. 1901ean Bilbora joateko prestakuntzak hasiak ziren, eta urte hartako gutunetan behin eta berriro aipatzen zen aldizkariaren asmoa. Kazetak bazuen izena: *Eguna*, Bustintzak proposatu zituen beste guztiak alde batera utzita: *Ze barri?*, *Barrizale*, *Barridun*, *Or emen*, *Azaldari*, *Batzaille*, *Agerkari*, *Euskalzale* eta *Geutarra*, garai hartan modan zeuden erdarazko izenak itzultzea, “como la Voz de tal, ó el Eco de cual” ez baitzuen batere gogoko.

Arazo batzuek atzeratu zuten Azkueren aldizkari berriaren agerpena: lehena Bustintzak zango batean nozitu zuen istripua izan zen. Argi dago, ordea, benetako zuzendaria Azkue bera zela. Hurrengo gutun batean, Azkuek baieztatzen dio agintariek oztopoak jartzen dituztela aldizkariaren aldean. “Era de temer”, dio Bustintzak 1901eko urtarrilaren 29ko gutunean, “sabiendo cómo las gastan en esta tierra en achaques de libertad”. Osasun arazoak behin konponduta, 1901eko uztailaren 26an Bustintzak ezagutarazten dio Azkueri Bilbora doala. *Eguna* agertzeaz zegoen, nahiz eta arazo politikoak egon: Azkuek kaleratu nahi omen zuen urte hartako martxoaren 6rako.



Ebaristo Bustintza eta bere emaztea

2.2. Ibaizabalen jaiotza

Ez zen egun hartan, ezta urte hartan ere agertu. Azkueren bigarren euskal aldizkariaren lehen zenbakia 1902an argitaratu zen, urtarrilaren 5ean. Handik bi urtetara igandero agertu zen, “bizkaitarrez eta guipuzkoarrez eguiña”, *Bloak* (Bustintza Lasuen Olaso Aguirreren akrostikoa) zuzendua. *Ibaizabal* kaleratu ahal izateko, Azkuek berriro Tomás José de Epalzaren laguntza izan zuen.

Ibaizabalek Euskalzaleren biderei jarraitzen zion, eta Azkueren asmoa euskarari aldizkari bat ematea zen. Hala ere, bazegoen *Ibaizabalen* eta *Euskalzaleren* arteko ezberdintasunik: idazkera, adibidez. Azkuek Bustintzaren aholkua kontuan hartu zuen: *Bloak*, kazetaritzan berria izan arren, ederki susmatzen zuen ahalik eta irakurleria handienera ailegatzeko, hizkuntzak ere ahalik eta errazena izan behar zuela. Bustintzak,aldi berean, gogoratu zion Azkueri *Euskalzale* irakurtzen zuten askok esaten zutela Azkuek erabilitako hizkera zela “vascuence [...] *sui generis*, no el que hablábamos todos, sino uno inventado para su uso particular por los que tenían afición a estudios filológicos”. Bustintzak tarteko idazkera bat proposatzen

zuen, “zezena” eta ez “cecena”, adibidez, edo “katua” “catua”ren ordeztu, baina “guizon”, eta ez “gizon”; “rr” bikoitzak ere mantendu behar zirelakoan zegoen. Hala egitea erabaki zuten zuten “Hendaya-ko Batzarrak berari jagokazan frutuak emon arte” (*Ibaizabal*, 1902ko urtarrilak 5, 1. zenbakia, 1. orrialdea).

2.3. *Ibaizabalen* edukiak eta idazleak

Ortografia edo idazkera ez zen *Ibaizabalen* berrikuntza bakarra. Bizkaierak eta gipuzkerak elkarrekin bizi behar izango zuten. Orduan ez zuen Azkue bere gipuzkera osotua proposatu, eta bizkaieraz idazten zuen gehienbat. Mamia ere, nolabait, berria zen. Eduki literarioak, neurri handi batean mantentzen baziren ere, beren lekua uzten zihoazen eduki informatiboak. Lau zutabetan banaturik, *Euskalzalek* ez bezala ez zeukan irudirik, inprimategi propioak ere ez baitzeukan. *Ibaizabalek* garaiko egunkariaren antza zeukan, bai kanpoko ezaugarriak, bai edukiei zegokienez.

Idazleen artean, Ebaristo Bustintza eta R. M. de Azkue izan ezik, beste izen ospetsu batzuk ere aurki ditzakegu: *Ibaizabalen* beren olerkiak argitaratu zituzten, esate baterako, Emeterio Arresek, Felipe Arrese Beitiak, Ramon Guelbenzuk, Victoriano Iraolak, Enrique Elizecheak, Eugenio Urrozek, Jose Artolak eta Pedro Enbeitak. Ezin ahaztu, bestalde, geroagoko euskal kazetaritzan oso garrantzi handia izango zuen Gregorio Mujika.

2.4. *Ibaizabal* eta politika

Ez da kasualitateko gauza Azkueren aldizkariak Bilbon agertzea. Bizkaiko hiriburuko kaleetan entzuten zen euskara ez zen bilbotarra, inguruko herrietako nekazariena baino. Euskara galduta zeukan hiri hartan, heziketa ekonomiko eta industrial izugarria bizi zuen hiri hartan, Sabino Arana Goiriren abertzaletasuna sortzen ari zen. *Ibaizabal* ere sartuko zen abertzaletasun hartan, Bustintzaren eraginez. Euskaldunak ez zeuden batere ohituta euskaraz idatzitako libururik eta, are gutxiago, aldizkaririk ikusten. Egoera hori leuntzera etorri zen *Ibaizabal*.

Euskararen defentsa hartan, politiko batzuen alde eta beste batzuen kontra jarri behar izan zuten. Romanones gorrotatuena zen, zeren eta ministro zela “agindu eban ez irakasteko euskeraz kristiñaren dotriña eskolaumeak”. Aldi berean, Jose Maria Urquijo diputatua goraiatzeko zuten Madrileko Kongresuan botatako hitzengatik, Romanonesen aginduen kontra zihoalako hain zuten. Sozialistak (“*sosolistoak*” deitzen zieten) ere ez zituzten oso begiko.

Garrantzitsuena, gure ustez, Bustintzaren jarrera zen. Arana Goiriren abertzaletasunetik gero eta hurbilago zegoen. Geroago, jakina denez, Arana-

ren euskarari buruzko tesien defendatzaile sutsuenetariko bat izan zen, eta Akademiaren kontrakoa (Euzko Alderdi Jeltzaletik gertu zegoen Euzkeltzale Bazkunakoak eta 30. urteetan *Euzkerea* aldizkaria urrunago ailegatu ziren gatazka hartan). Azkue, bere aldetik, Aranaren ideia politikoen alde egon bazen ere, hizkuntzari dagokionez nahiko urrun zegoela esan daiteke.

2.5. *Ibaizabalen desagerpena*

Ibaizabal Euskalzale baino informatiboagoa zen. Bazeukan oso informaziokoa zen atal bat, “Asteko berriak”. Ez zen oso ideia berria, lehenagoko beste euskarazko aldizkariren batean egon bazegoelako horrelako atal bat, hala nola Pariseko *Gure Izarra* hartan. Hego Euskal Herrian, ordea, *Ibaizabalek* hasiera eman zion geroagoko euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko den informazio mota oso garrantzitsu bati, herrietako informazioari, tokian tokiko informazioari. Atal hori osatzeko, Azkue eta Bustintzaren aldizkariak bazeukan berriemaile sare bat, 22 berriemailek osatua. Gehienak (15) gipuzkoarrak ziren. Besteak (7) Bizkaikoak ziren.

Uste izatekoa da, beraz, *Ibaizabal*, Bilbo alde batera utzita, Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago saldu eta irakurtzen zela, aldizkaria egiten zutenek ere uste zuten bezala. Aranbeazkoaren ustez esaterako, Bizkaian ez zen behar adina irakurtzen “politika madarikatutik, [...] euskera utsean dagoelako, bizkaitarrista-tzat artutea. Ausse beñipeiñ esaten eben Euskalzale-gaitik nik dazautazan bizkaitar batzuek”. Hori zela eta, hizkera zela-eta edo Gipuzkoa eta Bizkaiko egitura soziolinguistikoen arteko ezberdintasunak zirela-eta, Gipuzkoan gehiago saltzen zen: Bilbon ez ezik, Bizkaiko zazpi herritan ere banatzen zen (Bermeon, Lekeitio, Lemoan, Plentzian, Mungian, Markinan eta Durangon), eta Gipuzkoan hamabitan (Donostian, Azpeitian, Bergaran, Tolosan -Baleriano Mokoroa arduraduna zen-, Irunen, Deban -banatzailea ostatuko jabea zen, Esteban Egaña, aberztzale sutsua, *Arabarra* aldizkarian argitaratu zituen iragarkietan ikus daitekeenez-, Zumaian, Zarautzen, Oñatin, Arrasaten, Eibarren eta Errenterian).

Hona hemen euskal aldizkarien gaitza, beren sortzaileek nahi adinako irakurle ez izatea. Ezinezkoa da *Ibaizabalek* zenbat erosle izan zituen jakitea; ziur aski, bi mila baino gutxiago. Dena den, ez aldizkariak sortzen zituen zorrak ordaintzeko behar zituztenak. 1904an ez zen *Ibaizabal* agertu. Azken zenbakia 1903ko abenduaren 27koa da. Resurrección M^a de Azkuek eta Ebaristo Bustintzak 103 ale kaleratu zituzten. *Ibaizabalek* eredu bati hasiera eman zion, *Argiak*, adibidez, gauza askotan jarraitu zuena.

9

Prentsa politikoa eta euskara XX. mendearen hasieran: aldizkari jeltzaleak (1896-1919)

1. Euskalerrriakoen enborra. *Euskalduna*

Foruzaletasunaren eta abertzaletasun jeltzalearen artean, badago beste korrante politiko bat, hizkuntzari dagokionez ere bere isla izango duena: *euskalerrriakoak*. Foruzaletasunetik harantzago doazenak, baina Aranaren diskurtso politikoa bezain erradikalak ez direnak. Arana Goiri hilda, *euskalerrriakoak* abertzaletasunera joko dute. *Euskalerrriakoek* bazituzten beren komunikabideak, eta haietan euskarak leku bat zuen. Azkueren aldizkariak ez ezik badago beste aldizkari bat ere, oso garrantzitsua -hau bai, politikoa- eta elebiduna: *Euskalduna*.

Bere izenburuak dioskunez, *Periódico fuerista* bat zen, hasieran behintzat, baina foruzaletasunetik abertzaletasunera joko du, nahiz eta abertzaletasun hori jeltzalea ez izan, Aranaren erabat aldekoa ez izan. Hasieran astekari hori Sagarminagak 1876an eratutako *Sociedad Vascongadaren* bozeramalea zen. Corcuera eta bestek erakusten dutenez, elkarte hori Aranaren abertzaletasunaren arbasotzat har dezakegu.

Corcuera berak azpimarratzen du: “De todas las agrupaciones o partidos fueristas existentes en Vizcaya, va a ser la vieja Sociedad Euskalerrri [...] donde se produzcan transformaciones más interesantes y con mayor repercusión en el futuro político del País Vasco” (Corcuera, 1979: 395).

Ikurrak ere Euzko Alderdi Jeltzalearena burura dakarkigu: *Jaungoikua eta Foruak*. Sagarminaga 1894an hilda, Sota nagusitu zen talde horretan. Aberatsa eta landua, Ramón M^a Sotak, abokatua eta itsasontzigilea, Felipe Arrese Beitiaeren eta, guri gehiago interesatzen zaiguna, Resurrección M^a Az-

Arrese Beitiaren eta, guri gehiago interesatzen zaiguna, Resurrección M^a Azkueren laguntza bereganatu zuen. Azkue urundu zen Arana Goiriren alderditik 1895ean. Urte batzuk geroago, euskara hutsezko aldizkari bat sortuko zuen, *Euskalzale*. Sotak eta beren jarraitzaileek, Tomás Epalza esate baterako, baliabide ekonomikoak eman zizkieten Azkueri *Euskal Ikastetxea* sortzeko. *Sociedad Euskalerrrikoek* (Sotatarrek azken finean) *Euskaldun Biltokia*, *Euskeria* abesbatza eta *Alkartasuna* elkarteak sortu zuten. Sabino Aranaren pare-pareko lana egiten zuten, baina beren jarrera ez zen beti oso garbia izan. Aranistek bezala, euskalerrrikoek ere abertzaletzat zuten beren burua. Foruzaletasuna erabat utzi gabe, bestalde. Beste gauza bitxi bat: euskalerrrikoek kritika gutxi -eta askotan begirune handia- eman zioten Sabinori, berarengandik eraso latzak jasotzen zituzten bitartean.

Esan bezala, *Euskalduna*, 1896an sortua, *Sociedad Euskalerrriaren* bozeramalea zen. *Baserritarra* sortu zenean, bertan karlistentzako irainekin batera, ez zen falta *euskalerrrikoentzako* baten bat. Azkuerentzat ere berdin: 1897an sorturiko *Euskalzale* -Epalza *euskalerrrikoaren* diruaz, gogora dezagun- ez baitzeturten bat Arana Goiriren hizkuntzari buruzko pentsamoldearekin. 1888an, Unamunok eta Aranek ere nahi zuten Bizkaiko Foru Aldundiko Euskal Katedra bereganatu zuen Azkuek. Aranarentzat porrota izan zen katedra hori ez lortzea, bere hizkuntz ideiak zabaltzeko tribuna ezin egokiagoa zelako. Azkuek berak kontaktatzen zuten Aranek behin proposatu ziola klaseak ematea, dohainik, lekeitiarrak bitartean, katedraduna baitzen, soldata eskuratuko zuela. Azkuek, zer esanik ez, ezetz esan zion. Sabino Arana, hizkuntzari dagokionez behintzat, garaiko beste korronteetatik gero eta urrunago zegoen, 1901ean, ikusi dugun bezala, Hego eta Iparreko euskaldunen arteko elkarte bat sortzeko -gero Eskualzaleen Biltzarra izango zena- egitasmoa deuseztatu zelako, bere erruz hein handi batean. Denboraren poderioz, aranistek eskola linguistiko bati hasiera eman zioten.

Denbora gutxian, Sotaren aldekoek lortu zuten euskal kulturaren sakonki murgiltzea, Arana Goirik baino askoz gehiago agian. *Euskaldunan* Telesforo de Aranzadi, Felipe Arrese Beitia eta R. M. Azkueren izenak aurki ditza-kegu. Euskarari dagokionez, Sabinoren aldizkarietan baino gehiago zegoen euskaldunon hizkuntzaz idatzita, zenbaki bakoitzaren %15 inguru. Gainera, euskara ez zuten gauza marjinal edo garrantzi politikorik gabekorako uzten; testu politikoak ere badaude euskaraz. *Jaungoikoa eta Foruak* lematik *Jaungoikua eta Lagi-Zarrara* pasatzen da. Euskarazko testu politiko gero eta gehiago agertzen dira *euskalerrriko* eta sabindarren akordioa lortzen denean, 1898an. Hizkuntz eredua ere ez zen aranista, euskara garbiago bat, zokokeri-etatik urrunagoa, erabiltzen baitzuten. Ez da harritzekoa: Azkue hortik zebilen, eta badakigu bere eta Aranaren ideiak oso ezberdinak zirela idazkerari dagokionez.

Euskarari buruzko jarrera ere leunagoa zen *Euskaldunan* Sabino Aranaren *Baserritarran* baino. Bientzat, *euskalerrrikoentzat* eta sabindarrentzat, euskara arma politiko bat zen Euskal Herria edo *Euzkadiren* nortasuna froga zen heinean; baina Sotaren aldekoentzat euskara ezinbestekoa zen, euskal nortasun eta izaeraren funtsezko oinarria, eta Aranarentzat aldiz, nahiz eta euskararik gabeko Euzkadirik ezin egon, euskararik gabeko *euzkotarra* (eta ez, haatik, euskalduna) bazitekeen. Agian *euskalerrrikoek* (teorian behintzat) lehenagoko gizartea berreskuratu nahi zutelako, eta aranistak aldiz etorkizunerako bat proposatzen zutelako. Biak antzinako legeetan oinarriturik, baina Aranaren aurkikuntza hortik abiatuz beste kontzeptu modernoago batera iritsi nahi izatea izan zen: nazioa. Beharbada horregatik *euskalerrrikoak* bat egin ziren sabindarrekin hauteskundeetan.

“Nuestras simpatías en la lucha electoral para diputados provinciales están al lado de los señores don Sabino de Arana y Goiri, candidato por el distrito de Bilbao, y don Angel de Zabala y Ozamiz, por el de Guernica. Estos candidatos representan, en nuestro concepto, en lo político la tradición vizcaína, en lo administrativo la moralidad más severa, y en sus circunstancias personales la absoluta independencia de carácter [...]” (*Euskalduna*, 1898ko irailak 18, 106, zenbakia).

Euskalerrrikoek eta jeltzaleek urrutze eta elkartzeko momentuak izango zituzten. *Euskalduna* XX. mendeko lehen hamarkadetan ere argitaratzen zen. Baina XIX. mendeko azken urte haietan, bi talde haiek batu ziren, eta Arana Goiriren lehenengo egunkaria Sotaren diruaz argitaratu zen: *El Correo Vasco*. Arana hil ondoren, eta *Euskaldunaren* orrialdeetatik, abertzaletasun jeltzalearen barruko korrante ideologiko euskalerrrikoa, korrante kritikoa gauzatu zen, XX. mendearen lehen hamarkadetan oso garrantzitsua izango zena.

2. SABINO ARANA, EUSKAL KAZETARIA

2.1. Sabino Aranaren hizkuntzari eta kazetaritzari buruzko ideiak

Ibon Sarasolak azpimarratu duenez, Arana Goiri -bere burua hala hartzen bazuen ere- ez zen hizkuntzalari bat izan, politiko bat baizik, eta beraz euskarari buruzko bere ideiak bere pentsamolde politikoaren argitan aztertu behar ditugu (Sarasola, 1976: 144).

Sabino Arana Goiri kazetari edo, bere garaiko terminologia erabiliz, publizista ere izan zen. Hasiera-hasieratik, euskal abertzaletasunaren sortzailak ulertu zuen bere ideiak zabaltzeko tresna hoberena kazetariak zela, eta kementsu ekin zion aldizkariak argitaratzeari. Sabino Aranak argitaraturiko aldizkariak beste batzuk aritu dira, zeinen lanak orrialde hauetan aipatuko ditugunak; horregatik gu hemen Arana Goirik euskaraz egindako kazetari lanaz gehienbat arduratuko gara.

2.1.1. Hizkuntzari buruzko pentsamoldea

Garrantzitsua iruditzen zaigu hemen berriro gogoratzea hainbestetan errepikatua: Arana Goirientzat euskara inportantea da Iberiar Penintsulako latindarra ez den hizkuntza bakarra delako, eta beraz, euskaldunen -edo, haren hitzetan, *euzkotarren-* ezberdintasun eta singularitasunaren froga ukaezina delako. Besteak beste Larrondek (1977: 136) eta Corcuerek (1979: 395) diotenez, pentsamolde aranistan hizkuntza zen arraza definitzen zuen osagarri bat, hau da, arrazaren menpe zegoena. Horregatik Aranak *Euzkadi* eta *euzkotar* hitzak asmatuko ditu, betiko *Euskal Herria* eta *euskaldun* hitzen aurrean, azken hauek esanahi linguistikoa baitzuten.

Hizkuntzak, euskarak, beste zeregin bat ere beteko zuen: babespena izatekoa. *Maketoaren* erasoari aurre egin ahal izateko, Arana Goiriren ustez, euskara arma ezin hobea izan zitekeen. Beraz, lehenengo aldiz ikusten dugu nola euskaldunen hizkuntzaren betebeharra plano batetik beste batera pasatzen den: komunitate linguistikotik (*Euskal Herria*, hau da, euskaldunen edo euskara dutenen herria) kontzeptu politikora (*Euzkadi*, hau da, euzkotarren antolaketa politiko propioa). Beste modu batez esatearren, Aranak proposatzen du antolakuntza politiko bat, lurraldetasunean oinarritua, ezaugarri kulturalak alde batera utzi gabe, haiek aprobetxatuz garai modernoetara moldatzen zen beste kontzeptu komunitario bat finkatuta.

2.1.2. Kazetaritzari buruzko pentsamoldea

Hemen ere, euskarari menpeko zeregin bat eman zion. Bizkaian euskaraz hitz egiten zuten herritarrek, baserritarrek, ez hiritarrek, Gipuzkoan ez bezala. Beraz, ez da harritzekoa Aranak, zentzu praktikoaz, euskara *hizkuntz nazionaltzat* hartu

bazuen ere, bere propaganda lan gehienak elebidunak izatea, eta parte gehiena eta inportanteena, erdaraz.

Azken batean, Aranak bere mezua Bilboko hiritarrei bidaltzen zien, eta hauek erdaldunak ziren gehienbat. Beste zera hau azpimarratu nahi genuke, geurea den gaian sartu aurretik: Aranaren mugimendu politikoa, herri, baserri eta mendietako bizitza ideialari buruz erreferentzia ugari egin arren, eta gizarte tradizionalari begira egon nahi bazuen ere, hiritarra, modernoa, gizarte industrializatu baten emaitza zela azken batean. Gizarte moderno haren beste emaitza bat kazetaritza zen, eta ondotxo zekien Aranak horretaz baliatu behar zela bere ideiei ahalik eta zabalkunde handiena emateko.

2.2. Sabino Aranaren aldizkariak

2.2.1. Sabino Aranaren lehen aldizkaria: Bizkaitarra

Sabino Aranak berak sorturiko lehen aldizkaria *Bizkaitarra* izan zen. Izenburua hauxe zen, honelaxe idatzia, Sabinok proposatzen zuen ortografia -“t” eta “l” arraiadunak, “r” kakodunak- ezina zen garaiko inprimategietako baliabideekin, berak 6. zenbakian azpimarratzen duenez. Aldizkaria 1893an sortua zen, baina argi dago lehenengo lau zenbakiak “orri bolanteak” baino ez zirela izan.

Bizkaitarra hasi zen benetako aldizkari moduan argitaratzen 5. zenbaki-tik, 1894an. Hilabetekariaren “*artezkari eta jaubea*” Arana bera zen; baita idazle ia bakarra: “Sépanlo, pues, todos: el único responsable ante las autoridades, el público y los individuos, de cuantos escritos aparezcan en este periódico, es su director Arana eta Goiri'tarr Sabin [...]”, zioen Aranak 5. zenbaki hartan.

Aldizkaria, zer esanik ez, politikoa zen, Arana Goiriren ideien bozeramale. Euskararentzako lekua aldakorra zen zenbaki batetik bestera. Hori bai, idazkerak ere Arana Goiriren ideia filologikoen ispilu zen.

Aldizkariak, Aranari berari kasu egingo badiogu, 1.500 bat ale saltzen zituen. *Bizkaitarraren* laguntzaile izan zen Engracio Arantzadik 1.000 bat saltzen zituela dio. *Bizkaitarra* argitaratzeko lanetan ez ezik, beste gauzetan ere aritzen zen Arana Goiri. *Euzkeldun Batzokija* sortzeko asmotan eta beste testu batzuk idazten ematen zuen bere denbora. Testu horien artean *Etimologías Euskéricas*, *Pliegos Euskeráfilos*, *Pliegos Euskeralógicos* eta *Pliegos Histórico-Políticos* zeuden. Aldizkarian ere argitaratu zituen Aranak

bere lan filologikoak, hala nola *Análisis filológico de un sermón euskérico* (sermoia, hau ere azpimarratu nahi genuke, Aranaren pentsamolde linguistikoan eragin handia izan zuen J. A. Mogelena zen).

Euskaraz agerturiko testurik garrantzitsuenetakoa “¡Euskeldunek, izertu gaitien!” izenekoa izan zen, *Maitetsea* delako batek sinatutako artikulu sorta bat, 11., 12. eta 13. zenbakietan argitaratuak. Aranak berak itzuli zituen “La escuela en Bizkaya” izenburuarekin. Bertan azaltzen dira euskararen garaipenerako oztoporik nagusienatariko baten zioak: hezkuntza erdalduna. Arana eta sortu berri ziren abertzaleentzat, lehenago eta geroagoko euskaldunentzat bezala, hezkuntza kezka nagusienatariko bat zen, oso loturik euskararekin.

Baina jarrai dezagun *Bizkaitarrarekin* eta bukatuko dugu esaten bi ale bereziak argitaratu zirela. Biak R.M. Azkueren *Vizcayatik Bizkaira* opera go-raipatzeko ziren (21. eta 22. zenbakiak). Sabinoren izaera sutsuaren froga, urtebete lehenago Azkue eta Aranaren arteko harremanak ez baitziren oso onak, lekeitiotarrak Bizkaiko Diputazioko Euskal Katedra lortu baitzuen, Aranak ere nahi zuena. Hala ere, Arana beti Katedraren alde agertu zen.

Azkue, dirudienez, Euzko Alderdi Jeltzalean egon zen, denbora gutxian bazen ere: sei hilabete. 1895eko ekainean alderdia utzi edo bota zuten. Sabinok, Corcuera aipatzen duen gutun batean (Corcuera, 1979: 287), leporatzen dio Euskeldun Batzokijakoetan baino alderditik kanpoko batengan konfiantza izatea, ziur aski Sota buruan zeukalarik. “Solamente en cosas particulares me tienes, pues, a tu disposición”, bukatzen zuen Sabinok. Hala ere, Aranak bazekien euskara eta euskal kulturaren zenbaiterainoko pisua zeukan Azkuek. Sabinok ez zuen Azkuerengan konfiantza politikorik, baina kulturalki begirune handia zion; eta aldiz, Azkuek Arana politikoki errespetatzen bazuen, kulturalki eta batez ere hizkuntz gauzetan ez zuen inoiz ere kontuan izan. Esan daiteke Azkue beti abertzalea izan zela, hala ere, Arana eta aranistengandik -Bustintzarekin berarekin gertatutako bilakaera lekuko-oso urrun mantendu zen.

2.2.2. Sabino Aranaren bigarren aldizkaria: Baserritarra

Urte horretan, 1895ean, *Bizkaitarra* desagertu zen. Haren jarraitzailea *Baserritarra* astekaria izan zen. Lehenengo zenbakia 1897ko maiatzaren 2an kaleratu zen. Lehentxeago Arana Goiri anaiek bi egitasmoz hitz egiten zuten: *Baserritarraz* eta aldizkari batez, elebiduna (Arantzadi, 1935: 50). Azken hura, guk dakigunez, ez zen atera.

Baserritarraren lehen zenbaki hartan euskarari buruzko pentsamolde abertzale argi eta garbi agertzen zen: “Euskereari eutsi egixube zeuen Abenda ta odolaren izkerea dalako, zeuen asabak arrotzagaz guda egitten ebenian, euren askatasunen alde, euskeraz itz egitten ebelako, zeuen zanetan izkera ori daukazubelako eta Euskeldun ixenen duin ixan gura badozube Euskera mattia jakin biarr dozubelako”.

Cánovas del Castelloren gobernuaren zentsuratik ihes egiteko edo (gogora dezagun nola Bizkaiko Gobernadore Zibilak 1895eko irailean *Bizkaitarra* galerazi zuen *Bizkaitarra*, *Kizkitzaren* artikulu batengatik (Elorza, 1978: 149), *Baserritarraren* zuzendaria ez zen Sabino Arana, bera sortzailea bazen ere, jakina, Teófilo Guiard Larrauri baino. Ez luzerako orde, 1897ko ekainean dimititu baitzuen (Corcuera, 1979: 439), Sabino eta Luis Aranarekin ideologikoki guttiz bat ez zetorrelako (Guiard *euskalerrriakoen* aldekoa omen zen), eta orduan Sabino bera zuzendari jarri zen. Aldizkaria karlisten aurka borrokatzeko sortu omen zen, Luis de Arana Goirik zioenez. Dirudieenez, berak bazekien astekariak gutxi iraungo zuela, halaxe baitzioen Luis Aranak Engracio Arantzaidiri 1897ko apirilaren 30ean bidalitako gutun batean: “Saldrán los números que parezcan necesarios [karlistei erantzuteko]. De todos modos no durará más que unos siete u ocho números” (Corcuera, 1979, 437).

Gehiago iraun zuen, baina arazo ekonomikoak hor zeuden. Hiru mila ale inprimatzen omen ziren, baina saldu askoz gutxiago saltzen ziren. Arantzadik berak aitortzen du hamargarren zenbakia kaleratzerakoan (18 atera ziren) 235 harpidedun baino ez zutela. Ia 200 Bizkaian zeuden, erdia Bilbon eta beste erdia probintzian; bost harpidedun Araban (baina bat ere ez Gasteizen, non abertzaletasunaren sarrera geroago gertatuko zen); Donostian 23 eta Gipuzkoan beste 12; Nafarroan hogeitabi (bi Iruñan); besteak zeuden Espainian (bi), Alemanian (beste bi), Filipinasetan (beste bi) eta Ipar Euskal Herrian (lau). “Doscientas sesenta y cinco suscripciones tras cuatro años de durísima brega; tras cuatro años de cárceles, suspensiones, destierros, con 32 números de Bizkaitarra. Razón tenía D. Luis de Arana-Goiri al lamentarse de que la gente no respondiese más de lo que respondía al enorme esfuerzo realizado”, zioen Arantzadik (Arantzadi, 1935: 54).

Euskarari dagokionez -kontuan hartu behar dugu *Baserritarra* oso politikoa zela, eta gainera karlisten aurka aritzeko sortua -han hemenka azaltzen bada ere, garrantzitsuena erdaraz idazten da. Hala ere, ez da falta lerro azpimarragarriren bat: behin eta berriro errepikatzen da zein den euzkotarren Aberria, eta baita euzkotarren hizkuntza: euskara (“Zeure Aberrijaren iz-

kerea ezpa-dozu mattetan, eztozu mattetan zeure Aberrija bez”, *Baserritarra*, 1897ko ekainak 6, 1. orrialdea), eta euzkotarra eta abertzalea izateko, ez da nahikoa euskaldun izatea (“Ezta ezebez euzkelduna ixatia, aberrtzalia ixan ezik”). Aranatarrentzat, hobe zen euzkotarra izatea, euskalduna ez bazen ere, euskalduna eta *maketoa* izatea baino (“Asko dira euzkerea eztakijen euzkotarrak. Au txarra da. Batzuek dira euzkerea dakijen maketuak. Au txarragua da”).

Ez da falta karlisten aurkako esaldirik, hau gure ustez nabarmenena. “Arratia da Bizkayan karlistaena dan zatija. Arratia da euzkerea geyago aitzuten dagona. Erdelerritiko alderdijak zabaldu dira geure Aberrijan, eta euren aurretik euzkerea igesten da”. Sabinok euskararen berpiztea abertzaletasunaren sortzearekin lotzen zuen nahitanahiez. Baita erlijioa euskaraz zabaltzearekin ere, eta hortik apaizei botatako kexak: “No fueron los oradores sagrados los que, por no ponerse á calcular el mal que podían causar, contribuyeron menos, á nuestro juicio, á conducir al euskera al borde de la extinción en que hoy se le encuentra” (1897ko uztailak 18, 12. zenbakia, 1. orrialdea).

Kexa horiek, bistan dago, erdaraz idatzi zituen. Kexak ere Azkueri zuzentzen zizkion, Lekeitioko apaiza eta bere *Euskaltzale* zuzenean aipatzen ez bazituzten ere. Kexa horien zergatia ez zen, argi dago, euskararenganako maitasun gutxi erakusteagatik, Sabinok proposatzen zuen eredia jarraitzen ez zuelako baino.

Goiz hasi ziren abertzaleak, aranistak, *maixuaren* diskurtsoa aldarrikatzen. Gatazka horrek XX. mendeko 30eko hamarkadaraino ailegatuko zen, Aranaren eta, harrigarria badirudi ere, Azkuerekin hasi zen beste kazetari, euskaltzale eta idazle oso ezagun baten ideiei tinko eutsiz. *Kirikiñoz* ari gara, esan beharrik ez. Hala ere, ideia horiek ez ziren beti euskaraz aldarrikatu, eta jarrera aranistaren gailurra izango zen aldizkaria bera ere, *Euzkerea*, elebiduna zen, euskaraz eta gazteleraz idatzia.

Hasiera-hasieratik beraz, Sabino Aranaren abertzaletasunak bere sortzailearengandik berarengandik hasita euskararekiko eta euskarari buruzko jarrera oso ondo finkatuta utzi zuen: euskara arrazaren ezaugarri bat zen, ezaugarri nagusia agian, baina arrazaren menpekoa. Euskarak zeregin politiko bat zeukan: hizkuntza nazionala zenez, euzkotar guztiek jakin beharko lukete, baina ez euzkotarrak izateko -doktrina abertzalean, garrantzitsuena ez zen euskalduna izatea, euzkotarra izatea

baino- *euzkotarragoak* izateko baino. Abertzaletasunaren propaganda gehiena, eta dudarik gabe inportanteena, erdaraz egin zen. Euskarak piskanaka piskanaka Euzkadiko gizartean berreskuratu beharko zuen bere lekua, baina beti abertzaletasunaren aldetik, inolaz ere bere kabuz. Eta abertzaleek ez zuten nolanahiko euskara, baizik eta besteengandik ezberdintasunak nabariagoak egiten zituena, euskara *berri* eta *garbi* bat.

Abertzaleen prentsa honen guztiaren isla izango dugu: beraz ez dugu euskara hutsezko aldizkari abertzalerik aurkituko XX. mendean ondo sartu arte (*Euzko Deya*), eta hori ere ez zen informatiboa izango, kulturala baino. Abertzaleen aldizkari eta egunkarietan euskarak leku bat izango zuen, baina ez leku handia. Zeregin menpeko bat beti, ikusten dugunez.

Hala ere, esan dugun bezala, ezin diegu ez Aranari ez bere jarraitzaileei beren garrantzia kendu, neurri handi batean haiek berpiztu baitzuten euskararenganako kemena. Akatsak eta guzti, euskararen garapena XX. mendean ez zitekeen berdina izango haiek gabe. Baina itzul gaitezen kazetaritzara.

2.2.3. Sabino Aranaren azken urteetako prentsa

Sabinok eta bere jeltxak *El Correo Vasco*ren inprimategia erosi zuten, elkarte anonimo bat eratu eta 1901ean *La Patria* argitaratzen hasi ziren, Felipe Zabala Suárezen zuzendaritza eta jabetzapean (Corcuera, 1979: 467). Sabino zentsorea besterik ez zen. *La Patria* aldizkari ofiziala izanik, *Euskalduna* gero eta baztertuago geratu zen. Abertzaleek beren propaganda egiteko seriotasuna behar bezala finkatu nahian, enpresak ere eratzen ziren. Izen batzuekin (*La Patria*, *Patria*, *Aberri* eta *Aberrija*) ia eten gabe agertuko zen aldizkari hori. Guztietan euskarak zeregin txikia izango zuen, lekutxo bat bazeukan ere. Horrela, abertzaletasunak Sabinoren heriotzaren ondorengo urte haietan bozeramale ofizial bakar bat izan zuen. Hil baino lehenago, bazeuden aldizkari kultural bat bultzatzeko astia izan, 1901ean: *Euzkadi*. 1898an, ikusi bezala, bazeukaten aranistek aldizkari elebidun bat kaleratzeko asmorik, eta dirudienez ez zuten 1901. urtera arte gauzaterik izan. Lehenengo garai hartan gutxi iraun zuen, urtebete eskasa. 1902ko irailean, diru arazoak zirela medio, Sabinok itxi behar izan zuen, lau zenbaki bakarrik argitaratu ondoren. Dirudienez, harpidedun gutxi zeukan, 130 inguru (Corcuera, 1979: 467). Urte batzuk geroago berriro agertu zen, lehenengo zenbaki haietan idatzi zuen gazte baten eskutik: gazte hura Luis de Eleizalde zen, denboraren poderioz Euzkadi Buru Batzarreko lehendakari, euskal abertzaletasunaren teoriko garrantzitsu eta baita euskal kazetari nabari bihurtuko zena ere.

2.2.4. Gipuzkoako lehen prentsa abertzalea

Gauza haiek guztiak Bizkaian gertatu ziren. Eta Gipuzkoan? Han bizkaitar jeltkideen laguntzailerik hoberena Engracio Arantzadi zen. Berak konstatzen digu nola 1897an jeltkideak kezkatuta zeuden Donostian hamar urte lehenagotik argitaratzen zen *El Fuerista* egunkariarengatik, integrista espainiarra baitzen. Baina foruzale gipuzkoarrek (haien artean Ignacio de Lardizabal eta Aniceto Rezola) alderditik eta Necedalengandik alde egin eta abertzaleengana jo zuten. “Azpeitiaco Boto-zaleai” izeneko orri bat ikusi izan dugu, *La Semana Católica* aldizkariaren moldiztegian egina. Baliteke aldizkari baten orri bat izatea, *La Semana Católica* edo *El Fuerista*ren beraren gehigarri bat. *La Semana Católica* eta *El Fuerista* entrepresa berarenak ziren. Orri horretan, oso osorik euskaraz idatzia, Necedalen aurkako tesiak zabaltzen dira.

Tirabira galantak gertatu ondoren (Arantzadik aipatu liburuan berri zehatza ematen du) 1898ko Bepizkunde Igandean *El Fuerista* agertu zen *Jaungoikua eta Lege Zarra* ikurraren pean. Euskararentzat ere lekutxo bat erreserbatu zuten: erlijioari buruzko atal osoa euskaraz idatzia zen, eta bazetorren baita ere Sabinoren beraren Loiolako Inazioari egindako otoitz bat. *El Fuerista* bizitza laburra izan zuen, hogeitau egun besterik ez egunkari abertzale moduan. Kubako gerra piztu zen eta giroa ez zen hoberena abertzaleentzat. *El Fuerista* desagertu zen 1898ko maiatzaren 6an, eta jeltzale gipuzkoarrek beren ideiak zabaltzeko bozeramalerik gabe geratu ziren, 1907an *Gipuzkoarra* astekaria lehenengo aldiz argitaratzeari ekin zioten arte.

3. SABINO ARANA HIL ONDORENGO PRENTSA ABERTZALEA

3.1. Sabino Arana hil ondorengo lehen aldizkariak: *La Patria*, *Patria*, *Aberri*, *Aberrija*

Abertzaletasuna eta bere prentsa Bizkaian nahiko ondo finkatuta, bigarren urratsa Gipuzkoa zen. Euskal Herri osorako -hau da, garai hartan Bizkaia eta Gipuzkoa soilik, Araban, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian jeltzaleak oso gutxi sartuta baitzeuden- abertzaletasunaren bozeramale bakarra *La Patria* (1901-1903), Sabinoren heriotzaraino, eta *Patria* (1903-1906), *Aberri* (1906-1908) eta *Aberrija* (1908ko azaro eta abenduan) beren jarraitzaileak izan ziren. Astekari hauen guztien bizitza ez zen erraza izan; *Aberri*ren zuzendaria zen Santiago de Meabek bere kargua utzi behar izan zuen 1906ko abenduan, zeren eta “a pesar de la prohibición expresa de esta Diputación [Euzko Alderdi Jeltzalearena] publicó en el número 32 el artículo Hablemos claro, reflejo sin duda de su opinión particular respecto al actual concierto

económico, que no la del PNV” (*Aberri*, 1906ko abenduak 22, 34. zenbakia, 1. orrialdea), 1907ko urtarrilean berriro astekarira itzuli bazen ere. Agintariek ere arazoak izaten zituzten, horregatik horrenbeste izen aldaketa. Euskaraz ere, gutxi. *La Patriarekin* hasitako aldizkari sorta hura desagertu zen 1908ko abenduaren 26an *Aberrijaren* azken zenbakia kaleratu zenean, bere lekua Euzko Alderdi Jeltzaleak argitaratuko zuen beste astekari bati utziz: *Bizkaitarra*.

3.2. Herrialdeetako aldizkariak

3.2.1. EAJren politika aldaketak

Ez dago, beraz, mozketarik pentsamoldeari dagokionez, propaganda egiteko modua bakarrik aldatzen dute, lurralde bakoitzean aldizkari abertzale ofizial bat argitaratuz. Politika hori hasia zuten urtebete lehenago, Gipuzkoako jeltzaleek *Gipuzkoarra* kaleratzeari ekin ziotenean. 1907ko maiatzaren 18an astekari horren lehenengo zenbakia argitara eman zuten. Urte batzuk geroago *Arabarra* eta *Napartarra* agertu ziren. Guztiak (*Napartarra* izan ezik) kaleratu ziren E.A.J.ren kazetaritzari buruzko egitasmo nagusia 1913an gauzatu arte, *Euzkadi* egunkaria, eten gabe 1937. urte arte argitaratuko zena. Hala ere, *Arabarra*, *Gipuzkoarra* eta *Bizkaitarra*, denbora laburrean bazen ere, berriro agertuko ziren hurrengo hamarkadetan.

3.2.2. Ameriketako lehen aldizkari abertzalea: Euzkotarra

Ameriketean ere aldizkari bat argitaratu zen, oso bizitza laburra baina gatazkatsua izan zuena. 1907ko azaroaren 15ean agertu zen lehen aldiz Mexikon (D.C.) *Euzkotarra*. *Jaun-Goikua* eta *Lagi-zarra*. Zortzi orrialde zituen hilabetekari honen lehenengo hiru zenbakiak (1907ko azaroaren 15ekoa eta abenduaren 15ekoa, eta 1908ko urtarrilaren 15ekoa) Mexiko hiriburuan kaleratu ziren, gaztelaniaz eta euskaraz. Laugarren zenbakia Mexikoko Chihuahuan argitaratu zen, 1908ko azaroaren 30ean, ezaugarri berdinekin. Agintariek behartuta *Euzkotarra* ateratzeari utzi zioten.

Bigarren aroan Estatu Batuetara joan ziren. 1909ko apirilean New Orleans-en beste zenbaki bat agertu zen, neurri txikiagokoa, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz. Dohainik banatzen zen eta dirudienez Juan de Argote delako batek zuzendua zen.

Izen berdineko beste aldizkari bat agertu zen 1913an (lehenengo zenbakia ekainaren 1ekoa dugu) Buenos Aires-en. Ia osorik erdaraz idatzita, testuren bat euskaraz zegoen. Abertzalea, sabindarra, lau orrialde zituen, azkenean publizitatez betea. Lau ale ikusi ditugu. *Euzkotarra* izenarekin beste aldizkari bat kaleratu zen 1922an, Gipuzkoan kasu honetan.

3.2.3. *Engracio Arantzadi eta Gipuzkoarra*

Gera gaitezen oraingoz Gipuzkoan. Esan bezala, lurralde bakoitzeko al-dizkari abertzale sortari hasiera eman zion *Gipuzkoarrak*. Arantzadiri kasu egingo badiogu, sei mila ale astero egiten egoera ekonomiko onean mantendu zen (Arantzadi, 1935: 217). Arazo politikoen itsasoa ere nolabait baretzen ari zen, *Gipuzkoarrak* Gobernu Zibilaren salaketa bakar bat jasan behar izan zuelako. Euskarari leku eskasa ematen zioten, agian *Kizkitzak* berak aipatzen duen euskaraz gaizki idazteko beldur horrengatik (Arantzadi, 1935: 333).

Beste arrazoi bat bazegoen: agintariek (erdaldunak, noski) mesfidantza handiz begiratzen zituzten euskaraz, ulertzen ez zuten hizkuntza batez, idatzitako testuak.

Gipuzkeraz idazten zuten, eta irizpide ortografiko sabindarrak, hau da, Eleizalde gogoratuko zuenez, Sabinok bizkaierarako bakarrik finkatutako horiek (horien artean, bizkaieraren fonetikarako bakarrik egoki ziren asko) onartzen zituzten itsutsuki, nafar eta arabar jeltzaleek ez bezala.

3.2.4. *Ebaristo Bustintza eta Bizkaitarra*

Ebaristo Bustintza *Kirikiñok* bere lekua aurkitu zuen *Bizkaitarraren* orrialdeetan. *Bizkaitarra* 1909ko urtarrilaren 2an argitaratu zen lehenengo aldiz. Lau orrialdeko astekaria, 214 zenbaki ateratzea lortu zuen, 1913. urtea arte. Inprimategi propio bat bazuen, Bilboko Bidebarrieta kalean (bulegoa ere hor zegoen), *Gipuzkoarrak* ez bezala. Euskararen aldeko borroka abertzaletasuna zabaltzeko kanpainaren barruan sartzen zen, euskararen bidez abertzaletasuna ere zabaltzen zelakoan.

Ikusi dugunez, abertzaleentzat euskara eta abertzaletasuna lotuta daude eta lotuta egon behar dute gainera. Prentsan, *Kirikiñok* bere gain hartuko zuen zeregin hori hil zen arte, *Bizkaitarraren* orrialdeetan lehendabizi eta *Euzkadin* gero.

3.2.5. *Nafarroako prentsa abertzalea: Napartarra*

Gipuzkoarra eta *Bizkaitarra* garrantzitsu baziren, geroagoko beste egitasmo batzuen ataria baitziren, haiek bezain garrantzitsuak izan ziren gure ustez Nafarroako eta Arabako aldizkari abertzaleak, politika jeltzaletik nahiz euskararen ikuspuntuetatik begiratuta, beraiek izan baitziren prentsa

abertzale eta euskaldunaren sartzailleak, beren emaitzak irakurle eta erosleen aldetik urriak iruditzen bazaizkigu ere.

Napartarra. Jaun-Goikoa eta Lege-Zarra lehenengo aldiz 1911ko urtarilaren 8an azaldu zen. Lehenengo zuzendaria Salvador Garijo izan zen, 1917an hil zena, eta sortzailea Joaquín San Julián. Bigarren zuzendaria (1919. urtea arte) José Agerre Santesteban izan zen, Iruñean 1889an jaioa, euskaltzaina hasieratik. 1934an Napar Buru Batzarraren lehendakaria izan zen. 1962an hil zen Iruñean. Araceli Martínez-Peñuelak dioenez (Martínez-Peñuela, 1989: 95), 1909an gertatu ziren Nafarroako abertzaleak biltzeko lehen ahaleginak, eta 1910eko ekainean Iruñeako Centro Vasco eratu zen. Nafarroako beste leku batzuetan jeltokideak poliki-poliki sartu ziren, batez ere 1912an. *Napartarra* bihurtu zen Napar Buru Batzarraren bozeramalea.

Artikulu doktrinarioak nagusi dira, euskaraz beti testuren bat agertzen zen, *Gipuzkoarran* eta *Bizkaitarran* baino gehiago. Zaila da jakitea norenak ziren bai erdarazkoak eta bai euskarazkoak, sinadurak ez baino goitizena agertzen direlako. Hala ere, Amilgainek -beste aldizkari abertzaleetan agertzen ziren testu berberak- eta Fermin Irigarai *Larrekok* (1916. urteaz geroztik) idazten zutela badakigu. Ezagutzen ditugun izenen artean euskaltzale batena, oso ezaguna, agertzen bada ere, *Napartarran* beti erdaraz idatzi zuen: Arturo Campi3n. Emakumeak ere agertzen ziren, “Lili-ar-tean” izeneko atalaren arduradunak hain zuzen ere: *Mirentxu* eta *Sornetxu*, nafar emakume abertzaleentzako testuak idazten zituztenak. *Napartarrari* zor zaio, beraz, emakumeentzako eta emakumeek egindako ataltxo bat sortzea. Azpimarratzekoa da nola emakume abertzaleentzako atal horiek euskarazkoak izaten ziren.

Erabilitako euskalkia nafarrera da. Neologismoak ere erabiltzen zituzten. Zer esanik ez, Irigarai sendagilearen eragina ederki sentitzen da *Napartarraren* orrialdeetan. Berak sinatutako testuak ez ezik, beste ekintzetan ere parte hartu zuen. 1869an jaioa, Nafarroako herriska batean sendagile gaztea zelarik ikasi zuen euskara. Hizkuntza herritarrak, klasikoen irakurgaiak eta astekari batek (*Eskualduna*, hain zuzen ere) izugarritzko eragina izan zuten berarengan. Ordura arte kazetagitza tradizio-rik finkoena zena ondo ezagutzen zuen gizona bereganatu zuten *Napartarrak*oek. Ez hori bakarrik: Irigarai, abertzale porrokatua, oso gizon landua zen, euskal idazle gehienak, garaikideak zein zaharrak, ezagutzen zituen.

Hain zuzen, euskalki eta idazleen emaitzak ezagutzen zituen Irigarai Sabinoren ortodoxiatik urrundu zen, Euskal

Herriko aldizkari askotan egingo zuen lan oso garrantzitsuari hasiera emanez: *Eskualdunan*, *Argian*, *Euzkadin*, eta beste hainbeste aldizkari informatibo, kultural, erlijioso edo politiko-tan.

3.2.6. *Hizkuntz erduei buruzko eztabaidak prentsa abertzalean eta Napartarran*

Larreko ez zen Sabino Aranak markatutako bidetik urruntzen zihoan bakarra, hizkuntz ereduari zegokionez behintzat: Eleizaldeek ere gehiegikerietan ez jausteko aholkuak han hemenka errepikatzen zituen. Baita *Napartarraren* orrialdeetan ere. 1916an bertan Kepa Amillagarairekin mantendu zuen eztabaida lekuko.

Amillagaraik Euzkeltzale-Bazkunaren jarrera defendatzen zuen, hau da, sabindar porrokatuena: euskara batzearen aurka, norbaitek bere euskalkiaz hitz egin eta idatzi behar baitzuen, haren ustez. Eleizalde, bere aldetik, 1916ko martxoaren 18an argitaraturiko erantzunean, bere jarrera argi eta garbi uzten zuen:

“Ahora queremos, con nobilísimo empeño, crear una literatura vasca, euzkeldun [...]. pero dejando toda su fuerza al mal de diversificación que precisamente padecemos por falta de literatura tradicional, tendemos a crear, no una literatura auténtica e íntegramente nacional, sino literaturas fragmentarias, dialectales: en suma, “tres” literaturas vascas, por lo menos”.

Eleizalde, Amillagaraik eta Euzkeltzale-Bazkunakoek -euskeltzale gehienek, azken batean- euskararen iraupenerako euskal eskola edo ikastolak beharrezkoak zirela ulertzen zuen, baina kontuz ibiltzeko gomendatzen zuen, bestela, “ocurrirá inevitablemente que la escuela bizkaina radicalizará cada vez más sus diferencias dialectales, en la fonética, en el léxico, en la conjugación, en los modismos, en todo, que la escuela vascona hará lo propio, y que de la escuela pirenaica obtendremos dos o tres cuartos de lo mismo”.

3.2.7. *Napartarraren desagertzea*

Napartarrak bere anaiak *Gipuzkoarrak* eta *Arabarrak* baino gehiago iraun zuen. Ez zion larunbatero kalera irteteari utzi 1913an *Euzkadi* egunkaria argitaratu zenean, eta 1919. urtea arte agertu zen. Etenaldi bat pairatu zuen, Salvador Garijo bere lehen zuzendaria 1917an hil zenean. Urte hartako ekainetik azarora arte kaleratu egon gabe, hilaren 10ean berriro agertu zen. *Napartarra* berriro argitaratu zenean, udal hauteskundeak gertu zeuden. Comución Nacionalista Vascak arrakasta lortu zuen, aurkeztutako hiru hautagaiak (Francisco Lorda, Santiago Conchillos eta Larrache) hautatuak izan baitziren. *Napartarra* 1919an desagertuta, nafar jeltkideek ez zuten beste bozeramale izango 30eko hamarkada arte, *La Voz de Navarra* egunkaria eta *Amayur* aldizkari politiko-kulturala sortu zirenean. Bietan -batez ere *Amayurren*- euskarak leku bat izango zuen (%10, gutxi gora-behera). *La Voz de Navarra* egunkari jeltzalean hainbat euskal atal agertu ziren: “Euskaldunen xokoak”, “Asteko berriak”, “Euskel solasa”, “Nahas-mahas”. Bertan idatzi zuten Eñrike Zubiri *Manezaundik* eta José Agerrek, esaterako.

3.2.8. *Luis Eleizalde eta Arabarra. Lehen garaia (1912-1913)*

Sabinoren doktrina beranduen ezagutu zuen lurraldea Araba izan zen. Santiago de Pablok gogorarazten digunez (1988: 15), 1897an *Baserritarrak* bost harpidedun baino ez zuen Araban, eta haiek Gasteizetik kanpo. 1907an, Leoncio Galdosen eskutik, susmatzen dira Araban jeltzaleen lehenengo oihartzunak. Urte hartan eratu zen Gasteizko Centro Vasco, Luis Eleizalderen lehendakaritzapean. Bergaran 1879an jaioa, Eleizalde, ikusi dugunez, oso jeltkide sutsua izan zen, Araban eta Euskadi osoan abertzaletasuna za-

baltzeko oso garrantzitsua, 1912an Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria izan zelarik. Euskara kontuetan ere berdin, eta kazetaritzari dagokionez, aldizkari askotan idatzi ez ezik, bi ere zuzendu zituen, *Euzkadi* aldizkaria eta *Arabarra*.



Luis Eleizalde

Gasteizko Institutoan irakasle zela, Eleizalde ezinbestekoa da Araban Euzko Alderdi Jeltzalea eta Comución Nacionalista Vascaren zabalkundea ulertzeko. 1908an bere lehen urratsak egin bazituen ere, bere ahulezia zela eta, Arabako Euzko Alderdi Jeltzaleak ez zuen lurralde honetan bere lehenengo lorpen politikoak lortu 1911. urtea arte, udal hauteskundeetan lehenengo aldiz bere hautagaiak aurkeztu zituenean, haien artean Eleizalde bera. Hurrengo urtean beren bozeramalea kaleratzea erabaki zuten.

Arabarra 1912ko urtarrilaren 12an sortu zen. Denbora luzean, garai batzuetan -batzuk oso laburrak- argitaraturik bere arrakasta, kuantitatiboki behintzat, eskasa bazen ere, *Arabarra* izan zen Gerra aurrean Arabak izan zuen komunikabide abertzale bakarra eta euskara hedatzen zuen ia bakarra. Bere garrantzia askoz ere azpimarragarriagoa da, kontuan izanik Araban euskaraz apenas hitz egiten zela, eta Gasteizen bat ere ez (Apraiz, 1976). Araban, Nafarroan ez bezala -abertzaletasuna berandu samar bereganatu zuen beste lurralde bat aipatzearren- ez dago euskalkirik, beraz egoera sozio-linguistikoa ere desberdina da, eta Gasteizko aldizkarietan -*Arabarran* azken finean- konponbide linguistikokoak ere desberdinak izango dira.

Arabarra, goiko lerroetan aurreratu bezala, garai batzuetan ateratako aldizkaria dugu, jarraipen finkorik gabe. Arabako jeltkideek kaleratu zuten 1912-1913, 1918-1919, 1922an, 1932-1933 bitarteko urteetan, eta Gerra ondoren ere, 1972ko martxoko ziklostilezko ale bat ikusi dugu. Errepublikara garaietan beste *Arabarra* baten berri dugu, baina ezin izan dugu alerik aurkitu.

Aipatzen da 1931ko otsailaren 2ko *El Heraldo Alavésen*. Eusko Abertzale Ekintzaren (A.N.V.) *Nacionalista* aldizkarian beste erreferentzia bat aurkitu dugu, 1931.eko martxoak 13an (21. zenbakian) esanez *Arabarraren* 1. eta 2. aleak atera zirela.

1912ko urtarrilaren 12an agertutako *Arabarrak* hogeian behin kaleratu nahi omen zuen, baina bere aldizkatasuna irregularra izan zen. Gipuzkoa eta Bizkaiko langile asko etorri ziren Gasteizko katedral berriaren lanetan parte hartzeko, eta abertzaletasuna pizten hasi zen. *Arabarrak* beraz, egoera egokia aurkitu zuen, Euzko Alderdi Jeltzalea hasia baitzen Arabako politikan zerbait esaten. Aldi berean, beste alderdietatik irainak eta erasoak jasotzen ere hasia zen, esate baterako karlismotik. Egia esan, *Arabarra* karlistarren *El Jaimista* aldizkariaren aurka borrokatzeko sortu zen. Luis de Eleizalderen zuzendaritzapean -berak idazten zituen, *Mattin* goitzenpean, euskarazko artikulu gehienak- aldizkariak abertzaletasunaren ideiak lau haizeetara zabaltzeko prest agertzen zen.

Lehen garai hartan kaleratu ziren 27 zenbakietan kazetaritza oso ideologiko bat, informaziorik gabe. Berri edo albisterik ez. Euskararen erabilera nahiko testimoniala izan zen. Hala ere, badirudi artikulu “euzkerikoak” argitaratzeagatik arazoak izan zituztela Gobernadore Zibilarekin. Pasadizo moduan, aipa dezagun hil-oroitzapen bat argitaratu zela euskaraz eta baita iragarki bat, erdaraz idatzitakoen artean agertzen dena.

Ezer gutxi esan dezakegu *Arabarraren* lehenengo garai honi buruz. Diru arazoak zirela medio, ziur aski, *Arabarra* 1913ko abuztuan desagertu zen, *Euzkadi* egunkaria argitaratzeari ekin ziotenean.

3.2.9. Arabarraren bigarren aroa (1918-1919)

Bost urteren buruan agertu zen berriro, 1918ko abuztuaren 31n. Garai honetako 19 zenbaki ezagutzen ditugu; gehiagorik egon bazen, ez zaigu gure egunetara iritsi. Ordurako Euzko Alderdi Jeltzalea bitan banatu zen, 1915ean “aberrianoak” (E.A.J.-P.N.V. izenarekin geratu zirenak, Luis Aranaren ortodoxiaren jarratzaileak) eta Comución Nacionalista Vasca sortu zirelarik. Arabar gehienak Comución-era pasatu ziren, Eleizalde buru izanik. 1912tik gauza batzuk ere aldatu ziren: 1918an C.N.V.k antzinako etsai ziren jaimisten hautagai lagundu zuten urte hartako otsaileko hauteskunde orokorretan, hautagai abertzalea zen Luis Eleizalde alde batera geratu zelarik. Gasteizko Euzko Gaztedia ere sortu zen. Garai hartako etsaia ez zen *El Jaimista* izango, *La Libertad* baino. Horrek ekarriko zion Gobernadore Zibilak 8. zenbakia bahitzea.

Euskarari dagokionez, *Matxinek* (Eleizalde berak) zenbaki guztietan (aldizkaria hamabostean behin agertzen zen) lehen orrialdeko zutabe bat idazten zuen, bizkaieraz. Bertan aldizkariaren norabide eta printzipio politikoak azaltzen ditu; baita aktualitatearen zenbait gauza ere, atzerriko berrietan oinarriturik batez ere. Eleizalderenak izan ezik, apenas agertuko zen euskarazko artikulurik. Garai honetako ezagutzen dugun azkeneko zenbakia 1919ko ekainaren 7an kaleratu zen. Esan bezala, 1922an eta Errepublikan berriro agertuko zen *Arabarran*, baina ez Eleizalderen zuzendaritzapean, 1923an hil egin baitzen.

3.3. *Euzkadi*, egunkari abertzale jeltzalea

3.3.1. Euzkadiren jaiotza

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan aldizkari abertzale jeltzale bana ezarri ondoren (*Bizkaitarra*, *Gipuzkoarra*, *Napartarra* eta *Arabarra*), eta abertzaletasunaren arrakasta gero eta handiagoa ikusita, Euzko Alderdi Jeltzalearen agintariek, 1907tik 1914ra arte Luis de Arana Goiriren Euzkadi Buru Batzarreko presidentea zelarik, erabaki zuten egunkari jeltzale bat argitaratzea.

Prestakuntza lanak 1910ean hasi ziren. Bi enpresa eratu ziren horretarako: Euzko Pizkundia eta Tipográfica General, bi diru-iturritatik zetorren diruarekin: alde batetik, jeltzale aberats batzuek 150.000 pezeta jarri zituzten, eta beste 100.000 pezeta obligazio txikietatik etorri ziren. Jabea Euzkadi Buru Batzarra zen, Engracio Arantzadi zuzendari izendatu zuena. Une hartan, Bilbon bazeuden beste bost egunkari, baina, esan bezala, Euzko Alderdi Jeltzalea gero eta bazkide gehiago lortzen ari zen: 1909an 380 zituen, eta 1915ean mila paseak. Egunkaria 1913an hasi zen argitaratzen, P.N.V. C.N.V. (Comuni3n Nacionalista Vasca) izatera pasa zenean. Bilboko eta Euskal Herriko egunkaririk nagusienetako bat izatera iritsi zen, momenturik onenetan 10.000 ale kaleratzen zirelarik.

Egunkaria, non euskarak lehenengo aldiz eguneroko prentsan leku bat aurkituko zuen, hasi zen kaleratzen 1913ko otsailaren lehen. Euskal atalean gure ezagun batek zuzentzen zuen: Ebaristo Bustintza *Kirikiñok*. Ataltxoa -hasieran lehen orrialdeko zutabe bat bakarrik- euskaraz idatzi nahi zuten abertzaleen guztien bilgunea egin nahi zuen.



Euzkadi egunkariaren aldeko kanpainia

3.3.2. *Euzkadi, Bustintza eta hizkuntz eredua*

Aldi berean, Bustintzak Aranaren eredia gauzatzeko aukera izango zuen. E.A.J.k ere euskara ikastaroak antolatzen zituen. Donostian ere ikastolaren bat eratzeko asmoa zegoen, zehazki Ebaristo Txurrukak 1913an euskara irakasteko eskola bat antolatu nahi izan omen zuen. Argi dago jeltza-leek -ez horiek bakarrik, jakina- neurri handi batean euskara ikasteko zaletasuna eta, era berean, euskararen berpizte bat sortzen lagundu zutela. Hizkuntza arrazaren osagarria zelarik, eta kontuan izanik abertzale jeltkideek zenbaiterainoko garrantzia ematen zioten, ez da beraz harritzekoa *Euzkadi* egunkarian euskarari buruzko testuak euskaraz ez ezik erdaraz ere argitaratu zirela, askotan egunkari jeltzalearen orrialdeak euskaltzaleen zenbait eztabaidaren topaleku bihurtuz.

Orduan, nola idatzi, zer euskara erabili behar zen? Hor zegoen gakoa. *Kirikiñoren* ustez -eta hor zeuden Urkixo eta Gregorio Mujikarekiko eztabaidak- posible zen “*euzkera garbijaz*” idaztea, hau da, Aranaren ereduari jarraitzea, euskaratik erdarazko hitzak kenduz eta hitz berriak ezarritz.

Mujikaren ustez, ordea, euskara erraza erabili behar zen, ahalik eta gehienek, eta batez ere euskaldun zaharrek, uler zezaten. Hau da, 1921etik *Argiak* proposatuko duen eredia. Hona hemen bada bi eredu oso ezberdinak: bata, Ebaristo Bustintza eta aranistena, euskara “garbia”ren aldekoa, *Euzkadikoa*, eta bestea, Mujika, Garitaonaindia eta euskara errazaren aldekoa, *Argiakoa*. Urkixok, bere aldetik, zera esan zuen: “Soy partidario de la purificación (relativa, claro está) del léxico vasco; lo que desapruébo es que ejerzan de purificadores y de etimólogos, los que carecen de preparación

suficiente para tan difícil labor”. *Touché*. Ebaristo Bustintza minduta sentitu zen, eta Sabin Arana Goiri eta Imanol Arriandiagaren estalpean, Mañarikoak ere beraiek “asmaturiko itz eder egokiak, euskerearen sustar-sustarretik sorturikoak”, onartzen baitzituen.



Ebaristo Bustintza *Kirikiño*

Bi eredu zeharo desberdinak, bistan dago, eta *Kirikiño* aranisten bozeramale eta sinbolo bihurtzen ari zen. Denboraren poderioz, eskola aranistaren buru izan zen, hil ondoren baita ere, eta Euzkeltzale Bazkunak lehen (*Euzko Deya* aldizkaria lekuko), eta *Euzkerea* aldizkarikoek geroago, Euskaltzaindia sortu ondoren (30eko hamarkadan), haien *maixutzat* hartuko zuten.

Hala ere, *Kirikiñok* oso lan handia egin zuen *Euzkadi* egunkariaren orrialdeetatik. Bere euskarazko atala, “*Egunekua*”, 1929an hil arte zuzendu zuena, euskal kazetaritzarako ezinbesteko zutabe eta oinarri dugu. Haren ondoren, beste bi idazle funtsezkoak zuzendu zuten: Nikolas Ormaetxea *Orixek* eta Esteban Urkiaga *Kirikiñok*. Dakigunez, Bustintza kazetaritza lanetan ibilia zen, Azkuerekin batik bat. Ondo ezagutzen zuen, gainera, euskal prentsa, hala nola Baionako *Eskualduna*. Bere jarrera linguistikoa, hala

ere, desberdina izango zen: nahiz eta euskara garbia erabiliko zuela aldarrikatu, berak ere neologismo asko eta asko erabiltzen zituen. Ezin ukatu, ordea, Ebaristo Bustintzak hizkuntz idatzi eredu oso bat finkatu zuela.

3.3.3. Euzkadiren kazetaritza-eredua

*Kirikiñoren emaitza euskal kazetaritzan ez datza hizkuntz ereduan bakarrik. Bere eguneroko testutxoarekin batera, Bustintza bere euskarazko atalean Euskal Herriko berri labur batzuk eskaintzen hasi zen, piskanaka piskanaka berriemate sare bat antolatu arte. Tokian tokiko informazioari, beraz, garrantzi handia eman zion, *Eskualdunak* egiten zuen bezala (*Euzkadiren* euskal atalean, noski, neurri txikiago batean), gero euskal prentsa osoan eredutzat hartuko zena. Zer esanik ez, erdaraz egunkarian bazeuden berri lokal batzuk. Beraz, esan daiteke *Kirikiñoren* ereduak bi zirela: bata, kanpoko eta euskarazkoa, eta bestea, barrukoa eta erdarazkoa.*

Euzkadik arrakasta lortu zuen lehenengo urte haietan, eta 1915eko otsailaren 15ean, egunkariaren bigarren urtemugan, *Kirikiño* pozik baino pozikago ageri zen garai hartan egunkariaren bi euskarazko atalekin, *Egunekoa* eta *Euzko Abendaren Elez*. *Euzkadiren* euskarazko atalak irakurle berri bat sortzen ari ziren nonbait. Euskaldun askok, askotan beren hizkuntzan ez alfabetatuak, zailtasunak omen zituzten euskaraz irakurri ahal izateko, eta euskara eguneroko prentsan agertzeak dudarik gabe laguntza handia ekar diezaikeen.

3.3.4. Euzkadi *Munduko I. Gerran*

1914an *Munduko I. Gerra* piztu zen. E.A.J.ren -eta *Euzkadiren*- jarrera aliadofiloa izan zen. Luis Arana eta beren jarraitzaileena, aldiz, germanofiloa. 1916. urteaz geroztik, alderdiaren barruan demokratizazio handia gertatu zen, organu zentralak bultzatuz (lurraldekoek beren indarra neurri handi batean galtzen zutelarik). XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan erabat indartuko zen mikrogizarte abertzale jeltzalea hasia zen iadanik: 1911n, esate baterako, *Solidaridad de Obreros Vascos* sortu zen. *Euzko Gaztedia* ere eratuta zegoen, eta euskararen aldeko lana berarekin lotuta agertuko zen *Euzkeltzale Bazkunari* zegoikion.

Gero Emakume Abertzale Batza sortu zen. 1917an eta 1918an jeltzaleek, eta batez ere haiek kontrolatzen zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, lehenengo kanpainia autonomistari hasiera eman zioten. Baina 1919ko apirilean Maura, Romanonesen Gobernua krisialdian sartu ondoren, itzuli zenean, esperantzak

desagertu ziren. Baina piskanaka piskanaka, abertzaletasun jelkidea hurrengo bi hamarkadetan, eta batez ere Errepublikan, hain arrakastatsua izango zen egitura, joera eta norabideak ezartzen hasia zen. Baita euskal kazetagintza jeltzaleari zegokionean ere.

3.4. Kultur aldizkari abertzale-jeltzaleak

3.4.1. Jeltzaleen lehen kultur aldizkaria: Euzkadi (1901-1914)

Orain arte aipatutako aldizkari eta egunkari abertzaleak politiko hutsak ziren, Sabino Aranaren ideologia zabaltzeko sortuak. Haren pentsamoldean kulturak bazuen oso balio handia, diskurtso politikoaren lagungarri, osagarri eta euskarri bilakatu baitzen. Euskal kultura euzkotar nortasunaren isla eta emaitza zenez, ezin zen inolaz ere ahaztu, alde zuzenetik lau haizeetara zabaldu behar zen.

Zabalkunde lana egiteko ezin baliotsuagoak ziren komunikabideak, aldizkariak alegia. Esan bezala, Aranek berak sortu zuen lehenengo kultur aldizkari abertzalea, *Euzkadi* izenekoak. Aranisten ikuspuntutik begiratutako euskal kulturak ez du derrigorrez esan nahi euskarazko kultura, eta aldizkari abertzale guztiak ez dira euskara hutsezkoak. *Euzkadin*, zehazki, testu gehienak erdarazkoak ziren, nahiz eta gaia euskara izan. Berdin gertatzen zen aldizkari politikoan, eta aurrerantzean ere berdin gertatuko. 1901ean sortua, lehenengo garai edo aro hartan lau zenbaki bakarrik kaleratu ziren, Sabino Arana artean bizirik zegoela. Hiru hilabetetan behin agertzen zen (*Revista trimestral de ciencias, bellas artes y letras* zuen azpiztitulua) eta Bilbon egiten zen. Martxoan agertu zen lehen zenbakia baina, esan bezala, handik gutxira desagertu zen. Etnologiaz, historiaz, hizkuntzalaritzaz (Aranaren “Análisis y reforma de la numeración euzkérica”, adibidez, *Euzkadin* agertu zen), literaturaz aritzen zen.

Bigarren aroa iraunkorragoa izan zen, 1905etik 1914ra. Luis Eleizalde gure ezaguna izan zen zuzendaria, eta gero José María de Goya. Esan bezala, testu gehienak erdarazkoak zirenez, ez gara luze mintzatuko aldizkari honetaz.

3.4.2. JEL, aldizkari kultural-politiko (1907-1908)

Euzkadin testu gehienak erdarazkoak baziren, 1907tik 1908ra agertu zen beste aldizkari kultural abertzalean ere berdin. *JEL* (*Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra*) hasi zen argitaratzen 1907ko apirilaren 16an. Hamabostekaria, izaten zituen 16 orrialdeetatik bat euskaraz idatzia zen. Luis Maria Urkixok zuzentzen zuen. Idazleen artean, zenbait izen ezagun: Federico Belaustegi-goitia, Adrián de Loyarte, Engracio Arantzadi, eta euskaldunen artean, Ne-

mesio Mendizabal (ipuinlari bat), Z. Mingolarra (Virgilioren beste egloga baten itzulpena 7. alean, 1907ko uztailaren 16an) eta Andoni Araluze. Luis de Eleizalde ere hor idazten zuen, etimologiari buruz gehien bat. Sabinoren beraren testuak ere ez ziren falta. Filologia, erlijioa, geografia eta historia, soziologia, medikuntza, literatura eta kulturaren beste zenbait alor sartzen ziren bere orrialdeetan. Kulturala eta politikoa, hasieratik *JEL* aldizkariak Arana Goiriren *Bizkaitarra*, *Baserritarra* eta *El Correo Vascoren* jarraitzailea izan nahi zuen.

3.4.3. Euzko Deya, lehen euskara hutsezko kultur aldizkari jeltzalea

Abertzaleen lehen euskara hutsezko aldizkari kulturala urte batzuk ge-roago sortuko zen, 1916an: *Euzko-Deya*. *Euzkadi* eta *JEL* bezala, Bilbon jaio zen, han baitzegoen abertzaleen talderik garrantzitsu eta handiena. Bilbon sortu zen Euzkeltzale Bazkuna, euskara landu eta bultzatzeko 1904ko otsailaren 4ean sortutako Euzko Gaztediarekin loturiko erakundea. E.A.J.rekiko lotura organikoa edo kuasi-organikoa argi dago, *Euzko-Deya Euzkadi* egunkariaren tailerretan inprimatzen baitzen. Euzkeltzale-Bazkunak bere lekua bete eta bere zeregina bazuen mikrogizarte abertzalean, euskara kontuetan arduratzen zen erakundea baitzen. Bi aldizkari argitaratu zituen, *Euzko-Deya* 1916tik 1923ra arte, bi arotan, eta, Primo de Riveraren Diktadura gainditutakoan, *Euzkerea*, biak hizkuntzari buruzko teoria sabindarren bozeramaileak, bata euskara hutsez eta bestea erdaraz eta euskaraz. Gidari teorikoa Bustintza zen, logikoki, bera euskaldun berri horien maisu edo irakaslea zelako.

Garrantzitsua iruditzen zaigu, aurrera jarraitu baino lehenago, zera hau azpimarratzea, euskaldun berri batzuek euskara hutsezko aldizkari bat sortzea, eta kolektibo berri honek lehen aldiz euskal kulturaren zenbait pisu edukitzea. Lehenago, jakina, euskaldun berri batzuk egon ziren euskal kulturaren (adibidez, Sabino Arana bera), baina norberaren ahalegina zen, eta Euzkeltzale-Bazkunarena, aldiz, ekintza komun bat zen, talde baten.

Bazkunakoek, Lino Akesolok dioenez (1990: 1), lau maisu zituzten: Sabino Arana Goiri, Arriandiaga, Eleizalde eta *Kirikiño*. Hamabostekariaren sortzaileak Josu Telletxea bermeotarra eta Arsenio Beazkoetxea izan ziren. Aldizkariaren subtitulua *Jaungoikua eta Lagi-Zarra* zen. Publizitatea ere ba-zeukan, eta osagai grafikoak garrantzitsuak ziren. Hor ditugu komikiak, atzeritarren itzulpenak edota Euzkeltzale-Bazkunakoek berek sortuak. *Euzko-Deyaren* orrialdeetan agertu zen euskarazko lehen komiki-sorta, “Te-

les eta Niko”. Argazkiak ere noizbehinka agertzen ziren, gehienbat gai erlijiosoekin batera.

Idazle batzuk ezagunak ditugu: Luis Eleizalde bere olerki batzuk argitaratu eman zituen, Kepa Enbeitaren bertsoak ere agertzen ziren. Emakume batzuk bazeuden: Robustene Mujika *Tene* eta Irene Gorosabel olerkaria. Ander Aranburu nekazaritzari buruzko gaiez arduratzen zen, Txomin Arruti *Mendi-Lauta* “Euzko-oiturak” atalaz. Pablo Fermin Irigarai *Larrekok* 1918an hasi zen Nafarroatik bere testuak bidaltzen. Joseba Altuna *Amilgain*, Mikel Arruza, Ceferino Jemein, Zabala-Arana, Eneko Argain, Mikel Urresatarazu, Joseba Altuna, Karmel Omabeitia eta *Zarauztar Sabin* sinatzen zuen bat ere *Euzko-Deyaren* idazleak ziren. Zarauztar hark hasiera eman zion horrela beste ezizen bat erabiliz euskal letretan hain inportante izango zen bere karrerari: Xabier Lizardi, Lino Akesolok ederki gogoratzen zuenez (Akesolo, 1990: 2)

Euzkeltzale-Bazkunak beste proiektu batzuk ere bultzatu zituen: liburuak argitaratu zituen, *Elenetxu* esate baterako, abertzaleek sortutako argitaletxe baten bidez. *Pizkundia* zen argitaletxe hura, gero *Euzko-Deyaren* nola baiteko jarraitzailea izango zen *Euzkerea* kaleratuko zuena. Argitaletxe hura “euzko-liburuak egitteko” sortu zen, “liburu edo idaztjok batzuetarikuak, ikastoletarakuak, Jeltzaletasuna zabaltzekuak, euzkerezaskuak eta abarr, euzkeraz ta errderaz”. Euzkeltzale-Bazkunakoei jaramonik egingo badiegu, lehen asteetan mila laguntzaile baino gehiago bildu ziren. Euzko Gaztediarekin batera euskara ikasteko ikastaroak antolatu zituzten Getxon, Barakaldon, Zorrotzan, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean. 1916an bertan Euzko Gaztedikoek *Aberri* astekaria argitaratzeari ekin zioten.

Euzko-Deya bi arotan argitaratu zen: 1916-1920 eta 1921-1923, Primo de Riveraren Diktaduran desagertu zelarik. Lehenengo aroan ere, 1919an, bost hilabete atera gabe egon zen, Gobernadore Zibilarekin arazoak zirela medio. 1919an berriro argitaratzeari ekin ziotenean, Euskaltzaindia eratuta zegoen.

3.4.4. Jeltzale heterodoxoak eta goi mailako kultura: Hermes aldizkaria

Ezin dugu atal hau bukatu abertzaletasun jeltzalearen haize berrien isla izan zen *Hermes* aldizkaria aipatu gabe. Aurreko atalean esan dugun bezala, 1917an jeltzaleen autonomiaren aldeko lehengo kanpainari hasiera eman zioten, Romanones Gobernu burua prest zegoelakoan. Momentu egokia ematen zuen abertzaletasun irekiago baten alde ageri zirenentzat, haien artean Koldo San Sebastiánek *heterodoxos nacionalistas* deitzen dituenak: Esteban de Isusi, Ramón Belaustegigoitia -Federiko Belaustegigoitia euskaltzalearen anaia- eta Jesús de Sarriá. Hiruak euskalerrikoengandik zetozen. Beste bi heterodoxo, aldizkarian parte hartu zutenak ere, badaude: Eduardo de Lan-

deta y Aburto eta Esteban Isusi. Eleizalderen eragina ere nabaria izan zen, batez ere hiru puntutan: hizkuntzaren berreskurapena, foruen berreskurapena eta abertzaletasun ez independentista. Oñatiko Kongresua gertu zegoelarik, heterodoxoek egitasmo kultural zabalago bat eskaini nahi zuten antza. Horren emaitza nagusia *Hermes* aldizkaria izan zen.

Hermes 1917an jaio eta 1922an bukatu zen. “Su existencia coincidió, por tanto, con uno de los períodos de más profundas y duraderas transformaciones económicas, políticas y sociales que haya registrado la sociedad española contemporánea”, dio Juan Pablo Fusik (Fusi, 1984: 128). Euskal Herrian ere, eta Bilbon bereziki, garai on eta oparoak. Gatazka sozialak ere ez ziren falta (grebak, adibidez). Berpizkunde garaia, azken buruan. *Hermes*ek Euskal Herriko gizartearen isla berri bat eman nahi zuen, alderdi eta kutsu anitzeko isla. Abertzaleek sostengatua (Sotatarrek zehazki, euskalerrriakoak, lehenago ere Azkueren proiektuei laguntza eman zietenak), *Hermes*ek “ecléctica, integradora y no exclusivista” izan nahi zuen (Fusi, 1984: 132). Erdarazko zein euskarazko kultura onartzen zuten; frantsesezko edo ingelesezko testuak ere agertzen ziren. Ezin dugu *sensu strictu* aldizkari elebiduntzat hartu, euskarazko testuak noizbehinka bakarrik agertzen direlako, ez ale guztietan. Baina ezin ukatu dugu aldizkariak euskal kulturaren izan zuten garrantzia.

Hermes, eragin murriztekoa bazen ere -azken batean, neurri handi batean Bilboko burgesiaren emaitzat hartu behar dugu-, Euskal Herriko gizartearen zerbait aldatzen ari zenaren seinale dugu: Fusik ederki azpimarratzen duenez, 1918ko Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan ere euskal kulturari buruzko oso interpretazio desberdinak zituzten gizonak bildu ziren. Gure ustez, 1919. urteaz geroztik, Fusik aipatzen dituen euskal kulturaren hiru arloak (kultura etno-euskalduna, kultura moderno eta gehienbat liberala eta masa-kultura) ez ziren hain berezita agertuko: euskal kulturari dagokionez, eta batez ere euskarazko kulturari dagokionez, modernitaterantzako bideetatik abiatzen hasi zen, bereziki Oñatiko Kongresuaren ondoren (gogora dezagun hor sortu zirela Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia), eta baita masa-kulturaren ezaugarriez ere hornitzen hasi zen. Euskarazko kazetaritzan ere berdin geratu zen. Polarizazioa II. Errepublikan berriro agertu zen, baina euskarazko kulturari dagokionez lehen emandako pausuak ordurako atzeraezinak ziren.

AKHERMARK ETA BIEURKEGREN
MIRIKU-HARRASKARI SUEDESAK

ETCHE-HANDIA

ERREGIÑA VICTORIA-REN KARRIKIRIAN

BIARRITZ-EN

eta 8garrenean, VAINSOT-EN KARRIKAN

BAIONAN

EZTULIK BALIMBADUZU, GALDE ZAZU
REW - RENGANIKAKO ZIROTA
BETHI

48 ORENIZ GOZATZEN DUENA, AMPOILA BERROGOI SOS

*Urhezko Médaillaz eta Dhorezko lekhukotasunez
dohatua*

ALTCHA-TOKIA MUSEA-KO BOTIKARIOAN
JACQUES-LAFFITTE-N eta BOURG-NEUF-KO KARRIKETAN,

BAIONAN

BOTIKARIO BEREAN ALTCHATUA :
FRAIDE JESUISTEN Sendagailu,

Ahuleziaren kontra guziz botheretsua

Euskara jeltzale ez ziren beste aldizkarietan (1910-1918)

1. EUSKARA JELTZALE EZ ZIREN ALDIZKARI ABERTZALEETAN. ABERTZALE LIBERALEN PRENTSA: AZKATASUNA (1910-1911)

Abertzale jeltzaleak, dudarik gabe, euskara gehien landu zuen alderdi politikoa izan ziren, askotan hizkuntza baliabide propagandista bihurtu bazuten ere. Baina horrek ez du esan nahi Sabino Aranaren jarraitzaileek bakarrik erabili zutenik. Beste mota bateko abertzaleak ere, XX. mendearen 30eko hamarkadan A.N.V.koek ere esate baterako, euskaldunon hizkuntzaz aritu ziren.

Lehenago ere, beste abertzale batzuek, ezezagun samarrak, euskara erabili zuten bere aldizkarian. Partido Republicano Nacionalista Vasco edo Euzkotar Erkal Abertzale Alderdija dugu alderdi hori, 1910ean sortua. Ludger Mees-ek dioenez (1989: 257), lehenengo zurrumurrak 1909an sortu ondoren, 1910ean jeltzaleen betiko etsaia zen *El Liberal* sozialisten egunkarian abertzale liberal batzuek E.A.J.ren erlijioarekiko menpetasuna kritikatu zuten. Agian Kataluniako egoera plurala erreproduzitzea posible zelakoan, eta batez ere Unión Federalista Nacionalista Republicana koalizioaren adibideak bultzatuta, talde hark 1911n aipatutako alderdia sortu zuen. Dirudenez, bultzatzaile nagusia Francisco Ulacia Beitia dugu, 1901ean Bilboko Udaleko zinegotzi jeltzale izan eta gero *euskalerrriakoen* tesietara hurbildu zena. Ulaciaren proiektuak, E.A.J.tik batez ere liberalismo erlijiosoan bereizten zena, ez zuen asko iraun, 1912an E.E.A.A.k ez baitzuen existitzen.

Profesional liberalek osatua, haien artean Pedro Sarasketa kazetari eta idazle eibartarra zegoela, E.E.A.A.k bere aldizkaria argitaratu zuen. Bizitza laburrekoa, *Azkatasuna* 1911ko otsailaren 5ean kaleratu zen lehen aldiz. Zazpi zenbaki ikusi ditugu. Ezagutzen dugun azkena apirilaren 9koa da. Egunkari itxurakoa, Bilbon argitaratu zen (alderdia ere Bilbon zegoen bakarrik), lau orrialde zituen eta euskaraz testuren bat aurkitu dugu.

Euskarazko artikulurriek ez dute garrantzi berezirik, eta beraz, ez dugu hemen beste aipurik egingo.

2. GIPUZKOAKO SOZIALISTEN PRENTSA ETA EUSKARA

2.1. Eibarko sozialisten prentsa eta euskara: *¡Adelante!* (1901-1914)

Abertzaleek ez ezik, beste alderdiek ere noizbehinka euskaraz idatzi zuten beren aldizkarietan. Ez dago, esate baterako, sozialisten euskara hutsezko aldizkariarik aurkitzerik, baina badago arrastoren bat Gipuzkoako aldizkari sozialista batzuetan. Ez Euskal Herriko P.S.O.E.ren organo nagusia zen *El Liberal* Bilboko egunkarian, non euskararen aurkako testuak maiz aurkitzen diren, Unamunoren iritzietan oinarrituak batez ere; bai, ordea, Eibarko aldizkarietan. Horietako bat *¡Adelante!* dugu.

¡Adelante! hamabostekariaren lehen zenbakia 1901eko urtarrilaren lehen agertu zen. XX. mendearen lehenengo urte haietan eratu zen Eibarko Elkarte Sozialista. Eibarko sozialistak Bizkaikoak ez bezalakoak ziren: eibartar gehienak euskaldunak ziren. *¡Adelante!*-ren zuzendaria Esteban Barrutia zen, 1903an Eibarko zinegotzi bihurtuko zena. Jesús Egigurenek dioenez, 1905ean 1.200 ale argitaratzen zituzten (Egiguren, 1984: 31). Saiz Valdivielsok dio Barrutia ez ezik, Aquilino Amuategui, José Guisasola, León Pildain eta Martín Erquiaga ere, besteak beste, bazeudela. Bigarren garaian Tomás de Meabek, 1904an Bilbotik Eibarrera joan zena, zuzendu zuen (Saiz Valdivieso, 1977: 63). Guri gehien inportatzen zaiguna, ordea, euskaraz idatzia zen. Ale gehienetan José Guisasolak testu labur bat argitaratzen zuen, normalean poesia bat:

“Languilleac alcarrequiñ
 bear degu batu,
 ez beste partidutan
 iñor ere sartu;
 guc gueure partidua
 beardegu indartu,
 guere lanen frutua
 nai badegu artu”

(*¡Adelante!*, 1906ko maiatzak 1, 8. orrialdea).



Bacoitza bere toquiria

Bere orria bendian
duanac eguitendu,
fueruac m'ingaitian
eta berac m'uentu;
berentzat e nplianc
gubernatic audentu,
alcar ongui a-tota
hazre egund, guitendu.
Languilleac al arroquit
beaz degu laitu,
ez besten partidatan
ihor ere sartu;
guc guere partidaz
beaz legu islatu,
guere lanen frutua
nazi badegu artu.

Bacoitziari beriz

Gustionsa da herra
eguitico lana,
gustiontzat izan delin
artutea din dina,
aberastutea bada
eguiti er duana,
besten gausa ezaman
oi da bergana.

Aberatzac bere abie
egin ditu legiac,
berac gonatu delin:
lana eguiti bestiac:
eta ezanatu arte
languille pobriac,
ihor guientzaco diru
gure izardiac.

Gucure huraen eta
gucure gaurin jabe
eguitico ezanatu
eguiti beaz guerale:
jo dezagan trompeta
gustioac laitu arte,
ihor guelditu ez delin
bere gausa gabe.

JOS GUIASOLA.

Euskarazko testu bat Eibarko sozialisten *Adelante* aldizkarian:
José Guisasolaren olerki bat

2.2. Eibarko sozialisten beste aldizkariak eta euskara

Nahiko anekdotikoa izan badaiteke ere, honek erakusten digu Eibarko sozialismoa ezberdina zela. Langileak ez ziren beste toki batzuetatik etorriak, bertakoak baino, eta ez enpresa handikoak, lantoki txikikoak baino. Soziologikoki, sozialista eibartarra berezia zen, eta kasu gehienetan, euskalduna. Hor dugu, esate baterako, Toribio Etxeberria, euskaltzaina ere izan zena. Etxeberriak berak kontatzen digu bere *Viaje por el País de los recuerdos* (México, 1968) liburuan nola Eibarko beste aldizkari batzuetan, esate baterako *El Motín* izenekoa, euskarazko testurik ere bazegoela. Toribio Etxeberriak *¡Adelante!*-ri buruz informazio gehixeago ematen digu: dirudienez, Meabe ere zuzendaria izan zen, eta gero kazetari profesional bat kontratatzea erabaki zuen, Evaristo Bozas Urrutia. Ez dakigu gauza gehiagorik aldizkari honi buruz, ezta noiz arte iraun zuen ere. Dirudienez, 1914an ez zen kaleratzen.

Dakigunez, Eibarren beste aldizkari batzuk agertu ziren, nahiz eta haien alerik aurkitu ez. 1915 aldera aldizkari errepublikazale bat agertu zen, Francisco Gascue federalistaren eta Pedro Sarasquetaren bultzadaz, *País Vasco* (Luengo Teixidor, 1989: 240). Baliteke testuren bat ere euskaraz agertzea. Izen berdineko beste egunkari bat kaleratu zen Donostian 1923tik, errepublikazale eta autonomista. Bertan ia egunero euskarazko poema bat agertzen zen. 1930ean desagertu zenean, bere ordeaz *El Día* abertzalea kaleratu zen.

2.3. Euskara Gipuzkoako sozialisten beste aldizkarietan

Badago beste aldizkari sozialista bat, Donostian argitaratua, batzuen ustez, Félix Luengorentzat adibidez, elebiduna zena. Guk ikusitako aleetan (1934ko 53-64. aleak, hau da, Pablo Iglesias Erakundearen daudenak) euskara noizbehinka bakarrik agertzen zen. *La Voz del Trabajo. Organo de la U.G.T. y del Partido Socialista de Guipúzcoa* 1901ean argitaratzen hasi zen, eta 1920an astero 3.000 ale kaleratzen zituen (Luengo Teixidor, 1989: 244). 1934ko aleetan badaude hiru euskarazko testu: lehenengoa martxoaren 3koa, bigarrena martxoaren 17koa eta hirugarrena martxoaren 24koa. Lehenengoa, “Socialismoa egi ederrak eta zintzoak”, *Ernani'ko Sozialista Gaztediako-batek* sinatzen du. Bigarrena ere Hernanitik dator, “Euskal-erriko langillientzat”, *Eiñatzu* delako batek firmatua. Bertan Tomás Meabe eta Aquilino Amuateguiren goraiamenak agertzen dira, eta “Gernikako Arbola”ren ahapaldi batzuekin amaitzen da. Hirugarrena Eibarretik dator, José Guisasolaren eskutik eta, ohikoa zenez, olerki bat dugu, “Mundu baten askenak” [sic]: “Erroman dago antekristua:/akabatzen da mundua:/iltzen da kapitalismua ta/jayo Sozialismua”.

3. EIBARKO *EL KANTABRIKO* ALDIZKARIA (1910)

Eibarretik alde egin gabe, beste aldizkari bat aipatu behar dugu, politikatik urrun zegoena, oso bitxia. *El Kantabriko. Revista de Ciencias* zuen izenburua, eta izen bat bakarrik aurkitu dugu: Juan José Ugalde. Ez dakigu nor zen Ugalde hori –ez zen eibartarra, erabiltzen zuen euskaragatik, gipuzkera alegia-, baina badirudi bera zela aldizkariaren egile bakarra. Aldizkaria, 1910ean argitaratzen hasia, zortzi orrialderekin kaleratzen zen, eta elebiduna zen, erdara nagusi. Larunbatero agertzen zen eta bertan zientziez eta batez ere meteorologiaz aritzen zen. Ezin izan dugu jakin noiz arte agertu zen.

4. NAFARROAKO EGUNKARIAK ETA EUSKARA

Nafarroan ere euskarak halako presentziaren bat izan zuen eguneroko prentsan. Ez oso jarraitua, hala ere: *Lau-buru* izeneko aldizkari erdaldunean 1885ean, 1896an eta 1899an euskal testuak agertu ziren (Urmeneta, 1996: 119). XX. mendean, 1919 baino lehenago, beste egunkari nafar batzuetan zenbait euskal idazki argitara eman ziren: 1904an agertu zen *El Eco de Navarra* Berako jaiei buruzko euskal kronika bat. 1912. urtea arte ez da agertuko euskaraz beste testurik; urte hartan sei argitaratu ziren. 1906tik 1921era *La Tradición Navarra* euskal testuak agertu ziren, jarraipen handirik gabe.

Lehen euskal atal iraunkor samarra Nafarroako egunkarien orrialdeetan *Diario de Navarra* eskaini zuen 1915. urteaz gero. Igandero agertzen zen, Jose Agerre Santistebanek egina. Atal hau 1919ko urtarrilean bukatu zen (Urmeneta, 1996: 125). Urte hartan bertan, ekainean, desagertu zen 1918an *El Pensamiento Navarro* egunkarian hasitako euskal atala, “Euskal Idazkuntzak” deiturikoa. Kazetari nagusia Agustín Irigarai (Fermín Irigarai *Larreko*ren lehengusua) da. Kolaboratzaile bi eduki zituen: bere koinatua eta Arizkungo erretorea zen Gabriel Irigarai eta Lekunberriko Fermín Goikoetxea.

Beranduago, 1921ean alegia, agertu zen Leitzaan astekari bat, *La Voz de Leiza*, Ameriketatik etorritako indiano baten ekimenez, Jose Maria Lizarraga Zabaleta. Zerbait bazeukan euskaraz. 1922. urte arte iraun zuen aldizkariak (Perurena, 1994: 4).

11

Euskararen erakundetzea eta euskal prentsaren aro berria (1919-1936)

1. EUSKARAZKO ALDIZKARI MULTZO BATEN SORRERA (1919-1921)

1.1. Komunikabideen laugarren belaunaldia: Masa komunikabideak

Gerra aurreko euskal kazetaritza, 20ko eta 30eko hamarkadetan euskaraz idatzitako prentsa eta komunikabideak, batez ere informazioari dagokionez, bere gailurrera iritsi ziren. 1919-1921 eta 1930-1932 bitarteko urteetan euskal kazetagitza, kuantitatiboki, aldizkarien kopuru handiena ekoiztu zuen: zortzi aldizkari 1919an, zazpi 1921ean eta 1930ean, bost aldizkari eta almanaka bat 1931n eta bederatzi aldizkari 1932an. 30eko hamarkada euskal kazetagitza ezanda Espainia eta Hego Euskal Herria, diktadura bat jasan ondoren, sistema politiko berria, Errepublikan alegia, sartzegatik adierazten da neurri handi batean, alde batetik askatasuna handiagoa zelako eta beste alde batetik polarizazio politikoa ere nabariagoa delako. 1919-1920 bitarteko ezandaren adierazpen eta zergatia, aldiz, hiru mailatan datza: mundu mailan, Espainian eta Euskal Herrian.

Munduan informazioa adituek masa komunikabideen laugarren belaunaldian sartzen da. Laugarren belaunaldi horrek 1939. arte iraun zuen, gure kasuan Espainiako Gerra bukatu eta II. Mundu Gerra hasi zenean. I. Mundu Gerra bukatuta, gauza asko aldatu ziren nazioarteko giroan, teoria politikoan, ekonomian eta abarrea. Jesús Timoteo Álvarez-ek dioenez, gerrarekin batera Europako nagusitasuna bukatzen da, eta nazioarteko protagonismoa Estatu Batuek eskuratzen dute. Agintera totalitarioak agertzen dira: komunismoa, Italiako faxismoa, Hitlerren nazional-sozialismoa... Komunikabide idatziekin batera bestelako batzuk sortuko dira, irratia adibidez, eta baita komikiak, zinema eta kartelak ere. Komunikabideen arteko lehiak gero eta gehiago dira: lehia sortzen da. Hizkuntza ere, herrikoagoa egiten da, eta herriarengandik gero eta gertuago ibili behar herria bera ere, irakurleria potentziala izanik, lortu nahi baldin bada.

1.2. Espainiako eta Euskal Herriko komunikabideen aro berriaren has-tapenak

Euskal Herrian, euskararentzako eredu idatzi batzuk bilatzen dira, herria benetan irakur dezan. 20ko hamarkadako komunikabideak hirietako masa edo multzoetara zuzentzen dira. Euskal Herrian, kontraesana badirudi ere, berdin gertatzen da, irakurlekoa herrikoa, baserritarra bazen ere, haren ezaugarriak masarenak dira, gero eta gehiago: irakurleko handi bat, alfabetatua, gizarte-antolamenduaren abantailek (hezkuntza, batez ere) hornituak... Eta hirietan, batez ere, sortzen dira komunikabideak -eta haien irakurleak-baita euskarazko komunikabideenak ere.

Espainia I. Mundu Gerran neutrala mantendu zen. XIX. mendean Madrilan, Bartzelonan edo Bilbon hasi zen industrializazio eta modernizazio prozesu bati ekin zion. Horrek esan nahi du biztanleria hirietara doala, eta irakurleria bat sortzen dela. Prozesu hori ere Euskal Herrian -Hego Euskal Herrian- nabaria izango da. Euskarazko kazetaritza informatiboa izan eta hirietan egingo da. Herri batzuk, Zornotza kasu, kontuan izanik Bilbo ezin dugula hiri euskalduntzat hartu, zonalde euskaldun baten inprimategi-buru izango dira. Dena den, hor egindako kazetaritza erlijioso da, informazioa ere ematen bazuten ere. Euskara hutsezko kazetaritza informatiboa hirietan iritsi zen gailurrera: 20ko eta 30eko hamarkadetan Donostian -hor sortu zen *Argia*-, eta 30eko hamarkadako bukaeran, Gerra Zibilean, Bilbon.

Azaldutako faktoreei beste bat erantsi behar diegu, Euskal Herria eta euskararentzat ezin garrantzitsuagoa dena: Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorrerak. Bi erakunde hauek oso zeregin eraginkorra dute euskal kultura eta euskara bultzatzeko.

2. EUSKO IKASKUNTZA ETA EUSKALTZAINDIA

2.1. Eusko Ikaskuntzaren ekarpena

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen. Lehenago ere bazeuden Hego eta Ipar Euskal Herrian euskara eta euskal kultura bultzatzeko sortuak ziren elkarte batzuk. Nafarroako Euskara Elkargoa, Euskal Esnalea eta Eskualtzaleen Biltzarra -azken hau mugaz beste aldean- ditugu, besteak beste. 1915ean Toribio Alzagak Donostiako Academia de la Lengua y Declamación Euskara delakoa sortu zuen. Erakunde, elkarte eta aldizkari kultural batzuetatik Euskararen Akademia bat eratu zedin eskatu, eta giroa prestatu ere egiten zuten. Aldizkariaren artean, hor zeuden lehen aipaturiko argitarapen kulturei buruzko atalean aztertutakoak. I. Mundu Gerraren

ondoko egoera ekonomikoa ere oso kontuan hartzeko faktorea dugu. Abertzaletasunak ere badu zeregina, bere pisu politikoa gero eta handiagoa izanik, eta gero eta pragmatikoagoa bihurtuz, erakundeetan parte hartzen zuen heinean.

Euskal kulturaren interesak bil zitzan erakunde edo elkarte bat sortzeko ordua zen. 1918ko udan Eusko Ikaskuntzen lehen Batzarra egin zen Oñatin. Eusko Ikaskuntzak lehenagoko elkarteek ez bezala, euskaltzale guztien laguntza jaso zuen. Hor zeuden karlistak, abertzaleak, *euskalerrriakoak* eta liberalak. Idoia Estornésekek azpimarratzen duen bezala, Eusko Ikaskuntza alderdi politiko guztien gainerik zegoen, baina horrek ez du inolaz ere esan nahi apolitikoa zenik. Sortzaileen gogoan bazegoen antzinako Sociedad Bascongada de Amigos del País, Peñafloidako Kondeak eta Azkoitiko zalduntxoek XVIII. mendean sortua, baina batez ere ereduia Institut d'Estudis Catalans izan zen. Bere zereginak handiak izan ziren: Euskaltzaindia sortu zuen, hiru aldizkari sostengatu zituen (*Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Anuario de Eusko Folklore* eta lehenagoko *R.I.E.V.*, Eusko Ikaskuntzak behar zuen aldizkari kulturala bihurtuz), zazpi Eusko Ikaskuntzen Batzar antolatu zituen (1918an Oñatin, 1920an Iruñan, 1922an Gernikan, 1926an Gasteizen, 1930ean Bergaran, 1934an Bilbon eta 1936an Lizarran), erakusketak, omenaldiak, estatistikak egin zituen, liburuak argitaratu, bilduma batzuk osatu, partiturak bildu eta argitara eman, jai berriak ziren ikastolak lagundu, Euskal Herriko unibertsitatea eskatu... euskal kulturarekin edozein gauzaz arduratu zen Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko lurraldeetan ez ezik, Madrilan eta Bartzelonan ere delegazio bana zeukana. Handik aterako ziren euskal kaze-tagintzarekin zerikusia zuten proiektu batzuk, hala nola euskara hutsezko lehen komikiarena.

2.2. Akademiaren sorrera

Euskaltzaindiaren sorrera Eusko Ikaskuntzaren eskutik etorri zen. Euskararen Akademiaren ideia aspalditik zetorren, ordea. Lehenengoa José Paulo Ulibarri Galindez arabarrak proposatu zuen. Ulibarriren gutun batean euskara kontuetan arituko ziren hogeita lau gizonek osatutako akademia bat sortzeko ideia erakusten du. Lehenengo aipamen zuzena José Francisco Aizkibelena dugu, 1856an egina. Bere proposamenean agertzen da lehen aldiz euskara batu baten premia, “un dialecto clásico y literario que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país vascongado”.

Hizkuntza batzeko beharra, ortografiari dagokionez behinik behin, euskararen akademia bat sortzeko proposamen guztietan dago. Antoine d'Abbadie saiatu zen Akademia sortzen, alferrik. Manterolak zerbait esan zuen horretaz, eta Arístides Artiñanok *Academia Bascongada* delakoaren proiektua 1886ko Durangoko Euskal Jaietan aurkeztu zuen. Sabino Arana

burutu ez zen egitasmo haren alde agertu zen. Hurrengo ahalegina Donostiako *El Pueblo Vasco* eta Buenos Aireseko *La Euskaria* aldizkarietan aipatzen da, 1907ko ekainaren 8ko alean. Cosme de Churrucak 1897ko urriaren 28an proposatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari Akademia bat sortzea:

“[...] La misión de esta Academia será la de hacer un diccionario de esta lengua, tomando como base el de la castellana, publicado por la de Madrid [euskara-gaztelania eta alderantzizkoa, etimologiekin]. La Academia se compondrá por ahora de 22 personas, 6 por cada una de las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, por ser mayor el número de habitantes que en ellas hablan el vascuence; 4 por cada una también de las regiones de Francia y Navarra; y 2 por la de Alava. Estas personas que formaren la Academia serán nombradas por las respectivas provincias ó regiones y por la iniciativa de las Diputaciones de las mismas [...]. Los académicos se reunirán trimestralmente en la ciudad de San Sebastián, como punto más céntrico para todos [...]. Terminado el Diccionario se harán, por la misma Academia también, la Gramática y Ortografía vascongadas [...]”.

Foru Aldundiek ez zioten jaramonik egin. Hurrengo ahalegina XX. mendean egin zen. 1901ean Hego eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaleek beren indarrak batu eta bideratzea erabaki zuten. Lehenengo bilera 1901eko abuztuaren 11an egin zen Hendaian. Bigarrena urtebete geroago egin zen. Ortografia batzea arazoa gaindiezin bihurtu zen, eta hortik bi elkarte sortu ziren, Iparrean *Eskualzaleen Biltzarra* eta Hegoan *Euskal Esnalea*. Biek aldizkari bana zuten.

Azkeneko saiakera 1918koa izan zen. Esan bezala, urte hartan bertan sorturiko Eusko Ikaskuntzaren Hizkuntz Sailak -Julio Urquijok eta Luis Eleizalde zuzentzen zuten- proposatu zuen euskararen akademia eratzea. Oharturik lehenagoko ahalegin pribatuak ez zirela aski Akademia sortzeko, erakunde publikoen ezinbesteko laguntza eskatzea deliberatu zuten. 1918ko urtarrilaren 25ean Cosme Elgezabal eta Félix Landaburu diputatuek Bizkaiko Foru Aldundiari Euskal Herriko beste hiru foru aldundiekin batera Akademia sortzea proposatu zioten. Horretarako Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuari proiektua gauzatzea eskatu zioten. Raimundo Olabidek aurreproiektua osatu zuen, eta aholku batzuk jaso ondoren, 1918ko azaroan onartu zuten. Eusko Ikaskuntzak Foru Aldundiei proiektua bidali eta hauek ere onartu zuten. Euskaltzaindia jaio zen, Resurrección María de Azkueren zuzendaritzapean. Oñatin hautatutako lehenengo hiru euskaltzainak Arturo Campián, Luis Eleizalde eta Julio Urquijo ziren. Akademia eratzekeo batzordean ere euskal aldizkarietatik ordezkari banak parte hartu zuten:

Carmelo Echegaray (*RIEV*), Pierre Broussain (*Eskualduna*), Domingo Agirre eta Toribio Alzaga (*Euskal Esnalea*), Dámaso Intza (*Irugarrengo Prantziskotarra*), Zirilo Arzubiaga (*Jaungoiko-Zale*), eta Gregorio Mujika (*Euskalerrriaren Alde*). Azkenean, 1919ko irailaren 21eko bileratik atera ziren lehen euskaltzain osoak: Domingo Agirre, Jean Blaise Adema, José de Agerre, Pierre Broussain, Juan Bautista Eguzkitza, Ramón de Intzagarai, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande. Azken honek zuzenduko zuen Euskaltzaindiaren bozeramalea, *Euskera*. 1920an Ademak eta Agerrek errenuntzia aurkeztu zuten eta Agirre eta Broussain hil ziren. Haien ordez Sebero Altube, Georges Lacombe, Martin Landerretche eta Damaso Intza (*Zeruko Argiaren zuzendaria*) euskaltzain bihurtu ziren.



Resurrección María de Azkue

1920an lanean hasi ziren. Lehenengo zereginak ortografia batzea eta literatur hizkuntza batu baten beharra aztertzea zen. Zer esanik ez, euskaldun eta euskaltzale guztiak ez ziren Euskaltzaindiaren erabakien alde jarri, eta sabbatar eskola bereziki (Azkueren antzinako laguntzailea zen Ebaristo Bustinza *Kirikiño* gidari zutelarik) aldi askotan aurka azaldu zen.



Gregorio Muxika

2.3. Euskaltzaindiaren bozeramalea: *Euskera* aldizkaria

Euskaltzaindiak berak bere aldizkari propioa kaleratu zuen, *Euskera*. *Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak* izeneko. Testuak euskaraz ez ezik Euskal Herrian hitz egiten diren beste bi hizkuntzetan ere agertzen ziren, gaztelaniaz eta frantsesez. Pierre Lhandek bere gain hartu zuen aldizkaria ateratzeko ardura, eta gero Nazario Oleaga zuzendari bihurtu zen. Euskaltzaindiak bere emaitzak, bere iritziak, bere urratsak ezagutarazten zituen. Euskarak, lehenago hainbestetan gutxietsia, bazeukan nolabaiteko prestigio eta estatusa ematen zion erakunde. Hori, esan beharrik ez dago, laguntza eta adore handia izan zen euskaltzaleen proiektu guztietarako, kazetaritza ere barne.

Lehenago ere planteatutako arazoa, euskararen batasuna, eta bere inguruan sortutako beste arazo batzuk ere (neologismoak, ortografiaren batasuna, eta abar), pil-pilean jarri ziren.

2.4. Euskaltzaindia eta euskal prentsa. Egunkari baten egitasmoa

Hasiera-hasieratik, Euskaltzaindiak ikusi zuen kazetaritza zela euskara landu eta garatzeko baliabiderik onena. Euskal kazetaritzaren inguruan, Euskaltzaindia zenbait egitasmo burutzen saiatu zen. Baita euskara hutsezko egunkari bat ateratzearena.

Euskara hutsezko egunkari bat ateratzeko asmoa eta beharra aspalditxotik zetorren, ordea. 1908an, adibidez, jeltzaleek asmoa azaldu zuten, *Diario de Navarra*n Julio Agerrek eta *Gipuzkoarran* Engrazio Arantzadi Kizkitzak, gero hainbestetan errepikatu ziren ezaugarriekin: euskara argian idatzia, abertzalea, informaziokoa. 1917an *Euskal Esnalean* ere agertu zen gogoia. Bertan Arbelaitz kaputxinoak urtero 24.000 pezeta behar zirela planteatzen zuen, eta mila edo bi mila harpidedun behar zirela sostengua emateko (1917ko uztailaren 15ean, 157. zenbakia, 161. orrialdea). 1919an Pierre Broussainek idatzi zion R. M. Azkueri gutun bat. Bertan agertu zen nola Azkue bera eta Julio de Urquijo zenbait tratu egiten ari ziren Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariaren Rafael Pikabearekin Gipuzkoako hiriburuan euskara hutsezko egunkari bat argitaratzeko aukerari buruz. *Zeruko Argian* ere errepikatu zen gogoia 1923an.

Hauek guztiak, ordea, asmo hutsak baino ez ziren. Euskaltzaindiaren egitasmoa, ordea, serioagoa zen. Hasiera batean, ordea, errebistak aipatzen ditu, ez egunkariak:

“Resalta [...] más que la necesidad de aumentar su número, la conveniencia de mejorarlas. A este objeto proyectamos una subvención metálica para aquellas revistas cuya mayor parte de texto se escriba en euzkera y cuyo original alcanza anualmente el número de páginas de un libro corriente; a cambio de esto les impondremos la condición de publicar en folletín alguna obrita necesaria, de común acuerdo designada”.

Bi herenak euskaraz duten aldizkariak, egitasmo honen arabera, 250 pezeta jasoko lukete urtero. Guztira, 2.000 pezeta.

Esan bezala, lehen euskaltzainak euskal aldizkariaren zuzendariak edo arduradunak ziren, beraz oro har ondo samar jaso zituzten Euskaltzaindiak arlo horretan burutu nahi zituzten as-

moak. Horietako bat, ortografia bateratzea. Sabindiarrek izan ezik -haiek, Bustintza buru, Euzkeltzale Bazkuna Aranaren hizkuntz teoriengordailu bihurturik eta *Euzkerea* aldizkaria bozeramalea zelarik, jo eta ke jarraitzen zuten P.N.V.ren sortzailearen ideiak defenditzen- beste guztiek onartu zuten. 1920ko urtarilaren 29an Damaso Intzak gutun batean baietz diotso Azkueri. Hala ere, Iruñeko kaputxinoen aldizkarian eta Donostiako *Argian*, buru belarri onartu zuten Euskaltzaindiaren erabakia. Berdin *Jesus'en Biotzaren Deyan*. Ez, ordea, bizkaierazko *Jaungoiko-Zale* hamabostekarian, bere artezkaria zen Zirilo Arzubiagak dioenez, “lenengo batzar nagusijan erabagi gendualako idazle guztijak azke iztia eurak nai daben idazkerea erabilten”, baina prest omen zeuden -aranistak ez bezala- “Euskaltzaindi orri gure ele maitiaren alde lagunduteko”. Iparretik, guk dakigunez behintzat, erantzunik ez. Gipuzkoarrak eta nafarrak, behintzat, ados. Batasunerako urratsak nonbait eman baziren, kazetaritzan izan zen.

Horretaz gain, 1920. urtean zehar Euskaltzaindiak kazetekiko beste egitasmo bat ere gauzatu zuen. Dirudienez, lehenengo pentsaera aldatu eta egunkariei begira jarri zen Akademia. Dakigunez, garai hartan ez zegoen euskara hutsezko egunkaririk. Euskaraz egunero zertxobait argitaratzen zuten egunkari bakarra *Euzkadi* jeltzalea zen. Euskaltzaindiak garrantzitsutzat jo zuen egunero euskaraz zerbait irakurri ahal izatea, eta horretarako euskarazko testuak bidaltzea komenigarria zelakoan, Akademian bertan bulego edo erredakzio bat eratzeke urratsak eman zituen.

Bulego horren gorabeherak Euskaltzaindian dauden agirien bitartez eza-gutu behar dugu. Asmoa ez da agertzen *Euskeran* aldizkarian. 1920ko abenduan gutun bana bidaltzen zaie Bilboko sei egunkaritarako zuzendariei (orduan zazpi egunkari zeuden). Dirurik ez, ordea, eta egunkariek dirulaguntza bat jar zezatela eskatzen zuten Euskaltzaindiak. Badakigu behintzat hiru komunikabidek milana pezeta eman zutela: *La Gaceta del Norte* katolikoak eta *Euzkadi* eta *La Tarde* jeltzaleek. Dirudienez, asmoa zen bulego hori behin sendo antolatuta, euskara hutsezko egunkari bat argitaratzea.



Euskaltzainak 1927an. Zutik, ezkerretik eskumara: Nicolás Ormaetxea *Orix*e, Jean Elissalde, Sebero Altube, Julio Urquijo eta P. Olabide. Eserita: Juan Bautista Eguzkitza, Bonifacio Etxegarai, Resurrección María de Azkue eta Georges Lacombe.

2.5. *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia*

Euskaltzaindiarekin loturik zegoen beste aldizkari bat sortu zen, *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia*, 30eko hamarkadan. 1934ko urtarritik 1935era arte agertu zen Bilbon, lehenik hilero eta gero, 1935ean, bi hilabetetan behin. Argitaratzailea Bilboko Editorial Vasca zen. Gehien idazten zutenetariko bat Mikel Aingeru Olano Urteaga kaputxinoa zen, garai hartan Gumako gotzaina zena. Euskararen irakaskuntza zuten kezka nagusia. Hor sartuta zeuden, besteak beste, Damaso Intza, Martin Lekuona (lehendakaria) eta Nazario Oleaga. Batzorde bana bazuten Araban, Gipuzkoan, Nafarroak eta Bizkaietan. Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Akademiaren Yaur-sailean sortua zen. Helburua, esan bezala, “eusko-erkietako aur eusko-erdaldunen artean euskera zabaltzea da”. Aldizkarian lan guztien berri agertuko zen.

Nola gauzatzen zen asmo hori? Elebitasunean, haien ustez. Eta elebitasun hori lortzeko, alde batetik euskara bizi zen lekuetan irakaskuntzaren bidez bultzatu eta “izkera ori bera [euskara] il dan bazterretan piztu egin” nahi zuten (*Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia*, 1934ko otsaila, 1. orrialdea). Euskara “Endaren izkuntza da”. Wundt irakasle alemaniarren teorie-

tan oinarritzen ziren, “gizadian nabaitzen diran abots eta izkera ugariak, jatorriak ematen duan gaitasun ezberdiñetatik datoz, eta enda bakoitzean abots eta izkera oiek bestelakoak dira”. Delos soziologoa ere agertzen zen Euskaltzaindiaren Laguntzalleen aipatzen zituztenen artean. Haien ustez, euskara herriaren izpirituaren isla da, “eusko gogo” hitz pare batean definitzearren. Elkarre honen asmoak Europako giroan murgiltzen ziren, Belgika, Suitza, Gales, Bengala, Irlanda eta Alsazia-Lorenako esperientziak eredutzat hartuz. Euskal Herrian metodo batzuk erabili zituzten. Arabako herri batzuetan, han non euskarak izugarritzko galera sufritu zuen aurreko mendeetan, eta non atzerakada beste lurraldeetan baino handiagoa zen, berpizte lana behar-beharrezkoa zen. Bilbon eta Iruñean ere ahaleginak egin zituzten.

Ikusten dugunez, ikertuko ditugun bi hamarkada hauetan, euskarak sekulako bultzada jaso zuen. Giro akademikoetan behin betirako sartu zen, eta beraz, zilegi ematen zuen milaka proiektu -mundu modernoan iraungo zuen hizkuntza bati zegozkionak- aurrera eramatea; euskaltzaleek ederki ulertu zuten euskara biziko bazen, irakaskuntza, alfabetatze eta euskalduntze lanak, eredu idatzi estandarrak eta masa-gizarteko hizkuntza guztien ezaugarriak eskuratu behar zituela. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia erreferentzia ezinbestekoak izan ziren zeregin horietan zebiltzan euskaltzale guztientzat, eta baita, jakina, euskal kazetariarentzat.

Gerra aurreko euskal informazio- prentsaren gailurra: *Argia* (1921-1936)

1. ARGIAREN SORRERA

1.1. *Argiaren* lehen urratsak

Gerra aurreko euskal kazetaritzan, Hego Euskal Herriko aldizkaririk iraunkorren eta eraginkorrenetariko bat *Argia* dugu. Gainera, *Argiak* nolabait elementu kulturalak, erlijiosoak, eta euskara hutsezko informazioa biltzea posible zela frogatu zuen. Donostiako astekari hau euskal komunikabideen arloko zenbait egitasmo oso garrantzitsuren aitzindari eta bultzatzaile bihurtu zen, hala nola euskara hutsezko egunkari batena, Euskal Herriko lehen komikiaren edo euskarazko irratiaarena.

Beste alde batetik, gure ustez *Argiak* jakin zuten irakurlego bat bilatzen eta eratzen ere, hizkuntz eredu egoki bat proposatuz. Ideologikoki, *Argia* dugu euskararen munduan ibiltzen zirenen emaitza, R.M. Azkueren *Euskalzale* eta *Ibaizabalek* jorratutako bideetatik abiatu zena, Errepublikan, hau da 30eko hamarkadan, mikrogizarte abertzalean integratuko zena

1921eko apirilaren 21ean kaleratu zen *Argiaren* lehenengo alea; 800 inguru atera ziren bere hamabost urteetan, 1936an, Gerra Zibila piztu zela eta, desagertu arte. Nortzuek eta zergatik bultzatu zuten euskal astekari honen sorrera? Zazpi euskaltzale bildu ziren Donostian asmo hori burutzeko. Hiru apaiz eta lau laiko ziren *Argia* argitaratu zutenak. Elizgizonak Bitor Garitaonandia *Garbi*, Ander Artzeluz *Luzear*, Ramon Intzagarai *Elurmendi* eta Jesus Karrera ziren (Garitaonandia eta Karrera jesuitak ziren). Besteak Gregorio Mujika *Jeme* eta Antonio Lizarraga ziren. Beste bi erantsi behar ditugu: Anbrosio Zatarain, bere semeak dioen bezala, dirua ipini eta “Nekazaritza” atalaz arduratu zena, eta Donostiako Garibai kaleko “Eneko Deuna”ren irarkola”ren jabea, Ricardo Leizaola. Beren asmoa euskara

bultzatzea zen, hau da, batik bat euskaraz irakurtzen ez zutenek irakur zezatela nahi zuten.



Ambrosio Zatarain

Berehalaxe lanari ekin zioten. Jesus Karrera zuzendari izendatu zuten, eta “apaitxua” berriez arduratu zen. Hasieratik, Intzagarai eta Muxika ziren *Argiaren* idazleak, astekariaren “nortasuna” azaltzen zutenak (batez ere lehen orrialdeko “Astea” atalean). Artzeluzek hartu zuen bere gain “Euskalerriko berriak” koordinatzeko lana, eta *Lugin-zalek* (Zatarain) “Nekazaritza” atala eratu zuen. Antonio Lizarragak, bere aldetik, banakari lan egin zuen.

Arrakasta lortu zuten nonbait, astero lortu baitzuten *Argia* kaleratzea. Ordurako, *Argia'ren Egutegia*, 1936. urtera arte argitaratu zena, prest zegoen. Urtero kaleratu zuten egutegi hau, formatu txikikoa eta gai ezberdinez osatua. Egutegien ohitura, dakigunez, zaharra eta tradizio handikoa zen euskal kazetaritzan. *Argia'ren Egutegiak* bi mila ale saldu zituen 1921ean, 5.500 1928an, zortzi urte haietan guztira 25.900 egutegi saldu zirelarik.

Astekaria sortzeko erak, puntu askotan, gogorarazten digu euskaraz egin diren beste asmo askotan erabilitakoa. Euskara maite zuten eta euskara bultzatzeko asmo bat beren gain hartu zuten lagun taldeen historia aspalditik dator. Antzeko modua erabili zen *Gero* liburua bera idatzi behar zela erabaki zuen taldeak. Garitaonandiak ikusi zuen, Donostiara joan zenean, herriko jendearentzako aldizkaririk eza, eta orduan, beste adiskide batzuekin batera, erabaki zuen sortzea.

Asmoak, bada, mila aldiz erakutsitakoak ziren: alde batetik, euskararenganako zaletasuna piztea, nekazarietako hizkuntza errazaren bidez irakurgaiak eskainiz; bestetik, fedea eta kristautasuna mantentzea herrietan eta euskaldunengan; eta azkenik, nekazaritzaz, irakurleen bizimoduaz, arduratzea. Hiru horiek izango ziren helburu eta ardatzik garrantzitsuenak. Hasiera hartan, ez ziren politika gaietan murgildu, Errepublika heldu arte. Askotan, zaila izan behar izan zen, esate baterako Marokoko Gerra piztu zenean. Esan bezala, horren albisteak ematen zituzten lehenengo urte hartan hasitako “Marruekos’eko berriak”, hain zuen ere, izeneko atalean.

1.2. Argiaren ereduak

Dirudienez, gauzak ondo zihoazen 1923an, Primo de Riveraren Diktadura heldu baino hilabete batzuk lehenago; *Argia* sortu zuen talde haren asmoak betetzen zihoazen, eta denborak arrazoiak eman zien: bazegoen euskaraz irakurtzeko publiko bat nekazarien artean. *Eskualdunak* Ipar Euskal Herrian egin zuenaren antzera, *Argiak*koek ahaztutako irakurlego bati begiratu zioten, eta lortutako arrakasta horren frogarria dugu. Bazekiten zer nolako irakurlegoa izan nahi zuten eta bazekiten zer nolako informazio mota eskaini behar zioten. Horretarako bazeukaten beren atzean mende batzuetako tradizio sendo samarra, hizkuntza lantzeari dagokionez, Elizaren hain zuzen ere, eta bazeukaten ere Iparrean eredu bat, *Eskualduna*, eta Hegoan beste bi, Azkueren aldizkariak hain zuzen ere. Beste eredu batzuk erdarazko kazetaritzatik zetozen: *La Croix de Dimanche* frantsesa eta *La Veü de Catalunya* katalana.



Argia irakurtzen. Nor-Nairen marrazki bat.

2. ARGIAREN EZAUGARRI IDEOLOGIKOAK

2.1. Euskara, fedea, nekazaritza

Beraientzat, euskaldun ona izateko fededuna izan behar, eta Gipuzkoako fededun eta euskaldun gehienak nekazariak ziren. Beraientzat egin zuten *Argia* 1921ean sortu zutenek, eta beren helburua gizatalde hura euskaraz irakurtzeko gai izateko prestatzea zen, batik bat, gizatalde harengan zuten eragina ez galtzeko. Garai hartan euskara kultura hizkuntza zen ala ez eztabaidatzen zen. Euskal Herriko gizatalde batzuen asmoa euskaldunak alfabetatzea zen. Umeak, bereziki.



Ume batek *Argia* irakurtzen dio bere familiari

Euskal Herriko burgesiak aspaldidanik ez zuen bere gain hartu euskara zabaltzeko lana. Eliza zen euskararentzat euskarri garrantzitsua: “Erdalduna baño euskaldun erdalzaleak euskerari kalte geyago egiten diyo”, esaten dute *Argian* 1922an. Ondo zekiten euskararen bidez ideologia bat transmititu izan zutela, eta gizarte berri moderno hartan ere transmititzen jarraitu nahi zuten. 20ko eta 30eko hamarkadetan euskara irakaskintza aurrera doa, noizbehinka oztopoak aurkitzen bazituen ere. *Argia* beti euskarazko irakaskuntzaren alde egon zen.

Argiaren arduradunentzat, Euskal Herriko elizgizonentzat bezala, bere betiko publikoa nekazariak ziren, herri txiki euskaldunetako biztanleak, han non fedea ere gordetzen zen. XIX. mendearen hasieran (eta ziur aski lehenago ere) gure egunetara heldu den topikoa sortzen hasi zen: benetako euskalduna baserrietan bizi zen, mendi artean, Mogelek esan zuen bezala, “Basarteko Unibertsitatean ikasiak” ziren. Horrelako idealizazioak gaur egunera ere heldu dira. Egoera apur bat aldatzen da modernitatea heltzen denean; orduan modernitatearen ezaugarriak onartzera behartuta ikusten dira, baina beren erara moldatzen dira.

irakaskuntzarekin batera, nekazaritza- eskola ere proposatzen dituzte behin eta berriz. Hasiera-hasieratik, horixe zen *Argiaren* asmoa: nekazariak beren ogibidean jarraitzea, baina modu egoki batez, garai berriei zegokien bezala.

Euskara eta nekazaritzaren arteko lotura oso estua bazen, hizkuntza eta erlijioaren artekoa are gehiago. Maila sinbolikoa ere badu hizkuntzak: askotan “ama” eta “etxe” kontzeptuekin konparatzen zaio, eta baita erlijioarekin zerikusia duten beste kontzeptu batzuekin ere. Anthony D. Smith-ek bere *The ethnic origins of nations* liburuan erakusten duenez, antzinako gizarte etnikoetan erlijioek izugarritzko garrantzia dute kontzientzia nazionalaren sorreran.

Pentsamolde iraunkorra, 1989an *Basarrik, Argian* bertan 1935ean idazten hasi zen bertsolari hark hain zuzen ere, “Zabalik” gehigarrian agertutako elkarrizketa batean Pako Aristiri erantzuten baitzion, kazetariak nola ikusten zuen Euskal Herria eta euskararen etorkizuna:

“Ez nago oso baikor. Hemen hiru giro izan dira bereziak, eta horrexek salbatu du euskera. Euskal giroa, baserri giroa eta sinismen giroa. Badirudi hirurak hankaz gora doazela [...]. Gaur ez dira aintzat hartzen. Horiek galtzen direnean puska handi bat faltako du Euskal Herriak, ikaragarria. Hortxe izan du bere bizia, bere seaska, euskararen unibersidadea baserria izan da. Euskararen alde nik uste gehien saiatu direnak elizgizonak izan direla [...]. Orain beldur naiz denak batera ez ote doazen behera, lurpera, baserri giroa, euskal giroa, erlijio giroa. Horiek hirurak falta direla euskerari etorkizun laburra ikusten diot”.

Euskal Herrian, dirudienez, ez zen agertu euskaraz garai modernoetara moldatutako kulturara eraman zuen eliterik. Euskal kulturaren antzinako elitea –elizgizonak– izan zen euskararen jabea edo zaindaria. Moldaketa bat ere egon zen, hori ere egia denik ezin dugu ukatu, komunikabideak sortu zituen eta komunikabide horien bidez aurrera pausu batzuek eman zituen -hizkuntzari dagokionez, esate baterako. Beren asmoak antzinakoak ziren: gizarterako proposatutako eredia zaharra zen. Mundu industrializatura, hirietara, begiratu beharrean, nekazaritzara itzuli ziren, antzinako mundura, han non Euskara eta Erlijioa (maiuskulaz, noski), han non bere boterea eta eragina nagusitzen ziren. Hiru zutabe horietan oinarritu ziren bere pentsamoldeak iraun ahal zezan.

2.2. *Argiaren jarrera politikoa Diktadura arte (1921-1923)*

Lehenengo urteetan, Primo de Rivera-k boterea lortu arte, “politikerieta” sartuko ez zirela agindu zuten. Gehienetan bete zuten agindua, salbuespenak ere baziren ere: foruen alde agertzen ziren kanpotiko erasoren bat agertzen zenean.

Errepublika heldu arte, Espainiako alderdi gehienak ez ziren masa alderdiak. Nazionalismoa ere sortua zen, eta ikusi bezala urrats garrantzitsuak ere emanak zituen, baina benetako indarra ez zuen lortuko Errepublikan baino. *Argiakoak*, nazionalistaren bat egon arren (dirudienez, Garitaonandia horietako bat zen), lehen urteetako jarrera politikoa foruen aldekoa zen. Normalean, Kontzertu Ekonomikoa zela eta, iskanbilarik sortzen zen Madrilgo eta Euskal Herriko agintarien artean. Foruzale amorratuak ziren eta, horien aldeko ekintza guztiak onartzen zituzten.



Bittor Garitaonandia

Lehenengo urte haietan, *Argiak* ez zuen erakusten nazionalismoarenganako maitasun berezirik. Are gehiago, neutralak zirela zioten.

Beren neutraltasuna behin eta berriz aldarrikatu zuten, nahiz eta 1923ko hauteskundeetarako aholku batzuk eman: “Emaiozute zuben botoa, Jaungoikoa eta Euskal-Erriaren alde lana gogotik egingo dutenai. Ori izango da euskaldun benetakoa izatea [...]”.

Argiak, baina, ez zuen bere jarrera politikoa erakutsiko eta definituko Errepublikak heldu arte, Diktadura pasatu zen arte. Ideologia edo pentsamolde hark abertzaletasun jeltzalera jo zuen.

3. ARGIA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAPEAN

3.1. Bitor Garitaonandia, zuzendaria

Diktadurapean, Bitor Garitaonandia *Argiaren* zuzendari bihurtu zen, 1923ko martxoan lehen zuzendaria, Jesus Karrera, hil ondoren.

Irailean Primo de Rivera jeneralaren estatuko kolpea gertatu zen. Ondoren, *Argiaren* jarrera oso zuhurra izan zen. Nahiz eta 1923an Primo de Riverak boterea hartu, lehenengo estualdiak ez ziren heldu 1924. urtea arte. Euskal Herrian, abertzaleen aldizkari batzuk desagertu ziren, batez ere elebidunak, Euzko Gaztedijarenak eta aberrianoenak: *Aberri*, *¡Jaiki!*, bigarren *Gipuzkoarra* (1920an sortua), eta 1921ean sortutako *Kendu* eta *Kaiku*. *Asteroko ingi abertzale ta irritsua* astekari elebidunak. Egoera larri eta nahasi horren aurka borrokatu egin behar izan zuten Garitaonandiak eta *Argiako* beste guztiek, zuhurtasun handiz, aldizkaria astero kaleratu ahal izateko.

3.2. Argia eta zentsura

Gogora dezagun Ambrosio Zatarainek kontaktzen duena, nola bere aita eta Bitor Garitaonandia gobernadore militarrengana joan ziren. Gobernu berriak debekatu egin zuen aldizkariak euskaraz ateratzea. Zorte ona izan zuten, Artzadun gobernadore militarra bera ere euskalduna baitzen, eta euskaraz ateratzen jarraitzeko baimena eman zien, baldintza txiki batekin: erdaraz irakurtzen ez zekitenentzako atal bat atera behar zuten, “euskerazko berba bakoitzaren ondoan gaztelaniazko berbea ipiñi bearr euan”. Primo de Riveraren zentsura oso gogorra izan arren, *Argiak* behin bakarrik pairatu behar izan zuen haren eraso, 1928an.

Argiak ez omen zuen arazo askorik, eta politikari dagokionez, hasieratik esana zeukaten “politikakerietan” ez zirela sartuko; beraz, bere nazionalismoa,

bere abertzaletasuna, existitzen bazen (argitaratzaileen taldekide batzuegan behintzat, Garitaonandiaren kasua), nahiko epela zen.

Garai latzak; Madriletik etorritako mesfidantza ez zen txantxetako gauza. Ondo zekien zaldibartarrak, ordea, nola egoera larrien kontra jokatu. *Argiak* Diktadurapean jarraituko bazuen, ezin zuen bere abertzaletasuna aldarrikatu. Beraz, *Argiaren* borroka euskara, fedea eta nekazarien aldekoa izan zen, politika benetan alde batera utzita.



Ander Artzeluz *Luzear*

3.3. Diktaturako azken urteak

Eroso bizi ziren Diktadurapean, ahal zen neurrian; horrek, noski, ez zuen esan nahi libertate osoz bizi zirenik, baina bai libertate nahikoa zutela euskal kultura eta jarrera mantendu ahal izateko. Diktaduraren kontra zeuden, baina beren jarrera Errepublikaren aurrekoa baino askoz ere leunagoa izango zen. Diktadurapean, arazoak arazo, astekariaren arrakasta gero eta finkoagoa izan zen. 1924an “batzaldi” edo lehiaketak antolatzeari ekin zioten.

Hurrengo urteak nahiko lasaiak izan ziren. *Lizardi* hasi zen *Argian* idazten. Oro har, esan daiteke 1926.-1930. urteetan *Argia* finkatu eta sendotuz joan zela. 1929an euskal egunkari bat martxan jartzeko kanpaina hasi zen, nahiz eta gero, gero ikusiko dugun bezala, asmoa gauzatu ez. Diktaduraren azken

urte haietan euskal kulturarentzat hain garrantzitsu eta eraginkorra izango zen elkarte bat sortu zen, “Euskaltzaleak”. *Argiarekiko* harreman oparoak izan zirelarik. Belaunaldi berriaren garaia heldua zen, aurreko aitzindariak hilda: *Kirikiño* mundu honetatik aldendu zen 1929ko otsailean. Garitaonandia bera ere hilabete batzuk geroxeago hil zen, urte hartako irailaren 3an. Ander Artzeluz *Luzear* zuzendari berria bihurtu zen, Errepublikaren atarian.

4. ARGIA ETA EUSKAL EGUNKARI BAT SORTZEKO ASMOA

4.1. *Lizardi* eta euskal egunkariaren egitasmoa

1929an, “Euskaltzaleak” taldeak eraginda, planteatu zen euskarazko egunkari bat argitaratzeko aukera. *Argian* horren berri ugari eman zuten, eta badakigu Donostiako astekaria euskal egunkariaren asmoari oso lotuta zegoela. *Argia* bihur zitekeen euskal egunkari berria? Baliteke; *Lizardik* uste baitzuen ez zegoela egunkari berri bat ateratzerik, ez zegoela inprimategi berri bat erosterik, ez eta langile berririk kontratatzerik. Idazlearen ustez, hoberena izango zatekeen zegoen euskal aldizkari batean oinarriturik, egunkari berria ateratzea. *Lizardiren* aholkuak ontzat hartuz gero, *Argia* egunkari bilatuko zatekeen.

Lizardiren ustez, egunkaria eta astekaria bat bakarrik izango ziren. *Lizardik* berak eta Txomin Arruti *Mendi-Lautak*, beste batzuen artean, proposatu zuten ideia. *Argian* lehenengo aipamena 1929ko martxoan aurkitzen dugu, eta *Mendi-Lautak* berak horren berri ematen digu. Handik aurrera, eztabaida arras interesgarria garatuko zen *Argian* eta beste aldizkari batzuetan.



Txomin Arruti *Mendi-Lauta*

4.2. Egunkariari buruzko eztabaida

Ekainean “Euskaltzaleak” taldeak txosten bat argitaratu zuen *Argian*; bertan euskal egunkaria gertu zegoela irmoki zioten. Lehendabizi, arazo ekonomikoak larrienak ziren. *Lizardik* proposatu zuen akzioak ateratzea eta, batez ere, euskaltzale aberatsei laguntza eskatzea. *Euzkerea* aldizkarikoen ustez, euskal egunkariak urtero 21.000 pezeta galduko zituzkeen. Eusko Ikaskuntzak antolatutako udako ikastaroan komisio bat sortu zen; haren partaideak *Lizardi*, *Mendi-Lauta*, *Esparza* eta *Luzear* ziren. Horietatik hiru *Argiari* estuki lotuta zeuden. Ricardo Leizaola ere han zegoen. *Lizardiren* ustez, egunkari berrirako 141.900 pezeta beharko zituzketen. Are gehiago, *Eusko Ikaskuntzaren Deian* argitaratutako artikuluan batean gastuak eta beharko lituzketen langileak zehazten ditu. Hiru mila harpidedun behar zituzten, hura zen bere konklusioa (*Lizardi*, 1987).

Guztiek *Argian* jartzen zuten beren esperantza. Hala ere, bazegoen proiektuaren arriskuak ikusten zituen norbait, Fermin Irigarai *Larreko*, adibidez. Berarentzat, problemarik handienetako bat idazleak bilatzea zen, behar bada urte hartan bertan hildako *Kirikiñoren* izena zeraman sariarekin konpondu zitekeena. 1929ko maiatzean bertan, *Lizardik Larreko*ri eskatu zion “zuk ain mami darabiltzun naparrera gozo orretan idazki bat bializ zarazu, egunkariariko. Egunkari-muestra edo agerki bat nai genduke ‘Euskaltzaleak’ aren zabalkundea egiteko [...]”. Baina arazorik larriena irakurleena zen.

Antza denez, *Argian* adoretu zebiltzan, 1929ko uztailean euskal egunkariaren adibide edo lagin bat atera baitzuten. Hurrengo asteetan diru arazoak gora eta behera ibili ziren.



José María Agirre *Xabier Lizardi*

Zer nolako egunkaria nahi zuten? Euskara hutsezkoa, jakina, nahiz eta batzuek erdal-ataltxo bat edo erdibanakoa izatea proposatu; informaziokoa (“izpartsu”, *Lizardiren* hitzetan), eta “egunkari on bat -eta bearrezko dezu ona, erderazkoak bezin ona; bestela, zeren indarrez edatu?”, zioen J. M. Agirrek. Euskal Herri osora hedatuko zen egunkaria izango zen, handia, Madrileko *La Voz* eta *El Sol* bezalakoak, txikiagoa beste batzuentzat (*Lizardirentzat*, esaterako), eta kristaua denentzat.

4.3. Egitasmoak porrot egin du

Argian euskal egunkariari buruzko aurkitu dugun azken aipamena 1930eko martxokoa da. Zumaian egindako “Euskaltzaleak”en batzarraren berri ematen digute: “Azken-azkenik Egunkariatiaz erabaki zan. Lizardi jaunak esan zuan berriro, egunkari ori irtetea al izango bada iru milla arpidedun bear dirala, iru milla arpide oiek billatzen saia gaitezen bada guztiok [...]. Orrenbeste ta orrenbeste biztanle gera euskalerrian eta ainbeste eta ainbeste euskaldun bizi dira Euskal-erritik kanpora eta ez ote gera bada iru milla irakurle batuko euskal-egunkaria izan dezagun? Bai, noski, batez ere danok gogoz artzen badegu [...]” (*Argia*, 1930eko martxoak 16, 464. zenbakia).

Momenturik egokiena ematen zuen euskarazko egunkari bat kaleratzeko: lehen aldiz, egoera politikoak uzten zuen horrelako asmoak burutzen, *Argiak* irakurleko garrantzitsu bat lortu zuen, denetariko aldaketek kazetaritza modernorako baldintzak bultzatzen zituzten, baina, arazo ekonomikoak zirela medio, *Argia* ez zen egunkari bihurtu. Euskal Herriko euskara hutsez idatzitako lehenengo egunkaria izango zatekeen. Asmoak frogatzen du behintzat euskarazko kazetaritza posiblea zela. Hala ere, zazpi urte espero behar izan zuten euskarazko lehen egunkaria, *Eguna*, ikusi ahal izateko.

5. ARGIA ERREPUBLIKAN

5.1. Errepublika, garai berriak

Ander Artzeluzek *Argiaren* zuzendaritza hartu zuenerako, astekariaren bidea garbi azaltzen zen. Beharbada, bere gailurrera iritsia zen. 1928an ale gehiago argitaratu ahal izateko makina berri bat erosi zuten. Ordurako hemezortzi lagunek lan egiten zuten Rikardo Leizaolaren inprimategian. Publizitatea ere ez zitzaian falta.

1930ean, Diktadura bukatuta, hil zen Parisen Primo de Rivera.

Errepublikarekin batera, *Argiaren* etapa berri bat hasi zen. Buru belarri sartu ziren politikaren munduan. Beraientzat, Errepublika nolabait mehatxua zen. Sistema laiko baten barruan, katolikotasunaren iraupena zalantzan ikusten zuten, eta ezkertiarren garaipena arriskutsua zen beraien interesetarako.

1931ko maiatzean Euskal Herriko eskumako alderdi guztien batasuna proposatu zuten hauteskundeetarako. Ekainean Gasteizko gotzaina zen Mateo Muxika erbesteratzeko agindua ezagutu ondoren, “gaitzezen itzak” argitara eman zituzten. Erljioarentzako gorrotoa susmatzen zuten: 1931ko urrian Gobernuak jesuitak sakabanatu zituen, eta 1933an “katolikuei egin dezaiguteken irañik aundiena egin digute”, zioten kexu “lege berria” zela eta. Beharbada Errepublikaren beldur zirenez gero, mantxetaren ezkerreko partean San Migel bat agertzen hasi zen, “Mikel Donea, zaindu Euskal erria” lemapean.

5.2. *Argia* eta Estatutua

Hasieran eskumako guztien alde agertu baziren, gero nazionalisten alde bakarrik borrokatu zuten. Are gehiago, Espainiako eskumako alderdiak Euskadiko Estatutoaren aurka azaltzen hasi zirenean. Errepublikaren zehar, sozialistak ere beren etsairik porrokatuenak izan ziren. Beren interesak defenditzeko alderdirik aproposena Eusko Alderdi Jeltzalea zen. Normala denez, Errepublikaren aurka jokatu zuten. Estatutuaren aldeko kanpainari gogor ekin zioten, Estatutuaren bidez beren hiru ardatzen garaipena -Katolikotasuna, Euskara eta Nekazaritza- lortzea espero baitzuten. Horren alde jokatu zuten beti, hasieran karlista eta nazionalistekin, eta lehenengoak aldendu zirenean, bigarrenekin bakarrik.

Errepublikan, batez ere lehenengo urteetan, abertzaletasunaruntzako joera nabarmena da, gero eta gehiago. Mugimendu abertzalea gizartearen maila guztietara hedatuz zihoan: E.A.J. ezezik, beste mugimendu, erakunde eta elkarte asko sortu ziren: kulturalak (“Euskaltzaleak”), emakumeentzakoak (“Emakume Abertzale Batza”), umeentzakoak (“poxpoliñak”, “gastetxuak”), sindikalak (E.L.A.), eta abar. Gehienak lehenagotik zetozen, baina Errepublikan izugarri indartu ziren. *Argia* mikrogizarte abertzale horretan sartuko da.

EUSKALERRIA MAITE DEZUTE NOK, EMAN ZUEN BOTOA NAZIONALISTAI



1. Puzatutako lekuak dituzte gure lekuak...
1839
1953



2. ... 11-ean, Euzko lekuaren Euzkaldunok lekuaren (estatutuaren) aldean botoa ematen.



3. Euzkaldunok gure lekuaren aldean botoa ematen; baina lekuaren lekuaren lekuaren aldean botoa ematen.



4. Baina, azkenean, estatutuaren aldean botoa ematen dituzte lekuaren lekuaren lekuaren aldean.



5. Orain, gure lekuaren lekuaren lekuaren aldean botoa ematen.




6. ... 11-ean, Euzko lekuaren lekuaren lekuaren aldean botoa ematen.



7. Aldatu (defents) ez egiten lekuaren (estatutuaren) aldean, baina lekuaren lekuaren aldean.



8. Datorren igandean (11-ean) estatutuaren aldean botoa ematen, gure lekuaren lekuaren lekuaren aldean.



9. Gure lekuaren lekuaren lekuaren aldean botoa ematen, baina lekuaren lekuaren lekuaren aldean.



10. Estatutuaren aldean botoa ematen, baina lekuaren lekuaren lekuaren aldean.



11. Estatutuaren aldean botoa ematen, baina lekuaren lekuaren lekuaren aldean.



12. Euzko lekuaren lekuaren lekuaren aldean botoa ematen, baina lekuaren lekuaren lekuaren aldean.

Errepublikan, Argiak denetarikoko baliabideak erabili zituen estatutuaren alde. Irudian, John de Zabalo Txikiren aleluia bat.

5.3. Argia eta Eusko Nekazarien Bazkuna

Errepublika garaian, *Argia* Eusko Nekazarien Bazkunaren bozeramale bihurtu zen. Ordurako “Gipuzkoako Nekazariak” elkarte existitzen zen. Elkarte hark ez zuen norabide politiko jakinik. “Gipuzkoa’ko Nekazarien Katolikotar Alkartasuna”ren gainean hasiko dira eraikitzen “Euzko Nekazarien Bazkuna”. Sindikatu honen helburua, nahiz eta “zerbitzu sindikatu” bezela agertu, bazen politikoa. Sindikatu hori sortzeko lehenengo asmoak 1929an hasi ziren. Harez geroztik, Eusko-Langilleen Alkartasunaren berriak eta Gipuzkoa Nekazariak elkartearnak ugariak izango ziren.

Azkar jokatu behar zuten, sozialistak eta komunistak -Gipuzkoan azken hauek, batik bat- mugitzen hasiak baitziren. Komunista asko euskaldunak ziren; hori ere ondo zekiten *Argiakoek*. Komunisten eta sozialisten ahaleginek bultzatuta, *Argiaren* ingurukoek erabaki zuten nekazaritza-sindikatura sortzea. 1931 urteaz geroztik *Argian* agertzen dira “Gipuzkoa’ko Nekazariak” deituko zen elkarte bati buruzko artikulua batzuk. D. Eizagirre zen haien egilea.

Policarpo de Larrañagak, urtebete lehenago Ondarroan Euzko Tostarteko Bazkuna sortu zuenak, Elorzari jaramonik egiten badiogu behintzat, Zumarragan batzar bat antolatu zuen 1932ko abenduan eta 1933ko urtarrilean (Larrañaga, 1976). 1933ko otsailaren 12an, Zumarragan sortu zuten “Euzko Nekazarien Bazkuna”. Urte batzuk lehenago iragarritako asmoak biltzen zituen sindikatu berriak. *Argia* haren organo *ofizioso* bihurtu zen.

Garai hartan, lau gizon ziren E.N.B.ko arduradun nagusiak: Policarpo Larrañaga, Jose Maria Lojendio abokatua, Lino Lazkano eta Eusebio Goñi. 27 herritako ordezkariak sortu zuten E.N.B.

Dirudienez, lan egin zuten herriak Zarautz, Azkoitia eta Azpeitia izan ziren, han non *Argia* ere gehien irakurtzen zen. Uztailean argitaratzen dute *Argian* han irakurritako memoria: horren arabera 1935ko urtarrilean E.N.B.k bazituen 57 bazkun eta 5.300 bazkide eta 20.000 errealean jabe ziren. Ordurako, Gipuzkoako nekazariak beraienak ziren. Hiritako langileen ideologiazio lana Euzko Langilleen Alkartasunen esku bazegoen, Gipuzkoako herrietako baserritarrena Eusko Nekazarien Bazkunak zuen. Gerra ailegatu zenean, 1936ko ekainean E.N.B.k bazituen Gipuzkoan 68 talde, guztira 8.100 familia nekazari. Kooperatibak bazituen Zarautzen, Azpeitian, Zumarragan, Erreterian eta Oiartzun. Uztailean, bazkideen kopurua gehitu zen: 12.500 familia nekazari, 5.550 jabeak eta 7.000 alokatuak. Bizkaian, 31 talde eta 2.600 familia, eta kooperatiba bat. Kontuan hartu behar dugu Bizkaian E.N.B. 1934ko martxoaren 4ean ezarri zela, Markinan (*Anayak*, 1939ko martxoak 1-15, 6.-7. zenbakia, 25. orrialdea).



Araudiaren alde botoa emazute, euskaldunak

Zergatik gera Estatu-tuto alde?

Lanbide, erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Astelenero gertakizun ikaragarria

Bere bizilekua irten da 300 metroan joan ondoren bukitzen arzen-konkrea itxiki-itxiki eginda gelditu. Jendek hitza zizkion; ilak ira izan ziran eta zauritak hofegiekin amaitu hat bai

Azkarategi zijoalako gertatu eze nan?

Jasa dan azkarategi gertatu hitza hitz emi Elgibar-izena. Euzko-Euzkoizkoak afektuak hitz emi eta zauritak hofegiekin amaitu hat bai

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

ASTEAN

Ar. gogor
Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak
Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak
Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka
Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka
Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Ar. gogor, Espainiaren aurkako erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Urt. Oñak ezarriaren aurka jai dituzten, ezinbat hitz, aldiak eta al diruzten, ezinbat diraren erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Atzeritarrak aurka dituzte erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.

Erabileren eta diraren murrizketaren aurka hitz egin dituzte.



Euzkoizkoak hitz ematen duela

Argiaren azal bat, estatuaren aldekoa

5.4. *Argiaren* kazetagitza Errepublikan

1931n Rikardo Leizaolaren inprimategia Donostiako etorbidera pasatu zen. Erredakzio edo bulegoa (lehen inprimategian bertan zegoena) beste leku batean kokatu zen. *Argiaren* orrialdeetan bestelako berriak agertu ziren, politikoak batik bat. Belaunaldi berri bat agertu zen astekarian, aurreko idazleak pixkanaka-pixkanaka desagertuta. Artzeluzen ondoren, 1931. eta 1932. urteetan, Joseba Arrue apaiza izendatu zuten *Argiaren* zuzendari. 1931n Gregorio Mujika, astekari donostiarraren zutabetako bat, hil zen. Baliabide berriak erabiltzen hasi ziren: titular edo idazpuru “korrituak” (zutabe bat baino gehiago betetzen zutenak), aleluiak, argazki eta marrazki gehiago, artikulua ausartagoak eta, orokorrean, kazetaritza-baliabide gehiago.



Gregorio Mujika

Garai berriak, irakurle berriak, idazle berriak. Euskal literaturaren urrezko garaia zen: *Lizardi* bere momentu onenean zegoen, *Lauaxetak Bide barrijak* liburua argitaratu zuen, *Orixe* bere obrak ere kaleratzen zituen. Gero eta aldizkari gehiago zeuden: *Ekin*, *Euzko*, Elias Gallastegiren *Patria Vasca...* *Argiaren* neurriak txikiagotu egin ziren. 1933an *Argiak* beste zuzendari bat zeukan: Antonio Etxeberria *Bostlore*, beste jesuita bat. Espainiako egoera politikoa gero eta nahasiagoa zen: otsailean Asturiasen 26.000 meatzari greban hasi ziren, abenduan Euskal Herrian ere iskanbilak sortu ziren. Komunistak lehentxeago agertu ziren. 1933ko maiatzaren 12an, hil zen Tolosan Jose Maria Agirre *Lizardi*, 36 urte zituelarik.

1934an *Argiak* zortzi orrialde zituen. Euskal komunikabideak ugaritzen zihoazen. Urte hartako urtarrilean Teodoro Hernandorenak *Euzkadi* izeneko filma estreinatu zuen, eta Gipuzkoako zinema aretoetan ere proiektatu zen. Euskaltzaleak elkarteak gogor jarraitzen zuen lanean. 1934ko azken

hilabeteetan *Argia* noizbehinka hamar orrialderekin atera zen, eta argazkiak ere gero eta ugariagoak ziren. Azkeneko etapa eta aldaketa gertu zegoen, Anizeto Zugasti zuzendaritzapean.

Esan dezakegu 1935ean aro berri bat hasi zela. 1930ean, euskal egunkariaren asmoak porrot eginda, *El Día* agertu zen; agi denez, Donostiako egunkari berriaren sorrerarekin batera, *Argiaren* salmentak jaitsi egin ziren. Errepublika garaian, lehenengo urteetan *Argiaren* zeregina propagandista samarra izan zen, P.N.V.rekiko harremanak nabariak zirelarik. Errepublikako lehen urteak gogor eta latzak izan ziren, abertzaletasun jeltzalearen aldeko propaganda egin beharrekoa zen, eta erlijioaren aurkako erasoei aurre egin behar zitzairen. Baina 1935ean eta 1936an, *Argiak* bete zuen zeregina beste aldizkari batzuek egiten zuten, eta egoera gainera lasaiagoa zen.

1935ean orrialde kopurua gehitu zen, inprimatzeko sistema berri garesti bati esker (sakongrabitua). Gure ustez, une hartan aldaketa kualitatibo bat hasi zen *Argian*. Lehenengo urteetako irakurlegoa aldatzen ari zen, gero eta ume gehiago alfabetatzen ziren; gizartea aldatu ahala, astekaria ere aldatu beharra zegoen. Errepublika garaian, gainera, aldizkari berriak sortu ziren, *Argiarentzako* kompetentzia. Urte haietan gizartean gero eta arinago gertatzen ziren aldaketetara moldatu beharra zegoen. *Argiarentzat*, egunkari bihurtzeko aukera galdua, beste bide bat geratzen zen: *magazin* bihurtzea, Estatu Batuetako *Life* eredutzat hartuta.

Lehenago eskaintzen zituzten berriak, informazioa alegia sartzen zuten *Argian*, eta gauza gehiago ere bai, irakurleagoak berak eskaintzen baitzuten: “Al hablar, pues, de literatura, nuestro pensamiento no excluye producción alguna, gráfica u oral, de las que se destinan al público, sea cual fuere el medio difusor por el que llegue hasta él: libro, periódico, tribuna, teatro, disco de gramófono, film... Por todos estos flancos es acometido hoy el euskera; y en todos ellos ha de ejercitar su función asimiladora, so pena de rendirse inerte y morir”, zioen Justo Mokoroak 1936an, eta erdal aldizkariak irakurtzeko joera salatzen zuen, zeren “al cabo de tantos años de actividad renacentista, el público euskaldun no dispone siquiera de una hoja de información; y para asomarse cada mañana al mundo de la actualidad -a su propio mundo- necesita echar mano del antejo espiritual de la prensa erdérica” (Mokoroa, 1936: 39).



1935eko ekainaren 30az geroztik, sakongrabatuz egindako hamabi orrialdetako aleak kaleratzen hasi ziren. Argazki gehiago sartu zituzten sakongrabatuz egindako lau orrialdeetan, hauetan testu gutxi zegoelarik. Zaraguetak, Eskubik, Etxandik eta Landazabalek egiten zituzten argazki haiek. Oyangurenak ere aterako zituen bere argazkiak hurrengo aleetan. Bi koloretako irudiak izaten ziren, baina ez beti zuri-beltzezkoak: berdea, urdina eta gorria ere erabiltzen zituzten. Oso irudi erakargarriak izaten ziren, gai ugari erabiltzen zituztelarik: kirolak, euskal jaiak, Euskal Herriko alderdiak -askotan olerki batekin-, erretratuak, irudi erlijiosoak eta, 763. aletik, *Historia gráfica del nacionalismo* liburutik ateratako irudiak.

Publizitatea ere sartzen zuten, ez Donostiakoa bakarrik, orokorragoa ere bai. Berrero euskal kazetagintzan bete gabe zegoen hutsune bat estali nahi zuen *Argiak*: euskara hutsezko magazinena.



Argiaren azala. Huts-grabatuko argazkia.
Saltzaile bat, 1935eko larunbat batean

Argia bultzatu zutenak saiatu ziren beren komunikabidea *mass-medium* bat egiten, eta ateratako aleen arabera masa-komunikabidetzat ez badugu hartzen, *Argiak* horrelako komunikabideei zegozkien gero eta ezaugarri gehiago erakutsi zuen. Egoera aldatzen ari zela konturatu ondoren euskarazko astekaria egunkari eta magazin egiten saiatu ziren, eta baita beste komunikabide mota batzuetan sartzen ere bai: irradian, komikigintzan... Zer lortuko zuketek Gerra Zibila piztu ez balitz? 1936an, beste hainbeste gauzarekin gertatu bezalaxe, Gerrak *Argiaren* bidea betiko eten zuen.

ARGIA

ASTEROKA

Donosti'ko Eusko Langileen Kooperatiba



Argia irratian, lehen aldiz, ez du
 erantzunik eman. Baina Argia, baina,
 ez du argia eman, eta argia argia
 ez du eman.

Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.
 Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.

Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.
 Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.

Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.
 Argia irratian, baina, argia ez du
 eman, eta argia argia ez du eman.

Aldizkari erlijiosoak (1919-1936)

1. ALDIZKARI ERLIJIOSOAK (1919-1936)

1.1. Aldizkari erlijiosoak 20ko hamarkadan

1.1.1. Jaungoiko Zale

Euskarazko aldizkari erlijiosoak oso iraunkorrak izan dira beti euskal kazetaritzaren historian. Gerra aurreko batzuk mende honetako 80ko hamarkadan argitaratzen ziren, *Zeruko Argia* esaterako. Gaur egun ere, ordenu erlijioso haiek beste euskarazko aldizkariak kaleratzen dituzte: hor dugu, adibidez, karmeldarren *Karmel*. Aurreko atal batean esan bezala, bi aldizkari erlijioso garrantzitsuak sortu ziren Euskal Herrian 1910eko hamarkadan: *Jaungoiko-Zale* eta *Jesus'en Biotzaren Deya*. Errepublika garaian sortu zen *Ekin*. 1919tik, *Zeruko Argiatik* hasita, beste aldizkari batzuk sortu ziren. Gai erlijiosoak ez ezik, bestelakoak ere tratatzen zituzten.

Jaungoiko-Zale aipatu dugu lehenengoz, izen berdineko bazkunaren bozeramalea zena. Zirilo Arzubiaga eragile nagusia izanik, Jaungoiko-Zale Bazkuna 1912an sortu zen Zornotzan, katixima batzeko ahaleginak egiteko eta euskara bultzatzeko. Bazkunean bazeuden, Arzubiagarekin batera, beste apaiz batzuk, hala nola Gabriel Manterola eta Juan Bautista Eguzkitza. Haiek, bizkaierazko eta gipuzkerazko katixima edo dotrina batzeaz gain, aldizkariak sortu, euskarazko liburuak argitaratu eta euskal jai erlijiosoak antolatzeaz ere arduratzen ziren. Aldizkariak eta liburuak argitaratzeko bazeukaten inprimategi bat, Jaungoiko-Zale'ren Irarkola, Zornotzan bertan. Horri esker, Bizkaiko herri horretatik euskarazko aldizkari eta liburu asko eta asko kaleratu ziren, erlijiosoak edota erlijioarekin zerikusirik ez zutenak.

Bazkuna sortu zen urte berean kaleratzen hasia, *Jaungoiko-Zale* aldizkaria Errepublika ailegatu arte argitaratzen jarraitu zuten. Errepublikan, esan bezala, *Ekin* agertu zen. Hamabostekaria ez ezik, egutegi bat ere argitaratzen zuten, hormarakoa, *Jaungoiko-Zale'ren [ormako] egutegia*. Horretaz aparte, 1921etik beste aldizkaritxo bat ere kaleratu zuten hilero, *Eleiz-Orria*,

"parroko jaunak euren eliztarren artean zabaldu dagien", azalean bertan esaten zuten. Taxuera txikiko aldizkaritxo, mezatako gauzak eta Ebanjelioen azalpenak batez ere zekartzan. Behintzat, antzeko beste bi aldizkari agertzen ziren Bizkaian, *Busturia'ko Kistar Ikastia* eta *Umetxuen Adizkidea*, biak, dirudienez, haurrentzako eginak. Errepublikan, 1935. urtean zehazki, beste aldizkaritxo bat kaleratu zuen Jaungoiko-Zale Bazkunak, Gipuzkoan kasu honetan, *Igande Orria*, Bizkaian agertzen zenaren antzekoa. Oiartzunen, Onaindiak dioenez, beste bat agertzen zen, *Oyartzungo Eliz-Orriya*, Donostiako Eneko Deunaren irarkolan lehen aldiz 1926an egin zena.

20ko hamarkada hasi zenerako, *Jaungoiko-Zalek* ondo finkatuta zirudien. Hamarkada hartan, Manterolaren eragina nabaria da: *Gabirel* edo *Gama* izengoitiak erabiliz, aldizkariaren atal askotaz arduratu zen. Idazle erlijiosoak ez ezik, laikoak ere bazeuden, hala nola Federiko Belaustegigoitia. Aldizkarian aurkitzen ditugun beste izen batzuk ezagunak egiten zaizkigu: Nemesio Etxaniz, Gotzon Urrutia... Argazkiak ere bazeuden, Indalecio Ojangurenak eta Gabriel Manterolak berak eginak. Irudiak (argazkiak eta, gehienbat, marrazkiak), erlijiosoak izaten ziren: santuak, birjinak eta horrelakoak.

1922an euskal kazetaritza inoiz baino hobeto zegoen, euskara hutsezko hamar aldizkari baitzeuden: *Jaungoiko-Zale*, *Zeruko Argia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Irugarrengo Irakaslea*, *San Francesen Deia*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Euzko Deya*, *Fedearen Propagacioneco Urtecaria*, *Eskualduna* eta *Argia*. Hauetatik zazpi erlijiosoak ziren, eta beste bitan (*Eskualduna* eta *Argia*) apaiz asko zegoen zuzendaritza-taldean.

Erljioa bera lehena da, eta berau zabaltzeko norberaren hizkuntza erabili behar zen, herritarren mintzaira alegia, euskara kasu honetan. Erljio eta hizkuntzaren zabalkuntza elkarren eskutik. Frances Lannon Oxford-eko irakasleak ezin hobeto definitu du, gure ustez, egoera hori (Lannon, 1990: 37).

Jaungoiko-Zale aldizkaria, apaizei predikuetan laguntza emateko sortua, 412 zenbaki atera zituen.

1.1.2. Zeruko Argia

1919ko urtarrilean agertu zen lehen aldiz Iruñeko kaputxinoek aurrerantzean hilero argitaratuko zuten *Zeruko Argia*. Euskarazko kazetaritzaren historian gehien iraun duen aldizkari erlijiosoa dugu, Gerra ondoren ere berriro argitaratzeari ekin zioten, gaur egungo *Argia* bihurtzeraino. Taxuera txikiko aldizkaria, normalean garaiko aldizkari erlijioso guztiak bezala, Damaso Intzak zuzendua, hasieran bere helburua erlijiosoa zen.



Zeruko Argia

Aldizkari erlijiosoa beraz, gai erlijiosoei buruz bakarrik aritzen zena, baina -hau da gure ustez azpimarragarria- ez bakarrik erlijiosoentzat. *Zeruko Argia* jende guztiarentzako aldizkaria zen. Kaputxinoek eta frantziskotarrek lehenagotik beste aldizkari batzuk ere argitara emanak zituzten, orain aztertzen ditugunak ez bezala, erlijiosoei bakarrik zuzenduak. Eliztarrek, nolabait, mundura atera nahi zuten. Garai hartan, kazetaritza informatiboko garaian alegia, *mass-mediaren* eragina nabaria zen. Eliztarrak laizismoaren arriskua gertu ikusten hasiak ziren. Ordenu erlijiosoen propaganda egiteko beste bide batzuk bilatu behar zituzten, aita santu Pio X.aren hitzak gogoan zeuzkatelarik: "Elizak alperrik egingo dituzute, misioak alperrik emango dituzute, ta eskola egingo dituzte Elizaren alde ta bere etsaien kalte iskillu edo arma bezela irakurgai katoliko leyal ta egiazkoak erabiltzen ezpadituzute".

Zeruko Argiak lehenagoko euskarazko aldizkari erlijiosoen eskarmentu batzuk jaso zituen; ez zuen *Jaungoiko-Zalaren* bidea jarraitu, hau da, ez zen sartu erlijiotik at zeuden gaietan, hala nola politika edo hezkuntza kontuetan, ez Zornotzako apaizen elkartekoek egiten zuten heinean behintzat. Baina misioetako gauzei buruzko berriak maiz ekartzen zituen, *Fedearen Propagacioneco Urtecararen* tradizioa nolabait jasoz, eta baita kaputxinoei buruzko berriak ere, ordenu barruko aldizkariak egiten zuten moduan.

Iruñeko kaputxinoen aldizkariak Euskal Herriko bazter guztietara iritsi nahi zuen, ez zen beraz Nafarroako bakarrik aldizkari bat. Batez ere, Gipuzkoa eta Nafarroara iritsi nahi zuten, bazekitelako Bizkaian beren balizko esparrua *Jaungoiko-Zalek* betetzen zuela. Ikertzen ditugun aldizkari gehienak bezala, zaila da jakitea *Zeruko Argia* zenbat saltzen zen. Baina badakigu non saltzen zen, zenbat salmenta-puntu zeuden: 1921ean Gipuzkoa eta Bizkaiko leku gehiagotan saltzen zen, Nafarroan baino. Ezagutzen ditugu, baita ere, harpidetzak egiteko herrietako idazkarien zerrenda, eta gehienak Gipuzkoan zeuden, hogeita sei herritan. Bizkaiko sei herrik bazuten *Zeruko Argiaren* ordezkari bat, eta Nafarroako hamahiruk. Beste bat Gasteizen zegoen.

Aldizkaria erlijioso bazen ere, eta politikatik urrun mantenduko zirela agindu bazuten ere, 1922an atal berri bat argitaratzeari ekin zioten, "Naskaldia" izenekoa. Bertan munduko berri laburrak agertzen ziren, gehienak erlijioarekin zerikusia zutenak. Atal hartan Sobiet Batasuneko berri asko zeuden, komunismoa baitzen garai hartan elizgizonentzat etsairik handiena. Iruñeko kaputxinoentzat ere berdin, eta horregatik beren aldizkarian komunisten aurkako berri ugari aurki ditzakegu, politikaz arduratzen ziren aldi urrietan. Pentsamolde hau lehenagoko euskarazko aldizkari batzuen eta geroagoko beste batzuen ere berdina delako, sindikatu katolikoak, batez ere nekazarien elkarreak, Eliza katolikoaren ideologiaren bozeramale ezin hobeak ziren. Batez ere Errepublikan, bai elizgizonek, bai abertzaleek, ederki ikusten jakingo dute elkarte horien garrantzia. Baina, egia esan, *Zeruko Argia* ez zen inoiz ere Espainiako eta Euskal Herriko politika gauzetan sartu, eta oso gutxitan Europakoetan, ez eta momentu nahasietan ere, esate baterako Espainiako II. Errepublikan.

Honek ez du esan nahi pentsamolderik ez zutenik. Eliztarren aldizkariak Eliza katolikoaren pentsamoldearen bozeramaleak ziren. Ezaugarri gehienak ikusi ditugu: eliztarrak izanik, sozialista eta batez ere komunisten aurkakoak ziren. Beste aldizkari erlijiosoak ere berdin: 1931n *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkarian esaldi hau irakur zitekeen: "Todas las ideologías y los sistemas sociales se reducirán a dos: comunismo o catolicismo, Roma o Moscú". Beste alde batetik, kaputxinoek, Euskal Herriko -eta baita Espainia eta Europa osoko elizgizon guztiek bezala-, politikoki alderdietan baino sindikatuetan konfiantza gehiago zuten, oso kontuan baitzuten bere pentsamoldearen jarraitzaile asko eta asko nekazarietan zeudela.

Komunikabideei buruzko kaputxino eta bestelako erlijiosoen ideiak zehatz-mehatz ezagutzeko, aita Cultrera-ren idatzietara jo behar dugu. 1924an "Tolosa'ko zabaltzea" izenburupean (*La Croix de Dimanche* izeneko aldizkari erlijiosoak Frantziako Tolosa herrian lortutako zabalkundeari buruzkoak) kaputxino honen ideiak azaltzen dira. Urte hartan, Euskal Herriko aldizkari askok -haien artean *Zeruko Argia* bera eta *Argia* ere bai-

eredutzat zuten *La Croix de Dimanche* aldizkariak 30.000 harpidedun zituen Tolosako departamentuan. Cultrerak adierazten du nola lortu zuten hainbeste irakurle izatea. Horretarako, lehen helburuak emakumeak ziren, "aiek gizonak baño kartsuagoak, gizonak baño sinismen aundiagokoak ta toki batzuetan apaizen orde z etxeetara ikusaldiak egitera joateko añako kemen izan zuten" (*Zeruko Argia*, 1924ko urtarrila, 61. zenbakia, 205. orrialdea).

Aldi berean, aldizkariako arduradunek banatzaile berriak prestatu zituzten hitzaldi batzuen bidez. Hona hemen, gure ustez, Euskal Herrian aplikagarrien suerta zitekeen puntua: emakume eta umeen garrantzia, aldizkari katolikoak, eta gure kasuan, euskarazkoak, zabaltzeko. Erraz ulertzen da umeen garrantzia, euskaraz alfabetatu gabe zegoen gizartean, haiek baitziren euskaraz hobekien irakur zezaketenak. Euskara eta Fedea elkarrekin estuki lotuta egonik, horrela bi xede betetzen ziren: kristautasuna eta hizkuntza zabaltzea. Emakumeen zereginak ere pisuzkoa izan behar zuen, katolikotasuna zabaltzeko, ondo dakigunez beraiengan apaizek jokabide eraginkorra egin baitzuten. Euskal Herrian emakumearen garrantzia handia izan da beti, gizarte tradizionalan behintzat. Gizarte industrializatu berrian -gogora dezagun nola Sabino Aranak eta bere jarraitzaileek, nahiz eta gizarte horren barne egon, industrializazioaren aurka azaldu ziren- emakumearen zeregina guztiz ezberdina bihurtzeko arriskua zegoen, eta elizgizonak ere ondo ikusi zuten. Hortik katolikotasunak eman zien garrantzia, ez ordura arte nahiko pasiboa, aktiboa baino, Cultrerak aipatzen duen adibideak lekuko. Abertzaletasunak ere emakumeari bere betebeharra eman zion mikrogizarte abertzalean, Emakume Abertzale Batza asmo horiek gauzatzen zituelarik. Batzaren atzean apaiz bat, Policarpo de Larrañaga, Errepublikan sindikalismo abertzalea ere pizteko ahaleginetan nabariena, bazegoen.

1.1.3. Aranzazu

1921ean argitaratzen ziren euskal aldizkariak beste bat, elebiduna, erantsi zitzaion: *Aranzazu*. 1919tik beste aldizkari erlijioso bat agertzen zen Donostian, *Junior. Organo de la Federación Vasco-Navarra de Congregaciones Marianas*, euskaraz zatitxoren bat ekartzen zuena, eta denboraren poderioz euskarazko gehigarri bat kaleratuko zuena, *Gure Mutillak*.

Aranzazu hango frantziskotarren aldizkaria zen. Hilabetekaria, *Zeruko Argia* bezala, taxuera erdikoa zen eta irudiak bazekartzan. Frantziskotarrek bazuten aldizkari bat, ordenuaren barrukoa: *Irugarrengo Frantziskotarra*. Kaputxinoen kasuan bezala, aldizkari berriak beste kontzeptu bat dakar: guztiontzako komunikabide bat izateko gogoia, hain zuzen ere. Azken batean, pentsatzen zuten frantziskotarrek, bere ordenuaren ezaugarriak ederki egokitzen ziren Euskal Herriaren nortasunarekin.

Aranzazu euskaraz eta erdaraz idatzia zen. Arantzazuko Birjinaren mirariak eta Hirugarren Ordenuko araudia eta ezaugarriak dira gehien agertzen diren gaiak. Euskaldunentzako irakurgaiak ere agertzen dira, ipuinak adibidez, eta santuen bizitzak. Noizbehinka Ameriketako berriak eta olerkiak ere agertzen ziren.

1930ean han-hemenka azaltzen ziren euskarazko testuak atal bakar batean bildu ziren, "Euskal atala" izenekoan hain zuzen ere. Bizpahiru orrialde izaten ziren -aldizkariak 30 bat orrialde izaten zituen- gauza erlijiosoekin be-teak. *Zeruko Argia* bezala, *Aranzazu* ez zen politikan sartu.

Irakaskuntza, erlijioa eta euskara izango ziren, hain zuzen ere, Errepublika garaiko euskarazko aldizkari erlijiosorik garrantzitsuenaren ardatzak: *Ekinez* ari gara, *Jaungoiko-Zaleren* ondorengoa.

1.2. Aldizkari erlijiosoak Errepublikan

1.2.1. Aldizkari berriak

Primo de Riveraren diktaduraren lehen urteetan, 1924an zehazki, beste aldizkari elebidun bat kaleratzen hasi zen, *Ecos de San Felicísimo*, Bizkaiko pasionistek zuzendutako hilabetekaria. Dakigunez, Gipuzkoan eta batez ere Bizkaian zabaltzen zen. 152 zenbaki ezagutzen ditugu, azkena 1936ko abuztukoa. Euskaraz %15 zeukan gutxi gorabehera. Raimundo de San Miguel zuzendari zutela, euskal idazleek bizkaieraz eta gipuzkeraz idazten zuten. Aldizkaria erlijioso zen, pasionisten gauzez bakarrik arduratzen zen.

Donostiako luistarrek, esan bezala, 1919tik *Junior* kaleratzen zuten, han-hemenka euskarazko artikuluren bat bazekarrena. Hala ere, 1927an hasiera eman zioten euskara hutsezko beste aldizkari bati, *Gure Mutillak* izenekoari alegia. Egia esan, izatez *Junior*ren euskarazko gehigarria zen. Egunkari tankerakoa, bost zutabetan banatua, formatu handikoa, gazteentzako aldizkari bat zen. Ez zuen beraz lehenago ikusitako aldizkari erlijioso soilen antz handirik.

*Gure Mutillak*en lau orrialdeetan euskara hutsez idazten zuten. Idazle gutxiren izena iritsi zaigu, baina badakigu haien artean Jokin Zaitegi bazegoela. Luistarren aldizkari honek bazituen harreman handiak Gizarte Ikas-Batzekin, AVASCI lotuta zeudenak.

Zer esanik ez, Gizarte Ikas-Batzak klase sindikatuen aurka sortutako antolakuntza batzuk ziren, Elizaren sindikalismo katolikoa zabaltzeko tresnak. Gizarte Ikas-Batza hauek izen berdineko aldizkari bat kaleratu zuten 1934an eta 1935ean, euskara hutsez. Hilabetekaria, ekonomia eta sindikalismoaz aritzeko sortua zen. Beste gai askoren artean, hona hemen aipagarrienetarikoa batzuk: Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomia, marxismoa, Arabako nekazarien arazoak, "domua eta domukera" (kapitala eta kapitalismoa), kooperatibismoa, langintza elkarteak... Eredu bat zeukaten, Belgikako sindikatuak.

Primo de Riveraren diktadurapean, lehenagoko ikastolak mututu egin ziren. Errepublikan ez zuten legezko trabarik izan, beren bizitza erraza ez bazen ere (batez ere ikastola gehienek zuten kutsu erlijiosoarengatik hain zuzen), eta horrek agerian utzi zituen Madrileko agintari eta euskaldunen borrokak hezkuntzari dagokionez, garaiko euskal aldizkariak lekuko eta bozeramale. Ikastola batek bere aldizkaritxo ere kaleratu zuen 1930ean eta 1931n: Donostiako Koruko Andre Mariaren Ikastetxeak hamabostekari bat kaleratu zuen, argazkiak eta guzti. Euskara hutsezkoa noski, *Kristau Ikasbidea* izenburu ezin adierazgarriagoa zuen aldizkari hau sortua zen "argi, garbi ta itz gutxitan erakusteko zeruko bidea euskaldun Kristauai".

1.2.2. Zornotzako aldizkariak: Karmen'go Argia eta Arrati'ko Deya

Aldizkari erlijioso inportanteenak Zornotzan egin ziren. Han, *Jaungoiko-Zale* aldizkaria ez ezik, izen berdineko elkartearen inprimategitik beste bi aldizkari ere argitara eman ziren: *Karmen'go Argia* eta *Arrati'ko Deya*. Lehenengoa, "karmeldarren illeroko aldizkaria", Aita Doroteo, Aita Martin Uriarte eta Pi Abaren zuzendaritzapean agertu zen Gerra arte. Beste ordenuen antzera (frantziskotarrak, jesuitak eta kaputxinoak) karmeldarrek ere beren aldizkaria atera nahi izan zuten. Beste ordenuen aldizkariak bezalakoa zen, formatu txikikoa, irudi eta argazkiez hornitua, eta mami erlijiosokoa. Euskara hutsezkoa.

Guretzat askoz interesagarriagoa da aipatu bigarrena, *Arrati'ko Deya*, bizitza laburrekoa bazen ere. 1931n sortu zen apaiz baten kemenez, Eulogio Gorostiaga zeanuriarraren bultzadaz. Jaungoiko-Zaleren inprimategian egina, bulegoa Areatzan zegoen. Badakigu 1931n eta 1932an argitaratu zela, bere sortzailea hil arte alegia, baina oso ale gutxi ezagutzen ditugu. Nahiz eta, dirudienez, zabalkunde murrizta izan -aldizkarian bertan esaten denez, Bilboko Euzko Gaztedian saltzen zen, eta, Arratiari buruzko aldizkari izanik, pentsatzekoa da zonalde honetan bakarrik irakurtzen zela- garrantzitsutzat jotzen dugu arrazoi batengatik: informazio lokala, herri edo zonalde txiki bateko berriak bakarrik ematen dituen aldizkaria baitzen. Lehenagoko aldizkari-egunkarietan, euskara hutsezko nahiz elebidunetan, agertutako

Euskal Erriko berriak izeneko atalak aldizkari bihurtzea posible zela erakusten baitigu. Zehazki, argi dago *Euzkadi* egunkarian egunero agertzen zen euskal ataleko berri lokalak egiten zituztenetako batzuek zonalde baterako aldizkari bat argitaratzeko aukera ikusi zutela. *Arrati'ko Deya*, *Jaungoikoa eta Lagi-Zarra* lemapean kaleratzen zena, politikoa eta erlijiosoa bazen, baina, gauza guztien gainetik, informatiboa. Beste aldizkari batzuen egituraren ezaugarri gehienak errespetatzen zituen, *Argiarenak* alegia: "Lugintza-gayak", "Erlejiño-gayak", "Soziologi edo gizastizti gayak" eta "Izparrak" (Areatza Billaro, Zeanuri, Arantzazu, Galdakao eta Bediakoak) ziren bere bederatzir orrialdeetan agertzen ziren atalak. Apalak baziren ere, bazeuden bi adar edo eredu informatibo nagusiak elkartzeko ahaleginak, bata bizkaitarra (eta bizkaierazkoa) eta bestea gipuzkoarra (eta gipuzkerazkoa, noski), *Euzkadi* eta *Argiarenak*, hain zuzen ere.

1.2.3. Gasteizko aldizkari erlijiosoak

Zornotzako Jaungoiko-Zale Bazkunak kaleratutako *Jaungoiko-Zale* eta bere jarraitzailea *Ekin* aldizkariari buruz aritu baino lehenago, eta Hego Euskal Herriko aldizkari erlijiosoen errolda ahalik eta osoena egiteko asmoz, goazen orain Gasteizera, han argitaratzen baitziren *Gymnasium* eta *Gure Mixiolaria*, bigarren hau *Aitzolen* ardurapean. *Gymnasiumi* dagokionez, bihilabetekaria zen. Gasteizko seminaristek argitaratu ekin zioten 1927an, %10 gutxi gorabehera euskaraz.

Hala ere, *Gymnasium* ondorengo *Idearium* aldizkarian euskarazko tes-tuak oso eskasak dira. *Gymnasium* ikasleen aldizkaria zen, eta *Idearium* aldiz irakasleena, *Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa* izan nahi omen zuena. Agian horregatik, goi mailako gaietz aritzeko euskara egokia ez zelakoan, irakasleek (Joxemiel Barandiaran, J. de Goicoecheaundia, Juan Thalamas Labandibar, Alberto Onaindia, Joaquín Azpiazu, Bernardino García de Albéniz besteak beste) erdaraz idatzi zuten, horietako asko euskaldunak baziren ere. Egia esan, euskaraz artikulu bat baino ez dugu aurkitu, 1934ko maiatza-ekaineko alean agertzen den sei orrialdeetako testu bat, B.L. ezezagunaren "Apologetika apurrak" izenekoa, gipuzkeraz.

1.2.4. Ekin

Gatozen orain atal honen ardatza den aldizkarira, Zornotzako *Ekinera* alegia. *Jaungoiko-Zalek* hasieratik zeuzkan printzipio eta gaiak lantzen jarraitu zuen, 20ko hamarkadan hezkuntzari buruzko kezka nabaria da: umeak eta kristau-ikasbidea elkarrekin lotuta daude. Hamarkada horretan -eta hurrengoan, jakina- euskaltzaleak konturatu ziren euskararen iraupenerako

komunikabideek zuten garrantziaz. Hamarkada hartan hasi baitziren mutil euskaldunak alfabetatzen, irakurlego berri eta prestu bat sortzen ari zen alegia. Gizarte moderno horretan komunikabide modernoek *-mass-media* izendatu ditzakegunak- beren lekua bazuten. Euskara munduan zebiltzanak -elizgizon asko eta asko haien artean- ezin ziren atzeratu.

Hezkuntza eta komunikabideak haien kezka baziren, euskara ere Zornotzako aldizkarian maiz errepikatzen gaia da. Behin betirako jarrerarik hartu gabe, badirudi batasun aldekoak zirela, behintzat idazkera batzearen aldekoak. Bizkaieraren alde-aldekoak baziren ere, ez ziren aranista batzuen gehiegikerietan inolaz ere erori. Zornotzakoak, ahalik eta irakurle gehienek konpreni ahal zezaten edo, hizkera oso orekatu batez idazten zuten, agian *Argiaren* gipuzkerazko ereduarekin pareka daitekeena. 1927an Gabriel Manterolak aitortzen du: "*Kirikiñok* eta nik be izan dogu iñoiz gora-beratxu bat, berak gauza bat alan dala uste ta nik olan dala uste izanetik sorturikoa". Hala ere, harreman onak bazituztela azpimarratzen du *Gamak*, euskararenganako maitasunak elkartzen baitzituen. *Ekin* aldizkariaren bultzatzaile nagusia Gabriel Manterola izan zen; izan ere, berak *Niké* goitizenaren erabili zuen askotan, grekerazko garaipena eta "ekin" hitza alderantziz irakurria.



Ekin

Euskara, erlijioa eta hezkuntza erlijioso eta euskaldunaren defentsarekin batera, *Jaungoiko-Zalere* beste ardatza 20ko eta 30eko hamarkadetan sindikalismoa dugu. 1928an, aldizkarian bertan agertutako ikerketa baten arabera, Euskal Herriko langile gehienak Unión General de Trabajadores sindikatuaren zeuden (31.006), afiliatutako guztiak 68.000 inguru izanik. Sindikatu katolikoetan eta Euzko Langillien Alkartasunean 11.218 eta 10.832 zeuden. Komunistak 13.108 ziren. Besteak "Bizipidedunen Bazkun Azkiak" edo Sindicatos Libres Profesionaletan 1.713 zeuden. Hau da, Euskal Herriko langile gehienak ezkerreko sindikatuaren zeuden (44.114, zehazki),

eta honen erdia baino gehixeago Elizaren aldeko sindikatuetan (23.768). 1931n Jaungoiko Zale Bazkunak 937 bazkide zituen, 384 apaiz eta 55 laiko. 736 bazkide bizkaitarrak ziren.

Zornotzako abadeek jarrera gogorra hartzea erabaki zuen. Horrekin Eliza Katolikoaren erabakia onartu egiten zuten. Beren doktrina 1891n aita santu Leon XIII.aren *Rerum Novarum* Enziklikaren mamia buru belarriko aplikazioa besterik ez zen.

Errepublika helduta, Bazkunakoen jarrera gero eta gogorrago bilakatzen da erlijio, hezkuntza eta sindikalismoari dagokionez. Hezkuntzari dagokionez, itxaropena Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako auzo-eskoletan jartzen dute. Kristau-ikasbidea ezin garrantzitsuagoa dela behin eta berriro errepikatzen dute, eta dotrina ondo irakasteko umeak bere-berea duen hizkuntzaz egin behar zela ere bai: ikastola kristau eta euskaldun bat ezinbestekoa zen euren ustez, eta noski, 1931n Errepublikako Parlamentuak onartzen duen hezkuntzari buruzko lege berriak euren interesetarako ekar zitzakeen arazo eta iskanbilak oso kontuan hartzen zituzten, aita santu Leon XIII.aren, Pio IX.aren eta Pio XI.aren hitzak gogoratuz.

Honen ondorioz, Jaungoiko-Zale Bazkunak erabaki zuen 1931n *Jaungoiko-Zale* bere aldizkari nagusia *Ekin* izeneko astekaria bihurtuta -artean beste hiru argitaratzen zituzten, *Eleiz-Orria* hilean behin, hogei herritan banatzen zena; *Zeruko izpitxoak*, Mariaren alabeentzako hilabetekari bat; eta *Gastien Laguna*, mutilen artean banatzen zena-, Errepublika garaiko Euskal Herriko kazetagintzan erlijioa, euskara, ikastolak eta sindikalismo katolikoak hobeto defendatzeko. Jaungoiko-Zale Bazkunaren pentsamolde-oinarri haien teorikoak Gabriel Manterola bera (Ramon Ertzerekin *Ekin* zuzentzen zuena) eta Juan Bautista Eguzkitza ziren, lehenengo orrialdeko "Astea" atalean (*Argian* agertzen zenaren antzekoa) eta erdiko testu handian batez ere.

Lehenengo zenbakia otsailaren 6an agertu zen. Bertan agertzen dira bizi ahal izateko saldu behar zuten kopurua: 2.500 ale astero. Hala ere, Jaungoiko-Zaleko bazkideak mila ziren. Lehenengo zenbaki haietan argi eta garbi utzi zuten nortzuk osatzen zuten beren irakurle goa: "*Asteroko au batez be baserritarrentzat egiten da-ta, zuek, baserritarrok, beste inok baño obeto aitu ta ulertu bear zeunkie*" (*Ekin*, 1932ko otsailak 20, 3. zenbakia). Hitz hauek *Argian* hamarkada bat lehenago idatziak gogora ekartzen dizkigute. Baita nekazari eta baserritarrek ondo irakurtzeko zuten zailtasunak ere, irakurtzeko ohitura hartzen hasten direnak.

Euskaldunak irakurtzen zaletzea zen beren helbururik nagusienetariko bat. Erlijioa Errepublikako Gobernuaren erasoetatik defendatzea zuten xede nagusia, noski. Garai honetan, Jaungoiko-Zalekoak abertzaletasunaren alde jarri ziren. Polarizazio politikoa nabarmendu zen Errepublikan, eta *Ekin*, Eliza Katolikoaren orduko jarrera eta pentsamoldeari jarraituz, politikan sartu zen.

Ekinen gertatzen da *Argian* ere gertatutakoa: 20ko hamarkadan politika eta bereziki alderdietatik aparte mantendu baziren ere, Errepublikan E.A.J. eta bere inguruko mikrogizarte abertzalera hurbildu ziren. Bizkaiko eta Gipuzkoako bi aldizkariak ez ziren jeltzaleak, hau da, Euzko Alderdi Jeltzalea ez zen beren jabea, baina politikoki, dudarik gabe, aldekoak ziren. Apaiz euskaldunak, Errepublika garaian sortutako polarizazio politikoa, Sabino Aranaren alderdiaren ideologia eta estrategiarekin bat etorri ziren, eta elizgizon haien bozeramaleak ere eskumako abertzaletasunaren bozeramale bihurtu ziren -hau da, beste alderdi abertzalea (A.N.V.) ez bezala, E.A.J.ren abertzaletasun konfesionalarena-, batez ere hauteskundeetan. Jarrera horretan Jose Ariztimuño *Aitzol* eta Euskaltzaleak elkartearen inguruan sortutako apaiz propagandisten eragina nabaria da. Haren guztiaren atzean, noski, erlijioaren eta erlijioan oinarrituriko gizarte-eredu tradizionalistaren defentsa zegoen.

Ekinekoak Estatutuaren alde ageri ziren: "Estatuto alde, erlijio alde", horixe zen beren lema. Abertzaletasunerantzako joera adierazteko, arrazoi erlijiosoak ez ziren falta, edo behintzat, Eliza Katolikoaren doktrinan oinarriturikoak. Pio XI. Aita Santuaren *Ubi Arcano* entziklikatik ateratako pasarteak baliabide ideologiko bihurtu zen Jaungoiko-Zale Bazkunakoentzat. Baita Leon XIII.ak 1901eko abuztuaren 20an Bohemiako gotzainei bidalitako gutunean aurkitu zituzten beren argudioak. Borroka politikoa -abertzaletasunaren alde, ezkertiarren eta batez ere sozialisten kontra-borroka sindikalarekin osatu zen. Sozialismoa, apaiz euskaldunaren ikuspuntutik adierazia, eta sindikalismoarekiko Elizaren jarrera ezin hobeto azaldu zuen Juan Bautista Eguzkitzak, gehienetan *Erri* edo *Errizale* ezizenak erabiltzen zituen. Astero artikulua handixe bat idazten zuen, eta *Ekinen* argitaratutako testu guztiekin liburu bat osatu zuten, *Gizarte-auzia. Ugazabata langille arteko gora-berak*, 1935ean kaleratua eta 1990ean berrargitaratua Andres Urrutiaren hitzurre batekin. Bertan agertzen dituen azterketekin bat gatoz Urrutiarekin: Eguzkitza -eta Jaungoiko-Zalekoak- E.L.A. eta A.V.A.S.C.etik hurbil sentitzen ziren, *Rerum Novarum* entziklikan

oinarrituak -lehenago ikusi bezala- jabetza pribatua onartuz sindikalismo ezkertiarren kontra jokatzeko baitzuten. Gabriel Manterola ere pentsamolde "solidario"aren bozeramale bihurtu zen. Euzko Langilleen Alkartasuna (lehenago Euzko Langille Batza) Euskal Herrian Eliza Katolikoaren doktrinara gehien hurbiltzen zen sindikatua zen, apaiz euskaldunen atxikimendua erakartzeko egokiena. E.L.A.k 40.000 langile paseak biltzen zituen.

Errepublikak ekarri zuen polarizazio eta erradikalizazio-prozesu politikoa zela eta, Zornotzako apaizen Bazkunak argitaratutako astekariak Bizkaian *Argiak* Gipuzkoan egin zuen jokabidea garatu zuen: baserritarrentzako aldizkaria, Eliza Katolikoaren pentsamoldean ondo sustraituta, Jaungoiko-Zalekoak "euskaldun-fededun" axiomatik batera aldenitu gabe, bere pentsamoldearen iraupenerako behar zuen baliabideen bila joan ziren, beren jarrera ideologikoa non zegoen ezin argiago utziz: "gizartekeri" edo sindikalismo ezkertiarretik, Errepublikatik urrun, eta abertzaletasunera gero eta gehiago hurbilduz, mikrogizarte abertzalearen parte eta bere proiektuaren zati bihurtu arte, Aristimuño, Larrañaga, Onaindiaren eta beste "apaiz propagandista" edo "solidario"en bidetik ibiliz.

Azken alea 1936ko uztailaren 18koa da, hain zuzen ere. Guztira, 211 ale.

Prentsa abertzalea (1919-1936)

1. ALDIZKARI INFORMATIBOAK: *EUZKADI* ETA *EUZKO*

1.1. *Euzkadi* egunkaria. *Kirikiñoren* garaia (1919-1929)

1919. urteaz geroztik eta Diktaduraren garai ilunetan, *Euzkadiren* euskarazko atalak, Ebaristo Bustintzaren eskutik, momenturik onenak bizi zituen. Bustintza, langile nekazina, atalari forma eman zion. Bere jarrera ere finkatu egin zen: Euskaltzaindia sortuta, Bustintzak bere iritzi sabindarrak tinko mantendu zituen, eta, nahiz eta Euskaltzaindiaren sortzaileek eskatu, ez zen Akademian sartu. 1919an Gregorio Mujikarekin eztabaida sutsua izan zuen.

He aquí que yo, como vasco, que amo nuestra lengua como el que más, y creo que con más fundamento que varios de los académicos pertenecientes a la citada Academia, ni puedo, ni debo hacer voto de obediencia a las decisiones de dicha entidad [...]. No hemos tenido, ni tenemos más que un maestro: Sabino. Convencidos plenamente por él, seguimos rectamente el camino que en euzkeralogía nos trazó. Esa escuela sabiniana es para nosotros la única verdadera, mientras no nos convenzan de lo contrario. A ella nos debemos y a ella nos atenemos. Para ella sólo, que es la verdad, será nuestra obediencia (*Euzkadi*, 1919ko urriak 2, 2.340 zenbakia).

Argiaren sorrerak izugarrizko eragina izan zuen Bustintzarengan. Nolabait, bere gogoen isla zen astekari hura, euskara hutsezko astekaria, Azkueren aldizkariaren bidetik abiatu zena, egituraren aldetik batez ere: astekari bat, egunkari itxurarekin, euskara hutsez, neurri handi batean informatiboa... 1928an, hil baino urtebete lehenago, Bustintzak hala zioen: "Zenbat bidar esan eta entzun ete da, emen Bizkaian be euskeraz bakarrik egindako izparringi asteroko bat bear

geunkela, Gipuzkoan Argia dauken lez! [...]. Orra ba, emen olako izparringia atarateko eragozpen asko ta andiak azpiratu bear dira. Ia-ia ezintzat euki lei izparringi-atarate ori, ain andiak eta ugariak dira eragozpenok". Abertzale jeltzaleek Bustintzaren ametsa gauzatu zuten urte batzuk geroago: *Euzko*.

Bitartean, *Kirikiñok* gogor jarraitu zuen lanean. Euskadiko berri informatiboen atala, batez ere, finkatu zuen Bustintzak. Esan bezala, Ebaristo Bustintza 1929an hil zen.

1.2. *Orixeren* garaia *Euzkadi* egunkarian (1929-1931)

30eko hamarkada izen berri batzuen garaia da: *Orixe*, *Lizardi*, *Lauaxeta*... Nikolas Ormaetxea eta Esteban Urkiaga *Euzkadiren* euskal atalaren arduradun bihurtu ziren. Bigarrenak beste zenbait proiektu informatibo euskaldunetan ere parte aktibo hartu zuen.

Euzkadin sartu zenean, 1927an, *Orixe* ez zen jesuita. 1923an Lagundia utzi eta Bilbora joan zen, jeltzaleekin harremanak sendotu zituen. Ormaetxeak, 1888an Orexan jaioa, kazetari-lan batzuk egin zituen, jesuiten *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkarian. 1927an *Euzkadin* hasi zen idazten, erdaraz batez ere, euskarari eta literaturari buruz. 1929an, Bustintza hil ondoren, egunkari jeltzalearen euskal atalaren arduradun bihurtu zen. Euskarazko atalaren mamia mantendu zuen Ormaetxeak, baina aurrerapen bat nabaritzen da: euskal kultura, eta bereziki euskarazko literaturaren bide berriek bere lekua aurkitzen dute *Euzkadiren* orrialdeetan. Gehienetan, eztabaidak erdarazkoak ziren, euskarari buruz izan arren. Bertan, Ormaetxearekin batera, parte hartzen dute *Lizardik*, *Lauaxetak*, *Aitzolek*... Ormaetxeak berak kritika literario asko eta asko egin zituen, nolabait bere irizpideak finkatuz. Abertzale-jeltzaletasunarekin lotuta agertzen zen euskal berriaren izenak, azken finean.



Nikolas Ormaetxea *Orixek*

Orixek beste berritze bat sartu zuen *Euzkadiren* euskal atalean, aldatze erlijiosoan: egunero agertzen zen "Egunekua" ataltxoa -*Kirikiñoren* iruzkina-desagertu eta "Euzkeraz: Gaurko ebanjelioa" azaldu zen. Ataltxoa desagertuko da berriro Esteban Urkiagak euskarazko atala bere gain hartu zuenean.

Orexarra Bustintza baino maila altuagoan zebilen. Bazirudien Nikolas Ormaetxeak literaturaz eta mistikaz kezkatuago zegoela, kazetaritzaz baino. Luis Villasantek dioenez, "de carácter un poco intemperante, poco o nada ducho para resolver los problemas prácticos de la vida, Orixek mantuvo una fidelidad nunca desmentida a su fe religiosa y a su vocación literaria vasca" (Villasante, 1979: 418). 1931n, Errepublika heldutakoan, Orexa bere jaioterrira joan zen, *Euskaldunak* bere poema eskerga idaztera. Esan daiteke beldurrik gabe Nikolas Ormaetxeak oso aztarna gutxi utzi zuela euskal kazetaritzan, bere izaera ez baitzen eguneroko informazioak ezartzen duen praktikotasunera egokitua. Hala ere, frankismo garaian, *Lizardi* eta *Lauaxeta* hilda, lehenago Bustintzak bete zuen lekua, jeltzaleen artean, hartu zuen *Orixek*.

1.3. *Lauaxetaren garaia Euzkadi egunkarian (1931-1936)*

1931n, beraz, Esteban Urkiagak bere gain hartu zuen euskarazko lana *Euzkadin*. 1905ean Laukinizen jaioa, Esteban Urkiaga, Nikolas Ormaetxea bezala, jesuita izan zen. Lagundia 1928an utzi zuen, eta orduan Bilbora joan zen, *Euzkadin* lan egitera. Bustintza zendu zenean, *Orixerekin* batera lanean ihardun zuen euskal atalean. Orexarrak utzi zuenean, *Lauaxeta* arduratu zen euskal atalaren zuzendaritzaz.

Urkiagaren lana oso garrantzitsua izan zen. Bere bi aitzindarien emaitzak nolabait bildu eta borobildu zituen. Alde batetik, Bustintzaren lan informatiboa osatu zuen, berriemaileen sarea sendotuz. Beste alde batetik, *Orixeren* "Gaurko ebanjelioa" atala kendu (nahiz eta Urkiaga ere erlijiosoa izan), eta mami literarioa mantendu egin zuen, baina euskaraz. Maila ere ez zen hain elitista: kritikekin batera, *Lauaxetak* poemak, ipuinak, kantak eta denetariko testu literarioak sartu zituen. *Kirikiñok* bezala, iruzkin edo komentarioak argitaratzen zituen, denetarikoak. Politikoak ere ez ziren falta. Esteban Urkiaga, Gerran ikusiko zenez, alderdiarekin oso konektatuta zegoen. Bere lana, hasieran Ormaetxearen agindupean olerkiak itzultzea eta literaturazko artikuluak idaztea bazen, euskal atalaren ardura hartu zuenean, "Azalpenak" atala (denetariko iruzkinak) idazten hasi zen. 1933an euskarazko saioak ugaritu egin zituen: "Azalpenak", "Temas vascos", "Egunekua".



Esteban Urkiaga *Lauaxeta*

Hori iruzkinei dagokienez. Berriei dagokienez, Jon Kortazarrek azpimarratzen duenez, "albista edo barri txikiok ez dira izaten nahi ta nahi ez, iritzizko artikulua. Gertatu izan danarekin, aktualitatearekin lotura estuagoa izaten dabe, eta inoiz Atletiren partiduen berri ere emoten dauskue" (Kortazar, 1985: 12). Hori dena olerkigintza utzi gabe. Hori bai, bere izenpea desagertzen da *Euzkadiren* orrialdeetatik.

Esteban Urkiagaren lana isilpekoa izango da -horren berri batzuk ikusiko ditugu *Euzkoren* edo *Egunaren* kasuetan- baina oro eraginkorra, oso praktikoa. Bazirudien euskarazko egunkari baterako pausuak ematen ari zela laukiniztarra, pausu zuhur baino ziurrak. *Euzkadiren* euskal atalen egiturak gero eta egunkari baten itxura handiagoa zirudien: berriak, kultura, iruzkinak, iritzizko artikulua... Euskarazko egunkariaren proiektuak porrot eginda -proiektu hura, gogora dezagun, batez ere Gipuzkoan sortu zen, *Argiaren* inguruan- jeltzaleak, *Lauaxetaren* bitartez, beren urratsak egiten hasi ziren. Eta lehenengo pausua *Argia* bezalako astekari bat, abertzalea eta bizkaierazkoa, sortzea izan zen.

1.4. *Euzko* (1932-1934)

1932ko erdialdean abertzaleek *Eguna* kaleratu arte askogurarik handienarekin euskara hutsez egindako aldizkaria agertu zen: *Euzko*. Euskaldunon hizkuntzaz idatzitako lehenengo egunkari hark sortzeko asmoak porrot egin ondoren, badirudi *Euzko* izan zela Euzko Alderdi Jeltzalearen arduradunen erantzuna, edota, esan dezagun, etorkizunean euskarazko egunkaria ateratzeko urratsik sendoena, proba bat agian. Funtsean, *Egunari* buruzko atalean polikiago ikusiko dugun bezala, Gerra Zibilean sortu zen lehenengo euskal egunkari eta *Euzkoren* artean bazegoen antz handia, lehena zuzendaria bera -Manuel Ziarsolo *Abeletxe*- izanik.

Euzkoren garrantzia azpimarratu nahi genuke guk lan honetan. *Argiaren* kasuaren antzera, gaur egun *Euzko* ahaztuta samartuta dugu, Donostiako astekaria baino gehiago. Noski, *Euzkok* ez zuen lortu ez *Argiak* beste urte iraun, ez Donostiako aldizkariaren irakurlego handia ere. Baina oker egoteko beldurrik gabe esango dugu puntu askotan *Euzkoren* egileek *Argiaren* ereduari jarraitu ziotela, nolabait *Euzko* izan zela Errepublikan urte batzuk lehenago *Kirikikiñok* Bizkairako nahi zuen *Argiaren* bezalako euskal astekaria. Hala ere, *Euzkok* bazituen berezitasun batzuk, *Euzkadirekin* ezberdintasunak

ondo ezartzen zituztenak. Hitz batean esateko, jeltzaleen euskarazko astekari hura erdarazkoak baino erradikalagoa zen, E.A.J.koek, Euzko Gaztediaren bidez, euskara beren ideien erradikaltasuna aldarrikatzeko uzten baitzuten.

Badirudi Bizkai Buru Batzarrak berak zerikusi handia izan zuela *Euzkoren* jaiotze prozesuan (Reizabal, 1973: 31). Egunkari bat argitaratzea ezinezkoa iruditzen bide zitzaielarik, jeltzaleek haren ordeztu astekari bat kaleratzea erabaki zutelara uste dugu. Manuel Ziarsolo Gironella, 1902an Bilbon jaioa, gizon egokia zen horretarako, *Euzkadin*, *Ekinen*, *Euzkorean* eta garai hartako beste hainbat euskarazko aldizkaritan idazten trebatua, bazekien zer zen kazetaritza. Hala ere, badirudi hasieran *Euzkok* beste zuzendari bat izan zuela, Artibai (beste batzuen ustez, aldiz, lehen zuzendaria Jose de Ituarte izan zen).

Ez dakigu ziur zer jokabide izan zuen Estepan Urkiaga *Lauaxetak* *Euzkoren* sormenean, baina igar dezakegu bera ere hor zebilela. Urkiagak, beste euskal aldizkari batzuetan testu mordo bat argitaratua zeukana, hauetan ez bezala *Euzkon* agertuak politikoak dira. Ezin politikoagoak, erantsiko genuke. 1933ko hauteskundeetatik, Estepan Urkiagaren testuak ugaritu ziren. Esan daiteke *Euzkoren* pentsamoldea gauzatu egiten dela *Lauaxetaren* hitzetan. Badakigu, hori bai, Gerra garaiko *Eguna* eta *Gudari* sortzeko prozesuan izugarritzko garrantzia izan zuela Mungiako olerkariak, hau da, 1932. urtetik, gutxi gora-behera, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta bere inguruko euskal aldizkariak berak bultzatu zituen. Baina *Lauaxetaren* lana eraginkorra bezain ezkutua izan zenez, hipotesietan bakarrik gailbitza.

Euzkoren orrialdeetan beren testuak ezagutarazi zituzten idazleak ere ugari ziren. Gertatu ohi denez, gehienek ezizen batekin (edo gehiagorekin) sinatzen zuten. Horregatik, batzuk ezagutzen ditugu, beste batzuk ordea ezkutuan geratu zaizkigu. Ezagutzen ditugu Manuel Ziarsolo *Abeletxe*, Tomas Agirre *Barrenso* (beste aldizkari batzuetan ez bezala, ipuinak eta testu literarioak ez ezik *Euzkon* agertzen zen atalik politikoen eta konprometituenetariko batez, "Langilien arazuak" izenekoaz ere arduratzen zena), Kepa Amilgain, Ibon Uribitarte (Imanol Enebia), M. Andonegi, Bernardo Garro (geroago *Otxolua* goitizena hartuko zuena), Federiko Belaustegigoitia, Estepan Arantzadi, Jon Garmendia *Zeleta*, Inazio Eizmendi *Basarri* eta Estepan Urkiaga *Lauaxeta*.

Euskal aldizkaria izanik, euskarak leku bat, oso garrantzitsua, betetzen zuen. Euskara hutsez idatzia, bere eredu sabindarra zen: neologismoz jositako bizkaiera, Sabino Aranak proposatu idazkeraz izkribatua. *Euzkoren* euskara *-euzkerea*, berriro

Aranaren terminologia erabiliz- Euzkeltzale Bazkunarena zen, eta hau *Kirikiñorena*. Zer esanik ez, *Kirikiñoren* itzala nonahi agertzen zen. Euskararen eredia Bilboko Euzko Gaztediaren ikastoletan irakasten zena zen.

Euzkok 1934an kaleratzeari utzi zion. Garai hartako beste euskal aldizkarietan haren heriotzaren berri ematen zaigu. Nahiz eta iragarki ugari eduki, haren desagerepenaren arrazoia salmenta eskasak dira. Kopuru zehatza ez badakigu ere, badugu hori esateko arrazoirik, adibidez *Ogoñoperen* aitormena: "¿Zenbat Euzko euzkal-izparringi-aberrtzale saltzen dira Bilbao'ko 30.000 euskaldun artian? Berreun (200) baño ez, eta au lotsagarrijetan-be lotsagarrija da [...]" (1933/III/4, 32. zenbakia). Kontuan izanik *Euzko Bizkaian* ia bakarrik, Bilbon gehienbat, saltzen zela, eta Bizkaiko beste herrietara eramatea -are gehiago Gipuzkoako eta Arabako herrietara-garestia izan behar zela, beldurrik gabe esan dezakegu *Euzko* arazo ekonomikoengatik desagertu zela. Baina horrek ez du derrigorrez esan nahi porrot egingo zuenik; gure ustez, *Euzkok* zeregin garrantzitsu bat bete zuen, atal honen hasieran azaldua hain zuzen ere, Bizkaian (eta bizkaieraz) jeltzaleek euskara hutsez egindako informazio orokorreko aldizkari izan baitzen, eta euskara hutsezko egunkariaren (*Eguna* izango zena) eredia izateko meritua izan zuen.

2. KULTUR ALDIZKARIAK

2.2. *Euzko Deya* (1920-1923)

1919an *Euzko-Deya*, *Euzkeltzale-Bazkunak* ateratako euskara hutsezko aldizkaria, desagertu zen. Berriro agertu zen 1920an. Ordurako, dakigunez, Euskaltzaindia eratua zen. *Euskaltzale-Bazkunaren* jarrera, jarrera jeltzale eta sabindarra azken buruan, aurkakoa zen. *Kirikiño* gidari hartuta, bere jarrera ere berdina zelarik, E.A.J.ren euskara kontuetan aritzen zen elkarte edo bazkunarena ezin zen bestelakorik izan. Hizkuntz eredu aranista gero eta bereziago agertzen zen besteen eredutik. *Euzko-Deya* desagertu zen betirako Primo de Riveraren Diktadura iritsi zenean, 1923an. Beste bi aldizkari jeltzaleren berri eman zigun: *Getxotarra*, "Getxo'ko aberrtzale zolijak eginda" (1919) eta *Azkatasuna* 1921ean, "Gipuzkoa'ko aberrtzale gastiak laster argittalduko daben asterokua, euzkera utzez idatzitta". *Getxotarra* agertu omen zen, baina *Azkatasuna* ez dakigu argitaratu zen ala ez. Ez dugu haien alerik ezagutzen.

2.3. *Euzkerea* (1929-1936)

Hizkuntzari buruzko jarrera sabindarrak, *Euzko-Deya* desagertuta, indartu ziren Errepublikan, Ebaristo Bustintza hilda zegoelarik. Ideia aranisten bozeramalea *Euzkerea* aldizkaria izan zen. Izena -ez da kasualitatezko gauza- Euskaltzaindiaren aldizkariaren parekoa da (*Euskera*), hau da, hizkuntzaren izena baina Sabinok proposatutako idazkeraz idatzia. Lehenengo zenbakia 1929ko urtarrilaren 15ean agertu zen. Hilabetekaria, euskaraz eta erdaraz idatzia zen, erdibana. Lehenengo ale hartan Bustintzak ere idatzi zuen, eta berehalaxe hil. Izen ezagunak agertzen zaizkigu haren orrialdeetan: Bernardo Garro *Otxolua*, Kepa Enbeita, Zabala-Arana, Adolfo de Larrañaga, Juan Cruz de Oregi, Seber Altube, Kepa Oyarbide, Mikel Urrestarazu, Andima de Orueta, José Javier de Leguia, eta Esteban Urkiaga *Lauaxetak*, olerki batzuk argitaratu zituen. *Lizardik* ere olerki bat argitaratu zuen ("Urte giroak ene begietan") 1931n. Pizkundia argitaldaria kaleratzen zuen aldizkaria, eta baita euskaraz eta euskarari buruzko liburu batzuk ere: hala nola, *Euzkeltzale-Bazkunaren Método gradual para aprender el Euzkera*. *Euzkerean* jarrera sabindarra argi eta garbi azaltzen da: euskara da arrazaren sinboloa. Baina, aldi berean, euskara modernizatu egin behar da. Euzkeltzale-Bazkunaren liburu batean, *Sobre unificación de los dialectos*, agertzen da elkarte horren (eta azken batean Euzko Alderdi Jeltzalearena ere) euskarari buruzko irizpideak. Laburbilduz, hauexek:

Opinamos que lo más viable, por ahora, es la unificación de los dialectos por regiones.

Con excepción de dos sonidos, procede aceptar para todos los dialectos la fonética propuesta por Sabino.

Cuando para expresar una misma idea existan dos palabras, aprovéchense destinándolas a ideas sinónimas o derivadas.

Cada dialecto tiene su verbo conforme a su carácter. No cabe unificación sin atentar contra éste.

Es preciso purificar y regularizar el verbo en cada dialecto.

Liburu hartan ezin argiago azaltzen da zein zen jeltzaleen iritzia Errepublikaren atarian: "La luz del Nacionalismo hace que al Euzkera se le conceda en muchos órdenes de la vida una beligerancia que nunca se le concedió [...] que vaya elevándose de la categoría de simple idioma de aldeanos y pescadores a idioma de todos. Es innegable que el Euzkera avanza [...] hacia su europeización". 30eko hamarkadan hori izango da ez bakarrik *Euzkerearen* eta *Euzkeltzale-Bazkunaren* xedea, euskara munduan

ari ziren guztiena baino. Haien artean, José Ariztimuño *Aitzol* eta berak sortutako *Euskaltzaleak* taldea, hauek politikoak ez zirela aldarrikatzen bazuten ere eta euskara ez sabindarra onartuz. *Euzkerek*, dakigunez, harreman ezin hobeak mantendu zituen *Euskaltzaleakekin*.

Euzkerea Euskaltzaindiaren irizpideen aurka sortu zen. Ez hori bakarrik: haien teoriak beste euskaltzaleei aurre egiten zioten. Berehalaxe, bi jarrera oso desberdinak kontrajarrita zeuden.


2.4. *Aitzol, Euskaltzaleak eta Yakintza*

Hauxe zen aranista porrokatuen jarrera, eta E.A.J.ren jarrera paraofiziala ere. Baina, aipatu bezala, mikrogizarte abertzalean euskara modernitaterantzako urratsak ematen ari zen, eta beraz tresna moldakorrago bat behar zuen. Tresna hori *Euskaltzaleak* deitzen zen, euskararen aldeko lana egin zuena 30eko hamarkadan. Bere bultzagile nagusia José de Ariztimuño *Aitzol* izan zen. Modernitaterantzako urratsak emateak ez du esan nahi ondorengotza sabindarrarekin zerikusirik ez zuenik. Alderantziz, Elorzaren hitzak erabiliz, "*Aitzol* prolonga y consuma la evolución de las ideas sabinianas, adecuándolas a un período en el que el desarrollo del movimiento nacionalista permite eliminar insuficiencias y desajustes entre los distintos niveles de la ideología" (Elorza, 1978: 315). Ariztimuñoen lana, beste apaiz batzuekin batera (Alberto Onaindia, Policarpo de Larrañaga) alde batzuetan egin zen: kulturaren, sindikalismoan, eta baita kazetagintzan ere. *Euskaltzaleak*, nahiz eta politikoak ez zirela aldarrikatu, egitasmo abertzale (jeltzale)aren barruan zeuden. Euskarari dagokionez, Elorzak dioenez, "la difusión cuantitativa del euskera resulta el problema esencial, por encima de su cultivo a nivel de élite" (Elorza, 1978: 315). *Aitzolen* eta *Euskaltzaleaken* lana, Elorzaren ustez, bi planotan mugitzen da: alde batetik, planu herrikoian, denentzako kultura hedatu nahi omen zuten; eta beste aldetik, plano elitistan, denentzako ahalegin horiek espezialista eta jakitunek zuzendu behar baitzuten.

Euskaltzaleak ekintza asko sortu zituen: lehenengoa 1927ko Euskeraren Eguna izan zen, Arrasaten. Hor sortu zen elkarte bera. Gero euskara hutsezko egunkariaren aldeko kanpaina ekin zioten, ikusi dugun bezala. 1931n berreuskalduntzearen aldeko kanpaina bati ekin zioten. Elebitasunari

buruzko kongresu bat antolatu zuten urte hartan Bilbon, bertan 500 bat irakaslek parte hartu zutelarik. 1930ean Euskal Olerkiaren Eguna antolatu zuten Erreterian. 1934an Euskal Antzerkiaren eguna antolatu zen, eta 1935ean Bertsolarien Eguna.

Kazetaritzari dagokionez ere, *Euskaltzaleak* (hor *Lizardi* ere bazegoen) aktiboak izan ziren. Aipatu dugu euskara hutsezko egunkariaren egitasmoa. Euskal egunkaria gauzatu ez genez, Donostiako *El Día* sortu zen, eta bertan *Aitzolek* oso lan garrantzitsua egin zuen, ideologo lana azken batean, batez ere erdaraz garatu zuena (dakigunez, euskal atalaren arduraduna Ander Artzeluz zen). 1931tik elkarteak bere buletina ateratzen zuen, *Euskaltzaleen-Deia*. Paper onean egina, bertan *Euskaltzaleaken* bazkideen gorakadaren berri ematen digute: 1930ean, elkarte formalki eratu zenean, 178 bazkide ziren. 1931n, berriz, 2.060. Gehienak Bilbon eta Donostian zeuden. Bestela, gipuzkoarren nagusitasuna, kopuruaren aldetik behintzat, argi zegoen (*Euskaltzaleen-Deia*, 1. zenbakia, 4. orrialdea).



Euskaltzaleak elkartearen hedapena, 1930ean

Euskaltzaleaken aldizkaria eta kazetaritza arloko emaitza nagusia *Yakintza* izan zen. Nolabait, abertzaletasun jeltzalearen kultur aldizkari zientifikoena izan zen. Erdaraz eta euskaraz, historiari, soziologiaz, literaturaz, hezkuntzaz ari zen aldizkari hori. "Su actividad", zioen Ariztimuñok, "irá encauzada únicamente a aquellas disciplinas que tiendan a

enriquecer la espiritualidad colectiva de Euskalerrria. Sólo escoge aquellas manifestaciones que más directa y estrechamente se refieren al alma racial" (*Yakintza*, 1933ko urtarrila-otsaila, 1. zenbakia, 11. orrialdea). Jose Ariztimuñorentzat, ez dugu ahaztu behar, hizkuntza arrazaren ezaugarri eta euskarri nagusia da, tradizio sabindarrari jarraituz. Ariztimuñok zuzendua, idazkaria José de Arceche zen. *Euskal Erria* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkariaren tradizioari jarraitzen zion, *Aitzolen* hitzetan. Lehenengoa azalekoa bazen, folklozez eta literaturazkoa, *Euskalerrriaren alde* serioagoa zen, euskal kulturaren aldizkaria. *Yakintza* harantzago doa, eta egitasmo orokorrago batean kokatzen da: egitasmo abertzalean, hain zuzen ere, E.A.J.ren proiektuan. *Vasquismo* edo euskaltzaletasunetik abiatuta, *Yakintza* eta *Euskaltzaleak* ikuspuntu abertzale (jeltzale) batera zihoan.

3. ESKUALDEETAKO PRENTSA: AMAYUR ETA ARABARRA

Euzkadi egunkariak Hego Euskal Herrirako sortua bazen ere, ez dago esan beharrik Bilboko egunkari bat zenez, Bizkaian batez ere banatzen zela. Gipuzkoako jeltzaleek ere bere egunkaria sortu zuten 30eko hamarkadan, *El Día* hain zuzen ere. Euskarazko prentsaren eremua ere ondo beteta zegoen *Argiarekin*. Baina beste bi lurraldeetan prentsa jeltzalea ez zegoen hain ondo finkatuta, batez ere Araban. Nafarroan bazegoen *La Voz de Navarra* egunkaria, bertan noizbehinka euskal artikulua argitaratzen ziren, baina eremu kultural abertzalean, ordea, hutsune bat zegoen. Hutsune hori betetzera *Amayur* etorri zen. Arabako kasua desberdina eta zailagoa da, bertan egunkari abertzale-jeltzale bat ateratzeko ahaleginak karlistek -José Luis Oriolek zehazki- oztopatu egin baitzuten. Lehenagoko *Arabarra* berriro agertu zen Errepublikan, nahiz eta denbora gutxirako izan, eta gero, Arabako hutsunea bete nahian, *Euzkadi* egunkarian "Euzkadi en Alaba" izeneko atal bat egunero argitaratu zuten, erdara hutsez. Arabako kazetagitza euskalduna, beraz, oso murrizta izan zen. Kontuan hartu behar da, gainera, Nafarroa eta Araba (batez ere azken hau) euskara gehien galdu zuten lurraldeak ditugula.

3.2. Nafar jeltzaleen prentsa: *Amayur*

Nafarroan, esan bezala, 1931ko maiatzaren 23an hasi zen kaleratzen *Amayur*. *Semanario nacionalista vasco* aldizkaria. Julio de Oyagak zuzendua, erdaraz eta euskaraz idatzia zen, gaztelaniaren presentzia nagusia izanik. Aldizkari kultural-politiko gisa defini dezakegu, Euzko Alderdi Jeltzalearen bozeramale ofiziala azken batean. Euskarari dagokionez, aipatu beharrekoa da 1925ean sorturiko *Euskararen Adiskideak* elkarte, 1926an, 1928an eta 1930ean euskal jaiak antolatu zituen. Errepublika iritsitakoan,

Nafarroan euskal ikastolak eratzeko lanari ekin zion (Chueca, 1990: 46). Giro horretan sortu zen *Amayur*, nolabait *Napartarraren* jarraitzailetzat har dezakeguna. Zer esanik ez, euskarari buruzko kontzeptu eta irizpidea pentsamolde sabindarrarena da.

Euskaraz idazten zutenen artean, izen gutxi ezagutzen dugu: Joseba Azkarate eta Fermin Irigaray *Larreko*. Batez ere azken honen testuak ziren euskaraz argitaratzen zirenak. Euskarari buruzko mezua nahiko ezezkorra da, alarmista: euskaldunon hizkuntza galduz zihoan Nafarroako zonalde askotatik.

1934ko urriaren 6an desagertu zen azkeneko aldiz *Amayur*, agintariekin arazo batzuk zirela medio. 1935eko azaroaren 30an agertu zen berriro, 1936ko Gerra ailegatu arte.

3.3. Arabar jeltzaleen prentsa: *Arabarra*

Goazen orain Arabara. Dakigunez, jeltzaleek *Arabarra* izeneko aldizkaria garai batzuetan argitaratu zuten. Primo de Riveraren Diktadura baino lehenago berriro agertu zen, hirugarren aldiz. Hirugarren garai hartako lehen zenbakia 1922ko ekainaren 3an kaleratu zen, astekari moduan (*Asteroko JEL izparringia* azpiztituluarekin). Larunbatero agertzen zen, lau orrialde zituen. Aurreko beste bi garaietako asmoekin jarraitu nahi zuten. Euskarazko testuak lehen baino gutxiago izan ziren, baliteke Eleizalde idatzitako azken testuak izatea, 1923an hil baitzen.

Laugarren aroa 1932an hasi zen. Baliteke beste *Arabarra* bat agertzea 1931n, erreferentzia batzuk baitaude. Lehen bezala, *Arabarra* astekaria zen, lau orrialderekin ateratzen zelarik. *Nueva Sociedad Vitoriana* deitutako elkarte edo enpresa batek kaleratzen zuen. *Arabarra* honen testu gehienak izenpetu gabe agertu ziren. Agertzen diren sinadurak Pablo Fernández de Trocóniz burukide arabarra eta Gasteizko zinegotzia, Oioneko Senén Palacios, Legutioko José Ignacio de Mues, Amurriko Ramón Mateo Altonaga, Victoriano Ruilope Ruiz de Munain eta Antonio Angoitia ditugu, guztiak erdaraz. Euskaraz gutxi agertzen zen, ia dana *Utarrak* sinatua. Izengoiti horren atzean Andoni Urrestarazu dugu, 1918an *Euzkeltzale-Bazkunaren* metodoarekin euskaraz ikasten hasi eta gero, Madrilen lanean zegoelarik, behin betirako ikasi zuena. Urrestarazuk, bere bizitzan zehar goitizen batzuk erabili dituena (ezagunena *Umandi*), 1902ko uztailaren 16an Araian jaio zen. Batzuetan bizkaieraz, beste batzuetan gipuzkeraz (gogora dezagun *Euzkeltzale Bazkunaren* metodoarekin ikasten hasi zela, beraz bizkaieraz, baina ikasketak Madrilen burutu zituela, Eusko Ikasketak ematen zituen ikastaroetan, gipuzkeraz). Euskaldun berri baten idaztiak, beraz. Astekariaren asmoetariko bat Araban euskara indartzeko omen zen. Baina asmo hori zaila zen. Araban euskararen galera XIII.

mendean baino lehenago hasi zen, Odón de Apraizen ustez (Apraiz, 1976: 12-18). XVIII. mendean galera izugarria izan zen Gorbean, Aiaran eta Lautadan (Gasteiz ere barne). 1850ean %20ak bakarrik euskaraz hitz egiten zuen. 1930ean, gaur egun bezala, Aramaion ia bakarrik hitz egiten zen. Zonalde euskaldun honetan Estatutuaren aldeko botoa gehiengoena zen (Pablo, 1985: 1337-1342).

Beti bezala, *Arabarra* borrokalaria agertzen zaigu, batez ere *El Herald* *Alavés* bereganatu zuen José Luis Oriol karlistaren aurka. Euzko Alderdi Jeltzaleak bazituen erredaktore batzuk egunkari hartan, eta bereganatzeko asmoa ere bazuen. Oriolek lortu zuen, ordea, eta abertzaleak bota zituen. Horrela, jeltzaleak egunkaririk gabe geratu ziren Araban, arratsaldeko beste egunkari bat, *La Tarde*, ateratzeko ahaleginak ere gauzatu ez zirelako, dirudienez arazo tipografikoengatik (Pablo, 1984). Kritikak, beraz, Oriol eta bere egunkariarentzat, *El Pensamiento Alavés* izena hartu zuena, eta baita Gasteizko beste egunkaria zen *La Libertad* errepublikazale erradikalarentzat ere. Beharbada horregatik jeltzaleek *Arabarra* berriro kaleratzea erabaki zuten.

Euzko Alderdi Jeltzalearen xedea Araban komunikabide bat edukitzea bazen, *Arabarra* oso saiakera ahula izan behar zen, eta ziur aski garestia. Konponbidea 1933ko otsailaren 4ean argitaratzeari uztea eta *Euzkadi* egunkarian "Euzkadi en Alaba" izeneko orrialde bat sartzea zen. Baina orrialde horretan euskararen arrastorik ez da agertzen.

Bistan dago, euskal (euskarazko) prentsaren emaitzak Araban oso urriak izan ziren. Aipatuko dugu, modu ia anekdotiko batez, beste aldizkari bat, abertzaletasunarekin zerikusirik ez zutena: 5. Hamabostean behin agertu zen 1934an, Gasteizen, bost gaztek egina: Julio Calvillo, Manuel Garaizabal, Antonio Odriozola, Luis Alemany (marrazkiak egiten zituena) eta José María Sáenz de San Pedro. Beste zazpi lagundu zuten: Obdulio Uralde, Enrique Azcoaga, Oscar López, G.M. de Zúñiga, José Ramón Fernández eta Odon eta Ricardo Apraiz. Aldizkari kultural honen lau ale agertu ziren, lehenengoa apirillean, bi maiatzean eta ekainean azkena. Ale guztietan euskarazko testuren bat agertu zen. Merezi du aipatzea: lehen alean Rafael Albertiren poema baten itzulpena, "Izukuntza Europa ziar", *Olhari* izenburua erabili zuen Odon de Apraizek euskaratua (bizkaieraz); hirugarren zenbakian Lope de Ruedaren "Kaiku eta lapurra", Antonio Odriozolak itzulia, gipuzkeraz, trebetasun handiz gainera; eta laugarren zenbakian, antzezlan horren jarraipena, "Ume eder baten kutsua", eta Odriozolak idatzi eta euskaratutako hiru poema ("Ur epela", "Alava generala bai-dator!" eta "Zadorra'ko Erribera"). Aldizkari literario bat zen, Europako korrante abangoardistak biltzen zituena (surrealismoa, esate baterako), eta Espainiako idazle gazteak ezagutzen zituena: García Lorca, adibidez, edo aipatutako Rafael Alberdi.

3.4. Herrietako jeltzaleen prentsa

Ataltxo hau bukatzeko, aipatuko dugu beste aldizkari abertzale jeltzale bat, elebiduna. Eibarreko *¡Jeiki!* da. Aipatu besterik ez dugu egingo, oso gutxi baitakigu horri buruz. Diktadura baino lehenago ere agertu zen, 1915. eta 1919. urteen artean. 1923an kaleratzen zen, baina 1924an, Diktadura ailegatzean, desagertu egin zen. 1932ko azaroaren 30ean berriro argitaratzeari ekin zion Eibarreko Euzko Gaztediak, noiz arte kaleratu zuten ez dakigula. 1932ko lehen ale hori erreproduzitzen du Alfonso C. Saiz Valdivielso bere *Triunfo y tragedia del periodismo vasco (1900-1936)* liburuan. 1932an, berak aipatzen duenez, Eibarren E.A.J.k 1.000 bazkide zituen, eta E.L.A. sindikatuak 800 (Saiz Valdivielso, 1977).

Azkenik, eskualdeetako prentsaren barruan kokatu behar dugu *Bermeotarra*, Bizkaiko kostaldeko herri hartan sorturiko aldizkari abertzalea, ez zen JEL lemaren pean atera, eta politikatik at egon nahi zuela aldarrikatzen bazuen ere, bere abertzaletasuna ere argi eta garbi uzten zuen. Hilabetekaria zen. Erdaraz eta euskaraz idatzia (batez ere erdaraz, aldizkari jeltzaleetan usu zenez), zortzi orrialde zituen. *Bermeotarra* eta beste adibide batzuek, *Arrati'ko Deya* esaterako, erakusten digute II. Errepublikaren garaian euskarazko eguneroko prentsa posible zela, euskarazko egunkari bat egin zitekeela, eta baita tokian tokiko kazetaritza posible zela, eginkizun batzuk ere egin zirela, herri edo zonalde txikitako aldizkariak sortu zirelarik.

4. A.N.V.REN PRENTSA: TIERRA VASCA

4.2. A.N.V.ren sorrera

Abertzaletasun jeltzalearekin batera, 30eko hamarkadan beste abertzaletasun bat sortzen da, aurrerakoia. Comución-eko eta Partido Nacionalista Vasco-ko agintariek berriro elkartzea erabaki zutenean, beste talde batek hasiera eman zion eztabaida bati. Talde horrek Acción Nacionalista Vasca edo Euzko Abertzale Ekintza hartuko du izena, eta alderdi politiko bat eratuko zuen Errepublikan.

Bilakaera hori ezin hobeto aztertu du José Luis de la Granja irakasleak bere *Nacionalismo y II República en el País Vasco* liburuan. 1921ean Euzko Alderdi Jeltzalea bi zatitan banatu zen: alde batetik, Comución Nacionalista Vasca, eta beste alde batetik, eskuindarrak, Luis Aranaren aldekoak, Euzko Alderdi Jeltzalearen izena berreskuratu zutenak. Azken hauek *Aberri* aldizkaria beren bozeramalea argitaratzen zuten 1916tik. 1923an egunkari bihurtu zen, eta urte berean, irailean, Primo de Riveraren Diktadura zela eta, agintariek debekatu egin zuten. 1925ean berriro agertu zen. Comución delakoaren prentsa, momentu hartan *Euzkadi* eta *La Tarde* (1914tik

argitaratzen zena) egunkariak eta *Excelsior* kirolei buruzko aldizkaria, 1924an kaleratzen hasi zena, ez zuen debekatu. Euzkadi Buru Batzarrak *Euzkadiren* jabetza zeukan, baina egoera ekonomikoa txarra zenez, gerente bat sartzea erabaki zuen. Gerente hori Anacleto Ortueta izan zen. Berak bazeuzkan Comución-en aldizkariak egiten zituzten bi enpresen akzio gehienak, Euzko Pizkundera eta Tipográfica Generalenak. *Euzkadiren* administrazio-kontseiluaren lehendakaria, 1925etik 1929ra, Ortueta izan zen. Urte haietan, egunkariaren egoera ona zen.

Baina Diktadura bukatutakoan, Euzkadi Buru Batzarrak eskatu zion Ortuetari akzioak itzultzea, eta berak, egunkaria ez zela Comuciónena bakarrik, abertzaletasun osoarena baizik, ezetz esan zien. Auzia horrela erabaki zen: Ortuetak gorde zituen Tipográfica Generalaren akzioak eta E.B.B.k Euzko Pizkundiarenak, *Euzkadi* argitaratzen zuen elkartearnak alegia. 1930ean, *Euzkadiren* administrazio-kontseilu berrian bazeuden A.N.V.ren bi fundatzaile, J.D. Arana eta Arrien. *La Tarderen* zuzendaria, Casimiro Ullibarri, A.N.V.ra pasatuko zen, eta *Excelsior*rena, José Olivares Larrondo, ere bai. Azken hau A.N.V.ren *Tierra Vasca* egunkariaren zuzendaria izango zen. Beraz, abertzaletasunaren erreformatzaileak sartuta zeuden C.N.V.ren entrepresa periodistikoetan.

Haien garrantzia C.N.V. eta P.N.V. batzeko prozesua hasi zenean ageri ziren. Gatazka batzuk gertatu ondoren, 1930eko urriaren 31n, alderdiaren norabidea finkatzeko bozketa bat egin ondoren (erreformatzaileek irabazi zutena), *Euzkadiren* kontrola ofizialisteengana joan zen. P.N.V. eta C.N.V. bilduta, *Euzkadi* Euzko Alderdi Jeltzalearen bozeramale bihurtu zen. Erreformistek, aldiz, A.N.V. sortuko zutenek, Tipográfica Generalaren jabetza mantendu zuten, eta bertan, E.A.J.ren *La Tarde* ezezik, alderdi politiko berriaren lehenengo bi aldizkariak ere inprimatu ziren: *Nacionalista* eta *Acción Vasca*. Nahiz eta *Euzkadi* Tipográfica Generalean ere egin, A.N.V.koek hori debekatea erabaki zuten. E.A.J.ren bozeramaleak, ordea, agertzen jarraitu zuen, artean kaleratzen ez zen *Aberriren* inprimategian egina.

Gauzak horrela, 1931ko apirilaren 7an E.A.J.k prentsa abertzale guztia kontrolatzeko aukera emango zion gertakizun bat jazo zen. Tipográfica Generalen batzar orokorra bilduta, jeltzide batek kendu zion J.D. Aranari Ortuetak zituen akzioak. A.N.V.koak ezer gabe geratu ziren, eta garai hartan ateratzen zuten *Acción Vasca* egunkaria ezin izan zen berriro agertu. Errepublikan ailegatzean, E.A.J.rekin akordio bat lortzeko ahaleginak alferrikakoak izan ziren, A.N.V.ek ez baitzituen onartu haiek proposatutako baldintzak. Ortuetak Auzitegira joan zen, baina ez zuen ezer lortu. 1933an A.N.V. bozeramalerik zegoen.

4.3. *Tierra Vascaren sorrera*

1932tik egunkari bat ateratzeko asmoak sortu ziren. A.N.V.koek bozeramale bat behar zuten. 1933an Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariaren inprimategian egingo zela erabakita zegoen. Gure-Erria elkarteak eratu zen. 1933ko urtarrilaren 8an *Tierra Vascaren* lehen zenbakia agertu zen. 1934ko martxoaren 11 arte argitaratu zen. Bi bulego zituen, bata Donostian (zentrala) eta bestea Bilbon (Eusko-Etxean). Zuzendaria, lehenago ere aipatu dugu, José Olivares Larrondo *Tellagorri* izan zen.

A.N.V.ren pentsaera honako puntu hauetan laburbil daiteke: abertzaletasuna (*Euzkadi da euzkotarren aberria*), Euskadiren batasuna (E.A.J.ren federalismoaren aurkakoa), konfesionaltasunik eza, liberalismoa, beste indar politikoeekin batzea, behar izanez gero, bere helburuak lortzeko, eta E.A.J.ren antimaketismoaren aurkakoa. *Tierra Vasca* egunkari abertzalea, demokratikoa eta euskalduna zen. Zortzi orrialde zituen, informatiboa eta politikoa zen. Guri lanaren gaiari dagokionez, euskarazko atal bat argitaratu zuen egunero, "Euskal atala", noizbehinka ere beste euskarazko atal bat argitaratzen zelarik, literatura eta musikari buruzkoa. Euskal atalean bi idazlek idatzi zuten, batik bat: Jose Elizondo eta *Atxosteko mutilla* sinatzen zuen bat, batak gipuzkeraz eta besteak bizkaieraz. A.N.V.ren euskarari buruzko irizpideak eta euskararen erabilera da hemen gehien inporta zaizkigunak, E.A.J.renekin konparatuta oso desberdinak baitziren, abertzaletasun ez-jeltzalearen jarrera irekiagoa eskainiz.

Abiapuntua Sabinorena da, ordea: "Endaren berbiztea, izkuntzaren berbiztean dago", zioten Telesforo de Aranzadiren hitzak gogoratuz. Baina, jeltzaleek ez bezala, Euskaltzaindiaren arauak onartzen zituzten, baita batasunaren aldekoak ere. Egitarauan ere argi eta garbi uzten zuten euskararekiko jarrera:

[...] Que propugnamos por la unificación y oficialidad del euskera, sin dialectos inter-euskadianos; por el reconocimiento de la Academia de la lengua vasca, sobre los grupos y capillitas que han destronado muchas posibilidades de unificación y de mejoramiento del idioma, aunque no les negamos que sus ímprobos trabajos han podido ser salpicados por su patriotismo innegable y que en ellos han puesto un entusiasmo digno de mejor causa.

Euskara berpiztearekin batera, demokrazia eta liberalismoan ere aurreratu behar zen, A.N.V.koen ustez. A.N.V. Estatutuaren aldeko defendatzaile sutsuenetariko bat izan zen, Katalunia eta Galiziaren adibideekin parekatuz. Euskadirentzako Estatutuan, euskara hizkuntza ofizial izan zedin nahi zuten.

Irakaskuntzan ere konfiantza handia zeukaten. 1933ko otsailean Bilboko Udalean mozio bat aurkeztu zuten, bertako eskola publikoetan euskara aukerazko asignatura bihur zedin. Erantzuna ezezkoa izan zen. Baina ahalegin handienak Unibertsitatearen alde egin ziren.

Tierra Vascaren euskal atalak, ordea, ez zuen herrietako berririk jasotzen, hau da, ez zen informatiboa, iritzizkoa baino. Honetan *Euzkadiren* euskal ataletik aldentzen da, ziur aski *Euzkadik* bazuelako urteetan zehar osatutako berriemalere bat herrietan, A.N.V.koek ez zeukatena. Euskal atala ez zen beti argitaratu, etenaldi batzuk izan baitziren. Bazirudien A.N.V.ren proiektuaren inguruan mugitzen ziren intelektualek huts egin zutela. Arazo ekonomikoak ere larriak ziren, eta *El Pueblo Vascoren* jabea zen Pikabeak erabaki zuen zorrak ordaindu ezik *Tierra Vasca* ez zela bere egunkarian gehiago argitaratuko. 1934ko martxoaren 11an agertu zen azken alea. Hala ere, Gerra Zibilean, Eusko Jaurlaritzaren politikari esker, berriro agertuko zen Bilbon.

A.N.V.rekin lotura estua izan zezakeen aldizkari bat, edo behintzat A.N.V.k aldarrikatzen zuen autonomismoaren alde jarri zena, aipatu behar dugu: Bartzelonan argitaratu zen *Baskoniaz* ari gara. Lehenengo alea (bi ale bakarrik ikusi ditugu) 1932ko urrian agertu zen, S. Doñabeitiak zuzendua. Katalanez, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia, badirudi bere xede nagusia Estatutuaren aldeko kanpaina egitea zela. Ezer gutxi dakigu aldizkari horretaz.

5. ABERTZALE ESKUINATARREN PRENTSA: *JAGI-JAGI* ETA *MENDIGOXALE*

5.2. Eskuineko abertzaleak

A.N.V. abertzaletasunaren ezkerrekoa bazen, mundu abertzalearen beste muturrean, eskuin aldean alegia, beste talde bat sortu zen, A.N.V. ez bezala alderdi politiko batean antolatu ez bazen ere. Talde horri deitu izan zaio *Jagi-jagi*, bere bozeramalea zen aldizkariaren izena hain zuzen ere. Euzko Alderdi Jeltzalearen barruko korrante hori, oso erradikala, 1932an inguruan antolatzen hasi zen, bere erroak aspaldidanik bazetozen ere.

1932an Euzkadik autonomiarantzako pausuak ematen zituen. Euzko Alderdi Jeltzalea gero eta posibilistago bihurtzen ari zen. Alderantziz, E.A.J.ren barruan talde erradikalago bat sortu zen, ideologia sabindarrarengandik gertuago egon nahi zuena: "Una lucha", dio Antonio Elorzak, "cuyo único objetivo puede ser la independencia y cuya mayor debilidad sería creer en la positividad de cualquier pacto con el poder español" (Elorza, 1978: 442). Errepublikaren aurka ageri ziren, gero eta gehiago: agintari errepublikanoekin kontaezinezko gatazkak eta arazoak izan

zituzten Jagi-Jagikoek. 1933an Luis Arana, talde horren sinbolorik nagusia, E.A.J.tik bota zuten. Gero Elias Gallastegi, *Jagi-jagiren* zuzendaria, joan zen. Alderditik kanpo egonda, eta alderdi politiko berririk sortu gabe, abertzale eskuineko haiek Bizkaiko Mendigoxale Batzaren babesean lanari ekin zioten.

5.3. *Mendigoxale*

Jagi-jagi baino lehenago Bizkaiko *mendigoxaleek* beste aldizkari bat kaleratzen zuten, *Mendigoxale* hain zuzen ere. Hamabostean behin agertzen zen, eta oso mami politikoa izaten zuen. Aldizkariaren lehen zenbakian, 1932ko otsailaren 19koa, Luis de Arana y Goirik idatzen zuen: "Sois, jóvenes mendigoxales, el brazo robusto de nuestra Patria, la fuerza de choque del mañana". "Aberri-Gudarijak", hala definitzen ziren *mendigoxaleak*. Hamabostekarian euskarazko testuak ere agertzen ziren, %20 gutxi gorabehera. Euskara kontuetan ere, sabindar amorratuak, nola ez, eta *Kirikiñoren* ikasleak ere bai. *Mendigoxaleak* euskara jakin egin behar du, arraza eta Aberriaren hizkuntza delako. *Mendigoxaleen* euskara ikasteko dei asko aurkitzen ditugu, gehienak erdaraz idatziak.

5.4. *Jagi-jagi*

Jagi-jagiren lehen alea urte hartan bertan agertu zen, irailaren 17an, *Bizkai'ko Mendigoxale Batza'ren Deya* zela aldarrikatuz. Lehen zenbakitik *Aberriren* ildotik zetozela jakitera eman zuten. Astekariak 1923ko banaketaren zauria irekitzen zuen. Giro nahasian, sozialista eta abertzaleen arteko gatazkak maiz gertatzen ziren Bilboko kaleetan. 1931ko irailean Bilboko alde zaharrean, borroka baten ondorioz, sozialista bat hil zen. Haren adiskideak Bilboko Euzko-Gaztediren egoitzara joan eta eraso egin zuten. Poliziak hamalau abertzale detenitu zituzten, eta haiek gose greba egitea erabaki zuten. Bi egun pasatu zituzten espetxean, "Jagi-jagi euzkotarrak, laster dator eguna..." dioen kanta abesten. Hortik, kanta horretatik eta gogo horretatik, zetorkion izena astekari berriari.

Jagi-jagiren jarrera borrokalaria izan zen: "Su tono agresivo, retador y virulento, acarrió a Jagi-jagi serios problemas con la autoridad gubernativa [...]. Su salida, los sábados, era todo un espectáculo. Cada semana llegaba la Policía a las inmediateces de Gran Vía, 46, para entorpecer su difusión. Para burlar la vigilancia de los agentes, los hombres de Jagi recurrían a los trucos más inverosímiles y pintorescos: unas veces metían los ejemplares en las cestas de las vendedoras de pescado; otras los ataban a cientos de globos que arrojaban por la ventana" (Saiz Valdivielso, 1977: 283). *Jagi-jagin* antzinako *aberriano* asko bazeuden: Elias Gallastegi (zuzendaria), Candido

Arregi, Angel Maria de Agirretxe, Nicolas de Bayo, Pedro de Basaldua, Jose de Ituarte, Manuel de la Sota, Trifon Etxebarria... 1933an, esan bezala, E.A.J.tik zeharo baztertuta geratu ziren, Luis Arana ere bai. Momentu hartan, 1933ko urriaren 21tik azaroaren 18 arte, *Jagi-jagi* ez zen kaleratu. 1934ko urtarrilaren 27tik maiatzaren 5 arte ere ez. Horrez geroztik, *Euzkadiren* aurkako irain eta erasoak gero eta gehiago izango ziren, banaketarako bidea prestatzen. Ez zen banaketa hori gertatu; Jagi-jagikoek ez zuten 1923ko aberrianoek beste indarririk.

Euskarari dagokionez, *Jagi-jagik* oso gutxi zeukan euskaraz idatzita. Astero argitaratzen zen lehengo orrialdean zutabe bat, "Astekua" izenburupean, non Ibon delako batek (Ibon Urbitarte?) iruzkin batzuk idazten zituen, garrantzi handirik gabekoak. Ideiak betikoak dira, ortodoxia sabindarraren barruan, jakina: euskara arrazaren erakusgarria denez gero, ikasi eta zabaldu egin behar da. *Jagi-jagik*, baina, bere mamiaren %3 baino ez zion euskarari eskaintzen.

Ipar Euskal Herriko prentsa gerren artean

1. IPAR EUSKAL HERRIKO EGOERA BERRIA


1.2. Gerren arteko Ipar Euskal Herriko egoeraren aldaketa

I. Mundu Gerraren ondoren, Ipar Euskal Herriko euskaldungoak aldaketa batzuk sufritu zituen. Gerraren eta Ameriketarako emigrazioaren ondorioz, Ipar Euskal Herriko biztanleria izugarri murriztu zen. Ipar Euskal Herriko politika eta kulturaren eraberritze bat gertatzeko momentua zen, Piarres Larzabalen hitzetan: "Urte hetan [1918-1939] ez da gehiago Eliz eta Gobernu-arteko borrokarik". Xuri-gorrien arteko polarizazioak leku bat utzi zien beste aukera batzuei. Abertzaletasuna ere saiatuko da Iparrean sartzen, eta aukera politiko bat, gauza batzuetan jeltzaleengandik gertu zegoena, sortuko da: *Aintzina*.

2. IPAR EUSKAL HERRIKO ALDIZKARIAK

2.2. *Eskualduna*

Eskualduna astekaria 1918tik Jean-Blaise Adéma kalonjearen zuzendaritzapean zegoen. I. Mundu Gerrak sortutako eskasiaren ondoren, *Eskualdunak* berriro bere lehengo distira berreskuratu zuen 20ko eta 30eko hamarkadetan. Berriro neurri handiak eta gerra aurreko lau orrialdeak berreskuratu zituen. Publizitatea eta mota guztietako iragarkiak bazituen, gehienak frantsesez. Hala ere, testu gehien-gehienak euskaraz idatziak ziren.




Jean-Blaise Adéma

Garai hartan *Eskualdunaren* kutsua informatiboa zen. Nolabait, hegoko *Argiarekin* pareka daiteke: biak astekariak ziren, lau orrialde izaten zituzten, eta erlijioari, euskarari eta nekazaritzari garrantzi handia ematen zieten. Atalei dagokienez ere, parekotasunak nabariak ziren: *Eskualdunaren* lehen orrialdean "Berriak" (mundu guztikoak) eta "Ebanjelioa" atalak zeuden. Testurik esanguratsuenak, astekariaren bultzatzaileen pentsamoldea islatzen zutenak, lehen orrialdean egoten ziren. Hala ere, 20ko eta 30eko hamarkadetan ez da hain argi erakusten pentsamolde hori, eta *Eskualduna* gero eta informatiboago bilakatzen da. Bigarren eta hirugarren orrialdeetan Euskal Herriko berriak agertzen dira, hiru ataletan banatuta: "Laburdin", "Baxenabarren" eta "Ziberoan". Hirugarren orrialdean nekazaritzari buruzko berriak agertzen ziren. Laugarren orrialdean, azkenik, iragarki askorekin batera, zutabe bakar bateko honako atal hauek: "Pilotaz", Euskal Herri osoko pilota partiduen berriak zekartzala; "Nafarroatik", Hego Euskal Herriatik bidalitako berriak, Fermin Irigarai *Larrekok* bidaliak, non, Nafarroaz hitz egiteaz gain, Hego Euskal Herriko beste lurraldeetako berriak ere ematen ziren, eta batzuetan, Espainiakoak ere bai, beti oso laburrak; eta "Laborarier", nekazarietzako atal bat.

Dena den (Hernández, 2007: 60) Gerratik itzulitako gazteek ez zuten begi onez Adémak astekariari eman zion norabidea, eta *Gure Herria* sortu zuten. Adémak *Eskualdunaren* zuzendaritza 1924an utzi zuen. Elizaren menpe zegoelarik, *Eskualdunaren* zuzendaritza beste apaiz baten eskuetara joan zen: Jean Saint-Pierre. Baionako apezpikuaren idazkaria zen. "Artekari ona [...] batasunaren segurtatzeko", Lafitteren ustez (Lafitte, 1971: 32), bere karguan hasi zenetik astekaria berriro egin zuen. Garai hartako idazleak, besteak beste, Jules Moulier *Oxobi*, Louis Apesteguy, Jean Etchepare, Louis Dassance, Jean Barbier, Michel Iriart ziren, hau da, Ipar Euskal Herriko hoberenak. Saint-Pierrek eta hurrengo zuzendariak, Domingo Soubelet, *Eskualdunaren* garairik hoberenatarikoak lortu zituzten: "Iratzartzeko memento ona zen: orhoit 'bloc des gauches' delakoak nahi zuela erlisioneari berriaz jazarri, eta behar zitzaizola ihardoki. Gudu-aro horrek emaiten zion kazetari bizitasun berezi bat, kasik Eskualdun Onaren denboran bezala", dio Lafittek. Piarres Lafitte bera orduan hasi zen *Eskualdun* idazten.

Gero eta irakurle gehiago lortzen ari zen Jean Saint-Pierre 1930ean apezpiku izendatu eta Afrikara bidali zutenean. Astekariaren gorakada egiten jarraitu zuen Domingo Soubelet hurrengo zuzendariak, artean Baionako apezpikuaren idazkaria zena. Bere zuzendaritzapean *Eskualdunak* irakurle gehien lortu zuen, 8.000. Idazle onak zituen: Dirassarrek "Pilotaz" atalean idazten zuen, *Oxobik* eta Jean Elissalde *Zerbitzarik* artikulua; iritzi-artikuluez hurrengo zuzendaria izango zen, Xalbat Arotçarena arduratzen zen. Erretore batzuek beren herrietako berriak bidaltzen zituzten: Iturbidek, Milafrankako Etcheverryk... Louis Dassancek nekazaritzari buruzko gaiak lantzen zituen, Pierre Laffitte ere hortik zebilen.

Politikari dagokionez, eta antzinako ohiturari jarraiki, pertsonalismoa nabaria zen. Orduan hiru izen nagusi ziren: Lissar, De Coral eta Jean Ybarnegaray. Azken honen nagusitasuna 1914tik zetorren. Lehenago Ipar Euskal Herrian bonapartistak nagusitzen baziren, 1914tik Ybarnegaray eten gabe diputatu izendatua izango zen. Ybarnegaray De la Rocque jeneralaren Parti Social Français delakoan sartu zen, eta Vichy-ko ministroa izatera ailegatuko zen. Beste hautagai "xuri" bat, De Coral, Louis Marinen Fédération Républicaine delakora joan zen. Biak beste hautagai batekin, Alliance Démocratique-ko René Delzangles-ekin, bat egingo zuten 1936an Front Populaire-ri aurre egiteko. Bat gatoz Pierre Letamendiarekin dioenean: "Le catholicisme [...] en France il amène les Basques à s'intégrer sans problème à l'intérieur des divers courants qui composent la droite française" (Letamendia, 1987: 138). Hegoan bezala, Errepublikaren beldur ziren (Espainiako zein Frantziako en errepublikak); komunismoa ere etsai nagusia zen.



Jean Saint-Pierre *Ainxuberro*

Hego Euskal Herrian ez bezala -ikusi dugu nola elizgizon euskaldunek abertzaletasun jeltzalera jo zuten- Iparrean politikaren zabaltasuna handiagoa omen zen. Abertzaletasuna, hala ere, ailegatu egin zen mugaz bestaldera, asko sartu ez bazen ere. Jean St.-Pierrek berak, *Ainxuberro* goitizena erabiliz, *Euzkadi* egunkarian idazten zuen. Lehenago Iparreko euskaldunen Frantziarekiko atxikimenduak ez bazuen abertzaletasun jeltzalea sartzen uzten, badirudi 30eko hamarkadan, Hegoko apaizak proiektu abertzale jeltzalearen bozeramale eta teoriko bihurtu zirenean, Ipar Euskal Herrian ere E.A.J. edo beste alderdi antzeko bat eratzen saiatu zirela: 1933ko urtarrilaren 13an, Jose de Ariztimuño *Aitzolek* dio *Euzkadin* Ipar Euskal herrian alderdi bat eratzear zegoela. Hurrengo urtean, 1934an, *Aintzina* aldizkari elebiduna (gehiena euskaraz) sortu zen.

2.3. *Aintzina*

Aintzina Pierre Laffitek sortutako aldizkari bat dugu, hilabetekari bat, ez alderdi bat. Lafittek berak, hainbat izengoiti erabiliz, idazten omen zituen artikulua gehienak, Léon Lassallek eta Jacques Mestelanekek lagundua (Hernández, 2007: 213). Ustaritzen agertzen zen, hango seminarioan baitzegoen Lafitte apaiza. Badakigu (Letamendiak dioenez) *Aitzolek* zenbait aldiz bisitatu zuela Ustaritzen. Aldizkaria, *Trait d'union mensuel des Régionalistes basque-français*, *JEL* lemarenpean agertu zen. Baina horrek ez du esan nahi buru belarri jeltzalea zenik: "*Aintzina* adopta la devise sabinienne Jaun goikua eta lege zarra et montra sa sympathie pour le P.N.V., mais aucun parti ou mouvement politique ne sera créé autour de lui. Aux élections législatives de 1936, *Aintzina* demande de voter pour les trois

candidats de droite, Coral, Delzangles et, bien entendu, Ybarnegaray" (Letamendia, 1987: 138). 1936ko maiatzean "gu gure chokotik ere gauden ere, JEL baithan bethi bat" egongo zirela esaten bazuten ere, abuztuan zera zioten: "Egia da heraberik gabe agertu girela bai nazionalisten bai tradizionalisten bilkuretan, baina ez dugu heien politikari gutieneko zorrik. Frantziako regionalistekin dugu gure egitekoa, erlisionearen bahean zetabetan ditugularik heien irin guziak" (*Aintzina*, 23. zenbakia).



Piarres Lafitte

Zer da zehazki *Aintzina*? Utz diezaiegun beren sortzaileei adierazten: "Duela zombait ilabete, Eskualdun gazte moltcho bat elgarretaratu gira, gure ethorkizunerako bideak ezagutu nahiz. Frantziako bazter gehiensutan berdintsu egin dute gazte zonaitek eta heiek, guk bezala, ikhusi dute badela lan hainitz egiteko, nork bere eskualdean lan egin behar du. Beraz guk Eskual-Herrian [...] (*Aintzina*, 1934ko azaroak 2, 2. zenbakia). Letamendiak azpimarratzen duenez, beren eragin nagusiak *Esprit* astekari demokrata-kristaua eta *L'Ordre Nouveau* aldizkaria ziren. Beste leku batean *eskualerrista* gisa definitzen dira. Alderdi politiko baten proiektua ere hor agertzen da. Baina azkenean egitasmo horiek ez ziren gauzatu, eta *eskualerrista* horiek ez zuten talde bat izatetik alderdi politiko bihurtzerako jauzia egin. Alderantziz, esan bezala 1936ko hauteskunde orokorretan Front Populaire delakoaren aurka jarri ziren (Frente hori Parti Radical Socialistek, S.F.I.O. sozialistek, komunistek eta Ligue des Droits de l'Homme osatzen zuten), eta eskuinekoen aldeko botoa eskatu zuten: baxenabartarrek eta zuberotarrek Jean Ybarnegarayrentzako botoa, lehen zirkunskripzioko lapurtarrek René Delzanglesentzako eta bigarren zirkunskripziokoek

Bernard de Coralentzako eman zezatela, bestela "le succès du Front Populaire serait une catastrophe pour la France, et aussi pour le Pays Basque" (*Aintzina*, 1936ko martxo, 18. zenbakia, 1. orrialdea). Sindikalismoari dagokionez, beti sozialisten aurka agertu ziren.

Hegoan gertatutako antzeko bilakaera bat egin behar zen, alegia, baina baldintzak ez ziren inolaz ere berdinak: Hego Euskal Herria oso lurralde industrializatuta bazen, Iparrean ere ez zen horrelakorik gertatzen. Biztanleria ere murriztagoa zen. Eta politikan parte hartzeko baldintzak oso desberdinak ziren: Hegoan autonomia planteatzen zen momentuan, Iparrean inork ez zuen seriotan Frantziatik kanpoko Euskal Herri baten aldeko politika egitearekin amesten, baina urratsak emanak ziren. Egitasmo politiko independente guztiak, Ipar Euskal Herrirako proiektuak, ez ziren gauzatu. *Aintzina* 1937ko urrian desagertu zen, 33 zenbaki kaleratu ondoren, arazo ekonomikoak zirela medio. Berrito agertuko zen 1942-43. urteetan, aurreko garaian baino kulturalagoa, Lafittek eta bultzatua. *Aintzina* zetozen 1945eko hauteskunde kantonaletan *nationalistes basques français* bezala aurkeztu zirenak.

2.4. Almanakak

Bitartean antzinako kazetagintzaren arrastoak aurkitzen ditugu: almanakak. *Eskualdunak* kaleratzen zuenarekin batera (*Eskualdunaren Almanaka*), 1934an behintzat beste bat agertu zen, *Gauden gu eskualdun*, sozialista, sozialista erradikal eta komunisten kontrakoa (hau da, Front Populaire-ren kontrakoa), eta euskaldunen hautagaien aldekoa (Ybarnegaray). Bestalde, Parisen bizi ziren euskaldunek beste aldizkari bat argitaratu zuten urte berean, 1934an: *Elgar. Journal des basques de Paris*, baina oso gutxi zegoen euskaraz.

2.5. Kultur aldizkariak: *Gure Herria*

Kulturari dagokionez, gauzak hobetu ziren Ipar Euskal Herrian 20ko eta 30eko hamarkadetan. 1921ean *Gure Herria* aldizkari kulturala sortu zen, nolabait Hegoan zeudenen ispilua. Lehenagotik zetorren asmoa: I. Mundu Gerratik etorritako gazteek ikusi zuten *Eskualduna* ez zela nahikoa beren nahiak asetzeko; sinplegia zen jende letratuarentzat. Hilabetekaria, elebiduna, ia gure egunetara arte ailegatu den aldizkaria dugu. Denetariko gaiez aritzen zen: berriak (kulturalak, euskal kirolekoak), antropologi gaiak, natur zientzietakoak, historikoak, literarioak eta oro har euskal izaerarekin zerikusia zuten edozein gaiz idazten zuten. Antzinako testuak ere noizbehinka argitaratzen ziren.

Lehenengo zuzendaria Edmond Blazy izan zen, eta oso garrantzitsua izan zen bere bizitzaren lehenengo urteetan Louis Dassance. Urte haietan Jean St.-Pierre, Jean Elissalde, Louis Dassancek, J. Eizagirrek, L. Apesteguyk, J. Moulierrek, Fermin Irigaraik, P. Ithurraldek, Jean Barbierrek, Piarres Lafittek eta P. Lhandek idatzi zuten bere orrialdeetan, euskaraz. Frantsesez beste izen ospetsu andana bat aurkitzen dugu: Jules Vinson, Gabriel Hérelle, Emmanuel Souberbielle, Henri Gavel. *Gure Herriarekin* Ipar Euskal Herriak bere aldizkari kultural propioa izan zuen. Politikan ez ziren gehiegi sartu, sozialisten aurkakoak zirela garbi utzi bazuten ere. Bere asmoa serioa zen, esnobismotik ihes egin nahian.

Bazirudien euskal kultura berpizten ari zela. 1923ko urrian euskara sartzen da hezkuntza programetan. 1935ean Donibane Lohitzuneko Udalak eskoletan euskara ikastaroak antolatu zituen. Ikastaro horien antolamendua Eskualtzale-Biltzarrari egokitu zitzaion.

2.6. Euskara Iparreko beste hedabideetan

Euskara idatziak ez ziren beste komunikabide batzuetan sartu zen: diskogintzan, adibidez, 1935ean Pathé disko-etxeak disko batzuk kaleratu zituen, euskal musikarekin. Irratian ere sartzen ari zen pixkanaka-pixkanaka. Parisko Irratian (Radio Parisen) Pierre Lhande euskaltzainak euskal abesbatza bat aurkeztu zuen 1934an. Bordelen berdin egin zuen Lafayettek, "mais les émissions ne son point régulières. Au contraire, le poste de Saint-Sébastien donne tous les mercredis de 8 heures à 9 heures du soir une séance basque dont les sans-filistes son très contents. Naturellement, les Guipuscoans assurent le plus souvent ce service patriotique [...]" (*Aintzina*, 1934ko azaroa, 1. zenbakia).

Hegoko euskaldunekiko konparazioa saihestezina zen. Baina baldintzak, behin eta berriro errepikatu behar dugu, oso ezberdinak ziren.

3. IPARREKO PRENTSA, ESPAINIAKO GERRA GARAIAN

3.2. *Eskualduna*, Gerraren atarian

1936an, bere politika propioari jarraituz -erlijioaren aldekoa itsuki, dakigunez- Francoren armadaren alde agertu zen *Eskualduna*. Ospetsua da "Mola jeneralaren soldat eskualdunek zaintzen dute Gernikako arbola" dioen pasarte hura, asaldatuek Gernika bonbardatu ondoren idatzia. 1937an Xalbat Arotçarenak hartu zuen *Eskualdunaren* zuzendaritza. 1892an Isturitzen jaioa, Maule eta Landibarren apaiz egon ondoren, 1937ko martxoaren 24an Baionako astekari euskarazkoaren zuzendari bihurtu zen. Berehala Action Française alderdi eskuinekoen alde agertu zen argi eta

garbi. Euskaldunen artean, oihartzun gutxikoak izan arren, jarrera kontrajarriak agertu ziren (Lafitte, 1971: 34). *Eskualduna* urte askotan zehar lorturiko irakurleak galtzen zihoan.

Euskarazko aldizkaririk iraunkorrenak, euskara eta euskal kulturarentzat hain garrantzitsua izandakoa, oso bukaera txarra eta itsusia izan zuen: Frantziako Erresistentziakoek 1944an Xalbat Arotçarena detenitu eta epaitu egin zuten, "haren sosak eta liburuak norapait eramán", eta *Eskualduna* itxi eta berriro kaleratzea debekatu zuten. Urte berean, L. Léon Uztaritzeko erretoreak beste aldizkari bat argitaratzea deliberatu zuen, eta Piarres Lafitte zuzendaritzapean 1944tik 1969 arte *Herria* astekaria agertu zen. Astekaria gaur egun ere agertzen da Baionan.

16

Euskarazko komikigintza

1. EUSKARAZKO LEHEN ISTORIOAK

1.1. Lehen urratsak: Victoriano Iraola

Euskarazko lehen komiki-aldizkariak sortu zirenean, 20ko eta 30eko hamarkadetan, Espainian eta, oro har, Europan, umeentzako irakurgai soilak zirela pentsatzen zuten. Euskal Herrian ere berdin: honen froga garbia, gure artean argitaraturiko lehen komiki-aldizkaria (euskaraz zein erdaraz) *Txisturen* alerik ez dugula gaur egun ezagutzen.

Euskaraz agerturiko lehenengo *historietak* 1907koak ditugu, *Baserritarra* nekazaritza-aldizkariaren 83. eta 85. zenbakietan, 1907ko abenduaren 7an eta 1908ko urtarrilaren 4an argitaratuak. Biak Victoriano Iraolak eginak dira. Badakigu Iraolak berak inprimatzen zuela aldizkari hura, idazle izateaz gain. Lehenengoak *On Kosmerentzat* du izena. Sei marrazkietan, didaskalia banarekin, mozkorti batek sagardo kupel bat eramateko dituen arazoak kontatzen ditu, garai hartako Donostiako antzerkigileen umorea komikira eramanez: umore herrikoi bat, Donostiako euskaraz kontatua. Marrazkiak, bestalde, kalitate onekoak dira. Bi istorio haiek ez zuten jarraipenik izan.

1.2. Lehen komiki-sorta: *Teles eta Niko*

Lehenengo istorio-sorta Bilboko *Euzko-Deya* aldizkarian agertu zen. *Euzkeltzale-Bazkunak* 1916an sortua, lehen aroan (1916-1920), marrazkilari ezezagun batek Teles eta Niko ume koxkorren ibilaldiak kontatzen zituzten hamabi istorio argitaratu zituen, 1918ko apirilaren 16tik urte hartako azaroaren 16ra. Istorio-sortaren izena pertsonaiena zen, *Teles eta Niko* hain zuzen ere. Lehenago, aldizkariaren orrialdeetan beste istorio batzuk ere agertu ziren, 1916an, 1917an eta 1918an, baina ez ziren originalak, Caran d'Ache eta atzerriko beste marrazkilari ezagun batzuenak baizik. *Teles eta Niko* komiki-sorta azaldu baino lehenago, *Euzko-Deyan* beste istorio original bat agertu zen 1918ko otsailaren 16an, 45. zenbakian: lehenengo orrialdean, "Erantzun ederra" izenburupean, bederatzi binetetako istoriotxo bat


kontatzen zaigu. Kalitate eskaseko marrazkiak dira. Istorioa ere ez da beste munduko gauzarik: hauteskunde garaia dela eta, jauntxo bat nekazari batengana abiatzen da, botoa eske. Eman ez ezik, dio jauntxoak, nekazariak lurrak utzi eta alde egin beharko du. Erantzun xeblebre batekin dena konpontzen da. Zer esanik ez, testua marrazkien azpialdean agertzen da, baliabide grafiko edo literario berezirik gabe.




5.—Poliño irabazten eben, Teles eta Niko'k euraik itxandaa eben «Araio-Zulo»-guz. Hain, aberantzen diran gaitiak edo geyatuk iz, ezizen ase irabazi tsikiokaz. Nagazian getu biat ebela ota yaken, eta atzea begetatuk etreñen bez, zot eta zart ase ta beinguen sekondh eben zulu. Iruskesaz zan Niko'ren jorana, eskatirik, ukandoratu-issatu, lopetz-lokafi birjatz elau tsitakaz haino atuzgo...



6.—Teles'ek ataraten ebazan ari-pilua' igazoten.—Onenbeste dir' za, zot xingro yuztu Teles'—«Ara, Niko; zerjo itz egin biat dauzatu». Zulo.—Zana izul, ikaragari buruko itulak zintu eragotiko lokax batek ezatzen itza antzonen itz; eta in etla-eta bari gabiltaz emen ariak ari zilik, bi irakirik emetaren botuk jakin gurrako dabi, oyer, ezkonte-eridatu egiten ete-joyantat Teles.



7.—Zer zan, baltia, gertau zana? Ara: ari aodi bat etoren mendu-bera, birbilis-balanka, eta «Araio-Zulo»-ra joran artez-arte, itxuan plaut' eginda «Gaban gajulu»-esatikio usiez. Zulo-aufan eguan ari pilua' g'ulako estuan itxosora jausten eta ariji mikiak eziez «Barain jostak» esanda bertan geratu zan, zuluu bete-betian itxirik eta gure mutiak, preso, itxirako urteyera-barik. Ilusetan...



8.—...artepa, hain ez biñituz, ai zan gure Teles erreyera usudik eguzgo, Jaungas'ri eskarik. beko aidiak biñituz aurkitu eban, eta antxe gogof ekiltaz boyan zuluu auzera, hain zortinez beraz, eta euraik g'itijen tate ebeman urten ziran, bai: baltia ziora?—Itxosora. Korret aodi bates oratu euzan eta gure Teles eta Niko g'itxusak uruzatara urten ezirik ebiltzan. Korretis tuzer' eroyezan. (Jokio ete dira, ba?) (Jaralako dia)

“Teles eta Niko”, komiki-sorta bat (*Euzko Deya*, Bilbo, 1918)

Euskal Herrian, Espainia osoan bezala, europar komikiak hemengo marrazkilarientzat ereduak ziren, eta ez Estatu Batuetakoak, haiek urte hauetan, hain zuzen, ailegatzen ari baitziren: hala nola, Gustave Verbeek-ek 1903an sortutako *The Upside Downs* komikia 1906an hasi zen Madrileko *Monos* umeentzako aldizkarian argitaratzen (Martín, 1978: 52). Baliteke *Teles eta Niko*ren egile ezezagunak *The Katzenjammer Kids* ezagutzea, 1897tik William Randolph Hearst-en *The New York Journal* egunkarian agertzen zirenak. Rudolph Dirks-en komiki-sortan bezala, Teles eta Niko bi ume bihurri ziren. Baliteke, bestalde, *Euzko-Deyako* marrazkilaria Wilhelm Busch alemaniarraren *Max und Moritz* ere ezagutzea, zeinak *The Katzenjammer Kids*-en aitzindariak ziren. Busch-en lanik ezagunena 1865ekoa dugu.

Normalean, ume bikotearen istorioak lau bineta betetzen zituen, azpiko testu edo didaskalia banarekin. Hala ere, noizbehinka pertsonaien ahotik

balloon edo *globoak* ere agertzen ziren, esate baterako 1918ko martxoaren leko eta irailaren leko istorioetan. Azpiko didaskalien euskarri txikia baino ez ziren eta, oro har, ezin da esan marrazki eta *balloon*-ekin bakarrik istorioa uler zitekeenik, oraingo komikietan gertatzen den bezala. Gehienetan, gainera, ez zen horrelakorik agertzen. Berdin esan daiteke beste baliabide grafikoez. Oso gutxitan erabiltzen ziren. Argi dago testuak irudiek baino askoz ere garrantzi handiagoa zuela, eta, izatez, irudiak testuaren menpekoak ziren, ia-ia *aleluien* antzera. Hala ere, beldurrik gabe esan daiteke euskarazko lehenengo pausuak ematen ari zirela *Teles eta Niko* egiteaz.

1.3. Iruñeko kaputxinoen egitasmoa

Euzko-Deyaren saiakeren ondoren, bazegoen beste bat askoz serioagoa, hain zuzen euskara hutsez komiki-aldizkari bat kaleratzeko proiektua. Izango zatekeen Euskal Herriko lehenengoa, erdaraz ere ez baitzen horrelako ahaleginik gertatu, agian Madrilen egindako aldizkariekin nahikoa zelako: 1915ean sortu zen *Dominguín*, 1919an *Charlot*, zinemako pertsonaia protagonista zuena, eta, garrantzitsuena -gaztelaniaz komiki-aldizkari izena ere emango ziena- 1917an: *TBO*. Azken honek hasiera ematen die komiki-aldizkari andana galant bati: 1918an *Periquín*, *Historias infantiles*, eta beste batzuk agertu ziren, eta 1921ean *Pulgarcito* (Martín, 1978: 57).

1919tik sortu zen euskarazko aldizkari mordoak bultzatu zituen beren egileak komiki bat ateratzeko aukera kontutan hartzera. 1919an sorturiko euskal aldizkari haien bultzatzaileek, Iruñeko kaputxinoek, hain zuzen ere, Euskaltzaindiari umeentzako aldizkari bat kaleratzea proposatu zieten. Proposamena 1923ko maiatzekoa dugu (*Argia*, 1923ko maiatzak 13, 108. zenbakia). *Umeentzako euskal-ingitxo* hori ez zen inoiz agertu. Urte batzuk geroago, 1923an, kaputxinoek argitaratzen zuten *Zeruko Argia* aldizkariaren orrialdeetan komiki batzuk agertu ziren, Oterminek sinatuak.



Eboka, irakaslaria, masxa eguzkia atzeka beraz, bazkaldu ta gero ttipitapa dau. *Txomin-Ober* on alai ikusten, omi esateko jantziak isetan iru bitartean dute: somia ikasotara jantzeri, eta jantzeri onetik ibilken dato beti eskolerritik egiten.

Txomin-Ober'ek bere txakurtxu batzuek jolasatzen ditarduta, urunik ikusten dau irakaslaria ezarritan utzaten data, ta zoroer sismotzen dau.

Diraot osentzen dau zurrabazpilan.

Etzuan dau irakaslaria ta atian jolen dau.

Bere azpian dagon *Txomin-Ober*'ek, beste akzioerren bat esman dau ta, bere kolitorako dirio:

—Neure alari osateto oniala ikastetara jantzeri, eta zigorfa nayagijantzeri... Jfson, itxon apuf bat, ontxe ikasitok dok...!



Jolen dau ateko kisketat *Eboka*, eta —Atayan! Ber etzuda au:

Txomin-Ober'ek, zapitxi, zuloa baxatik, puzegaitan dau, jantzeri dauso ziri bat, zuzen orain *Eboka* ren eskuha jolen daua. Min andia egiten dau so, ta miratzen duaz, gorantz jantzi salto orain dauso, botan-otakak hurrea jantzi.

Bizirik, azpian dago *Txomin-Ober* bare botika, pozik ezaten zota baxta ona atotiko.

Txakur gixotua be, alde egiten dau ikarritu, baxazoz-pada.



Eboka gorantz hantze ginda, hurrea hurren dau jantzeri zota: Baxa zurrabaz-otek bitanok alai birindatzen dago gero irakaslaria ren ipurk-irritatze ta zoroer *Txomin-Ober* gixotua pozik, begira azpian, baxabaxa ikusien dau bere zotian *Eboka* ren gorputza.

Txomin en atak, entzun dau ateko zaratea ta nor dau ikasitok urritzen dau atara, ikarritu ta zelditxoen dau bere somieren irakaslaria ain baxegait ikusita.

Jantzeri jantzeri dau ta jaso daua, zigriten dabe berria *Txomin-Ober* ikusitaz. Belafijetatik ataraten dau bere zultik ta baxta darna.

Sosyeta ipinen dau bere zapatak *Txomin* en puzitua.

Gotzot bitan dau, *Eboka* ren auzian.

Tximiñua, ugabere-arapatzaia



1^a—Ibai-ondoko bere zuluau, ugaberiak eguzkia afrean dau hasai ta pozik. Tximiñua esaltuan dago, ugaberia arapatzeko gertu.



2^a—Alako batian part! kapela ezariten dau so, ta azpian dagotakuan, utabilka asten da.



3^a—Eta sakatu egiten dau so erime, birin-birin eginda izetko gurariz.



4^a—Orain pozik, ugaberia zelan zapaldu dau ikusteko, kapel-egaila polito jaso punta baxetik eta begira dago.







5^a—Baxa ugaberiak ikusten dau zulo-baxatik tximiñuaren egiza ta baxaten bultzada gogofa egiten dau gorantz, ta of dau tximiño gaxua antz-ozotz.



6^a—Eta itura gaizto ofetan ikusita, ugaberiak baxa-algara egiten dau tximiñuaren lepotik.

Ingelesez itzuli eta moldatutako komiki pare bat. *Euzko Deya*, 1916

Martin Potzolo



- (1) Martin Potzolo gizon lodia
meetu naiez ari da.
- (2) Gutxiena uste zuenean
Orra kupela gañean!

- (3) Jira ta bira kupel azplan
libill ondorean
- (4) Orra zein gizon luze, hirain, lerdena
Dagon orain, len Martin Potzolo zena.

2. *TXISTU*, EUSKAL HERRIKO LEHEN KOMIKI-ALDIZKARIA

2.2. *Txistu*, *Argiako*en egitasmoa

Euskarazko lehenengo komiki-aldizkaria, *Txistu*, 1927an sortu zen. Lehenago ez dago Euskal Herrian ez erdarazko ez euskarazko beste komiki-aldizkaririk. Esan bezala, ez dugu haren alerik ezagutzen. Badago, ordea, erreferentzia grafiko bat, nolabaiteko proba bat, *Argia* astekarian 1926ko apirilaren 18an, eta ongi asko ezagutzen ditugu komikia sortzeko pausoak, hurrengo lerroetan azalduko ditugunak (Díaz Noci, 1990).

Ahalik eta irakurle gehien lortu nahian, *Argiako*ek ezin zituzten umeak ahaztu. Astekaria irakurtzen zutenen artean, bazegoen dudarik gabe haur ugari, batez ere haiek euskaldunik alfabetatuena zirelako. Umeentzako irakurgai batzuk, beraz, sortu nahi izan zituzten *Argiako*ek. Lehenengo asmoak, aldiz, ez ziren dirudienez komiki bat ateratzekoak, hasiera batean *Txistu* ez baitzen komiki baten izena, pertsonaia batena baizik. Astekarian bertan umeei zati txiki bat eskaintzen hasi zitzairen 1926ko urtarrilaren 10tik; egun hartatik, irregulariki, *Txistu'ren txokoa* umeentzako atala argitaratzen hasi zen. Denbora-pasak -"hitz-nasketak" edo gurutzegramak, esate baterako- asmatu zituen gure "*Txistu*" misterioitsu hark; kirolak ere interesatzen omen zitzaizkion, pilota-txapelketak eta irteerak antolatu zituen, arrakasta gutxirekin dirudienez.

1926ko agertu zen *Argian* horri buruzko lehenengo aipamen zuzena. Gregorio Mujikak *Argiako*ek zuten asmoaren berri ematen digu. Hurrengo hilabeteetan *Txistu* kaleratzeko asmoa gero eta argiago azalduko zuten. *Txistuk* berak adierazten du nola Madrilera joan zen eta han bizi ziren euskaldun batzuekin harremanetan hasi zen.

Hurrengo pausoa laguntzaileak bilatzea izan zen. *Txisturen* proiektua gorpuztuz zihoan. Apirilerako, bazekiten nolakoa izango zen: hamabostean behin zortzi orrialde izango zituen komiki bat atera nahi zuten antza, horietatik bost edo sei marrazkiz beteak eta besteak asmakizun, irakurgai eta beste gauza batzuekin. Neurriak *Argiaren* laurdeneakoak izango ziren. Baina harpidedunak, dirudienez, ez zetozen, ez *Argiako*ek nahi adina behintzat. Bi mila harpidedun gehiegi omen ziren, kontuan hartzen baldin badugu gainera garairik hoberenetan *Argiak* berak 7.000 irakurle (harpidedun eta harpidedun ez zirenak barne) zituela. Horrek atzeratzen du *Txisturen* jaiotza.

2.3. Aton Alaizaren heriotza eta bestelako oztupoak

Txistu argitaratu baino lehenago oraindik beste oztupo bat aurkituko zuten bidean: asmoaren sortzaile bat hil zen uztailen: Aton Alaiza arabarra. Madrilan, ikasleak Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetara jotzera

behartuta (gure artean unibertsitaterik ez baitzegoen), bazegoen euskaldun kolonia bat nahiko indartsua. Gazte adoretsuak, gainera, Eusko Ikaskuntzak ere Madrilen delegazio bat sortu baitzuen. Espainiako hiriburuan gazte haietako batzuek euskara ikasi zuten, hala nola Aton Alaiza bezalako beste euskaltzale arabar batek, Andoni Urrestarazuk. Aton Alaiza berehalaxe lanari ekin zion Madrilen bizi ziren euskaldunekin, eta batez ere ikasleekin, urte batzuk geroago eta Alaiza hil ondoren *Agrupación de Cultura Vasca* bihurtuko zen elkarte baten sortzaileetarikoa bat izanik.

Alaiza berehala konturatu zen euskal kultura hedatzeko euskaraz idatzitako aldizkariak zuten garrantziaz. Madrilen euskal aldizkarien banatzeaz arduratu zen bera.

Aton Alaiza adoretsuaren heriotza *Txisturen* jaiotzean oztopo izugarria izan zen, baina ez oztopo bakarra. Diruaren eza arazo nagusia zen. Behin eta berriz "euskaldun aberatsen laguntza" eskatzen zuten *Argiakoek*. Azkenean laguntza ekonomikoa heldu zen. 1926ko uztailen bilbotar ezezagun batek dirua eman zien. Hurrengo hilabeteetan Eusko Ikaskuntzaren bidez Garteizek emandako diruaren parte bat jasoko zuten, irailaren 26ko alean esaten diguten legez: 100 pezeta hartu zituzten *Garteiz* izendatuko zen sarietan emateko.

2.4. Txisturen jaiotza eta ezaugarriak

Arauk kontuan hartzekoak dira; alde batetik haien helburuak azaltzen dituztelako, umeen artean euskaraz irakurtzeko gai zen irakurleri bat sortu nahi zuten, helduen artean aspaldidanik saiatu ziren bezala, ideologia ahaztu gabe. Eta, beste alde batetik, hizkuntzari, idazkerari zegokionez, gipuzkera zen, beti bezala, hautatutako barietatea.

Honek erakusten digu ezin argiago zeintzuk ziren *Txisturen* sortzaileen xede nagusiak: alde batetik, haien asmoa didaktikoa zen, komiki haurrentzako bakarrik zuzendua baitzen; bestetik, hizkuntzaren aldetik *Argian* egiten zuten bezalaxe, nolabaiteko barietate estandar bat ezarri nahi zuten, gipuzkera alegia.


Urrian beste laguntza ekonomiko bat jaso zuten, Alaiza zenaren lagunek bildua, beste 50 pezeta, bigarren sari bat, "Alaiza saria" izenekoa, eratzeko. 1927an, azkenean, lortu zuten aurreko urtean landutako ametsa betetzea: *Txistu* kaleratu zen. Baina, arrazoi zehatzak ez dakizkigu, oso ale gutxi agertu ziren.

Hala ere, honek guztiak erakusten digu zer nolako interesa zuten komikietan euskara inguruko munduan mugitzen zirenek, euskara bera bultzatzeko tresna ezin hobetzat jotzen baitzituzten. Ez hori bakarrik, euskaraz bideratzen zen ideologia ere zabaldu nahi zuten umeen artean -eta hau garbiago dago *Gastexu* eta *Poxpolin* kasuetan, biak jeltzaleengandik

hurbilak ziren komikiak-, Europako beste lurraldeetan egiten zen legez: gogora dezagun Belgikan, esate baterako, *Tintin* famatua 1929an hasi zela agertzen *Le Petit Vingtième* (*Le Vingtième Siècle* aldizkariaren umeentzako gehigarrian alegia), aldizkari katoliko batean, eta badakigu belgiarren ekintza asko eta asko hemengoek eredutzat hartzen zituztela, sindikalismoa adibidez. Erreferentzia moduan, esan dezagun *Txistu* kaleratu zen urte haietan Espainian batez ere bi komiki zeudela, *T.B.O.*, Buigas argitaletxeak 1917tik kaleratzen zuena, eta *Pulgarcito*, Barcelona-ko Bruguera 1921ean argitaratzen hasi zena. Katalunian ere komiki-aldizkari batzuk argitaratzen ziren, katalanez, *En Patufet* ospetsuena izanik. Primo de Riveraren diktadurapean Espainiako komikigintza bere gailurrera heldu zen. Estatu Batuetan, han non 1896an *The yellow kid* lehenengo komikia, R.F. Outcalt-ek sortua, William Randolph Hearts-en *World* egunkarian agertzen hasi zen, urte haietan ere komikiaren *booma* ikus dezakegu: 1919an *Snuffy Smith* eta *Thimble Theatre (Popeye)* agertu ziren, 1923an *Felix the Cat*, 1924an *Little Orphan Annie* eta 1929an *Tarzan*. *Mickey Mouse*, komiki pertsonaiarik ezagunenetariko bat aipatzeko, 1930ean sortu zen, *Txistu* baino hiru urte geroago, alegia. Garai hartan komunikabide guztiek egundoko garapena ezagutu zuten Ameriketara. Baita Europan ere. Euskal Herriko ekoizpen kultural, politiko eta sindikalak, besteak beste, eta baita kazetaritza/komikigintza, ez ziren fenomeno isolatuak, Europako beste lurraldeetan gertatzen zenari begira baitzeuden. Beraz, komiki bat ateratzeko momenturik egokiena ematen zuen.

Europa eta batez ere Ameriketako komikigintzarekin konparatuta, ezin genezake esan *Argian* 1926ko apirilaren 18an agertutako eredia oso ona zenik. Baina komikia bazen, Errepublika garaian *Argian* bertan prozesu autonomikoaren alde agertu ziren aleluak ez bezala. *Txistuk* bazituen komiki izateko galdatzen diren baldintza guztiak: testua eta marrazkiak osagai dira, bata ezin da ulertu bestea kontuan hartu gabe. Román Gubern-ek bere *El lenguaje de los comics* liburuan emandako definizioa hartuz gero ikusiko dugu nola *Txistuk* betetzen zuen:

Definimos los cómics como estructura narrativa formada por la secuencia progresiva de pictogramas, en los cuales pueden integrarse elementos de escritura fonética. El pictograma constituye históricamente la forma más primitiva de escritura y se define como un conjunto de signos icónicos que representan gráficamente el objeto u objetos que se trata de designar (Gubern, 1972: 105).



Txistu

Balloon edo "globorik" ez agertu arren (hitzak marrazkien azpian kokatzen ziren, didaskalietan), Txistu komiki oso bat zela esan dezakegu. Estructura narratiboa ere oso xehea zen: ipuintxo moduko bat baino ez zen, azkeneko ikasbidea eta guzti, kanpoko kontalari batek kontatua. Pertsonaia antropomorfitkoak agertzen dira, untxiak hain zuzen ere. Horietako bat -umearen pertsonifikazioa, alegia- txalupa batean

irteten da, amaren aholkuak entzun gabe. Larrialdi baten ondoren, hirugarren pertsonaia bat agertzen da, dortoka bat, ume-untxia salbatu eta amaren besoetara itzultzen duena. "Amaren esana egin" amaitzen da sei laukitan kontatutako istorioa. Ikuspuntua ere ohizkoa da oso: istorioan zehar kanpoko ikuspuntu bakar batetik begiratzen dugu gertatutakoa, eta inoiz ez pertsonaia batengandik edota beste ikuspuntu batetik. Pertsonaien ahotsa, adibidez, ez da inoiz ere agertzen.

Esandakoak, ordea, ez du esan nahi *Txistu* mesprezatu behar dugunik, lehenengo euskal komikia sortzeko asmoak hainbeste neke eta lan behar baitzuen eta, azken finean, sortzaileen helburua euskara hedatzea baitzen. Bestalde, Espainian egiten ziren komikiak ere oso antzekoak ziren.

2.5. *Txisturen heriotza*

Esan bezala, ez dugu *Txisturen* alerik ezagutzen. Batzuen ustez, hamabi bat ale agertu ziren 1927an. Gero, desagertu egin zen. Haren sortzaileen adoreak nekaezina ematen zuen: 1932an, aurreko porrota ahazturik, *Txistu* ume euskaldunen eskuetara berriro eramatea proposatu zuten. Baina bigarren asmo hau ez zen gauzatu. Bazirudien euskaraz komiki bat ateratzeko asmoek porrot egin behar zutela, ezagutzen dugun bigarren euskara hutsezko komiki-aldizkariak ere larrialdi ederrak igaro behar izan baitzituen. Isaac López Mendizabalen *Poxpolinez* ari gara.

3. JELTZALEEN KOMIKIAK

3.2. *Gastetxu*

Euzko astekariaren gehigarria zen. *Gastetxu Euzko* baino txikiagoa zen. Hiru kolorez (gorriz, berdez eta beltzez) egina, orri bat baino ez zen, bi aldeetan marraztua (bigarrena zuri-beltzez). Leku konkretua ezagutzen ez badugu ere, ziur dakigu beste inprimategi batean egiten zela. Dirudenez, *Gastetxuk* oso harrera ona izan zuen *Euzkoren* zenbait berriemaileri kasu eginez gero.



Gastetxu, Euzko aldizkarian argitaratutako komikia.

Gastetxu, lehenago *Argiako*en *Txistu* komikiarekin eta Iruñeko kaputxinoek asmatu zuten komiki baten proiektuarekin gertatu zen bezalaxe, umeentzako irakurte nahi zuten, haur euskaldunak irakurtzen zaletu eta ikas zezaten. Asmo didaktiko -eta ideologiko, *Gastetxun* jeltzaleen pentsamoldea baitago- horiek komikiei buruzko atalean aztertuko dugu. Dirudienez, Gipuzkoan ere komikiak ez zuen harrera epelik izan.

1933ko urtarrilaren 21etik *Euzko*ren azken orrialdean beste istorio batzuk agertu ziren, *Gazteluk* marraztutako *Peru-Malluki* izenekoa. Apirila arte kaleratu ziren, zuri-beltzez egindako istorio haiek baserritar baten ibilaldiak

kontatzen zituzten. Beste aldizkari batean ere agertu ziren historieta berdinak, *Jagi-jagin*.



“Peru Malluki”, *Euzko eta Jagi-jagi*

3.3. Euskara hutsezko bigarren komiki-aldizkaria: *Poxpolin*

Euskara hutsezko bigarren komiki-aldizkaria -*Gastetxu*, bakarrik saltzen ez zena, *Euzkorekin* batera baizik, ezin baitugu aldizkari independentetzat jo- 1935ean sortu zen Tolosan, *T.B.O.*tik ateratako istorio batzuek eta John Zabalo *Txikik* marraztutako beste batzuek osatzen zuten aldizkari berria. *Poxpolin* zuen izena. Jaio zen urte berean, Eusko Alderdi Jeltzalearen haurrentzako taldeen izen zuen komikia desagertzeko zorian egon zen.

Poxpolinek 1936. urte arte irautea lortu zuen, hilabete batzuk agertu gabe egon ondoren, 1935eko abenduan berriro argia ikusi baitzuen, Euzko Alderdi


Jeltzalearen Gipuzku Buru Batzarraren laguntzaz. Hala ere, poza gutxirako izan zen. Gerra hasi zenean, garai hartan euskaraz argitaratzen zen komiki bakarra, Gipuzkoako beste euskal aldizkari guztiak bezalaxe desagertu egin zen 1936ko uztailean.



Poxpolin, 1935



Poxpolin, 1935



Poxpolin, iragarkia

Euskara irratian

1. DONOSTIAKO IRRATIA

1.1. Euskal Herriko lehen irrattia

1925eko irailaren 29an Radio San Sebastián bere emisioak aireratzen hasi zen. Hura izango zen euskarazko irratsaioak emitituko zituen lehenengo irrattia, 1925etik Gerra iritsi arte. Sortzaile nagusia Sabino Uzelaieta Donostiako orduko alkateordea izan zen. Udalak turismoa bultzatzeko irratti bat jartzeko ideiarri ezetza eman ondoren, baimen bat lortu zuen eta EAJ-6 irrattia, Radio San Sebastián, eraiki zuen Igeldon (Garitaonandia, 1988: 34). Harrera ezin hobea izan zuen garai hartako euskarazko aldizkariak egiten zituztenen artean, bereziki *Argiakoek* ederki goraiatu zuten, hango bi idazlek izugarritzko lana egin zuten irrattian.

Argian irratiari eginiko harrera harrigarri samarra izan zen hasieran, beste komunikabide berri batzuei egindakoa ez baitzen hain ona. Esate baterako, zinemari egindakoa: *Euzkadi* filme propagandista egin zen arte, *Argiako*en iritzia zinemaren aurkakoa zen, agian hemengo zinemaren industria ahulak ez zuelako esperantza handirik eskaintzen, eta Euskal Herrian ikusten ziren pelikuletan atzerriko ohiturak erakusten zirelako. Ez zen batere arraroa haien jarrera: kirolekin ere antzekoa erakutsi zuten. Beraientzat, atzeritik zetorren guztia arriskutsua zen, bere irakurleak ere aldatzeko arriskuan zeudelako.

Baina irratiarekin ez zen horrelakorik gertatu. *Argiakoek* ikusi zuten herriarengandik hurbileko komunikabide bat bezala, nekazariei euskaraz hitz egiteko txit egokia. Radio San Sebastián hasi zenez geroztik, lehentxeago esan bezala, euskarazko irratsaioren bat emititzen hasi zen. Zergatik sentitzen zuten *Argiakoek* hainbestearainoko interesa? Arrazoi batzuegatik. Lehena, euskara zabaltzeko bide bikaina iruditzen zitzaielako.

1.2. Euskal irratiaeren ezaugarriak

Garai hartako programazio ia osoa musikala zen. Erlijioak ere garrantzi handia zuen. Euskaltzaleek ere irratia izan zezakeen garrantzia, euskara ez ezik katolikotasuna ere zabaltzeko, ikusi zuten.

Hirukote ideologiko honetan falta den osagaiak ere mintzo ziren, noski: euskara eta fedea aipatuta, nekazaritza bakarrik falta zen. Nekazariak behar adinako begirunea eta arreta zor zitzaiela zioten eta Radio San Sebastián-en arduradunei baserriarrentzako irratsaioak ere aireratzen eskatu zieten.

Esan dezakegu *Argi*koek bilatu zutela asmakizun berrirako izena. *Nabarritzarrak* berak adierazten zuen nondik zetorren irratia buruzko hitzak:

Irratizkiña zer dan? Ara, esango dizut, ene irakurle. Irratizkiña, erderaz radio emisora, ari-gabeko urrutizkiña dezu. Nik asmatua danik ez uste, ordea; ezta berri-berria danik ere; 1916'g. urtetik ona Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren iztegiak 653'garren orrialdean irratizkin radiografia edo marconigrafia dala idatzita dago-ta. Radio euskeraz esateko asmatu ere ezin diteke itz egokiagorik; nekazariak ezia irran ereiten dun bezela, irratizkiña ere itza irran alde guzietara zabaltzen bai du (*Argia*, 1925eko urriak 4, 233. zenbakia).

EL DOMINGO EN EL KURSAAL

Se efectuó con gran brillantez la centésima emisión euskérica de Eusko Gaztedia

Participaron el Eusko Abesbatza, la Orquesta Filarmónica y diversos notables artistas vascos.-El éxito fué innarrable, enviando los radioescuchas numerosas felicitaciones a los infatigables organizadores

| | |
|--|--|
| <p>La centésima emisión euskérica celebrada el domingo, radiada desde el Teatro del Gran Kursaal, constituyó, aparte de otras consideraciones sobre la calidad y carácter de estas manifestaciones de arte, un triunfo decisivo del gran Eusko Abesbatza. Ya en sus inter-</p> | <p>se los epítetos más elogiosos, sin hipérbolo; sólo por estricta justicia. El maestro Gabriel Oñativia merece todas las plácemes y el homenaje sumativo de los buenos aficionados al arte, y el reconocimiento de todos los patriotas.</p> |
|--|--|

Euskara irratian. Lehen urrats haien gelditzen diren aztarna bakarrak, prentsako aipamenak

Euskaldun askorentzat gauza berria bezain harrigarria zen euskaraz irratia bidez entzutea. Dirudenez, donostiarrek eta ingurukoek (tolosarrek, esate baterako) arreta handiz entzuten zituzten irratsaioak. Euskaldunen aurreko esperientziak, garai hartan ume koskor ziren batzuen lekuko izanik, Londresko BBC irratia entzutekoak ziren. Baten batek gogoratzen du nola bere aitona behin esan zuen Ingalaterrako hiriburuko kanpandorra entzun zuen galenazko irratia haletako batean. Aldi berean, Donostiako irratia kalitate handikoa omen zen, Carmelo Garitaonandiak azpimarratzen duenez (Garitaonandia, 1988: 34).



Joseba Zubimendi Igeldo menditik irratsaio bat egiten

Radio San Sebastián-ek euskarazko irratsaioak emititzen jarraitu zuen. Agian gogoratuena *Argian* idatzi ohi zuten Andres Arzelus *Luze*arrek eta Joseba Zubimendik 1932tik egiteari ekin ziotena da. Astero aireratzen zen programa hura. Dirudenez, Arzelusek eta Zubimendik pezeta bat ere ko-bratu gabe egiten zuten. Zoritxarrez, ez dugu irratsaio haien testurik ezagutzen; are gutxiago, noski, grabaketarik.

2. EUSKAL IRRATIA GERRAN

2.1. Euzkadi Irratiaren sorrera

Berdin-berdina gertatzen da Gerran Radio Bilbao-tik emititu ziren euskarazko albistegiekin. Matxinada ailegatu zenean, 1936ko uztailaren 18an bertan, Radio San Sebastián-etik Irujo eta Lasarte diputatu abertzaleek ohar bat irakurri zuten, Errepublikaren alde jartzen zirela adieraziz (Garitaonandia, 1990: 27). Gipuzkoako Defentsa-Juntak Unión Radio San Sebastián berehalaxe bereganatu, transmisorea desmuntatu eta Debara eraman zuten. Han Radio Euzkadi bezala emititzen hasi zen. Hamar egun geroago, Getxora eraman zuten, Bizkaia asaldatu enpenpe erori zen arte emititu zuen (Garitaonandia, 1987: 203).

2.2. Bilboko Irratia eta euskara

Berdin gertatu zen Radio Emisora Bilbaína-EAJ-28rekin: 1936ko irailaren 30an Errepublikaren aldeko agintariek bereganatu zuten. Bilboko Irratiak oso lan handia egin zuen, indar gutxi eduki arren. Irratiaren bidez jakin zuten Euskadiko biztanleek asaldatuak Gernika bonbardatu zutela, eta Eusko Jaurlaritzak ondo jokatu zuen irratia erabiltzen bonbardaketa haren garrantzia aireratzeko. J. M. Barandiaran, esate baterako, irradiaren bidez jabetu zen horretaz.

Eusko Jaurlaritza eratu zenetik, Bilboko Irratia euskarazko gauzak sartzen hasi zen bere irratsaioen artean. Hor daude, esate baterako, Jose Antonio Agirre lehendakariaren hitzaldiak, euskaraz eta erdaraz, garaiko egunkarietan aurki daitezkeenak. Lehenengoa 1936ko abenduan izan zen, Eguberriak gertu zeudelarik. Baliabide propagandistiko bezala ere erabili zuten: frentean bafle batzuk jarri zituzten asaldatuak ere entzun zezaten. Bigarrenengoa 1937ko apirilaren 8an izan zen, Bilbo faxisten menpe erortzear zegoela.

Baina guri gehien inporta zaizkigunak euskarazko albisteak dira: lehenengo aldiz, irratiaren euskaraz irakurritako berriak entzun ahal izan ziren. Eusko Jaurlaritza behin eratuta, eta Araudi edo Estatutua, zeinak euskara ere Euskadiko hizkuntza ofiziala zela azpimarratzen zuen, indarrean zegoelarik, Bilboko Irratiak euskarazko albistegiak aireratzeari ekin zion, 1936ko urriaren 28tik, bai EAJ-8 uhin arruntetik, bai 3-JP uhin motzetik. Garai hartako egunkarietan ikus daitekeenez, hiru albistegi zeuden: lehenengoa, emisioak hasi ziren momentuan, goizeko zortzi eta erdietan. Orduen seinaleekin batera, "Alas" izeneko irratsaio albistegiaren lehen edizioa hasi zen. Ordu erdiko irratsaioa zen. Goizeko bederatziatan edizioa ixten zuten hamabiak arte, musika eta ohar batzuen irakurketarekin. Ordu bietan "Alas" albistegiaren

bigarren edizioa hasten zen, espainolez eta euskaraz, ordu bi eta erdiak arte. Harez geroztik musikak betetzen zuen programazioa, hiru eta erdietatik zazpietara hutsik zegoela. Gauetz beste albistegi elebidun bat zegoen, hamabost minutukoa, hamarrak laurden gutxitik hamarrak arte. Zoritxarrez, ez da guregana albistegi haien testurik edo gidoirik heldu. Radio Bilbaok frantses eta ingelesezko beste bi albistegi aireratzten zituen, frantsesezkoa gaueko ha maika eta erdietan eta ingelesezkoa hamabietan, biak hamabost minututakoak.

Gainera, beste irratsaio batzuk ere ezagutzen ditugu Radio Bilbaoren sintonian (euskaraz Bilbao-ko Irradiotsa deitua), Eusko Jaurlaritzaren agindupean astero antolatutakoak. Dirudienez, gobernuko alderdi politiko banari eskaintzen zitzaion asteroko irratsaio hori. Bat ezagutzen dugu, A.N.V.-k edo Eusko Indarrak egin zuena, 1937ko apirilean. A.N.V.ren egunkariaren euskal atalaren arduraduna zen Bernabé Orbegozo *Otarbek* egin zuen, euskara gaia zelarik.

Esan beharrik ez, Bilbo asaldatuen menpe erori zenean, irratiaren bidezko euskarazko emisioak bukatu ziren. Beste gauza askorekin bezala euskarazko irratsaioekin zera gertatu zen: 30eko hamarkadan gorakada handia egin bazuten ere, urte batzuen buruan normalizazioraino ailegatu zirelako esperantza eduki ahal izatea zilegi zelarik, Gerrak ahalegin haiek guztiak hautsi egin zituen.

Euskal prentsa Gerra Zibilean (1936-1939)

1. EUSKAL PRENTSA GERRAREN LEHEN UNEETAN

1.1. Nafarroa

1936ko uztailaren 18an Espainiako Gerra Zibila piztu zenean, Hego Euskal Herria ere fase berri batean sartu zen. Horren ispilu, zer esanik ez, komunikabideak izango ditugu, erdarazkoak zein euskarazkoak. Garai berriak eta egoera bereziak euskarazko kazetaritzarako egundoko haustura ekarri zuen. Lehen unetik, Araba eta Nafarroa asaldatuen menpe erori ziren, eta haien aldekoa ez zen prentsa guztia desagerrarazi zuten. Haien artean, Nafarroan Euzko Alderdi Jeltzalearen *Amayur* aldizkaria eta Iruñeko kaputxinoek 1919tik argitaratzen zuten *Zeruko Argia*. Baita jeltzaleen aldeko egunkaria zen *La Voz de Navarra*, noizbehinka euskarazko testuren bat zekarrena, 1923an argitaratzen hasia eta Miguel Esparzak eta Joaquín Reta Bidegainek zuzendua. Jeltzaleen bi aldizkari haiek inprimategi berdinean egiten ziren, beren tirada parekoa izanik: 3.500 egunkariak eta 3.300 astekariak. *La Voz de Navarra*n idazten zuen noizean behin, adibidez, Enrike Zubiri *Manezaundik*.

1.2. Araba

Arabian, Nafarroan bezala, asaldatuak uztailaren 18an bertan jaun eta jabe bihurtu ziren. Gasteizen bi egunkari agertzen ziren: *El Pensamiento Alavés*, eskuinekoa, José Luis de Oriol jabe zelarik, eta *La Libertad*, Luis Dorao errepublikazale erradikalak (lerrouxista) eta bere semeek kaleratzen zutena, artean ere argitaratzen zen Arabako aldizkaririk zaharrena. Ez batean ez bestean ez zegoen euskararen arrastorik. *El Pensamiento Alavés* arazorik gabe mantendu zen; egun batzuk irten gabe falangistek *La Libertad* bereganatzeko bilakaera hasi zuten, 1937an *Norte* bihurtu arte. Jeltzaleek, dakigunez, ezin izan zuten egunkari propiorik eduki Araban, eta Bilboko

Euzkadin "Euzkadi en Alaba" izeneko atal bat, erdara hutsez, argitaratzen zuten. Atal hau desagertu zen uztailaren 18an.

1.3. Gipuzkoa

Desberdin samarra izan zen Gipuzkoako kasua. Bertan, euskarazko ekoizpena handia zen, beharbada Hego Euskal Herriko lurraldeen artean handiena. 1936ko uztailaren 18an matxinada ez zen inposatu hiriburuan, Donostian, baina egun batzuetan gatazkak gertatu ziren. Uztailaren 28an Loiolako koartela errenditu egin zen. Hamar egun haietan ez zen egunkari edo aldizkaririk argitaratu, ez eta *El Diario Vasco* ere, uztailaren 17an matxinada hasteko konsigna eman zuena (Luengo, 1990: 227). Egunkari guztiek utzi zioten kaleratzeari: *La Constancia* (integrista), *El Diario Vasco*, *La Prensa*, *El Pueblo Vasco*, *El Día* (jeltzalea, Ander Arzeluzek zuzendutako euskarazko atal bat bazeukana) eta *La Voz de Guipúzcoa* (errepublikazalea). Aldizkarien artean, *Gipuzkoarra* jeltzalea eta *Argia* desagertu ziren, Gipuzkoako beste guztiak bezala. Gerraren lehenengo hamar egun haietan irratia, hau da, Unión Radioren Radio San Sebastián, izan zen Gipuzkoan komunikabide bakarra. Uztailaren 19an militar asaldatuak ordu batzuetan hartu bazuten ere, gero errerepublikazaleek berreskuratu zuten (Garitaonandia, 1987: 27).

Uztailaren 27an egun bat lehenago eratutako Donostiako Defentsa Batzak edo Junta de Defensas erabaki zuen egunkari bakar bat argitaratzea: *Frente Popular*. Azpimarratzekoa da Defentsa Batzan gure ezagun bat bazegoela: E.A.J.ko Ricardo Leizaola, lehen Eusko Jaurilaritzan parte hartuko zuen Jesus Mariaren anaia, non *Argia* egiten zen, eta *El Díaren* gerentea. *Frente Popular* Defentsa Batzak bereganatutako *El Diario Vascoren* inprimategian egiten zuten. Noizbehinka, euskarazko artikuluren bat agertu zen. Gipuzkoa asaldatuen menpe erori zen 1936ko irailaren 13an, Euskadik Autonomi-Estatutua lortu baino lehenago. Momentu hartatik, Euskadi ia Bizkaia bakarrik izango da, eta, gure gaiari dagokionez, euskaraz argitaratzeko aukera Bizkaian bakarrik, Bilbon zehazki, egongo da. Gipuzkoar idazleak hara joango dira, baita arabar batzuk ere, eta egoera berezi hartan sortuko da euskara hutsezko lehen egunkaria: *Eguna*.

1.4. Hondamendiaren neurria

Gerraren lehenengo hiru hilabete horietan, honako euskarazko aldizkari hauek desagertu ziren: Nafarroan *Amayur* eta *Zeruko Argia*, Araban *Gure Mixiolaria* (Jose de Ariztimuño *Aitzolek* zuzendutakoa), eta Gipuzkoan *Antzerti*, *Anuario de Eusko Folklore*, *Argia*, *El Día*, *Eusko Langille*, *Igandeko Orria*, *Poxpolin* eta *Yakintza*. Bizkaian ere zenbait aldizkari

erlijioso eta kultural desagertu ziren: *Ekin*, *Euskera*, *Euzkerea*, *Karmen'go Argia* eta *Txistulari*. Aldizkari politiko batzuk ere bai, batik bat abertzale eskuindarrekin lotuak: *Bizkaitarra*, *Jagi-jagi*.

2. IPARREKO PRENTSAREN JARRERA GERRA ZIBILAREN AURREAN

2.1. *Eskualdunaren jarrera*

Hauxe zen Hego Euskal Herriko egoera. Bitartean, zer gertatzen zen Iparrean? Han ezin interesgarriagoa da *Eskualduna* astekariaren iritzia ezagutzeari. Jean Claude Larrondek aztertu du: hasieratik, Iparreko euskaldun eskuindarren jarrera Francoren aldekoa izan zen:

En 1936, el semanario *Eskualduna* [...] es la encarnación perfecta de la divisa 'Eskualdun-Fededun'. Es también la encarnación de un nacionalismo francés que se alimenta de los recuerdos de la 'gran guerra' de 1914-18 y de la exaltación de la mentalidad de ex-combatiente [...]. En los números del 9 de octubre y del 16 de octubre de 1936, la formación del Gobierno Vasco no es comunicada, es decir, que *Eskualduna* ha elegido ya su campo: el de un apoyo decidido a las fuerzas franquistas (Larronde, 1990: 317).

Eskualdunak ez du Gerrari buruzko editorialik argitaratuko, eta berriak ere laburrak izango dira. Dena den, bere jarrera argi eta garbi dago: Gernikako bonbardaketaren ondoren, lehenengo aipamena 1937ko maiatzaren 7an aurkitzen dugu (Gernika apirilaren 30ean bonbardatu zuten): "Molaren eskualdunek zaintzen dute arbola saindua" (*Eskualduna*, 1937ko maiatzak 7, 2. orrialdea). *Eskualdunaren* jarrera laburbilduta dago garai hartan bere euskarri nagusia zen Jean Ybarregaray diputatuaren hitzaldian, 1937ko ekainaren 11n argitaratua, eta Partit Social Français-en Batzarrean maiatzaren 23an ahozkatua: Francori erreserbarik gabeko laguntza eta abertzaleen kritika zorrotza, 1937ko uztailaren 2ko alean irakur zitekeenez:

Bilbaoko jendea alegera zen Francoren soldadoak ikustearekin [...]. Zer atsekabe guretzat eskualdunak ikustea, komunikatekin eskuz ikustea, trenza berak eskuetan, Francoren soldadoen kontra [...]. *Eskualdun* guziak eman balire Francoren alde, Gipuzkoakoak eta Bizkaiakoak, Alabakoak bezala iduri odol gutiago izanen zela Espainian.

2.2. *Aintzinaren jarrera*

Aintzinaren eragina ez zen *Eskualdunarena* bezain handia, ezta gutxiago ere. Pierre Lafitteren zeregina azpimarratu behar da, Hegotik zetozen errefuxiatuen aldeko lan nekaezina egin baitzuen (Larronde, 1990: 312).

Aldizkariaren jarrera anbiguo samarra izan zen, ordea. Kontuan hartu behar dugu, gainera, *Aintzina* P.N.V.tik gertu zegoela, nahiz eta estuki lotuta egon ez.

3. Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko euskal prentsa

3.1. Estatutuaren etorrera

1936an Errepublika osoan zehar eskatutakoa lortu zuen Euskadik: Autonomia Estatutua. Gerran izan zen, eta egoera berezi batean. Alde batetik, nahiz eta Euskadiko agintaritza izan, bere boterea Bizkaian bakarrik indarrean egon zen, Araba eta Gipuzkoa ia osoak asaldatu menpe zeudelarik.

Gerra egoera ikusita, Euskadirentzako Estatutu baten eginbideak arin-arin egin ziren Madrilen. 1936ko otsailean Frente Popularra hauteskundeetan garaile suertatu ondoren, bazirudien Madrileko Gorteetan Estatuturako bidea ireki zitekeela. Frente Popularraren egitarauan bazegoen Estatutuaren aldeko jarrera, abertzaletasunari errebindikazio eskusibo hori kentzeko edo (Fusi, 1979: 131). Indalecio Prietok, Estatutuen Komizioaren presidentea izendatuta, Euskadiri Araudia emateko lanak hasi zituen apirilean. Uztailean Gerra piztu zen, eta E.A.J. Errepublikaren alde jarri zen. 1936ko urriaren lehen Madrileko Parlamentuak onartu egin zuen Euskadiko Araudia edo Estatutua.

Urriaren 7an, Bizkaiko Foru Aldundian bilduta, asaldatu menpe ez zeuden Euskadiko herrietako alkateek E.A.J.ko Jose Antonio Agirre Euskal gobernuko lehendakaria hautatu zuten. Berehalaxe kontzentrazio-gobernu bat osatu zuen, indar demokratiko guztiekin, C.N.T. izan ezik: P.N.V.-E.A.J., A.N.V., errepublikanoak, P.S.O.E. eta P.C.E. Gehienek bere komunikabide propioa izango zuten. Abenduan bahitura edo inkautazio-politika hasi zen: *El Pueblo Vasco*ren inprimategian A.N.V.ren *Tierra Vasca*, 1934tik kaleratzen ez zena, P.C.E.ren *Euzkadi Roja*, lehenago Donostian argitaratzen zena, eta *Unión* errepublikazalea inprimatu ziren. 1937ko martxoan Eusko Jaurlaritzak *La Gaceta del Norte*, *El Nervión* eta *El Noticiero Bilbaíno* inkautatu zituen. *La Lucha de Clases* eta *Lan Deya*, 1933tik agertzen zen E.L.A.ren organoa, inprimatu ziren *La Gaceta*n. Anarkistek aldizkari bat atera ahal izan zuten, *CNT del Norte*, *El Nervión*en inprimategian. Eta komunistek *Euzkadi Roja* kaleratu zuten, egunkari bihurtuta, *El Noticiero Bilbaíno*n, nahiz eta C.N.T.koek protesta egin eta argudiatu egunkari hori Gerra baino lehenago eresia zeukatela

(Garitaonandia, 1990: 30). Komunistek ere beste aldizkari bat argitaratu zuten, guri interesatzen zaiguna, elebiduna baitzen: *Erri* astekaria.

GURE EUZKERIA

Nere biota oso portua arkitzen da ihastean Bilbo maitagarri obetako lapuragi edo aperiódicos geyenetzin nekazari arazoak leku berezi bat badaela, eta nekazari geyetaz asko idazten dela.

Badurdi Euzkadi bere burua suzanduteko, sekulakide printza bat bereganatu duenari, bertako semeak, zuzendari eta zuzendak konfuzioa diradela bere ikasituen jaurria nekazaria eta nekazaritza dela.

Nekazaria bezala, nere sorien ageririk beroena eta maitagarrena bada, nekazari arazoetaz dardem dardem denon.

Ni ere amen gator zuek ari dazuten lan orralan, erik baretik, nere adimen eta alimen laburaz chin, zuzeri laguntzeko, nere indar zibros jarri nabea. ¿Uzko al da dardem sail oretan sartzen? Nik bayeta uzte.

Egunero irakurtzen ditut nekazari geyetaz argitaratzen diraden ala bat irakurgai eta nere biota auzetan dutezale denak. Batuek, eta oyak geyen bat, hit egiten dute nekazarien alkatzeaz; beste batuek, nekazarien lanegun etz beste batuek nekazarietk ikasi beaz duenaz eta onala boete era askotan.

Irakurgai oyak denak gustu atzetzetik makalarik arantzaz zorrotz baretik sofoyk eriz batean sartuta egon odooren, atzetatean gelditzen dan mamia uzten dituzte nere biotzean.

¿Zer dela ta? Euzten det irakurgetz oyak, denak ez bada ere, atzeritarren jakuntzan (erderaz) ikazirik diradela.

O, tar B. mendizale Irungit eta besteren bat edo beste kenda ezkerre duenak ihastean ditut. Nere ustaz, nekazarien biotz eta adimenez gure erakutsi eta almozak erakuteko, berak bere sendi eta lagunartean erabaltzean duen ikazitaz hitz egin biar dioguz; eta au agin biar degu, beste arazoak nekoren artien, bi abek gatik; bala, berak odo uertu dezan sar irakurtzen duen; eta bestia, nekazarietaz biotzean eman deguz, arako, orain arte lan ez duen ikazidopen ure, ney dan, bere bialkera gogorra biguntzeko eta berari bititzen laguntzeko alagintza diraden anayak bageradela.

Arao onetan zer ikaz ederra eman digute Nekazarieta Zaingo'ko agintariak bertako lege eta aginduen berri emateko argi atzetatean dudan ikazidopena «EREINTZA» rekin; Zuzendari oyeri bijokite nere eskerririk bereotak boren erakutsi ederragatik. Nik uzte det bertan degula leku egokia Nekazarieta'ko arazo ezaz gure bitziak agertuzteko; au agintirik, baretik nekazariari erakutsiriko dioguz erin lezakiaz, eta bestetik garai berrian jarriko diraden ikazidopen Nekazarieta Zaingoak ematen dituen aginduz derak, izaten geradela «EREINTZA» apain orten ta bitziak.

Baita ere amen degu eguneroko egokia dan «EGUNA» gustu atzekeraz argitaratzen dana; eguneroko eman bidex zabaldu dituzteko gure ipiti denak, nekazariak beren sendietan irakurtzen ditelarik, lur landuan egiten dan azia beala ikaz dedin.

Euzkeraz ikazteko esatean, ez det aian pal erderaz ez dala idazti beaz; ez gure beste adere; jarritu geyenotela orrala ikazten, bafan au geyen bat lan dedin bialatzenat oyak ere jakin dezan gure gogorra eta gutxi antzaketat artia lan dan, bertako agintarietaz aldetik Euzkadi'ko nekazaria.

Itz egin araguz, bada nekazariari euzkeraz, baretik obetako uertu dezan esaten araguz, eta bestetik lanego bion bezala, bere biotzean sofitu az deguz arako erderaz antzipatia esaten araguz gure eta; bestetik berri, izanik nekazarietk gure ikuntza traktu eta maitagarri au, gure etimyan arako dematetik orain arte gure duen kutxa gurgarria, bere amafietan egun eta ure dezentan erabaltirik, ikazitak izanex dezanen urra, nekazaria erakutsituen.

Ara baiden agerri nere bitzi, nere denak bezala beira, bafan gure au gure bitziarin agerria.

KZTANDA

Tierra Vasca Gerra Zibilean eta euskara

4. GERRA ZIBILEKO ALDIZKARI BERRIAK

4.1. *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*

Euskal gobernuak bere egunkari ofiziala izan zuen, lege eta arauak euskaraz eta erdaraz argitaratzen zituena: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* 1936ko urriaren 9tik 1937ko ekainaren 16 arte agertu zen, egunero. Bi zutabetan, ezkerrekoan erdaraz eta eskuinekoan euskaraz, jakinarazi zituen Eusko Jaurlaritzak bere agente, lege eta arauak.

Eusko Jaurlaritzak hautatutako euskalkia gipuzkera zen, agian Justizia eta Kultur sailburua, Jesus Maria Leizaola, gipuzkoarra zelako. Kontuan hartu behar dugu, bestalde, itzultzaileak Jesus Insausti tolosarra eta Fausto Leunda zirela. Beste batzuek Josu Azkue Tolosako epailea ere lan horretan aritu zela diote (Lobera, 1995: 29).

4.2. *Euzko-Deya*

Nazioartean Eusko Jaurlaritzaren informazioa emateko sortu zen 1936ko azaroaren 29an, Parisen, *Euzko-Deya. La Voz de Euzkadi*. Zuzendaria Felipe Urkola zen, Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariaren zuzendari ohia. 1936ko Gerra piztu zenean, Frantziara erbesteratu zen, Rafael Pikabearekin batera. Euskal gobernuaren eratu zenean, bulego bat antolatu zen Parisen, Urkola buru zelarik. *Euzko-Deya* astekaria zen, sei orrialde izaten zituen, eta gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz idatzia zen. Bere helburua zen euskal gobernuaren informazioa eta propaganda zabaltzea, Gerraren bere bertsioa emanez. Esate baterako, eta euskarari dagokionez, berehalaxe informatzen dute asaldatuak Gipuzkoan sartu bezain laster hizkuntzaren debekuari buruz (*Euzko-Deya*, 1937ko apirilak 22, 42. zenbakia). Gernikaren bonbardaketari buruzko bertsioa ere jaso zuen *Euzko-Deyak*. Euskarari dagokionez, esan daiteke Hego eta Ipar Euskal Herriko euskalkiak, batez ere gipuzkera eta lapurtera, elkarrekiko harremanak hasi zirela *Euzko-Deyaren* orrialdeetan. Euskaraz oso gutxi idazten zen, ordea, astekariaren %10 baino ez. 1940. urtera arte iraun zuen Parisen, II. Mundu Gerra piztu arte, alegia. Euskal gobernuaren erbesteratuta, beste *Euzko-Deya* bat argitaratu zen, Londresen, 1938an, osorik ingelesez. II. Mundu Gerraren ondoren, Mexikon eta Ameriketako beste hiri batzuetan argitaratu zen.

4.3. *Ereintza*

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak aldizkari bat argitaratu zuen euskara hutsez: *Ereintza. Euzkadi'ko Nekazaritza Zaingoan entzukia*. Nekazaritza Sailean A.N.V.ko Gonzalo Nardiz zegoen, bera ere euskalduna. A.N.V.k lehenagoko *Tierra Vasca* Gerran berriro argitaratzeari ekin zion. Noizbehinka euskarazko artikuluren bat agertzen zen. Irratian ere euskaraz zertxobait egin zuten A.N.V.koek, batez ere alderdi horren kazetaritza-proiektuetan ibilia zen Bernabe Orbegozok. Bera izendatu zuten *Ereintzaren* zuzendaria. Nekazaritza Sailean hirurogei bat funtzionario zeuden. Idazkari nagusia Telesforo Uribe-Etxebarria, zuzendaria Koldobika Eleizalde eta J. Basterretxea arazo burokratikoaren zuzendaria zen. Pentsatzekoa denez, aldizkariaren mamia nekazaritzari buruzkoa dugu. Irakurleak, beraz, nekazariak ziren; Bizkaiko luginak, azken buruan. Horregatik arazoak sortu

ziren euskalkiarekin, *Ereintzan* gipuzkera nagusi baitzen. Bigarren zenbakian Orbegozok erantzun behar izan zien *Euzkaditik* zetozen kritikei: Gerrak sortutako egoera bereziak behartuta, idazle gipuzkoarrak eta bizkaitarrak bildu ziren Bilbon, eta bi euskalkien arteko ezberdintasunak gainditu behar ziren nolabait. A.N.V.k, dakigunez, euskararen batasuna nahi zuen.

Aldizkarian Nekazaritza Zaingoko aginduak argitaratzen ziren, beti euskaraz; nekazariei interesa zekizkien gaiak ere *Ereintzaren* orrialdeetan nagusi dira. Aldizkariaren bultzatzaileen asmoa, dirudienez, "ez da inola ere politika egitea. Guk politika bat bakarrik nai degu nekazariarentzat, berari mesede egitea [...]. Emen aterako dira Nekazaritza Zaingoan aginduak, emen aterako dira ere Nekazaritza-Abere eta Mendi Zuzendari jaunak iritziak", lehen zenbakian diotenez. Baina politikan ez sartzea ezina zen; A.N.V.ren eta E.L.A.ren aldeko testuak nonahi agertzen ziren. Sindikalismoari dagokionez, nekazarien batzearen alde jokatu zuten beti. Luginen lanbideari duintasuna eman beharra zegoen: nekazaritza-ikastolak eratzeko deialdiak ia zenbaki guztietan agertzen ziren. Nekazaritzaren alderdi teknikoak ere aipatzen ziren, eta kultur arloko zenbait gauza ere bai: bertsoak, esate baterako. Irudiak ere argitaratzen zituzten, ohi zenez, alderdiak eta nekazaritzarekin zerikusia zuten gaiak. Aldizkaria, aldizkatasun zehatzik izan ez zuena (bost ale ezagutzen ditugu, azkena 1937ko apirilaren 15koa, gero gehiago argitaratu zirentz ez dakigularik), Jaungoiko-Zale'ren Irarkolan inprimatzen zen, Gerrarekin batera *Ekin* desagertutakoan. Hasieran hamabostekaria izan nahi zutela aldarrikatu bazuten ere, ezin izan zuten bere asmoa bete. Aldizkaria, dirudienez, dohainik banatzen zen.

4.4. *Euzkadiren* euskal atala

Alderdi politikoei dagokienez, lehen bezala abertzale jeltzaleak dira aldizkari elebidun gehien argitaratu zutenak. *Euzkadi* egunkarian euskal atala zegoen, 1936. urte osoan lanean jarraitu zuelarik. Tomas Agirre *Barrensorok* zuzentzen zuen atal hori Gerra ailegatu baino lehenago. Gipuzkoa asaldatuen menpe erori ondoren, hango euskarazko aldizkarietan idazten zutenek Bizkaira joan behar izan zuten. *Euzkadin* ere lehen baino gipuzkoar gehiagoren izenak agertzen hasi ziren. 1936ko abenduan, paper eskasia zela medio, egunkari guztiek orri gutxiago argitaratu behar izan zuten. *Euzkadiren* euskal atala desagertu eta *Eguna* kaleratzen hasi zen.

4.5. *Gudari*

1936an *Gudari* bat sortu zen. Aldizkari elebidun jeltzalea dugu, *Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra* lemapean. Lehenengo zenbakia 1936ko

azaroaren 4ean agertu zen. Euskaraz eta erdaraz idatzia zen, erdibana gutxi gora-behera. Euzko-Gaztedi eta Euzko-Gudarostetik hurbil zegoen astekaria dugu, gerra gai nagusia eta ia bakarra zeukana. Kazetaritza-ezaugarriei dagokienez, oso interesantea da: titular korrituak, argazkiak, esloganak agertzen ziren. Informazio asko eta asko eman zuen, eta baliteke *Lauaxeta* bere sormenaren atzean egon.

Izen berdineko beste aldizkari bat argitaratzen hasi zen 1937ko martxoaren 6an. Kalitate oneko aldizkaria, argazkiz betea (Ojanguren, Antzola eta Etxeberriarenak), *Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra* zuen lema. Bere azpтитulua *Revista Gráfica Semanal de Euzko Gudaroztea* zen. Beste *Gudarian* informazioa nagusi bazen, honetan osagarri grafikoek protagonismoa dute. Testuak erdaraz, gehienak, eta euskaraz (%10 gutxi gora-behera) idazten ziren, noizbehinka frantsesezkoren bat eta katalanezkoren bat ere agertzen zelarik. Testu gehienak propagandakoak ziren, eta euskarazkoak literarioak izaten ziren, gehienbat olerkiak. Euskarazko testuak, besteak beste, *Lauaxetak* (bere testu batzuk erdarara itzuliak izan ziren), Jesus Intxausti *Uzturrek*, Inazio Eizmendi *Basarrik* eta Andoni Urrestarazu *Utarrak* sinatuak ziren. Dakigunez, Esteban Urkiagak hil arte zuzendu zen *Gudari* hau. Azkeneko alea 1937ko ekainaren 7koa dugu.



Año | Bilbao, 4 de noviembre de 1936 | Núm. 1 | Precio: 15 céntimos

Geure agurra

Geure buruzkaria eta agura, izan behar Euzko-Gudarostearentzat. Euzko di-... (Text continues with political and military commentary)

Al nacer

Un nuevo semanario nacionalista damos hoy al publico. Nos vemos precisados al tratar sus temas a adoptar un modo... (Text continues with a manifesto or editorial)

"Guda" Gudaraien klinkitza

Beiti eterran izan da guda borotik di-... (Text continues with a poem or short story)

Makurra erortik dator... (Text continues with a poem or short story)

Enen, Gerdik'a duden gudarai-... (Text continues with a poem or short story)

UN VERGONZOSO ASUNTO DE ESPIONAJE... (Text continues with a news report or editorial)

Gerdik'aik. AITZA.

"Donostia'n berf, bada Nabeta'n"...

A TODOS CUANTOS CON EL FRENDO DE SUS VIDAS...

A LOS CAIDOS EN LA LUCHA... (Text continues with a notice or advertisement)

4.6. *Erri*

Komunisten aldizkaria zen *Erri*, erdarazkoa eta euskarazkoa. Ale guztietan euskarazko testuren bat agertu zen. Ez da harritzekoa, aldizkariako komunista gehienak gipuzkoarrak -eta euskaldunak- baitziren. Donostiako *Euzkadi Rojan* ere, Gerran eta Bilbon egunkari bihurtu zen horretan, noizbehinka euskarazko testuak agertzen ziren. Euskaldunon hizkuntzaren presentzia asko gehitu zen *Errin. Erri. Política, economía, ciencias, información* astekariaren lehen zenbakia 1937ko urtarrilean argitaratu zen, eta azkenekoa, 21.a, 1937ko ekainaren 5ean. Komunistek bazeukaten euskal gobernuan partaide bat, Juan Astigarrabia, Garraio sailburua. Berak idatzi zuen, gipuzkeraz -*Erriren* euskarazko testu guztiak gipuzkeraz idatziak ziren- lehen aleko testu bat, Hitler eta Alemaniako egoera larriari buruz. Beste testu guztiek oso kutsu politiko, doktrinario eta iraultzailea zuten, lurra bereganatzearen alde, esate baterako.

Askotan Lenin, Stalin, Nelken, Dimitroff eta Bakuninen aipua agertzen ziren, euskaratuak. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna edo, garaiko hizkera erabiliz, "Soviet-Erkal Batzendiko Erridi edo Nazioak", asko agertzen zen euskarazko testuetan. Euskadiko komunistentzat Espainiako Gerra Zibila Iraultza egiteko bide bat omen zen. Informazioa, dirudienez, *Euzkadi Rojarentzat* uzten zuten, eta mami ideologikoko testuak, aldiz, *Erri* aldizkarian agertzen ziren.

Osagarri grafikoek garrantzi handia dute. *Gudarin* bezala, kolorea erabili zuten, baita argazkiak ere. Hizkuntz ereduari dagokionez, neologismoz josita zegoen, eta idazkera ere zaila zen. 2. zenbakian agertutako olerki batean, esate baterako, honako hitz hauen esanahia argitu behar izan zuten: "Arrea- Persistente, pródigo en la alta Guipúzcoa", "Agoi-tzarra- gran crisol donde se funde el metal" eta "Ijelía-Manipulación del metal en fusión". Aditx trinko asko ere erabili zuten: "dasagu (esaten dugu)" esaterako. Agian mundu berriarekin batera hizkuntz eredu idatzi berria ere proposatzen zutelako.

SIETE de Noviembre de mil novecientos diez y siete
El pueblo ruso rompe, con gesto heroico, la podrida envoltura zarista que le oprimía, dando origen a una civilización nueva, cuyo fundamento es la felicidad de los hombres y la libertad de los pueblos.

Siete de Noviembre de mil novecientos treinta y seis. Euzkadi, la tierra de los vascos, dedica sus esfuerzos, con energía titánica, a romper también la caparazón que quiere derrumbar en su origen la felicidad de su pueblo y la libertad de sus hombres.

«Euzkadi Roja», resumen a un tiempo, de los anhelos vascos y proletarios de todo el mundo—por eso es «Euzkadi» y por eso es «Roja»—al conmemorar la fecha histórica, resalta la consigna actual: ¡Vencer! ¡Vencer! ¡Vencer!



MILLA bederatzi eun eta amazpi gfaenurtea.
Urteko az-aroren 7'an Eñusi-efiyak, bere muskirio kementsuenakin, estutzen zuan Zarist-andel (envoltura zarista) uztela ausirik, gizonen zoriona ta eñyen askats-una kinaltatz ditun eñ-altzunde beñi bati sorkundea eman zion.

1936 urteko-Az-aroren 7'an Euzkadi, euzkoen eñiyak, ere, gizonen zoriona ta eñiyaren askatz-una bere sorkundean amill-arazi nai ditun andel eztunkera austeko, eñaldoyen indalez, eñihal guziak dagizki.

«Euzkadi goñiyak, euzku-intzirien ta mundu, edo, ludi esoko beartuen bildegi erabat izanik, eta bi kingo oekatik «Euzkadi» ta «Gofi» dala, garai edestikiñ oek goraintziak beren adirazpena damaigu: «Garai-garai-garaitu».

5. EGUNA, EUSKARAZKO EGUNKARIA

5.1. Egunaren sorrera

5.1.1. Jatorria: Euzkadiren euskal atala

Gerra hasi baino lehenago, *Euzkadiren* euskal atala beste azpiatal batzuetan banatuta agertzen zen. Informazio garrantzitsuak beti erdaraz agertzen ziren, eta ezin dezakegu euskal atala erdarazko egunkariaren barruko beste egunkari txikiagoztat hartu. Baina bazirudien egunkari bihurtzeko elementu batzuk bazeudela. Gogoia ere bai: ikusi dugu nola 1932an euskara hutsezko astekari bat sortu zen, *Euzko*, egunkari baten ezaugarriak zituena.

Euzkadiren euskal atala egunkariaren azkeneko orrialdean egoten zen. Atal honetan herrietako albiste asko, edo euskal kulturari zegozkionak, sartzen ziren. Artikulu politikoak ez ziren maizegi agertzen euskal atalean. Gerra piztuta, euskal atalak bere horretan jarraitu zuen: informazioa egunkariaren beste erdarazko orrialdeetarako erreserbatzen zen. Euskarazkoetan ez dugu Altxamenduari buruzko berririk 1936ko uztailaren 22 arte. Hala ere, euskarak euskal atalaren gai nagusia izaten jarraitzen du. 1936ko uztailaren 24tik atalaren arduraduna zen Tomás Agirre *Barrensorok* idatzi ohi zuen "Gayak" ataltxoan Gerrari buruzko berriak ematen hasi zen. Gerra, argi dago, euskal atalaren ezaugarriak aldatzen ari zen. Abuztuan *Euzkadiko* euskal atalean beste ataltxo bati hasiera eman zion: "Matxinada-izparrak-eta". Harez geroztik, ia egunero agertuko ziren Gerrari buruzko berri labur horiek.

Irailaren 15etik argazkiak agertzen hasi ziren euskal atalean; egunkariak zituen sei zutabetik hiru betetzen zituzten. Balio informatiborik gabeko argazkiak izaten ziren, Gipuzkoako alderdien irudiak jeneralean, beharbada Gipuzkoatik etorritako jendeari adorea emateko. Gipuzkoarren sinadurak gero eta ugariagoak ziren euskal atalean; *Euzkadin*, non bizkaieraren nagusitasuna ia osoa zen, bi euskalki hasi ziren elkarrekin bizitzen.

Urriaren 10ean, euskarazko orrialdeak Agirre lehendakariaren hautaketaren berri eman zuen. Hilabete haren 18tik, *Ogoñopek* beste atal berri bati hasiera eman zion: "Guda-oñetako izparrak". *Basarrik* ere Gipuzkoako aldizkarietan argitaratu ohi zuen "Neure bordatxotik bildutako sortatxoak" berriro idazteari ekin zion.

5.1.2. Eguna sortzeko lehen pausoak

Azarotik euskal gobernuaren erabakiek eguneroko leku bat izango zuten. Baina abenduan hasi ziren *Euzkadiko* euskal atalean benetako aldaketak

nabaritzen. Diseinuaren aldetik, eta Bizkaiko egunkari guztiek titular korrituak eta bestelako baliabide tipografikoak erabiltzen zituzten bitartean, euskal atalak neurri handi batean Gerra aurrean zeukan itxura berdinarekin jarraitzen zuen. 1936ko abenduaren 6an sei zutabeko idazpuru edo titular bat argitaratu zuten euskal atalean: atal berri bati zegokion "Euzkadi'ko guda-otsak". Egoera latz berriak eskatzen zituen baliabideak ematen hasi ziren *Euzkadiko* euskal kazetariak.


1936ko abenduaren azken egunetan, paper-murrizketa bat agindu zuen gobernua. Abenduaren 29an euskal atala beste sekzio berri bat argitaratzen hasi zen: "Euzkadi'ko errijetako izparrak". Euskal orrialdea, Gerrak bultzatuta, mikro-egunkari informatibo bat bihurtu zen. Benetako euskara hutsezko egunkari bat kaleratzeko ordua zen. 1937an, *Euzkadiren* orrialdeak murriztuta, ez zen berriro argitaratu euskal atala, euskal egunkaria bilakatuta. Euskarazko beste orrialde bat agertu zen Bilbo asaldatuaren menpe erortzear zegoela, 1937ko ekainaren 16an.

5.1.3. Egunaren jaiotza

Egunaren lehen zenbakia 1937ko urtarrilaren lehen argitaratu zen. 1936ko gabonetan, Manuel Ziarsolok, *Euzkoren* zuzendari ohiak, Agustin Zubikarai idazle gazteari (21 urte zituen) adierazi zion euskarazko egunkari bat argitaratzeko agindua jaso zuela, beharbada *Lauaxetarengandik*.

Eguna Euzkadiren inprimategian egin zen, eta bulegoa lehen *Excelsius* kirol-egunkariarena izango zen. Gero euskal gobernua bereganatutako *La Gaceta del Norten* egin zen, *Lan Deyarekin* batera. Angel Aurrekoetxea takigrafoak hartzen zituen irratiko berriak, eta *Euzkadira* ailegatzen zirenak ere aprobeztatzen zituzten *Egunaren* lau kazetariak, itzulpen lana egin behar izan zutenek: Zubikaraiak berak, zuzendariorde lana ere egiten zuena, Erkiagak, Arizmendiarrietak eta Alexander Mendizabal mutrikuarrak. Beste batzuk hor zebiltzan: *Basarrik* bere testuak bidaltzen zituen, *Uzturrek* ere bai.... Aurreko euskal aldizkarietan ibiliak ere hor zeuden: Zirilo Arzubiaga *Ekinekoa*, Ondarroako Jose Ituarte, *Abeletxerekin Euzkoren* zuzendaritzan trebatua, Imanol Enebia (*Uribitarte'tar Ibon Euzkadin*, *Argian* eta *Euzkerean* Gerra aurrean euskarazko testuak argitaratzen zituen), *Argiako* Txomin Arruti eta Ander Artzeluz, Federiko Belaustegigoitia, eta abar. *Eguna*, Gerra zela eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal idazleen elkargunea bilakatu zen. Arabako batzuk ere hor zeuden, Andoni Urrestarazu (*Utarra*) adibidez, lehenago *Euzkerean* eta *Arabarran* bere kazetaritza lana garatu zuena. Argi zegoen *Euzkadiren* euskal orrialdea *Eguna* bilakatu zela, *Euzkadin* bertan 1937ko martxoaren 4ean Mario de Mendiorlegik baieztatzen duenez: "Aparece EGUNA, magnífica ampliación de la página euzkérica de

EUZKADI con seis páginas repletas de artículos rebosantes de sentimiento patriótico".



Goitik behera eta ezkerretik eskubitara: J. M. Arizmendiarieta, Tomás Agirre Barrenso, Eusebio erkiaga eta Inazio Eizmendi Basarri

5.2. Egunaren egituraketa

5.2.1. Egunaren lan-banaketa

Zuzendari ofiziala Ziarsolo bazen, *de facto*ko zuzendaria Zubikarai zen. Itzulpenak Erkiagak eta Zubikariak egiten zituzten, batez ere. Batzuetan, izenak hainbeste errepika ez zitezen, izengoiti bat baino gehiago erabiltzen zuten. Herrietako berriak ere moldatzen zituzten. Publizitate eta iragarkiak

sartzea debekatuta zeukaten, eta beraz, egunkariaren orrialde guztiak informazioak betetzen zituen. Hala ere, noizbehinka eskelak eta iragarkiren bat ere sartu zituzten. *Eguna* gudariei kemena emateko sortu zen, baina aldi berean euskaltzale eta abertzaleen antzinako ametsa gauzatzen zuen: euskara hutsezko eguneroko komunikabide bat edukitzekoa, eta "euskara gizarteko harremanetarako eta komunikabideetarako tresna egokia izan zitekeela ere frogatu nahi zuten", Joseba Agirreazkuenagak dioenez (1989: 100).

5.2.2. Egunaren iturriak

Gorka Reizabali esker, badakigu zer nolako informazio-iturriak erabili zituzten *Egunakoek*: informazio lokala (herrietako berriak) eta Euskadiko (Bizkaiko) informaziorako bere berriemaileen sarea bazuten, *Euzkadi* egunkariarena azken buruan. Batzuetan, kritikatzeko, Donostiako egunkari matxinoen informazioa jasotzen zuten, eta askotan gudari jeltzaleek, frentean zeudenek -Andoni Ruiz de Azua *Ogoñoperen* kasuan, esate baterako-gerrako berriak bidaltzen zituzten. Espainiako eta nazioarteko informazioa, aldiz, *Euzkadik* emandakoa zen, erdaraz. Beraz, itzulpen lan izugarria egin behar izan zuten euskal egunkarikoek. Gerrako informazioari dagokionez, *Egunak* bi atal bereizten zituen: "Españarr guda-izparrak" eta "Euzko guda-oñetan", azken hau, esan dugunez, Zubikaraik *Euzkadin* egiten zuena. Informazioa *Euzkaditik* eta Euskal gobernutik iristen zen. Eusko Jaurlaritzak bazeukan barruko berripaper bat, *Egunakoek* erabili ahal izan zutena. Buletina Jesus Maria Leizaola Justizia eta Kultur Sailburuaren bidez lortzen omen zuten. Parisen berriemaile bat zuten, agian *Euzko-Deyaren* zuzendaria zen Felipe Urkola edo hango Euskal gobernuaren bulegoan lan egiten zuen norbait.

Kazetaritza-baliabide guztiak erabiltzen zituzten: titular korrituak, aurretituluak eta azpтитuluak, argazkiak, iruzkin ironiko batekiko faxisten karikaturak... *Eguna* benetako egunkaria zen. Gerrako informazioa eman ez ezik, bestelako informazioa ere ematen zuten: "Au, ori ta bestea", "Andik eta emendik", "Tarteka marteka" halako saski-naskiko atalak ditugu, denetariko berriak, Espainiakoak zein Euskadikoak zein nazioartekoak, agertzen zirelarik.

Kirolak ere sartzen ziren, leku txikia bazeukaten ere. Abertzaleek kirolari izugarritzko garrantzi propagandista eman zioten, hortik bada *Egunan* zeukan pisua. Gainera, garaiko egunkarietan kirolei buruzko informazioa eguneroko agertzen zen, jeltzaleen *Excelsius* kirol-egunkaria desagertuta (dakigun bezala, hasieran *Egunako* kazetariak bere bulegoan lan egiten

zuten), informazio hori nonbait agertu behar zen. Futbola edo "ostikolaritza", txirrindularitza eta herri-kirolak ziren gehien agertzen zirenak. *Eguna*, ikusten dugun bezala, erdarazko komunikabideekin pareka zitekeen egunkaria zen.

5.2.3. *Finantzabideak*

Salmentak diru gutxi ekarri behar izan zuen: salneurria 15 zentimokoa zen, baina ale gehienak (20.000 unerik onenetan, *Egunan* bertan diotenez) frenteko gudarien artean dohainik banatu ziren. Finantzabideari dagokionez, Ziarsolok argi eta garbi erantzun zion *Egunaren* gastuak nork ordaintzen zituen galderari:

"Euzko Alderdi Jeltzaleak [...]. Yo no sé de dónde salía el dinero. Sólo sé que me lo daban y yo sacaba el periódico. Tal vez fuera todo un milagro" (Reizabal, 1973: 141).

Eusko Jaurlaritza atzean zegoen, bai baitakigu berri asko eta asko Leizaolaren bulegotik ateratzen zirela. Dударik gabe, gobernuaren gehiengoa jeltzalea izanik, euskara bultzatzeko eguneroko komunikabide bat interesatzen zitzairen. Zentsura ere ez omen zen *Egunarekin* oso gogorra.

5.3. *Egunaren pentsamoldea*

5.3.1. *Gerra*

Ikusi dugunez, Gerrari buruzko informazioa da *Egunaren* orrialdeetan gehien agertzen dena. Alde batetik, gutun edo "idazkiak" argitaratzen dira, Loiola-Gudarozteko gudariak Otxandiano eta Ubideako frenteatatik bidalitakoak. Euskaditik kanpoko frenteeetan zeuden gudariak ere bere gutunak bidaltzen zituzten, hala nola Oviedon zeudenek. Hasieratik argitaratu ziren. Istorio hunkigarriak agertzen ziren atal hartan, gudari eta Euskadiko hiritar guztiak Gerraren krudeltasuna sentiarazteko asmoz. Kontaketa bizi eta gertua dugu, beraz, informazio hutsari elementu sentimentala eransten ziona. zegoenak. *Egunaren* iritzia bakezalea da. Gerra besteen probokazioa denez gero, euskaldunek defendatu baino ez dute egiten.

Gerrako gertakizun gogorrenetako bat, gogorrena ez bazen, Gernikako bonbardaketa izan zen, 1937ko apirilaren 26an. Laugarren orrialdean agertu zen albiste hori, izenburu ezin esanguratsu honekin:

"Paxisten egazkiñak Gernika, euzkotarren uri maitea, birrindu nai izan dabe zearo.-Aritza zutik gelditu da, ordea, ondamendi orretan. Zutikago euzkotarren gogoa, baña".

Hurrengo egunetan ere Gernikan jazotakoari buruz luze hitz egin zuten. Zeregin hartan, euskal gobernuak ahalik eta komunikabide gehienak behar zituen. *Eguna* leialenetariko bat izan zen.

5.3.2. *Euskal abertzaletasuna*

Eguna, esan bezala, E.A.J.ren bultzadaz sortu zen, beraz, bere jeltzaletasuna trinkoa zen."JEL" ikurra bere mantxetan zegoen. Hala ere, E.A.J.k bazeuzkan beste organu batzuk bere pentsamoldea zabaltzeko eta *Egunan*, hasieran "Jel azija" atala agertzen bazen ere (*Euzkadi* eta beste egunkari batzuetan urteetan zehar agertu zen atal bera, nahiz eta aldizkari haietan erdarazkoa izan) E.A.J.ren ideologorik nagusia zen Engracio Aranzadiren emaitza zen atal hori, *Kizkitza* otsailean hil zenean, desagertu zen. *Egunan* ez zen beste atal doktrinariorik agertuko hurrengo hilabeteetan. Dakigunez, mami politikoa zuten testuak normalean erdaraz argitaratzen zizuten jeltzaleek. Hala ere, *Egunan* oinarrizko doktrinamendu politikoa egin zen konsignen bidez. Guztietan, Aberria dugu protagonista: "Zure aberri elia maite ezpadozu, zeure aberria bez, eztozu maite". Batez ere Sabino Aranaren esaldiak berrargitaratzen ziren. Aipagarriak dira baita ere Txomin Arrutiren Aberriari buruzko artikuluak.

Baina praktikotasunari dagokionez, E.A.J.rekiko atxikimendua batez ere gobernuari buruzko informazioaren bidez azalduko zen.

5.3.3. *Euskal gobernuaren aldeko defentsa*

Egunak, gobernuarekin -eta batez ere Leizaolarekin- harreman onak mantentzen zituenak, haren ekintzen berri eman zuen puntualki. Egunero "Atzoko eguna euzko zaingoetan" atalean euskal gobernuaren ekintza araugile eta praktikoaren berri zehatza ematen zuten, ziur aski barruko buletina informazio-iturri nagusia zelarik. *Basarrik*, beste aldetik, ertzaina zelarik Telesforo de Monzon Gobernazio sailburuarekin lan egiten zuen. Beraz, *Egunakoak* oso gertu zeuden gobernutik, eta batez ere sailburu jeltzaleengandik, sailburu gehienengandik azken buruan. Esan daiteke nolabait euskarazko egunkaria gobernuaren kontrolpean mantendu zela, eta zentsura oso leuna izan zen *Egunarekin*. Erdarazko egunkarietan sartzen ez ziren zenbait berri euskaraz agertu ziren *Egunan*. Hala ere, *Eguna* nolabait

beste egunkari jeltzaleen osagarri zenez (eta batez ere *Euzkadirena*), gobernuaren aldeko propaganda ez zen oso nabarmena. Joseba Agirreazkuenagak azpimarratzen duenez, Agirre, Monzon eta Leizaolaren argazki bana baino ez zuten argitaratu (Agirreazkuenaga, 1989: 112). *Egunak* ez zuen batere problemarik izan euskal gobernuarekin, eta ez zion inoiz ere kritikarik zuzendu. Are gehiago, zentsoreak *Egunaren* bulegoan bertan lan egiten omen zuen (Reizabal, 1973: 92).

Beraz, Euskadiko agintaritzarekiko identifikazioa erabatekoa izan zen.

5.3.4. *Kristautasuna*

E.A.J.ren ideologia ortodoxoaren jarraitzailea, *Egunak* behin eta berriro bere abertzaletasuna aldarrikatu zuen. Hainbeste errepikatzen ziren Sabino Aranaren esaldien artean, badago bat asko agertzen dena: "Gu, Euzkadirentzat eta Euzkadi, Jaungoikoarentzat", erlijioari emandako pisuaz hitz egiten duena. *Egunan Astitxe* delako bat arduratu zen gai erlijiosoez. Noizbehinka "Uzkurtza gayak" atala atera zuen. "Jaungoiko lenen; sendi eta aberria ondoren", zioen *Iturmendik* 1937ko maiatzaren 18ko zenbakian. "Euzkeldun, fededun" betiko berdinketa hori, *Egunaren* orrialdeetan askotan errepikatu zen. Erlijioaren aldekoak bete-betean, gogoratu besterik ez dugu egin behar "EGUNA euzkel egunkari abertzalea, uzkurtz aldezle zintzoa da. Izango ote da euzkotar kistar zintzorik laguntza ukatuko dionik" zioen eslogana.

5.3.5. *Nekazarien aldeko defentsa eta arazo sozialak*

"Euskaldun-fededun" binomioa osatzeko, nekazaritza falta zen. Zer esanik ez, baserritar eta nekazarien aldeko testuak maiz agertu ziren *Egunan*. Baserritarrekiko kezka behin eta berriro agertu zen euskarazko egunkarian. *Egunakoen* jarrera ederki definitu zen 33. zenbakian:

Bakardade mundian doguz baserritarrak. Bakarrdada dogunezanez euron eskabideak, euron bearrak, euron diadarrak entzun bearr leukiazanekana ez dira eltzen. Bidean galtzen dira [...]. Beste langilleak euren etorkizun onari begira doguz, ta gure baserritarrentzat ez al dogu poz biderik, etorkizun eta berez-berez yatorkun gizarte barri orretan. Langilliei guda au etorkizun-argi-izpiak bide yasangarri egiten yakue: beztiontzat bizibide barri dana; ondamendi izango ete dabe lugin zintzoak? Besoak zabaldu dayoeguzan gure baserritarrei. Ekin dagiogun euron alde, be. EGUNA'k beintzat, ez dauz aztuko ta pozik agurtzen dauz (*Eguna*, 1937ko otsailak 7, 33. zenbakia).

Berriro ere *Egunan* baserriarraren idealizazioa, hiritarrarekin kontrajarrita, agertzen da. Nekazarien aldeko artikulua haiekin batera, beste batzuk teknikoagoak argitaratu zituzten. Horrekin lehenagoko beste euskarazko aldizkari askoren tradizioa, *Argiarena* batez ere, jasotzen zuten.

Hirietako langileei dagokienez, erabat onartzen dugu Joseba Agirreazkuenagaren adierazpena:

"Egia esan bazuten beste egunkaria, Euzko Langille eta gero Lan Deya, eta beharbada horregatik, ia ez dira kontuan hartzen, azken batean talde edo giro politiko berebete burutuak baitziren. Honela, bada, konturatu gabe, ezkutuko diskurtsoaren adierazle gisa, abertzaletasun euskalduna, baserriarekin lotzen zen" (Agirreazkuenaga, 1989: 11).

Jeltzaleen prentsa oso zabaldua egonik, bazuten bere mikrogizartearen alderdi guztiak behar bezala betetzeko aldizkariak. Ikuspegi hau osatzeko, ez ziren falta kapitalismoaren erruak salatzen zituzten testuak. Bestela ere, Txomin Arruti *Mendi-Lautak* noizbehinkako atal bat argitaratu zuen, "Gizarte Auzi buruz". Bertan, besteak beste, hezkuntza gaiak eta lan-gaiak aipatzen ziren.

Emakumea ere zenbait artikuluren gai zen. Emakume batek idatzi zituen, Maite delako batek. Dirudenez, Mungiako Gabilondo abizeneko gazte bat zen (Reizabal, 1973: 75), Julia Gabilondo. *Egunaren* lehen zenbakian hasi zen idazten. Gero ere "Euzko emakume maitia" eta "Euzko-emakumiaren gixarte-lanak" izenburua zeramaten atalak idazteari ekin zion. Bertan adierazten zituen zeintzuk ziren Euskadiko emakumearen zereginak: "Euzkadi euzkaldundu", "euzko ekandubak biztu" eta "semiaren adimena aberastu". Zeregin haiei beste bat oraindik erantsi behar zitzaion: "Otoi eta lan Jaungoikua eta Aberrija aldeztzen diñardugun gudarijon alde" (*Eguna*, 1937ko apirilak 1, 77. zenbakia).

Hau da, gizarte tradizionalerako eginbeharrak.



Julia Gabilondo

5.3.6. *Euskara eta euskal kultura*

Euskara ez zen bakarrik *Egunaren* hizkuntza, baizik eta gai nagusienetariko bat. *Eguna* bizkaieraz eta gipuzkeraz argitaratu zen, bizkaiera nagusi bazen ere. Gutxi gora-behera molde sabindarrak aplikatu ziren, eta egunkariaren testu gehienak neologismoz josita agertzen ziren: *uzkurtza*, *neskutza*, *txandona* bezalako hitzak irakur zitezkeen.

"Horregatik", dio J. Agirrazkuenagak (1989: 112), "A. Zubikaraik dioskunez, egon ziren bai zirikada batzuek. Baina azkenean bakoitzak bere erara idazten zuen".

Nolabait, *Eguna* bizkaierazko eta gipuzkerazko idazleen elkargune bilakatu zenez geroztik, halako batasun bat, edo behintzat kazetaritza-estilorantzako aurrerako pausu bat, finkatu zen.

Aurreko euskal aldizkarietan bezala, euskarari buruz behin eta berriro hitz egiten zen. *Eguna*, ikusi bezala, euskaldunen "gurari ase-gatxak" betetzeko sortua zen. Egunero euskarari buruzko ideologia zabaltzen zuten lauki batean. Euskara, arrazaren ezaugarria, bizi ahal izateko, idatzi eta irakurri egin behar zen. "*Euskara geure izkuntz bakarra*" zela zioten. Erljioarekiko identifikazio mistikorik ere aurkitzen dugu *Egunaren* orrialdeetan:

"Euzkera gure ele bakarra: Jainkoak nai du euzkera jasotzea", zioen artikulu baten idazpuruak (*Eguna*, 1937ko apirilak 2, 78. zenbakia).

Euskaldunak irakurtzen zaletzea zen *Egunaren* helburu bat, aurreko euskal aldizkari askorena izan zen bezalaxe.

Euzkadiren laguntzaz "Euzkeldun Irakurle Batza" sortu eta indartu zuen, batez ere harpidedun gehiago lortzeko: kopuru ideala 4.500 omen zen. Kinka larrian bazen ere, literatura ere bultzatu nahi zuten: Tomas Agirre *Barrensorok*, egunkariaren laguntzailea, *Uztaro* elaberria argitaratu zuen 1937an. Euskal literaturaren urrezko garaiko idazleak, "Euskal Pizkunde"koak, hilak ziren: *Lizardi* 1933an, eta Gerran bertan *Lauaxeta* eta *Aitzol*. Erbesteko belaunaldiaren gidaria *Orixe* bihurtuko zen.

6. Erbesterako bidea

6.1. *Egunaren* bukaera

Ezagutzen dugun *Egunaren* azken zenbakia 1937ko ekainaren 13koa dugu. Handik gutxira, faxistek Bilbo menderatu zuten, eta Euskal Herriko lehen gobernuaren historia hor bertan bukatu zen. Neurri handi batean, euskarazko kazetaritzaren historiaren garai bat ere bai. Euskal kulturarako bide bakarra, eta kazetaritzarako ere bai, erbestean zegoen.

Bilbo erori zenean, euskarazko aldizkari guztiak desagertu ziren. Ez hori bakarrik; asaldatuek, *Estatu berria* zekartenek, euskararen agerpen guztiak debekatu egin zituzten. Gogoratu besterik ez dugu egin nola frankistek "Español, habla español" lema aldarrikatu zuten, nola kalean euskaraz hitz egitea galarazita zegoen, nola sermoiak, liburuak, gutunak ere euskaraz idazteak zigorra ekartzen zuen.

Zer esanik ez, gerra galtzeak sekulako kaltea ekarri zion euskal kulturari, eta orokorrean, periferiako kulturari eta diktadurarekiko kritikoa zen azalpen orori. Egoera ezin larriago hartan, euskal kazetaritza ere, eta aurreko hamarkadetan lortutako aurrerapen guztiak, suntsituta geratu ziren. Espainiako Estatu berriaren etortzearekin batera, milaka euskaldunek erbestera joan behar izan zuten. Erbestean, batez ere, sortuko ziren gerra ondorengo kazetaritzaren pausu berriak, eta oro har, euskal kulturarenak.

Aipatu dugu nola 1936an, Gerra sortu zenean, *Euzko Deya* sortu zen Parisen. Gero izen berdinekin argitaratuko da Londresen, Mexikon eta

Ameriketako beste hainbat lekutan. Londresekoa ingelesez bakarrik idatzia zen, eta ez zuen ez gaztelera ez euskararen arrastorik. Frantzia nazien menpe erori zenean, II. Mundu Gerraren garaian, mugaz beste aldean zeudenek berriro alde egin behar izan zuten. Eusko Jaurlaritzak Gerra denboran ere Bartzelonan *Euzkadi en Catalunya* izeneko astekari bat argitaratu zuen, 1936an eta 1937an.

6.2. *Espetxean*

Bitartean, Hego Euskal Herrian, Bilbon bertan, euskarazko kazetaritzaren azkeneko gauzatxoak aurki ditzakegu. *Espetxean* Larrinagako kartzelan eskuz idatzitako aldizkaritxoak hasiera ematen die klandestinitatean ezkutuan kaleratutako aldizkariari. Bildumatxo honen lehena 1937ko abenduaren 8koa dugu; ez dakigu agertutako lehenbizikoa den, ez baita zenbakirik agertzen. Gordetzen den hurrengo alea (laugarrena) abenduaren 25koa da. Baliteke lehenengo zenbakiak urrikoak edo azarokoak izatea. Laugarren ale honetatik bost "iyeki" edo kopia egin omen zituzten. Bosgarren alea 1938ko urtarrilaren 15koa dugu. Urtarrilaren 20an (seigarrena, dudarik gabe) beste bat agertu zen, ezagutzen dugun azkena.

Egileen artean bazegoen euskaldunik, bat behintzat, euskarazko testu guztiek esku bakar batek eginak ematen baitzuten. Gipuzkeraz idazten zuen abertzale sutsu bat dugu. Hiltzera kondenaturik zeuden presoek azken gutunak ezin hunkigarriagoak dira. Aldizkari egiten dutenen heriotza edo kartzela batetik beste baterako lekualdaketak zirela-eta, 1938an desagertu zen *Espetxean*. Hego Euskal Herrian, Espainiako mugen barruan, hamarkada luzetan argitaratutako (baina ez inprimatutako) azken aldizkaria izan zela esan dezakegu. Bilbo asaldatuena menpe erori zenez geroztik hasiko da erbesteko kazetaritza deituko duguna.

6.3. Erbesteko bidea

Kazetari eta kultur munduko euskaltzaleen kopurua ere asko murriztu zen. Batzuk heriotzak eraman zituen, naturala edo bortitza: *Lauaxeta* afusilatua izan zen Gasteizen, bere ekoizpenaren fruiturik hoberenak ematen ari zelarik, gazetetasunaren erdian; berdin gertatu zitzaion *Aitzoli*; Arturo Campion, zahar-zaharra, hil zen Gerran; *Kizkitza* ere hil zen. Beste batzuk, geratu ziren gehienak, erbestera joan ziren, eta lurralde desberdinetik hasi ziren euskal kultura nola edo hala berpizten: horixe da Jokin Zaitegiren edo Nikolas Ormaetxea *Orixeren* kasua, zeinek Gerra ondoko euskara hutsezko aldizkari lehena sortu zuten, *Euzko Gogoa*.

Gerra Zibilaren ondorengo lehen uneetako prentsa

1. ERBESTERATUEN KOMUNIKABIDEAK

1.1. Euskararen aurkako debekuak

Asaldatuek, Estatu berria inposatzerakoan, gaztelania ez ziren hizkuntzak zapaldu zituzten. Legez debekatu zen euskaraz mintzatzea. Euskarazko aldizkari guztiak -eta erdarazkoak, Estatu berriaren aldekoak ez baziren- desagertu ziren, eta beren ordeztan erregimenaren aldeko komunikabideak ezarri ziren. 1936ko abenduaren 23ko Legeak deklaratu zuen ez zela zilegia “la producción de libros, periódicos, folletos y toda clase de impresos y grabados pornográficos, de literatura socialista, libertaria y, en general, disolvente”. Hurrengo urtean, 1937ko urtarrilaren 14ean alegia, dekretu baten bidez Salamancan *Delegación del Estado para la Prensa y Propaganda* sortu zen, zeinaren lana zera zen: “Emplear toda la prensa diaria y periódica y los demás medios de propagación de noticias sea en España, sea en el extranjero, para hacer conocer los hechos del Movimiento Nacional”.

Hurrengo pausoa prentsa Falangearen eskuetan jartzea zen, eta hori birribiltzeko, 1938an Barne Ministerioa sortu eta Serrano Suñer -Francoren koinatua- ministro izendatzea izan zen. Honek 1938ko apirilaren 22an Prentsari buruzko Legea promulgatu zuen, Dirección General de la Prensa eta Dirección General de la Propaganda zirelakoak bere agindupean hartuz. Antonio Tovar -gero euskal gauzetan interesatua, eta Koldo Mitxelenari Salamancako Euskara Katedra eskaini ziona- eta Dionisio Ridruejo buru ziren. Ridruejo izango zen, denboraren poderioz, Francoren erregimeneko ahots kritikoa. Tovar eta Ridruejoren ordeztan Arias Salgado eta Juan Aparicio laster jarri ziren.

Erregimen berriaren aldeko ez ziren komunikabide guztiak, euskarazko egunkaria, aldizkariak eta irratsaio guztiak desagertuta, euskararen aurkako propaganda kanpaina bat antolatu zen.

1.2. *Euzko Enda*

1939ko urtarrilean Baionan Hego Euskal Herriko erbesteratuek han bildutako *Comité Basque de secours aux réfugiés* izeneko elkartearen kemenez beren lehen aldizkaria argitaratu zuten: *Euzko Enda. Boletín Mensual dedicado a la unión de la raza vasca*. Gaztelaniaz, frantsesez eta zertxobait euskaraz idatzita zegoen. José Javier Legiak zuzendua, aldizkari hartan bere lanak argitaratu zituzten, besteak beste, Joxemiel Barandiaranek, I. López Mendizabalek, Jesus Maria Leizaolak, Inazio Eizmendi *Basarrik*, Errose Bustintzak, Manu Ziartsolo *Abeletzek* (*Euzko* eta *Egunaren* zuzendaria), Joseba Zubimendik (*Argiaren* eta Donostiako Irratiaren laguntzailea), eta Nikolas Ormaetxea *Orixek*. Aldizkariaren orrialdeetan hondamendiaren arrastoak nabariak dira:

| |
|---|
| <p>Erbesteko gure bizitza mingotza da. Emengo legeak, lanik ez dauskue laketuten (...). Gure etxetik urrun, lan askori eutsi bearrez aurkitu gara, baña ez gara makal geratu; asnai arteko biotz zindotasuna agertzen jakin dogu (1939ko maiatza, 5. zenbakia, 8. orrialdea).</p> |
|---|

1.3. *Anayak*

Espainiako Gerra bukatu zen urte hartan bertan, 1939an, erbesteratutako euskal apaizek Parisen aldizkari bat kaleratzeari ekin zioten: *Anayak. Correspondance bi-mensuelle des prêtres basques en exile*. Lehen zenbakia (guztira sei agertu ziren) 1939ko urtarrilean argitaratu zen. Frantsesez (%90) eta euskaraz idatzia zen. Sinadura gutxi agertzen ziren, hala ere badakigu izen ezagun batzuk hor zeudela: Zirilo Arzubiaga eta Gabriel Manterola, adibidez, biak Jaungoiko-Zalekoak eta Bazkun haren *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan arituak; eta Santiago Onaindia (azken honek frantsesez, besteak euskaraz). Batzuk Frantzian bizi ziren, beste batzuk (Arzubiaga eta Manterola) Ingalaterran. Handik urte batzuen buruan B.B.C.n lan egin zuten, Kanporako Zerbitzuan, lehenak euskarazko irratsaioak eta bigarrenak erdarazkoak egiten, Europa eta Ameriketara aireratzen zirenak.

2. *ESKUALDUNA*

2.1. Ybarnegarayren jarrera

Gogoratzen dugunez, *Eskualduna* beti hautagai baten alde agertu zen. 1914tik Ybarnegaray lagundu zuten. Ybarnegarayren jarrera ezin bortitzagoa izan zen Hego Euskal Herritik zetozenen aurka. Erbesteratuen aldeko komite bat sortu zenean, hiru diputatu euskaldunak (Ybarnegaray, Delzangles eta De Coral) ez ziren ezta agertu ere egin. Hala ere, Ybarnegarayk beti bere burua euskaldun jatortzat aurkezten zuen, "défenseur de l'identité basque", Letamendiak dioenez. Katolikoa, Pilota Federazioaren buruzagia, *Gure Herria* aldizkariaren inguruko kultur mugimenduan ere sartua, agian, Letamendiak proposatzen duenez, halako parekotasuna aurki daiteke bere jarreraren eta Hegoko karlistek mantendu zutenaren artean:

"Ybarnegaray et le carlisme: mêmes références à l'identité basque s'exprimant par la langue, al religion et les coutumes (leote, etc.), même conservatisme politique et social, mais aussi attachement farouche à l'Etat nation français ou espagnol" (Letamendia, 1987: 47).

Hori zen Iparreko euskaldun askoren jarrera. Ybarnegaray, naziak Frantzia sartu zirenean, Vichy-ko Gobernuko ministro bihurtu zen. *Eskualduna* ere erasotzaileen alde azaldu zen erabat, Hitlerren hitzaldiak itzuli eta argitaratuz. Zer esanik ez, Frantzia askatu bezain laster, *Libération*-ekoek astekaria itxi eta Xalbat Arotçarena bere zuzendaria atxilotu zuten.

3. PRENTSA OFIZIALA

3.1. *Euzko Deya*

1936an Eusko Jaurlaritzak Parisen sortutako aldizkaria, bere helburua atzerrian propaganda eta informazioa zabaltzea zen. Gerra bukatutakoan, jarraitu zuten argitaratzen 1940ko maiatza arte, hau da, II. Mundu Gerra hasi zen arte. Frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz agertzen zen. Bertan hasi ziren idazten erbestera joan behar izan zuten euskaldunak: Isaac López Mendizabal, Xabier Mitxelena, eta abar.

Bitartean, Ameriketara zeuden delegatuak saiatzeko ziren han-hemenka, hala nola Estatu Batuetako *The Washington Post* edo *The New York Times* egunkarietan, Euskal Herriko egoerari buruzko testuak argitaratzen. 1938ko

urriko 1etik 1939ko urtarrilaren 21 arte *The Boise Capital News* egunkarian larunbatero orrialde bat agertu zen ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz.

EUZKO DEYA
THE VOICE OF THE BASQUE

11th JULY, 1938

ENGLISH EDITION OF AN ARTICLE BY DON BOSCO MANSOURI, THE COLMAN SCHOOL, 1937

WHY THE BASQUES FOUGHT AGAINST FRANCO.

The attitude of the Basques regarding the Spanish War, and the unfolding course which they themselves have taken, is a subject about which little is known by the world at large. As a consequence the Basques have been the victims of misunderstanding and harsh misjudgment. The purpose of these articles is to set forth the facts, and the true motives which prompted their policy.

Let us first retrace the steps which led to a certain extent, at least, to the outbreak of the Spanish war. At the beginning of the 19th century there were in the north of Spain four independent provinces, the Basques, Navarrese, Aragonese, and Castilians. Each of these provinces had its own laws, its own customs, and its own language. The Basques were a people of a different race, with a different culture, and a different religion. They were a people who had lived in peace and harmony with their neighbors for centuries.

These provinces formed the greater part of the Kingdom of Castile. The greater the persecution, the stronger the national spirit of the Basques became. A powerful Basque National Government was initiated under the leadership of Euzkadi, the Aragonese, and from 1808 onwards the whole energy, with the growing support of the people, was devoted to organizing, by constitutional means, the rights and liberties of Euzkadi.

When the Spanish Republic was established in 1931, the Basques had reason to hope for a settlement which would satisfy their national aspirations, at least in part. It was set down in the constitution that Peninsula peoples differing in race, customs and speech—such as the Basques and the Catalans—should be granted "Home Rule" under certain conditions. The conditions, briefly, were that autonomy should be desired by the majority of the people as recorded in a free plebiscite.

All of the four Basque regions of Biscaya, Guipuzcoa, Navarre and Alaba, voted for autonomy in the plebiscite on November 16th, 1936, and in the same year, Navarre later withdrew, but more than 90 per cent of the total population in the remaining three regions voted for autonomy. The demonstration that the Basque Nationalist demand for "Home Rule" expressed the will of the Basque people.

In the general elections of February, 1936, the Basque Nationalist won the polls, and they were placed in power. Two political parties which were closely connected together, the extreme "Left" parties were returned to the Cortes with a majority, and the "Right" parties, which were allied with a Government of "Left" tendencies were defeated.

Not a particle of the "Right" were highly excited, and their leaders were preaching a "Red Spain" before a divided North. The position of the Basques became clarified. They naturally would not support those who had taken a "Left" position, and the Basque Nationalist Government, certainly believing in democracy, and in a free press, and in a free trade, which were unconstitutional or against the law. They thus remained passive in the first days of the revolution.

The shooting of Basque leaders captured in territory held by Franco, and the march of Franco's troops from Navarre into Guipuzcoa, made the Basques realize that Franco had chosen them as his enemies. They were thus forced to take up arms, the few arms they had, and fight in self-defense. With the granting of Home Rule to the Basques by the Republican Government in October, 1936, the Basques were given a greater reason for fighting. It was, therefore, something in the nature of a coincidence which led the Basques and the Spanish Government to fight side-by-side. The defence of Basque Nationalism went with the defence of the Spanish Constitution and the legitimate Government of Spain.

The strong religious stand taken by the Basques reacted against them religiously. The "Left" described them as being "fanatical" and "Mussolinist", while the "Right" called them "Reds". The Basques were neither Communists nor even Mussolinist, but simply a community of Catholics dominated. In fact, their economic system of small farmers and small manufacturers, and their comparative prosperity made such extreme terminology. They fought—like the people of any other

(Continued on page 3)

Euzko Deya, Londres, 1938

3.2. II. Mundu Gerraren atarian

1939. urtea arte, Eusko Jaurlaritzak ekintza batzuk antolatu zituen Ipar Euskal Herrian, Frantziako Gobernuaren baimenez, eta Iparreko diputatu eskuindarren oposizioaz (Ybarnegarayk, esate baterako, Frantziako Ganbaran Euskadiko errefuxiatuak kanporatzea eskatu zuen). Naziak hurbiltzen ziren heinean, errefuxiatuek beste lurralde batzuetara joan behar izan zuten. Gehienak Ameriketara joan ziren. Beyriseko paper asko erre zituzten Eusko Jaurlaritzakoek. Vichyn nazien aldeko Gobernu bat eratu zen, hor *Eskualdunak* betidanik laguntzen zuen Ybarnegaray diputatua ministroa zelarik. Honek errefuxiatuen aurkako errepresioa hasi zuen (1939an Francoren Gobernu onartu zuten). Euskaldun asko Loirako Departamentura bidali zituzten, 1940an Gurs-eko kontzentrazio-barrutira; Eusko Jaurlaritzaren egoitzak itxi zituzten, eta *Euzko Deyaren* argitalpena bertan behera utzi zuten (López Adán, 1977: 13). E.A.J.ko partaide gehienak Ameriketara edota Londresera joan ziren. Han Manuel de Irujok delegazio

bat antolatu zuen, Agirre eta beste batzuk New York-era zihoazen bitartean. Batzuk (Alberó eta Landaburu) Parisen geratu ziren. Goihenetxe saiatu zen alemaniarrengandik euskaldunentzako tratu bat lortzen. Bakoitzak bere bidera jo zuen, eta sakabanaketa Espainiako Gerraren ondorengoa baino handiagoa izan zen, garai latzak baino latzagoak.

4. II. MUNDU GERRA GARAIKO PRENTSA

4.1. Ameriketako prentsa

4.1.1. *Euskaldun erbesteratuen aldizkariak*

Gerra Zibilaren ondoren, euskaldun asko eta asko Ameriketara joan ziren. Bigarren Munduko Gerra hasi zenean, beste euskaldun askok ere hara joan behar izan zuten. Ez da beraz harritzekoa euskaldunen prentsaren garapena Ameriketara gertatu izana, batez ere, gaztelania hizkuntza zuten estatuetan. Hor, lehenago ere, XIX. mendeko emigrazioari esker, bazeuden euskaldun kolonia batzuk, aipatutako bi gerra horiengatik hara joandako euskaldunen ezarrera errazago egin zuena.

40ko hamarkadako lehen urteetan arrazoi politikoengatik erbesteratutako euskaldunen prentsaren lehen adibideak aurkitzen ditugu. Eusko Ikaskuntzako partaidea zen Bernardo Estornés Lasak *Batasuna* izeneko aldizkaria argitaratu zuen Txileko Santiagon 1941. eta 1942. urteen artean. Batez ere kulturazkoa zen, ia dena erdaraz. Euskaraz olerki bat baino ez dugu aurkitu. Hala ere, hemen aipatzen dugu Ameriketara erbesteratuen lehen aldizkaria delako. Estornés Lasak gero euskal kulturarako hainbeste garrantzia izan duen Añamendi argitaletxea antolatu zuen.

4.1.2. *Mexikoko Euzko Deya*

Hurrengo urtean, hau da, 1943an, hasi zen argitaratzen Mexikon *Euzko Deya* bat, izen berdineko aldizkari batzuk kaleratu baitira XX. mendean. Eusko Jaurlearitzak *Euzko Deya* hauekin sorrera bultzatu eta babestu zuen, Parisen, Mexikon, Londresen eta beste leku batzuetan. Guztietan, aldizkari abertzale jeltzale informatzaile gehienetan, erdara zen nagusi: batzuetan gaztelania (Mexikokoaren kasuan), beste batzuetan frantsesa (Pariskoan) eta beste batzuetan ingelesa (Londreskoan). Gerra Zibila hasi zenean, sortu zen Parisen *Euzko Deya* bat, sorta honen lehena. 1945ean berriro hasi zen argitaratzen Parisko hau, eta 1943an Mexikokoa. Pariskoa informatiboagoa

bazen, Ameriketako hau magazin itxurakoa zen, eta ia dena gaztelaniaz idatzia zen. Euskaraz agertzen ziren zatiak normalean Andoni Ruiz de Azua *Ogoñopek* sinatzen zituen, Gerra aurrean ere hainbat eta hainbat aldizkaritan aritua. *Euzko Deyaren* erredakzio-burua zen, gainera, eta Jesús de Garriz zuzendaria. Aldizkari osoan bezala, gaiak batez ere euskal kulturari buruzkoak izaten ziren, eta politika gutxi, hori izan baitzen erbestean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako aldizkari gehienen jarrera, politikaz, eta batez ere bertako politikaz, ez aritzea. Ohiturei buruzko gaiak, euskarari buruzkoak, eta argazkiak ere aurki zitezkeen orrialde horietan.

4.1.3. *Komunisten prentsa*

Mundu Gerrak behartuta, esan bezala Frantzia errefuxiatuta zeuden euskaldun askok Ameriketara joan behar izan zuten, baina ez bakarrik abertzaleak, komunistak ere bai, esate baterako. Gerra Zibilean komunistek ere beren aldizkarietan euskarari leku bat utzi zioten, orri oso bat kasu askotan. Gerra ondoren ere berdin egin zuten. 1942an Mexikon argitaratzen hasi ziren *Alkartu* izeneko hilabetekaria. Lehen zuzendaria Secundino Ortega izan zen. 1947. urtera arte kaleratu zen, hasieran Ameriketara, esan bezala, eta II. Mundu Gerra bukatutakoan Frantziako Tolosan, Agustín Ibáñezen zuzendaritzapean garai hartan. Oso handia, egunkari itxurakoa, bost zutabe izaten zituen, argazki ugari, eta mami politikoko testu asko. Euskadiko Alderdi Komunistaren delegazio batek argitaratzen zuen, erdaraz, hala ere beti zatitxo bat euskaraz bazeukan, normalean 3. orrialdean, "Euzkel atala" izenburupean, *Egi-zale* delako batek sinatua. Aurrerantzean ere, komunistek beren aldizkarietan ia beti euskaraz zertxobait idatzi zuten.

4.2. Iparreko prentsa

4.2.1. *Eskualdunaren galera*

Hego Euskal Herriko errefuxiatuek Iparrean egiten zuten prentsa desagertu bazen ere, bertako euskaldunenak zutik jarraitu zuen, arazo askorekin bazen ere. Azken buruan, lehenagoko pentsamoldearen etekina da, Frantziako kontserbadurismo antirrepublikanoaren eta klerikalismoaren ondorioa. Familia, ondasunean eta erlijioan oinarritua, *Eskualduna* eta bere atzean zegoen talde ideologikoaren jarrera Europako gatazka belikoen garaian erradikaltasunera jo zuen. Astekariaren azken garaiko zuzendaria Xalbat Arotçarena izan zen; bere aitzindariak bezala, erlijiosoa zen, Baionako Apezpikuak jarria. Lafittek kontatzen duenez, "ideietan izigarri tematsua zen, eta lehenagoko Action Française-ko hainitz orhoitzapen gel-

ditu zitzaizkon, gauzak heien arabera biziki usu jujazten baitzituen" (Lafitte, 1971: 34). Beste aldetik ere, alemaniarren baimenik gabe, ezin zuten papera lortu. Baina, hala ere, arrazoi ideologikoak pisukoak izan ziren. Jarrera hark bultzatu zituen nazien alde jartzera. Gerra ondoren, Frantzia askatuko agintariek *Eskualduna* debekatu zuten, orain arte euskarazko aldizkarien artean bizitzarik luzeena izan duen argitalpena kaleratzeari utzi behar izan zio-larik. Ordurako, hainbat eta hainbat irakurle galdu zituen *Eskualdunak*, 2.200 bat bakarrik zeuzkan (kontuan hartu behar dugu unerik onenetan aste-kariak 10.000 izan zituela).

1883tik 1944rako urte haietan *Eskualdunak* Ipar Euskal Herriko irakurle gehienak, nekazari gehienak alegia, biltzea lortu zuen. Are gehiago, Hegoan ez bezala indar politiko propiorik ez zegoenez, *Eskualdunak* pentsamolde finko baten adierazpide ezin hobea izan zen, pentsamolde horri, azken batean Frantzia osoan bezala kontserbadore anti-errepublikanoena, zenbait berezitasun eman zion, pentsamolde eskuindar hori Euskal Herrirako nolabait moldatuz.

4.2.2. *Bigarren Aintzina*

30eko hamarkadan sortu zen Aintzina mugimendua, eta Lafittek eta Ustaritzeko seminarioko beste gazte batzuek izen berdineko aldizkaria sortu zuten. 40ko hamarkadan berriro kaleratu zen, taxuera txikiago batekin (lehen egunkari itxura zeukan). Beste aldaketa batzuk ere bazeuden, hala nola zuzendariak, Marc Legasse eta André Ospital (kudeatzailea Jean Duboscq zen, Ustaritzeko Zazpiak Bat taldearen lehendakaria). Piarres Xarritonek ere parte hartu zuen. Gaiak batez ere kulturalak ziren (*Aintzinak* hasiera batean euskal olerki eta kantuak argitaratu zituen); eta argitaratze-lekua, Donibane Lohitzune (lehen Ustaritzen egiten zen). Laguntzaile gehienak, denak izengoiti bana erabiliz (nagusiek debekatzen omen zieten aldizkarietan idaztea) apaizgaiak ziren (Hernández, 2007: 222).

*Aintzina*ren asmo nagusia zera zen: "De connaître et de rassembler tous les jeunes basques ardents (...) et grouper toutes les activités littéraires, artistiques, culturelles ou sportives, dispersées à travers le Pays basques, et de développer la propagande en faveur de notre mouvement de Renaissance Basque" (1942ko urtarrila, 1. zenbakia). Lehen kontseiluan, besteak beste, denboraren poderioz aski ezagunak bihurtuko ziren gazte batzuk zeuden, gero bide ezberdin samarretatik joan baziren ere: hor zeuden, esaterako, Marc Legasse idazlea eta Pierre Larzabal antzerkigile eta apaiza, gero abertzaletasun erradikalera joan zirenak; eta Michel Labeguerie Kanboko sendagilea, Simun Haran eta Jacques Abeberryrekin batera *Enbata* mugimendua sortu zuena, gero utzi eta Parisera senatari joan zena, eta euskaldun lehen kantarietako bat izango zena 60eko hamarkadan.

Garai latzak ziren ekintza politikoak egiteko, eta kultur ekintzak bakarrik egitea posible zen. Baina, hala ere, zenbait kutsu errebindikazioko ere agertzen zen. Hegoan euskara lantzea erabat debekatuta zegoen; Iparrean betidanik zaila zen euskara irakastea, adibidez. Artean Hazparneko bikarioa zen Piarres Larzabalen hitzaldi baten ondorioz, Eskualdun Gazteen Batasunak eskatu zuen euskararen irakaspena derrigorrezkoa izan zedin eskola guztietan, eta irakasle guztiak euskaldunak izan zitezten.

Hala ere, politikoki petainista zen; Pétainek eskatzen zuen deszentralizazioa eta erregionalismotik gertu zeuden; beste lankide batzuk, ordea, abertzaleak ziren, eta Erresistentzian sartu ziren: Piarres Lafitte, André Ospital, Jacques Mestelan eta Piarres Larzabal (Hernández, 2007: 228).

4.2.3. Herriaren sorrera

Gazteek bazuten aldizkari bat. Baina gelditzen zen 60 urte baino gehiagotan lorturiko irakurlegoa, *Eskualdunaren* inguruan bildurikoa hain zuzen. Zenbait euskaldun bikain, hala nola Saint-Pierre, Louis Dassance, *Oxobi*, Dufau eta Duhour, bildu ziren Ustaritzeko erretorea zen L. Léoni beste aldizkari bat, beste astekari bat, kalera zezala eskatzeko. Orduan zuzendari bat bilatu behar zuten, alemanen aldekoa ez izana. Hautatua Piarres Lafitte izan zen. André Ospital, bigarren *Aintzina*koa, kudeatzailea izan zen.

Hala ere, zailtasunak bazeuden *Herria* antolatzeko. Prokuradore bategana joan ziren xedeak azaltzera, eta gero *Libération*eko agintariengana. Haiek susmo txarrak zituzten, ez zuten *vichysoiserik* nahi, eta Baionan eratutako Komitea trabak jartzen hasi zen: "Hasi ziren jakin nahiz baginuentz diru-mailerik, artikulu frantsesik ukanen ginuenetz, nor nahik izkiriartzen ahalko zuenetz gure kazetan", kontatzen digu Lafittek berak. Action

Française ere aurka zegoen. Dirudienez, denbora hartan bazegoen Sara inguruan beste astekari euskaldun laiko bat ateratzeko asmoa, eta orduan Lafittek eta lagunek are gehiago egin zuten lan *Herriaren* alde. Lan horretan beste batzuek lagundu zuten, hala nola Guillaume de Hiriart erradikalak eta Lizeoko irakaslea zen Dufos du Rauk. Hala ere, agintariek euskarazko aldizkaria ateratzeko baimena luzatu zuten, lehen baimena Pauetik eta gero Bordeletik etorri behar zela esanez. Azkenean, Lafittek berak Bordelera jo eta baimena lortu zuen.

Agintari laikoan baimena lortu ondoren, Elizaren agintariena behar zuten. Baionako apezpikutza berrosatu zenean, etorri berria zen Léon-Albert Terrier apezpikuarengana joan ziren Lafitte, Saint Pierre eta Dassance. Lafitte ezagutzen ez zuenez, ondo zeritzola apezpikuak astekari atera eta zuzentzeari, behin-behineko artezkari moduan bazen ere. Lafittek, aldiz, astekaria Elizaren jabetza ez zela behin eta berriz azaldu behar izan zuen (Hernández, 2007: 235-236).

Lafittek berak kontatzen digu zein izan zen hurrengo arazoa: dirua. Berak diru pixka bat jarri zuen, Jean Elissalde *Zerbitzarik* bi mila libera, eta Telesforo Monzon eta De la Sota hegotarrek ere dirua jarri zuten. Gerra bukatutakoan paper eskasia zela-eta Pleven ministroarengana hurbildu zen Lafitte bere laguntza eske, eta lortu ere egin zuen.

Eskualdunaren irakurle guztiek ez zuten ondo hartu *Herriaren* sorrera; beste batzuek, aldiz, beste izen batekin *Eskualduna* bera zelakoan mesfidantza agertu zuten. Hala ere, hasiera-hasieratik oso aldizkari ezberdina zela erakutsi zuen: Lafittek berak gogoratu zuen 1945ean Espainiako egoeraz, Euskal Herriko egoeraz eta gizarte-egoeraz oso iritsi ezberdinak mantentzen zituela berak gidatzen zuen astekariak. Vichyko gobernuaren kontrakoa, De Gaulleren aldeakoa eta Erresistentziakoa zen.

4.2.4. *Eskualdunaren itzala*

Hori dena arazo materialei dagokienez. Bestelako problemak ere bazeuden. Horietako bat, *Eskualdunaren* itzala. Alde batetik, *Herriak Eskualdunaren* jarraitzailea izan nahi zuen; beste alde batetik, haren pentsamolde erradikaletik urrundu nahi zuen. Irakurle batzuek *Eskualdunaren* itzulera espero zuten, eta *Herria* faltsutzat edo jotzen zuten; agintariek, batez ere Baionako zentsuratzaille ofizialak (komunista) eta prefetak ezin zuten euskarazko astekari katoliko berria begi onez ikusi.

Baina gerraren oihartzunak baretuz joan ziren, eta *Eskualdunaren* irakurle amorratuek laster ulertu zuten astekari zaharra ez zela berriro agertuko. *Herriak* gauza askotan bere aitzindariaren pausoak jarraitu zituen, eta berriro Iparreko euskaldunen faborea berreskuratu zuen. Lehen hamar urteetan, beti ere Lafitteren lekukotasunaren arabera, 2.000 ale argitaratzetik 10.000

aletara pasatu zen. *Herriaren* lehen zuzendariak adierazten digu zergatik lortu zuten, bere ustez, arrakasta hori:

Memento batez asko gazte bazoatzia Ameriketara, eta abiatu gabe gehienek abonamendu bat hartzen zuten, harat eta hemengo berrien ukaiteko. Geroxeago, Algeriako soldadoeri eskualdun gaztek pagatzen zioten 'Herria', orhoitgarri bezala. Eta ondoan hainitzek atxiki zuten haren irakurtzeko usaia (Lafitte, 1971).

Argi dago irakurle gehienak bertako euskaldunak zirela. Gero eta gutxiago, noski. 1971n Pierre Lafitte ez zen oso baikorra. Arrazoi askorengatik: irrati-telebista heldu zen, eta horiekin batera irakurtzeko zaletasuna ere murriztu egin zen, euskaraz zein erdaraz; frantsesezko aldizkari eta egunkariak gero eta gehiago ziren; euskara ez zen irakasten, eta familietan ere, gero eta gutxiago mintzatzen zen; Ameriketan are okerrago: lehenengo irakurleen seme-alabek ez zekiten euskaraz, helbideak aldatzen ziren...

Hala ere, *Herriak* bere betebeharra bete zuen, lehen ere *Eskualdunak* egin zuen bezala; baina garaiak aldatzen dira, eta euskarazko aldizkaririk zaharrenak ere bere ordaina pagatu behar izan zuen.

4.2.5. *Almanakak*

Atal hau bukatzeko, labur-labur hitz egingo dugu XIX. mendean eta XX. mendeko lehen hamarkadetan euskal kazetaritzan hain garrantzi handia izan zuen aldizkari mota batez: almanakak. Haien kopurua nahiko handia izan zen, eta benetako aldizkarien aitzindaria ere izan ziren. Zinez, ezin ditugu almanakak aldizkaritzat hartu, baina aldi berean ezin dugu beren garrantzia alde batera utzi. Hala ere, kazetaritza finkatu ahala, almanaken pisua gutxituz doa. Horixe gertatzen da euskal kazetaritzan ere. Aztertzen dugun garaian bi almanaka bakarrik daude: *Gure Almanaka*, *Eskualdunaren itzalpean* urtero agertzen zena, eta, astekaria desagertuta, *Gure Herria Almanaka*, *Herriari* lotua. Astekarien pentsamoldearen jarraitzaileak dira, eta osagarriak. Irakurleria hiritartzen den heinean, genero honen garrantzia murriztuz joan zen. Hala ere, 70eko hamarkadan ere argitaratzen ziren almanaka edo urtekari hauek.

Euskal kazetaritza lehen frankismoaren garaian

1. II. Mundu Gerraren ondorengo prentsa (1945-1949)

Munduko II. Gerra bukatutakoan, gauzak nola edo hala bere onera joan ziren. Frantzia berriro aliatuen menpe, Ipar Euskal Herrian bazegoen finkatzerik. Asko eta asko Ameriketara joanak ziren, hala nola Jose Antonio Agirre Lekube lehendakaria bera, New Yorken finkatu zena. Eusko Jaurlaritza berriro bildu zen 1945eko udaberrian, New Yorken bertan. Bilera hartan, dirudienez, esperantzak handiak ziren, eta baten batek esan zuen Euskal Herrira itzulera gertu zegoela. Baina denbora asko falta zen Euskal Herrira berriro itzuli ahal izateko. Jose Antonio Agirre bera erbestean hil zen.

1.1. ALDIZKARI POLITIKOAK

1.1.1. Parisko *Euzko-Deyaren* berpiztea

Behin Frantzia *Libération*-ek askatua, Eusko Jaurlaritzak 1942. urtea arte Parisen argitaratzen zuen *Euzko-Deya* aldizkaria argitaratzeari ekin zion. Frantsesa eta gaztelania nagusi ziren, hala ere euskarak ere bazeukan lekurik. Hamabostean behin agertzen zen Pariseko Marceau Hiribideko 11. zenbakitik. Lehengo zenbakitzea zuten, beraz esan dezakegu aldizkari bera zela, Gerrak inposatutako eternaldi baten ondoren berriro agertua. *Euzko-Deya* Eusko Jaurlaritzaren bozeramalea zen.

Euskaraz normalean *Euskal-Orriya* zegoen (aldizkari zortzi bat orrialde izaten zituen), eta bertan denetariko gaiak aurki ditzakegu, gehienak euskarari buruzkoak. Dena den ez dira falta Europari buruzko berriak. Kontinentea pil-pilean zegoen, nazien aurkako epaiak nonahi sortzen baitziren. Aldaketa handiak, dudarik gabe, erbesteratuak zer edo zer egitera bultzatzen zituztenak. 1947ko maiatzaren lehen greba bat antolatu zen Hego Euskal Herrian, Bizkaian eta Gipuzkoan batik bat. *Euzko-Deyak* informazio asko eta asko eman zuen, frantsesez batez ere, gaztelaniaz eta euskaraz. "Euzkadi, lenengo arrikada Franko'ri jaurti diona". Eta egia bazen hura izan zela Francoren sistema politikoaren kontra euskaldunek egindako protesta handia. "La huelga del Primero de Mayo", esan zuen Euzkadi [sic] Irratiak, "ha demostrado también que existe un medio incruento para implantar la democracia" (*Euzko-Deya*, 1947ko ekainak 15, 264. zenbakia). Batzuek diotenez, 20.000 bat pertsonak greba egin zuten (López Adán, 1977: 39).

Esperantzarako bidea irekita zegoen nolabait. 1946an Euzko Alderdi Jeltzalea hasi zen Hego Euskal Herrian berrantolatzen. Europako aliatuekin oso harreman onak mantentzen zituen; baita Estatu Batuekin ere (gogoratu behar dugu II. Mundu Gerran han egon zirela erbesteratuta euskaldun asko). 1946an batzuek han jarraitzen zuten, eta New Yorken euskara hutsezko aldizkari bat argitaratzen hasi ziren. Bere izena Gerra Zibilaren aurrean Donostian argitaratuarena zen, bere ezaugarriak desberdin samarrak baziren ere: *Argia*.

1.1.2. *Argia*

Hala ere, *Argiaren* lehen alea, 1946ko apirilekoa, Caracasen argitaratu zen. Lehenengo lau zenbakiak, 1946ko uztaila arte, Venezuelako hiriburuan agertu ziren; beste guztiak, 1946ko abuztuaren 9tik, New Yorken. Han bertan agertu ziren gainontzeko guztiak, guk dakigunez 15 ale guztira, azkena 1948ko azaroan argitaratua.

Gerra ondorengo *Argiak* eta Gerra aurrekoak ez dira berdinak, izena izan ezik. 1946tik argitaratzen den hau batez ere politikoa da, E.A.J.ren pentsamoldeari jarraitzen diona.

Eusko Jaurlaritzarekin harreman estuak zituen. Normalean, aldizkariak honako atal hauek izaten zituen: "Asmo eta egintzak", "Olertiak",

"Euzkotarrak Ameriketean" (Venezuelako, Argentinako, Txileko, Mexikoko eta abarreko berriak), gai politikoak, kulturari buruzkoak, asteko berriak eta denbora-pasak (azken orrialdean). Argazkiak bazituen, eta Amerika osoko iragarkiak ere, euskaldunenak. Harremanak bazituen beste euskarazko aldizkariekin, esate baterako Baionako *Herriarekin*. Euskal kulturaren aldekoa, 1947an Itzultzaile Batzaldija antolatu zuen. Laster hasi ziren Ipar Euskal Herrian erbesteratutako euskaldunekiko harremanak, eta Ameriketean zeuden asko ere hara joan ziren handik gutxira. Nikolas Ormaetxea *Orixeren* itzala hasi zen nabari egiten. Ormaetxeak pisuko garrantzia izango zuen 50eko hamarkadan hain eraginkorra izan zen beste euskara hutsezko aldizkari batean, agian Gerra ondorengo inportanteena izan zen *Euzko Gogoan*. *Orixek* berak esan zuenez, pauso isil eta zuhurrez jokatu behar zen, erbesteratzea ustez baino luzeagoa izango zelako. 1946an aliatuek eta nazioarteko giro orokorrak jaioterritik urrun zeudenen esperantzak pizten zituzten, baina 1947an Estatu Batuek beren kanpo-politika aldatu zuen, komunismoaren aurka edozein baliabidez jokatuz. Horretarako, Francoren estatua lagun bezala ikusten hasia zen. Erbesteko euskaldunek ulertu zuten Gerra Zibilean hasitako bidea ustez baino latzagoa izango zela.

1.1.3. *Alderdi*

Urte hartan bertan Euzko Alderdi Jeltzaleak beste aldizkari bat kale-ratzeari ekin zion: *Alderdi*. Aldizkari honek bizitza luze samarra izan zuen. Lehen zenbakia Baionan agertu zen 1947ko apirilean. Elebiduna zen, gaztelaniaz eta euskaraz egina (euskaraz bakarrik orrialde bat edo gutxiago agertzen zen). Hasieran, ikertzen dugun garaiko hainbeste aldizkari bezalaxe, mimeografiatua zen, 1949ra arte ez baitzen inprimatu.

Lehen zenbakian argi eta garbi zioten nortzuk ziren bultzatzaileak, *Alderdi* Euzko Alderdi Jeltzalearen buletina zela baieztatuz, "una necesidad advertida por sus dirigentes y señalada en la reunión Consultiva de Donibane Loitzun" (*Alderdi*, 1. zenbakia, 1949ko apirila). Nolabait, *Alderdi* Gerra Zibilaren ondoren Hegoko abertzaleek erbestean argitaratutako lehen aldizkaria izan zen *Euzko Endaren* jarraitzailea zen. Bazegoen, ordea, desberdintasun bat:

La atención primordial de aquél [Euzko Enda] se dirigía al 'vasco desconocido' que en tierras lejanas pudiera interesarse rectamente por la suerte trágica de Euzkadi; mientras que éste de hoy -sin excluir aquella finalidad- se dirigirá sobre todo a vascos (...) que en las filas del P.N.V. formaban en Euzkadi peninsular y en sus filas continúan, unos cercanos y otros desparramados por las cinco partes del mundo.

Dirudenez, berripapera Hegoan ere banatzen zen. Han protestak noizbehinka agertzen ziren. 1947ko Aberri Eguna ez zen bakarrik erbestean ospatu, barruan ere bai. Donostian abertzale batzuek Radio San Sebastián hartu zuten, "que la Resistencia Vasca convirtió por unos momentos en Donostia Irratija" (*Alderdi*, 1. zenbakia, 1947ko apirila), eta ordu biak aldera euskaraz eta erdaraz Aberri Eguna ospatzera deitu zuten. Prentsa ez zen komunikabide bakarra. Urte hartan bertan, 1947ko apirilaren azken astelehenean, gaeuz, Londresko B.B.C. irrattia hasi zen euskarazko irratsaio batzuk aireratzen. Ingalaterran zeuden apaiz euskaldun batzuk, haien artean Gotzon Urrutia. Gerra aurrean Zornotzako *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan aritua zen. Jaungoiko-Zale Bazkunaren bultzatzaile bat izan zen, beste batzuekin batera, hala nola Ingalaterran ere zegoen Gabriel Manterolarekin batera. Urrutia zen B.B.C.ko kanporako zerbitzuak aireratzen zituen asteroko irratsaio haien arduraduna. *Alderdik* normalean transkribitzen zituen, "Euzkera irratijan" izenburupean. Lehenago ere, 1946ko abenduaren 20an, hasi zen emititzen Resistencia Vasca delakoaren Euzkadi Irratia, euskaraz eta erdaraz. Euskarazko testu asko *Alderdi*n eta, 1950etik, *Euzko-Deyan* ere agertzen ziren.

Itzultzeko lehen esperantzak baretuta, erbesteratutako euskaldunek beren bizitza finkatu zuten Ipar Euskal Herrian edo Ameriketean. Egitasmoak ere, hasiera batean behin-behinekoak zirenak, iraupen luzeagorako prestatu ziren. Kazetaritzan ere horrek isla nabaria du. 50eko hamarkada hasterakoan, ziklostilean egindako aldizkari batzuek inprentarako pausua eman zuten, horietako bat *Alderdi* bera. Klandestinitate garai ilunak, hala ere, ez zeuden erabat gaindituta, eta baliabide hori ez zen alde batera utzi erabat.

1.1.4. E.G.I.ren aldizkariak

Jeltzaleen artean oso kementsua izan zen Euzko Gaztedi (E.G.I.), E.A.J.ren gazteak. 1945ean hasi ziren argitaratzen *Azkatasuna* aldizkaria. Jelkide gazteak E.A.J.koak baino erradikalagoak ziren. E.G.I. beti bozeramale bat izaten saiatuko zen. Hala erabaki zuten 1946ko batzarrean. Eta bozeramale hartan, orrialde bat behintzat beti euskaraz. Organo hori urte luzetan zehar *Azkatasuna* izan zen. Diruzaina Juan Sistiaga zen, eta zuzendaria Julio Sarasua. Euskaraz testu batzuk aurkitzen ditugu, Joseba Zinkunegik, J. M. Leizaolak edo Norberto Tauer txekoslovakiarrak, besteak beste, sinatuak.

1946ko irailean Baionan Eusko Ikaskuntzen Astea egin zen. Euskarak protagonismo gehiena eskuratu zuen: José Zinkunegik "Necesidad de un

Euzkera literario unificado. Urgencia del problema. ¿Cómo resolverlo?" izeneko hitzaldia eman zuen; Pierre Lafittek ere, bere *Grammaire basque sur le navarro-labourdin litteraire* argitaratu berria zeukan, euskararen batasunaz hitz egin zuen. *Azkatasunak* bere bidea jarraitzen zuen; arazo ekonomikoak ez ziren falta, ordea. 1947an desagertzeko zorian egon zen. Ia urtebete argitaratu gabe egon ondoren, 1949an berriro kaleratu zen, mimeografiatua. Ikusi dugun azken alea 1951ko apirila-maiatza-ekainekoa da. Guztira, 53 ale izan zituen aldizkari honek.

Euzko Gaztediarekin ere lotuta zegoen *Eutsi!!* izeneko aldizkaria. 1949tik kaleratu zen, Parisen, Euzko Alderdi Jeltzalearen gazteen kemenez. Klandestino, mimeografiatua, oso txikia, behintzat 1955. urtera arte argitaratu zen, bere aldizkatasuna zein zen ez dakigu. Ia erdia euskaraz idatzita zegoen, gipuzkeraz.

Gazte jeltzaleen beste aldizkari bat *Ikasle* ikasle izan zen. Erdi kulturala, erdi politikoa, ikasturtero ateratzen zen. Euzko Ikasle Alkartasunaren bozeramale klandestino zen.

1.1.5. Emakume Abertzale Batzaren Euzko Gaztedi

Caracasen beste aldizkari bat argitaratu zen, *Euzko Gaztedi* izenekoa. Hala ere, lotuago zegoen Emakume Abertzale Batzarekin Euzko Gaztedirekin baino. Venezuelako hiriburuan E.A.B.koek beren aldizkaria argitaratzeari ekin zioten 1948ko ekainaren 8an. Taxuera aldakorra zen. Hasieran 21,5 x 28 zm. zituen, eta mimeografiatua zen. Euskaraz Leiza delako batek, Elgezabal delako batek eta Bernardo Estornes Lasak idatzi ohi zuten. Aldizkari politiko-kulturaltzat har dezakegu. 1950ean inprimatzen ari ziren, baina, arazo ekonomikoak zirela medio, 1951n berriro mimeografiatuta agertu behar izan zuen aldizkariak. 1953an berriro inprimatu zen. Argazkiak eta iragarkiak bazituen. 1954an egunkari itxura handiagoa zuen, bere neurriak 29 x 41 zentimetro izanik. 1959an kolore gorria erabiltzen hasi zen, maketazio berriagoa ere egin zen, beti ere egunkari moduan (hilabetean behin edo bi hilabetetan behin agertzen bazen ere). Guk dakigunez, 1974. urtera arte, irregularki, kaleratu zen.

1.1.6. Beste alderdi politikoen prentsa

Jeltzaleek ez ezik, beste talde politikoei ekin zioten berriz ere beren bozeramaleak argitaratzeari. Batzuek Gerra Zibilaren aurreko ereduak berreskuratu zituzten. Acción Nacionalista Vasca delakoak, esaterako, halaxe egin zuen, eta 1946an berriro *Tierra Vasca* kaleratzen hasi zen. *Tierra Vasca* batez ere erdaraz idatzita zegoen, baina beti ere euskarari leku bat ematen zioten ("euskel atal" deituriko baztertxoan). Gerra ondoren, esan

bezala, berdin egin zuten. Garai hartan *Tierra Vasca* ez zen egunkaria (aztertzen ditugun aldizkarien artean, ez dugu egunkaririk aurkitzen), eta aldizkatasuna aldakorra da: agertzen zen ahal zenean. Lehen zenbakia 1946ko urtarrilean agertu zen, "Boletín de Información de Acción Nacionalista Vasca" azpigituluarekin. Taxuera handiko aldizkaria zen, lau orrialdekoa. Orrialde erdi bat euskaraz zegoen, "Txinpartak" izenburupean, *Tximista* delako batek sinatua.

1947an hilero kaleratu zen. 1947an aldizkatasuna aldakorragoa bihurtu zen. Gerra aurrean bezala, José Olivares Larrondo *Tellagorrik* zuzendu zuen, hil arte. 1958an ere argitaratzen zen, Buenos Airesen.

Komunistek ere Gerra garaian *Euzkadi Roja* argitaratu zuten. Gerra ondoren izenburu hori berreskuratu zuten beste aldizkari bat ateratzeko, 1947an. Hala ere, zenbaki garrantzitsuenak 50eko hamarkadakoak dira. Gazte komunistek (Juventudes Socialistas Unificadas) mimeografiatutako aldizkari klandestino bat kaleratu zuten, *Gaste'en Alkartasuna*, dirudienez Gipuzkoan argitaratzen eta banatzen zena. Nahiz eta izena euskarazkoa izan, ez dago aldizkarian euskarazko testurik.

1.2. KULTUR ALDIZKARIAK

1.2.1. Joxemiel Barandiaranen kultur egitasmoak

Aldizkari politikoekin batera, garai hartako kazetaritza mota garrantzitsuena kulturala zen. Erbestean, esan bezala, Gerra aurreko ekintzak berrosatu egin behar izan ziren, politika arloan eta baita kultura arloan ere. Politikoak ez ziren erbestera bakarrik; kultura munduan zebiltzanek ere mugaz harantzago joan behar izan zuten, Gerra baino lehen politikan sartuta ez bazeuden ere; baina Francoren erregimenak euskal gauzetan ibiliak "susmagarriak" zirela uste zuen. Horietako bat Joxemiel Barandiaran zen. Gerra hasi zenean, Barandiaran Mutriku portutik untziratu zen Iparrean joateko, 1936ko irailean. Hamazazpi urte iraun zuen bere erbesteratzeak. Madrilen fitxa bat egin zioten, "simpatizante de ideas judeo-masónicas y rojo-separatistas" zela esanez. Miarritzen, Angelun, Baionan eta azkenik Saran egon zen Barandiaran. 1937an hasi zen Iparrean berriro lan egiten. 1938ko apirilean zeuden intelektual batzuk bildu ziren, lanean hasteko: hor zeuden Angel Apraiz, Isaac López Mendizabal, Francisco Javier Landaburu eta Joxemiel Barandiaran bera. Laster II. Mundu Gerra hasi zen eta, nahiz eta Barandiaranek arkeologi lanetan ibili, gauzak zaildu egin ziren.

Gerra pasatu bezain laster, Barandiaran *Ikuska* aldizkaria argitaratzen hasi zen (1993an berriro agertu zen). 1946an izen bereko elkarte sortu zuen, edo berriro martxan jarri zuen esan beharko genuke, ikerketarako erakunde hau Gasteizen jaio baitzen 1921ean. *Ikuska*, batez ere arkeologian aritzen zena,

berehalaxe sartu zen Eusko Ikaskuntzan. Eusko Ikaskuntzaren ekintzak moztu ziren Gerra hastean. 1946an, Iparrean errefuxiatuak zeuden Eusko Ikaskuntzaren partaideek Barandiaran hautatu zuten lehendakari.

Ikuska aldizkaria frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz idatzia zen. Hizkuntza nagusia frantsesa zen, eta noizbehinka testuren bat euskaraz agertzen zen. Gehienak Joxemiel Barandiaranenak berarenak izaten ziren. Etnografia eta arkeologia ziren jakintza-arlo nagusiak. Nolabait, Gerra aurrean bere ardurapean argitaratzen ziren *Eusko Folklore: materiales y cuestionarios* eta *Anuario de Eusko Folklore* ordezkatu zituen aldizkari berri honek. Hala ere, Barandiaranek erabaki zuen beste gai batzuei buruz ere aritzea, euskal kulturak pairatutako hondamendia zer nolakoa izan zen ezagutzen baitzuen.

Eusko Jakintza Gernika-Société Internationale des Études Basques erakundearen babesean argitaratu zen. *Eusko Jakintza* Eusko Ikaskuntzak Gerra aurrean argitaratzen zuen *R.I.E.V.* aldizkariaren jarraitzailea zela esan dezakegu, *Ikuska* Gerra aurreko *Eusko Folklore* eta *Anuario de Eusko Folklore*ren zutabeetan oinarritzen zen bezalaxe.

1.2.2. Gernika

Barandiaranen asmoak arlo kulturean geratu baziren, Gernika taldeak harantzago joan nahi zuen, eta horregatik 1948an izen bereko aldizkaria argitaratzen hasi zen hiru hilabetetan behin: *Gernika. Cahiers collectifs de cultur humaniste* zuen izena. 1949tik beste azpititulu batez agertu zen: *Eman da zabal zazu. Al servicio del humanismo popular vasco*. Lehen ikusi ditugun beste kultur aldizkariak bezala, frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratua zen. Hasieran euskaraz idatzitakoaren portzentaia %10 bazen, urteetan zehar %30ra iritsi zen.

Gernika erakundea erbestean sortu zen, eta ez zuen zerikusirik Barandiaranen izen bereko taldearekin. Aldizkarian bertan kontaktzen zaigunez, mugimendu hau osatzeko asmoa 1943an sortu zen, baina hurrengo urtean gauzatu zen Donibane Lohitzunen, Gerra aurrean abertzaletasunean eta kazetaritzan ere (Donostiako *El Día* egunkariaren sortzailea izan zen bera) aritua zen Rafael Pikabeak piztu zuen ideia. Mugimenduak apolitikoa izan nahi zuen. Berehalaxe, baina, arazoak sortu ziren. Gernika mugimenduak honelaxe aurkezten zuen bere burua: "Un movimiento fundamentalmente popular, de carácter pluralista, que en ningún modo responde a las exigencias o imposiciones de una ideología determinada".

Abertzaletasun jeltzale dogmatikotik urrundua, *Gernikan* hasi ziren idazten izen ezagun batzuk: hala nola Inazio Eizmendi *Basarri* bertsolari eta kazetaria, edota Nikolas Ormaetxea. Iparrekoek (Gavel irakasleak, Etcheverry kalonjeak, Ustaritzeko Sallaberry abateak, Xavier d'Iharce


Iratzederrek), Ameriketakoek (Tomás de Eguidazu Venezuelako abokatuak, esaterako), eta Hegokoek (Xanti de Meabe, Adolfo de Larrañaga erbestera-tuek) idazten zuten *Gernikaren* orrialdeetan. Aldizkariaren historian zehar, euskal kulturaren ezagunak ziren izenak aurkituko ditugu: Juan Thalamas Labandibar, Miguel Astiz, Jean-Pierre Yholdi, Justo Garate, Isidoro de Fagoaga, Isaac López Mendizabal, Piarres Lafitte, Errose Bustintza *Mañariko*, eta azken urteetan (aldizkariak 1953an utzi zion argitaratzeari) Federico Krutwig euskaltzaina, Andima Ibinagabeitia, Luis Villasante, Norbert Tauer eta Jon Mirande. Aldizkarian kulturaren arlo gehienak aurkitzen ziren: artea, literatura, filosofia, filologia, eta abar. Bere orrialdeetan euskaraz eta euskarari buruzko ikerketak argitaratu ziren. Euskal kulturaren garai latzetan mugitzen zirenentzat *Gernika* izan zen elkargune bat, denetariko ideiak eta iritziak plazaratzeko.

Gernika 1953an desagertu zen. Helburuak beteta, *Gernikaren* 25 aleak euskal ikasketei eta euskal kulturari buruzko erreflexioari seriotasuna emateko ahaleginaren eredu dira gaur egun.

1.2.3. Euskal kulturaren berpiztea Hegoan

Gauza horiek guztiak erbestean gertatzen ziren. Hegoan, bitartean, Gerraren hondamendiak gainditu nahian, euskal kulturak pixkanaka, erregimen politikoak ezarritako zailtasun eta oztopo guztien gainetik, berriro ibiltzen hasi nahi zuen. 1936an euskal kulturaren erakundeak desagertu ziren, edo behintzat, ekintzak egiteari derrigortuta utzi behar izan zioten. Eusko Ikaskuntzak mutu geratu behar izan zuen, erbestean zenbait Eusko Ikaskuntzen Kongresu egin baziren ere, eta, ikusi dugun bezala, Barandiaran lehendakari izendatua bazen ere, Hegoan ezin zuen ezertxo ere egin. Euskaltzaindia ere geldirik geratu zen, eta, nahiz eta 1941. urteaz geroztik euskaltzainak berriro bildu baziren ere, oso ekintza gutxi egin ahal izan zuten 1953. urtea arte; bere bozeramalea ere, *Eusker*a aldizkaria, ez zen berriro agertu 50eko hamarkada arte, ia hogeitun urte kaleratu gabe egon ondoren.

Zerbait, ordea, geratu zen. 1940tik Nafarroako Foru Aldundiaren Kultur Kontseiluaren ardurapean zegoen Príncipe de Viana erakundeak izen bereko aldizkaria kaleratzen zuen. Erdara hutsez agertzen bazen ere, euskal ikaskuntzarako arnasa ekartzera etorri zen, euskal kultura itoaldian zegoenean.



Asmo berri

EGAN-ek, BOLETIN-aren eraskin onek, aurki izango ditu zortzi urte. Ia zortzi urte auetan, euskeraz eta erderaz aurrenik, euskera utsez gero, amaika lan agertu dira bere orrialdeetan, zenbait —Jasai esan dezakegu— ez nolanaikoak.

Eraberritu-naiean dabil, diogunez. Gulpuzkoa'ko Diputazioak aitu asmo txalogarriz Donostia'n sorturik daukan "Julio de Urkixo" Euskal-Filologi-Muintegiak artu du bere gain orain aldizkari au antolatzea, gure mintzabide biziaren alde lan egiteko, agindua daukan bezala.

Eginbide au, zuzen edo oker, gu iruron bizkar gelditu da eta azaldu nai genizuke, irakurle, zer ustetan geran. Maizago argitara eman nai genduke EGAN: maizago, ugariago eta ornituago. Eta biziakin ari geran ezkeru eta darabilgun izkuntza ere izkuntza bizia den ezkeru, gaiak ere biziak, gaurkoak, nai genituzke. Sarriegi gertatzen baita azken-aldi onetan euskerak, olakoak erabilliaz bere trebetasuna erakutsi bearrean, bere eritasun eta makurrak dituela beti aotan, guziok ezagutzen ditugun zenbait pertsona mintzuk bezala. Eta beldur gera ez ote den ori biderik egokiena izango maiteen dutenak ere asperazteko.

Kalera begira ari nai dugu, baserrira begira baiño geiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi-ikasientzat. Zenbaitek uste izango du, bear bada, ori baiño eginkizun bearragorik badagoela. Baliteke ala izatea, eztugu ukatzen. Eztagokigu, ordea, guri erabakitzea zein den bearren. Gere saillean ari nai dugu, ortarako egokiera eskura zailgun ezkeru, bestetan ari duenari eragozpenik jarri gabe ez ezik, aal dugun pixkarekin lagunduaz. Oñarriak leenago dira tellatua baiño,

EUZKO - GOGOIA

1956 gko. ILBELTZA-OTSAILA

Zuzendari : Zaitegi eta Plazaola' tar Iokin Ph. D

VILLASANTE AITA

Aita Añibarro, euskal-idazlea

MIRANDE' tar JON

Bi Fraideak

LIZARDI ta LARREKO ziranek
elkarri egin-gutunak

ITHURRALDE PIARRES

Spinoza

ZAITEGI eta PLAZAOLA' tar IOKIN

Platon eta Sokrate

INTXAUSPE ETXEKO LANAK

Euzko Gogoaren lehen alea

Berdin egin zuen Real Sociedad Vascongada (betiko idazkera, "Bascongada" alegia, alde batera utzi behar izan zen) de Amigos del País delakoak. Espainiako Consejo Superior de Investigaciones Científicas delakoaren Gipuzkoako delegatu bihurtua, 1945etik bere buletina hiru hilabetetan behin kaleratzea lortu zuen. Bertan euskal testu batzuk, poemak eta literatur testuak, agertzen hasi ziren berriro. Hasiera batean gehigarri moduan, *Egan* izenburupean. Horren atzean kartzelan urteak eman ondoren euskal ikasketetan aritzea erabaki zuen Koldo Mitxelena zegoen. Ez du gu hemen Mitxelenaren garrantzia azpimarratu behar. Antonio Arrue eta Angel Irigarayekin batera gehigarri elebiduna argitaratu zuen 1953. arte, eta hortik aurrera, euskara hutsez. Literatur lanak ez ezik, itzulpenak, zinemari buruzko kritikak (Mitxelenak berak sinatuak), liburuen iruzkinak, Euskaltzaindiaren hitzaldiak eta abar agertzen ziren.

Oso bitxia eta ezezagun samarra da *Chakain* aldizkaria. 1947an argitaratu zen Lesakan, sanferminetan. José Emilio Esparza eta Felipe Aldave gazteek egin zuten, erdaraz eta euskaraz. Bi ale agertu ziren.

1.2.4. *Euzko Gogo*

Kultur argitarapen garrantzitsuenetariko bat, garrantzitsuena ez bazen, *Euzko Gogo* izan zen. Jokin Zaitetik 1949an sortua, hurrengo hamarkadan izugarriko garrantzia izan zuen euskal kulturaren eta euskal kazetaritzan. Lehen Guatemalan eta gero Miarritzen, bederatzi urtetan zehar euskara hutsezko argitarapen eraginkorrena izan zen. Zaitetik, euskara hutsezko kazetagitzaileen ahulezia ikusita, 1947tik aldizkari berri bat atera nahi omen zuen. Hasiera batean, dirudienez, asmoa Estatu Batuetako *Selecciones del Reader's Digest* antzeko aldizkari bat kaleratzea zen, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, eta horixe proposatu zion Andima Ibinagabeitiari. 1949an inprimatu zen lehen alea, 1950ean kaleratu zena. Asmo nagusia euskara berpiztea zen. Hasieran, literaturan oinarritzen zen aldizkaria, eta idazle guztien elkargune izan nahi zuen *Euzko Gogoak*, baita abangoardista edo kritikoenena ere. Jon Mirande edo Federiko Krutwig bezalako idazleak maiz agertzen ziren aldizkarian. Aldizkariak izan zezakeen adoreaz jabeturik, laster euskal kulturako eta euskal politikako lagun asko Jokin Zaitegiren egitasmora hurbildu ziren: Andima Ibinagabeitia, F. Irizar, Sebero Altube, Telesforo Monzon, B. Zapirain, Joxemiel Barandiaran, Jose Antonio Agirre lehendakaria bera Frantziatik, Gotzon Urrutia Ingalaterratik, Jon Oñatibia Mexikotik eta Argentinan zegoen Isaac López Mendizabal, esate baterako.

Zailtasunak bazeuden, ordea. Hego Euskal Herritik ere oztopoak: dirudienez, jesuitek ez zuten euskal gauzeekin nahastu nahi, eta nagusiek jesuitei agindu zieten euskarazko aldizkaririk, edota "revistas sobre o con contenido euskérico" ez onartzea, eta jaso bezain laster itzultzea. Jesuita

batzuek ezin izan zuten *Euzko Gogoara* testurik bidali, nagusien baimenik ez baitzuten.

Hala ere, Zaitegik lana kemenez egin zuen. Eta berri on bat jaso zuen: Frantzian argitaratzen zen *Oficina de Prensa de Euzkadi (O.P.E.)* buletinaren bitartez jabetu zen Nikolas Ormaetxea Argentinara zihoala bizitzera. Hari eskaini zion *Euzko Gogoan* lan egitea, etxea, janaria eta Caracaserako bidaia ordaintzea. *Orixek* baietz erantzun eta Jokin Zaitegiren aldizkariari bide berriak zabaldu zitzaizkion. Hurrengo hamarkadan ondu ziren bien arteko lanaren emaitzak.

1.3. HEGOAN, BERPIZTE BIDEA

1.3.1. Euskaltzaindiaren indar berriak


Egoerak hala behartuta, Hego Euskal Herrian isiltasun handia zegoen. Baina pixkanaka euskararen inguruko zenbait ekintza egiten ari ziren. 1941etik Euskaltzaindia berriro bizirik zegoen, ekintza guztiak egin gabe bazen ere; "urrats neurtuak", Martin Ugaldek eta Jose Antonio Arana Martijak diotenez (Ugalde eta Arana Martija, 1984: 25). Euskaltzain batzuk hilak ziren, eta lau euskaltzain berri hautatu ziren: Ignacio M^a Etxaide, Nazario Oleaga, Angel Irigarai eta Federico Krutwig. Kurtwigen hautaketa asko kritikatu zuten puristek, bere abizena atzerritarra zelako. 1951n Resurrección M^a de Azkue hil zen, eta Ignacio M^a Etxaide euskaltzainburu hautatu zuten. Kritika gogorak jasoko zituen, batez ere erbestetik, batzuen ustez frankismoarekiko harremanak bazituelako. Euskaltzaindiak berriro bere aldizkaria, *Eusker*a, kaleratuko zuen 1953an (ale bakar bat, lehengo aurkibideak eta ekintzak adierazten zituena), eta erregularki 1955etik.

José Agerre, euskaltzaina, berriz ere hasi zen egunkarietan idazten. *Pregón* izeneko aldizkarian (Iruña, 1948) olerkiak argitaratu zituen euskaraz; baita *El Pensamiento Navarro* egunkarian eta Iparreko *Gure Herria* aldizkarian ere.

1.3.2. Aldizkari erlijioso berriak: *Anaitasuna*

Kazetaritzari dagokionez, R.S.B.A.P.sen buletinaren *Egan* gehigarriaz aparte, elizgizonak hasi ziren berriro euskal kazetak argitaratzen. Aipamen berezia merezi du frantziskotarren *Anaitasuna* aldizkariak. Bizitza handiko argitalpena, 70eko hamarkadan ere argitaratzen baitzen. Frantziskotarrek, Gerra aurrean ere zenbait aldizkari elebidun (*Aranzazu*) zein euskara hutsezkoak (*Irugarrenge'en Irakaslea*, esaterako) argitaratzen zituzten. 1945ean berriro euskarazko aldizkari bat argitaratzeari ekin zioten, Aita Eugenio Agirretxeren zuzendaritzapean. Hasieran Gipuzkoan bakarrik

(Tolosako frantziskotarrek argitaratzen zuten), 1953tik Bizkaian ere agertu zen, Gipuzkoako edizioaren eranskin moduan, Foruko frantziskotarrek eskatuta eta Imanol Berriatuaren zuzendaritzapean. Berehalaxe arrakasta handia lortu zuen, eta 1957an Arratirako edizio bat agertu zen, mimeografiatua. Gerra aurrean bezala, ordenu erlijiosoek garrantzi handia eman zioten kazetaritzari, eta baita tokian tokiko informazioari eta euskalkieiei ere. Elizgizonen eragina oso handia izan zen, lehen bezala, Gerra ondoko denboran. *Anaitasunaren* ondoren, 50eko hamarkadan ordenu erlijioso, parroikia edota banakako elizgizonekin lotutako aldizkari asko sortu ziren: erlijioari buruzkoak, ordenu barrukoak, herriko aldizkariak, apaiz kritikoen organoak... Horiek denak ikusteko aukera izango dugu hurrengo atalean.



Anaitasuna, Arratirako edizio mimeografiatua

1948an lortu zuten frantziskotarrek *Aranzazu* aldizkarian euskaraz zer edo zer argitaratzea. Urte hartan *Arantzazuko Egutegia* agertzen hasi zen gipuzkeraz, eta 1953an bizkaierazko bertsioa argitaratzeari ekin zioten.

Karmeldarrek, beren aldetik, zerbait atera zuten euskaraz *El Mensajero del escapulario del Carmen* aldizkarian. 1946an, aldizkaria lehen aldiz argitaratu ondoren, "Euskal Atala" abian jarri zuten. Aita Doroteo

Aretxabaletakoaren ardurapean Eibarren agertzen zen aldizkari honetako euskal testuak bi urtetan bakarrik agertu ziren.

Beste aldizkari elebidun bat agertu zen Hondarribian, hango kaputxinoek argitaratua: *San Francisco-¡Irugarrendarrak!* zuen izena, Irungo Errazkinen inprentan argitaratu eta Carlos de Verak zuzendu zuen 1946ko otsailetik 1954ko irailera.

1.4. IPARREKO PRENTSA

1.4.1. Baionako *Oiarzuna*, *Etchea* eta *Gazte*

Oiarzuna Eskualdun emazten kaseta da. Oso aldizkari bitxia, kalitate onekoa, ondo inprimatua, argazkiak bazituen, gehiena euskaraz idatzia zen, eta frantsesez zenbait zati ere agertzen ziren. Emakume euskaldunei zuzendua, kutsu erlijiosoa nabarmena zen.

1947an Iparreko euskaldunek beste bi aldizkari kaleratu zituzten lehen aldiz: *Etchea* eta *Gazte*. Lehenengoa euskara hutsezkoa zen, eta 1975. urtea arte argitaratu zen, P. Lahetjuzanen zuzendaritzapean. Baionan inprimatzen zen, hilean behin, eta informatiboa zen. Beti kutsu elizkoia izan zuen. Nolabait, *Etcheak Eskualdunaren* lema bereganatu zuen, familia zutabe bihurtuz: *Eskualdun familien ilhabetekaria* zuen azpizenburua. Taxuera handikoa, egunkari modukoa, esan bezala bizitza luzea izan zuen, *Herriak* beste arrakasta lortu ez bazuen ere.

Oiarzuna eta *Etcheak* bezala, *Gaztek* oso kutsu erlijiosoa zuen. Baionan argitaratzen zen 1947tik (beraz aipatutako beste aldizkariekin batera agertu zen, ia aldi berean), R. Idiéderrek zuzendua. *Eskualdun Gazteriaren Hilabethekaria* zen bere azpizenburua. *Oiarzunan* harrera ezin hobean egin zioten, eta badirudi haien artean, edo bien sostengatzaileen artean, bazegoela harremanik. Denboraren poderioz, Ipar Euskal Herriko kulturari aski ezagunak diren Piarres Xarriton (artean elizgizona) eta Jean Hiriart-Urruty apaizek zuzendu zuten gazte katoliko euskaldunentzako kazeta hau.

Etchea

ABENDOA 1955



BILBO
37264
EGUBERRI ON!
Egun-abendo guzta zehar, behar den bezala preparatzeko helduden Eguberri.
Kasu bereziki haurrez. Gastakeriak eta chorokeriak utzirik, erakutsiko diotegu heldu dela zinez heldu helen Adiskide handiena : Jesus.

ZATO

ARGIAREN BEHA.

Eria ohean, gau beltzaren erdian, harat itzul, hunat itzul. Orenak zoin luze ! Noiz bada leioa arteketarik sartuko zako iguzkiaren argi ezta ? Beha dago, egun berri baten beha.

Mendeak eta mendeak ilhumbatan egon dira gizonak, herrestan zabilzala. Bazankiten, orenen atak bekatu eginez, geroz, oro dohakabe batzu zirela. Bainan bazankiten ere, Jainkoaren hitza berme: jinen zitakotela Salbatzaile bat.

Beha zauden, eri hek ere, kolpatuak, ezinduak: egun berri baten beha. Zerurat buruz othoiztan : « Zato, Salbatzailea, zato. »

Bertze guziak baino berantetsiago, Nazaretheko neskato gazte bat. Maria. Salbatzailearen beha. Eta huna zerutikako aingeruaren hitzak : « Haur bat ukandu duzu, eta « Salbatzailea » emanon dakozu izena. »

EGUN BERRIA.

Jin da egun berria, jin Eguberri. Bainan zer ari gira bada Abendo huntan, « zato eta zato » oihuka ? Nori zato eta zertako ? Lehenbiziko Eguberriak hunat, hogo'i mende hurbil. Eria ezin badira munduan gizonak, milia bat eta erdi gutxi, ez balakite Salbatzailek behinere jin denetzer ere. Galda zazuze gero : nori zato eta norerantz ?

Eta herri handi hori jakin dutenak, zer dira, zer gira ! Jina zakuak Salbatzailea, bainan ez da sekulan aski barna sartua gu baitan. Frangotan batere ez balitz bezala bizi gira. Ebanjelioaren hitz latza : « Etchekoartar jin da, et chekoek ez dute onhartu. »

Abbé Pierre aphez famatuak othoitz hau egiten zuen Jainkoari : « Gosea dutener emozute ogia, ogia dutener emozute gosea. »

Arimako ogia, Jesus. Ainhitzek ez dute ezagutzen, bainan haren ondotik dabilza, itsu-mandoko, gosetuak. Guk ezagutzen dugu : haren gosea girea ?

Batzuentzat ala bertzentzat, Salbatzailea, zato.

J. H.-U.

Algar gana bildurik...

«HEURES D'AMITIE».

Maulen, azken ourtho huntan, Ligatziarek husi dira sail ederra nahiz doiziet alphan. Agian, herri guzitan, ama familiakoeuk egun batzere urhatsa nahiz dukio egun.

« Heures d'Amicitie » deitzen die frankoek.

— Zer da hori ? Ligako emaste gazte zoubait bilzten dia algar gana Ligan ez diren ama zoubaitokiki bereziki ezagutzen dutenak, eta sizo direnak. Eta han, algarrekin, mement bat gochoua igaiten. Dilkhura horik hilabete oroz egiten dute: hirou edo lau algar gana jurtaturik, alalaz bataren edo bestaren etehen, aditza.

— Zertako bilkhura horik ?

— Ligar horiek ontsa burian hartu dielaz Jesusen erakuspema : « Matia esazie bihotz oroz eta indar oroz zizu protsimo laguna. »

Eta entzun dielaz Joudane Jouhano Apostola erraiten noula Jesusék bekhatia garhaitu dian; bekhatik dute gizonak algarren etosi bilhantatu. Jesusék aldiz oro bat arreegin.

Bena mundu huntan, bethi guduken ari dira : bekhafia, jentien nahasi nahiz; grasia aldiz, galdurik eta berhez direnen algar gana bildu nahiz, Jinkoaren adichikidantzan eta bakian.

Hori da Elizari Jesusék utzi saila. Eta khirichtien lana da, gutarik bekhoteharen egitekona, mundu huntako bizizalen artian egiazko bakteren eta amonuraren oartia; elhez eta obratz. Zer da obratzen ez den karitafia ?

— Woz Khumis bilkhura hortoz tarat ?

(Suite page 2)

Balkhotehak, eskueetan behar dugun libria

EBANJELIOUA

Katichiman ikhasi dugu : « Gure Zeluko Jinko Jaunak mundu huntan ezarri guri haren ezagutzeko, matxatzeko, zerbitzatzeko ; eta «Hitz solist-belzako».

Beha noula matxatuzagutzen ez duguna ?

Noula zerbitzota nouzbat, az balhadakigu haren galkhoun eta nahien berri !

JINKOUAK BERRI BERRIA

«Bere Soma» izorri du gure artian biltzea, gure diala bi mila urtho. Jesu-Kristo gure Jaunak eman delku bakia, eta erakutsi noula bako hori begiratzen ahal dugun.

Jinko Soma Palestinan ezagutu

dunek, izkiribuz ezari die haren biltzia, bai eta ere haren elhe eta erakapen baliouak. Horik oro dugu direnen Ebanjelioan.

KHIRICHTIAREN LIBRIA.

Khiriti izena orano merohit dia, bere Nania eta Adichidie ezagutzen ez dianak ? Edo haren hobe ezagutzeko arrankuririk eta antsarik ez dianak ?

(Suite page 8)

« MEZA SAINDUA »

Zer liburu gocho ezain baliosa moldatu daphin hor B. Oihagaray jaun aphezki !
Eros ditake Baionan, 9, rue des Prebendes. (Ehun libre).

Uthabeteheko Lana

ETCHEA ERAKUSLE

IKUS.

Jainkoak, edo Elizak, edo Erlijioekoz azaz Solasean artzen girea gure etchetan ?

Artzen bagira ere, nola ?

Igandeko predikazoi doi dote hitz bat, piko zombaiten emateko, hauren aintzinean berdin ?

Jainkoaren argia lehur dezaken irakurtzerik egiten dugula ? Zer irakurtze ? Bades Ebanjeliorik gure etche guzitan ? Bertze liburu onik ? Zoin ? Astekarik glichinorik ? Zoin ?

Ala, baitira ESOLA « mutuk », Jainkorik alphetzen ere ez dutenak, badira ere ETCHE « mutuk » ?

— Ebanjelioa edo Jainkoaren Hitzza ez baita aski alphetzen, nola balaitzen dugu gure bizian ?

Erran ditakeu hontbertza profiku, irakurtze eta solasek zerbat indar badutela gure familien bizitzeko maneretan ?

— Bethi Jainkoa alphu dutenak dutea hobekien Jainkoa maitaritzen ? Ebanjelioa ez dugula sartua behar ez bakarrik solasean bainan gure urhats guzitan ?

IKAS.

Jesus, lur huntan, ez da predikatutzetik gelditu.

Eliza ere ez dago itchilik : ala Alta Saindu, ala aphezpiku, ala aphez.

Bainan jendes gehienik familian baita bizi, familia glichinoko guziek behar luketo Jainkoa erakutsi, erakutsi Jainko Legoa.

Hortakotz, behar da mintzatu : behar den helnean, nehor akitu gabe, bainan beidurririk gabe.

Behar da ere irakurri : lehen lehenik Ebanjelioa, Jesusen Imitazioa, bertze liburu on edochoi ere, eta ez bakochak bere gisa, bainan goratik: Zer usala ona arats guz irakurtze glichinoko batan eginaraztea, denak hor diralarik, gure haur edo gazte bati !

Gisa bera eran ditake T.S.F. hortaz : baginazki bilhatzen, hautzen eta jakitzen tresna herri horiek dauzkaten erakapen onak !

HAR OHEDEAK.

1) Jainkoa ardura alphatuko dugu gure familietan : erresporetakin, amoloretakin, beidurririk gabe.

2) Irakurtze onak egiten ditugu familian, bereziki negu huntan. Batek irakurtuez, gero denak mintzatu.

3) « Biblioteka » edo liburutegi ttipi bat emeki emeki muntatuko dugu gure etchetan. Hortan behar giruske erosi ditazken liburu ezaruzeko guziak, L. Léon jaunaren « Ebanjeliorik », B. Oihagaray-en « Meza Saindu »-raino.

1947 - Ekholara

(Bakoteha 3 libera)

OLAZUNA

ESKUALDUN EMAZTEN KASETA

ILHABETHEKO PHESTAK

Ekhaiaren 8 an. Igande. **BESTA BERRI** : ohora dezagun ahal bezenbat Sakramendu Saindua. Gazterak alichik ditzala oihudira ehar balosak.

13an. oriztrale, **JESUSEN BIHOTZ SAKRATUA** gizon ala ematek, orok behar lukete kominiatu. Orhoñ Bihotz Sakratu-ri kontsekratun ditugula familiak.

15an. igande, **OTABA** edo **BESTA BERRI ZAHAR** egun ere Sakramendu Saindua gain gaitetik ohora!

20an. astearte, **JONDONI JOANE** : Jesus Juduer erakutsi zuen. Guk, Liga tierrek, behar ginuke ere : Jesus gure ondoan bizit diren gurez erakutsi.

20an. igande, **JONDONI PETRI ETA PAULO** : orhoñtz egin dezagun Eltzaren zat, eta beretik! Aita Sainduarentzat.

Uztaiaren 1an, astearte, **JESUSEN ODOLO BALIOSA** : orhoñtz odol hori goiz guziz beriz ichurtzen dela gure etzetan.

2an, asteazken, **BIZITAZIO-NEA** : har chedea joaiteko. Ama Birjina bezala, beharretan diren guzian laguntzerat.

Lurdeko beila

Egin dugu aurthen denek elgarrekin: Aito, ama, haurrek; familtan beila zen. *Hala erran dio ederki Jean Aphezpiuak Ama Birjinari arribatziari, galdegiten zaharorik benedikzio zilon hau ziren eta ez ziren diosetako familtia guzietan har ziltzan bere gomendioko.*

Gero tortchak phiturik egin dugu prosesione miresgarrekin: Aito, ama, haurrek; familtan beila zen, gau garbi hartan, eliza argi-dituaren haren aintzinean Crede-a kanatuta halako fedearekin.

Eta gauerdiko meza aintzintin, zer arrosarioak ez ditugu erran, halako misionest sarkorrek gidaturik.

Eta ondoren zer kantu chogarrariak. Inana gatik ere gorputzak akhitiuak, orinak loritan bist ziren.

Biharamunen baginutuen bakotehak gure bilkura beretik, gizonek ematek eta haurrek eta aditu ditugun jehontzatuken konteituak.

Zer othoitz hungiarrira eman daukuten haurrek, ait'amentat, jostogaitu polilit balen ondorit!

Eta gure gaicho eriak? Baitzen berrehun, zoin kontent' denek, gurez gurez jirik, batus bertzentat othoitzean. Sendatu ez direnek, segur bildu dute beren s'ofrikarioen soportlatzeko grazia.

Erre nahi zuten iruzkiaren pian egin dugu prosesione bat ezin ederragoa. Bagingen bederen hamar mila bat.

« Egizu othoitz eta penitentzia » erran zion Ama Birjinak, Bernadeta Sainduari. Egin ditugu eta segur naitz Ama onak emanen dauzkula galdegindazogunak gure familtientzat.

PARISEKO HAURRAK

Kanpagnako aire eta janari onaren beharretan direla ez da dudarik. Heien arimak gure familia sano eta girichintsoan laguntzen direla eta plegu onak hartzen dituzela, behar bada bist guziko, hori oraino egia da.

Beraz zer obra ederra egin jinezake. Ligatitza maiteak, haurno bat edo bertze hartuz gure etchean, bi hilbetetz bakantza demorotzen! 4.500 libera baginuzke hilabete bakotch haur batentzat eta obra onaren egiteko atsegina.

Igorrazue galdea zuen kantonamenduko Ligaren buruzagerei lehen bist lehen.

ERROMARAT



Hona Erromako eta Manduko elizarik haundiena : Jondoni Petri. Lehen Aita Saindua nun baitzen othortza, han da finkituz eliza hori.

Zonbat Eskualdunek ikusiko dute heldudan Erromako beilan? Ez dakigu. Joan ditrenek othoitz dezatela Eskual-Herriarentzat.

Amen Phesta

Ekhaiaren 8 an eginen dela, Frantzia guzian, bakagiku. Amak ohoratuko dituzte etchetan, herrietan, elizetan.

Etchetan : zer plazera ama batentzat lagunaren eta haurren esker ona!

Herrietan: Askotan mun batzu haurren eta amen plazera gatik.

Elizagehaieneetan Ligak erranara iko du meza bat ama familiakoentzat eta benedikzio arazko haurrak Zer da baliosagorrik?

Hola ukhanen dituzte grazia beretzak familtian un eta alichetzako Jainkoak nahi duen bezela.

Ama alabak!

Ikusten delarik neokkato gazte bat pika, bezain arria Tujiategiko Rochail bezela « dena tinta, dena moda » : kondatzen dituztelarik jendeak ferin egunetako edo phesta egunetako haren balentriak, ichtagno ba goiti beheiti adituko duzue : « Funtsuari, ez ditu hobez guziak. Amarik ez dia? »

Ez baduzue hala uste ere, zuen haurrak, berezik zuen alabak, gaizki dabilzalarik, zuek zirezte usu ahe mihietan, gaicho amak. Eta, azken urthe holan, zonba aldiz ez du erransa izan, nechka gazte zontbaiten gati « Ez da gehiago amarik... »?

Besti beretik

Erranen duzue, behar bada, belhi gauza bere diogula... Bainan zuen mahinetan ere ez othe dira usu jan bertsuak? Onak zendako belhi kanbia? Beraz egun ere diogu jadanik hainitz aldiz erreplikatun duguna : amak dituela gelienik bere haurrak moldatzen dela orok dakitena, nahi ginuke manera berezi batez alabatuz : alabak hasteko « arras amaren gain direla. Bichlan da, aitaran larderia, aitaran amodioa behar dira haur guzientzat, nechkatooztat muthikoentzat bezela.

Bainan bere alabantzia ama da gelien gelienik konda eta helentzat amak badauka esku aire berezi bat. Nahiz bere haur guzientzat badituen ama baten bilhotzak behar diren asmu eta jenu guziak erran ditake alabon konpreltzeko eta alichetzeko hobeki dotahuta dela ama.

Amarik gabe alchituan den haurra ageri da : haur ditra nechkatoo balin bada, begi kolpe batez zzagut luchoa bezituzko maneratik beretik eta nik bezela, aditua dukuzue soberachko ehe bide emaiten duten gaituz. Ez da mirakulu horlaratu badira!

Zer diozue, beraz, Jainkoari esker osagarrian eta beren ahal guzian jabe diren ama batuzez? Batere ez balire bezela da eta, zontbat aldiz, hobe litake kasik, ez balire ban : bereu itsumenduren, beren ezchoko-riaren gatik alaben hituen gordeztale eta onhartztale dira. Nehorik ere ditu urhats onetarar beriz bilduko Zontbat aldiz ez dugu gauza hori azken urthe hotan ikusi? Nigar egingarri beita.

Solas berri bat

Alta federeentzat bezela haundia da, ezin ordaindua da beste gauza batentzat amaren indarra. Mintzo niz garbitasunaz, ezkontzako zortoren erroa den garbitasunaz, ezkontzarat helteko eta ezkontu ondoan ere begiritu behar den garbitasunaz. Sorluna eta Eskual Herrian, gauza horietaz guzietaz aski goki, aski klarki, eta, behar den bezela, mintzo diren amen arraza? Natuzalezik berak erakusten dituen gauza batzu salbu amek sekulan kasik ez dituzte beren alaber alphetzen ez amodio egizkoaren legeok, ez ezkontzako legeak... Hoberenek, beraz kasik denek, badakitze legez erraiten : « Kasu egizan... Ez dun hola ihili behar... Guardia eman nik holakoarekin ikustetik... »

Bainan oharituak zirezte, ama maiteak, oraitko mendan ez dela aski erraitela edo mehatchatzen : « Haur ez hazu!... Hori bekatu! » Ochala! denek hori bederen egin balazate! Haur hotzak oraitno, gure haurrek, gure nechkatok, hainitz gauza ikusten eta ikasten dute. Amak balaki, Jainkoaren laguntzarekin, bere haurraren bihotzaren idekitzen, haren-izpirituraren argitzen!

Belhi debrua lanean ariko da halarik ere, gure naturalreza errezelatun gnapurra izan da halarik ere, bainan hainitz egin lezake ama argitu batek bere alaber garbitasunaren mailaretzako gauza untsa esplikatu. Zontbat eta zontbat ez daude ichilik eta, ezkontzako bezperan berean, zontbatek ez dute erraiten : « Bordin ditra lagunak erakutsiko dauzkin behar diren guziak »! Itzak izaiten... Ez ditu nehorik ama batek bezela alphetzen ahal nechkatoo bali... Beruz zuek bederen Ligatierrek utz bazterrerat sobera aho gaiturik dauzkan ahale edo heldur hori... Mintza garbiki zuen alaber. Badakit lan nekea da... Ez duztia Jainkoaren laguntzan konfantzarik?

1.4.2. *Elgar*, Parisko euskaldunen aldizkaria

Azkenik, Ipar Euskal Herrian argitaratzen ez zen beste aldizkari bat aipatuko dugu. Parisen agertu zen, bigarren aldiz, *Elgar*. Lehen garaia 1934ko uztailetik 1936ko ekaina artekoa da. 1933an Eskualzaleen Biltzarrak baimena eman zien Parisen bizi ziren euskaldun batzuei Frantziako hiriburuan delegazio bat sortzeko. Haien artean Paul de Rocca-Serra Legarralde eta Eugène Goihenetxe zeuden, besteak beste. 1948an berriro argitaratzen hasi zen, eta 1975 arte agertu zen. Eskualzaleen Biltzarraren bozeramalea zen, *Journal mensuel des basques de Paris* azpizenburua zeramalarik. Gehiena frantsesezkoa zen, %10 euskaraz idatzia zen. Zuzendaria P. Dargaignaratz omen zen, eta Rocca-Serra Legarralde *redacteur en chef*. Berak adierazi zuen *Gernika* aldizkarian nola sortu zuten berriro *Elgar*: 1947ko abenduan Louis Dassancek, Eskualzaleen Biltzarraren presidentea, proposatu zuen Parisen bizi ziren euskaldun eta euskaltzaleak berriro biltzea, elkarlana berriro hasteko asmoz, are gehiago kontuan hartuz Paris oso hiri garrantzitsua zela. Gainera, Parisera joan ziren euskaldunak laster frantsesten ziren. Horregatik, erabaki zuten Parisen talde bat sortzea, Euskal Etxe bat antolatzea, musika eta dantza-talde bat sortzea, euskara eskolak ("deux cours de basque, élémentaire eta supérieur") eta euskal aldizkari bat, hilabetekari bat, bultzatzea.

1950-1959 bitarteko komunikabideak

1. ALDAKETA HANDIAK HEGO EUSKAL HERRIAN

1.1.1. Industrializatzeko garapena eta aldaketa ekonomikoak

50eko hamarkadan, batez ere Hego Euskal Herrian, aldaketa kualitatibo nabarmen batzuk gertatu ziren ekonomian, politikan eta kazetaritzan. Ekonomian ekintza industrialak areagotu zen batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, hiritartze-bilakaera bat sortuz alde batetik -euskararen gordeleku zen herri-eremuan ere aldaketa handiak sortu ziren-, eta beste alde batetik Euskal Herritik kanpoko jendetza hasi zen etortzen. Demografiaren aldetik, biztanle kopurua handitu zen: 1950etik 1960ra Gipuzkoan 374.000 biztanletik 478.000 biztanlera pasatu zen; Bizkaian 569.000tik 754.000ra. Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, guztira, hamar urtetan 310.000 biztanle gehiago.

Hazkunde bilakaera hori ez zen berdina izan lurralde bakoitzean; Bizkaian hiriburuaren inguruko zonaldean bildu zen industrializazioa eta biztanle gehienak; Gipuzkoan aldiz bazeuden ardatz batzuk. Araban industrializazioa ez zen hain handia. Eredu batzuk, beraz. Gainera, kontuan hartu behar dugu euskararen presentzia atzera zihoala industrializazio handia zuten lekuetan, etorkin erdaldunen ezarreragatik. Bestalde, euskara gordetzen zuten herrietan ere hizkuntza ez zen nonahi mintzatzen, errepresioarengatik ia familian bakarrik hitz egiten baitzen, eskola eta komunikabideetatik at zegoen hizkuntza. Euskara mantendu eta garatzeko Elizak, lehenengo mendeetan bezala, oso betebeharrak izango du. Elizak bultzatuko zuen, neurri handi batean behintzat, ikastolen eta euskarazko komunikabide askoren sorrera. Elizak, edo Elizaren sektore batzuek hobeto esanda, piztuko zituzten erregimenari lehenengo kritikak. Euskal Herriko apaizen kasuan, kritikak are handiagoak izango ziren.

1.1.2. Aldaketak kazetaritzan

Kazetaritzan ere 50eko hamarkada hau beste garai bat da. Periodizazio guztiak arbitrarioak izaten dira, baina badago arrazoirik 50eko hamarkada honetan desberdintasun batzuk gertatu zirela esateko. Irekitze bat gertatu zen, mamian ez bazen ere, baina lehengo urtetako gogortasuna pixka bat arindu zen. Elizak zerikusirik izan zuen aldaketa honekin.

Egoera berri hark bere isla izango zuen euskarazko kazetaritzan, bereziki Hego Euskal Herrian argitaratzen zenean. Euskaraz gauzak argitaratzeko aukera, zaila bazen ere, bazegoen, lehen ez bezala. Hezkuntza munduan gauzak, poliki-poliki, mugitzen hasi ziren. Gerra aurrean egin zen bezala, hezkuntza munduari erantzuna emateko edo, irakurlegoa zabaltzen saiatu zen, eta umeentzako aldizkariak ere argitaratu ziren. Barrutik eta kanpotik euskal kulturaren inguruan zebiltzanak biltzeko ahaleginak egin ziren.

1.2. ALDIZKARI ERLIJIOSOAK

1.2.1. *Anaitasuna*

Imanol Berriatuak sortu zuen gero hain garrantzitsua izango zen hamabostekari hura (hasieran hilabetekaria izan zen). Bi ziren bere helburuak: alde batetik, kristautasuna bultzatzea, garai batean non "prensa den munduaren errege" (1. zenbakia, 1953ko ekaina), eta bigarrena euskara leku guztietan erabiltzera animatzea: "baserrikoak, kalekoak, frabikakoak, unibersidadekoak, futbolekoak, ziñeskoak, ezkontzakoak, gaztarozkoak", berri mota horiek argitaratu behar ziren. Horrela, lehen bezala, fedea eta euskara ("euskaldun-fededun" berdintze hori) berriztatzen zuten, baina orain, industrializazioa zela eta, hirira ere joanez.

Aldizkariaren atal nagusiak hauexek ziren: lehen orrialdean, Berriatuaren editorial bat, normalean erlijioari edo euskarari buruzkoa. Erlijioari buruzko zalantzak "Esaidazu!" izeneko atalean erantzuten ziren. Beste atal bat "Or, an, emen" izenekoak zen: berri laburrak, gehientsuak erlijioari buruzkoak. Hala ere, berri orokorrak ez ziren falta. Azken batean, Gerra aurrean ere horrelako aldizkari erlijiosoen zuten egitura. Komikiak ere argitaratzen zituzten, atzeritarrak (iparamerikarrak, batik bat), euskarara itzuliak (Felix katua, The Katzenjammer Kids). Umeengan berriro konfiantza jartzen zen.

Esan bezala, *Anaitasunaren* bi argitalpenetan euskalki bana erabiltzen zen: gipuzkera eta bizkaierazkoa. Helburu nagusia euskaldunek hitz egiten bultzatzea zenez gero, hurbilen zegoen euskalkia erabiltzea erabaki zuten. Horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiaren aldekoak ez zirenik.

1955ean Euskaltzaindiaren babesu lortu zuen, 1957. urte arte Alfonso Irigoien zuzendari zela. 1956ko Euskaltzaindiak Arantzazun egindako bilera hartu erabakiak bete-betean onartu zituzten frantziskotarrek. Are gehiago, hurrengo hamarkadetan, 60eko eta 70eko urteetan alegia, *Anaitasuna* euskara batuaren defendatzaile porrokatu bilakatu zen.



ANAITASUNA

Suplemento a la hoja
AÑO I — Núm. 1 "ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Junio 1953

GURE ASMOAK

«Deabrua banintz... — esan ei eban bein entzute aundiko gizon batek—, demoniñoa banintz, eta mundu guztia menperatu gura baneu, zer egingo neuke?

Gizonen belarriak erlejiñoaren kontrako biraoz bete, ainbat arriñen fedea galdu daien? Edo euren begien aurrean kuadru zantarrak eta lotiak imini, euren arimak inpernurako bidetik artez joan daitezcan? Edo Eleizearen eta jaioterriaren eta bakearen kontra berba eragin, matxiñadak edonun sortuerazoteko, eta gizonak Jainko barik, jaioterri barik, lege barik nire menpe gogorreen eukiteko?

Ez! Ez neuk olakorik egingo, guzti orrek ez leuskit nire asmoetarako balioko-ta. Zer egingo neuke orduan? Periodiku gaizto bat argitaratuko neuke. Olanik, nire asmo ta ames guztiak beingo beingoan lortuko nituke».

Ez dakit egiazkoak ete direan berba oneek. Beñik bein, ondo adierazoten dabe Periodikuaren indarra ta almena. Izan-bere, gaurko egunetan **Prentsea da munduaren Errege**. Zer diño periodikuak, eta axe pentsetan dabe gaurko gizonak. Eta pentsau ostean, egin. Orregaitik, zuzen egoan **Pierre L'Ermite**, Frantziako nobelista katoliku ospetsua, zera esan ebanean: «Messieurs, la Presse est la Toute-puissance terrestre». (Gizonak, **Prentsea da munduko Ugazaba Alguztiduna**).

Guzti au egia da. Baiña, demoniñoa balizko gizon areri gauza bat aztu yakon, nire ustez. Inpernuko deabruak, gizonak galtzeko, beste gauza bat-be egingo leuke: gizon zintzoen artean zizaiña —bedar txarra— erein, katolikuak banandu, alkar ondo artu ezean, bakotxak banazean lan egin daien.

Eta guk katolikuok, zer egingo dogu bitartean? Lo egon? gure areriroak, eurak gura dabena egin daien? Ez orixe. Itzartu gaitzean, eta lan egin daigun gure kontrarioen arma eurakaz.

Lan aundia daukogu begien aurrean. Geroago ta galduago doa gure gaztedia. Egunean baiño egunean otzago gure kristiñautasuna. Ez gara lengoak. Aztu egin dogu aspaldiko denporea. Olan, nora goaz? Orainarte izan gareana, ez dogu izan gura ala?

Lan egin daigun, gure erriarentzako beste bizitza barri bat ekarten. **Lan egin, eta danok alkartuta.**

Orixe da gure asmoa. - Orixe gura dau ANAITASUNA'K

Orainarte gipuzkeraz agertu da. Arrezkero, baita bizkaieraz-be. Abegi onagaz artu eizu. Irakurri eizu, lenengotan apurtxu bat kostau arren-be. Zabaldu eizu. Eta Jainkoak lagundu deiskulal!

Anaitasuna bizkaieraz, 1953

1.2.2. Apaiz berrien aldizkariak: *Egiz* eta *Egi billa*

1950ean mugaz bestaldetik ahots kritikoek bere bozeramalea kaleratzea erabaki zuten. Martxoan apaiz batzuk *Egiz* argitaratzen hasi ziren, euskaraz eta gaztelaniaz (euskararen portzentaia ez zen handia), mimeografiatua, aldizkatasun fijoerik gabe, hala ere 1952ko abuztu arte gutxi gora-behera hilero agertu zen. Hasiera hasieratik argi eta garbi zegoen zein zen beren helburua: "EGIZ no tiene pretensiones de revista. Su apariencia es modesta, y lo será su contenido. Es una publicación que sale a la calle para ser eco de sentimientos y de aspiraciones que no pueden expresarse libremente bajo el régimen del general Franco" (*Egiz*, 1. zenbakia, 1950eko martxoa, 1. orrialdea). Batez ere, bi gauza salatu nahi zituzten: euskararen galeratzea eta sindikatu langileen debekapena, batez ere E.L.A.

Kritikak areagotzen ari ziren, eta 1951n José María Bueno Monreal Gasteizko gotzaiak, Morcillo González Bilboko gotzaiak eta Font Andreu Donostiako gotzaiak dekretu baten bidez *Egizen* klandestinitatea azpimaratu ondoren, apaiz guztiei aldizkarian testurik argitaratu edo argitalpena zabaltzea galerazi zieten, "por ser políticamente partidaria y por sus nada infrecuentes insidias contra la Jerarquía Eclesiástica". 1952ko martxoaren 20an, beste dekretu episkopal bat: honetan, ikusirik *Egiz* kaleratzen jarraitzen zutela, zera erabaki zen: "Los sacerdotes de esta diócesis residentes dentro o fuera de la misma, que intervengan en lo sucesivo como directores, redactores o colaboradores de la revista titulada EGIZ, ya siga apareciendo esta publicación con el mismo título o con otro distinto, quedarán 'ipso facto' incurso en la censura de suspensión 'a divinis'". Hemezortzi ale ateratu ondoren, *Egiz*koek besterik ez argitaratzea erabaki zuten.

Hala ere, 1954ko abenduan beste aldizkari bat argitaratu zuten, taxuera handiagokoa, *Egi billa* izenburuarekin. Aldizkari hark, *Egizen* bideari eutsi ziona, behintzat 1955eko ekaina arte iraun zuen. Gutxienez zazpi ale kaleratu ziren.

1.2.3. *Zeruko Argia*

1954an Iruñeko kaputxinoek berriro plazaratu zuten Gerra aurreko beren aldizkaria: *Zeruko Argia*. Urte hauetan, erlijioso hutsa zen; azpizburuak berak zioenez, *Erliziozko aldizkari edo errebista, edergarriduna, euskeraz egiña, Aita Kaputxinoek argitaratua* zen. Bi zuzendari omen zituen: zuzendari-gerentea Hondarribiko Bonifacio de Beizama, eta zuzendari artistikoa Aurelio de Echarri-Aranaz, Iruñean. Laister arrakasta handia lortu zuen, eta 1956an 4.000 harpidedun omen zituen. Idazleak kaputxinoak, kaputxinoak ez ziren beste erlijiosoak (Gabriel Manterola, esate baterako) eta

laikoak ziren (Inazio Eizmendi *Basarrik* aldizkari honetan ere "Nere bordatxotik bildutako sortatxoak" izeneko atala argitaratzen zuen). Bizkaiko idazleek ere bazuten parte hartzerik, 1955etik "Bizkai'ko euskeraz" izeneko atalaz Bitaña eta Manterola arduratu zirelarik.

Lehen bezala, hilero kaleratzen zen *Zeruko Argia*. Bizitza luzea izango zuen *Zeruko Argiak*, gero informatiboagoa bihurtu zena, hainbat eta hainbat euskaldun kazetarirentzako eskola, 80ko hamarkadan kaputxinoek utzita eta kooperatiba bihurtuta gaur egun ere argitaratzen den *Argia* bihurtuta.

1958an arazo ekonomikoak zeuden. 5.000 harpidedun bazituen ere, ezin zen mantendu. 1959ean eta 1960an hiru ale baino ez zire agertu, tajuera ezberdinez. Hiru ale solte. Gainera, Gobernuak agindu zuen %30 erdaraz argitaratzea. Ez zuten agindua bete eta debekatu egin zuten. ez zen berriro atera 1963. urte arte.



Zeruko Argia, 1950eko hamarkadan

1.2.4. Beste aldizkari erlijioso batzuk

Garai hartako aldizkari erlijioso gehienak, aldiz, legalitatean zeuden. 1951n Larreako karmeldarrek *Karmel* argitaratzeari ekin zioten, egunotara iritsi den aldizkari erlijioso. Erlijioari buruzko berriak, batez ere ordenu honi dagozkionak, literatur lanak, olerkiak, bertsoak eta abar agertzen ziren bere orrialdeetan. Nolabait, Gerra aurreko *Jaungoiko-Zaleren* bideari jarraitzen zioten. Euskaldun amorratuak, behin eta berriro "Ikasi euskeraz"

esaldia errepikatzen zuten. Hasieratik, Euskaltzaindiaren aldekoak izan ziren. 1959an, S. Onaindiak gehigarri bat argitaratu zuen: *Olerti*.

Urteetan zehar, erlijioarekin zerikusirik duten aldizkariak agertzen hasi ziren: 1952an *Eibar*, bertoko berriak zekartzana. Iparrean ere elizgizonek beren argitalpenak atertzen zituzten: hala nola, Belloceko *Othoizlari*. 1954an hasi zen bidea egiten, Xabier Diharceren kemenez. Erlijioari buruzko gauzak, batez ere komentuarekin zuzen-zuzenean zerikusirik zutenak, eta laborantzari buruzko gaiak ere argitaratzen ziren. Hasieran mimeografiatua, 1955etik inprimatu egiten zen.

50eko hamarkadako euskarazko kazetaritza erlijiosoarekin jarraitzearen, aipatu behar ditugu 1955eko bi aldizkari. Bata, kaputxinoena baita ere, *Irun da Ondarribiko kaputxinoen irugarren ordenako orria* dugu, hango aita Karlos Argaiak zuzendua. Euskara hutsezkoa, erlijioa zen gai bakarra. Besteak *Nora?* zuen izena, *Irun'go Salletarren Nobiziaduko Illeroko Aldizkaria*. Lehen zenbakia 1955eko azaroan agertu zen. Lau orrialde zituen. Hango ikastetxearen berriak nagusi ziren. Euskara hutsezkoa zen.

Garai hartako beste aldizkari erlijioso batzuetan ere euskara noizbehinka agertzen zen: hala nola Irungo salletarren *Destellos Salesianos* aldizkariaren euskarazko gehigarria (1952-1954), *Gipuzkoa Misionera* (1955), Nafarroako Arizkun herriko *Elkartasuna. Boletín de la Asociación de la Caridad* (1955), Donostiako Santa Maria parrokiak argitaratzen zuen *La Voz de la Madren* (1955). 1956an Hondarribian *Ondarribiko izparrak* aldizkaria agertu zen, herriko berrien informatzaile, beti ere gogo eliztarra mantentzen zuelarik.

Urte hartan ere Elizarekin, frantziskotarrekin alegia, zerikusi handia zuen beste aldizkari bat, gure egunotara iritsi dena, eta euskal kulturarako ezin garrantzitsua izan dena eta orain ere badena: *Jakin*, 1956ko urte hartan mimeografiatua eta *Yakin* izenburupean argitaratu zena. Kultur aldizkariei buruzko atalean aztertuko dugu.

1956an sortutako beste aldizkari hau, aldiz, erabat erlijioso dugu: Loiolan kaleratu zen *Ekin*. Dirudienez, gaur egun beste gauza batzuegatik hain ezaguna zaigun Xabier Arzalluzek zuzentzen zuen. 1956an Loiolan zegoen jesuita. Beste idazleak ere jesuitak ziren: Pillipe Yurramendi, Plorentin Zubiaurre, Joseba M. Agirre, Mikel Etxebarria, Roberto Larrañaga.

Ataltxo hau bukatzeko, 1959an argitaratzen hasi ziren bi aldizkari erlijioso aipatuko ditugu: *Arnas* eta *Laiaketan*. *Arnas* Areatzako Sakramentinoen Ikastetxe Nagusian agertu zen. *Arnas*en idazten zuten, besteak beste, Adorador Goikoetxeak, Kepa Oiarbidek, Jose M. Egigurenek, Paulo Iztuetak, eta beste horrenbeste sakramentinok. Gai erlijioso-teologikoak tratatzen zituzten, euskal literaturakoak ("Lizardi eta 'Itz-lauz'"), euskal kulturakoak, eta berriak. Aldizkatasun ziurrik ez izan arren, gure ustez *Arnas* aldizkaritzat hartu behar dugu, hauxe baita hain zuzen garai honetako euskarazko kazetaritzaren ezaugarri bat: euskararentzat egoera larria baitzegoen,

ondo taxututako aldizkariak ateratzea baino gehiago inporta zuen euskarazko testuak kaleratu eta zabaltzeak.

Laiaketan antzekoa da, hasieran behintzat (denboraren poderioz, 70eko hamarkadan Urretxuko Pasionisten Ikastolaren bozeramale bihurtu zen, bertan umeez idazten zutela). Lehenengo alea, mimeografiatua, ikusi ditugun beste guztiak bezala, 1959ko maiatzekoa da. Urretxuko pasiotar gazteek Euskal Akademia bat sortu zuten (sakramentinoen artean ikusi dugun antzeko grina, frantziskotarrek ere berdin egin zuten *Yakin* aldizkaria ateratzean), eta bere bozeramalea aldizkaritxo hau zen.

1.3. ALDIZKARI POLITIKOAK

Erregimenaren aurkako politika kanpotik egin behar zen, hau da, erbestetik. Horregatik, prentsa politikoa atzerrian argitaratzen zen, beti ere barrura begira, zer esanik ez. Garai hartako aldizkari politiko asko, beraz, klandestinoak ziren: tamaina txikikoak (hobeto ezkutatu eta banatu ahal izateko), multikopistaz edo mimeografoz eginak... Beste batzuk, ordez, erbesteratuen artean banatzekoak zirenak, kalitate handiagokoak ziren; Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak (*Euzko Deya*) edota alderdi politikoei lotutako aldizkariak.

1.3.1. Parisko *Euzko Deya*

Euzko-Deya Parisen inprimatzen zuten; baina inprimatutako aldizkaria kaleratzeaz gain, Eusko Jaurlaritzakoek 1950etik mimeografiatutako gehigarri batzuk ere ateratzea erabaki zuten. Parisko aldizkari ofizialaren gehigarrian euskara protagonista izaten zen: euskara irratian, euskara ikastoletan, kristau-ikasbidea euskaraz, euskararen jazarpena, euskarazko aldizkarien berri. Horri esker badakigu Gerra aurrean noizbehinka argitaratu zen beste aldizkari bat berriro agertzen hasi zela: *Lan Deya*, esaterako, E.L.A. sindikatuaren bozeramalea, 1950eko urrian berriro kaleratu zen. Gehigarri hartaz aparte, *Euzko-Deya* aldizkarian "Euzkel Atala", orrialde batekoa, agertzen zen.

Euzko-Deya Eusko Jaurlaritzarekin lotuta bazegoen ere (jeltzaleak Gobernuan gehiengo izanik, aldizkaria abertzalea zen), bazegoen beste aldizkari bat, jeltzalea: *Alderdi*. Aurreko hamarkadan sortua, 1949tik mimeografoa alde batera utzi eta inprentaz argitaratua agertzen da, Julio Jauregiren zuzendaritzapean, hilerio, Baiona-Beyriseko Villa Antoinetten bulegoa zeukalarik. Euskararentzat bazegoen lekurik, erdara nagusi bazen ere.

1.3.2. Jeltzalea ez zen prentsa

Abertzale jeltzaleek ez ezik, beste talde politikoek ere aldizkariak argitaratzea erabaki zuten. A.N.V.k berriro bere *Tierra Vasca* aldizkaria argitaratu zuen, 1956an. Ameriketan, Mexikon zehazki, non beste *Euzko-Deya* bat argitaratzen zen, Yakinda Suárez Begoña abertzaleak *Euzkadi Azkatuta* izeneko aldizkaria argitaratu zuen.

Mexikon ere beste abertzale batzuk *Euzko Izketa*. *Diálogo vasco* bihilabetekaria argitaratzen hasi ziren 1956ko uztailan. Alderdi politikoetatik at zeuden abertzale batzuek egiten omen zuten, erdara hutsez, titular gehienak euskaraz badaude ere. Informatiboa eta politikoa (Hego Euskal Herriko berri asko zekartzan), argazkiak, kirolak eta bazituen. Bi ale bakarrik ikusi ditugu, biak Madrilera Pablo Iglesias Fundazioan daudenak.

Komunistek ere bi aldizkari argitaratu zituzten: *Euzkadi Obrera* eta *Euzkadi Roja*. Azken honi oso interesgarria deritzogu. Paper fin-finean egina (Hegora ezkutuan hobeto pasatzeko edo), azken alea (1955eko otsailekoa) euskara hutsez idatzia zen, honako izenburu orokor honekin: *Españi'ko komunist alderdiar agerbidea. Españi'aren azkatasuna eta demokratizazioa lortzeko burrukan, eta España'tar erriaren bizibidea osorik obetzeko*. Zortzi orrialdeetan Espainiako Alderdi Komunistaren programaren puntuak zehazten ziren, gipuzkeraz.

AITA SANTOA

"Anuntio vobis gaudium magnum: HABEMUS PAPA MI... Egun bi ta erdi bitartik egon dira, konklabeo Kardenaik, aita Santo berri agortu arte..."

...Egun bitan, aita santoa, akitarra, akitarra, akitarra, akitarra...

...Aita Santo berria, lenengo? ko aldirioak onela izan da: "Que Dios altirre con su divina luz..."

..."...sino pag, decimos a una voz que el papa es la familia humana puda vivir, prosperar y florecer en libertad y justicia..."

...Fue así como el papa Juan XXIII, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

...Orain, Aita Santo berria da Gregorio XVI, un papa de una gran humanidad...

Andik Eta Emendik

EUZKUMADIADA. — Juan dan dilan 29an, Necechak'o "Euzkumi Eza" n'az zan jai mundu bat... Aramburu Jenerala, Argentinako lekuakari lekuakari...

le" baskun onok, gure euskeraren argi-azula pituzirik za tuas. BORIS PASTERNAK — Errusiar euker igile on No'el 9 rian...

FURSKAPAREN EGUNA. — Ba dator "Furskaparen Eguna", ditorren (Aramburu Jenerala) eta ditorren (Aramburu Jenerala)...

Parist'ik Euskal- Erriara Irigoyen Lendakaria

(Parist'iko Irri-Eta'rik egindako euskal-lemiotza)

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Iren lehen irakadeak. Amazaz jitu zitehuarik erroso izan diren...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

TXORIARIK

Definitio bat "erretxeri" bi onketa, dan onketa da, berri dicitu gurekin...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Tierra Vasca

Hecce TIERRA VASCA orra in patria y muros otros sacrificios, que me pertenecen como a todos los vascos...

Tierra Vascaren euskarazko atala, 1958

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

Orain urrena Argentina "kio Aramburu" laza jardu garrantzitsuak. Gaur, beste euskolar batzuen...

1.3.3. Abertzale berrien aldizkariak

Abertzaletasunera itzuliz, hamarkada hartan talde batzuk ortodoxia jeltzaletik urruntzen hasi ziren. Hurrengo hamarkadan, talde horiek bereiziko ziren E.A.J.tik, eta E.T.A. sortu zen. 1952an Ekin taldea sortu zen Euzko Gaztedi barruan. 1958an E.A.J.rekiko harremanak, lehengo urteetan anbiguo samarrak, okertu egin ziren, eta 1959ko uztailaren 31n E.T.A. sortu zen.

50eko hamarkadan E.A.J.tik bertatik ahots batzuk altxatu ziren, erradikalizatzeko bat proposatuz edo exijituz. Esate baterako, 1957. urte inguruan sortu zen Euzko Aberri Alkartasuna edo Frente Nacional Vasco (beste batzuetan Frente de Resistencia Interior). Izen harekin orri solteak agertzen hasi ziren, Aberri Eguna ospatzera bultzatuz.

Caracasen bertan, non Andima Ibinagabeitia bizi zen, Frente Nacional Vasco delako hark aldizkari bat argitaratu zuen 1958tik 1962ra arte: *Irrintzi. Erri azke baten. Euzkadi'ko azkatasunaren alde*. Euskaraz eta gaztelaniaz, erdibana, abertzaletasunean erradikalizatzeko bat izan zen.

Bere deklarazioan, fronte honek onartzen zituen "las concesiones de circunstancias que el Partido nacionalista vasco, en momentos difíciles para la República española, le hizo a ésta", baina 1958an uste zuten Estatutua ez zela nahikoa, "porque le honra más a la República Española que a nosotros los vascos". Euskara kontuetan ere berdintsu mintzatzen ziren: "Zer da analpabetu izatea? Norbere jatorrizko izkeraz (gurean euzkeraz) ez idazten ez irakurtzen ez jakitea da analpabetu izatea". Europatik zetozen testuak ere nahiko bortitzak izaten ziren: ikusi baino ez dugu egin behar Paristik Jon Mirandek bidalitako "Frantzitar Errepublikaren menpeko erriak" izeneko artikulua (*Irrintzi*, 4. zenbakia.). Eta Ibinagabeitiak berak "Odol gabeko matxinada" bat proposatzen zuen, egitarau oso bat emanez. Egitarau batez ere kultural eta utopista zen, hala ere abertzaletasunak bide berriak bilatzen zituela erakusten digu.

1.4. KULTUR ALDIZKARIAK

1.4.1. Euskal kulturaren fronte bikoitza

50eko hamarkada euskal kulturaren berpiztearena izan zen. Hego Euskal Herrian, pixkanaka liburuak eta aldizkariak argitaratzen hasi ziren, literatur mundura mugatuak baziren ere. Aldizkarien artean, euskara hutsezko *Egan* dugu garrantzitsuena. Ikusi dugunez, hasieran Boletín de la Real Sociedad

Vascongada de Amigos del Paísen gehigarria zen, eta gero bere bizitza propioa lortu zuen. Koldo Mitxelenak (laster Antonio Tovarrek Salamancako Unibertsitatean sortu berria zen "Manuel de Larramendi" Euskara Katedra eskaini zion, eta berak onartu egin zuen) eta Manuel Agudek zuzentzen zuten aldizkaria. Hamarkadaren bukaeran, 1959an, beste aldizkari literario hutsa erantsi zitzaion: *Oleri*. Larreako karmeldar batek, Aita S. Onaindiak, atera zuen, hiru hiletan behin, Karmengo Ordenakoek argitaratzen zuten beste euskara hutsezko aldizkariaren gehigarri moduan (*Karmel*). Literatur aldizkaria zela esan dugu, baina gehiago zehaztu egin beharko genuke: poesiari buruzkoa, olerkiak bakarrik argitaratzen baitziren, "neurtua naiz itz lauz". Itzulpenak ere onartzen ziren.

Euskal kulturaren, Paulo Iztuetak dioenez (1981: 172), frontea bikoitza zen: alde batetik, Hegoan *Egan* zegoen; beste alde batetik, erbestean, Ameriketara hasieran eta Ipar Euskal Herrian gero, *Euzko Gogo*. Kulturalki, hamarkada hura ezin inportanteagoa izan zen, eta eztabaidak ere sortu ziren, euskara ereduari buruz esaterako:

"Nikolas Ormaetxea sueña con una lengua depurada de neologismos extraños y primordialmente elitista, Amilaitz (N. Etxaniz) aboga por una expresión cultural sobre todo popular y con temas de actualidad, Koldo Mitxelena juzga indispensable la adaptación de la vieja cultura pastoril y rural a las nuevas condiciones creadas por la sociedad industrial y urbana, Krutwig y Andoni Urrestarazu insisten, cada cual desde su óptica, en la ingente necesidad de politizar el elemento cultural" (Iztueta, 1981: 172).

Urte haietan Euskaltzaindia berriro lanean hasi zen, eta erbestean euskal kultura mantendu eta sustatzeko ahaleginak egin ziren: 1948an Eusko Ikaskuntzen VII. Kongresua ospatu zen Miarritzen, Barandiaranen Gernika taldeak antolatua, eta 1956an Eusko Jaurlaritzak I. Euskal Batzar Orokorra antolatu zuen Parisen.

1.4.2. *Euzko Gogoaren bigarren aroa*

Euzko Gogoak bi aro izan zituen: lehenengoa Guatemalako, 1950etik 1955era (1953an argitaratu gabe egon zen). Bigarren aroan Miarritzen inprimatu zen, 1956tik 1959ra. Guztira, 44 ale. Taxuera ere desberdina zen: Guatemalan, baliabide tekniko gutxi zeudelarik, neurriak aldakor samarrak ziren, hala ere formatu handian kaleratzen zen. Ipar Euskal Herriko garaian, aldiz, taxuera beti berdina izan zen, neurriak aldiz txikiagoak.

Nahiz eta harpidedun gutxi izan, *Euzko Gogoaren* itzala handia izan zen. Bere garairik eraginkorrena bigarren hau izan zen. Etxetik gertuago, Andima Ibinagabeitia gabe (Ameriketara geratu zen, Guatemalatik Venezuelara joan zen), betiko zutabeetan oinarriturik ("euskaldunenak egin du, euskera galdu ezker, euskerak egin baikaitu euskaldun", zioen Zaitetik Miarrizteko lehen zenbakian, 1956ko urtarrilean), adore berriekin ("bagatoz gu, oi ta irrintzi, euskeraren alde lan egitera, len bezain baikor ta kementsu"), literaturarako joera nagusia zelarik, *Euzko Gogo* euskal kultura zebiltzanentzat ezinbesteko erreferentzia bihurtu zen. Urte haietan literaturaz, filosofiaz (honetan Zaitegi maisua zen), historiaz, erlijioaz eta idatzi zuten askok eta askok. Literatur testuak nagusi ziren, ordea: itzulpenak (Otarriren "Bergili'ren Enea'rena", B. Larraskoetxeak Shakespearen *Macbethen* itzulpena, esate baterako), euskal eresi zaharrak, belaunaldi berrien lanak (*Txillardegiren* "Leturariaren egunkari ezkutua", 1956), eta abar agertu ziren bere orrialdeetan.

Euzko Gogo ia lehendakari Agirrerekin batera hil zen, 1959an; azkeneko alea, 1959ko martxo-uztailekoa, 1960an inprimatua.

1.4.3. Ameriketako kultur-aldizkariak

Hamarkadaren hasieran Mexikon beste kultur aldizkari bat argitaratu zen: 1950ean hasi zen kaleratzen Andoni Ruiz de Azua *Ogoñopek* zuzendutako eta Editorial Vasck argitaratutako *Ekin*. "Euzkera alde", bere azpizburuak zioen bezala, lan egin nahi zuen.

Euskara hutsezkoa, bertan, besteak beste, Ruiz de Azua berak, Jon Adarragak, Yosu Olaizolak, Karla Villanueva euskaldun berriak, Iñaki Larramendik eta Jokin Zaitegik idatzen zuten. Batez ere literatur lanak eta "Euzkal-erriko izparrak" irakur zitezkeen. Zabalkunde gutxi zeukalako, 1950ean bertan utzi zion agertzeari.

Ameriketan ere argitaratu zen *Euskalduna-El Vasco* aldizkaria. Normalean, euskaraz bazeukan orrialde bat. Argentinan agertu zen *Euskaltzaleak*, euskara hutsezkoa, 1954an.



Buenos Aires, Junio 30 de 1954
HERALDICO
5/6ctas
1954 JUN. 22
EUSKALTZALEAK
ANAI EUSKALTZALEAK
KANPION IRAKASLEA

EUSKEREARI OPALMENA
Buenos Aires'ko Euzko Diarriak erabaki dute aurrerago abertar eguneko leioari aurrerago ematen euskerari opalmena egitea.
Erabaki horrek erabakitzen duenez, euskerari opalmena ematen duen eguna, Aitorria gogoratzen bada, beraz, ezin da euskerari opalmena ematen.

ANAI EUSKALTZALEAK
Aldizkari onenomena gure idazkaria auzoak zabalduz ematen duen leioari opalmena ematen duen eguna, Aitorria gogoratzen bada, beraz, ezin da euskerari opalmena ematen.

KANPION IRAKASLEA
Kanpion irakaslea izan da...
Irakaslearen garrantzia...
Kanpion irakaslearen garrantzia...
Irakaslearen garrantzia...
Kanpion irakaslearen garrantzia...

Euskaltzaleak, Buenos Aires, 1954

1.4.4. Kultur aldizkari andana berria

1950ean ere berriro agertzen hasi zen Ipar Euskal Herriko *Gure Herria* aldizkaria, Louis Dassancek eta Jean Saint Pierrek zuzendua. 1939an utzi zion argitaratzeari, eta orain ikertzen ari garen hamarkadaren hasieran frantsesez eta euskaraz kaleratzeari ekin zioten St. Pierrek eta Ipar Euskal Herriko kultur munduan zebiltzanek. 1951n St. Pierre hil zen, Gile Eppherre Gure Herria erakundearen presidente eta aldizkariaren zuzendari bihurtu zen. Aldizkariak Ipar Euskal Herriko kultura, ekonomia eta ohiturei buruzko ikerketa eta artikulu asko argitaratu zituen, seriotasunez, zuzen eta artez. Horrela, 1939an moztutako bideari jarraitu zioten.

Euskal ikasketak berpiztuz zihoazen. Hego Euskal Herrian, berriro Mitxelena-ren kemenez, argitaratzen da lehen aldiz Donostian *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. Nolabait, euskara berriro sartzen zen goi mailako kultur munduan, errepresio frankistaren garai gorrienen ondoren. Urte bat lehenago, 1953an, agertu zen Gerra ondorengo Euskaltzaindiaren bozeramalearen lehen zenbakia: *Euskera*. Hala ere, ez zen berriro agertu 1956. urte arte, handik aurrera erregulariki agertuz gure egunetara arte. 1953an hasi ziren Gipuzkoako Foru Aldundian euskarari buruzko hitzaldi batzuek, antzinako euskal idazleak gogorarazteko, Aingeru Irigarai euskaltzainak antolatuak. Euskaltzaindiak, gainera, idazle zahar batzuen liburuen berrargitalpenak prestatzen zituen: Axular, Etxepare, Oihenart...

1956an Euskaltzaindiak abiada berri bat hartu zuen. Urte hartan egin zen Arantzazuko bilera, eta 1959an Bilboko Batzarraren ondorioz zera erabaki zen, "euskararen baitan sustraituriko hitzak euskal hitzatzat jo behar direla" (Ugalde eta Arana Martija, 1984: 27). Batasunerako bidea prestatzen hasia zen, eta hurrengo hamarkadan burutuko ziren Mitxelena, Villasantek eta beste batzuek erakutsi zituzten ideiak.

1956an ere frantziskotarren kultur aldizkari oso eraginkor bat argitaratu zen: *Yakin*, geroxeago *Jakin* izena hartu zuena, eta gaur egun ere argitaratzen da, orain frantziskotarren ardurapean ez bada ere. Aurreko atal batean ikusi dugunez, elizgizonen artean euskal kultura eta hizkuntza berpizteko nahia piztu zen. *Jakin* horretarako jaio zen, eta goi-mailako aldizkari izan nahi zuen. Apalki hasieran, beste aldizkari asko bezala, mimeografiatua egiten baitzen Arantzazun.

Iñaki Baztarrikak, Yon Balerdik, Iñaki Bereziartuak, Fernando Mendizabalek, Joakin M. Sueskunek, Xabin Berasaluzek, Ixidor Bastarrika, Imanol Urbietak, J.M. Osak eta beste batzuek euskaldunei beren emaitzak eskaintzen zizkieten. Aldizkari irekia, frantziskotarrek ez ezik sakramentinoek (esate baterako Luis Mari Mujikak, artean Areatzako komentuan zegoena) eta beneditarrek ere idazten zuten. Beste elizgizonentzat nahiz laikoentzat irekita zegoen *Yakin*: Urrestarazuk, Ibinagabeitiak, Patxi Altunak, adibidez, beren testuak argitaratu zituzten aldizkarian. Teologiaz, filosofiaz, historiaz, literaturaz idazten zen, elkarrizketak ere agertzen ziren... astronautikaz ere idatzi zen *Yakinen*. 50eko hamarkadan *Jakinen* lehen garaia da. Mimeografiatua kaleratu zen 1959. urtea arte, 60ko hamarkadan inprimatua argitaratu zen, beste aro berri batean sartuz.

1.4.5. Hezkuntzari buruzko aldizkariak

Hezkuntza munduan ere gauzak mugitzen hasiak ziren. Ipar Euskal Herrian Euzko Ikasle Batza elkartu zen berriro, eta jeltzaleengandik gertu zeuden gazte haiek 1957.-1958. urteetan *Ikasi* izeneko aldizkaria kaleratu zuten. Aldizka kaleratzen ziren "koaderno" batzuk dira. Lehenengoa (1957koa) euskara hutsez agertu zen, bigarrenko aldiz erdara hutsez. Honako sailak izaten zituen: *Kristiñau Sailla*, *Euskera salla*, *gizarte-arazo salla eta demokrazi salla*. Bi ale bakarrik argitaratu ziren.

Iparreko euskaldunek *Ikas* aldizkaria argitaratu zuten, 1959an. Hiruhilabetekaria zen, *Ikas* elkarteak sortua ("créée pour l'enseignement régional dans les écoles du Pays basque"). Elkarte hura Baionako Musée Basque-ren inguruan bildu zen. Bi gerente zituen, horietako bat Pierre Lafitte. Euskara ikasteko koadernoak dira, aldizkari didaktikoa azken batean.

1.4.6. Dantza taldeko aldizkariak

Azkenik, Bilboko *Bizi nai* aipatuko dugu kultur aldizkarien artean. Hamarkada hartan, dantza eta musika taldeak sortu ziren Hego Euskal Herrian, ohitura zaharrari eutsiz. Gazte abertzaleak biltzeko zeregina ere bete zuten, euskal kolektibitatearen sozializazioa nolabait bilatuz. Euskaraz gauzatxoren bat bakarrik agertu ziren. Tirada ere murrizta zen: 100-150 bat ale, antza denez. Errepresioari aurre egiteko, Elizaren babesean zenbait ekintza kultural, abertzaletasunarekin lotuak, loratzen hasi ziren pausoz pauso.

1.5. IPAR EUSKAL HERRIKO PRENTSA

Ikertzen dugun garaian, Ipar Euskal Herriak 180.000 bat biztanle zituen. Haietatik 77.000 bat euskaldunak ziren. Ekonomikoki, nekazaritza nagusi zen. Industrializazioa oso txikia zen, Hegoan ez bezala. Beraz, ezberdintasunak nabariak ziren.

1.5.1. Herria

Herriak irakurleria handia lortu zuen. Gaur egun ere astero argitaratzen da. 50eko hamarkadan euskara hutsezko astekaria bere gailurrean zegoen (euskaraz %90 zegoen, frantsesari txoko bat utziz Frantziako legea errespetatzeko). 1956an eta 1957an, esate baterako, argazki ugari zituen, egunkari itxura baitzuen. Egitura ere egunkariarena dugu: 1. orrialdean denetariko berriak, batez ere nazioarteko edo Frantziakoak. Ezkerreko partean, bi zutabetako titular korritu baten pean, *So-Egile* delako batek sinatutako iruzkin bat zetorren (ziur aski Lafittek berak egina). Nazioarteko gertakariek leku handia betetzen zuten lehen orrialdean. Gipuzkoatik (izen bereko kronika zen) noizbehinka bidaltzen zuen *Aspaldiko* delako batek azken orrialdean argitaratzen zena. Baita *Txillardegik* ere, oso noizbehinka egia esan. Arabatik ere noizean behin (Urrestarazuk idatziak?) testuren bat iritsi zen. Eskualdun Biltzarrari buruzko berri asko aurki ditzakegu.

2. eta 3. orrialdeetan, *Eskualduna* egiten zen bezala, Zuberoako, Lapurdiko (bereziki) eta Nafarroa Behereko berriak datoz. Laborarien gaiak ere, ohikoa zenez, 4. orrialdean agertzen ziren. Tokian tokiko berri haiek, oso laburrak, argazkirik gabe agertzen ziren. 4. orrialdean frantsesezko testuak, Frantziako berriren bat, eta Gipuzkoa eta Arabatik etorritako berriak, esan bezala. Azken buruan, *Eskualdunaren* egitura (berak ere lau orrialde zituen, egunkari itxura eta tamainakoak) mantentzen zuten, pentsaera arinagoa bazen ere, beti ere Fedea-Euskara-Nekazaritza hirukotea oinarria zelarik. Garai nahasiak, hala ere, Frantziak Aljeriaren aurkako gerra mantentzen baitzuen. Eta *Herriak* arazoren bat izan zuen. "Tribune Libre" izeneko artikulu sortan Pierre Larzabalek kritika batzuk bota zituen, eta berehalaxe *Herriak*, bere betiko zuhurtziaz, egoera lasaitu egin behar zuen:

Jamais HERRIA n'a eu une politique coloniale contraire ^ la presence de la France en Afrique du Nord [...]. Du rest, Herria a publi bien d'autres points de vue sur la question algerienne: car notre journal n'a rien de sectaire, quoi qu'en disent ceux qui ne le lisent pas [...] (Lafitte, P.: "A nos lecteurs", Herria, 1957ko ekainak 27, 359. zenbakia, 1. orrialdea).

Herria zen, garai hartan, euskarazko kazetagitzaian aldizkaririk aurreratuena. Hori arrazoi batengatik zen: Hegoan garapenerako aukerak moztuta zeuden Gerraz geroztik, eta 1937an gogoratu behar dugu Iparrak astekari bat zeukala (*Eskualduna*), Hegoan euskara hutsezko egunkari bat eta astekari asko (*Eguna*, *Argia*, *Ekin*) argitaratzen ziren bitartean. Hegoan pentsamolde propioa politikan gauzatzeko bazegoen alderdi bat baino gehiago (E.A.J., P.N.V.), Iparrean, Frantziako egitura zentralistak oso baldintzatuta, indar politiko propioirik ez zegoenean. Mantendu zuen euskaldunen kohesioa eta euskaraz baino ez zekiten askorentzako komunikabide bakarra izan zen, informatiboa eta garai berrietara ahal zen heinean egokitua. Baina garai berriak, frantseseko hezkuntzak, komunikabide berriek (irratia, telebista), *Herriaren* garrantzia murriztu zuten hurrengo hamarkadetan. Hala ere, esan bezala, euskarazko astekariak bizirik jarraitu zuten, astero Iparreko euskaldunengana iritsiz.

1.5.2. Ameriketarako prentsa: *Sor Lekua*

Iparraldeko prentsari buruzko atal honetan, azkenik, ikusi ez dugun aldizkari bat aipatuko dugu: *Sor Lekua*. 1955eko *Eusker*a aldizkarian aipatua, N. Alzola-ren liburu, aldizkari eta edonolako euskarazko argitalpenen zerrendan, bertan esaten zaigu Ameriketara bizi ziren Iparreko euskaldunei zuzendua zela, bere jaioterriko berriak igortzea baitzuen helburu. Baionan argitaratzen omen zen. Aldizkari hark bazeukan aitzindaririk, XIX. mendetik Ameriketako euskaldunentzako aldizkariak (gehienak bizitza laburrekoak) argitaratzen baitziren (*Gure Izarra*). Kanpoko ezaugarriak garai berrietara moldatzen baziren, Iparreko euskal prentsaren ezaugarriak aspaldikoak ziren.

No 1

Bimestriel

Novembre 1953

AGUR

BULLETIN DE
L'ESKUALDUNEN BILTZARRA
DE BORDEAUX

SOMMAIRE

Message du Président ELICHONDO.

Messages du Comité d'Honneur (DACHARRY : *Eskualdunen Biltzarra* ; GIL REICHER : *Gure herria horutan da* ; G. BOUSSAGOL : « *Gernikako Arbola* » a cent ans.)

NAVARRUS : *Vie de Saint-Michel Garicoits*.

MANECH : *Notre couverture*.

Nos poètes : JACQUES DE BOISVERT.

La Société (le Comité, les Secteurs et leurs chefs).
— Renseignements divers. — Avis importants. — Appel du
Comité de Rédaction. — La vie de la Société (*Ephémérides*).
— La vie des Sociétaires. — La vie des Sections.

Message du Président

NOS BUTS — NOS MOYENS — NOTRE ACTION

AGUR

Agur jaunak. Agur anderiak. Agur adichkide maitiak. « Agur » sorthu da. Oui « Agur » vient de naître.

Nous saluons avec joie cet heureux événement. C'est une réalisation, entrevue depuis quelque temps, venant à son heure, et largement justifiée par l'extension progressive de notre belle Association.

« Agur » sera désormais le bulletin de liaison nécessaire, indispensable, entre tous les membres de l'Eskualdunen Biltzarra, disséminés dans les divers quartiers de Bordeaux, dans la banlieue et dans la région.

NOTRE ASSOCIATION :

Après quelques échanges de vues, au cours de 1947, Eskualdunen Biltzarra (Rassemblement des Basques) était fondée au printemps 1948, par une équipe dont l'esprit, la manière et l'homogénéité sont demeurés absolument intacts. Il fallait, dans la métropole du Sud-Ouest, sonner le rassemblement de tous les Basques et des sympathisants de notre adorable pays.

Agur, Eskualtzaleen Biltzarra, 1953

1.6. TOKIAN TOKIKO ALDIZKARIAK

Hegoan sortu zen beste fenomeno bat, aitzindariak ere bazituen (eta erdal kazetagitzaian eredu asko), hurrengo hamarkadetan garapen izugarria izango zuena, euskaraz bereziki: tokian tokiko prentsa ari gara, herrietan bertako biztanleentzat egina.

Gerra aurrean bazegoen tokian tokiko aldizkaririk: 30eko hamarkadako *Arrati'ko Deya* haietako bat zen. 50eko hamarkadan, batez ere Elizaren (herriko parrokiaren) babesean, gazte jendea hara hurbildurik, horrelako kazeta mordotxo bat aurki dezakegu.

1.6.1. Gipuzkoako aldizkariak

Kronologikoki, *Eibar* dugu lehena. 1952an hasi zen, eta 1956an bigarren garaiari hasiera eman zion. Erdaraz eta euskaraz (beti orrialde bat behintzat) idatzita zegoen, hango apaiza zen Pedro Etxebarriak zuzendua.

1956an agertu zen Hondarribian *Ondarribi'ko Izparrak*. Acción Católica-ko gazteen bilera batean, Hondarribiko apaiza zen Joseba Ormazabali bururatu zitzaion atzerrian zeuden neska hondarribitarrentzako aldizkaritxo bat kaleratzea (neska gehienak Congregación de las Hijas de María-ko mojak ziren). Makinaz idatzi eta gero mimeografoz kopiatutako orri batzuk ziren, gero neska haiei bidaltzen zitzaizkienak. Baina laster, herrian bertan banatu zen aldizkaritxoa, bertako berri asko, irakurlearentzat oso gertuak, baitzekartzan. "Noticiero trilingüe, que aparece cada quince días y se parece poco a una hoja parroquial", zioen Ormazabalek, "es un diario de cuanto acontece en Fuenterrabía". Mugatik hurbil, euskaraz, erdaraz eta noizbehinka frantsesez ere agertzen zen. 1959ko ekainean agertu zen azken alea.

1.6.2. Bizkaiko aldizkariak

Bizkaian ere horrelako aldizkari batzuk agertu ziren. 1957ko urtarrilean plazaratu zen Etxebarria-Barinagako *Gure Erria*, mimeografiatutako orri bat: Etxebarriko eta Barinagako berriak (jaiak, ezkontzak, futbolari buruzko berriak, eta abar) zekartzan. Baita kontu zaharrak ere.

60ko hamarkadaren atarian, non tokian tokiko aldizkariak askoz gehiago garatu ziren, Zornotza beste aldizkari lokal bat agertu zen. 1959an argitaratzen hasi zen *Sirimiri zornozano*, hango parrokiako gaztediak aterea. Hura ere mimeografiatua zen, hilabetekaria, euskaraz (%25) eta erdaraz, (bosgarren zenbakitik, 1. orrialdea beti euskaraz agertu zen). Gernikako *Brisas Guerniquesas* aldizkarian oinarritu zen.

1.7. NEKAZARITZARI BURUZKO ALDIZKARIAK

1.7.1. *Artzai Deya*

Arlo honetan ere Gerra aurreko kazetagitza ditugu ereduak. Nekazaritza buruzko aldizkariak (industrializazioa gero eta gehiago aurreratzen zen lekuan) hamarkada hartan ere mantendu ziren, eta beraietan euskaraz zeregin garrantzitsua izan zuen. Aipatu baino ez ditugu egingo: lehenengoa Lekarotzeko *Artzai Deya* dugu, hango kaputxino batek, aita Bonabentura Oyeregik, argitaratua Baztango eta Bidasoaldeko aizkolari eta artzaintzat. Ez dugu alerik ikusi, hala ere badakigu 1953an agertu zela. Hamabostekaria zen, euskara hutsezkoa, mimeografiatua. Ziur aski, 1956an ez zen agertu, ez baitu Alzolak urte hartako bere erroldan aipatzen.

1.7.2. *Luberri*

R.S.B.A.P.en Boletinaren eranskin edo gehigarri moduan (*Suplemento rural del Boletín de la R.S.B.A.P.* zuen azpizburua), aldizkari independentetzat hartu badugu ere (buletina bera eta aldizkari honen itxurak ezberdinak ziren oso), *Luberri* 1954. eta 1955. urteetan argitaratu zen Donostian, Gipuzkoako nekazarientzat. Elebiduna zen (%40 euskaraz agertzen zen).

1.7.3. *Goiz Argi*

Iraunkorragoa izan zen *Goiz Argi*. Urte askotan argitaratua, hemen bakarrik 1958.-1959. urteetako aleak aipatuko ditugu. Lehen urtean txikia, euskara hutsez, gero askoz ere handiagoa, euskaraz eta erdaraz, gaiak beti nekazaritza buruzkoak ziren, noizbehinka bestelako berriak bazekartzan ere. Arantzazuko frantziskotarrek argitaratzen zuten, argazkiekin, bi tinta erabiliz (beltza-gorria, urdin-beltza). Hasiera batean, *Aranzazu* aldizkariaren gehigarria zen, baina gero, "baserriak erakusleen bearra daukala ikusirik, asi genduan lengo urtean 'Baserriaren laguna' izena zuan atal berri bat gure illero ontan", eta "zortzi orriko illerokotxo bat ateratzea erabaki degu" (*Goiz-Argi*, 1. zenbakia, 1958ko urtarrila-otsaila). 1959an aurrera pausu bat eman nahi izan zuten, eta "GOIZ-ARGI'k baserriarrena ez ezik, euskaldun guzien errebista izan nai luke, euskaldun guzien periodikoa balitz bezela". Beti nekazaritza gaiak ukitu arren, "euskaldun guziak ulertzeko eran", 60ko hamarkada hastear zegoelarik "kaletar eta baserriarren arteko artu-emanak estutu nai lituzke GOIZ-ARGI'k" (*Goiz-Argi*, 1959ko urtarrila), agian industrializazioak berarekin batera zekarren hiritartze-prozesuaz jabeturik.

1.8. HAURRENTZAKO ALDIZKARIAK

1.8.1. Iparreko *Pottolo*

Gerra ondoren, lehenago Hegoan komiki asko kalera irten baitziren, haurrentzako prentsan Iparreko euskaldunek lehen pausua eman zuten. Egoera hobea zen beraiantzat: nahiz eta euskara hezkuntza ofizialetik at beti egon, Hegoan errepresioak galarazten zuen edonolako euskarazko aldizkaririk argitaratzea. Iparrean, aldiz, *Herriak* haurrentzako gehigarri bat ateratzea erabaki zuen: *Pottolo. Eskualdun haurren agerkaria. Journal des Enfants Basques* zuen izena. Batzuetan astekariaren neurriko orri bat zen, beste batzuetan txikiagoa. Hiru kolorez egin (gorria, beltza, berdea), umeentzako testuak eta haurrek berek egindakoak zekartzan. Noizbehinka ere komiki-tira bat argitaratzen zuten, itzulia.



Pottolo. Eskualdun Haurren Agerkaria

1.8.2. Hegoko aldizkariak: *Umeen Deia*

Hegoan ez zen komikirik argitaratu (Gerra aurrean ere, *Txistu* eta *Poxpolinen* esperientziak, diru aldetik, txarrak izan ziren). Aldizkari batzuetan, ikusi dugunez, komikiak argitaratzen ziren: *Anaitasunan* Ameriketako komikiak, euskarara itzuliak, agertzen ziren; *Zeruko Argiakoak*, aldiz, kaputxinoek berek egindakoak (Oterminek marrazten zituen) izaten ziren, antzinako erara, hau da, *balloon* edo globorik gabe, haien ordez didaskalia edo marrazkien azpiko testuak jarritz.

Garai hartako haurrentzako aldizkaririk garrantzitsuena Iruñean apaiz batek, Felipe Murietak, argitaratzen zuena izan zen. *Umeen Deia* (hasieran *Umien Deia*) 1959an agertzen hasi zen. Urte hartako ekainean sortu zuen Murietak zazpi urtetan zehar zuzenduko zuen aldizkari hori. Guztira, 65 ale, bakoitzak lau orrialdekoa. Euskararen egoera larriaz kezkatuta, Felipe Murietak erabaki zuen haurrentzako aldizkari bat ateratzea, ez aldizkari filologiko edo literariorik, euskarak bizirik iraun zezan hizlari gazteen artean. 1959ko maiatzaren 17an, Etxalekun egindako euskal jaialdi baten ondoren, Murietak Nafarroako Príncipe de Viana Instituzioko Pedro Diez de Ulzurruni proposatu zion, eta handik aurrera urtero 5.000 pezeta jaso zituen diru-laguntza moduan. Euskaltzalek sostengatua (Murietak dohain banatu nahi zuen umeen artean), aldizkariak umeek berek idatzia izan behar zuen.

1.9. IRRATIA

1.9.1. BBCko eta Radio France-ko euskal irratsaioak

Ikusi ditugu B.B.C.ko euskarazko irratsaioak, Gotzon Urrutiak eginak eta *Alderdi* aldizkarian argitaratuak. Radio Francek, aldiz, ez zuen euskarazko irratsaioarik emitituko 50eko hamarkada arte. 1958an behintzat, Paristik bi irratsaio aineratu ziren, Hipolito Irigoyen eta Pedro Aranburu jeneralari buruzkoak (biak Argentinako presidenteak izan ziren). Buenos Airesko *Tierra Vasca* aldizkarian transkribituta daude, "Euskera" izeneko atalean, 1958ko irailaren 15ean eta azaroaren 15ean.

- 8 -

- EUZKERA IRATIJA -

Euzkeldun lekaidiak B.B.C. ifati-bidez emon dauskun bigarren itxel-dijaren arazua "Engelander eta euzkotaren bizitegiak" zan.

Engelanderak eta euzkotarak -lesaskun izlaririk- Jaungoikua'gandik gixakera bardiña deben eren, izakera -bide bereziz debiltz; ofegatik efi bijon bixitegi ta sendi-bixitxe; antzekua dala-be, ezta bardiña.

Gustiz ezeguna da englanderaren esakun zefa: "Englishmen's home is a castle", "Engelanderaren bizitegie gaztelube da". Gaztelubetan letz gaitz be gaitz da englanderaren etxietan sartzia; ofetarako lagia bial dozu, lagizko baimena. Etxe-bafuben eurokatasuna, eurok bakarik aukitua gura ixaten debe; ez berokoi diralako, berezizko bizitza-zaliak diralako baño. Euzkotaren etxia be gaztelube da; baña beste bidez. Etxetik urtetia edo etxe-galtzia da gure artian gaitz eta erdi ezia. Euzkotarak asaba ta gurasuskandik auxe ikasi debe; etxia ez dala sendi edo pamilitik aldanu bial, jayotz-etxiak sendi bakak beraxeri lotuta, gaztelubek bai liren zeindu bial dirala. Engelderak ez deutse jayotz-etxiari gafantzi nagosirik emoten, eukotarak bai. Euzkotaren artian etxe-jabetza, "sorte-etxe okiak" edo ogsunak nagosi dira.

Engelderak zeregina emoten deutse gafantzi negosija, ta beraz zeregina debezan tokijan antxe debez euren etxe ta bizitokijak. Euzkotarak, bafiz, euron jayotz-etxiak eustapen negosikotzat debezan ezkerre, arek diran tokijan antxe zebelduten debez euren bizibidiak nei solusk dirala nei olak.

Euzkotaren bizitegi ta sendi-bizitzen gauzarik urtenenek "etxe ko jaun ta etxe ko andrea" dira; englanderaren artian ez da egizko etxe-jauntza ta etxe ko andrea. Euzkotaren artian etxe ko jaun ta etxe ko andrea esatia senaf-emeztatik esatia baño gayago da, gurasusk ixentatzia baño be gayago. Emen England'an ez da ofelakorik. Emekumiai ez yake geyeneten beintzet etxerajo ezkerarik emoten. Ofegatik-edo, etxe ko anderatza ez da ezaguna, ta safi be safi ikusiko dozuz gixonezkuak maya ipinten ta maya jasoten, umiak jaboten ta abaf, anderszkuak beste zeregin batzutan debiltzale.

Nire ustez beste gauza bat da gustiz usafafi euzkotarak ta englanderaren bizibidietan. Efi biok efi usnadun edo pafetikukak dira; baña usnetasun ofetan ez darsibile bide bardiña. Engelderak gauzak DIRAN LETZ begiraturuten debez, euzkotarak, bafiz, gauzak IXAN BIAR LITZAKEZAN LETZ.

Ortik ondoren gafantzitsubak datofz. Ezeguntza-bidietan zuzen be zuzen da gauzak ixan bial litzakezan letz edo euron bafuko ixakerean ikustia, baña bizitza-bidietan gauzak diran letz edo euren egokerean begiratzia be ez da okaf. Batez be galarezota ez dagozan gauzetan. Gentza edo pake-bide edefal

Engelderak oraintsu afte, oin amafen bat urte afte beintzet, ezke ziran euren ogsunak ilburuko-bidez edonori emoteko, seme-alsaba eurai be ez eutsen laufleko bat zof ixaten; euzkotaren artian be olakoren bat ja-

.../...

1.9.2. Euzkadi Irratia

Aipatu ditugu Euzkadi Irratiko saioak, Parisko *Euzko Deyan* argitaratuak. Euzkadi Irratia 1947an sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren bultzadaz, eta 1950ean egunero bi aldiz behintzat bere irratsaioak, erdarazkoak zein euskarazkoak, aireratzen zituen. Zortzi urtez Paristik Euzko [sic] Jaurlaritzak Donibane Lohitzunera bidaltzen zuen buletina irakurtzen zuten. Horretaz aparte, gero Euzko Jaurlaritzaren informazio eta propaganda arduradun bihurtuko zen Jose Rezolak iruzkin batzuk idazten zituen. Guztira, ordu erdi egunero, horietatik lau minutu euskaraz.

Euskarazko irratsaio askoren testua ezagutzen dugu *Euzko-Deyaren* gehigarriari esker, zenbaki guztietan argitaratzen baitzituzten. Urte hartan sortu zen *Euzkadi-Irratiaren izparringija* edo berripapera argitaratzeko asmoa, "euzkel-irratikixunak bertan jarri ta euzkeldun guztijak jakin-erazoteko, Euzkadi-barruko euzkaldunai" (*Euzko-Deya*, 1950eko martxoak 15, 321. zenbakia, 12. orrialdea). Guk dakigunez behintzat, ez zen inoiz buletin hura argitaratu, eta euskarazko testuak, esan bezala, *Euzko-Deyan* agertzen ziren. 1954an, Mitterrand Barne-Ministroa zelarik, Mugerreko Euzkadi Irratiaren egoitza itxi egin zuen Frantziako Gobernuak, Francoren presioak zirela eta.

1.9.3. Gipuzkoako irratien programak: La Voz de Guipúzcoa eta Radio San Sebastián

50eko hamarkadako azken egunetan hasi ziren Donostiako La Voz de Guipúzcoatik irratsaioak aireratzen. Radio San Sebastiánek ere zenbait gauza euskaraz egiten zuen. 1958an, esate baterako, larunbatero, arratsaldeko 20etatik 20.30etara nekazaritzari buruzko irratsaio bat emititzen zuen.

La Voz de Guipúzcoak, bere aldetik, astelehenero eta ostiralero aireratzen zuen euskal irratsaioa. Han zebiltzan Maria Dolores Agirre, Manu Oñatibia eta Inazio Eizmendi *Basarri*, besteak beste. Hiru ordu laurdeneko programak izaten ziren, arratsaldero 20.15etatik 21etara. Igandeetan Baionatik meza transmititzen zen, frantsesez, predikua edo pronua aldiz euskaraz. Radio San Sebastián-ek, Gerra ondoren euskal saio batzuk egin zituenak, Arantzazuko meza aireratu ohi zuen. Tolosan, Nemezio Etxanizek dioenez (*Zeruko Argia*, 1958ko uztaila, 55. zenbakia, 120. orrialdea), astean hiru aldiz zerbait egiten zuten euskaraz. Izaskun Ugarte izan zen hizlaria eta arduraduna. Asteartean, ostegunetan eta larunbatetan egiten ziren irratsaio haiek, 14etatik 14.15era (laurdeneko irratsaioak, beraz).



Inazio Eizmendi *Basarri*

1.9.4. Gipuzkoako irrati berriak: Arrate Irratia eta Segura Irratia

Eibarren Arrate Irratia lanean hasia zen, hango apaizei esker. Segura Irratia hango apaiza zen Zesareo Elgarretak antolatu zuen 1958an: "Makiñabat euskal-abesti eder jarri dituzte, baita bertako apaizgaiak eta egindako bertso berri jator askoak ere [...]" (*Aranzazu*, 1957, 93. orrialdea). Seguratik aiereratutako irratsaioak Eskoriatzaraino, Loiolaraino, Alegiaraino, Orendain eta Leintz-Gatzagaraino iristen ziren.

1.9.5. Radio Vitoriaren euskal irratsaioak

Azkenik, Gasteizen bazegoen euskal irratsaioak. Radio Vitorian Andoni Urrestarazuk astean hirutan euskara eskolak ematen zituen, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, arratsaldeko 18,30etatik 19etara.

1960-1974 bitarteko komunikabideak

1. ALDIZKARI ERLIJIOSOAK

1.1. Hegoko aldizkariak: *Anaitasuna*, *Goiz Argi*, *Zeruko Argia*, *Baserri*


Joan Mari Torrealdaik gogoratu duenez, 60ko hamarkadan "gertakarien zaparrada izan zen": euskal idazleak Ermuan eta Baionan bildu ziren, Gabriel Arestik bere lehen liburuak argitaratu zituen, Euskaltzaindiak Arantzazuko bilera egin zuen, Durangoko liburu-azoka lehen aldiz antolatu zen 1965ean, eta, Rikardo Arregi bezalako figura garrantzitsu eta gazteen eskutik, euskal kazetaritza loratu zen.

Zeruko Argia hiru urte egon zen agertu gabe, 1960tik 1963 arte. Martxoan Agustin Ezeizak hartu zuen bere zuzendaritzapean, astekari independentea eta pentsamolde zabalekoa egiteko asmoz. Jende berria iritsi zen: Carlos Santamaria, Jose Migel Zumalabe, Jose M. Lasarte eta Jose Salegi, adibidez, idatziz eta dirua jarriz aritu ziren. Beste batzuek jarraitzen zuten, Inazio Eizmendi *Basarrrik* adibidez, bere betiko "Nere bordatxotik bildutako sorta" idazten. Kazetari berriak hurbildu ziren: Rikardo Arregi, Xabier Gereño, Gabriel Aresti, Luis Alberto Aranberri *Amatiño*, Joxe Azurmendi, Ramon Saizarbitoria, Edorta Kortadi, Xabier Lete, Anjel Lertxundi esaterako. Pixkanaka orrialde kopurua gehituz joan zen: hasieran sei, gero hamabi eta azkenean 75. Euskara batua proposatu zenean, *Zeruko Argiak* besterik gabe onartu zuen. Garai hartan hasi zen aldizkaria, erlijiosoa izateari utzi gabe, *newsmagazine* bihurtzen.

Zeruko Argiak batez ere Gipuzkoan zuen eragina; Bizkaia *Anaitasunaren* eremua zen. Imanol Berriatuak 1953an sortua, hainbat aldaketa gertatu ziren aldizkarian urte haietan. 1957etik 1966 arte Arantzazuko teologoek zuzendu zuten eta taxuera handitu egin zen. 1967etik 1969 arte Joan Azurmendik eta Imanol Berriatuak zuzendu zuten. 70eko hamarkadan indartu egin zen. Hala ere, 1973an isilaldi bat gertatu zen, Zelaieta zuzendariak dimisioa aurkeztu ondoren. Gero *Jakinetik* zetozen batzuek hartu zuten, Joseba Intxausti buru zela.

Gipuzkoan *Goiz Argi* sortu zen, Jose Antonio Garateren ekimenez. Erlijiosoa zen, gipuzkeraz idatzia, baina zenbait tarte eskaintzen zien beste

gai batzuei, batez ere baserriko gauzei, hasiera batean *Aranzazuko* gehigarri bat baitzen.



Zeruko Argiaren iragarki bat 1970eko hamarkadan

Ez zion, hala ere, gainontzekoek beste orrialde eskaini politikari. Besteak baino tradizionalagoa zen, eta ezaugarri hori areagotu zen gero trantsizio garaian. 1970ean Donostiara joan eta aro berri bati hasiera eman zion aldizkariak. Kardaberaz taldeko batzuk sartu ziren eta laikoan eskuetan gelditu zen argitalpena. 1970ean Bilboko *Agur* hilabetekaria sortu zen, gero hilabetekari eta astekari bihurtu zen. Eskuinekoa zen, eta euskara batuaren aurkakoa. 1973an desagertu zen eta bere irakurle gehienak *Goiz Argira* joan ziren. 1974an *Goiz Argi* astekari bihurtu zen, *Argia*, *Anaitasuna* eta *Herria* bezalaxe.

Baserria ere nahiko tradizionala zen. Bilbon agertu zen 1967. urteaz geroztik, bertako baserritarrentzat, Gerra aurreko eta ondorengo tradizioari eutsiz. *Baserriaren adiskideen abelur-orria* zen azpizenburua.

1.2. Aldizkari erlijioso hutsak

Alde batera utzita lehendik zetozen aldizkari erlijioso hutsak, baten bat ere sortu zen aro hartan. Horietako bat *Jaunaren Deia* du. 1964an sortu zen, euskara hutsez. Lehen hamasei zenbakiak mimeografiatuak izan ziren, Markox Amundarainen zuzendaritzapean. Lazkaoko beneditarren komentuan egiten ziren aleak. 17. aletik aurrera inprimatu egin ziren.

Bigarren zuzendaria Isidro Baztarrika izan zen, 1969tik 1973 arte. Handik aurrera Errupin Muxikak hartu zuen zuzendaritza, talde baten izenean. Gehienez mila ale ateratzen ziren, eta sostengu ekonomikoa Lazkaoko beneditarrena zen. Gaiak teologikoak eta liturgikoak izaten ziren, eta irakurleak, apaizak, fraideak eta mojak.

Horrez gain, ikasle erlijiosoek egindako beste aldizkari andana bat badugu: lehendik zetozen *Laiaketan* eta *Arnas* gain, Oñati agustindarrek *Erein* atera zuten 1960an. II. Kontzilio Vatikanoren ondoren Eliza katolikoan hazi berriak nabaritu ziren. Euskal Herrian ere bai, jakina. Horren ispilu Oliteko *Gure Izarra* eta Begoñako *Gogoz*. Ale-kopuru eta zabalkunde murrizta zuten.

Askoz gehiago saltzen ziren beste bi aldizkari elebidun: *Aranzazu* eta *Redención*, 20.000 ale baino gehiago bakoitza.

Euskara hutsezkoa zen, eta da, lerro hauek idazten ditugunean ere argitaratzen baita, karmeldarren *Karmel* aldizkaria. 1956an jaio zen, 1951n ere egutegi moduan kaleratzen bazen ere. 1962an debekatu egin zuten, baina gero berriz ere agertu zen. Santiago Onaindia sortzaile eta sostengu nagusia zen.

Gotzaintzek ere bazuten aldizkari bana, non euskarak lekurik bazuen, behintzat Bizkaian (*Bizkaiko Eleizea*) eta Gipuzkoan (*Aldizkari Nagusia*). Bestaldean Belloc-eko fraileek *Othoizlari* ateratzen jarraitzen zuten.

1.3. Herriaren eredia, tinko Iparrean

Ipar Euskal Herrian, aldiz, euskal komunikabideen indarra ahulduz zihoan. *Herriak* jarraitzen zuen komunikabiderik indartsuena izaten, baina faktore politiko eta sozialek - frantsesezko hezkuntza, telebista eta irratien hedadura, herrien despopulazioa, eta abar - euskal produkzioaren atzerakada ekarri zuten.

1965ean *Herriak* taxuera handia zeukan, orduko egunkariak bezalakoa (astekaria izaten jarraitzen zuen, jakina). Ostegunetan agertzen zen Baionan, zenbait kazetari-baliabideak erabiliz: argazkiak, idazpuru korrituak, letra-tipo ezberdinak titularretan eta testuetan, eta abar. Nolabaiteko

modernizazioari, beraz, ekin zioten, aldizkariaren hegemoniak hala eskatuta. Lau orrialde eta betiko atalak zituen: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako berriak, pilotari buruzko informazioa, tokian tokiko informazio ugari, eta lehen orrialdean editorial edo iruzkin bat, orduan ere zuzendaria zen Piarres Lafittek sinatua *So Egile* goitizena erabiliz.

1970eko hamarkadan zenbait aldaketa gertatu ziren. Taxuera tabloidera pasatu zen, zortzi orrialde zituen, eta diseinua ere aldatu eta hobetu zen. Pilotaz ez ezik, Iparraldean hain ospetsua den errugbiari buruzko berriak ere ematen hasi ziren. Asteko berriak, Lapurdiko herri gehienetakoak, Nafarroa Behereko eta Zuberoko atal bana, Hegoaldeko berriei buruzko beste bat, iritzizko artikuluren bat (horietako bat frantsesez), eta tribuna libreko artikululu luzexka, "Egun eta bihar". Lehen orrialdean ere erreportajeak eskaintzen hasi ziren, txikiak eta ikusgarriak: berri nabariez gain, Euskal Herriko parajeen berri eta bidaiei buruzkoak ere ematen zituzten. 1973tik aurrera, nazioarteko eta Frantziako berri gehiago eskaini zituzten. Idazle berriak ere agertzen diren: P. Bidart, Ramuntcho Camblong, Etienne Salaberry.

1.4. Euskara erdal egunkarietan

Frankismoaren azken urteetan hainbat erdal egunkaritan euskara argia ikusten hasia zen, 1966ko Fraga legeak ekarri zuen askatasun izpiekin. Iruñeko *Diario de Navarrak* 1966an *Nafar izkuntzan* izeneko asteroko gehigarria argitaratzeari ekin zion, Pedro Díaz de Ultzurrunek gidatua. Aingeru Irigaraik eta José María Satrustegik ere idazten zuten. 1976an Jesús Gaztañaga eta Manu Oñatibia apaiz gipuzkoarrek ardura hartu zuten. Batuaren aurkakoak ziren. Donostiako *La Voz de España*n, lehen, eta gero *Diario Vascon* Inazio Eizmendi *Basarrik* bere betiko "Nere bordatxotik" izeneko atala berriz ere kaleratu zuen. Beste euskal testu edo atal batzuk ere argitara eman zituzten bi egunkari horiek, batez ere igandeetan, erlijioari buruz, eta ostegunetan, Ordiziako feriari buruz. Bilboko *Hoja del Lunes*n (1971), *La Gaceta del Norten* (1974) eta *El Correo Español-El Pueblo Vascon* ere zenbait euskal testu noizbehinka agertzen ziren. "Susmoa dut", zioen 1976an Xabier Aranburuk, "ez ote duten zuzendariak euskal orriak folklore gauza bezela erabiltzen: moda bat da, euskaldunak kexa ez ditezen..." (Aranburu, 1977: 68).


ZERUKO ARGIA

83

GAURKO GAITZAK



ZINEKERIA



NIK ez dakit zine-zaletasuna ala zinekeria dan erririk geyentan sortu dana. Baña toki askotan ezagutzen dan garra gaixoa dala bai. Gaur asko dira gosez eta zorretan bizi nayago dabena zinea laga baño. Gaixoa ez ete ori? Zinearen onerako indarririk ezin ukatu on bidean zuzendu eskeroz. Zoritxarrez lizunkerira begira bizi da, griñak biztutzen, bizimodu zikiñak goratzen eta erakusten, gizarteko argalkeriak zirikatzen.

Oraindik ez dira urte bi zine lizun bat zan erri txiki baten. Gañezka jentez. Guraso, zarr, ume, maite-miñetan bizi diran neska mutil... Geyagorik ezin sartu.

Pelikula lizuna benetan; ondo eratu, artista onekaz egiñ, dotore tajutua, zoragarria askorentzat.

Pekatu bidea argiago ezin erakutsi. Ezkoñdu gabe ezkon bizitza erabilen bik. Neska koitadu ta errukarria ama izateko bidean zan laster ta osagilleagana juaten ikusten zan amatasuna beragandik ezerestuteko asmoz, izaki barri baten bizitza bere erriatetik atarateko eskabidez. Geroago, ontzi baten ebiltzala, pekatua oraindik lodiago egiten da. Neska uretara jausi edo jaurti ta bere kutunak ardurarik gabe itoten laga.

Ikusle asko sispuruz ziran; emakumerik geyenak negarrez, penaz beterik, beste asko errukiak jota. Eta danak esakera bardiña: Au bai pelikula ederra!

Kalean laster ziran bi autuan, barriketan. Eliztarrak biyak, baña ez bardin pentsaten ekienak.

—Ze memela da berau? Ondo pelikula ederra zan beñepein!

—Baña au ta beste a ta...

—Ixilik egon zaitetz ixilik egon. Eztakigu ze pasaten dan ala? Elizan elizako

ZERUKO ARGIA... Izen santua. Zabaldu ZERUKO ARGIA Jaungoikoaren izenean... Amar arpidedun edo suskritore berri bialtzen ba dizkidazu, liburu polit bat bialduko dizut, ordañez.

gauzak eta zinian zineko gauzak, txikiña. Guk beintzat, odozer ikusi arren arraririk ez dogu sentiduten beñepein.

—Baña an gozan neska mutillak...

—Bai zera. Ori zer dan eztakiela uste? Iñor eztago gaur lo.

—Gauza bat da jakitea ta beste bat griñak biztutia.

—Jakitiak sekula be kalterik eztauka, bai? ta...

—Olakorik ez egizu esan.

—Ez, zera... geu antxiña bizi giñan lez sorgin eta mamu antzera bizitzea da obiago!

Orrelako jardunak asko ziran.

Gero?

Komunikabide zaharrak eta berriak ez ziren beti ondo konpontzen.

Zeruko Argia zinemaren aurka aritu zen noizbait

2. ALDIZKARI POLITIKOAK

2.1. Ezkerreko aldizkariak

Iparrean sortua, baina Hegoari begira, *Zabal* Baionan atera zuten 1973an hango errefuxiatu batzuek, haien artean Paulo Iztueta eta Jokin Apalategi zeudela. Sozialismoa eta abertzaletasuna ziren haren zutabe nagusiak. Lehen aroa 1976 artekoa izan zen, multikopiaz, harez geroztik inprimatzen hasi ziren.

Klandestinitatean hainbat aldizkari agertu ziren, talde politikoak sortu ahala: *Ezkerra* (ESB), *Euskaldunak* (EHAS), *Sugarra* (LAIA), *Iraultzen* (LAB), *Askatasuna* (Comité de Exiliados), *Tierra Vasca* (orduan ezker abertzalera pasatutako ANVrena), *Hemen eta Orain* eta *Euskadi Obrera* (PCE), *Euskadi Socialista* (PSOE), *Komunistak* (EMK), *Sutegi* (USO), *Abenduak 11* (ORT) eta abar (Siadeco, 1977: 140). Gehienak elebidunak ziren, euskarari utzitako portzentaia oso aldakorra.

2.2. ETAREN aldizkariak

Euzko Alderdi Jeltzalearen politikarekin ados ez zeuden gazte batzuek sortu zuten Ekin taldea eta hortik atera zen gero Euskadi Ta Askatasuna (ETA) 1959an, nazio-askatasun mugimendu gisa. Hortik aurrera ETA talde armatu bilakatu da, hainbat bereizketa izan ondoren.

Talde honek bere aldizkariak - klandestinoak, zer esanik ez - izan ditu bere pentsamoldea plazaratzeko. Lehenengoa 1961ean sortu zen (urte horretan bertan hasi ziren ekintza armatuak): *Zutik*. Izen horrekin hainbat aldizkari agertu dira ordudanik. Hasieran aldizkatasun jakinik gabeak, beste batzuetan *Cuadernos de ETA* deituak, denetariko gorabeherak izan ditu argitalpen honek. 1974an ETA bitan banatu zen, ETA-V (militarra) eta ETA-V (politiko-militarra). Lehenengoak mantenduko zuen *Zutik*. Horretaz aparte, beste aldizkari batzuk izan ditu: *Kemen* (1967-1970), *Hautsi* (1972-1977), *Batasuna* (1969-1970), *Gudaldi* (1969-1970), *Langile*, *Zutik berriak*.

Beste taldeek beren bozeramaleak argitaratu zituzten. ETA VI-LCRk beste *Zutik* bat atera zuen (1971-1977), *Berriak*, eta abar. Berdin beste talde komunista batzuek: EMKk, adibidez, beste *Zutik* bat (1966-1968), *Komunistak* (1969), *Barneko Gora Beherez* (1968-1969), *Gora* (1969-1970), *Zer egin?* (1970-1977), eta abar.

Argitalpen hauek guztiek oso bizitza, tirada, irakurketa eta banaketa irregularra izan dute. Euskararen presentzia ere irregularra izan da, baina oso gutxi dira euskara hutsezkoak.

2.3. Iparreko mugimendu politikoak: Enbata eta beste

Hasieran, Enbata mugimendu kultural bat zen, eta zigilu diskografiko bat. Ipar Euskal Herriko kultur mugimenduetan - baita politikan ere - Telesforo Monzon, Ximun Haran, Michel Labéguerie, Piarres Larzabal zeuden. Gehitu zitzaizkien, 1960an, Michel Burukoa, Michel Eppherre, Jakes Abeberri eta Jean Louis Davant (Arbelbide, 1996: 96). Hasierako *Embata Embata* bilakatu zen, eta 1960tik argitaratzen zen aldizkariari ere izen hori eman zioten 1961ean. Ximun Haranek zuzentzen zuen. Aldizkaria "ezker eta eskuinaren arteko borroka baztertuz, elgarrekin borrokatzeko zentralismoaren kontra" egina zen (Arbelbide, 1996: 110).

1965ean ikasleen biltzar bat egin zen Bordelen, eta bertan proposatu zen *Enbata*, ordurako hilabetekaria, hamabostekari bihurtzea eta 4.500 ale ateratzea, elebidunak (gehiena frantsesez, zenbait testu euskaraz). Gaur egun arte iraun du aldizkariak, talde politiko horretan hainbat gorabehera gertatu badira ere.

Bestalde, Baionan ere 1974an sortu zen *Euskaldunak/Le Peuple Basque*, gehiena frantsesez eta zenbait euskarazko testurekin. Hilabetekaria, Euskal Herriko Alderdi Sozialistaren aldekoa zen (EHAS). Leku eta urte berdinetako aldizkaria dugu *Ildo*. *Iparretarrak* aldizkaria, elebiduna, askatasun nazionalerako talde honen bozeramalea.

3. KULTUR ALDIZKARIAK

3.1. *Jakin*, euskal kultura berriaren gidaria

Lehen fasean *Jakinek* batez ere gai teologikoak landu bazituen, 1961etik aurrera bestelakoak ere ekarri zituen bere orrialdeetara. Euskara batua onartu zuten, batez ere 1959an Joseba Intxausti zuzendari bihurtu zenetik. Paulo Iztueta azpimarratzen duenez, "bigarren fasea (1964-69) *Jakin* sekulartuz eta europartuz doanekoa da" (Iztueta, 1985: 394). Elizgizonek garrantzia bazuten ere, laikoak idazleen erdia ziren.

1969an, agintari frankistekin hainbat arazo izan ondoren, argitalpena eten egin zen. Berriz agertu zen *Jakin* 1971n. Hirugarren fasea (1971-1976) hasi zen orduan, Joan Mari Torrealdai, Joseba Intxausti eta Paulo Agirrebaltzategi zuzendari bihurtuta. José Ramón Beloki ere han ibili zen. Aldizkariak gain, liburuak ere (*Jakin* Sortakoak) argitaratu zituzten. Baina garrantzitsuena aldaketa ideologikoa izan zen. Orduan frankismoaren aurkako hainbat talde ibiltzen ziren: abertzaleak, sozialistak, komunistak, eta erlijioaren aldaketa sakonak gertatzen ari ziren: Kontzilio Vatikanoa, seminarioen hustuketa, teologia berria. 1967an krisialdi bat egon zen *Jakinen* zuzendaritzapean. Gero eta gai zabalagoak ukitzen zirenez, zuzendaritza

kolektibo bat aukeratzea erabaki zen: Rikardo Arregi (politika orokorra), Carlos Santamaria (zientzia eta pentsamendua), Andoni Lekuona (soziologia), Xabier Kintana (biologia), Ibon Sarasola (literatura, antzerkia eta zinea) eta José Antonio Arana (zuzenbidea eta historia). Denbora gutxi iraun zuen egoera hark: Joan Mari Torrealdai zuzendaritza bere gain hartu zuen, ikasleen aldizkaria izateari utzi zion *Jakinek* eta, Frantziako *Esprit* aldizkaria eredutzat hartzen, kultur, pentsamendu eta entseguko aldizkari normalizatua eta irekia izateari ekin zion. Horrelakoxea izaten jarraitu du, beti ere Torrealdairen zuzendaritzapean, gaur arte.



Rikardo Arregi

3.2. Aurreko aldizkariak abian: *Euskara, Egan, ASJU, Principe de Viana, Gure Herria*

Nafarroan euskaltzaleek lortu zuten aldizkari bat (gehigarri bat, egia esan) argitaratzea, *Principe de Viana*. 1966an agertu zen lehen aldiz, eta lehen hamar urteetan indarra izan zuen, gero aldiz ahuldu egin zen. Ez zen euskara batuaren aldekoa. Nola edo hala, gehigarria 1978 arte agertu zen; bigarren aro batean (batua erabiltzen zuen ordurako) 1981-1985 urteen artean argitaratu zen. *Fontes Linguae Vasconum*, zientifikoa, 1969an hasi zen.

3.3. Heterodoxoen aldizkaria: *Igela*

Euzko Gogoaren belaunaldia gaindituta egoten hasi zen, balore berriak sortu baitziren politikan eta literaturan. Batzuk oso kritikoak izan ziren aurreko tradizioarekin, *Orixek* gidatu zuen horrekin. Horien artean Jon Mirande eta Txomin Peillen zeuden. Mirande Parisen jaioa zen, gurasoak zuberotarrak zituen. Andima Ibinagabeitiak euskararen bidean jarri zuen, eta lehen lanak, hain zuzen ere, *Euzko Gogoan* eta *Eganen* argitaratu zituen.

Hala ere, bere nortasuna oso berezia zen - juduen aurka idatzi zuen, eta askotan faxistatzat har dezakegu - eta beste baliabide batzuk behar zituen bere ideiak jakinarazteko. Horregatik, 1962an *Igela. Euskaldun heterodoxoen errebista* sortu zuen Parisen, Txomin Peillenekin batera, euskal literaturaren mundua astintzeko. Konbentzioak haustera etorri zen aldizkaria. Erasmoren, François Rabelaisen, Alfred Jarryren, Oscar Wilderen edo Bernard Shawren bide satirikotik abiatu nahi zuten, antza. Sei ale argitaratu ondoren, 1964an desagertu zen. Bere eragina errebindikatu dute gure eguneko idazle batzuek.

3.4. Umeentzako aldizkariak: *Kili-kili, Pan pin*

1966an Jose Antonio Retolaza abadeak umeentzako euskal aldizkaritxo bat ateratzea erabaki zuen. Orduan Bilboko San Antongo elizan zegoen, eta lehen bi urteetan Derioko seminariotik multikopiaz atera zuen aldizkaria. Hogei zenbaki izan ziren, hasiera batean laurogei bat kopia, gero bi mila. Aldizkariak ez zuen legezko baimenik, eta eskuz banatzen zen Bilboko ume euskaldunen artean. Bizkaieraz idatzia zen.

Legearen pean jartzeko beharrean, sortu berria zen Euskerazaleak el-kartera jo zuen Retolazak 1968an. Ale bat inprimatu zuten, baina Madrileko baimena etorri ez eta aldizkaria debekatu egin zuten. 1977 arte ez zen berriro agertu.

Gerra ondorengo lehen euskal komikia - komiki aldizkaria - *Pan pin* izan zen. 1960an argitaratu zen lehen aldiz eta hamar urte iraun zuen. Elizaren babespean atera zen, eta ikastolako umeak bilatzen zituen. Batez ere Espainiako komiki famatuak euskaratzean zetzan bere lana: Mortadelo eta Filemón, adibidez, Txorizo eta Txistorra bihurtu ziren euskal bertsioan, eta Zipi eta Zape, Peru eta Txomin. Gipuzkerazko, bizkaierazko eta lapurterazko bertsioak zituen.

4. IRRATIAK

4.1. Erbesteko ahotsa: Euzkadi Irratia

Erbestean zegoen Euzko [sic] Jaurlaritzak irratsaioak antolatu zituen, Gerran sorturiko Euzkadi Irratiaren bitartez. Kataluniako Gobernuaren Radio Associació de Catalunya eta Radio España Independientek ere emititzen zuten. 1945etik 1954 arte Frantziatik bidali zituen Euzkadi Irratiak bere seinalea, aginte frankistak interferitzen saiatzen ziren. Hasieran Mugerretik eta Ziburutik emititu zuen, Joseba Rezolaren eta Ander Artzelusen ardurapean. Ordu erdiko irratsaioak izaten ziren, euskaraz eta erdaraz, baina erdara zen nagusi. Informazioa eta editorialak aireratzen ziren. Hamarkada

batean Gobernu frantziarrak begi onez ikusi zuen, 1954an ordea Espainiako agintariei jaramonik egin eta artean barne ministroa zen François Mitterrandek Euzkadi Irratia ixtea agindu zuen. Orduan Euzko Jaurlaritzak Venezuelara eramatea erabaki zuen.

Hamar urte luze igaro ziren, ordea, Frantziako garaitik Venezuelako irratsaioak emititu ziren arte. 1965ean, Ixaka Atutxaren eta Joakin Inzaren ardurapean, egunero hiru irratsaio aireratzen hasi zen Euzkadi Irratia. Erdi izkutupean; hango gobernuak begi onez ikusten bazuen ere - Venezuelako euskal kolonia indartsua eta populutsua zen -, Espainiako presioak ekiditeko. Caracasen ez zen entzuten, handik 40 kilometrora jarria baitzen emandegia. Isilpeko estudio batean grabatzen zen programa, gero zinta hartu eta emandegia zegoen lekura eramaten zuten. Ameriketatik Europara bidaltzeko uhin motzaren bidez egiten zen. Ordu erdiko irratsaioa egiten zuten, udan hiru aldiz eta neguan birritan. Hiru minutuko euskarazko musikaldi bat eta beste hiru minutuko euskarazko artikulua bat ere aireratzen zituzten. Beraz, ordu erdiko programazio hartatik sei bat minutu euskaraz egiten ziren. Hamabi urte egon zen emititzen, 1977ko apirilaren 30ean, igarobide politikoa zela eta, Euskal Herriratu ziren.

4.2. Irratia Hegoan

Barruan hainbat irrati-emandegi edo emisore zeuden, Seguran, Arraten, Tolosan, Bilboko Begoñan eta Barakaldon adibidez. Gehienak Elizarenak edo Elizan babespean sortuak. 1964an, Manuel Fraga Informazio ministroa zela, plan bat erabaki zen eta Komisio Episkopalarri Madrilen lau emisore eta probintzia bakoitzean emisore bana jartzeko baimena eman zitzaion. COPE katea sortu zen. Horren ondorioz Euskal Herrian honako hauek COPEn sartu ziren: Segura Irratia (1956), Iruñeko Herri Irratia (1959, dominikoek sortua), Arrate Irratia (1959), Bilboko Herri Irratia (1959), Loiolako Herri Irratia (1961) eta Donostiako Herri Irratia (1962). Euskarak zenbait presentzia eduki zuen. Baita Estatuko emisore batzuetan ere, hala nola Radio San Sebastiánen eta Donostiako La Voz de Guipúzcoan. Hala ere, zailtasunak bazeuden: Loiolako Herri Irratian euskarazko publizitatea eta disko dedikatuak debekatuta zeuden euskaraz. 1958an, bestalde, José Manuel Lasarte apaiz nafarrak Errosarioko Amaren Irradia martxan jarri zuen, baina gobernuaren aginduz itxi behar izan zuen. Arantzako erretorea zen Esteban Irigoienek beste irrati bat antolatu zuen, 1960-1965 urteetan.

Euskarazko irratsaioen kalitatea batez ere 70eko hamarkadan hobetu zen. Siadecoren ikerketa batek nabarmentzen duenez, emisoreak hiriguneetara hurbildu ziren eta erlijioa-baserria-euskara ardatz ideologiko hori pixka bat utzi zuen alde batera. Profesionalak ere sortzen hasi ziren. Ordura arte zaleekin eta euskaldun adoretsekin egiten zena, kazetari profesional

euskaldunekin egin behar zen erdal komunikabideekin lehian aritu ahal izateko. Eta orduan nabaritu zen euskal kazetaritza profesionalaren eskasiak (Siadeco, 1977: 35-36). 1966tik 1976ra euskarazko irratien panorama orekatu zen. Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak izan ziren, garai hartan, gidariak euskara uhinen bidez normaltzeko ahaleginetan. Aipagarria da lehen aldiz 24 ordu euskara hutsez transmititu zuen lehen irratia Loiolako eta Donostiako Herri Irratia izan zirela, 1976ko martxoaren 27an, Euskaltzaindiaren omenez. José Ramón Belokik koordinatu zituen lanak. Hamahiru mahainguru zeuden euskal kulturaren beste horrenbeste alderdiri buruz, 24 kronika Euskal Herriko zenbait zonalderi buruzkoak aireratu ziren, eta 30 bat elkarrizketa egin ziren. Euskaltzaindiaren bilera Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregitik eman zen. Azkenik, Anoetako belodromoan egindako kantaldia ere eskaini zen.

Denetariko irratsaioak egin ziren ordutik aurrera irratian: albistegiak, magazinak, publizitatea, musikalak, kulturalak, kirolei buruzkoak, emanaldiak, eta abar. Kulturari buruzko irratsaioetan, eta erlijioari buruzkoetan, ez zegoen oztoporik euskara erabiltzeko, bai ordea gainontzekoetan. Halako diglosia bat sortu zen orduan kiroletan, albistegietan eta entretenimenduan, non gaztelania - edo ingelesa - nagusi ziren. Euskal Herriko Unibertsitateko lehen ikasle euskaldunek, euskarazko ikasgaiak landu zituztenek, karrera bukatu arte, 80eko hamarkadan alegia, ez zen konpondu arazo hau.

4.3. Irratia Iparrean

Frantziako estatua oso zentralista denez, Iparreko euskaldunen komunikabideak, batez ere ikus-entzunezkoak, Hegokoenak baino askoz urriagoak izan dira. Askotan euskarazko irratsaioak folkloriko samarrak izan dira. Adibidez, 1961ean Radio Côte Basquen (Radio Franceren barruan) hasi zen igandeetan zenbait minutu euskarari eskaintzen, udan. Urte hartan bertan *Enbatakoek* euskaraz arituko zen irratia bat eskatu zuten (Arbelbide 1996: 101). Eskualtzaleen Biltzarrak 800 sinadura bildu zituen haren alde, baina alferrik. 1981ean, François Mitterranden sozialistak boterera ailegatu zirenean, egunero ordu laurden eta igandeetan ordubete eman zitzaion euskarari.

1971ean Bordele-Akitaniako ORTF emisoreak euskarazko irratsaio bat eman zuen, Maite Barnetchek aurkezten zuena. Radio Pays Basquek, bestalde, egunero zenbait minutu ematen ditu euskaraz 1984. urteaz geroztik, Radio Francen nolabaiteko deserdirapen bat gertatu ondoren. Baionatik ere, gaur egun, eguneroko irratsaio bat aireratzen da euskaraz.

Gaur egungo euskal kazetaritza

1. IGAROBIDEKO PRENTSA ETA EUSKARAZKO INFORMAZIOAREN KRISIALDIA

1.1. Giro politiko-informaziokoa Franco hildakoan

1.1.1. *Euskarazko newsmagazineen ordua: Zeruko Argia, Anaitasuna, Goiz Argi eta beste*

1978an Euskaltzaindiak "Bai euskarari" kanpaina antolatu zuen. Lehentxeago Euskal Kontseilu Nagusia sortua zen autonomiarako bidea prestatzeko. Euskara ofizialtasuna lortzekotan zegoen.

1976an hasi zen *Zeruko Argia*rentzat beste aro bat. Aldaketa asko gertatu ziren lau urtetan, 1980an *Zeruko Argia* Joxemi Zumalabe eta Joxe Mari Ostolazaren ekimenez *Argia* bihurtu arte. Hasiera batean Mikel Atxaga, Donato Unanue eta Luis Alberto Aranberri izan ziren aldizkariaren idazle nagusiak, Kaietano Ezeiza zuzendaria zela. Aranberri joan zen urte hartako udan eta Elixabete Garmendia sartu zen bere ordean.

Aldaketak gaietan ere nabaritu ziren. Orduan pil-pilean zeudenak ekarri zituzten aldizkariaren orrialdeetara: euskal unibertsitatea, amnistia, erreferenduma, azken batean politikak dinamika bat inposatzen zuen. Profesionalago bihurtzea izan zuten asmoa. Argi zegoen euskal prentsak iraun behar baldin bazuen, ingurukoarekin parekatu behar zela. 1976 hura Euskal Prentsa Urtea aldarrikatu zuten, komunikabideetan euskara sartzeko eta euskal kazetaritza irmo bat sortzeko. Espainian bezala, *newsmagazineen* ordua zen, euskara hutsezko egunkaria artean urrun ikusten baitzen.

Anaitasunari dagokionez, bilakaera oso antzekoa da. Elizgizonek sortua eta batez ere erlijioso izatetik oso politikoa izatera igaro zen. 1976an Joan Mari Torrealдай zuzendari bihurtu zen, eta taxuera eta edukiak erabat aldatu ziren. Hurrengo urtean jabetza ere aldatu zen: frantziskotarrek utzi eta laundegi enpresak eskuratu zuen. Abertzale eta sozialistatzat zuen bere burua aldizkari berriak. Bertan, Joan Altzibar ezizena erabiltzen zuen

Torrealdak Espainiako ereditik aldentzea proposatu zuen, nahiz eta euskal kazetaritzaren tradizioa pobre izan, haren ustez. Hainbat gauza egin gabe zeuden: kazetari euskaldunen profesionaltasuna, kazetaritza-euskara, adibidez, ondu gabe zeuden.

Bitartean, *Goiz Argik* bere hartan jarraitzen zuen. Ez zuen ezta euskara batua ere onartu, idazle eta irakurle zaharreneen aldizkaria izaten jarraitu zuen, eta 1976an elebidun egin zen (euskaraz %80 agertzen zen).

Zehatz lehengo *Zabal* aldizkarian zebilen talde bati esker sortu zen Donostian. Ezker abertzalearen pentsamenduzko aldizkaria zen. 1978an sortu zen eta ez zuen arrakasta handirik izan.

Gaiak askoz apalagoa zen pentsamendu aldetik. Leopoldo Zugazak sortu zuen 1976an, *Revista de Occidente* eredu zela. Elebiduna, gehiena gaztelaniaz agertzen zen hiru hiletan behin.

Hitz 1974an sortu zen Iparrean, eta ETA politiko-militarretik gertu zegoen. Aldizkari grafiko bat izan zen eta 1976an desagertu zen.

Hainbat apaiz eta elizgizonek sortu zuten 1978an *Herria 2000 Eliza*, aldizkari erlijioso-politiko gisa definitu daitekeena, ezker abertzalearen aldekoa.

1980an *Saski-Naski* sortu zen, baina arrakasta mugatua izan zuen.

1.2. Euskal prentsaren urtea eta krisialdia

1.2.1. Zeruko Argia Argia bilakatu da

Krisia zela-eta, kaputxinoek, Gerra aurretik *Zeruko Argia* sortu zuten horiek, 1979an aldizkari uztea erabaki zuten. Gauzak ederki aldatu ziren urte haietan guztietan. Egia esan, azken bolada hartan kaputxinoen presentzia "ia testimoniala zen" (*Argia*, 1984ko urtarrilaren 15a, 25. orrialdea). Baldintza batzuk jarri zituzten elizgizonek aldizkaria langileen eskuetan uzteko: izen ezberdina jartzea (horregatik *Zeruko* desagertu eta *Argia* bakarrik geratu zen), zorrak (600.000 pezeta) kitatzea eta egoitzaz aldatzea. Hori guztia egin zuten kooperatiban bildutako langileek eta 1980ko urriaren 2an agertu zen *Argiaren* lehen zenbakia. Kazetari batzuk beste aldizkari batzuetara joan ziren, Lurdes Auzmendi eta Gorka Reizabal adibidez. Jarraitzen zuten, besteak beste, Elixabete Garmendia zuzendariak eta Pilar Iparagirre zuzendariordeak. Ez arazorik gabe: 1982ko urtarrilaren 24an etenaldi bat izan zuen astekariak, hiru hilekoa.

1983an hainbat eta hainbat arazo zuen *Anaitasuna* desagertu eta haren langileek bat egin zuten *Argiakoekin*. Une hartan harpidedun gehienak (%59,3) Gipuzkoan zeuden, %21,4 Bizkaian eta gainontzekoak Nafarroan (%5,7), Araban (%5,2) eta Iparraldean (%3,4).

1.2.2. Anaitasuna eta Goiz Argi desagertu dira

Ordurako, euskal prentsak hainbat aldaketa jasan ondoren eta egoera politiko eta informatibo berriari aurre egiten jakin gabe, *Argia*, *Anaitasuna*, Iparreko *Herria* (1967tik Jean Hiriart-Urrutyk zuzendua, Piarres Lafitteren orde), *Jakin* eta *Saski Naski* aldizkariak 1980an Prentsa Euskaraz kanpaina antolatu zuten. "Euskal prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk", zioen esloganak. Euskarazko prentsa gaizki zegoen. Joan Mari Torrealdai *Jakinen* zuzendariaren ustez elebitasuna ez zen estrategiarik egokiena, eta aldizkarien hizkuntzen portzentaia aldatu behar zen, gutxienez %80 euskaraz emanaz. Kanpainaren helburua aldizkari bakoitzarentzat lau mila harpidedun berri lortzea zen. Ez zen gauzatu.



Prentsa euskaraz kanpaina

Euskara hutsezko aldizkariak krisi larrian zeuden. Demokrazia aurreko esparrua galduta edo beste aldizkari eta komunikabide batzuek hartuta zeukaten. Lehen ere euskaldunak alfabetatzeko edo, behintzat, euskaraz irakurtzen ohitzeko baliabide ia bakarra ziren, baina egoera hori gaindituta zegoen.

Egoera nahasi hartan, *Anaitasunak* ezin izan zuen iraun. Diru aldetik ezin okerrago zebilen. Harpidedunen beherakada nabaria izan zen. Adibidez, Bizkaiko jeltzale gehienek baja eman zuten. Euskal aldizkariak ezker abertzalera jotzen zuten heinean, hain beharrezkotzat jotzen zuten militantismoa nagusitzen zen heinean, irakurleak galduz zihoazen. Ikusten zuten irtenbide bakarria dirulaguntzena zen. 1983an, desagertzeko momentuan, hiru aukera omen zeuden: jarraitzea ahal zen punturaino, Gipuzkoako Diputazioaren laguntza bat eskuratu eta *Egin* egunkariaren *Egunon*

gehigarria indartu edo, azkenik, *Argiarekin* bat egitea. Azken hau izan zen irtenbidea.

1.2.3. Aldizkari elebidunak: *Punto y Hora*, *Garaia*, *Ere*, *Euzkadi*

Garai hartan bi eredu zeuden euskal prentsan: euskara hutsezkoa (lehen ikusitako aldizkariak), krisialdi nabarian zeudenak eta aldaketa handiak egiteko beharrean, eta prentsa elebiduna, hau da, batez ere erdaraz idatzitakoa (%90). Azken honek Espainiako *newsmagazineen* eredia jarraitu zuen, batez ere orduan hain hedatua eta arrakastatsua zen *Cambio 16*ena. Espainiako *newsmagazineen* arrakasta hiru urte lehenagokoa zen, eta Euskal Herrian 1976an gertatu zen hiru aldizkarirekin: *Punto y Hora*, *Garaia* eta *Ere*. Guztiak profesionalak ziren, kazetari berriek osatuak, ezkerrekoak eta modernoak. Askok eztabaidatu zen garai hartan zein izan behar zen aldizkari elebidun hauen euskarazko portzentaia, agian %30, hori zen zenbaki hedatuena pentsalari euskaldunen artean. Euskarari ez zioten uko egiten, baina bazekiten euskara hutsez erabiliz gero irakurle goa murriztuko zela. Euskara hutsezko aldizkariaren artean erabaki hark ez zuen oso harrera onik izan, publizitatea eta irakurle zein kazetari euskaldunak lapurtuko zizkietelakoan baitzeuden. Euskal Herriko albisteak eskaini nahi zituzten, baina, antza denez, merkatua ez zegoen horretarako prest, edo Madrilgo aldizkariak hartuta zuten irakurle goa.

Lehenengoa, eta gehien iraun zuena, *Punto y Hora* izan zen. Ezker abertzalearen bozeramalea, gero Herri Batasunetik oso hurbila, Iruñean sortu zen urte hartako apirilean, Mirentxu Purroyren zuzendaritzapean. Hasieran hamabostekaria, laster astekari bihurtu zen.

Uztailean *Garaia* sortu zen Donostian, Eugenio Ibaizabal kazetariaren eskutik, ESBtik gertua zen eta oso bizitza laburra izan zuen, 1977ko apirilean behin betiko desagertu baitzen.

Hirugarrena *Berriak* izan zen. Sozialista, PSEtik hurbila, bederatzi hilabetetan hil zen.

Euzko Alderdi Jeltzaleak ere astekari bat argitaratu zuen urte pare bat beranduago, 1979an. *Euzkadi* zuen izenburua. Informazio politikoa, batez ere erdaraz, euskarazko pasarte batzuekin, zuen hizpide.

1.3. Egunkari abertzaleen sorrera eta Euskal Herriko informazio-sistemaren eraldaketa

1.3.1. Deia eta Egin sortu dira

Talde abertzaleek egunkari bana argitaratu nahi zuten. Euzko Alderdi Jeltzaleak bazuen egitasmo bat, ezker abertzaleak beste bat. Aldi berean

plazaratu ziren asmo biak. Beste proiektua lehendik bazetorren ere (*Egin* argitaratzen duen Orain enpresa 1976an eratu zen), EAJtik gertua zen *Deia* aurreratu zen.

Iparragirre argitaldaria 1977ko martxoan sortu zen, eta egunkaria urte hartako ekainean irten zen. *Egin* urte hartako irailean kaleratu zen lehen aldiz. Alderdi askotan oso berritatzaila izan zen *Deia*: *El País*en eredia jarraituz, diseinu eta taxuera aldetik tabloidea zen. *Offsetez* inprimatzen zen, kolorezko lehena izan zen Euskal Herrian, edizio batzuk izan zituen, profesional gazte eta unibertsitatekoak zituen. Konpetentzia Estatuko egunkariak ziren (Bilboko *Hierro* eta *Unidad*, Donostiako *La Voz de España*) edo kontserbadoreak (*La Gaceta del Norte*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *El Diario Vasco*, *Norte Express*). Laster desagertu ziren Estatuko guztiak eta *La Gaceta* eta *Norte Express*, eta indartu ziren *El Correo* eta *El Diario Vasco*, gaur egun ere erabat hegemonikoak Euskal Herrian.

Gauzak horrela, bai *Deia* bai *Egin* egunkariek garai berrietara askoz egokiagoak baziruditen ere, laster alderdikierengatik beren ale-kopuruak eta irakurleagoak gelditu ziren. Merkatu-kuota bat badute, baina esan daiteke bien irakurle eta erosleak nahiko militanteak direla. Pentsamolde ezberdina badute ere, beren bizitza nahiko paraleloa izan da: biek inposatu zuten Euskal Herriko informazio-merkatuaren kontzepzioa (herria "egin" nahi zuten). Tokian tokiko edizioak egin beharrean (*El Correo*ren edo *El Diario Vasco*ren kasuetan ez bezala) *Deiak* eta *Eginek* herrialdeko edizioak egin zituzten. Euskarari halako garrantzia eman zioten, hasiera espero zena baino gutxiago, hala ere.

Beste gauza batzuetan ere bizitza paraleloa izan dute. *Deiaren* lehen zuzendaria zen Iñaki Iriartek kargua utzi behar izan zuen lehen urtebetetzera iritsi baino lehenago. Langile batzuk ere joan egin ziren. Gero nazionalista moderatuen banaketa zela-eta, irakurleak galdu zituen. EAJk bere pentsamoldea ezarri zuen, eta gaur egun jende guztiak hasieratik euskal gobernuan dagoen alderdi nagusiaren bozeramaletzat hartzen du. Azken urteetan, batez ere 90eko hamarkadan, edizioak itxi dira, irakurle kopurua nabarmenki jaitsi da, langileen egoera okertu da. 50.000 bat ale saltzen omen zituen 1998an.

Berdintsu *Egin*. Hasieran ezker abertzale osoa biltzen bazuen ere, gero hala deituriko Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimenduaren bozeramale bihurtu da. Lehen zuzendaria oso gutxi iraun zuen. Mariano Ferrerek egunkariaren zuzendaritza utzi zuen ETArek atentatu bat kondenatzeagatik. Gero eta erradikalago bihurtu zen *Egin*, eta jende askok Herri Batasunaren bozeramaletzat zuen. 1998ko uztailan, hain zuzen ere, Entzutegi Nazionaleko Baltasar Garzón epaileak itxi egin zuen, ETArekiko lotura leporatuz.

Hizkuntzari dagokionez, *Egin* eta *Deia* batez ere erdarazkoak izan dira. Egia da euskarazko informazioari eta iritziari eguneroko jarraipena eman diotela, baina gehiena -eta inportanteena- erdaraz eskaini da. *Eginek* gehiago zekarren euskaraz *Deiak* baino: 1984ean, adibidez, %12,8 zen eguneroko euskararen presentziaren batz bestekoa. Jaitzi zen azken urteetan (%10 1994an). Tarte berean *Deia* %4,3tik %2,4ra pasatu zen. Arrazoiak *Eginen* zuzendari batek azaltzen zituen: "La verdad es que hay muy pocos que leen y escriben en euskera. Y damos en euskera por un sentido patriótico" (Coca eta Diezhandino, 1997: 164). Gaien arabera, gizartea eta kultura sailetan eskaini dira euskarazko albiste gehienak.

1.3.2. Euskara beste erdal egunkarietan

Demokrazian erdal egunkarietan euskaraz zer edo zer argitaratzeko joera pixka bat areagotu zen.

Hala ere, gauzak normaltzeko bazegoen arazo bat: kazetari euskaldunen falta. 1976an Euskal Herriko egunkarietan lan egiten zuten kazetarien artean (180 bat) zazpik baino ez zekiten euskaraz, hau da, %3,9 (Aranburu, 1977: 68).

Deia eta *Egin* 1977tik agertu zirenetik gainontzeko egunkarietan euskaraz zerbait ateratzeko ahaleginik egin zen. Gehigarriak ateratzen ari ziren: *El Correoren El Correo Escolarrean*, adibidez, iritzi artikulua bat agertzen zen (Pello Salaburuk sinatua, gehienetan), 80eko hamarkadaren azken urteetan. 1990eko hamarkadan astero testu bat edo beste, inolako jarraipenik gabe, eskaini zuten, besterik ez. Lurralde euskaldunena den Gipuzkoan *El Diario Vasco* astero, Felix Ibargutxi arduraduna zela, *Zabalik* gehigarria atera zuen 80eko hamarkadan, gero eguneroko testu testimonialen bat besterik ez. Dena den, proportzioa oso eskasa izan da: 1984tik 1994ra *El Correok* (ez eguneroko) %0,1-0,2 eskaini izan du euskaraz. *El Diario Vasco*, Gipuzkoan erabat hegemonikoa, %1,6tik %1,7ra pasatu zen (Coca eta Diezhandino, 1997: 163). 1996an Gasteizen sorturiko *El Periódico de Álava*, *Arabako Egunkaria* azpizburua bazeraman ere, erdarazkoa zen, noizbehinka euskal testuren bat argitaratu bazuen ere, gehienetan Iratxe Artarazek idatzita. Nafarroako *Diario de Noticias*ek asteroko gehigarria dauka, lehen *Navarra Hoy* egiten zuen bezalaxe.

1.3.3. Zabalik astekaria

Behin euskara hutsezko egunkaria aterata, Correo taldearen arduradunek hainbat saio egin dute euskarazko komunikabide inprimatu bat sortzeko. Aipatutako gehigarrien ondoren, 1999an erabaki zuten egunkari itxurako astekari bat ateratzea, *Zabalik* izenekoa. Nerea Azurmendi izendatu zuten edizioaren arduradun. 2003. urtean, aldiz, magazin itxura eman zioten. Batez ere erreportajeak landu ditu, hizkera zaindu eta diseinu garbiaz.

2. EITBREN SORRERA ETA GARAPENA

2.1. Eusko Jaurlaritzaren jarrera

2.1.1. *Ikus-entzunezko komunikabideak: Estatutua eta EITBren legea*

EITBren beharra planteatu zen arte, euskarak leku eskasa izan zuen telebistan, bai Frantziako telebista ofizialean, bai Espainiako telebistan. 70eko hamarkadan sortu ziren Espainiako TVEren gune erregionalak, egunero deskonexio laburra eta ekoizpen propioa egiten zutena. 1975ean Bilbon kokatu zen Euskal Herriko gunea, eta Telenorte albistegiaren barruan, astero, euskarazko saio bat egin zen bi urtez, 1977 arte: *Euskalerrria* zuen izena eta arduraduna Jose Mari Iriondo zen. Noizbehinka, ahal zuten heinean -baldintza profesional ez omen ziren onenak izan- lanen bat egin zuten Manu Oñatibiak, Joan Mari Iraolagoitiak, Xabier Kintanak, Jose Mari Etxebestek, Jose Mari Oterminek eta Anjel Unzuetak. Saio hori desagertu zenetik, euskararen presentzia oso urria izan da TVEn, minutu batzuk baino ez titularrak irakurtzeko erdarazko albistegietan.



Eduardo Uriarte, TVEn euskaraz egiten

Hurrengo urtean, 1978an alegia, Euskal Zinegileen Elkarteak euskal telebista autonomo bat proposatu zuen. Telebista elebidun bat zen. Lehenago ba omen zegoen beste egitasmo bat, 1974an Gipuzkoako Foru Aldundiak TVEri luzatu ziona Hondarribian zentro igorlea jartzeko, eta horrek etekinik eman ez zuenez, 1977an lantalde bat osatu zen (han zeuden Manu Oñatibia, Joseba Intxausti, Jose Mari Etxebeste, Jose Mari Iriondo, Juan Jose Azurza besteak beste) euskarazko telebista sortzeko, ETV deiturikoa. Gero erbesteko Euzkadi Irratian aritu zuen eta Eusko Kontseilu Nagusian (1979-1980) eta Eusko Jaurlaritzan (1980-1982) giza-komunikabideen zuzendaria izan zen Juan Jose Azurzak proposatutako plangintza etorri zen (Torrealдай, 1985: 16-20).

1979an Eusko Kontseilu Nagusiak idazkaritza bat eratu zuen euskal telebistaren arazoa aztertzeko. Estatutua abian zegoen, eta bertan bazegoen telebistari buruzko aipamenik, batez ere 19. artikuluan. Gainontzeko autonomietan gertatu ez bezala, hemen bertako telebista ez zen Estatuaren hirugarren kanala, baizik eta kanal propioa. Kultura sailburua zen Ramón Labaienek eta RTVEko orduko zuzendari orokorra zen Arias Salgadok akordio bat sinatu zuen 1980ko urriaren 3an telebista-sarea Euskal Herrian zabaltzeko eta Telenortek ematen zuen programazioan eguneroko euskarazko albistegi bat emititzeko. 1982an Eusko Jaurlaritzaren egitasmoak

irratia eta telebista funtsezko helburutzat hartu zituen, batez ere euskara zabaltzeko. Urte hartan ikastaro batzuk antolatu ziren teknikoak prestatzeko.

Urte hartako apirilaren 20an lege-egitasmoa argitaratu zen. Euskara hedatzea eta bultzatzea da zerbitzu publiko honen helburu nagusietako bat. Carlos Garaikoetxea lehendakariak 5/1982 Legea sinatu zuen Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortuz, eta uztailean 157/1982 dekretuak Euskal Telebista sozietatea eratu zuen.

2.1.2. Prentsa idatzi ofiziala: Dema, HABEren aldizkariak, aldizkari ofizialak, dirulaguntzak

Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen aldizkari bat sortzea: *Dema*. Hor atzean orduko Kultura sailburua zen Ramon Labaien zegoen. Gobernuaren xedea bi bertsio egitea zen, bata elebiduna (260.000 bat ale) eta bestea euskara hutsezkoa (20.000 bat ale), eta halaxe egin zen 1981eko azken hileetan, Gorka Reizabalen zuzendaritzapean. Oso gutxi iraun zuen.

1981ean ere beste aldizkari batzuk abian jarri zituen Jaurlaritzak. Helduak euskalduntzeko sortua zen HABEren ardurapean hiru aldizkari jarri ziren: *Habe* izan zen lehena, gero *Habeko Mik* (komiki bat) eta *Zutabe* (hizkuntzari buruzko aldizkari bat) etorri ziren. Beranduxeago Unescoren aldizkaria euskaratzeko (gehi zenbat testu original ateratzeko) eskubidea lortu zuen gobernuak, eta *Unescoren Albistaria* sortu zen.

Argi dago ordea Eusko Jaurlaritzaren erabakia ikus-entzunezko komunikabide ofizialen aldekoa izan zela. Hasiera batean idatzizko komunikabideren baten komenigarritasuna aintzat hartu bazen ere, laster irratia eta telebistaren alde jarri ziren. Noizbehinka euskal aldizkari edo egunkari baten garrantzia aipatu da, eta egitasmoak egin badira ere, euskara bultzatzeko aro modernoan irratia eta telebista beharrezkoa zela ikusi zuten. Eredua Espainiako ofiziala izan zen, eta, agian arrazoi berdinarengatik, albo batera utzi zuten une hartan euskarazko prentsa ofizialaren erronka, ikusirik Estatuaren komunikabide ofizialekin gertatutakoa, frankismotik zetozen egunkari ofizial guztiak bertan behera utziak edo salduak izan baitziren.

1983ko bi proposamendi ezetz esan zien Eusko Jaurlaritzak, *Egin* egunkaria ateratzen zuen Orain enpresaren eta *Deia* argitaratzen zuen Iparragirre enpresaren egitasmoei alegia. Biek eskatu zuten euskara hutsezko egunkari bana ateratzeko dirulaguntza. Hala ere, urte batzuen buruan, egi-

tasmo hura berriro agertu zen. Berdin egin zuten *Argiaren* 1983ko proposamenarekin, non, euskal merkatua urria izanik, dirulaguntzak eskatzen baitziren: "Merkatuaren legeen arauera laguntzarik gabe utzirik *Argiak* bezala beste edozein kazetak errentagarritasun posiblerik ez dutela" zioen txosten hark. Urte luzeetan izan da euskal aldizkari eta komunikabide askoren borroka berdina. 1987an, adibidez, *Aizu!*, *Argia*, *Elhuyar*, *Ipurbeltz*, *Karmel*, *Larrun*, *Susa*, *Idatz & Mintz*, *Jakin* eta *Literatur Gazeta* aldizkariak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen banaketarekin desadostasuna erakutsi zuten, eta agiri bat sinatu zuten lehentasuna ikus-entzunezko hedabideei ematen zitzaizela esanez, nahiz eta irakurleko potentziala 700.000 lagunekoa izan, haien arabera.

Informazio-agentzia bat ere izan zen asmoa, euskal hedabideek euskarazko informazioa behar baitzuten, eta agentzietatik zetozen albiste guztiak erdarazkoak ziren. Hura ere ez zen gauzatu, hala ere 1985ean, Euskadiko Ezkerrak Gasteizko parlamentuan hala eskatuta, diru kopuru altua erreserbatu zen agentzia batek euskarazko albisteak produzitu zitzaizkion. Dirua Vasco Press-i eman zioten, hasiera batean Efe laguntza eskuratzeko hautagaia bazen ere. Itzulpenak izaten ziren euskarazko berri haiek, eta 1992 arte iraun zuen laguntzak.

2.2. EITBren sorrera

2.2.1. Euskadi Irratia

Erbestean Gerra garaiko irrati emandegiei jarraipena eman zien Eusko Jaurlaritzak. Itzultzean Euskadi Irratia berriro abian jarri zuen.

Balizko entzule euskaldunak askoz gehiago ziren balizko euskal egunkari baten irakurleak baino, irakurtzen zekitenak gehi ulertzen zutenak izan baitzitezkeen irrati entzuleak. 1984ko CIESen ikerketa baten arabera (Zufia, 1984), Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan 696.100 euskaldun zeuden (hau da, euskara ulertzen zuten lagunen multzoa hori zen). Horietatik 435.100 lagunek egunero irratia entzuten zuten.

Bestalde, Espainiako 4/1980 legearen arabera, RTVE erakundea sortzeaz gain, zilegi zen autonomi erkidegoetan irrati instituzionalak eratzea. Katalunian, Madrilan, Galizian eta Euskal Herrian halaxe egin zen.

Horregatik, eta aurreko zenbait esperientziaren arrakasta erlatiboa kontuan harturik, Eusko Jaurlaritza 1982an hasi zen irrati saioak emititzen. Euskarazkoak izan ziren lehenengoak, Euskadi Irratikoak. Emisorea Donostian dago eta euskara hutsez aieratzen du bere programazioa, frekuentzia modulatu. Euskal Herri osoan entzuten da (baita Iparrean eta Nafarroan ere), eta denetariko saioak eskaintzen ditu: albistegiak, magazinak, kirolak, musikalak... Urtebete lehenago, Bilbon hasi

zen erdarazko emisorea, Radio Euskadi. Geroago Euskadi Gaztea sortu da, irrati-formula (musika gazte arrakastatsua), euskaraz eta erdaraz. Badago beste emisorea publiko bat, EITBren barruan dagoena: Radio Vitoria-Gasteiz Irratia, Eusko Jaurlaritzak 1981eko abenduan erosi zuena. Programazio gehiena erdaraz eskaintzen bada ere, badago zer edo zer euskaraz, adibidez urte asko iraun azen *Maritxu Berritsu* umeentzako saioa, Jeni Prietok zuzendutakoa.

Euskaldunen %9,4k entzuten zuen Euskadi Irratiko programazioa 1984an.

Denbora laburrean, Radiocadena Española eta Radio Nacional de España (RNE) batu ondoren, Radio 4 (Espainiako irratiaren kate autonomikoak) abian jarri zen 1989tik 1991 arte. Bertan irratsaioren bat euskaraz egiten zen, hala nola Argi Dorronsorrok gidatzen zituenak edo Radio Exterior de Españarako egiten ziren erreportaje batzuk. Radio 4 desagertuta, euskararen presentzia oso testigantzakoa da gaur egun Euskal Herriko RNEn.

2.2.2. Euskal Telebista

1983an hasi ziren lehen emisioak, ehun bat langileren eskutik. Luis Iriondok jaso zuen zuzendaritza. Legean argi eta garbi esaten ez bada ere, euskara hutsezko telebista bat eratu zen hasieran. Urte hori esperimentaltzat hartu zen, eta gauzak azkar egin ziren, irregularki, presaka (Ibáñez, 1995: 348). Hasieran bi ordu eta erdi egunero: marrazki bizidunak, dokumentalak, luzemetraiak eta albistegiak. Abendurako kirolak - emanaldiak barne -, hauteskundeen berri eta elizkizunak eskaintzen ziren (40 ordu astero). Gaur egun ikus daitekeen albistegia eratu zen: *Teleberri*. Durangon ezarri zen egoitza, eta Alemaniako Studio Hamburg Media Consult International delakoaren laguntza tekniko-profesionala izan zuen. 1984an proiektua gihartuz joan zen. Berezko ekoizpena handitzeko beharra ikusten zen. Langileria ere handitu behar zen, eta urte hartan 220 pertsona zeuden ETBn lanean. Orduan ere, zenbait irakasle euskaldunen kemenez, kazetaritza ikasketak euskaraz eskaintzen hasi ziren Leioako Fakultatean, eta euskaraz trebatutako lehen kazetariak lizentziatzen hasi ziren. ETBko balizko ikusleak 509.500 lagun ziren (Zufia, 1984).

Lan gorabehera batzuekin, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen barruko arazoak tartean (1985ean Carlos Garaikoetxearen ordez José Antonio Ardanzak izendatu zuen EAJk lehendakari berria), ETBn ere aldaketak gertatu ziren. Zuzendaria zen Andoni Areizagaren ordez José María Gorordo izendatu zuten. Haren ustez, elebitasuna errespetatu behar zen, baina euskara hutsezko kanala ere mantendu behar zen. Orduan, erdara hutsezko beste kate bat sortzea proposatu zuen. Bat-batean egin zen hori 1986ko maiatzaren 31n. Egun bat lehenago Gorordok eman zien berria EITBren Administrazio-

Kontseiluko kideei. Erabaki hori asko kritikatu zuten beste alderdi politikoei eta euskaltzale askok.

Gorordoren ondoren Josu Ortuondo izan zen ETBren zuzendaria. Adituen ustez, garai hori (1987-1991) normaltzearena da. Apustua, argi eta garbi, batez ere erdarazko katean, komertzialitatearen aldekoa izan da, gainontzeko telebista ofizialetan bezalaxe, batez ere kate ofizialek monopolioa galdu eta enpresa pribatuak (Tele5, Antena 3 eta Canal+) 1990ean emititzen hasi zirenean.

1991tik aurrera Iñaki Zarraok ETB zuzendu zuen. Bere zuzendaritzapean ereduaz ezarri zen: bi kate, bat euskara hutsezkoa, bestea erdaraz hutsezkoa, komertzialitatea (eta zerbitzu publikoaren kontzeptuarekiko gatazka), gero eta produkzio propio gehiago (hor dago *Goenkale* programaren arrakasta), audientziaren egonkortzea, nahiz eta telebista pribatuak sortu (batez ere ETB-1, euskarazko katea, konpetentziarik ez duelako, tokian tokiko telebistena izan ezik), eta aurrekontu publikoekiko menpekotasuna: EITBk Kultur Sailaren aurrekontuaren zatirik handiena eskuratzen du, eta horrek ere kritika latzak sortu ditu.

Hala eta guztiz ere, egia da Euskal Herri osorako euskara hutsezko telebista zein irrati bakarrak ETB eta Euskadi Irratia direla, eta ekimen pribatuak, gaur egun behintzat, ezin digula euskaldunoi zerbitzu hori eskaini. Gero eta gehiago dira tokian tokiko irratiak eta telebistak, elebidunak edo euskara hutsezkoak, baina oraingoz euskaldunon lurralde guztietara ailegatu den bakarra EITB da.

3. EUSKARA HUTSEZKO EGUNKARIA

3.1. Lehen egitasmoak

3.1.1. *Aritz taldearen egitasmoa: Erria*

1976ko maiatzean ezagutzera eman zen euskara hutsezko egunkarirako egitasmo bat, Aritz enpresarena. Enpresa hura *Goiz Argitik* hurbil zegoen, eta *Erria* izango zen egunkari horren izena. Santiago Aizarna agertzen zen zuzendari moduan. Hala ere, gehien sartuta zeudenak beste batzuk ziren: Manu Oñatibia eta Joxe Murua, adibidez, haiek agertzen baitziren Aritz enpresaren buru eta buruorde gisa. Gero Euskerazaintza sortu behar zuten batzuk. Artean Euskerazaleak taldean zeuden haiek, Joxe Luis Iriarte eta Jon Murua, bildu ziren egitasmoaz hitz egiteko. Bizkaiko Agustin Zubikarai eta Iñaki Zubirik ere parte hartu omen zuten elkarrizketa haietan. Denak euskara batuaren aurkakoak ziren. Ohar bat kaleratu zuten *Argian*, "*Erria* egunerokoa gure izkuntzan" izenekoa. Bertan egunkariak hamasei orrialde izango zituela zioten. Asmoa zen zenbait euskaltzale dirudunen laguntza

eskuratzea, baina laster konturatu ziren asmoa ezinezkoa zela, eta 1976ko udazkenean bertan behera gelditu zen.

3.1.2. La Voz de Euskadiren Orria

Bitartean, egunkari sortu berri batzuek bazuten euskal egunkaria gogoan, eta "egunkaria egunkariaren barruan" deituriko eredu erabiltzen hasi ziren, hau da, euskara hutsezko gehigarriak argitaratzeari ekin zioten. Baliagarriak baziren ere, egia esan batek ere ez du irautea lortu eta euskal egunkari bihurtu. Lehenetariko bat Donostiako *La Voz de Euskadi* egunkariaren *Orria* izan zen. Antza denez, asmoa hamasei orriko egunkaria ateratzea zen. Sei kidek lan egin zuten bederatzi hilabetetan, haien artean Felipe Juaristi, Koldo Etxabe eta Imanol Aranburu zeudela. Geroago ere, *Eginek*, *Navarra Hoy* eta *Diario de Noticias* nafarrek, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* bilbotarrak, *El Diario Vasco* eta *Deiak* erabili dute formula hori 80ko eta 90eko hamarkadetan.

3.1.3. Mikel Atxagaren proposamenak

Hainbeste urtetan euskal komunikabidetan aritua zen Mikel Atxaga kazetaria. 1982an *Deian* zegoen, eta bere orrialdeetatik euskal egunkari baten aldeko deia egin zuen. EITB sortua zen ordurako, eta argi zegoen beraz erakunde ofizialen apustua euskal irrati-telebistaren aldekoa zela. Euskara hutsezko prentsa gehigarri gisa ikusten zuen Atxagak, eta sakabanatuta zeuden ahaleginak batzea proposatu zuen, *Deian* bertan, *Eginek*, *La Voz de Euskadi* eta *Diario Vascon* argitaratzen ziren euskal orriak euskara hutsezko egunkari bakarra bihurtzea, 28 orrialdekoa, Gipuzkoako Diputazioak dirudienez 105 bat milioi emateko prest baitzegoen, Euskara Komisioak hala gomendatuta. Ez zen burutu asmo hura, Atxagak berak urte pare baten buruan aitortu zuenez, eszeptizismoz hartua izan baitzen proposamena.

3.1.4. Orainen egitasmoa

1983an *Egin* egunkariaren atzean zegoen Orain enpresak euskara hutsezko egunkari baten egitasmoa aurkeztu zion Gipuzkoako Diputazioari. Zehazki, ordura arte egiten ari ziren *Egunon* gehigarria handitzea zuten helburu, lau orrialdeetatik zortzi orrialdetara pasatuz, 1985ean hamabi orrialdeko egunkari bihurtzeko asmoz, argudiatzen baitzuten haiek egindako inkesta baten arabera irakurleek euskal egunkari bat nahi zutela, eta bazeudela egunero hura jasoko zuten sei edo zazpi mila bat erosle euskaldun. Asmo horretarako Foru Aldundia 3.750.000 pezetako diru laguntza emateko

prest omen zegoen. Eusko Jaurlaritzan ere aurkeztu zuten proiektua, alferrik. Dirudienez, Iparragirrek ere beste proiektu bat aurkeztu zuen, 24 orrialdeko egunkari bat ateratzeko. Eusko Jaurlaritzaren ezetza jaso zuten. Biek 10.000 ale kaleratu nahi omen zuten.

3.2. Euskal egunkaria prestatzeko astekari esperimentalak (1986-1990)

3.2.1. Hemen

1986an Eusko Jaurlaritzak urte batzuk lehenago proposatutako egitasmoak berriro hartu zituen kontuan, zenbait aldaketa sartu bazuen ere. Orain eta Iparragirre enpresek, aurreko atalean ikusi dugun bezala, euskara hutsezko egunkari bana ateratzea proposatu zuten. Jaurlaritzak eskatutako dirulaguntza emateari ezetz esan zion. Hala ere, kalean eta euskal informazioaren munduan euskal egunkariaren beharra sentitzen zen. Orduan Gobernuak urrats batzuk eman zituen: bata, euskal merkatuari buruzko ikerketa bat egitea, eta bestea, euskal egunkari bat, edo batzuk, kaleratzeko esperimentuak bultzatzeko dirulaguntzak ematea.

Asmoa ez zen euskara hutsezko egunkariak ateratzea, baizik eta astero egunkari itxura eduki behar zuen aldizkari bat ateratzea, gutxienez 32 orrialdekoa, goizean - Euskal Herriko egunkari guztiak goizekoak ziren - eta Euskal Herriko lurralde guztietara banatzeko. Enpresa sendoei zuzendua zen eskaintza. Sei erredaktore, behintzat, kontratatuta egon behar ziren, Kazetaritzan lizentziatuak edo beste egunkari bateko bost urteko esperientzia eduki behar zuten. Gaurkotasun-astekariak izan behar ziren, gutxienez albisteen %75 aste hartakoa izan behar ziren, eta 10.000 ale edo gehiago atera behar zituzten. Lehiaketara hiru enpresa aurkeztu ziren: Orain, Iparragirre eta Zeruko Argia, *Argia* astekariarena. Azken honek ezetza jaso zuen, baina lehenengo biei baietz esan zien Jaurlaritzak.

Orain enpresaren produktua *Hemen* izan zen. Joxean Agirre izan zen zuzendari edo koordinatzailea. 1986ko irailaren 26koa dugu lehen zenbakia. Agirrerekin batera, Jabotxa Fernandez, Eguzki Arrizabalaga, Andres Gostin, Xabier García Argüello, Joseba Álvarez Forcada eta Sergio Basurko. Ostiralero agertu zen 1990ko irailaren 28 arte. 3.500 bat ale argitaratzen zuen 1989an.

3.2.2. Eguna

Hemen baino hilabete beranduago plazaratu zen *Eguna*, 1986ko urriaren 5ean. Gerra Zibilean agerturiko egunkariaren izena eta zenbaketa jarraitzen zuen, ordura arte egon zen euskara hutsezko egunkari bakarraren tradizioari eutsiz. Koordinatzailea Luis Alberto Aranberri *Amatiño* izan zen.

Horrekin batera, kazetari ezagunak, gehienak *Deiatik* hartuak: Mikel Atxaga, lehenago ere *Argian* ibilitakoa, Nerea Azurmendi, Txemi Galarraga, Imanol Unzurrunzaga eta Gerrako *Egunaz* arduratu zen Agustin Zubikarainen semea, bera ere kazetari profesionala, Antton Zubikarai. *Eguna* ostegunetan agertu zen lau urtez, 1990eko irailaren 27 arte. 2.500 bat ale saltzen omen zuen 1989an.

3.3. Euskal egunkarirako bi egitasmu

3.3.1. CIESen ikerketa

Azaldutako "astegunkarien" esperimenduarekin batera, Eusko Jaurlaritzak 1988an enpresa bati euskal merkatuaren ezaugarriak eta aukerak aztertzeke agindua eman zion. Iruñeko CIES arduratu zen ikerketaz. Horren arabera, ez zegoen lekurik euskara hutsezko egunkari bat baino gehiago kaleratzeko. Irakurle euskalduna gaztea zen, kultur maila altukoa, unibertsitarioa, irakurtzen ohitua, politikazalea eta ezkertiarra, abertzalea eta independentziaren aldekoa.

Euskal Herrian irakurtzeko ohiturak oso altuak ziren - eta dira -, euskaraz ere bai: 1984ko CIESen ikerketaren arabera, hamabost urtetik gorako 324.000 euskaldunek irakurtzen zuten euskaraz. Horietatik 200.000 batek egunkaria irakurtzen zuten egunero. Hori izan zitekeen euskal egunkari baten irakurleko potentziala. Euskal egunkari baten faltan, gehien irakurtzen zutena *El Diario Vasco* zen (%27,1), gero *Egin* (%17,4) eta *Deia* (%16,2). Euskara hutsezko egunkari baten balizko irakurleak 88.000 bat izan zitezkeen. Kontuan harturik hirutatik bat erosten zuela egunkaria, erosleen balizko kopurua 21.000-26.000 zen.

Jaurlaritzak ez zuen azterketaren berri eman. Hala ere, *Argia* astekarian haren ondorioak ezagutarazi ziren. Tirabirak hasi ziren orduan, eta bi proiektu abian jarri ziren ia aldi berean: Egunkari Sortzen izenekoa, pribatua, eta ofiziala, José Ramón Belokiren koordinaziopean.

3.3.2. Egunkaria Sortzen

1990ean bertan Egunkaria Sortzen taldea osatu zen. Hirurogei pertsona zeuden, horien artean hor zeuden Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei, Nerea Azurmendi, Josu Landa, Txema Auzmendi, Carlos Santamaria, Karmele Aierbe, Iñaki Zabaleta, Koldo Izagirre, Hasier Etxeberria, Luzien Etxezaharreta, Jon Basterra eta Joxemi Zumalabe. 1989ko azaroko Euskal Prentsaren Egunean ondu zen ideia, eta hurrengo Durangoko Azokan, 1990eko urtarrilean alegia, bilera zabal bat egin zen. Kazetaritzari buruzko alderdiak, hizkuntzari buruzko alderdiak ez ezik enpresa egitura eta ekonomi

arazoak ere aztertu ziren. Azken alderdi hau ikertu zuten Joseba Jakak, Urtsa Errastik, Joxemiel Zumalabek, Fermin Lazkanok, Luis Goiak eta Fernando Unsainek. Hasierako tirada 15.000 alekoa izango zen, gero 8.000tan finkatzeko, beraz 40.000 bat irakurle izango zituen egunkari berriak. 150 milioiko hasierako kapitala behar zen, beste horrenbesteko galera sufritu behar baitzuten urtero. Argi eta garbi ikusi zuten dirulaguntza ofiziala behar zutela.

Egitasmo bat osatu zuten. Talde Bateragile batek lan guztiak koordinatu behar zituen, eta gero Kazetal [sic] Taldea eta Batzorde Ekonomikoa osatu ziren. Proiektuaren arabera, egunkaria euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala, erakunde politikoetatik askea, erdarazko beste komunikabideetatik ere askea, ez instituzionala, dirulaguntza behar zuena, militantea, profesionala eta berria. Bazekiten euskarazko merkaturia murrizta zela, eta gainera erdarazko merkatuaren aurka aritu beharko zirela. Bere irakurlea definitzen zuten honako modu honetan: kultura maila altukoa, abertzalea, ideologia anitzekoa. Alderdi teknikoak ere finkatzen ziren: 40 bat orrialde, tabloidea, sei zutabetan diagramatua. Estilo liburu bat egin behar zela ere argi eta garbi zuten, Euskaltzaindiak emandako arau guztiak errespetatu behar zirela, informazioaren eta iritziaren arteko proportzioa, testuaren eta grafikoen arteko proportzioa ere gorde behar zela. Atalak erabaki ziren proiektuan. Langileria ere finkatu zen: 31 kazetari eta bi argazkilari, gehi laguntzaileak. Hizkuntza jarraitzeko talde bat planteatu zen. Egoitza zentrala Gipuzkoan, eta gero Bizkaian, Nafarroan, Araban eta Iparraldean (Baionan) delegazio bana. Edizio bakoitza hasieran. Formula juridikoa, bestalde, talde eragilea osatzen zuen sozietate mugatua sozietate anonimo bihurtzea zen aukera.

3.3.3. *Proposamen ofizialaren porrota*

Hasieran Iñaki Zarrakoak esan bazuen ere balizko euskal egunkaria pribatua izan behar zela, talde pribatu baten ekimena ikusirik Eusko Jaurlaritza proiektu ofizial bat prestatzen hasi zen, gero Gasteizko legebiltzarrean aurkezteko. 1990eko apirilaren 4an Kultura sailburua zen Joseba Arregik asmoa aldarrikatu zuen, eta urte hartako uztailearen 12an lehen proiektua aurkeztu zuen Jose Ramon Belokiren koordinaziopean bildutako taldeak. Bertan zeuden Antton Aranburu (Euskadi Irratia), Jon Basterra (*Egin*), Elixabete Garmendia (ETB), Felix Ibargutxi (*Diario Vasco*), Ignacio Irizar (*El Correo*) eta Imanol Unzurrunzaga (EITBn eta *Egunan* ari-tua). *Argi*ko Pello Zubiriak (gero *Euskaldunon Egunkariaren* lehen zuzendaria izango zena) dimisioa aurkeztu zuen lehen bileren ondoren eta ez zuen txostena izenpetu. Hamabostean behin bildu ziren hiru hilabetez, eta zenbait

tentsio eta desadostasun gertatu ziren. Felix Ibargutxik, adibidez, ez zuen azken bileretan parte hartu, nahiz eta txostena izenpetu.

Egunkaria Sortzen taldearen egitasmoan bezalaxe, hipotesia egunkari bakarra zen. 35.000-40.000 bat irakurle izan zitezkeela zioten. Zenbat erosle, auskalo. Dena den, 8.000-15.000 ale inprimatu behar zirela zioten. Egoitza zentrala Donostian kokatuko lukete, eta makineria propioa edukitzeko beharra ere ikusten zuten. Delegazioak Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Baionan ez ezik, Madrilen eta Bruselan ere berriemaileak.

Guztiona izan behar zela azpimarratzen zuten euskaraz gai zen edozeinentzat, leku guztietara iritsi behar zela, euskara batuaz idatzia, berri hurbilak emango lituzkeena, tokian tokikoak, malgua, porrotarik gabea. Enpresa egiturari zegokionez, multimedia baten barruan, hau da, juridikoki erreformaturiko EITBn adibidez, "Euskaraen Multimedia" izeneko azpisail bat sortuz euskarazko komunikabideak biltzeko.

Taxuera zegokionez, ez zuten derrigorrez tabloide ikusten (inguruko gainontzeko egunkari guztiak bezala), baizik eta, "berezia" izango zenez gero, berezia ere tamainan. Argazki ugari, albiste laburrez batik bat osatua, kolorezkoa, eta hiru koadernotxotan banatua, bakoitzean guztira 12-16 orrialde hasieran. Lehen koadernotxoan Euskal Herriko albiste politikoak, ekonomikoak eta kulturalak, gehi Espainiako eta nazioarteko albisteak, iritziko testuak, kirolak, telebistari buruzko orrialdeak eta azkeneko orrialdea. Bigarren koadernotxoan, bitan banatua, eguneko gai bati buruzko erreportaje handi bat (3-4 orrialdekoa) eta gizatalde bati eskainitako orriak. Haurrek, batik bat, garrantzi berezia jaso behar zuten, bai eta kulturak ere. Azkenik, hirugarren koadernotxoan herriko edota bailarako albisteak - hobe hauek lurralde historikoko edo probintziako atalak baino -, beraz egunkari honek edizio batzuk (koadernotxo honi zegozkionak) izango zituen.

Astelehenean ez zen atera behar, eta agian igandeetan ere ez (hau da, gainontzeko egunkariak gehien saltzen ziren egunetan). Abuztuan ere oporrak zirela eta, kaleratu gabe egotea ez zuten alde batera uzten. Banatzeko, kioskoak eta harpidetzak. Gero, Egunkaria Sortzenen proiektua gauzatu ahala, beste aukera batzuk planteatu ziren, adibidez ikastoletako haurrentzat batez ere egindako produktua egitea, dohainik banatzea eta haien bitartez helduak irakurtzen zaletzea, "familiako egunkaria" izango zelakoan.

Prototipo bat aurkeztu zuten 1990eko abuztuan. *Egunero* zuen izena, kolorezko zortzi orrialde zituen eta lehen aipaturiko ezaugarriak aldarrikatzen zituen berriro.

3.4. Historiako bigarren euskara hutsezko egunkaria: *Euskaldunon Egunkariaren sorrera eta lehen urteak*

Ekonomi eta kazetari-taldeak aritu ziren 1990eko maiatzetik aurrera euskarazko egunkariaren oinarriak prestatzen. Dirua lortu behar zen, eta horretarako Euskal Herriko hiri zein herri guztietan kanpaina bat antolatu zuten. Bost mila pezetatik milioi erdiko pezetarako akzioak eskura zitezkeen. Laster 160 milioi pezeta lortu ziren. 1990eko abenduaren 6an, azkenik, aurreikuspen guztien aurka, kaleratu zen lehen aldiz *Euskaldunon Egunkaria*. Bazekiten tirabirak zeudela erakundeekin, batez ere Eusko Jaurlaritzarekin, eta dirulaguntzarik gabe gelditu behar zirela lehen garaietan behintzat. Hasiera-hasieratik beren mugak zeintzuk ziren bazekiten: ezin zuten inprimategi propioirik eduki eta horrek ixteko ordua aurreratu behar zuen; langileria murrizta eta soldata nahiko baxuak ezarri behar ziren; igandeetan lana egitea ezinezkoa zen arrazoi ekonomikoengatik eta astelehenetan egunkaria ez zen kaleratuko; eta, euskarazko egunkari bakarra izanik, enpresak ez zuen izango editorialik. Zuzendaria Pello Zubiria izan zen, eta Administrazio Kontseiluko presidentea Martin Ugalde.

Tirabirak zeuden artean. Eusko Jaurlaritzak ez zuen amore eman nahi, eta Legebiltzarrean bere proiektua aurkeztu nahi zuen. 1991n Irigoyen & Pérez de Calleja Consultores enpresak euskarazko egunkari bat argitaratzeko ikerketa ekonomiko-finantzario bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren aginduz. Txostenaren arabera, egunkari hark urtero 900 milioi kostatuko zuen. Banaketari zegokionez, bi aukera zeuden: merkatuan lehia egitea eta salmentak egiten saiatzea (gehienera jota, 4.000 ale, beste egunkari bat bazegoelako) edo 35.000 erregalatu, dirulaguntza ezinbesteko baitzen. Edozein aukerak beste proiektuaren heriotza zekarren, ziur aski. Txostena pesimista zen erdarazko komunikabideen konpetenziari buruz, bestalde. Tabloidea izango zen, 48 orrialdekoa (64 larunbatetan), kolorezkoa, familiarra, testu laburrekoa. Azken proiektu hau ere ez zen gauzatu eta hantxe bertan bukatu zen asmo ofizialaren historia.

Aurreikuspen guztien aurka, *Euskaldunon Egunkaria*, lehiakiderik gabe, finkatu zen nolabait, eta urteak betetzen joan zen. Irakurle-erosleen kopurua ere orekatu zen, estilo-liburua argitaratu zen eta egitasmoan azal dutako ezaugarriak, nola edo hala, bete ziren.

3.4.1. Aldaketak diseinuan eta nolabaiteko egonkortzea

Hasieran zuri-beltzean inprimatu zen, baina 1995ean diseinu aldaketak gertatu ziren - orduan zuzendaria, Iñaki Uria denbora laburrean aritu ondoren, Martxelo Otamendi zen -, eta kolorea sartu zen. Mamian ere zenbait gauza aldatu ziren, Garbiñe Ubedaren gidaritzapean.

Euskaldunon Egunkariak mugak bazituen: ez zuen makineria propiorik, eta Orainen egiten zen, etxeko egunkaria zen *Egin* baino lehenago, horregatik arratsaldean eta gauean gertatzen ziren berri batzuk, nahiz eta iragarrita egon (kirol gertakizunak, adibidez), ezin zituen eman. Suposatzen zen, beraz, *Egunkaria* irakurtzen zuenak beste egunkari bat ere irakurtzen zuela, eta euskarazkoa izateagatik, neurri handi batean, erosten zuela. Bestalde, igandeetan ez zen lanik egiten, beraz astelehenean ez zen kale-ratzen. Euskal Herriko egunkari bakarra zen alderdi honetan, gainera kontuan hartu behar da astelehenetan, urritik ekainera behintzat, futbolari buruzko informazioa oso garrantzitsua dela eta asteleheneko egunkariak, horregatik, gehiago irakurtzen direla.

Euskaraz dagoen egunkari bakarra izanik, eta dirulaguntza ofizialen menpe egonik neurri handi batean bizirauteko, ezin zuen editorialik argitaratu. Hala ere, nabarmenki murriztu zen pluraltasuna. Gorabeherak nabariak izan ziren: Pello Zubiriaren garaian, Eusko Jaurlaritzarekiko tirabirak fresko zeudenean, ezker abertzalearenganako joera argi zegoen. Gero Otamendi sartu zen, eta denetariko iritziak jasotzen ziren, batzuetan -batez ere Euskal Herriko egoera politiko nahasian oso bero zegoenean - oso kontrajarriak. Gero, berriro, ezker abertzalearen izenak gailendu ziren iritziko testuetan.

Mugak muga, *Euskaldunon Egunkariak* orekaren bat lortu zuen. 15.000 bat ale saltzen omen zituen egunero, nahiko urrun ikerketek zioten irakurle kopuru euskaldunetik, baina kopuru dezente beste egunkari batzuekin (*Egin* eta *Gara* bere jarraitzailearekin eta *Deiarekin*, batik bat) konparatzen badugu. Halako espezializazio bat ere bilatu zuen, edo, egunotan esaten den bezala, balio erantsia: nazioarteko atala ezin zen punta-puntakoa izan, gehiena agentziako berrien bidez egiten baitzen, eta 2004. urtea arte ez zituen agentzia batek euskarazko albisteak itzuli, Europa Press-ek Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordio bati esker. Euskal Herriko informazioa, gainontzeko egunkarietan ez bezala, Hegoaldea eta Iparraldea hartzen zituen. Euskararen mundua eta euskal kulturari buruzko informazioa besteetan baino gehiago zen. Eta hizkuntza finkatzeko eta zabaltzeko ezinbesteko lana egin du. Hor daude *Estilo liburuaren* bi edizioak.

Euskaldunon Egunkaria, euskarazko gainontzeko komunikabide gehienak bezalaxe, dirulaguntza ofizialen ikaragarritzko menpekotasunean zegoen: 1997an, adibidez, Eusko Jaurlaritzak 120 milioi eman zion, *Argia* astekariak 15 milioi jaso zituen.

3.4.2. Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta Berriaren sorrera

2003. urtean Entzutegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak bat-batean erabaki zuen *Euskaldunon Egunkariaren* itxi behar zela, ETAre

menpekotasuna leporatzen baitzion. Komunikabidearen zuzendaria, Martxelo Otamendi, eta Administrazio-Kontseiluko edo egunkariarekiko halako lotura zuten beste lagun batzuk atxilotu zituen, haien artean Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, Xabier Alegria, Iñaki Uribe eta Fermin Lazkao. Batzuk gero fidantza ordaindu ondoren libre gelditu ziren, eta bi bakarrik gelditu ziren espetxean: Uribe eta Alegria. Hurrengo egunetik langileek behin-behineko egunkari bat atera zuten, baldintza txarretan – egoitza eta tresneria ezin ziren erabili-, *Egunero*. Protestak eta manifestazioak egin ziren Euskal Herrian eta kanpoan. Ekainean berriz ere beste euskara hutsezko egunkari bat kaleratu zen: *Berria*. Ezaugarri nagusiak *Euskaldunon Egunkariarenak* dira.

Egunero

ATXILOTUAK

- Joan Mari Torrealdai
- Martxelo Otamendi
- Iñaki Uribe
- Pello Zubiria
- Txema Auzmendi
- Inma Gomila
- Fermin Lazkao
- Xabier Alegria
- Luis Goñi
- Xabier Oleaga

Aurreko zenbakiak

- Otsailak 21

Denok Donostia, Egunkaria aurrera

- 17:00etan manifestazioa egingo da Donostian "Egunkaria aurrerat Bai Euskarari" lelopean
- Martin Ugalderen diru kontu guztiak blokeatu dituzte Auzitegi Nazionalaren aginduz
- Atxildimendu eta elkartasun adierazpen zaparrada etengabea jaso du Egunkariak

Elkartasun mezuak helbide hauetara bidali:

<mailto:egunkaria@wanadoo.fr> eta egunaurrere@yahoo.com

- Gaur denok Donostia
- Kaleak elkartasunez bila
- Martin Ugalderen diru kontu guztiak blokeatu dituzte
- Atxilotuak astebete baino gehiago dituzte
- Sekularizazioa
- SAL, EAL, EAL eta EB-1uk ezarpen bakaketa erabian dute Eusko Legebiltzarrera
- Egunkariaren aldeko mezuak idazteko

Egunero, interneteko bertsioa. Juan del Olmo epailearen aginduz itxitako *Euskaldunon Egunkariaren* ordez irten zen, *Berria* sortu arte.

4. KULTUR ETA ZIENTZI ALDIZKARIAK

4.1. Goi mailako ikerketak euskaraz

4.1.1. *Zientzia euskaraz: Elhuyar*

Euskarazko zientzi aldizkarietan aitzindaria, dudarik gabe, *Elhuyar* dugu. Bere sorrera ere nahiko esanguratsua da. 1972an Donostiako Ingeniaritza Eskolan ikasten ari ziren euskaldun batzuk izen bereko talde batean bildu ziren Bascongadaren babespean. Euskara hutsez aritzen ziren, zientzietako euskara landuz. Hor zeuden, besteak beste, Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Jesus Mari Goñi eta Juanjo Gabiña.

Handik bi urtetara, 1974an, izen bereko aldizkari bat argitaratzea erabaki zuten, zientzia euskaraz jakinarazteko: *Elhuyar*. Bitartean testu-liburuak, beti

ere euskaraz eta zientziari buruzkoak, plazaratu zituzten. Hasieran hilabetekaria zen, eta kezka nagusia hizkuntza zientzi gaitara egokitzea zen batik bat.

Urteetan zehar aldizkaria indartu da, eta edukiak dira nagusi. 1981ean berrikuntza sakona egin zuten, edozein zientzi aldizkarekin parekatu ahal izateko: "Jendeak ez ditu euskarazko aldizkariak erosiko euskaraz idatzirik daudelako, bertan esaten dena interesgarria delako baizik", zioten editorialean. 1984an hasi zen idazketa-gelaren informatizazioa eta 1985ean aldizkaria bi ataletan banatu zen: dibulgazioa eta ikerketa. Bihilabetekari bihurtu zen. 1994an, azkenik, beste berrikuntza bati ekin zioten, eta zientzia, osasuna, natura, teknologia eta astronomia ataletan banatu zen aldizkaria. 2.400 aleko tirada du, gehiena harpidetza bitartez saltzen da. Irakurle tipoa gaztea da (25-35 urtekoa), unibertsitatean hezia, gipuzkoarra (irakurleen %55,6). Gaurko zuzendaria Eustakio Arrojeria da, eta lehen Iñaki Irazabalbeitia aritu zen.

Gainontzeko ekintza batzuk ere burutu dituzte: entziklopediak, CD-ROMak, euskarazko hezkuntza materiala prestatzea, itzulpen teknikoak eta abar. 1984tik Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkartetzat izendatu zuen. Beste komunikabide euskaldun batzuekin ere harreman izan dituzte, hala nola *Euskaldunon Egunkariarekin*, non gehigarri bat izan zuten astero zientzi gaiei buruz aritzeko.

4.1.2. Unibertsitateko aldizkariak

Honetan aitzindaria, dudarik gabe, Udako Euskal Unibertsitatea dugu. Euskarazko unibertsitaterako bidea prestatzeko sortua, gaur egun uda osoro euskarazko ikastaroak prestatzen ditu UEUK, denetarikoz zientziei buruzkoak: humanitateak, zientzia teknikoak eta gizarte zientziak. Azken hauek badute, UEUri esker, euskarazko aldizkari bat: *Uztaro*, 1989an sortua. Arloak ekonomia, zuzenbidea, psikologia, kazetaritza, historia, hizkuntzalaritza, glotodidaktika, pedagogia eta geografia dira.

Hala ere, aldizkari zientifiko gehienak Euskal Herriko unibertsitateek egiten dituzte, bai Deustukoak, bai Euskal Herriko Unibertsitateak, bai Nafarroako unibertsitateak, bai, neurri txikiago batean, Iparrekoek. Deustuan agertzen da, euskara hutsez, hizkuntzaz eta literaturaz, *Enseiucarrean*. Euskal Herriko Unibertsitatean euskara hutsez argitaratu izan da natur zientziei buruzko *Ekaia* aldizkaria. Hezkuntzaz euskara hutsezkoa da *Tantak*, 1989an hasi zena.

4.1.3. *Eusko Ikaskuntzaren itzulera*

Gerra aurrean euskal kulturaren alde horrenbeste lan egin zuen Eusko Ikaskuntza erbestetik etorri eta 1976an ere berriro abian jarri zen. Gipuzkoako Foru Aldundia konturatu zen batzuk, Eusko Ikaskuntzakoak ez zirenak, erregistratu nahi zutela *Revista Internacional de los Estudios Vascos* izena, eta, lehen bezala, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko diputazioekin ados jarri zen Eusko Ikaskuntza berpizteko. Bizirik zeuden agintariak (Joxemiel Barandiaran, Justo Garate, Manuel Lekuona, Angel Irigaray, Joaquín Yrizar eta Manuel Irujo) bildu eta bazkide berriak egiteko ekimena hasi zen. 1978an berriro eratu zen Eusko Ikaskuntza, Joxemiel Barandiaran lehendakari eta Agustín Zumalabe idazkari gisa. 1979an sailak antolatu ziren eta berriro lanean hasi ziren.

Horren ondorioz, euskal ikasketetarako hain garrantzitsua izan zen *RIEV* berpiztu zen. Horrez gain, sail bakoitzak koaderno bana argitaratzeari ekin zion: Musika, Historia-Geografia, Komunikabideak, Folklore, Antropologia, Zuzenbidea, Arte Plastikoak, Hizkuntza eta Literatura, Zinematografia, Zientzia Medikoak, Natur Zientziak, Zientzia Sozial eta Ekonomikoak, Zientzia Fisiko-Kimikoak eta Matematikak, Hezkuntza eta Aurrehistoria-Arkeologia dira Eusko Ikaskuntzaren sailak. 1996an hasi zen koadernoen berrikuntza, eta bakoitzak izen bana hartu zuen: *Oihenart*, adibidez, Hizkuntza eta Literaturari buruzkoa, edo *Mediatika* Komunikabideei buruzkoa. Herriko hizkuntza guztiak dira Eusko Ikaskuntzaren hizkuntzak (euskara, gaztelania, frantsesa), eta guztiek isla dute aldizkarietan.

Euskara hutsez hasi da argitaratzen 1997an *Eleria*. *Euskal Herriko Legelarien aldizkaria*, zuzenbideari buruzko lehen euskal aldizkaria, Zuzenbide Saileko euskaldunen eskutik. Zuzendaria Josu Iñaki Erkoreka zen.

4.1.4. *Hizkuntzaren inguruko aldizkariak*

Euskaltzaindiak, jakina, *Euskera* bere aldizkaria argitaratzen jarraitzen du. Erabateko akordioa lortu dute batuaren inguruan, edo ia erabatekoa, idazle zahar talde batek ez baitu inoiz onartu Akademiak proposatutako bide hori. Horiak Euskarazaintza izeneko elkartean bildu dira, eta izen berdineko aldizkari bat ateratzen dute, ortografia zaharra eta euskalkiak erabiliz.

Manuel Agud-ek eta Koldo Mitxelenak sorturiko *ASJU* aldizkariak aurrera jarraitu zuen, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostiako Foru aldundiak argitaratua, Joseba Andoni Lakarraren zuzendari duela.

Hizkuntzalaritzari buruz, soziolinguistikari zehazki, Jose Luis Alvarez Enparanzaren ingurukoek *Bat* aldizkaria argitaratzen dute. *HABE*k eta *AEK*k ere beren aldizkariak plazaratzen dituzte (*HABE*komik, *Unescoren*

albistaria, Zutabe, Aizu!), euskalduntze munduari begira. Itzultzaileek ere badute euskal aldizkari bat: *Senex*, azken bolada honetan Gasteiztik Koldo Bigurik zuzentzen duena.

4.1.5. Pedagogiari buruzko aldizkariak

Irakaskuntzan, zer esanik ez, euskarak berebiziko garrantzia izan du. Horri buruzko lehen aldizkaria 1970ean argitaratu zen, *Gordailu*. Hiru urtez agertu zen, ikastoletako irakasleen arteko zubi gisa lan eginez, Jazinto Setienen zuzendaritzapean. 1972an desagertu egin zen.

Pedagogiari buruzko beste bi aldizkari aipatu behar ditugu, Paulo Iztuetaekin batera: 1978an sortu zen Donostian *Urrats*, Santo Tomas Lizeoko irakasle batzuen bultzadaz. Bi ale besterik ez ziren kaleratu. 1982an, bestalde, Gipuzkoako Irakasleen Elkarteak *Isilik* argitaratu zuen.

4.2. Literatur aldizkariak

4.2.1. Literatur aldizkariak Hegoan

Hainbeste garrantzia izan zuen *Egan* aldizkaria, desagertu ez bada ere, ahulago bihurtu da. Olerkiarentzat hain inportantea izan zen *Oleri* ere 1959tik 1970ra agertu zen, Madrilgo Gobernuak baimena kendu zuen arte. Bertan olerkari gazteek beren lanak argitara eman zituzten.

Beste korronte modernoagoetako aldizkariak jaio dira, aldiz, askok bizitza laburra izan badute ere. *Kurpil* izan zen horietako bat. Santiago Aizarnak zuzendu zuen 70eko hamarkadan, Donostian, eta orduko korronte esperimentalen berri ematen zuen. Elebiduna zen.

Eragin handiena - bere garaian nahiko *underground* baziren ere - izan dutenak *Ustela* eta *Pott* dira. Bizitza laburrekoak, bien inguruan Bernardo Atxaga eta beste idazle batzuk biltzen ziren, euskal letrak iraultzeko edo, behintzat, haize berria ekartzeko asmoz. 1975ean sortu zen *Panpina ustela*, hurrengo urtean *Zorion ustela* eta *Mermelada ustela*. Hasieran Atxaga (ordurako *Ziutateaz* liburua zeukan kalean) eta Koldo Izagirre (*Itsaso ahantzia* zen orduan bere obra ezagunena) zeuden, hirugarren alean Ramon Saizarbitoria ere bai (artean *Egunero hasten delako* eleberria argitaratua zuen). Umoretsua, probokatzaila, abangoardista zen aldizkaria, ikonoklasta samarra, erabat heterodoxoa.

Handik bi urtetara Bilbon Pott banda osatu zen, eta izen berdineko sei ale argitaratu zituen 1978an, 1979an eta 1980an. Talde hartan zeuden, Atxagaz gain, Joseba Sarrionaindia, Jose Mari Iturralde, Jon Juaristi, José Julián Baquedano, Manu Ertzila eta Ruper Ordorika musikaria, gero oso bide ezberdinak hartu dituztenak. Aldizkariaren zenbaki bakoitzak izenburu ez-

berdina zuen: *Pott bandaren berriemailea*, *Pott bandaren blaga*, *Pott bandaren braga*, *Pott bandaren praka*, *Pott bandaren plaga*, *Pott tropikala*. 90eko hamarkadan, Bernardo Atxaga euskal literaturaren autorerik ospetsuena eta ezagunena hemen eta kanpoan bihurtuta, haren inguruan aldizkari kritiko bat sortu da: *Garziarena*. Bi garai izan ditu, *Garziarena* (1992-1994, hamaika ale) eta *Garziarena berria* (1997tik aurrera).

1980an Donostian beste aldizkari batzuk jaio ziren: *Oh! Euzkadi*, nahiko kritikoa (Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoria zeuden), gero hiru hiletan behin *Argia* astekarian atal literario bihurtu zena, eta *Xaguxarra* (bi ale besterik ez, Hordago argitaldaritik hurbila). Argitaldarien ere aldizkari batzuk kaleratzeari ekin zioten 80ko hamarkadan: Donostiako *Susa* (1984tik aurrera), Bilboko Labayru Institutuaren *Idatz & Mintz* (bizkaieraren aldekoa), Iruñeko *Pamiela*, Donostiako Barojaren *Literatur Gazeta* (1985). Hiri guztietan arrakasta erlatiboko aldizkariak sortu ziren: Gasteizen *Kandela*, Iruñean *Korrok* eta gero *Mazantini*, Bilbon *Ttu-ttua*, Durangon *Txistu y Tamboliñ*. Batzuk erdi ahaztuta daude: *Hegalez hegala*.

Stultifera Navis 1982an eta 1983an argitaratu zen, euskara hutsezko bi zenbaki, gero Gasteizko Filologia Fakultateko ikasleek *Kandela* ere atera zuten. 1984an eta 1985ean *Txortan*. 1979an hasi zen Euskal Herriko poesia zabaltzeko eta Euskal Herrian beste lurralde askotako poesia ezagutarazteko hain garrantzitsua izan den *Zurgai* aldizkaria. Erdara nagusi, badago euskal testurik ale orotan.

Euskal Idazleen Elkarteak bere aldizkaria ateratzen du: *Hegats*. Bertsolarien Elkarteak ere beste aldizkari bat ateratzen du: *Bertsolari*, 1990eko hamarkadako bolada arrakastatsua aprobetxatuz.

4.2.2. *Literatur aldizkariak Iparrean*

Iparraldean, literatur mugimenduak apalagoak izan badira ere, sortu da aldizkaririk. *Maiatz* dugu ezagunena. 1982an sortu zen, eta hango idazle euskaldunentzako plataforma bat izan nahi zuen. Oso heterogeneoa da (Iparreko literato gehienak biltzen ditu). Bertan beren lanak argitaratu dituztenen artean Itxaro Borda, Henriette Aire, Jon Casenave, Eñaut Etxamendi, Manex Erdozani Etxart, Luzien Etxezaharreta, Aurelia Arkotxa daude besteak beste.

4.3. *Erljiosoen aldizkari kulturalak*

Iratzar Loiolan sortu zen 1976an. Bizitza laburra izan zuen. Baina, aldizkari erlijioso-kulturaletan, garrantzitsuena dudarik gabe *Karmel* da. *Karmel* gaur egun ere argitaratzen da, batuaz eta euskalkietan. Erljioari buruz eta hainbat gai kulturali buruz ere hitz egiten du. Bertan Santiago

Onaindiaren lana aipatzekoa da. 1970ean mila bat harpidedun zuen, %45 Bizkaian eta %42 Gipuzkoan (Siadeco: 1977: 106). Lehendik zetorren aldizkaria, baina urte hartan garai berriari hasiera eman zion Santiago Onaindiaren eta Lino Akesoloren eskutik. Apaizek ez ezik, laikoek ere idazten dute, honetaz eta hartaz.

5. TOKIAN TOKIKO KOMUNIKABIDEAK

5.1. Aldizkariak

5.1.1. *Hegoan*

Hainbat eta hainbat herritan, baita hirietan ere (beranduago), euskara hutsezko aldizkariak sortu dira 80ko eta 90eko hamarkadetan, euskal prentsaren eta publizitatearen merkatua sendotuz. Irakurlego bat bilatu eta sortu ere egin dute, kazetari euskaldunen heziketan lagundu dute, euskara batua zein euskalki estandarrak - bai eta, zenbait herritan ere, bertako hizkera - kodetu, zabaldu eta aberastu egin dituzte. Ez da lan makala, beraz, aldizkari hauek egin dutena eta egiten jarraitzen dutena.

Aurrekinak aurrekin, fenomeno nabarmen hau 1988an hasi zen Arrasaten, bertan Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak sortu eta *Arrasate Press* aldizkaria ateratzea erabaki zutenean, Joxe Aranzabalen zuzendaritzapean. Handik aurrera, Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan eta, neurri txikiago batean, Araban ere eten gabe sortu dira halako aldizkariak. Gainera - horretan ere Arrasate aitzindaria dugu - herri irratia eta telebista sortu dituzte elkarte hauek. Arrasaten, adibidez, telebista sortu beharrean zegoenean, ARKO (Arrasateko Komunikabideak) sortu zen.

"Nazio edota probintzi mailako prentsak betetzen ez duen hutsunea eta eskaintzen ez dituen aukerak hartzen ditu prentsa lokalak bere gain, hau da, herri eta eskualdeko informazioa zuzenki eta era sakonean plazaratzen du", dio Miguel Angel Elkoroberezibarrek (1992: 11). Tokian tokiko prentsa euskara hutsezkoa, elebiduna (euskara gehi gaztelania, euskara gehi frantsesa) edo erdarazkoa bada ere, aldizkari gehienak euskara hutsezkoak dira, ia erdia (euskaraz eta gaztelaniaz dagoena %22 da).

Astekari edo hamabostekaria, bi edo hiru pertsona soldatapeko eta laguntzaileek osatutako lantaldea, batez ere dirulaguntza ofizialez eta publizitateari esker finantzatutakoa, dohainik etxeetan banatzen dena, autoedizioaz landutakoa eta DIN-A4 taxuerakoa, halaxe deskribatzen dute Jotxo Larrañagak, Miren Gabantxok eta Asier Arangurenok tokian tokiko aldizkari tipoa (Aranguren, Gabantxo, Larrañaga, 1997: 37).

Barren (Elgoibar), ...*eta kitto!* (Eibar), *Nondik* (Ataun), *Kontzejupetik* (Oñati), *Azpeitian zer?*, *Irinmodo* (Antzuola), *Plazara* (Irun), *Orria* (Andoain), *Galtzaundi* (Tolosa), *Goierritarra*, *Ze barri?* (Eskoriatza), *Aretxagazeta* (Aretxabaleta), *Irutxulo* (Donostia), guztiak Gipuzkoan. Bizkaian argitaratzen dira *Arranondo* (Ondarroa), *Drogeteniturri* (Ermua), *Akatz* (Bermeo), *Durango Swing*, *Deiadar* (Gernika). Araban euskara hutsez Gasteizko *Geu Gasteiz* dago. Nafarroan *Ttupi ttapak* (1980. urteaz gero) Iparraldea betetzen du (eta Iparraldeko Sara eta Senpere herrietan ere banatzen da) eta *Laisterkak* Sakana. Horietaz gain, badaude beste batzuk: Araitzeko *Mailope* (1.300 ale, hilabetekaria), Ultzamaldeko *Pulunpe*, Salazarko *Bilgua* (elebiduna, bizitza laburrekoa), Garesko *Murugarren*, Iruñeko *Ze berri?* (52.000 ale) eta *Iruñeko Udal Boletina*, eta *Iturmendi Herriaren mintzoa*.

Gehienek 3.500-5.000 aleko tirada dute, bakan batzuk 7.000ra ailegaten dira: *Goierritarra* (herri bat baino gehiago hartzen duena), ...*eta kitto!* edo *Getxobarri*, adibidez. Orotara 80.000 irakurle baino gehiago biltzen dute, oso kopuru handia kontuan hartzen badugu *Argiak* 5.500 bat dituela eta Iparraldeko *Herriak* 2.500 (Aranguren, 1991: 11). Batzuek (*Arrasate Press*, kasu) irakurlegoa bikoiztu dute urte gutxitan.

Herri aldizkari gehienak elkartu ziren 1996ko ekainean Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topagunean, ideiak trukatzeko, koordinatzeko eta baliabide ekonomikoak ahalik eta erarik egokienean erabiltzeko asmoz, bai eta erakundeetatik datozen dirulaguntza garrantzitsuez gain bestelako baliabideak, publizitatea alegia, bilatzeko asmoz ere.

Euskara gehien erabiltzen duten eskualdetan bat oso nabarmena da: Deba Goiena. Bertan, 1999an, sei aldizkari eta gehigarri bat, bi irrati eta bi telebista euskara hutsez ari ziren. Urte hartan bildu ziren Goiena elkartean Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Gatzaga eta Oñatiko komunikabideei laguntza emateko. 2003an *Goienkaria* izeneko aldizkaria –egunkari itxurakoa– kaleratu zuten, aipatutako herrietan 20.000 ale banatzeko.

Goienkaria

EAJ nagusi, hautesleen erdiak botoa emanda

■ EAJ nagusiak ez duen hautesleak
■ EAJ nagusiak ez duen hautesleak
■ EAJ nagusiak ez duen hautesleak



Dabegisako emaitzak hurrengo

| Errenta | IRPF | IRPF |
|---------|--------|--------|
| 10000 | 10000 | 10000 |
| 20000 | 20000 | 20000 |
| 30000 | 30000 | 30000 |
| 40000 | 40000 | 40000 |
| 50000 | 50000 | 50000 |
| 60000 | 60000 | 60000 |
| 70000 | 70000 | 70000 |
| 80000 | 80000 | 80000 |
| 90000 | 90000 | 90000 |
| 100000 | 100000 | 100000 |

Goienkariaren lehen alea, 2000ko martxoaren 13koa.

Goienkaria

IRITZIA: ELIKADURAREN GAINEKO OHTURAK EZTABAIDAGAI / 9

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIKARIA

KIRIOLEK
Gonatasik EAJ munita
sustatuera berriz
jositzen da / 10

JAVIER ABALDE / EKOLOGIA
*"Ez daude nahikoa Urteko
Ondareak irabazteko inazur izan
Ez daude nahikoa Urteko
Ondareak irabazteko inazur izan
Ez daude nahikoa Urteko
Ondareak irabazteko inazur izan"*

ASTEKO OLAGO: BARRIKO HERRI OLAGARRA NAHARRISOLA PARTZIBERGAIN / 2-3

Haurtzaindegi beharra ase nahian

Langabetuen kopuruak
%19 ligo da gurean
iazko irailetik hona

INGURUEN
Lau mila gutxiago
3.900tik gora izan
daiteke hurrengo

POLITIKA
Ekoizpen, Oinezaketa
Arantzako berriz
lortzeko lanak

ANTZUOLA
Udalerriaren webgunea
hurrengo urtean
abiarazuko da

GAZTE MODA
LEIZE ZE

Indonesiako altzariak
Ertzi-preziotari
Ertzi-preziotari
Ertzi-preziotari

Goienkaria, 2003an

5.1.2. Iparrean

Iparraldean tokian tokiko komunikabideen mugimendua, egon badagoen ere, Hegoaldean baino askoz ahulagoa da. Arrazoi askorengatik: lehena, ziur aski garrantzitsuena, euskara ofiziala ez izatea da - eta dirulaguntzarik ez jasotzea, beraz -, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan ez bezala. Beraz, Ipar Euskal Herrian dauden aldizkari gehienak batez ere frantsesezkoak dira.

1997an, gutxienez, honako hauek argitaratzen ziren: *Bayonne magazine de la ville*, *Anglet magazine* eta *Biarritz magazine*, non euskarak oso presentzia eskasa zeukan. Presentzia testimoniala ere bazuen *Bidart Info/Bidarteko berriak*, *Bil Hedaiako hilabetekaria/Mensuel Hendayais*, *Le Journal de Guethary/Getariako berriak*, *Urruñan bizi/Vivre à Urrugne*, *Bulletin Municipal*, *St. Jean de Luz berriak*. *Votre Magazine d'information municipale*, *Herriko berri Hiriburu/Bulletin municipal de St. Pierre-d'Irube*, *Beskoitze-Brisous infors municipales*, *Ezpeletako Bipar berri* aldizkarietan. Gehienak, bistan dago, udalekoak dira. Zerbait gehiago agertzen zen euskaraz *Bat gehio!*, *Gure Herrian Urruña*, *Pitz*, *Kitzik* eta *Kutzu* aldizkarietan (gehienak kultur elkarteek argitaratuak). Beste batzuk dira: ekonomiari buruzko *Hemen*. *Magazine Économique*, *Altxa! Mutillak*. *Itsas gazteriaren aldizkaria* eta *Pottok*. *Euskal Herriko zaldi ttikia*, guztiak elebidunak (frantsesa nagusi) eta sektorialak.



Herria, 2007

Kultur aldizkariak ere badaude: *AEKazeta*. *Iparraldeko AEK-ko barne aldizkaria* (erdia euskaraz), *Iguzkilore*. *La lettre des verts du Pays Basque* (%15 euskaraz), *Lauzka* (erdia euskaraz), *Agur*. *Bulletin de Eskualdunen Biltzarra* (Bordelen 1953tik argitaratzen dena, euskaraz oso gutxi), *Parisko Elgar* (euskaraz %12). Baita politikoak ere: *Ekaitza* astekari abertzalea (%25 euskaraz), *Enbata* hilabetekaria (%12 euskaraz), *Eusko Alkartasunaren*

Alkarrekin (%24 euskaraz) eta *Ager Iparralde*. *Gogoetak*: *atzo, egun, bihar* hilabetekaria (%12 euskaraz). *Euskal Haziak* aldizkari katolikoan %80 euskaraz dago. Donibane Garazin ere, frantsesez, euskaraz (%12) eta bearnesez *Laborari/Lo paisan* hilabetekaria agertzen da. Aldizkari gehienak nahiko txikiak dira (gehienek 8-12 orrialde baino ez dute) eta zabalkunde nahiko murrizta dute. *Herria* da, oraindik - bere eragina nabarmenki murriztu bada ere - gehien saldu eta irakurtzen den aldizkaria, eta euskaraz gehien duena.

Bestalde, 1987an Heda albiste-agentzia sortu zen Baionan. Iparraldeko hiru lurraldeetan berriemaileak zituen. Batez ere Hegoaldeari Iparreko berriak emateko sortu zen. Arduraduna Patrick Busquet kazetaria zen. Albisteak euskaraz eta gaztelaniaz banatzen zituen.

5.2. Irratiak

5.2.1. Hegoan

Tokian tokiko aldizkarien mugimenduekin batera, eta askotan haien eskutik ere, sortu dira hainbat irradi Euskal Herriko herrietan, batzuetan udalak lagunduak edo sortuak, beste batzuetan kultur edo euskararen inguruko elkarteak sortuak. Hor dugu, adibidez, Arrasate Irratiaren kasua, *Arrasate Press* aldizkariarekin eta Arrasate Telebistarekin batera herri hartako euskal komunikabideen panorama osatzen duena. Beste batzuetan gazte talde batek sortu du irratia, adibidez Bergarako Txapa Irratia. Kasu guztietan, merke samarra izaten da irradi bat antolatzea, kostuak aldizkari batenak edo telebista batenak baino askoz baxuagoak izaten dira, horregatik nonahi loratu dira horrelako komunikabideak. Eskulana ere badago, bertako jendea prest izaten delako irratian parte hartzeko, gainera gero eta gehiago dira herri guztietako kazetariak edo kazetaritza-ikasleak. Komunikabide hauek jendearengandik gertu daude, eta euskalkia zein herriko hizkera erabiltzen da.



24 ordu euskaraz

Herria baino gehiago hartzen duen irratirik badago. Kasu nabaria da Bizkaia Irratiarena. Bilboko Herri Irratitik sortu zen, euskara hutsezko programazioa egiteko, bizkaieraz. 1991n sortu zen, Bizkaiko elizbarrutia jabea da. Bizkaian dauden %17,5 euskaldunei zerbitzua ematen die, bai eta Gipuzkoako mendebaldean (Arrasate, Eibar, Oñati, Bergara) eta Arabako iparraldean (Aramaio) bizi diren bizkaieradunei ere. Zenbait udalek ere irratia antolatu dute eta bertan euskarak badu lekurik, hala nola Getxo Irratian.

Euskalki ezberdinek bere lekua badute irratian, hala nola Oñatiko bizkaiera Oñati Irratian, Eibarkoa Onda Ceroren eta *...eta kitto!* aldizkariaren artean egindako akordioaren arabera egiten ziren irratsaioetan eta, jakina, Arrate Irratian, orain ere lanean diharduen Segura Irratian Goierriko gipuzkera, eta bestelako gipuzkerak Loiolako zein Donostiako Herri Irratian (euskara hutsez Loiolan, askoz gutxiago Donostian). Nafarroan Aralar Irratia (Lekunberri, Larraun, Araitz eta Betelu eskualdekoa), Irati Irratia (Aezkoan, Auritzen eta Erron), Karrape Irratia (Leitzan) eta batez ere Iruñeko Euskalerria Irratia, euskara hutsezkoa, Mikel Bujandak zuzendua eta 900 bazkidek sostengatua. Irrati libreak ere badaude, Txantreako Irratia adibidez. Bestelako emisore komertzialetan, bakarrik noizbehinka egiten zuen euskal irratsaioren bat Iruñeko SER irratian Javier Pagolak.

Irrati ez komertzial edo libreen artean euskarazkorik ere badago: Bilboko San Ignacio auzoko Gramola Irratia (1981), Bilboko Txomin Barullo Irratia, Iluna Irratia, Otxasko Irratia, Ortzadar Irratia, Sestaoko Karibe Irratia, Algortako Bost Axola Irratia, Barakaldoko Zirika Irratia, Bermeoko Itsuki

Irratia, Durangoko Aldaba Irratia, Gernikako Betekada Irratia, Gasteizko Hala Bedi Irratia, Arabako Errioxako Basterra Irratia, Donostiako Txantxangorri Irratia, Azkoitiako Kakaflash Irratia, guztiak 80ko hamarkadan. Beste batzuk: Bilboko Irola Irratia eta Tas Tas Irratia, Ondarroako Radixu, Elgoibarko Zazpiki, Bergarako Txapa, Errenteriako Zintzilik, Hernaniko Molotoff, Iruñeko Eguzki.

5.2.2. Iparrean

Esan bezala, 80ko hamarkadan Frantziako legediaren liberalizazioak tokian tokiko irratiaren sormena ekarri zuen. Horien artean, Euskal Herriko batzuk, eta horien artean ere, euskarazkoak. 1981ean, zehazki, tokian tokiko irrati pribatuak sortu ziren, gero batzuk desagertu dira eta kopurua orekatu da. Dozena bat irrati daude Ipar Euskal Herrian. Euskarazko garrantzitsuenak Baionako Gure Irratia, Mauleko Xiberoko Botza, Donibane Garaziko Irulegi Irratia FM (1982an sortua) eta Mauleko Mendililia. Lehenengo hiruek badute zenbait irratsaio komun, eta zenbait gauzatan elkarlanean aritzen dira. Baionako Gure Irratiak, gainera, badu akordio bat Euskadi Irratiarekin. Hau da euskaraz denbora gehien emititzen duen emisorra (%100). Irulegi Irratiak %90 eta Xiberoko Botzak %70 euskaraz emititzen dute.

Entzuleei dagokienez, dezente dute irrati hauek. Gure Irratiak, adibidez, 24.000 zituen 1996an. Gorabehera guztiekin, mantendu izan dira. Irrati hau, adibidez, bi langilerekin aritu zen denbora batean (Xipri Arbelbide eta Mattin Larzabal). Finantzaketan ere gorabeherak izan dira, hala ere gaur egun Frantziako Gobernuak eta Departamenduak dirulaguntzak ematen dituzte, udalek ere bai.

5.2.3. Ameriketean

Estatu Batuetan ere badago euskal irrati bat. Wyoming estatuko hiriburua den Buffalon berrogei bat urte daramatzate asteroko irratsaio bat egiten hango euskaldunek KBBS irratiari. Ordubeteko saioa da, euskara hutsezkoa. Bertan aritu dira nafar jatorriko euskaldun amerikarrak: Jeanette Ezponda, Juan Cinquambre, Domingo Martirena, Martin Camino, Jeanne Marie Etchemendy, Rosi Ibarra, Pierre Amestoy, Bernard Etchemendy eta Grace Ezponda Miller. Irratsaioa 1956ko abenduan hasi zen, eta 1996an Society of Basque Studies of Americak omenaldi bat egin zien.

5.3. TELEBISTAK

Badago telebista lokalik Euskal Herrian, denbora luzean ez legearen barruan ez kanpoan egon badira ere. Gainontzeko kateak ez diren lekuetara iritsi nahi dute tokian tokiko komunikabide hauek. Espainian bazeuden, 1990eko hamarkadaren hasieran, 400 telebista lokal (aitzindariak katalanak izan ziren, Italiaren antzera 1980an hasi baitziren herrietako telebistak antolatzen). Euskal Herrian, aldiz, 1996an hamasei herri telebista zeuden, oso egoera ezberdinetan. 1989an Euskal Herri Telebisten Federazioa sortu zenean, bazeuden Andoainen, Donostian, Durangon, Eskoriatzan, Elorrión, Ermuan, Galdakaon, Gernikan, Hernanin, Ondarroan, Plentzian, Portugaleten eta Zarautzen. Gero Eskoriatzakoa, Zarautzekoa eta Plentziakoak bakarrik gelditzen ziren, baina beste batzuk ere sortu ziren: Iruñeko Pamplona-TV, Telebilbao, KTB Eibar, Canal 7 Barakaldo, Kanal 1 Irun, TeleDonosti, Gasteiz Telebista, Donostiako Ikas Telebista, Andoain TB, Arrasate Telebista, Urnieta Telebista, Canal Gasteiz. Gehienetan euskara erabiltzen da, gutxi edo asko, eta batzuetan ere euskara hutsez transmititzen da (Arrasate Telebista, kasu).

Hamasei telebista horietatik sei udalen eskuetan zeuden. Gipuzkoan bederatziz zeuden, lau Bizkain eta hiru Araban. Iparraldean egoera ahulagoa zen, hala ere, 1998an Aldudarrak elkarteak hainbat pausu eman zituen Ele Bista izeneko telebista antolatzeko.

5.4. Haur aldizkariak eta komikiak

5.4.1. Hegoko umeentzako aldizkariak

70eko eta 80ko hamarkadetan lehendik zetorren *Kili-kili* haur aldizkariari beste batzuk gehitu zaizkio Iparrean eta Hegoan. Honek arazoak izan ditu dirulaguntzak eskuratzeko, 2000.eko urteetan abertzaleak ez direnen aurkako mezuak argitaratzeagatik. 1976an sortu zen *Ipurbeltz* haur eta gaztetxoentzako aldizkaria, Erein argitaletxearen eskutik. Orduan ikastolen presidentea zen Aristegietak argitaldari honi proposatu zion, eta aldi berean marrazkilari talde bat ere bildu zuen, hor artean Antton Olariaga eta Mikel Plazaola. Hiru aro izan ditu aldizkariak, lehenean komikiak eta jolasak ziren nagusi, bigarreanean (1982. urteaz geroz) Mertxe Ezeizak eta Aitzpea Goenagak material didaktikoa egiten zuten, eta hirugarren aroan denetariko edukiak, komikiak eta beste, eskaintzen ziren. 1994an berrikuntza bat egin zuten. Umeek ere kazetari lana egiten dute. Gaur Miel Anjel Elustondok zuzentzen du. Batez ere harpidetza bidez banatzen da, batik bat Gipuzkoan. Guztira, 2.000 ale zabaltzen dira.

Horretaz aparte ikastola askotan aldizkaritxoak egiten dituzte umeek, hezkuntza sistemaren barruan komunikabideen garrantzia erakusle direnak.

5.4.2. Iparreko umeentzako aldizkariak

Iparrean, aldiz, 90eko hamarkadan *Xirrixta* eta *Kometa* sortu dira. 1992an jaio zen *Xirrixta* lau eta zortzi urte bitarteko umeentzat. Kattalin Totorika arduraduna izan da. Euskal Herriko ume gehienek ulertzeko moduko aldizkaria da, beraz Hegoan ere banatzen da. Bi mila bat harpidedun dituzte, 1.700 Hegoaldean eta 300 Iparraldean.

Kometa berdintsua da eta *Xirrixta*arekin lotuta dago, *Xirrixta*zaleak elkarteak biak sortu baititu. *Kometa* zortzi urte aurrerako umeentzat egina da. Mila harpidetza dute, horietatik 300 Hegoaldean. Bi aldizkarion kasuan, harpidetzek aurrekontuaren %40 ematen dute, gainontzekoa dirulaguntza ofizialetatik lortzen dute. Hala eta guztiz ere, 1998an etenaldi bat sufritu zuten.

5.4.3. Komikiak

Umeentzakoak ez badira ere, euskaraz helduentzako komiki batzuk agertu dira. 70eko hamarkadan *Gomiki 2*, *Ehun kilo* eta *Alde* aldizkariak argitaratu ziren. 1975ean *Anaitasunak* eta Lankide Aurrezki Kutxak *Komikia* atera zuten, Egileor, Jon Zabaleta marrazkilariekin eta Xabier Kintana idazlearekin.

Euskara ikasten ari direnentzat HABEK *Habekomik* sortu zuen 80eko hamarkadan. Euskal Herriko komiki-egile batzuek jatorrizko lanak argitaratzeko aukera izan dute bertan.

Hortik aurrera, komiki "alternatiboak" edo *underground* (nolabait izendatzeko) sortu dira. Aipatu dugu *Napartheid*, eta, euskaraz noizbait zer edo zer argitaratzen duelako, baita *TMEO* komikia ere.

6. BERRIPAPERAK

"Berripaper" hitzarekin kazetaritzan zaharra den forma adierazi nahi da: *newsletter*, hau da, gai zehatz bati buruzko informazioa jakitera ematen duen buletin txikia, orrialde gutxikoa, normalean postaz edo harpidetzaz interesatuei bidaltzen zaiena. Mundu anglosaxoian oso hedatua dagoen komunikabide hau (100.000tik gora omen daude munduan; Estatu Batuetan, adibidez, North American Basque Organizations - NABO - elkartearen *Hizketa* ize-nekoa argitaratzen du, eta Nevada-Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program ere bere *Newsletter*) Euskal Herrian ere erabili izan da XX. mendearen azken hamarkadatik aurrera. Bazegoen aurrekinik, adibidez

Arrasateko Eskola Politeknikoan Juanito Leibarrek makinaz egin eta fotokopiatutako *Gorabeherak*. Aitzindaria, baina, tokian tokiko prentsan aitzindaria izan zen bezalaxe, Joxe Aranzabal dugu, *Arrasate Presseko* lehen zuzendaria alegia.

The screenshot shows the homepage of the digital newspaper *Plazaberri*. At the top, the title "Plazaberri" is displayed in a large, stylized font. Below the title, the date "2006ko apirila - 1. zenbakia" and the logo "EUSKALTZAINDIA" are visible. A navigation menu includes "AZKEN ORDUKOAK". A sidebar on the left lists various content categories with their respective counts:

- Hizkuntza gaiak**: AZKEN ARALIAK ARGITARATU
- Berriak**: BERNARDO ATXAGA EUSKALTZAIN OSO, MIKEL ZALBIDE HAUTAGAI BAKARRA, ORDEZKARITZA BERRIA GASTEIZEN, ANDOLIN EGUZKITZAREN ARTXIBOAREN KATALOGAZIOA
- Literatur sariak**: 2005eko AZKUE LITERATUR SARIAK
- Datozen ekitaldiak**: PLAZIDO MUXIKAREN MENDEURRENA
- Izpiak**: EUROPAR BATASUNAZ

The main content area features a section titled "Euskaltzainburuaren agurra" (Greeting from the Euskaltzainburua). It includes a photograph of Andres Umütia, the Euskaltzainburua, and a text block:

Sarritan esan ohi da Euskaltzaindiaren zereginetan eginkizun dagoela bere lana egoki plazaratzea eta zabaltzea. Begien bistakoa da, bestalde, eskura dituela Euskararen Akademiak, xede hori betetzeko ahaleginetan, egungo teknika berriek eskaintzen dituzten baliabideak. Horretara dator *Plazaberri* agerkari digitala, Akademiaren prentsa-bulegoaren eskutik. Horixe da, izan ere, horren helbururik behinena: Euskaltzaindiaren eta Euskaltzaindiari buruzko informazio-xehetasunak modu erraz, arin eta adierazgarrian ematea, guztion zerbitzari eta laguntzaile.

Andres Umütia
euskaltzainburua

Below this, another section titled "Hizkuntza gaiak" (Language issues) contains a sub-section "Azken arauak argitaratu" (Latest laws published). It features a photograph of a meeting and text:

Argitaratu berri dira ondoren aipatzen diren arau hauek eta berehala bidaliko zaizkie harpidedunei, laugarren karpetarekin batera. Interneten jarrita daude kontsultagarri:

- [145. Bizkaiko herri izendegia](#)
- [146. Hiztegi Batua: c - dvandva](#)
- [147. Antzinateko hirien euskarazko izenak](#)

Azken araua aurtengo utarrileko osoko batzarrean onartu zuen Euskaltzaindiak.

The page concludes with a "Berriak" (News) section, starting with the headline "Bernardo Atxaga euskaltzain oso".

Plazaberri, Euskaltzaindiaren berriak dakartzan aldizkariaren 1. zenbakia, 2006ko apirilekoa

1991n hasi ziren Euskal Herrian berripaperak zabaltzen: Aranzabalek berak egin zituen Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikorako Idazkaritza Nagusiarena, euskararen inguruko berriak jakinarazten dituen (bi edizio,

euskarazkoa eta gaztelaniazkoa), *Euskararen berripapera* izenburupean, eta Arrasate Komunikabeak elkartearen (*Herriko*). Gero beste batzuk atera dira: adibidez, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararako Errektoreordetzak banatzen duen *Campus*, euskara hutsez eta euskarari buruzkoa; Ikerfolk elkartearena, *Pas de Basque*; Elgoibarko Izarra elkartearena (*Izarren Hautsa*) edo Eusko Ikaskuntzarena (*Asmoz ta Jakitez*, hirueleduna: frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz). Euskaltzaindiak ere noizbehinka argitaratu du beste bat, adibidez 1994an Leioan egin zen Biltzarraren egunetan, ekitaldi horren berri emateko. Milurteko berrian, *Plazaberri* izeneko aldizkaria ere argitaratu du.

Oso produktu malgu eta arina da berripapera: orrialde gutxi (4-12) izaten ditu, gai zehatz baten berri ematen du, ez dute azalik izaten, eta autoedizioz (ordenadore bat, inpresora bat eta eskaner bat erabiliz) egin daitezke. Joxe Aranzabalek sailkapen bat egin du (1994): erakundeen berripaperak (aipaturiko *Euskararen berripapera*, *Campus*), elkarteak (*Izarren Hautsa*, *Herriko*, *Gurean*, *Hizketa*, *EKB Berriak*, *Asmoz ta Jakitez*, oraingoz - 1998 - azkena den Andoaingo Larramendi Kultur Bazkunaren *Xudurluze*), parroki-orriak, enpresen barne informazioa dakarrenak (*Eroski*, *Lagun Aro Berriak*). Batzuk, gainera, Internetera pasatu dira, eta paperean baino lehenago argitaratzen dira ziberespazioan: *Asmoz ta Jakitez*, adibidez. Argi dago teknologia berriek antzinako forma hau berpiztu dutela.

7. PRENTSA KONTRAKULTURALA EDO UNDERGROUND

Zaku handi samar honetan hainbat gauza sartu ohi dira: fanzineak, prentsa musikala (rock eta bestelako musika gazteei buruzkoa alegia), sindikala, ezker abertzalekoa, homosexualen mugimendukoa, auzokideen aldizkariak eta talde politiko txiki batzuen aldizkariak. Horrela egin dute adibidez, Carlos Egiak eta Javier Bayónek bere liburuan (1997). Hain ezberdinak diren aldizkari eta komunikabideen gainetik badago ezaugarri komun bat: ezarritako boterearen kontrakoak edo kanpokoak, hau da, eredu dominatzailearen aurkakoak izatea. Hau, jakina, nahiko zehaztugabea da, horregatik hain gai ezberdinei buruzko komunikabideak sartzen baitira definizio honetan. Ikuspuntu "ezberdina" ematen duten komunikabideak sar daitezke sailkapen honetan.

Aipatutako autoreei jarraiki, honako multzoak ikus daitezke *kontrainformazioaren* panoraman. Lehenik eta behin, fanzineak, hau da, talde musikalei buruzko, rock estilo zehatz batzuei buruzko edo zenbait zaletasuni buruzko magazinak, askotan baliabide gutxirekin eginak. Hau ere aldatu da ordenadoreen zabalkundeari esker; lehen fotokopiaz eta eskuz egiten dena orain autoedizioz egin daiteke - eta egiten da -, eta fanzine hauek (*fan* batzuek egindako *magazinak*, hortik dator hitza) itxura profesionala badute.

Bigarren multzoa gaztetxeen eta gazte asanbladen inguruko aldizkariak ditugu, herri eta hiri askotan gazte ezkertiarren mugimenduen ingurukoak. Mugimendu antimilitarista ere nabaria izan da Hego Euskal Herrian azken hamarkadetan, eta hainbat aldizkari argitaratu izan dira: *Erresistentzia*, *Matxinada*, *Sarea*, *Ekintza zuzena* eta abar.

Hainbat talde alternatibok ere haien aldizkariak argitaratu dituzte: langabetuen batzarrek (*Gasteizko Langabezia*, adibidez), talde feministek (*Geu Emakumeok*, *Lanbroa*, *Sorginak*), auzokoek, hiesaren inguruko taldeek, homosexualek (*Aldarte*, *Gay Hotsa*, *Xut*), unibertsitateko taldeek (*7 baietz!*, *Sakontzen*, *Izar Beltza*), talde internazionalistek (*Aldarrika sarea*, *Amaiurko Quetzal Agiria*, *Herriak aske*), eta abar. Gehienak elebidunak dira, eta euskara nahiko testigantzakoa da. Gehienak, ezker abertzaletik gertukoak.

Agian sailkapen malgu samar honetan bestelako aldizkariak ere sartu behako genituzke: adibidez, 70eko hamarkadan *Araba Saudita (la mala okstia te kita)* elebiduna eta *Euskadi Sioux* satirikoak, eta gaur egun Ordiziako *Ostiela!*, non, beste testu kritiko batzuen artean - alde batekoak zein bestekoak - 1997an Matias Mujikaren euskarari buruzko libeloa agertu zen lehen aldiz. Baita *Napartheid* ere, batez ere komiki alternatiboari eskainitako aldizkari nafar euskarazkoa.

8. EUSKAL KOMUNIKABIDEAK INTERNETEN

8.1. Lehen pausuak

8.1.1. *Internet eta Mundu Osoko Amaraunaren (WWW) sorrera*

1989-1990. urteetan, orduan CERN laborategi europarreko zientzia-gizona zen Tim Berners-Leek programa bat asmatu zuen informazioa gordetzeko eta hipertestuaren aukerak aprobetxatzeko. "Hipertestu bat", zioen Berners-Leek, "aldi guztiekiko erreferentziak dituzten loturak egitekoa da, horregatik, testu arrunt batekin konparatuta, oso agiri indartsua egin daiteke". Urtebete geroago, 1991ko udan, zientzialari honek bere asmakizuna jarri zuen Interneten: World Wide Web zuen izena (Mundu Osoko Amarauna). Ordudanik, hasieran Estatu Batuetako armadak asmatutako sare bat zena (Arpanet) eta gero batez ere akademikoen zera bat izan zena guztientzako tresna bihurtu zen, orain dela bost mende Mendebaldean inprenta izan zenarekin pareka daitekeena. Gaur egun, Internet, beste zerbitzu batzuek osatua bada ere, WWWrekin identifikatzen da.

Jauzi kualitatibo hau gertatu zen Tim Berners-Leeren programak edizio elektronikoaren (digitalaren) aukera multimedialak inoiz baino hobeto erabiltzen zituelako, hau da, informazio ikusizkoa, soinuak eta testuala

batzen zituelako, eta informazio-kopuru eskergak, hipertestu edo hipermedia kontzeptuaren bitartez hierarkikoki eta organikoki antolatzea eta erlazionatuak bideratzea posible egiten zuelako. Mendebaldeko kulturaren hain erroturik zeuden kontzeptu batzuk, testu sekuentziala, irakurketa modua edo masa-komunikazioa adibidez, gaur egun krisian daude, beraien indarra, dudarik gabe, oraindik orain handia bada ere.

Argi dago beraz, Interneten eta batez ere WWWren zabalkundea egokia da kazetaritza berria sor dadin, kazetaritza elektronikoa (batzuetan "multimedia eta interaktibo" hitzak gehitzen dira, irratitik, telebistatik eta teletestutik bereizteko batez ere) edo, hitz anglosaxoia erabiltzearen, *online* kazetaritza. Kazeta eta bestelako hedabideak sarera igaro ziren, baina ez ziren oso azkarrak izan: uholde handia 1994an eta 1995ean gertatu zen, informazioa erabili eta eskaintzen zuten enpresa handiek Interneten beren produktuak jartzea erabaki zutenean. Lehen Estatu Batuetan, handik gutxira Europan, baita Espainian ere eta, berandu samar, Euskal Herrian. Erdarazkoak eta euskarazkoak.

Laster kazetaritza-argitalpen elektronikoak (zaila da guztiei "aldizkari" deitzea, guzti-guztiek ez baitute aldizkatasunik) milaka izan ziren munduan. Europan ere ehunka. Euskal Herrian, dozenaka. Hala ere, gurean arrakasta erlatiboa izan zen. Euskal Herriko enpresen kontserbadurismoaren ordainez kazetaritza elektronikoa berandu samar agertu zen. Arrazoi enpresarialengatik, ez teknikoengatik, adieraz daitezke ahulezia hau. Ezin dugu inolaz ere konparatu Euskal Herriko egoera Kataluniakoarekin, adibidez. Han oso goiz egin zuten jauzia, eta ausartak ere izan ziren: munduko egitasmo aurrerakoienetariko bat burutu zuten *El Periódico de Catalunya*koek, *newspad* izenekoak, hau da, erabat multimedia den egunkari elektronikoa bat jasotzeko xafra elektronikoa haririk gabeko bat.

8.2. Interneten dauden euskarazko komunikabideen sailkapena

8.2.1. Sailkapena egiteko irizpideak

1998ko lehen hiruhilabetearen Euskal Herrian 60 bat komunikabide zeuden. Horietatik dozena bat euskara hutsezkoak ziren, eta beste 18k bazuten euskaraz zer edo zer. Sailkapena egiteko, irizpide batzuk erabil daitezke. Alde batetik, orain arte erabiliena, hau da, komunikabide-motaren arabera (idatziak, ikus-entzunezkoak, eta haien barruan irratia -soinua nagusi- eta telebista -irudia nagusi- daudela), eta maiztasun edo aldizkatasunaren arabera. Badago beste irizpide bat, oraingoz oso gutxi azaltzen dena, baina aurreratzean -eta hau azpimarratzeari funtsezkoa deritzogu- nagusitu behar dena Interneteko komunikazioak arrakasta lortuko

badu: medio berrira egokitutako eta berez pentsatutako komunikabideak izatea.

8.2.2. Bertsio elektronikoa baino ez duten hedabideak

Azken irizpide hau kontuan harturik, oso gutxi dira Euskal Herrian munduan ere portzentualki oraingoz gutxiengo dira- bertsio elektronikoa baino ez duten komunikabideak. Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews* izeneko zerbitzu informaziokoa, Josemari Vélez de Mendizabalaren zuzendaritzapean, 1998ko hasieran sortu zen, Euskadi-Akitania-Nafarroa fondoaren dirulaguntza bati esker. Bertan Euskal Herri osoko informazioa ematen da, eta Interneten ezaugarri berrietara egokitzen saiatzen da. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egina da, diasporako euskaldunengana ere iritsi nahian.

8.2.3. Egunkariak

El Diario Vasco eta *El Correo*, lehena nahiko goiz (1995eko abuztuan), bigarrena nahiko berandu (1996ko azaroan) egon badaude. Euskaraz ezer gutxi -batere ez *El Correon-* zer edo zer *Diarion*, paperezko bertsioan bezalatsu. Bestalde, egunkari "elebidunak" (elebiduntzat har badaitezke euskaraz %25 baino gutxiago argitaratzen dutenak), *Egin* eta *Deia*, ezin izan ziren kontsultatu Interneten berandu arte. *Egin* itxita, haren ondoren sortu zen *Gara* hasieratik dago ziberespazioan ere. Nafarroan dauden bi egunkarietatik batek bakarrik egin zuen jauzi ziberespazioan, berriena alegia, *Diario de Noticias*. Paperean bezala, badu zertxobait euskaraz, baina gehien-gehiena erdaraz dago. Gero agertu zen *Diario de Navarra*, eta Espainian lehen kobratu zutenetariko bat izan zen.

Euskaldunon Egunkariaren kasuan, hasiera sorpresa bat izan zen, irakurle batek (Josu Azanzak) bere kabuz lehen orrialdeko titularrak eta sarrerak jarri baitzituen Interneten. Orrialde ez ofiziala zen, beraz. Gero Estatu Batuetako zerbitzari batean, Geocities-en, toponimo-zerrenda bat eta igandero argitaratzen ziren Gerra Zibilari buruzko erreportajeak (gehi horri buruzko material argitaragabe batzuk) jarri zituzten. Azken hauek kendu zituzten liburu batean argitaratu zirenean, 1997ko bukaeran, arrazoi komertzialak zirela medio. Sarearekiko interesa mantendu zuten ordea, horren seinale igandero bertsio inprimatuan agertzen zen Interneti buruzko atala, "Nabigatzen" izeneko. Edukiak ere Interneten aurki zitezkeen, artxibo moduan. 1997an Jaldi zerbitzaria sortu zen. Partaideak Eusenor (Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak osatua) ziren, laster gehitu zitzairen *Euskaldunon Egunkaria*, euskal "amarauna" bultzatu nahian.

Azkenean Interneteko edizioa ere agertu zen 1998an. Edizio digitala (ingelesez ere egiten zena laburki eginda ere) desagertu zen 2003an, paperezko bertsioa bezala, Entzutegi Nazionalaren aginduz. Laster langileek *Egunero* izeneko behin-behineko argitalpena sortu zuten, Interneten azkarrago egitearren eta aldi berean paperean. Berriz ere enpresa bat eratu zen euskara hutsezko egunkaria kaleratzeko eta urte bereko ekainean *Berria* sortu zen, aldi berean paperean zein ziberespazioan. Honek ere ingelesezko edizio laburtua izan zuen.

The screenshot shows the Berria website interface. At the top, there is a header with the 'berria' logo, the slogan 'Estatu BAT EGIN gurekin', and a search bar. Below the header, a navigation menu lists various categories like 'Berriak', 'Harian', 'Iritzia', etc. The main content area displays a news article with the headline 'Euskal kulturgintzaren aurka jo du Guardia Zibilak eta zortzi lagun atxilotu ditu'. To the right, there are sections for 'HARPIDEDUNEN KIOSKOA' and 'WEBGUNE BEREZIA'. The article text discusses the arrest of four people by the Guardia Civil against cultural workers.

Berria. Lehen aleetako bat, interneten.

8.2.4. Argia astekariaren apustua

Beste kasu paradigmatico bat *Argia* astekariarena da. Gainera, haiek sortu zuten euskarri fisikoan, CD-ROMean, lehen kazetaritza-produktua Euskal Herrian (1997an, baina Estatu Batuetan eta gainontzeko lekuetan 1990. urteaz gero bazeuden horrelako produktuak merkatuan), aldizkarian 1963tik 1997 bitartera argitaraturiko elkarrizketa guztiak biltzen zituen. Hori ere, bilaketa-motore batekin batera, bere webgunearen ardatza da, eta gero beste gauza batzuk ere jarriko zituztela zioten, astekariaren edukiak adibidez. *Argiakoek* egin dute besteek egin ez dutena, balore gehigarria ematea

produktu elektronikoari. Denboraren poderioz, Interneten aldeko apustua gero eta nabariagoa izan da.

8.2.5. Tokian tokiko aldizkariak

Aldizkariak, bestalde, askoz gehiago dira egunkariak baino. Tokian tokikoak gero eta gehiago dira Interneten. Ziberespazioan, berriro ere, mundu fisikoan gertaturiko fenomenoak errepikatzen dira. Lehenengoa *Tipi-ttapa* nafarra izan zen, gero *Santimariñe* bizkaitarra, eta ondoren *Otamotz*, *Aretxagazeta* eta *Bidasoaldeko Mobidak*. Abantailak badaude, nabarmenak gainera: irakurleak gehiago dira, adibidez herri horretatik kanpo bizi den bertako jendea, paperezkoak bezalaxe dohainik izaten jarraitzen dute, baina ekoizlearentzat merkeagoak, ez baitira inprimatu (ale fisikoak multiplikatuz) behar, ez eta banatu behar. Are gehiago: aurrekoen artxiboa eta bilaketa-sistema eskaini daiteke, paperezkoan egin ezin daitekeena. Berdin beste mota batzuetako aldizkariekin: kontrakulturalak (*Ezztanda*, adibidez), edo Unibertsitatekoak (gehienak, ordea, erdarazkoak). Goienera elkarteak ere sustatu du Internet, *e-Debagoienera* zerbitzua eskainiz, eta gero, *Goienanet*.

8.2.6. Kultur aldizkariak

Kultur aldizkariarentzat ere Internet oso landa aproposa da. Zientzi aldizkarien kasuan, are gehiago. Badute oso publiko zabala (esan nahi da, leku urrutietan ere dagoen publikoa), baina gutxiengo batek osatua. Zabalkunde fisikoa garestia da, are gehiago ale-kopuru murriztuz baterako. Publiko horrek, bestalde, berri zientifikoak oso arin jakin behar ditu. Ale kopuruen erreproduzioaren eta banaketaren kostua desagertzen da Interneten. Hala ere, Euskal Herrian zientzi eta kultur aldizkariak urriak dira. Badaude euskara ikasteari buruzkoak, *Aizu!* eta *Euskaltzale*. Eusko Ikaskuntzaren aldizkariak bertsio elektronikoa badute, PDF formatuan, eta ziberespazioan daude (artxiboa ere bai) digitalizatuak.

Berdin gertatzen da Euskal Herriko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko *Zer* aldizkariarekin. Aldi berean agertu ziren paperezko bertsioa eta digitala. Badago datu ezin interesgarriago bat: paperean 500 bat ale agertzen dira, eta ehun bat harpide ditu. Bertsio digitala, aldiz, 1997an (lehen hiru zenbakietan) 8.500 kontsulta izan zituen. Onartzen badugu ere kontsulta bakoitzeko 4-8 orrialde ikusten direla, horrek esan nahi du *Zer* digitalak mila edo bi mila irakurle dituela. Edo gehiago: kontuan harturik zientzi aldizkarietan irakurleek artikulua bat edo bi, gehien-gehienez, irakurtzen dutela, eta artikulua bakoitza web orri bat dela, baliteke irakurleak sei mila bat izatea, hau da, bi mila zenbaki bakoitzeko. Are garrantzitsuago, *Zer* digitala kontsultatzen duten askok eta askok ez lukete bestela aldizkaria

irakurriko, bai testu zehatz batzuk baino ez zaizkiela interesatzen, ez aldizkari osoa, bai bizi direlako aldizkaria banatzen ez diren lekuetan, eta garestia izango litzateke ale fisikoak eramatea. Bere zuzendaria zen Carmelo Garitaonaindiak 1997ko azaroko *Deian* zioenez, kontsulten erdia Espainiatik zetorren, eta gainontzeko %40 Estatu Batuetatik.

Argi dago, beraz, nola kultur aldizkariak beren merkatua izugarri zabaltzen duten Internetera igaroz, nahiz eta txikiak izan. Euskaraz badago zerbait, gehiena gaztelaniaz eta testuren bat ere (gero eta gehiago, merkatuak hala eskatuta), ingelesez. Egia da, jakina, arlo geografikoa handitzean ingeleza nagusitzeko joera agertzen dela, baina hizkuntza aniztasuna ere posible da: espazio fisiko aldetik (paperezko bertsioetan ez bezala) mugarik ez dagoenez, testuak hizkuntza batzuetan eskaini daitezke.

8.2.7. Aldizkari ofizialak

Azkenik, Euskal Herriko kazetaritza-produktu digitalen tipologia agortzeko, aldizkari ofizialak aipatu behar dira. Espainian ere, *El Temps* aldizkari valentziarraren bertsio digitalarekin batera, ziberespazioko lehena *Boletín Oficial del Estado* izan zela. Honek, joera ia unibertsalaren aurka, hasiera-hasieratik kobratzen du, informazio ofiziala dohainik eskaini beharrean. Badirudi aldizkari ofizialetan joera hori nagusituko dela. Euskal Herrian ez daude sarean aldizkari ofizial guztiak, baina bai mordoska bat: *Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala*, Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa badaude, guztiak, dakigunez, elebidunak. Bizkaikoa eta Arabakoa falta dira, beraz. Eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE-IVAP) aldizkari euskarazkoa badago: *Administrazio Euskaraz Aldizkaria*.

9. GAUR EGUNGO KOMUNIKABIDE-KOPURUA ETA MOTA

Euskarazko komunikazioaren panorama, gaur egun, denetariko komunikabideak ditu, egoera idilikoa ez den arren. Adierazi dugun legez, euskara hutsezko lehen egunkaria 1937an argitaratu zen, oso egoera berezian: gerra batean. Ezinezkoa da jakitea zer gertatu zitekeen frankistek gerra irabazi ez balute, euskara hutsezko benetako merkatu bat egongo ote zen, egunkari mantentzeko irakurleria nahiko bat egongo ote zen.

Euskarazko bigarren egunkaria ez zen 1990 arte argitaratu. Jaiotza oso polemikoa izan zen: Eusko Jaurlaritzak agindu zuen merkatu-ikerketak euskara hutsezko egunkari bakarrarentzako lekua zegoela zioenez, gero *Euskaldunon Egunkaria* izango zenaren ekimen pribatuak eta, behin-behinean *Egunero* deitu zioten gobernu autonomoaren egitasmoak elkarren aurka borrokatu zuten. Lehenengoak gailendu zirenez, urte batzuetan Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emateari uko egin zion. Egunkariaren bizitza bat-


batean bukatu zen, epailearen aginduz itxi baitzen 2003an. Gaur ere badago Euskal Herri osorako euskara hutsezko egunkari bat, *Euskaldunon Egunkariaren* ondorengoa den *Berria* (2003ko udan sorturikoa), eta tokian tokiko beste batzuk ere badaude, talde beraren barruan, *Hitza* izenekoak. 2007an *Nora* bidaia-aldizkaria argitara eman dute. Beste egitasmo batzuez ere mintzatu da, hala nola *El Diario Vascoren* enpresaren egunkari bat. Gipuzkoan bakarrik banatuko litzateke, eta abantaila batzuk edukiko lituzke: enpresak makineria propioa duenez, itxiera-ordua beranduago gerta zitekeen, eta azken orduko berriak ere inprima zitezkeen; astelehenetan agertuko zen; eta atzerriko berriemaileen sarea aprobetxa zitekeen, testuak itzuliz eta horrenbeste agentzia-albisteak erabili gabe. Oraindik ere, baina, ez da egitasmo hori ondu. Beste egunkariak euskararen portzentaia aldakorrak eskaintzen ditu, baina batek ere ez du orrialde-kopuruen %15 baino gehiago ematen.

Azken bi hamarkadetan tokiak tokiko merkatua asko indartu da. Gertuko informazioa eskainiz, eta bertako hizkuntzan (batzuetan, tokian tokiko azpieuskalkia ere erabiltzen da), normalean astekariak diren aldizkari horiek guztiek oso irakurleria fidel bat bereganatu dute; gehienak dohainik banatzen dira eta herrietako publizitatea eskaintzen dute, zabalkunde geografiko handiagoko prentsan zail ager daitekeena.

Taula gisa eskaintzen ditugun datu hauek lurralde bakoitzaren pisua zein den ulertzen lagunduko digute. Duda izpirik gabe, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoa da euskarazko aldizkari gehien dituen, bi arrazoiengatik: euskararen erabilera (Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian baino gehiago mintzatzen da) eta dirulaguntzen politika publikoa. Laguntza hauek, bestalde, ez dira prentsarentzako izaten, euskarazko argitalpenak sustatzeko baino.

Euskarazko aldizkariak (2004)

| | Aldizkarien kopurua | Portzentaia |
|--------------------|---------------------|-------------|
| Araba | 2 | %2 |
| Bizkaia | 18 | %17 |
| Gipuzkoa | 32 | %31 |
| Euskal Herria | 44 | %42 |
| Nafarroa | 6 | %6 |
| Ipar Euskal Herria | 2 | %2 |
| Oro har | 104 | 100% |



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza eta (EUSTAT).
Autorearen elaborazioa.

Grafiko honetan ikus daitekeenez, Euskal Herri osorako aldizkariak nagusi dira: *Berria* astekaria eta *Argia* astekaria dira zabalkunde gehien dutenak, dudarik gabe. 2004an euskaraz argitaratzen diren argitalpenen herena gipuzkoarrak ziren, gehienak tokian tokiko aldizkariak. Bizkaiko garrantzia txikiagoa da, %17. Nafarroakoa, Arabakoa eta Iparraldekoa are txikiagoa da, %2-%6.

Izan ere, komunikabideetan euskararen erabilera marjinala da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak dioenez, *Berria* alde batera utzita, euskararen presentzia %5koa baino altuxeagoa da bakarrik *Garan* (%19,6) eta *Deian* (%6,1). Oro har, euskarak egunkarietan (*Berria* barne) duen batz besteko presentzia %11,6koa da. Zabalkundearen arabera, euskararen lekua txikiagoa ere bada (Euskal Herrian batz bestekoa %6,4koa da). Kontsumoaren arabera, %6koa baino ez da.

Irratian euskararen presentzia %16,4koa da. Irrati nagusiak Euskadi Irratia (konbentzionala) eta Euskadi Gaztea (irradi-formula) dira, biak EITB taldearenak. Tokian tokiko edo lurraldeko beste irrati asko ere badaude, beren programazio osoa edo parte bat euskaraz eskaintzen dutenak.

Ipar Euskal Herrian, euskaraz aritzen diren hiru emisore, batik bat, aipatu behar dira: Xiberoko Boza (Maule), Irulegiko Herri Irratia eta Gure Irratia, biak Baionakoak. Komunikabide idatzietan, *Herria* da garrantzitsuen.

Estilo-liburu batzuk argitaratu dira. Aurrekin historiko gisa, Gipuzkoak Beterriko barietateari lehenatasuna ematen zioten *Argiaren* arau ortografiko, aditz-paradigma eta deklinabideak aipatu behar dira. Baita Piarres Lafitteren *Grammaire du Navarra-labourdin litteraire* liburua, *Eskualdunaren* eta bere ondorengo den *Herriaren* estandarra.

Gaur egun, estilo-liburu nagusiak EITBrena eta *Euskaldunon Egunkariarena* (1993tik argitalpen batzuk izan zituen) eta, 2007an, *Berriarena*. Hiru hauek euskara batuari lehentasuna ematen diote. Bestela, tokian tokiko hainbat aldizkarik ere beren arauak sortu dituzte, bertako euskalkia edo azpieuskalkia sendotzeko. 1990eko hamarkadaren bukaeran *Aretxagazeta* aldizkariarentzat egin zena kasu. 2007an *Goiena* taldearena agertu da. Besteren bat aipatzea merezi du: *Komunikabideetan sexismoa ekiditzeko. Estilo liburu* eta Euskal Administrazio Erakundearena, biak 2005ekoak.

Azpmarratu behar da Euskal Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, prentsaren irakurle-kopurua Espainiako altuena dela. *Berriak* irakurleen %4 ditu. Vocento taldearen komunikabideek merkatua menperatzen dute *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariak Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko irakurleriaren %63.

Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko eguneroko prentsaren irakurleak (2006)

| | Aleak | Portzentaia |
|-------------------------------------|------------------|------------------|
| El Correo Español - El Pueblo Vasco | 459.000 | 39 |
| El Diario Vasco | 284.000 | 24 |
| Gara | 100.000 | 8 |
| Deia | 81.000 | 7 |
| Marca - Ed. País Vasco | 66.000 | 6 |
| Berria | 53.000 | 4 |
| El País - Ed País Vasco | 47.000 | 4 |
| El Mundo del País Vasco | 38.000 | 3 |
| El Mundo Deportivo | 29.000 | 2 |
| Noticias de Gipuzkoa | 19.000 | 2 |
| Diario de Noticias de Álava | 16.000 | 1 |
| Oro har | 1.192.000 | 1.192.000 |

Iturria: Oficina de Justificación de la Difusión (O.J.D.) eta CIES. *Estudio de Audiencia de medios de la C.A. de Euskadi*

Komunikabide guztiak kontuan hartuta, idatziak zein ikus-entzunezkoak, euskararen erabilera ere gutxienena da. Telebista da Euskal Herriko biztanleriak gehien kontsultatzen duen komunikabidea; %85ak aitortzen du egunero ikusten duela. ETB-1, euskarazko kanal publikoa, %9,9ak ikusten du. Telebistaren ondoren irratia dator. EHAeko biztanleen %57,7k entzuten du egunero. Euskarazko irratia %6,8k entzuten du, batik bat Euskadi Irratia eta Gipuzkoako Herri Irratia. Azkenik, EHAeko biztanleriaren erdiak (%49,8k) eguneroko prentsa irakurtzen du; euskaraz %2,8k baino ez. Kasu guztietan, komunikabide guztietan euskarazko komunikabideei dagokienez

audientzia gehien dituen lurraldea Gipuzkoa. Telebista nagusitzen da, gipuzkoarren %18,1k euskaraz ikusten baitute.

Komunikabideen audientzia, lurraldekoa (%). 2006

| | EHA/E | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| Prentsa, oro har | 49,8 | 48,8 | 45,5 | 57,6 |
| Berria | 2,8 | 1,5 | 1,8 | 5,2 |
| Irratia, oro har | 57,7 | 59,2 | 56,4 | 59,0 |
| Euskadi Irratia | 3,7 | 1,6 | 1,3 | 8,8 |
| Herri Irratia | 3,1 | 0,7 | 2,6 | 4,8 |
| Telebista, oro har | 85,0 | 81,6 | 84,9 | 86,5 |
| ETB-1 | 9,9 | 6,0 | 5,9 | 18,1 |

Iturria: CIES. *Estudio de Audiencia de medios de la C. A. de Euskadi.*

Azkenik, interneten ere euskararen presentzia areagotu da. *El impacto de internet en los medios de comunicación vascos* (2007) izeneko liburuaren 7. atalean jasotzen ditugun konklusioak honako hauek dira:

- Euskal Herriko ziberkomunikabide gehienek euskara erabiltzen dute; horietatik, %30k modu esanguratsu batean egiten du. Bide batez esanda, hizkuntzak berak duen hizlarien portzentaia da.
- Lurralde euskaldunetan, Gipuzkoan eta, neurri txikiago batean, Bizkaian, sortu dira euskarazko ziberkomunikabide gehienak (%90). Euskaraz hitz egiten duen hiriburu bakarra den Donostiaren pisua ere oso esanguratsua da.
- Euskaraz erabiltzen duten ziberkomunikabide gehienak egunkariak dira edo oinarri horretan berritzen dituzten euren edukiak. Euskaldun gehien dituzten eskualdeetako egunkariak nagusitzen dira. Oso mugimendu gipuzkoarra da, bide batez esanda. *Goiena.net*, Deba Goieneko tokian tokiko komunikabide inprimatu edo ikus-entzunezko batzuetan oinarritutako webgunea er oso garrantzitsua da.
- Euskarazko komunikabide gehienak errebistak dira, magazinak. Gehienak, tokian tokikoak. Euskalkiak erabiltzen dituztenak hauexek dira. Bestelako komunikabide guztiek euskara batua erabiltzen dute, eta esan beharra dago euskalkiak erabiltzen dituzten tokian tokiko komunikabideek, barietate dialektalekin batera, batua ere erabiltzen dutela. Euskalkiak komunikabide inprimatuetan baino gutxiago erabiltzen dira, bestalde.
- Batua ez diren bestelako euskalkiak (normalizazio eta gramatikalizazio gradua ezberdina da) mendebaleko hizkuntz eremukoak dira edota Bizkian dute goitza soziala.
- Ziberkomunikabideen portzentaia txiki batek publizitatea onartzen du. Dirulaguntzez sostengaturiko unibertsoa da. Esate baterako, *Goiena.net*ek 2003an beren diru-iturrien %52,83 dirulaguntzetatik zetorren, komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko kontzeptuan. Diru hori

Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailetik etorri zitzaien (Larrañaga, 2005: 152). Elkarte edo baltzu anonimo edo mugatu gutxi daude, eta bestelako figura legalak nagusi dira.

- Komunikabide gehienak beste komunikabide inprimatu edo ikus-entzunezkoetatik datoz. Hala ere, laurdena edo propio interneterako sortuak dira.

- Hala eta guztiz ere, kazetaritza hiritarrari dagokionez, baliabide interaktiboak gutxi erabiltzen dira. Testua nagusi da eta gutxi erabiltzen dira foruak, chatak edo inkestak. Merkatu honetan asko falta da lengoia digitalaren baliabide guztiak erabiltzeko.

10. ETORKIZUNARI BEGIRA

Euskararen egoera komunikabideetan gizartearen erabileratik oso urrun ez dago. Merkatu marjinala, lurraldeetan erabilera oso ezberdina, hala eta guztiz ere azken urteotan indartu da pixka bat, komunikabide publikoei (EITB), aldizkariari (*Argia*, *Aldaketa 16*) eta *Berria* egunkariari esker. Hala eta guztiz ere, azken bolada honetako eskasiak ere mantentzen dira: ikus-entzunezko komunikabide nagusiek oso denbora gutxi, de ezer ez, ematen diote euskarari. Ezta deskonexio lurraldetarretan. Adibide bat baino ez aipatzearren, Tele 5k ematen dituen pilota partidak erdaraz komentatzen dira. Euskararen Normalizazioaren Legeak agindutakoa ere ez da betetzen ezta estatuko komunikabideetan ere (RTVE), non euskararen presentzia eskasa den: izenburu batzuen itzulpena, besterik ez.

Bestalde, merkatuak ametituko balu ere, euskara hutsezko beste egunkaririk ez da kaleratu. *Diario Vascok*, esan bezala, pentsatu izan du. Gipuzkoan irakurketa-indizea oso altua da, eta belaunaldi berriek badakite euskaraz irakurtzen. Egunkari guztiak gazteen bila dabilzan garai hauetan, arraroa ematen du ez saiatu izana, Gipuzkoa euskaldunen portzentajerik altuena duen lurraldea baita. *Zabalik* gehigarriak ere euskara hutsezko egunkarirako proba bat ematen zuen. Beharbada, ETAk 2003an *Diario Vascoren* gerentea hiltzeak badu zerikusirik. Izan ere, euskarazko komunikabide gehienak abertzaleak dira.



Lunes, 3 de noviembre de 2003

Respuestas a este mensaje

Berriak euskeraz / Edición en euskera Escrito por DIARIOVASCO.COM - 22-09-03 17.04

Agurrak forista guztioi,

lehenik eta lehen eskaera hau, halaber euskaraz idatzirik dagoen DIARIOVASCO.COM-eko edizioa, egin duten foristei eskerrak eman nahi genieke. Momentu hau aprobetxatu nahi dugu jakinerazteko gaur egun proiektu hau eta bere itxura edota aurkezpena nola egin daitekeen aztertzen ari garela.

Mila esker igorritako komentarioengatik eta nahi izanez gero zuen sugerentziak bidali ditzakezue.

Agur bero bat,

DIARIOVASCO.COM

Saludos al foro,

agradecemos las sugerencias y los comentarios que varios foristas han realizado en torno a la creación de una edición en euskera de DIARIOVASCO.COM Aprovechamos esta ocasión para comentarios que en estos momentos nos encontramos estudiando esta posibilidad, así como analizando el modelo y presencia que tendría de dicha edición.

Gracias por vuestros comentarios y no dudéis en hacernos llegar las sugerencias que estiméis oportunas.

Un saludo,

DIARIOVASCO.COM

2003n *Diario Vascok* euskarazko edizio bat argitaratzeko ideia izan zuen

Euskarazko kazetaritzarentzako hazkundera, gure ustez, bi komunikabide motetatik etorriko da: tokian tokiko prentsa eta internet. Tokian tokiko aldizkariak irakurle euskaldun portzentaia handi bat dute; baita publizitatea ere. XXI. mendearekin batera, dohaineko prentsak, egunkariak eta tokian tokiko aldizkariak tokian tokiko egunkariak sortu dituzte. Bestalde, *Goiena.net* bezalako komunikabideek sarearen aukerak aprobetxatzen saiatzen dira. Audientzia gehien duten komunikabideek, bestalde, ez dute beharrezko ikusten euskara komunikazio-tresna gisa erabiltzea.

Aurkibide kronologikoa

- 1766 *Jaun Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea* (Baiona)
- 1815 Jose Paulo Ulibarriren *Eusquerasco egunaria erderazcotic itzuliya Vizcaya, Guipuzcoa eta Arabaco probintziarentzat 1815garren urterako* (Bilbo).
- 1834 *El Correo del Norte* (liberala, Donostia).
- 1848 Joseph Augustin Chahoren *Uscal Herrico Gaseta* (Baiona).
Jean Baptiste Etcheberryren *Escualdun laborarien adiskidea*.
- 1852 Joseph Augustin Chahoren *Le Republicain de Vasconieren* azken zenbakia euskaraz.
Egunari berria edo conseillu oneco almanaca (errepublikazalea, Paue).
- 1858 Joseph Gorosabelen *Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat Santa Eufemia. Eta da Medicua Arlabanco erditic. Aurtengo urteraco dauca epactida zazpi* (Bilbo). 1859an ere argitaratu zen.
- 1865 *Euscaldun necazarien adiskidea* (Tolosa).
- 1866 *Euscaldun necazarien adiskidea* desagertu da.
- 1877 Serafin Barojaren *Santo Tomasco feriya* (Donostia).
Fedearen Propagacioneco Urtecaria hasi da argitaratzen Baionan.
- 1878 Serafin Barojaren *Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz) para el año de 1879* (Donostia).
Laurac Bat (Buenos Aires).
Revista Euskara (Iruñea).

- 1879 *Almanaka berria edo egunaria* (Baiona, errepublikazalea).
- 1880 *Laurak bat* (Montevideo).
Jose Manterolaren *Euskal Erria* (Donostia).
- 1883 *El Eco de San Sebastián* egunkariaren *¡Erne euskaldúnak!* Euskal gehigarria.
- 1885 Jean Duvoisin *Escualdun almanaca edo egunari berria* (Baiona).
Martin V. Biscailuzen *Escualdun Gazeta* (Los Angeles).
- 1886 *Le Réveil Basque* (Paue, errepublikazalea).
Euskara (Linschmann eta Hannemann, Berlin).
- 1887 *Eskualduna* (Baiona, xuria).
- 1888 *Armanak uskara* (Zuberoa, xuria).
Gure Izarra. Euscalerrico berriac astean bein (Paris).
Almanach berria edo Ziberouko eta Basa-Nabarreco egunaria (Paue, errepublikazalea).
- 1893 Jose R. Uriarteren *La Basconia* (Buenos Aires).
J.-P.Goytinoren *California-ko Eskual Herria* (Los Angeles).
- 1894 Sabino Aranaren *Bizkaitarra* sortu da Bilbon.
Le Réveil Basque desagertu da.
- 1895 *Bizkaitarra* desagertu da. *Baserritarra* sortu du Sabino Aranak.
- 1896 *Euskara* desagertu da.
Euskalduna (Bilbo, euskalerrriakoa).
- 1897 *California-ko Eskual Herria* desagertu da.
Resurrección Maria Azkueren *Euskaltzale* sortu da Bilbon.
- 1898 Donostiako *El Fuerista* jeltzale bihurtu da. Maiatzean desagertu da.
- 1899 *Euskaltzale* desagertu da.
- 1901 *Euzkadi* aldizkari kultural jeltzalea sortu da Bilbon. Urte berean desagertu da lehen aldiz.
La Patria abertzalea sortu da Bilbon.

¡Adelante!, Eibarko sozialisten aldizkaria, sortu da. Badu zerbait euskaraz.

1902 *Ibaizabal* sortu da Bilbon, Azkueren eta *Kirikiñoren* zuzendaritzapean.

1903 *Ibaizabal* desagertu da.

La Patria desagertu da. *Patria* sortu da Bilbon.

Gipuzkoako Nekazaritza agertu da Donostian, Ignacio Núñez Arizmendiren zuzendaritzapean.

1904 *Eskualduna Eskualdun ona* bihurtu da, Jean Hiriart-Urrutyren eskutan.

Baserritarra, nekazaritzari buruzko aldizkaria, agertu da Donostian, Ignacio Núñez Arizmendi zuzendari dela.

1905 *Euzkadi* aldizkari jeltzale kulturala agertu da berriro Bilbon.

1906 *Patria* desagertu eta *Aberri* sortu da Bilbon.

1907 *Eskualduna* astekariak bere izenburua berreskuratu du, jabea zen Louis Etcheverry hildakoan.

Revista Internacional de los Estudios Vascos (Julio de Urquijo, Paris eta Donostia).

Euskal Esnalea hasi da agertzen, Gregorio Mujika zuzendaria dela, Donostian.

Eskualtzaleen-Biltzarra (Baiona).

Gipuzkoarra astekari jeltzalea hasi da Donostian argitaratzen.

Euzkotarra hilabetekari abertzalea sortu da Mexikon.

JEL aldizkari jeltzale kultural-politikoak agertu da Bilbon.

Gipuzkoako Nekazaritza desagertu da.

Baserritarra aldizkarian Victoriano Iraolak egindako komiki pare bat agertu da, euskarazko lehenak.

1908 *Aberri* desagertu da.

Euzkotarra Chihuahuan argitaratzen jarraitu dute.

JEL desagertu da.

1909 *Euzkotarra* New Orleansera pasatu da.

- Bizkaitarra* agertu da Bilbon.
- Boletín Pecuario de la Excma. Diputación de Vizcaya* delakoan euskarazko testuak agertzen hasi da.
- 1910 *Argitzalea. Organe Républicain Hebdomadaire du Pays Basque-Français* (Baiona, errepublikazalea).
- Azkatasuna* aldizkari abertzale liberala sortu da Bilbon.
- Eibarko *El Kantabriko. Revista de Ciencias* elebiduna kaleratu da.
- 1911 *Euskal Esnalea Euskalerrriaren alde* aldizkariaren euskal gehigarria bihurtu da.
- Napartarra* jeltzalea sortu da Iruñean, Salvador Garijo zuzendari duela.
- Azkatasuna* desagertu da.
- San Frances Terziaren hilabethekaria* agertu da Baionan.
- Baserritarra* desagertu da.
- 1912 *Napartarra* Euzko Alderdi Jeltzalearen Napar Buru Batzarraren bozeramale bihurtu da.
- Arabarra* jeltzalea sortu da Gasteizen.
- San Francesen Deia* agertu da Baionan.
- Jaungoiko-Zale* aldizkari erlijiosoa atera du izen berdineko elkarteak Zornotzan.
- 1913 *Euzkotarra* agertu da berriro Buenos Airesen.
- Arabarra* desagertu da lehen aldiz.
- Euzkadi* egunkari jeltzalea agertu da Bilbon. Ebaristo Bustintza *Kirikiño* da euskal atalaren arduraduna.
- Hirugarrengo Prantzisko'tarra* agertu da Iruñean.
- 1914 *Argitzalea Le Pays Basque-Eskual Herriarekin* batu da.
- Euzkadi* aldizkari jeltzale kulturala desagertu da Bilbon.
- ¡Adelante!* desagertu da.
- 1915 Eibarko jeltzaleek *¡Jaiki!* argitaratu dute.
- 1916 *Euzko Deya* sortu du Bilbon Euzkeltzale Bazkunak.

- 1917 *Napartarraren* zuzendaria, Salvador Garijo, hil da. Aldizkaria ez da ekainetik azaroa arte agertu. Gero berriro agertu da Jose Agerreren zuzendaritzapean.
- Hermes* aldizkari kultural abertzale heterodoxoa sortu da Bilbon. Testuren bat euskaraz dago.
- Jesus'en Biotzaren Deya* hasi da argitaratzen Bilbon.
- Euzko-Deyan* lehen komiki-sorta euskarazkoa azaldu da: *Teles eta Niko*.
- 1918 *Arabarra* agertu da berriro Gasteizen.
- Eusko Ikaskuntza agertu da. *RIEV* bere bozeramale bihurtu da.
- Jean-Blaise Adéma kalonjea, *Eskualdunaren* zuzendari berria.
- 1919 *Napartarra* desagertu da.
- Arabarra* bigarren aldiz desagertu da.
- Bizkai-Aldundijaren Abeluin-Baso-Ingurtija* agertu da Bilbon.
- Euskaltzaindia sortu da. Lehen euskaltzainak, R. M. Azkue euskaltzainburua dela, euskal aldizkarien zuzendariak dira. *Euskera* aldizkaria bere bozeramalea izango da.
- Iruñeako kaputxinoek *Zeruko Argia* sortu dute. Zuzendaria Damaso Intza da.
- Junior* agertu da Donostian.
- 1920 *Euzko Deya* desagertu da lehen aldiz.
- Euskaltzaindiak euskal testuak egunkarietara bidaltzeko antolatu du Bilbon, euskara hutsezko egunkari baterako egitasmoa buruan duela.
- Gipuzkoarra* berriro agertu da.
- 1921 *Euzko Deya* agertu da berriro.
- Argia* sortu da Donostian. Lehen zuzendaria Jesus Karrera jesuita da. *Argia'ren Egutegia* ere urtero kaleratuko zuten.
- Kendu* agertu da.
- Kaiku, asteroko ingi abertzale ta irritsua* agertu da Donostian.
- Eleiz-orria* agertu da Zornotzan. Jaungoiko Zale Bazkunak ere *Zeruko Izpitxoak* eta *Gastien Laguna* aldizkaritxoak argitaratzen zituen.

Bizkaian ere *Busturia'ko Kistar Ikastia* eta *Umetxuen Adizkidea* aldizkaritxo erlijiosoak agertzen ziren.

Aranzazu hasi da agertzen.

Gure Herria aldizkari kulturala sortu da Iparraldean.

1922 *Euzkotarra* izeneko beste aldizkari bat argitaratu da Donostian.

Hermes desagertu da.

1923 *Euzko Deya* desagertu da.

Jesus Karrera hil ondoren, Bittor Garitaonaindiak hartu du *Argiaren* zuzendaritza.

Primo de Riverak zenbait euskal aldizkari debekatu ditu: *Aberri*, *¡Jaiki!*, *Gipuzkoarra*, *Kendu* eta *Kaiku* desagertu dira.

Iruñeako kaputxinoek Euskaltzaindiari euskara hutsezko komiki-aldizkari bat umeentzat argitaratzea proposatu diote.

1924 *Ecos de San Felicísimo* aldizkari erlijioso elebiduna kaleratu da.

Adémak *Eskualdunaren* zuzendaritza utzi eta Jean St. Pierre zuzendari berri izendatu dute.

1925 Donostiako Irratia sortu da. Euskarazko irratsaioak ere egin dira.

1927 Donostiako luistarrek, *Junior* argitaratzen zutenek, *Gure Mutillak* kaleratu dute.

Gasteizko seminaristek *Gymnasium* sortu dute.

Lehen euskara hutsezko komiki-aldizkaria sortu da Donostian: *Txistu*. Hamabi ale argitaratu ondoren, desagertu egin da.

1929 Ebaristo Bustintza *Kirikiño* hil da. *Euzkadiko* euskal atala arduratzen hasi da Nikolas Ormaetxea *Orixe*.

Bittor Garitaonaindia hil da. Ander Artzeluz *Luzean* bihurtu da *Argiaren* zuzendari.

Lizardik, Txomin Agirrek eta bestek euskara hutsezko egunkari baten egitasmoa azaldu dute.

Euzkerea aldizkari kultural jeltzalea agertu da Bilbon.

1930 Euskal egunkariaren egitasmoak porrot egin du. Donostian *El Día* agertu da. Badu euskal atala, Ander Artzeluzek zuzendua.

- Jean St. Pierrek *Eskualduna* utzi eta Domingo Soubelet da zuzendari berria.
- 1931 *Arrati'ko Deya* sortu da Eulogio Gorostiagaren kemenez, Areatzan.
Jaungoiko-Zale desagertu eta *Ekin* sortu da.
Orixek Euzkadi utzi du. *Lauaxetak* hartu du euskal atalaren ardura.
Euskaltzaleen-Deia argitaratu da.
 Iruñeako jeltzaleek *Amayur* aldizkari elebiduna kaleratzeari ekin diote.
- 1932 *Arrati'ko Deya* desagertu da.
Euzko astekari abertzalea sortu da Bilbon, Manuel Ziarsoloren zuzendaritzapean. Horrekin batera *Gastetxu* komiki-aldizkaria argitaratu da.
Arabarraren beste aro bat hasi da.
Eibarko ¡Jaiki! Jeltzalearen bigarren aroa.
Bermeotarra aldizkari jeltzalea kaleratu da.
Baskonia izeneko aldizkaria argitaratu da Bartzelonan. Abertzale liberala da.
Mendigoxale agertu da lehen aldiz. Jeltzale eskubitarrek ere *Jagi-jagi* kaleratu dute.
 Ander Artzeluzek eta Joseba Zubimendik asteroko euskal irratsaio bat egiteari ekin diote.
- 1933 Euskaltzaleak taldeak *Yakintza* kultur-aldizkaria hasi da kaleratzen.
 Jeltzaleek *Arabarra* kaleratzen uzteari erabaki dute.
 A.N.V.k *Tierra Vasca* egunkari elebiduna kaleratu du.
- 1934 *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia* sortu da Bilbon.
 Anizeto Zugastik hartu du *Argiaren* ardura.
Euzko desagertu da.
Tierra Vasca desagertu da lehen aldiz.
 Pierre Lafittek eta beste gazte batzuek *Aintzina* sortu dute.
Elgar, Journal des Basques de Paris sortu da.

Gauden gu eskualdun almanaka xuria.

Euskarazko gauza batzuk aireratu ditu Radio Parisek.

1935 *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia* desagertu da.

Argia magazin bihurtzen hasi da.

Poxpolin komiki-aldizkaria argitaratu da Tolosan.

1936 Gerra hasi da. Euskal aldizkari asko desagertu dira: Bizkaian *Euzke-rea*, *Bizkaitarra*, *Jagi-jagi*, *Ekin*, *Euskera*, *Karmen'go Argia* eta *Txistularia*, Gipuzkoan *Poxpolin*, *Argia*, *Gipuzkoarra*, *El Día*, *Antzerti*, *Eusko* Langille, *Igandeko orria*, *Yakintza* eta *Anuario de Eusko Folklore*, Nafarroan *Amayur*, *La Voz de Navarra* eta *Zeruko Argia*, Araban *Gure Mixiolaria*.

Lehen *Aintzina* desagertu da.

Euzkadi Irratia sortu da, hasieran Deban, gero Getxon. Radio Emisora Bilbaínak ere euskarazko irratsaioak egin ditu Gerran.

Eusko Jaurlaritza sortu da. Bereganatze politikagatik, asaldatuena aldeko egunkariak desagertu eta beren lantegietan beste batzuk argitaratu dira: A.N.V.ren *Tierra Vasca*, komunisten *Euzkadi Roja* eta *Erri*, jeltzaleen *Lan Deya*.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa, egunkari ofiziala.

Parisen *Euzko Deya* abian jarri du Jaurlaritzak.

Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak *Ereintza* aldizkaria argitaratu du.

Bi *Gudari* sortu dira.

1937 Xalbat Arotçarenak hartu du *Eskualdunaren* zuzendaritza. Francoren alde agertu da.

Eguna, euskara hutsezko lehen egunkaria, sortu da urte hasieran. Asaldatuak Euskal Herria beregatu dutenean, ekainean, desagertu da. Gainontzeko aldizkariak ere desagertu dira.

Bilboko kartzelan *Espetxean* eskuz egindako aldizkaria sortu da.

1939 Baionan Hegoko euskaldunek *Euzko Enda* aldizkaria sortu dute.

Erbesteraturiko apaizek *Anayak* sortu dute Parisen.

Joxemiel Barandiaranek, erbestean, *Ikuska* argitaratu du. *Eusko Jakintza* ere agertu da.

- Gure Herria* desagertu da.
- 1941 Txilen Bernardo Estornésesek *Batasuna* aldizkari sortu du.
- 1942 *Batasuna* desagertu da.
Komunistek *Alkartu* atera dute Mexikon.
Iparraldean Marc Legassek eta André Ospitalek bigarren *Aintzina* sortu dute.
Parisko *Euzko Deya* desagertu da.
- 1944 *Eskualduna* desagertu eta *Herria* sortu da.
- 1945 Eusko Jaurlaritzak Parisko *Euzko Deya* berriro argitaratzeari ekin dio.
Euzko Gaztedi Indarrak bere *Azkatasuna* argitaratu du.
Frantziskotarrek *Anaitasunari* hasiera eman diote.
- 1946 *Argia* izeneko aldizkari euskara hutsezko kulturala hasi da agertzen, lehen Caracasen, gero New Yorken.
Tierra Vasca berriz argitaratu da Buenos Airesen.
Komunistek ere *Euzkadi Roja* berriro atera dute.
- 1947 Euzko Alderdi Jeltzalearen *Alderdi* hasi da.
Abertzale batzuek Donostiako Irratia hartu eta erdaraz eta euskaraz Aberri Egunerako deia egin dute.
Iparraldeko *Etchea* eta *Gazte* sortu dira.
Euzkadi Irratia berpiztu da Mugerren.
- 1948 *Argia* desagertu da.
Euzko Gaztedi hasi da agertzen Caracasen.
Gernika. Cahiers collectifs de culture humaniste hasi da agertzen.
- 1949 E.G.I.k *Eutsi!!* kaleratu du Parisen.
*Euzko Gogo*a sortu da Guatemalan, Jokin Zaitegiren eskutik.
- 1950 Euskal apaizek *Egiz* atera dute.
Lan Deya agertu da berriro Parisen.
Egan literarioa hasi da agertzen Donostian.

Ekin kulturala hasi da agertzen Mexikon, Andoni Ruiz de Azuaren eskutik.

Gure Herria berriro agertu da.

1951 Larrean *Karmel* agertu da.

1952 *Egiz* desagertu da.

Eibar aldizkaria sortu da.

1953 *Gernika* desagertu da.

Euskaltzaindiaren *Euskera* berriro agertu da.

Euzko Gogoak utzi dio argitaratzeari.

1954 *Egi billa* atera da.

Zeruko Argia berriro agertu da.

Euzko Gogoak berriro agertu da Guatemalan.

Euskaltzaleak agertu da Buenos Airesen, euskara hutsez. Urte berean desagertu da.

Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo aldizkaria sortu da Donostian.

Hasi da kaleratzen *Luberri*, nekazaritzari buruzkoa, Donostian.

Frantziako gobernuak Euzkadi Irratiko emisioak debekatu ditu.

1955 *Egi billa* desagertu da.

Irun da Ondarribiko kaputxinoen irugarren ordenako orria.

Nora? Irun'go Salletarren Nobiziaduko Illeroko Aldizkaria.

Elkartasuna aldizkaritxoak argitaratu da Arizkunen.

Artzai Deya agertu da Lekarotzen.

Luberri desagertu da.

1956 *Ondarribiko izparrak*.

Ekin erlijiosoak sortu da Loiolan, Xabier Arzalluz jesuita gaztearen ardurapean.

Yakin, gero *Jakin* bihurtuko zena, sortu dute frantziskotarrek Arantzazun.

Tierra Vasca erbestean agertu da bigarren aldiz.

Euzkadi Azkatua, Mexiko.

Euzko Izketa, Mexiko.

Euzko Gogoa Guatemalatik Baionara doa.

Buffalon KBBS irratian euskal irratsaio bati hasiera eman diote hango euskaldunek.

1957 *Ikasi* aldizkaria sortu da Baionan Euzko Ikasle Batzak.

Gure Erria sortu da Etxebarria-Barinagan.

1958 *Irrintzi*, abertzale erradikala, Caracas.

Ikasi desagertu da.

Goiz Argi hasi da agertzen Arantzazun.

Parisetik bi euskal irratsaio aireratu dira.

Radio San Sebastiánen asteroko euskal irratsaio bat emititzen da. La Voz de Guipúzcoan beste irratsaio bat euskaraz. Radio Vitorian ere Andoni Urrestarazuk euskara ikasgaiak eman ditu.

Segura Irratia sortu da.

1959 *Olerti* agertu da Santiago Onaindiaren eskutik.

Areatzako sakramentinoek *Arnas* atera dute.

Urretxuko pasionistek *Laiaketan* argitaratu dute.

Euzko Gogoa desagertu da.

Ikas sortu da Iparraldean.

Sirimiri zornozano aldizkaria sortu da.

Umeen Deia sortu da. Iparraldean *Pottolo* egin da umeentzat.

Joseba Intxausti, *Jakinen* zuzendari berria.

Iruñeako Herri Irratia, dominikoen, sortu da.

Arrate Irratia sortu da.

Bilboko Herri irratia sortu da.

1960 *Zeruko Argiak* agertzeari utzi dio.

Erein atgera dute Oñatiko agustindarrek.

- Enbata* agertzen hasi da Iparraldean.
- Pan pin* umeentzako aldizkaria plazaratu dute Iruñeako kaputxinoek.
- 1961 Loiolako Herri Irratia sortu dute jesuitek.
Radio Côte Basquen zenbait minutu aireratu dira euskaraz, udan.
- 1962 *Irrintzi* desagertu da.
Igela. Euskaldun heterodoxoen aldizkaria sortu dute Parisen Jon Mirandek eta Txomin Peillenek.
Donostiako Herri Irratia, jesuitena, sortu da.
- 1963 *Zeruko Argia* berriro agertu da.
- 1964 *Jaunaren Deia* argitaratu dute Lazkaoko beneditarrek.
- 1965 Iruñeako *Diario de Navarran Nafar izkuntzan* asteroko gehigarria agertzen hasi da.
Euzkadi Irratia berriro hasi da emititzen Venezuelatik
- 1966 Iruñean hasi da agertzen *Príncipe de Viana* aldizkaria.
Jose Antonio Retolaza abadeak Bilbon sortu du *Kili-kili* umeentzako aldizkaria.
- 1967 *Baserria* sortu da Bilbon.
- 1968 *Kili-kilik* argitaratzeari utzi dio.
- 1969 Piarres Lafittek *Herria* zuzentzeari utzi dio.
Jakinen argitalpena eten da, agintariekiko hainbat arazoren ondoren.
- 1970 Donostiara doa *Goiz Argi*, Kardaberaz taldekoek hartu, laiko bihurtu eta aro berria hasi da.
Agur sortu da Bilbon.
Pan pin desagertu da.
Olerti desagertu da.
- 1971 Bilboko *Hoja del Lunes* zenbait euskal testu agertu dira.
Berriz agertu da *Jakin*.
Bordele-Akitaniako ORTF emisorak euskarazko irratsaio bat eman du, Maite Barnetchekek egina.

- 1973 Geldiune bat *Anaitasunan*, Zelaieta zuzendariak dimititu baitu. *Agur* desagertu da. Irakurle gehienak *Goiz Argik* eskuratu ditu. *Zabal* argitararu dute Iparraldean Hegoko errefuxiatuek.
